ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA

# 2000

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA - 2000. URTEA

# ARARTEKOA

© ARARTEKO
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Paper ekologikoa.
L.G.: VI-117/2001.

ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA 2000

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** ..... 21

**I. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK** ..... 23

1. 2000 URTEAN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK ..... 25
   - **1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan eman ziren aholkuak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak** ..... 25
     - *1.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen egoerari buruzko aparteko txostena dela-eta hasitako jardueren jarraipena* ..... 25
     - *1.1.2. Sasoikako langileek Araban dituzten arazoen jarraipena* ..... 33
     - *1.1.3. Zahar etxeak kontrolatzeko jardueren jarraipena* ..... 38
     - *1.1.4. Adinekoentzako egoitzez kanpoko laguntzaren kontrol-jardueren jarraipena* ..... 42
     - *1.1.5. Babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena* ..... 46
     - *1.1.6. Delituak egin dituzten adin txikikoekiko jardueren jarraipena* 56
     - *1.1.7. Arartekoak San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekiko egindako jarduerei buruz eman dituen gomendioak betetzea* 69
     - *1.1.8. Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraren jarraipena* ..... 70
   - **1.2. EAEn buruko gaixotasunari ematen zaion arretari buruzko txosten berezia** ..... 72
   - **1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza beharrizan bereziei emandako erantzunari buruz aurki egingo den txosten monografikoa** ..... 80
   - **1.4. Minusbaliotasunen bat duten pertsonek Euskal Autonomia Erkidegoan duten gizarte integrazioari buruz aurki egingo den ikerketa monografikoa** ..... 81

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANETARAKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK ..... 83
   - **2.1. Gizarte talde, elkarte eta eragileekiko lankidetza harremanak** 83
   - **2.2. Arartekoak deitutako ikerketa bekak** ..... 90

**2.3. Eskolan erabiltzeko materialak lantzeko bekak, giza eskubideen hezkuntzari buruzko materialak** ... 90

**2.4. Euskal Herriko Unibertsitateak "Bakearen kultura: giza eskubideetarako oinarria" deritzonari buruz antolaturiko udako ikastaroen jardunaldia** ... 91

3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK ... 94

**3.1. Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XV. Jardunaldiak** ... 94

**3.2. Iberoamerikako herri defendatzaileen mintegia, Estatu eta Gobernu Buruen X. Gailur iberoamerikarrean aztertuko diren haur eta nerabeen gaien gainean** ... 98

**3.3. Iberoamerikako Herri Defendatzaileen, Mandatarien eta Giza Eskubideen Batzorde Publikoetako Buruen Federazioak egindako bosgarren Biltzarra** ... 99

**II ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO ARRETA BEREZIA** ... 105

*A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR* ... 108

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA ... 108

**1.1. Sarrera** ... 108

**1.2. Aukeratutako kexak** ... 109

A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

⇒ *Gutxieneko distantziak baso landaketen kasuan* ... 109

B) Kontsumoa

⇒ *Erabiltzaileak eta azken kontsumitzaileak* ... 110

C) Industria

⇒ *Etxeko erabilerako gasa banatzearen ondorioz sortutako arazoak* ... 111

2. GIZARTE ONGIZATEA ... 113

**2.1. Sarrera** ... 113

**2.2. Aukeratutako kexak** ... 114

A) Adin nagusikoentzako laguntza

⇒ *Udalerriaren aldaketa, adinekoen egoitza batean sartzeko laguntza eskatu eta gero* ... 114

B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Lan kontratazio baterako beharrezkoa zen minusbaliatu egiaztagiria ematerakoan atzeratu egin ziren* ... 115

C) Eduki ekonomikoko gizarte prestazioak

⇒ *Erroldatze arazoa prestazio osagarriei begira: kasu berezia* . 116

⇒ *Gizarte larritasunagatiko laguntza ordaintzeko atzerapena* ........ 117
⇒ *Garun paralisiak jotako umeei eman beharreko laguntza* .. 117
⇒ *Pertsona ezindu baten etxebizitzan dauden hesi arkitektonikoak* ........ 118
⇒ *Egitatez baina ez zuzenbidez banandutako pertsona batek zergarik gabeko pentsio baterako egin zuen eskabidea blokeaturik zegoen* ........ 119

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA ........ 120
**3.1. Sarrera** ........ 120
**3.2. Aukeratutako kexak** ........ 121
A) Elebitasuna
⇒ *Euskara osasun arloan: kasu bat* ........ 121
⇒ *Euskara erabiltzeko eskubidearen bi alderdi: erazko aintzatespena eta benetakoa* ........ 122
B) Kultura
⇒ *Babestutako alderdiak eta ikuskizunak telebistaz ematea* ... 123

4. HEZKUNTZA ........ 125
**4.1. Sarrera** ........ 125
**4.2. Aukeratutako kexak** ........ 128
A) Eskubideak eta betebeharrak
⇒ *Ikastetxeetan matrikulatzeko kanpainen sustapena. Norberaren datuak babestea* ........ 128
B) Haur hezkuntza
⇒ *Ikasleen onarpena* ........ 130
⇒ *Ikasleen onarpena* ........ 131
C) Unibertsitateko irakaskuntza
⇒ *Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. Azterketetarako epaimahaien osaketa, 1. deialditik 4.era* ........ 132
⇒ *Unibertsitateko Masterra, Enpresako Prebentzio Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikaria izateko. Erdi mailako titulatuen sarbidea* ........ 134
⇒ *UPV/EHU: pedagogi gaitasun ikastaroen eskaintza falta* .... 136
D) Bestelakoak
⇒ *Heziketa bereziaren beharrizanak artatzea* ........ 137
⇒ *Titulazioen homologazioa. Somorrostro prestakuntza zentroa* ........ 138

5. FUNTZIO PUBLIKOA ........ 139
**5.1. Sarrera** ........ 139
**5.2. Aukeratutako kexak** ........ 143
A) Eskubideak eta askatasunak
⇒ *Adinekoen egoitzan langileak birbanatu edo berrantolatzea* 143

B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Herritarrek, administrazio publikoekin harremanak dituztenean, eskubidea dute agintariak eta administrazioen menpeko langileak identifikatzeko* ............ 145
⇒ *Hautagai batek osasun-arazoak alegatu zituenez gero, proba psikoteknikoak berriz egin ziren* ............ 148
C) Irakaskuntzako funtzio publikoa
⇒ *Jakina denez, unibertsitateaz besteko sare publikoan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide-heziketarako institutu zehatzak. Bada, institutu horietako irakasleak birbanatzeko prozesua burutu da* ............ 151
⇒ *Bitarteko funtzionarioak. Eszedentzia eskatzea, seme-alabak edo senideak zaintzeko* ............ 156
⇒ *Irakasle-funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketa. Destinoko kodeak zehazteko orduan, errakuntzak izan dira* ............ 159
⇒ *Gurasoek baimena lortzea, adopzio edo harrera kasuetan* .. 162
D) Funtzio publiko orokorra
⇒ *Enplegurako eskaintza publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean* ............ 163
⇒ *Herri Kontuen Euskal Epaitegia* ............ 167

6. OGASUNA ............ 173

**6.1. Sarrera** ............ 173

**6.2. Aukeratutako kexak** ............ 176
A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Balioei buruzko egiaztapena jakinarazten denean, subjektu pasiboari ere jakinarazpen hori luzatu behar zaio* ............ 176
⇒ *Tributu-betebeharrak bankuan helbideratzeagatik, arazoak sortu ziren* ............ 177
B) Foru zergak – PFEZ
⇒ *Zergaren oinarria zehaztea, PFEZ izeneko horretan* ............ 178
C) Foru zergak – BEZ
⇒ *Tributuen arloko arau-haustea dela eta, zehapena ezarri eta zehapen hori mailakatzea* ............ 180
D) Udal zergak
⇒ *Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) ordaintzeko eskatu zen, automobil baten baxari buruzko izapideak egiteko* ............ 181
⇒ *Ibilgailu misto, furgoi eta furgoneten tributazioa, TMIZ izeneko horretan* ............ 182
⇒ *Zergagaia gertatzea, Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan* ............ 182
⇒ *Gizarte-etxebizitzen ondoriozko hobariak, OHZ izeneko hori ordaintzeko orduan* ............ 183
⇒ *Udaleko ordenantza foru-arauarekin bat ez etortzea* ............ 184

E) Udaleko prezio publikoak
⇒ *Prezio publikoen zenbatekoa, espaloietako pasabideak eta bideak direla eta* ... 185
F) Udal tasak
⇒ *Tasa baten zergagaia, hirigintza arloko txostenak igortzeagatik* ... 185

7. HERRIZAINGOA ... 187
**7.1. Sarrera** ... 187
**7.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ... 189
A) Eskubideak eta askatasunak
⇒ *Ertzaintzaren esku-hartzea Hondarribiko Alardean* ... 189
B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Garraio arloan zehapen espedienteak tramitatzean, dagokion organoak haste-ebazpena hartu behar du* ... 191
C) Ordena publikoa
⇒ *Poliziaren atxiloketa bat luzatzea* ... 194
⇒ *Adingabeko baten atxiloketa irregularra* ... 196
D) Herritarren segurtasuna
⇒ *Poliziaren atxiloketetan gorputzaren miaketa egitea* ... 198
⇒ *Poliziaren atxiloketan tratu txarrak* ... 199
E) Trafikoa
⇒ *Barakaldon aparkatzea arautzen duen udal ordenantzaren ezarpenetariko batzuk antolamendu juridikoaren aurkakoak dira* ... 201
⇒ *Bizikletak, patinak, monopatinak eta antzeko tresnak ezin dira ibili oinezkoentzako guneetan zehar* ... 203
⇒ *Udaltzaingoen zerbitzuen betebeharrak, ohiko aparkatze desegokiak saihesteko orduan* ... 205

8. JUSTIZIA ... 209
**8.1. Sarrera** ... 209
**8.2. Aukeratutako kexak** ... 213
A) Abokatu eta prokuradoreen elkarteak
⇒ *Abokatuen elkarteari kexa aurkeztu zitzaion eta, hori ebazteko orduan, atzerapena gertatu zen* ... 213
⇒ *Abokatuen elkarteak ebazpena eman zuen, baina horren zioak adierazi gabe* ... 214
B) Justizia administrazioaren funtzionamendua
⇒ *Epai-zitazioa jakinarazteko, ez zen askatasunik izan* ... 216
⇒ *Ezkontideen arteko banantzean, neurri zehatzak hartu eta gero, prozedura hasi zen, neurri horiek aldarazteko. Bada, prozedura hori ebazteko orduan, atzerapena gertatu zen* ... 217

9. INGURUMENA ... 219
**9.1. Sarrera** ... 219

**9.2. Aukeratutako kexak** ... 221
A) Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak
⇒ *Legez kanpoko tailer-jarduerak eragindako zarata* ... 221
⇒ *Donostiako alde zaharreko bizilagunak soinu-kutsadura dela eta kexu ziren* ... 222
B) Ingurumenaren bestelako arazoak
⇒ *Legeztatzeko tramitazioan dagoen jarduera batek sortutako egurats eta zarata kutsadura* ... 225
C) Hondakinak eta isurkiak
⇒ *Asuako ibaiaren osasun eta ingurumen hondamenari darion egoera osasungaitza* ... 227

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK ... 229
**10.1. Sarrera** ... 229
**10.2. Aukeratutako kexak** ... 231
A) Eskuragarritasuna
⇒ *Garraio publikoen eskuragarritasuna* ... 231
B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Errugabetasunaren ustezkotasunari eta zantzuen proba aplikatzeari buruz, zehapen zuzenbide administratiboaren arloan* ... 232
C) Beste zerbitzu publiko batzuk
⇒ *Ez dute telebistako seinalerik jasotzen* ... 235
D) Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna
⇒ *Administrazioaren erantzukizuna, herri zerbitzua ematen zuen enpresa batek hiritar bati egindako kalteen ondorioz* . 236
⇒ *Herri zerbitzuek eragindako kalteen ondoriozko erreklamazioa egiten duenak frogak aurkeztu beharra dauka* ... 239
E) Tokiko zerbitzu publikoak
⇒ *Pasabide iraunkorretarako baimenaren mugak* ... 240
⇒ *Ura udal saretik etxebizitzetara eramateko hartuneen instalazioak sorturiko arazoak* ... 241

11. OSASUNA ... 243
**11.1. Sarrera** ... 243
**11.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ... 245
A) Osasun laguntza
⇒ *Bigarren iritzi bat edukitzeko eskubidearen alde bat* ... 245
B) Erabiltzaileen eskubideak
⇒ *Osasun garraiorako eskubidea* ... 246
C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Osasunaren arloan intimitaterako dagoen eskubidea* ... 247
D) Bestelakoak
⇒ *Larrialdi zerbitzuaren arreta* ... 247
E) Buruko osasuna
⇒ *Tratamendua aplikatzeko baimena* ... 248

12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA ... 250

**12.1. Sarrera** ... 250

**12.2. Aukeratutako kexak** ... 250

A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Enpleguaren aldeko programa integrala. Laguntzak* ... 250

B) Bestelakoak

⇒ *Hobetuz fundazioak kudeaturiko heziketa egintza eskuratzeko, sektore pribatuko langilea izan beharra* ... 252

13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA ... 254

**13.1. Sarrera** ... 254

**13.2. Aukeratutako kexak** ... 257

A) Hirigintza diziplina eta aurria

⇒ *Balkoia ixteko hirigintza lizentzia emateari buruz* ... 257

B) Hirigintza antolamendua

⇒ *Egoitza erabileretarako baimena, itsas-lehorreko jabaria babesteko zorraren barruan* ... 257

C) Etxebizitza

⇒ *Minusbaliatuen taldeak gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzeko zailtasuna, Foru Ogasunetik lortzen duten errenta hobariarengatik* ... 259

⇒ *Etxebizitzak birgaitzeko laguntzen kontrola* ... 261

⇒ *Gizarte etxebizitzetan dauden akatsak* ... 262

⇒ *Hirigintza kudeaketan berriro ostatua lortzeko dagoen eskubidea* ... 262

⇒ *Babes ofizialeko etxebizitza bat epea iritsi baino lehen kalifikaziotik kanpo ateratzeko aukerari buruz* ... 263

14. ZENBAIT KUDEAKETA ... 265

**14.1. Sarrera** ... 265

**14.2. Aukeratutako kexak** ... 265

⇒ *Administrazioei eskabideak egiteko formularioetan jaso beharreko datu pertsonalak* ... 265

*B) TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA* ... 267

1. EMAKUMEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA ... 267

2. ZAHARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA ... 274

3. GAZTEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA ... 275

4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA ... 281

5. MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA ... 283

**III. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN** .................... 289

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK ................................................. 291

2. ARLOEN ARABERAKO ESTATISTIKA ........................................ 294

3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ESTATISTIKA .......................... 298
   A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkezturiko kexak ........................ 299
   B) Foru administrazioen aurka aurkezturiko kexak ....................... 301
   C) Toki administrazioaren aurka aurkezturiko kexak ..................... 302
   D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazioen aurka aurkezturiko kexak ........................................................................ 305
   E) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Administrazioko administrazio zerbitzuen aurkako kexak ............................................ 306

4. LURRALDE MAILAKO ESTATISTIKA (KEXEN LURRALDE BANAKETA) .. 306

5. PROZEDURA MAILAKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA) .................. 309

6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMAZIOA EGITEKO MODUA) .......................................................................... 317

7. HARRERA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITALDIAK ETA TELEFONOAREN BIDEZKO KONTSULTAK) ....................................... 318
   A) Harrera zuzeneko Gasteizeko bulegoa .................................... 322
   B) Harrera zuzeneko Donostiako bulegoa .................................... 323
   C) Harrera zuzeneko Bilboko bulegoa ......................................... 325

8. OFIZIOZ EGINDAKO JARDUERAK .................................................. 326

9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEAK JASOTAKO BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK) .......... 327

**IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA** .................................... 331

1. SARRERA ETA OHARRAK ............................................................ 333

2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2000. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA .......................................................................... 336
   A) Eusko Jaurlaritza ................................................................. 336
   B) Foru aldundiak .................................................................... 336
   C) Udalak ............................................................................... 338
   D) Eusko Legebiltzarra ............................................................. 341
   E) Beste erakunde publiko batzuk ............................................... 341

3. ARARTEKOAK 2000. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA ............................................... 342
   A) Eusko Jaurlaritza ................................................................. 342
   B) Foru aldundiak .................................................................... 344

C) Udalak ... 345
D) Beste erakunde publiko batzuk ... 350

**V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN** ... 351

1. ONARTURIKO GOMENDIOAK ... 356
A) Eusko Legebiltzarra ... 356
B) Eusko Jaurlaritza ... 356
C) Foru administrazioa ... 359
D) Toki administrazioa ... 360

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ... 365
A) Eusko Jaurlaritza ... 365
B) Foru administrazioa ... 365
C) Toki administrazioa ... 366
D) Beste toki erakunde batzuk ... 369

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ... 370
A) Eusko Jaurlaritza ... 370
B) Foru administrazioa ... 371
C) Toki administrazioa ... 371

4. BERRIKUSI DIREN GOMENDIOAK ... 376
A) Toki administrazioa ... 376

5. GAIA EPAITEGIETARA ERAMAN DELAKO ETEN DIREN GOMENDIOAK 377
A) Eusko Jaurlaritza ... 377
B) Toki administrazioa ... 377

6. BESTE ARRAZOIREN BATENGATIK ETENDAKO GOMENDIOAK ... 379
A) Eusko Jaurlaritza ... 379
B) Foru administrazioa ... 379
C) Beste toki erakunde batzuk ... 379

**VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK** ... 381

1. HEZKUNTZA ITUNEI DARIZKIEN BETEBEHARRAK HOBETO KONTROLATZEKO BEHARRIZANA ... 383
2. ZERGA ADMINISTRAZIOAK INTERESAK ORDAINTZEA, ZERGADUNEI EGIN BEHARREKO ITZULKETETAN ... 388
3. ASTEBURUKO ATXILOKETAK ETA ESPETXEKO ZIGORRAK BETETZEKO ERA ALTERNATIBOAK: EAE-REN ERANTZUKIZUNAK ... 396
4. UDAL ZERBITZUEK TXOKO ETA GASTRONOMI ELKARTEETAKO FUNTZIONAMENDUA JAGOTEKO ETA KONTROLATZEKO BETE BEHARREKO ZEREGINAK ... 406

5. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ZUZENEAN ARDURATU BEHAR DUTE ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUARI DARIZKION KALTEEZ, BETIERE ASEGURU ETXEEKIN SINATURIKO ASEGURU KONTRATU PRIBATUAK ALDE BATERA UTZIRIK .............................. 411

6. SASOIKAKO BEHARGINEN ALOJAMENDUETAKO BALDINTZAK ARAUTZEA .............................. 415

7. EUSKAL ERABILTZAILEEK OSASUN GARRAIORAKO DUTEN ESKUBIDEAREN APLIKAZIOA, BESTE ERKIDEGO BATEAN DAUDENEAN ... 428

8. KONSTITUZIO EGINBEHARRA BETETZEA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ORDUAN, FAMILIA BABESTEKO NEURRIAK HARTZEA .............................. 434

**VII. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK** ......... 437

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA .............................. 440

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA HERRI ASKATASUNAK .............................. 441
   - **2.1. Bizitzarako eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea** ... 441
   - **2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak** .............................. 442
   - **2.3. Intimitaterako eskubidea** .............................. 442
   - **2.4. Komunikabideetara iristeko eskubidea** .............................. 443
   - **2.5. Berdintasun printzipioa funtzio publikorako irismenean** ....... 443
   - **2.6. Tutoretza judizial eraginkorrerako eskubidea. Ustezko errugabetasunaren printzipioa** .............................. 444
   - **2.7. Askatasunik gabeko pertsonen eskubideak** .............................. 445
   - **2.8. Hezkuntzarako eskubidea** .............................. 445

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .............................. 447
   - **3.1. Zerga sistema justua. Berdintasun, progresibitate eta legezkotasun printzipioak** .............................. 447
   - **3.2. Jabetza pribaturako eskubidea** .............................. 448

4. GIZARTE ESKUBIDEAK .............................. 449
   - **4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa** ......... 449
   - **4.2. Osasun eskubidea** .............................. 449
   - **4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea** .............................. 451
   - **4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea** .............................. 451
   - **4.5. Fisikoki, sentimenez eta psikikoki urrituak direnen eskubideak (urritasun fisiko, sentimenezko eta psikikoak dituzten pertsonen eskubideak)** .............................. 452

**4.6. Adinekoen eskubideak** .......... 453

5. LABURBILKETA .......... 454

**ERANSKINAK**

- *I. ERANSKINA:* “Gure erakundeek bakearen kulturari egindako ekarpena” izenburuko ponentzia .......... 457 (Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)
- *II. ERANSKINA*: “Autonomia erkidegoen eskumenak eta erantzukizunak zigor alternatiboak aplikatu eta erregimen irekia betetzeko orduan” izenburuko komunikazioa .......... 469 (Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)
- *III. ERANSKINA*: “Administrazioen ondare erantzukizunaren egintza egikaritzeko zenbait arazo” izenburuko komunikazioa .......... 477 (Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)
- *IV. ERANSKINA*: “Ediktu jakinarazpena zigor zuzenbide administratiboaren barruan eta babes judizial eraginkorra izateko oinarrizko eskubidea, betiere 4/1999 Legeak aldarazitako 30/1992 Legearen 59. artikuluaren aldarazpenari dagokionez” izenburuko komunikazioa .......... 483 (Herriaren Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)
- *V. ERANSKINA:* “Ararteko erakundeak atzerritarren eskubideak babestu eta sustatzeko bete behar duen lana” izenburuko komunikazioa (Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren V. Urteko Biltzarra) .......... 487
- *VI. ERANSKINA:* GRAFIKOAK
  - 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregulartasuna administrazioaren jokaeran 2000n bukatutako kexetan .......... 493
  - 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra .......... 493
  - 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2000) 494
  - 4. Diagrama: 2000n jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren 494
  - 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera 495
  - 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera .......... 495
  - 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .......... 496
  - 8. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera .......... 496
  - 9. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .......... 497
  - 10. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .. 497
  - 11. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2000) ... 498

- 12. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2000) ........ 498
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa kexa-egileen ezaugarrien arabera .. 499
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera .... 499
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera ....... 499
- 16-17. Diagramak: 2000n harrera zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak) ........ 500
- 18. Diagrama: Banaketa adin taldeen arabera ........ 500
- 19. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak ........ 501
- 20. Diagrama: Harrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa ........ 501
- 21. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2000). Banaketa alorrez alor ............... 502
- 22. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2000). Eragindako administrazioen araberako banaketa ........ 502
- 23-28. Diagramak: Kexa-egileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak) ........ 503
- 29-30. Diagramak: Arazoa "ez da konpondu" edo "nahiko gaizki konpondu da" dioten kexa egileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa ........ 506

**GAIEN AURKIBIDEA** ........ 507

## AURKEZPENA

Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko diodan txosten honetan labur bildurik azaltzen dira Ararteko erakundeak 2000. urtean egindako jarduerak.

Legearen agindua bete baino zerbait gehiago egiten dugu urteko txostena aurkeztean. Urtebeteko jardueraren berri ematen dugu idatziz, ni neu eskuorde jarri nauen Legebiltzarrari zuzendurik lehenengo eta behin, eta herritarrei eta Arartekoaren jarduerak ukitu dituen administrazio guztiei, gero. Horrela, azken batean, herritarren eskubideak bermatzen lagundu nahi dugu.

Txostenean, legearen agindua betez, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideen babesari buruzko balorazio orokorra egin da. Horrez gainera, jardueren datu kuantitatiboak eta espedienterik garrantzitsuenen azalpenak bildu dira txostenean, eta, eskubideak sustatzeko asmoarekin, hainbat iradokizun eta gomendio jaso dira. Gomendio horietan arauak eta Administrazioaren jokabideak alda daitezela proposatzen da, haren jarduna hobetzearren.

Bestalde, txostenean agerian jartzen da nola eskubideen urratze asko Arartekoaren bitartez konpondu ahal izan diren, dela berak emandako gomendioak onartu direlako, dela arazoa ezagutzean erantzun positiboa eman zaiolako.

Administrazioaren arauz kanpoko jokabideei buruz egin diren espedienteetatik, ia-ia % 90ean Administrazioak zuzendu egin ditu bere akatsak, eta niretzat oso pozgarria da datu horren berri eman ahal izatea.

Ararteko erakundeak ez du beste ahalmenik arrazoiaren indarra baino, eta horrelako emaitzak lortu izanak argi erakusten dio bide horretan gero eta sendoago dabilela. Herritarrak ere Arartekoaren hurbiltasunaz eta eraginkortasunaz ohartzen dira, euren eskubideak ukatzen zaizkienean haren bitartez berreskuratu ahal dituztela ikustean.

Batzuetan Administrazioak ez ditu onartu Arartekoaren gomendioak, edo ez du informaziorik eman, eskatu zaion arren. Horrelako erantzunak txostenean azaltzen dira, bakoitza bere alorreko kapituluan. Administrazioaren jarrera horrek, sarritan, Administrazioaren akatsen ondorioak jasan behar dituzten herritarrenganako begirunerik eza adierazten du.

Arartekoaren jarduerarik interesgarrienetako bat, nire ustez, aparteko txostenak egitea da. Batez ere, gizarteko talde behartsuenen egoeraren berri ematen da txosten horietan, eta administrazioek haien beharrizanak betetzeko zer egiten duten aztertzen da.

2000. urtean aparteko txostena egin zen, eta bai Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ere, EAEko buru-gaixoentzako laguntza komunitarioari buruz.

Aurten aparteko bi txosten garrantzitsu egiten ari dira. Lehenengo txostenean, EAEko hezkuntza-beharrizan bereziak nola betetzen diren aztertzen ari da. Bigarrenaren gaia EAEko minusbaliatuen gizarteratzea da.

Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna niretzat beti izan da ardura handiko gaia, eta horregatik apustu sendoa egin dut hizkuntza erabiltzean bi sexuen arteko bereizkeriarik egin ez dadin. Hala eta guztiz ere, txosten honen gaztelaniazko testuan taldeak genero maskulinoaz izendatu behar izan dira nik nahi nukeen baino askoz sarriago, gaztelanian maskulinoa erabiltzen delako generiko gisa.

Ildo horretan, Ararteko erakundea arautzen duen legeak izen bera ematen die erakundeari eta erakundeburuari. Beraz, batzuetan nekez bereizten da Ararteko hitza zein esanguraz erabiltzen ari den.

Azken batean, emakumezkoen arazo bereziak agerian jarri nahi izan ditut eta erakundearen eguneroko jardunean sexuaren ikuspegia aintzakotzat har dadin saiatu naiz.

Txostenean aztergai den 2000. urte hau milurtekoen muga izateak badu esangura berezirik. Horregatik, Nazio Batuek Bakearen Kulturaren Nazioarteko Urte izendatu zuten.

Gure erakundeak ere gogoeta egin nahi izan du bakearen kulturaz, bai Herriaren Defendatzaileen XV. Jardunaldietan eta bai UPV/EHUren Udako Ikastaroetako jardunaldi batean, Federico Mayor Zaragoza eta Vicenç Fisas Armengol irakasleen eskutik.

Zoritxarrez, aspaldi honetan ez da loratu bakearen kultura, alderantziz, indarkeria, itsukeria eta gogorkeriaren kultura nagusitu zaio, bere tresnarik ankerrena ere erabiliz, giza hilketa, hain zuzen; zuzentasunaren eta giza eskubideen kontrako mesprezuaren agerpenik ikaragarriena.

2000. urtea, bakearen kulturaren urtea, doluz jantzita joan zaigu, ETAk 22 pertsona hil dituelako. Euskal herritar askok estortsioa eta erasoak jasan dituzte euren etxean, murrizturik ikusi dute euren adierazpen-askatasuna, euren segurtasuna kolokan. Horregatik, min egiten badigu ere, gogora ekarri behar dugu zertan datzan bakearen kultura. Yamasukron 1989an egin zen "Bakea Jendearen Gogoan" Nazioarteko Biltzarrean adierazi zen bezala, hauexek dira bakearen kulturaren oinarriak: *"bizia, askatasuna, justizia, elkartasuna, tolerantzia, giza eskubideak eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna errespetatu egin behar direla dioten balio unibertsalak"*.

2000. urtea Xabier Markiegiren agintaldiaren azken urtea ere izan da, irailaren 10ean utzi baitzion Ararteko izateari. Txosten honetan aipatzen diren jardueretariko asko haren zuzendaritzapean burutu dira.

Esker ona agertu behar diot urte hauetan egin duen lanagatik, Ararteko erakundea sendotzen laguntzeagatik. Benetan zorionekoa naiz beraren ondoan eta Ararteko erakundeko gainerako lankideen ondoan jardun ahal izan dudalako, herritarren eskubideak defendatzeko eginkizun zoragarri honetan. Bide beretik jarraitzen ahaleginduko naiz eta Ararteko erakundearen esku dauden bide guzti-guztiak jorratuko ditut herritarren eskubideak bermatzearren.

2001eko martxoa
JARDUNEKO ARARTEKOA
*Mercedes Agúndez Basterra*

# I. ATALA

# ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK

# 1. 2000 URTEAN ZEHAR BURUTUTAKO EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEN JARRAIPENERAKO OFIZIOZKO JARDUERAK

## 1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EMAN ZIREN AHOLKUAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

### 1.1.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESPETXEEN EGOERARI BURUZKO APARTEKO TXOSTENA DELA-ETA HASITAKO JARDUEREN JARRAIPENA

1996ko martxoan, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen Ararteko erakundeak Euskadiko espetxeei buruzko aparteko txostena. Txosten horretan, gure autonomia erkidegoko hiru espetxetan dauden arazoak aztertu ziren, eta preso dauden pertsonen egoera hobetzeko aholku batzuk plazaratu ziren. Ondoren, urte horri dagokion urteko txosten arruntean, argibide joriak eskaini ziren Arartekok honako eta hartako administrazioetan egindako urratsen gainean, baita txostenak esparru jakin batzuetan piztu zuen eztabaidaren gainean ere (1996ko txostenaren I. kap., 2.1.2. atala).

Hurrengo urteko txostenean, txosten hartan deskribaturiko egoera hobetzeko asmoz, erakunde honek jorraturiko ekintzei buruzko balioztapena egin zen. Hainbat alde onuragarri nabarmendu ziren (preso kopurua murriztea, osasun arloan eragindako hobekuntzak, mantentze-lanak...), eta, batez ere, espetxe bakoitzeko (Basauri, Martutene, Langraitz) datu gaurkotuak plazaratu ziren, espetxeetako zuzendariek taxuturiko txostenetan oinarriturik; presoei laguntzeko elkarteek adierazitako kezkabideei buruzko datuak, elkarte horiekiko bileretan azaldutakoaren arabera; eta Osasun Sailak 1997 urtean emandako sanitate-prestazioei buruz taxuturiko txostenaren datuak (1997ko txostenaren I. kap., 2.1.1. atala).

1998ko txostenak jaso zuen urte hartan hiru espetxeetako zuzendariek emandako informazioaren laburpena, esku-hartze arloetan sailkatuta (hezkuntza, zereginetako trebakuntza, osasun-urgazpena...) eta, halaber, presoei laguntzeko elkarteek berriro ere aditzera eman zituzten kezkatzeko arrazoiak. Gainera, zazpi alderdi zehatz nabarmentzekoak izan ziren, berez garrantzizkoak zirelako edo Arartekok urte hartan berebiziko esku-hartzea izan zuelako horietan (1998ko txostenaren I. kap., 1.1.1. atala).

1999an, Arartekok egindako artapen-ekintza behinenek nabarmendutako zazpi alderdi horietatik hiruri heldu zieten (1999ko txostenaren 1.1.1. atala):

- Xiringak elkarri trukatzeko programaren luzapena.
- Presoentzako psikiatria laguntza.
- Txagorritxu eta Basurtuko zainketa bereziko ospitale unitateak.

Iazko txostenean nabarmendutako hiru gaiek antzeko ezaugarriak dituzte: presoen osasun egoerari eta sanitate laguntzari eragiten diete, eta Espetxe Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetza esparruaren baitakoak dira. Azken ezaugarri horri esker, Arartekok zuzeneko esku-hartzea izan dezake, hau bezain garrantzi handiko beste gai batzuetan bideraezina izanagatik ere.

Ezin dugu ahaztu gure autonomia erkidegoak ez dituela bereganatu espetxe arloko eskumena osatzen duten eginkizunak, eta, beraz, hiru espetxe horiek Barne Ministerioaren mendekoak direla. Arartekok esku-hartzea izan du delako ministerio horren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen markoa -eta osasun arloko berariazko beste hitzarmen bat- dagoelako; hala ere, esku-hartzea lankidetzaren xede diren gaietara zedarritzen da. Egoera horrek izugarri baldintzatzen ditu artapena egiteko benetako aukerak, eta ildo horretan ulertu behar dira, hein handi batean, bai jorraturiko gaiak bai erabili den metodologia. Izan ere, urte hauetan guztietan egindako artapena espetxeetako zuzendaritzekiko eta presoei laguntzeko elkarteekiko harreman onari esker gauzatu da. Gainera, azkenekin aldizkako truke-bilerak egin dira, eta lankidetza foroetako batean parte hartu dute: xiringak elkarri trukatzeko programan artapen batzordeetan. Nolanahi ere, zeharkako artapena izango da beti, gaietan murritza eta informazioa biltzeko tresna gutxi dituena, espetxeetarako bisitaldiak edo bertan lan egin edo preso dauden pertsonekiko elkarrizketak ezin balia daitezke eta.

Inguruabar horiek kontuan hartuta, zail samarra gertatzen zaio Ararteko den erakundeari jorraturiko gaietan aurrera egitea, edota artapen handiagoari lotzea. Horrela, aurten gauzatu diren jarduerek hasitako ekimenei eutsi diete (elkarte eta zuzendaritzekiko hartu-emanak, ospitale unitateetarako bisitaldiak, xiringak elkarri trukatzeko programa artatzeko batzordeak), presoengandik jasotako kexei erantzun diete eta, lehentasunez, zigorra araubide irekian betetzeko aukerak eta espetxez besteko zehapenak ezartzeko bideak jorratu dituzte.

Jarraian, aipaturiko auzien inguruko alderdi nabarmen batzuk adieraziko ditugu, labur-zurrean.

- Espetxe arloko eginkizunen transferentzia eta Barne Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenei dagokienez, Justizia Sailak helarazitako informazioaren arabera (hitzarmen markoa eta osasun arloko berariazko hitzarmena), ez da urrats esanguratsurik egin, eta, gainera, ez dirudi harreman errazik dagoenik eta ez omen dira erabiltzen lankidetzarako beharrezko bideak.
- Aurten jasotako kexa-idazkietan aurreko urteetako auziak berak mahairatzen dira, Justizia arloko hitzaurrean azaldu bezala. Presoen ingurune-urruntzeak ere lehengoan dirau, eta kalte handia ekartzen die horrek familiei. Erakunde hau behin eta berriro aritu da arazo horien gainean, baita gizarte eragile eta ordezkari batzuk ere, eta harremana landu dugu aurten horietako batzuekin.
- Gure erkidegoan dauden espetxeetan xiringak elkarri trukatzeko programei dagokienez, egungo egoera gisa honetan laburbil daiteke:

- Basauriko espetxea: 1997an proba moduan hasitako Xiringak Trukatzeko Programa (XTP) ez da eten. Programa balioetsi eta argitalpen xume baten bidez zabaldu da, beste egitasmo batzuen oinarri izateko asmotan.
- Martuteneko espetxea: egitasmoa taxutu eta artapen batzordea eratu ondoren, Xiringak Trukatzeko Programa 2000ko otsailean jarri zen abian espetxe horretan.
- Langraitzeko espetxea: espetxetik bertatik 2000ko uztailaren 13an jasotako informazioaren arabera, hango Zuzendaritza Kontseilua *"XTP espetxearen berezko ezaugarrietara egokitzeko azterlana eta kudeaketak lantzen ari zen, ekitaldia amaitu baino lehen, bertako presoei eskaintzeko baliabide bilakatzearren"*. Bi hilabete lehenago, espetxe horretako presoen talde batek kexa aurkeztu zuen Espetxe Zaintzarako Auzitegiaren aurrean, programa ezar zedila eskatzeko. Txosten hau idatzitakoan, programa abian jartzeke dago, baina hura taxutu eta aplikatzeko zenbait ekintza gauzatu dira. Horrela, 2001eko otsailaren 15ean, baterako bilera egin zuten auzi horretan esku hartzen duten alde guztiek, prozesuari hasiera emateko. Erakunde honek berriro ere eskatzen du programa lehenbailehen ezar dadila, eta zinez espero du egindako urratsek bidea zabal dezatela epe laburrean.

- Presoei emandako psikiatria laguntza eta zainketa bereziko ospitale unitateen egoerari dagokienez, 1999ko txostenaren 1.1.1. atalean jasotakoaren aipu egin gura dugu; ez dugu beste ekintzaren edo aurrerapen esanguratsuren berririk izan.
- Espetxe arloan egun dagoen eskumen-banaketa alde batera utzita, Arartekok beharrezko, premiazko eta bideragarritzat jotzen du gure autonomia erkidegoan legeriak arautzen dituen araubide irekiko aukerak garatu eta espetxez besteko zehapenak aplikatzea. Lehentasun horri lotzen zaio txosten horretan bertan emandako irizpena (VI. kapitulua, Irizpen Orokorrei buruzkoa).

Espetxeen eremuan eta gizarteratze arloan lan egin ohi duten taldeekin egindako bilera batean, laguntza elkarte batek jakinarazi zizkion Arartekori Langraitzen espetxeratutako batzuek salaturiko hutsaldi batzuk. Espetxe horretako gabezia eta hutsaldiak bost multzotan sailkatu zituzten, honako hauetan, hain zuzen ere:

- instalazioak (ziegetako ekipamendua, dutxen kokalekua eta ordutegia, *vis a vis* bisitaldiak egiteko tokien egoera...);
- Baliabide materialak (hileko higiene-erloaren eskasia; burko, estalki eta izara falta......);
- Janari hutsaldiak;
- Tratua eta tratamendua (prebentiboak eta zigortuak nahasian; atzerapenak tramiteak egiteko; medikuntza arreta askieza; lantegietara sartzeko irizpideak...);
- Elkarteek behar bezala lan egiteko oztopoak.

Goian aipaturiko eskumen esparruari jarraiki, Arartekok agerpide horiek guztiak helarazi zizkion Herriaren Defendatzaileari, otsailaren 15ean. Erakunde horretako ordezkari batzuk espetxera joan ziren, eta geroago, maiatzaren 30ean, oharrak eta bisitaldiaren emaitza bidali zizkigun. Gainera, Espetxe Erakundeen Zuzendaritzarenera jo zuen, eta horren erantzuna jaso ostean, guri igorri zigun, azaroaren 10ean.

Herriaren Defendatzailearen idazkia, espetxe Erakundeen zuzendariaren erantzuna eta espetxeratuen idazkia oinarri harturik, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Herriaren Defendatzailearen ordezkariek bisita egin zuten egunean, 565 espetxeratu zeuden, eta horietariko 74 emakumeak ziren. Atzerriko herritar asko zegoen presoen artean.
- Aurreko garaien aldean, presoen kopurua beheratu denez, preso gutxiago dago modulu bakoitzeko. Hala ere, modulu-departamentu gutxi daude erabiltzeko, eta, hortaz, prebentiboak eta zigortuak elkarrekin daude. Egoeren anabasa bereziki deigarria 5. moduluan (lekualdatzeko presoak, asteburuko atzipenaldia dutenak, lehen gradukoak, iritsi berriak).
- Espetxeko instalazioei dagokienez, hainbat hutsaldi antzeman dira, hala nola:
  - Egoera kaskarreko estaldurak: ordeztu behar dira, maiz gertatzen baitira itoginak;
  - Mantentzea oso eskasa da eta 5. Modulua guztiz narriatuta dago;
  - Komunak sarritan butxatzen dira, txarto erabiltzen omen direlako;
  - Ez da kristalik leiho eta manpara batzuetan;
  - Dutxak txarto kokaturik daude modulu gehienetan;
  - Bisitaldiak egiteko gela gutxi daude;
  - Lagunarteko komunikazioetarako gelak txarto kokaturik daude eta oso txikiak dira;
  - Zigor-gela batzuetan ez da mahairik, apalategirik edo esetokirik;
  - Emakumeen departamentuko eguneko gelako altzariak oso narriatuta daude (Espetxe Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak bidalitako idazkiaren arabera, altzari horiek ordeztu dira dagoeneko).

- Zenbaitetan, hobekuntza-lanak aipatzen dira; horietako batzuk aurreikusi eta beste batzuk egin dira, zerbitzu batzuetan, besteak beste:
  - Mintzalekuak konpondu eta barruko telefonia sistema ezarri da, entzutekotan, ahots ozenaz aritu behar ez izateko;
  - Familiako komunikazioetarako gela pintatu eta konpondu da;
  - Lagunarteko komunikazioetarako gelak pintatu, alikatatu eta altzari berriak jarri dira;
  - Erizaintzako goiko solairuko dutxak konpondu dira;
  - Hainbat obra egin dira emakumeen departamentuan eta araubide irekikoan;
  - Obrako apalategiak jarri dira zigor-gela batzuetan;
  - Beheko solairuko teilatuak ekitaldi honetan ordeztuko dira, eta gainerakoak hurrengo urteetan;
  - Autonomiako poliziak aldagelak dituen erakinaren itoginak konpondu dira.

- Lan egiteko aukerei dagokienez, Herriaren Defendatzailearen idazkiak honako hau dio:

  *"Espetxeak 140 lanpostu balia ditzake, ekoizpen lantegietan eta gainerakoak barne zerbitzuetan.*

  *Erabilgarri diren 4 industri pabilioiak etxetresnen zirkuitu elektrikoak egiteko baliatzen dira beren beregi, enpresa pribatu baten kontura. Orain dela gutxi*

*kableatu lantegia ezarri da emakumeentzat, eta 7 presok egiten dute lan. Hala ere, emakume batzuek esan ziguten zeregin hori oso zaila eta neketsua dela eta denbora guztian zutik egon behar izaten ez den besteren bat nahiago luketela.*
*Leku falta dela eta, espetxeak ezin du bere gain hartu lan gehiagorik, eskariari behar bezala erantzuteko beste 25 lanpostu beharko liratekeela uste baitute zuzendaritzakoek.*
*Espetxean ez zegoen funtzionario nahikorik lantegiak eraz begiratzeko; izan ere, goizeko txandan, pertsona bakar batek dauka lau pabilioien ardura."*

- Hezkuntza arloaz den bezainbatean, Herriaren Defendatzailearen idazkiak ondokoa dio:
  *"9 irakasle aritzen dira espetxean. Horietarik 3k oinarrizko hezkuntza ematen dute (1 lan-bajan dago) eta 3k DBH. Presondegiaren iritziz, 12 irakasle beharko lirateke.*
  *Espetxeak ez du behar beste ikasgelarik edo tokirik zeregin jardueretan aritzeko. Bakan batzuk badaude, baina nahiko ez direlako ustean gaude."*

  Espetxe Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak bidalitako idazkiak dio *"Egiatan, ikasgela gutxi daudela, eta oraintsu beste bi apailatu direla, bata emakumeen departamentuan eta bestea gizonen eremuan."*

- Baliabide materialen arloan, honako hau dio Herriaren Defendatzailearen idazkiak: *"Zenbait ohe, batez ere 5. moduluan, zeharo narriaturik zeuden, koltxoiek ez zuten estalkirik eta hautsa gehiegi zegoen pilaturik. Askotan, burkoa ere falta zen."* Auzi zehatz horretan, Espetxe Erakundeen Zuzendaritza Nagusiaren idazkiak erantzun zuen arazoa konpondu dela, modulu horretako ohean estalkidun koltxoia jarri baita.
- Espetxeko komunikazio egoera dela-eta, garaia zenean, Arartekok ofiziozko espedientea bideratu zuen, baina berriro ere aipatzen dira idazkiotan, presoen aldetik nahiz erakundeen aldetik. Ildo horretan, honako hau adierazi du Herriaren Defendatzaileak:
  *"Zuzendaritzak onartu zuen komunikazio arazoak daudela espetxera iritsi ahal izateko, eta arazo horiek familiakoei eta araubide irekia duten bertako presoei eragiten diete. Hain zuzen ere, espetxeko ordezkariek adierazi ziguten espetxea Gasteizekin lotzeko mikrobus linea ezarri nahi zutela azken horientzat, eta, horrela, kanpoan lan egiten duten espetxeratuek sartzeko eta irteteko ordutegi hobea baliatu ahal izango zuten."*
  Gainera, ondokoa eransten du: *"Modulu arrunt bakoitzak 2 telefono ditu, burdinsareen artean. Oro har, espetxeratu bakoitzak 3 dei egin ditzake astean."*

  Beste alde batetik, Espetxe Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak igorritako idazkiak ondokoa dio: *"egia da, espetxera heldu ahal izateko, ez da espetxeratuen beharrizanekin bat datorren komunikazio-sare arinik. Gaur egun, tren-txartelak diruz laguntzeko programa dabil, hirugarren graduko eta 117 artikuluko presoentzat, baina ordutegiak ez dira batere egokiak. Laguntza*

*eskatu diogu Arabako Foru Aldundiari autobus zerbitzua jar dezan, bidaiak presoen premien arabera eta espetxearen antolakuntza beharrizanen arabera moldatzeko."*

- Janariari loturiko kexak direla eta, Herriaren Defendatzailearen idazkiak ohar batzuk mahairatu zituen:
  - Moldaketa egin da sukaldean. Bertan, 8 espetxeratu eta kontratuko 2 langile aritzen dira;
  - Defendatzaileari jakinarazi zioten *"espetxeak dieta bigun gutxi dituela, baina medikuek agintzen ez dituztelako, eta ez administrazioak hartutako erabaki baten ondorioz."*;
  - Espetxeratu batzuk kexu ziren janaria oso eskasa zelako, eta bisitaldian bertan egiaztatu zen plater batzuek *"arroza arrainarekin, hain zuzen ere, ez zutela itxura onik, arroza gehiegi eginda baitzegoen"*;
  - *"Baliteke menu eskaintza handirik ez ematea"*;
  - *"Ez zen antzeman azpilak zikin zeudenik"*;
  - *"Ez zitzaigun iruditu otordu txanda bakoitzeko denbora laburregia zenik, hau da lasai ezin bazkaltzeko modukoa."*;
  - Mandatariaren bidez, kanpoko erosketak egiteko moduari buruzko oharrak:

- Espetxeratuek bidalitako idazkian jasotako kexa batek Basauritik irten eta bertara itzultzeko denbora-tarteen aipu egiten zuen. Auzi horren gainean, Defendatzailearen idazkiak honako hau dio:
  *"Langraitzeko espetxetik Basauriko espetxerako lekualdaketak direla eta, erakunde honen aholkulariei baieztatu genien lekualdaketak behar baino denbora luzeagoan egiten direla. Gainera, egitate horri eragiten dio bulego-langile gutxi izateak, eta, beraz, kudeaketak nahiko motel egiten dira. Halaber, langile faltagatik, diziplina espedienteek ere behar baino gehiago irauten dute."*

- Osasun laguntzari dagokionez, espetxeratuen idazkiaren arabera, *"medikuak astelehen, asteazken eta ostiraletan egiten ditu bisitak"* eta *"ez da zigor murrizketarik metadona hartuz gero"*; era berean, *"ez dugu mediku espezialistarik ezagutzen (batez ere okulista)"*.
  Espetxera joan eta gero, Herriaren Defendatzailearen idazkiak honako hauek jaso zituen:
  *"Espetxeko sanitate profesionalen taldea 7 sendagilek eta 6 EUDk osatzen dute. Sendagileak moduluei datxezkie.*
  *Ezarritako sistemaren arabera, espetxeratuak eskaturiko kontsultak astelehen, asteazken eta ostiraletan egiten dira. Gainerako egunetan, programaturiko artapen-kontsultak eta kontrol bisitak egiten dira.*
  *Espezialisten urgazpenaz, esan behar da haginlariak, oftalmologoak, ginekologoak, psikiatrak eta Osakidetzako beste sendagile batzuk aldizka etortzen direla espetxera.*
  *Adierazi ziguten ez zaiela murrizketarik ematen metadona hartzen duten espetxeratuei. Hala ere, aipatu ziguten presoek murrizketa balia dezaketela,*

*medikuntza zioak direla medio. Beste alde batetik, zigor murrizketa izan dezakete ikasketak egiten dituzten espetxeratuek edo lantegietan behar egiten dutenek atseden har dezaten asteburuetan."*

* * *

Sanitate urgazpenaren auziari berriro helduz, erakunde hau kezkatu eta arduratu baitu azken urte eta txostenetan, azken hileetan eta hainbat iturritatik jasotako informazioa bildu dugu hona:

- Lehen, Langraitzeko preso batzuek Bilboko Espetxe Zaintzako Auzitegiaren aurrean aurkeztutako kexaren berri eman dugu. Kexa horren bitartez, presoek Xiringak Trukatzeko Programa espetxean ezartzea eskatu zuten. Ekimen hori presoei laguntzeko Salhaketa elkarteak egindako proposamen zabalago baten ataltzat jo daiteke. Aipaturiko elkarte horrek, 2000. urtean, lehen hizpide harturiko kexaren kopiarekin batera, "Presoen sanitate eta osasun egoera: arazoak eta esku hartzeko proposamenak. Euskadiko espetxeen inguruabarrei buruzko aipamen berezia" izenburu duen manifestua taxutu eta igorri zigun.
  Manifestu horrek osasunerako eskubidea espetxeetan ukatzeari buruzko oharbide batzuk eskaintzen ditu, sanitatearen egoera eta presoen osasun egoera aztertzen ditu, orokorrean zein EAEn dauden espetxeetakoa -eta, batez ere, Langraitzekoa, eta esku hartzeko proposamen batzuk mahairatzen ditu:
  - Erabilera bakarreko xiringak banatzea;
  - HIESdun pertsonak kaleratzea;
  - Zainketa bereziko ospitale unitateen kautelazko itxiera;
  - Buru osasunaren arloko prebentzio plana;
  - Epidemiologia erregistroa sortzea eta tratamendu espezializatuetarako modua koordinatzea;
  - Espetxez kanpoko zerbitzuak eratzea drogamendekotasuna tratatzeko;
  - Osasun hezkuntzako plana espetxe guztietan…

- Martutene plataformak ere (Salhaketa, SOS-Racismo, Arrats, Pastoral Penitenciaria, PATA, ACASGU, AFAPP eta Askagintza elkarteek osatua) ondoko izenburu hau duen agiria taxutu eta bidali zigun: "La salud de nuestros pres@s-Gure presoen osasun egoera"; bertan, legezko edukiak eta beste txosten batzuetatik (erakundeek nahiz elkarteek idatzitakoak) ateratako informazioa jaso da.
- Beste alde batetik 2001eko urtarrilaren 26an, Espetxeetako Sanitatearen Zuzendariorde Nagusiak erakunde honetara bidali zuen ondoko txostenaren ale bat: *Drogen mendekoekiko espetxeetako esku-hartze programen oroit-txostena, 1999*. Txostenean, arlo horretan garatutako ekintza behinenak eta esku-hartze programa bakoitzaren oinarrizko datuak bildu dira.
  Ondoko taulan, gure autonomia erkidegoko espetxeei dagozkien datuak jaso ditugu, osoko ikuspegia izan eta besteekin erkatu ahal izateko.

**DROGAMENDEKOTASUNEN ESKU-HARTZE PROGRAMAK**

**GURE ERKIDEGOKO ESPETXEEI DAGOZKIEN DATUAK, ESPETXEETAKO SANITATEAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIAREN 99ko OROIT-TXOSTENETIK HARTURIKOAK**

| | BASAURI | MARTUTENE | LANGRAITZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **INFORMAZIOA / PREBENTZIOA** | | | | |
| Informazioa/Motibazioa/Harrera | 167 | – | – | 167 |
| Osasun hezkuntza | 261 | – | – | 261 |
| **XIRINGAK TRUKATZEA** | | | | |
| Emateak | 795 | – | – | 795 |
| Trukeak | 4.033 | – | – | 4.033 |
| **METADONA** | | | | |
| Urtean tratamenduan guztira | 291 | 114 | 534 | 939 |
| Tratamendupeko espetxeratuak abenduaren 31n | | | | |
| Kopurua | 31 | 34 | 120 | 185 |
| Guztizko populazioaren gaineko ehunekoa | % 14,62 | % 13,49 | % 20,87 | % 17,81 |
| **DESINTOXIKAZIOAK** | | | | |
| Mailakako desintoxikazioak | 486 | – | 75 | 561 |
| **OHITURA KENTZEA** | | | | |
| Anbulatoriokoa-guztira urtean | | | | |
| Antagonistekin | 23 | 6 | 27 | 56 |
| Antagonistarik gabe | 199 | 138 | 202 | 539 |
| Ohitura kentzeko espetxeratuak, abenduaren 31n | | | | |
| Kopurua | 38 | 40 | 101 | 179 |
| Guztizko populazioaren gaineko ehunekoa | % 17,92 | % 15,87 | % 17,57 | % 17,23 |
| **KOMUNITATEKO EREM. ALDATZEA** | | | | |
| Metadona programetara | 115 | 25 | 55 | 195 |
| Ohitura kentzeko programetara | 165 | – | 72 | 237 |
| Anbulatoriok /Eguneko zentroak | 118 | – | 37 | 155 |
| Gizarteratzeko etxeak | – | – | 5 | 5 |
| Komunitate terapeutikoak | 25 | – | 22 | 47 |
| Beste baliabide batzuk | 22 | | 8 | 30 |
| **ERAKUNDE ESKU-HARTZAILEAK** | EDEX | AGIPAD PROYECTO HOMBRE | LUR GIZEN | |

Iturria: Espetxeetako Sanitatearen Zuzendariordetza Nagusia (erabiltzaile kopurua, 1999)

## 1.1.2. SASOIKAKO LANGILEEK ARABAN DITUZTEN ARAZOEN JARRAIPENA

1996ko txostenean, Arartekoak sasoikako langileek eta euren familiek zuten egoera aztertzeari buruzko kapitulua sartu zuen; horiek Arabako mahats eta patata bilketara iritsitakoak ziren. Azterketa horretan lau alderdi ikertzen ziren; izan ere, erakunde honen iritziz, eta jasotako informazioaren arabera, alderdiok eragin zuzena zuten pertsona horien eskubideetan, eta hobekuntza, lankidetza nahiz koordinazio neurriak hartu beharra zegoen, erakunde guztien artean. Lau alderdiok honako hauek dira:

- kontrataziorako erabiltzen diren sistemak;
- euren bizitzako ostatu-egoera;
- beraien seme-alaben eskolaratze-baldintzak;
- inguruan duten gizarte integrazioa edo bazterketa.

Gero, urterik urtera, erakunde honek egoera horren nolabaiteko jarraipena egin du, egindako hobekuntzak eta oraindik egin behar diren gauzak nabarmenduz, eta horien berri eman du, urtero Legebiltzarrean aurkezten duen txostenean. Gainera, 1997ko txosten arruntean, gomendio bat egin zuen, sasoikako langileen eta euren familiakoen ostatu-egoera arautu behar izateari buruz. Gomendio hori oraindik gauzatu gabe dago eta txosten honetan berriro jasotzen da, datu berriak eta zehaztasun handiagoa erabiliz.

Sasoikako langileen egoeraren jarraipena egin ahal izateko, nekazaritza kanpainetan bisitaldi ugari egin behar izan dira, eta harremanak nahiz lankidetza eduki behar izan da erakundeekin, sindikatuekin, elkarteekin eta gai horri loturiko taldeekin. Arartekoaren ordezkari bat erakundearteko mahaiak egindako bileretan izatea ere oso lagungarria izan da, mahai hori sasoikako langileen arazoak konpontzeko berariaz sortu baita, Arabako Foru Aldundiaren ekimenez.

Mahai horrek 2000. urtean egindako azken bileretariko batean, mahaikideek hauxe planteatu zuten: komenigarria zela Ararteko erakundeak berriro ere sasoikako langileen ezarkuntzen eta ostatuen arazoa aztertzea, arazo hori oso eztabaidagarria baitzen eta irizpide komunak behar baitzituen. Arartekoak azken kanpainetan egin duen jarraipena, beste alde batetik, batez ere arazo horretan oinarritu da, eta, neurri txikiagoan, baita gurasoekin iritsitako umeen eskolaratze-baldintzetan ere. Ondoren, bi arazo horiek aztertzeari ekingo diogu:

### A) Ostatu-baldintzak

Txosten honetan (6. kapitulua) Arartekoak egindako gomendio orokorra jasotzen da, sasoikako langileen ostatu-baldintzak Arautzeari buruzkoa. Gomendio horrek hiru zati desberdin ditu:

- Lehenengo zatian, azken urteotan ikusitako errealitatea deskribatu, oinarrizko datuak eskaini eta bete beharreko beharrizanak nabarmentzen dira.
- Bigarren zatian, sasoikako langile asko dituzten beste leku batzuetan buruturiko ekimenei eta proiektuei buruzko informazioa ematen da.
- Hirugarren zatian, eskumenen arazoa eta erakundeen inplikazioa aztertzen da; horrenbestez, horren arauketarako behar diren tresna juridikoak proposatzen dira.

Segurutik, gizarteak gero eta kontzientzia eta ezagutza maila handiagoa dauka, sasoikako langileek bizi behar izan dituzten egoeretariko batzuei buruz. Agian, El Ejido edo Lorca herrietan gertaturiko gatazkak edo istripuak lagungarriak izan dira horretarako. Gure kasu zehatzean, egoera hobetzeko arazo asko eta asko daude: kanpaina laburrak, beharrizan oso desberdinak (iritsitako taldeen araberakoak), lankidetzarako ekimenen urritasuna, datu fidagarri gutxi... Zailtasun horietariko bat, ostatuak arautzeari dagokionez, maila askotako erakunde desberdinen inplikazioa da: udaletxeak, Arabako Foru Aldundiko Sailak, Eusko Jaurlaritzako Sailak... Izan ere, Arartekoaren gomendioa betetzeak eragin handia izango luke Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailean, Arabako Foru Aldundian eta Arabako eskualde horietako udalerri guztietan (Arabako Errioxa, Arabako Lautada, Arabako Mendia).
Txosten honetan egiten den gomendioa (bertako eduki nagusiak), 2000ko maiatzean, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailera bidali genuen, azterketa egin eta erakundearteko mahaian aurkez zezaten. Halaber, lan-bilerak egin ziren, Arartekoaren langileen eta sail askotako ordezkarien artean. Arduradun askok agertarazitako interesa eta asmo ona ikusi arren, txosten hau idazteko unera arte ez dugu inolako erantzun formalik jaso, erakunde eskudunen aldetik.
Ararteko erakundearen iritziz, beharrezkoa da sasoikako langileen ostatu-baldintzak arautzea eta arazo horri berehalako irtenbidea aurkitzea, gatazka handiagoak sortu baino lehen. Seigarren kapituluko gomendioaren helburua horixe da, hain zuzen ere.

B) **Eskolaratze baldintzak**

Sasoikako langileen seme-alaba txikiak eskolaratu beharra dago, horietariko asko familiarekin batera iristen baitira kasuan kasuko eskualdeetara. Segurutik, onena umeok euren jatorrizko herrietan eta leku batzuetan gelditzea izango litzateke (adibidez, Andaluzian); horri loturiko esperientziak daude, horretarako sorturiko azpiegiturekin, esate baterako, sasoikako familietako seme-alabentzako zaindegiak eta barnetegiak; umeak horietan gelditzen dira, uzta-biltzeko sasoian. Hala eta guztiz ere, arrazoi askoren ondorioz (kulturalak, sektorearen sakabanatzea, egotaldiaren murrizketa...), oraindik urte askotan familia osoak Arabara iritsiko dira, nekazaritzako lanak eskaintza handiena duen sasoian, orain arte egin duten bezala.
Azken ikasturteetan urrats esanguratsuak eman dira, eskualde horretako ikastetxeetan gutxieneko eskolaratzea eskaini ahal izateko (nahi dutenei eta eskola sasoian daudenei). Horretarako, ikasgela eta lokalak gaitu, kasu batzuetan irakasle gehigarriak hartu, jantokirako bekak nahiz laguntzak kudeatu, eskola garraiorako erraztasunak eman, eskola-elkarteak arazoaz jabetu eta lankidetza nahiz koordinazioa sustatu da eskola zerbitzuen, gizarte zerbitzuen eta gizarte-hezkuntzako programetan inplikaturiko pertsonen artean. Horren eraginez, azken urteotan, hamabi urtetik beherako neska-mutil kopurua gero eta handiagoa izan da. Kasu guztietan ezin daiteke jakin kopuru horren gorakadaren zergatia: eskualdean gero eta ume gehiago egotea edo ikastetxeetara gero eta ume gehiago joatea.
Aditzera eman behar da, hala ere, oraindik ere ume asko ez direla eskoletara joaten; hori ikusteko, herriak eta kanpaldiak eskola orduetan bisitatzea baino ez dago; datu hori, gainera, gizarte-hezkuntzako programak egiten dituzten elkarteek urterik urtera

prestaturiko erroldek ere agerian jartzen dute. Azken kasu horietan datuak fidagarriak dira eta aditzera ematen dute oraindik ere gehienak ez direla eskoletara joaten. Horrela, esate baterako:

- Mahats-bilketaren eremuan, Hezilan elkarteak aurten 155 familia erroldatu ditu; guztira 1.197 pertsona. Erroldaturiko ume kopurua 407koa izan da, eta nolabaiteko eskolaratze maila lortu da (behintzat egun batean), horietariko 176rekin.
- Arabako Mendiaren aldean, Era Berri elkarteak 32 familiari eskaini zien arreta (sasoikako langileen familiak), eta 99 ume zenbatu zituen. Horietatik 46 (3-13 urte bitartekoak) eskolaratu egin ziren, baina erdiak (23 neska-mutiko) egunen erdietan baino gutxiago joan dira eskoletara.
- Lautadaren aldean, Caritasek 39 nekazari kontratugileri eta 340 familiari (sasoikako langileen familiak) buruzko datuak bildu zituen. Pertsona horietatik 35 hamabost urtetik beherakoak ziren eta jatorri portugaldarrekoak. Horietatik batzuk Aguraingo Marco Sagasti Ikastetxe Publikora joan ziren.

Kontuan hartu behar da datu horiek balio erlatiboa dutela; beti ere, elkarteek “erroldaturiko” familiei buruzkoak dira, eta ez sasoikako langileen familia guztiei buruzkoak.
Beste alde batetik, sarritan, eskualdeko ikastetxeak txikiak izaten dira eta ez dute beharrezko baliabiderik, eskolaratzeko moduko biztanleria osoa baldintza egokietan eskolaratzeko. Horrela, euren baldintza eta irizpideen arabera, eskolaratu behar den eta halako ezaugarriak dituen gehieneko kopurua finkatzen da; gehiengo hori, batzuetan eta sasoikako langileen familia gehien hartzen duten eskualdeetan, ez da nahikoa eskolaratze-eskari osoari aurre egiteko.
Azken kanpainan, esate baterako, halako ezaugarriak dituen ume kopuru nahiko handia eskolaratu da, behintzat honako ikastetxe hauetan:

- Eltziego (66 ume), Lantziego (47), Oion (8) eta Biasteri (44 Lehen Hezkuntzako ikastetxean eta 11 Bigarren Hezkuntzakoan), mahats-bilketaren eremuan.
- Agurain (Marco Sagasti IP), Kanpezu (Kanpezu-Yoar IP, 34; Institutua, 2) eta Maeztu (12), patata bilketaren eskualdean, baita Trebiñoko Ikastetxe Publikoan ere.

Kasu bakoitzean benetan eskolaraturiko ume kopurua oso aldagarria da, egunen eta ikastetxeen arabera. Adibidez, Lantziegon topetzat ezarritako gehiengotik hasi (35) eta eguneko bi ikaslera bitartekoa (Kanpezuko Institutuan) izan daiteke.
Aurreko kanpainetan bezala, aurten ere Ararteko erakundeko langileak (urriaren 17an eta 18an) ikastetxe horietariko asko ikustera joan ziren, eta bilerak egin zituzten ikastetxe horietako langileekin, oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileekin eta eskualde horretan gizarte-hezkuntzako programak dituzten elkarteetako langileekin. Horrek egoera, datuak, arazoak eta irtenbideak hobetzeko aukera eman du
Datuei dagokienez, bereizketa hau egin daiteke:

- egon daitezkeen ikasleei buruzko datuak, kasuan kasuko aldean erroldaturiko umeei buruzkoa (eskola adinean edo adin jakinean dauden guztiak);
- egunen batean eskualdeko ikastetxeren batera joan diren umeei buruzko datuak;

- eskualdean egon diren bitartean, ikastetxeetara nahiko edo beti joan diren umeei buruzko datuak.

Adibidez, Eltziegoko Ikastetxe Publikoan egon den eskolaratzeari buruzko datuak hartuko ditugu (sasoiko langileen seme-alaben eskolaratzea). Ikastetxe honetan, irailaren 25etik azaroaren 3ra bitartean, 63 ume eskolaratu dira: 23 neska eta 40 mutil; gehienak (44) 6 eta 12 urte bitartekoak dira. Horietatik lau egun batean baino ez dira eskolara joan; hamabost, bi egunetan; sei, hiru egunetan; beste sei, lau egunetan, etab.
Eskolaratzeari buruz jasotako arazoei dagokienez, esan behar da horiek asko eta era anitzekoak izan direla. Horrela, adibidez:

- laguntzako irakasleak lortzeko egon den atzerapena, edo horien beharrizanari buruzko irizpideen arteko desadostasuna, ikastetxe batzuen eta Hezkuntza Ordezkaritzaren artean;
- berehala eskolaratu nahi ez izatea, eskaria jasotakoan, eta eskolaratzea zenbait egunetan atzeratzeko erabakia, baliabiderik ez egotearen eraginez;
- halako ikasleek ikastetxeen artean izan duten banaketa desberdina, titulartasunaren eta hizkuntza ereduaren arabera;
- itxaron-zerrendak egotea, eskariak ikastetxean finkaturiko gehieneko leku kopurua gainditzearen eraginez, eta eskari horiek beste ikastetxe batzuetara bideratzeko beharrizana;
- irizpiderik ez egotea, edo irizpide desberdinak egotea, 12 urtetik gorako umeak eskolaratzeko ikastetxe egokienari buruz;
- garraioari loturiko arazo batzuk, egoera berriak ibilbideak edo zaintzaileak aldatzea eragiten duenean…

Orain arte adierazitakoa eskolaratzeari buruzkoa izan da, eta ez umeei emandako hezkuntzaren egokitasun handiagoari edo txikiagoari buruzkoa. Erakunde honen iritziz, eskolaratzea oinarrizko helburua izan behar da, behar-beharrezko helburua alegia, baina ez nahikoa.
Bistan da ez dela gauza bera ume horiek ikasgela bakarrean biltzea (edozein adin eta eskolaratze maila dutela ere) edo ikastetxeko eskola-taldeetan sartzea; lotura bat lortzea edo ez lortzea, jatorrizko programazioen eta norberaren programazioaren artean; euren jatorrizko hezkuntza lantzea edo ez lantzea (Arabako Errioxan erroldaturiko umeetatik 118 eta eskolaraturikoetatik 43, adibidez, portugaldarrak ziren)…
Gure artean egiten duten denboraldi laburra eta aurretiazko eskolaratze-baldintzak kontuan hartuz, baita kultur nahiz hizkuntza mailako ezaugarri batzuk (gehienak portugaldarrak edo ijitoak) aintzat hartuta ere, zaila da hezkuntza-erantzun egokia eta kalitatekoa ematea. Horretarako, arlo askotako jarduerak egin behar dira (jatorrizko eskolaratzearekiko koordinazioa, irakasleen trebakuntza, programen nahiz materialen egokitzapena…), eta sektore horretarako plan berezia abiarazi behar da, irizpideak, helburuak, erantzukizunak, baliabideak, ebaluazio-adierazleak, berrikuspeneko mekanismoak eta abar ezartzeko. Nolanahi ere, neurri osagarriak hartu behar dira maila desberdinetan.

Azken urteetan eremu desberdinetan gauzaturiko programen ebaluazio-memoriek (Hezilanek, Era Berrik eta Caritasek egindako memoriak) datu eta proposamen kopuru handia eskaintzen dute, datozen kanpainak errazago planifikatu ahal izateko: familien jatorria, umeen adinak, eskolaratze aurreko egoerak, urtero datozen familiak, hiru urtetik beherako umeen arreta berezia…

Urterik urtera gure lurraldera iristen den biztanleri sektore hau babesik gabe dago, baina hezkuntzarako eskubidea dauka. Horrenbestez, erakunde honen iritziz, gure hezkuntza Administrazioak sektore horri bere eskubidea bermatzeko betebeharra dauka, sektore hori gure artean dagoen bitartean; eta, horretarako, lehen adierazitako arazoak gainditu eta neurriak hartu behar dira, hezkuntza erantzuna hobetu ahal izateko.

### 1.1.3. ZAHAR ETXEAK KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA

Zahar etxeetara 2000. urtean egin diren bisiten bidez bi helburu bete nahi izan dira: alde batetik, Ararteko erakundeak zerbitzu horiei buruz 1994an egin zuen txostenean azaltzen ziren gomendioak kontuan hartu ote diren begiratzea, eta, bestetik, Adinekoen Egoitzetako Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuak agindutako berrikuntzetara zahar etxeak nola moldatzen ari diren ikustea.

Gogora ekarri behar da, gainera, erakundeen arteko mahaia osatu dela, gizarte zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea garatzeko, eta bertan akordio garrantzitsuak sinatu direla. Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta Eudelek osatu dute mahai hori. Eskumenak administrazioen artean banatzeko modua aldatu egingo da mahaian hartutako erabakien ondorioz.

Orain arte, gizarte zerbitzuak eta gizarte programak, oro har, herri administrazioen arteko lankidetza printzipioari loturik garatu izan dira.

Baina, zerbitzuak hazi eta programa berriak ugaritu ahala, agerian geratu da lankidetzaren printzipioa ez dela nahikoa, herritarrentzat onuragarria izan arren. Horregatik, mahaia eratu zenean uste izan zen une egokia zela administrazio bakoitzari bere eskumenak ezartzeko, eta, arau orokor gisa, alor, zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakar baten esku jarri behar zela erabaki zen.

Akordio garrantzitsu horiek gizarte zerbitzuak garatzen lagunduko dute. Aurrerantzean administrazio bakoitzak zalantzarik gabe jakingo du zertaz arduratu behar duen, eta horrela bizkorrago eta hobeto bete ahal izango ditu bere ardurapean dauden alorretako beharrizanak.

Lehenengo akordioa 2000ko abenduaren 29an sinatu zen. Josu Bergara Etxebarria Bizkaiko Diputatu Nagusiak sinatu zuen Foru Aldundiaren izenean eta ordezkaritzan, eta Karmelo Saiz de la Maza Artola jaunak, berriz, euskal udalen elkartearen ordezkari legez.

Abiaburu orokor gisa, autonomia duten, hots, euren kabuz moldatzen diren adinekoei arreta egitea udalen egitekoa dela eta ezinduei arreta egitea foru aldundien egitekoa dela adierazi da akordio horretan. Udalen zahar etxeen egoera ere aldatu egingo da akordio horren ondorioz. Eraikinen titulartasuna aldatuko ez bada ere, Foru Aldundiak ikuskapenak egin ahal izango ditu udalen zahar etxeetan, sektoreko gainerako erakundeetan egiten dituen bezalaxe.

Hona hemen zeintzuk diren 2000. urtean kontrolak egin zaizkien egoitzak eta kontrolen emaitzak:

#### "San Jose" egoitza (Erandio)

Ekainaren 13an bisita egin zen Erandioko Udalak Erandio Landa auzoan daukan San Jose egoitzara.

Uste dugu Udala ahalegin txalogarria egiten ari dela egoitza baliabide egokiez hornitzen, bertan daudenei kalitateko zerbitzua egin ahal izateko. Hori gora-behera, bisitan akats batzuk ikusi genituen eta zuzendu egin behar dira.

Lorategiko sarreran arrapala instalatuz, sarbideetatik oztopoak kentzeko aurrerapausoa egin da. Baina, beste alde batetik, egoitzako jendeak erabili ohi duen

atean maila oso altua dago, mugitzeko arazorik ez duten pertsonentzat ere arriskutsua izan daitekeena, eta sarrera hori ere aldatu egin behar zela ohartarazi genuen.

Halaber, egoitzaren barrualdean adinekoak erosoago ibil daitezen, bainugeletan dutxa-platerak kendu eta segurtasun-heldulekuak jartzeko proposatu genuen, eta txirrinak ere jar zitezela, behar izanez gero erabiltzaileei laguntza berehala eman ahal izateko.

Egoitzako leku lasairen batean, eserita erabili ahal izateko moduko altueran telefono bat jartzea ere gomendatu genuen, gurpil-aulkian ibiltzen direnek inoren laguntzarik gabe telefonoa erabili ahal izan dezaten.

Egoitzan gizarteko jarduerak eta zereginak sustatu beharra antzeman genuen, adinekoak luzaroan ezer egin gabe egoten zirela ikusita, eta Udalari astialdiko begirale bat kontratatzea proposatu genion.

Bisitaldian egiaztatu genuenez, egoitzan etxeko giroa dago eta adinekoek iradokizunak egiten dizkiete arduradunei. Hala ere, parte hartzeko eta kexak aurkezteko bideak hobetu egin behar dira. Gainera, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak azaltzen dituen liburuxka erabiltzaileen eta senitartekoen eskura jartzea gomendatu genuen.

Erandioko Udalak jakinarazi zigunez, zahar etxeko instalazioak hobetzearren aurrekontuan partida bat sortzea erabakita zeukan eta 2001. urtean berrikuntza obrak hasi behar zituen, besteak beste, guk azaldutako akatsak zuzentzeko.

### **"San Roke" (Markina-Xemein)**

Bisitaren helburuak aurreko gomendioei jaramon egin ote zitzaien ikustea eta zahar etxeei buruzko 1994ko txostenaren ondoren egindako hobekuntzak egiaztatzea izan ziren.

Bisita egin zen, bada, 2000ko azaroaren 14an, eta berrikuntza batzuk eginda zeudela egiaztatu zen. Adibidez, teilatua eta bero-instalazioa konponduta zeuden, eta bainugeletan jadanik ez zegoen lehengo bainuontzirik eta zorua ez zen labaingarria.

Badakigu, jakin ere, Markina-Xemeingo Udala diru eta giza baliabide ugari jartzen ari dela zahar etxean bizi direnei egiten zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

Ildo horretan, esan behar da Udala orain arte benetan ahalegindu dela bai instalazioak hobetzeko obretan eta bai zahar etxean giro atsegin eta abegikorra sortzeko orduan. Hala ere, eraikinaren ezaugarriak direla eta, ez da erraza zahar etxeko egitura aldatzea, bertako instalazioak adinekoen egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan ezarritakoari egokitzeko.

Bisitaren egunean jakinarazi ziguten zahar etxe berria eraikitzeko tramiteak egiten ari zirela. Baina, eraikin berria egin arte, komeni da han-hemen berrikuntzaren bat egitea, esate baterako, hormetan eskudelak jarri, adinekoek zeri oratu izan dezaten egoitzaren barrualdean egiten dituzten joan-etorrietan.

Erakunde honek, 1994ko gomendio orokorren artean, egoitza guztietan informazio-liburuxkak egitea gomendatu zuen. Bertan argi eta garbi azaldu behar ziren alderdi hauek: zentroaren helburuak; bertako instalazio eta zerbitzuak; barruko araubidea; zerbitzuak erabiltzeko arauak, segurtasun-arauak, prezioak, parte hartzeko eta erreklamazioak jartzeko bideak. Gainera, adinekoek egoitzaren funtzionamendu orokorrean parte hartzea zentroen helburu nagusietarikoa izateko eskatu genuen, zahar etxeetan zaharrek izan behar dutelako hitza.

Egoitza honetan etxeko giroa dago eta bertan bizi direnek arduradunei lasai eta batere lotsarik gabe adierazten dizkiete euren iritziak eta kexak. Hurbiltasun hori oso ona eta desiragarria izan arren, egokia litzateke, horrez gainera, erabiltzaileen eskura beste baliabide batzuk jartzea zentroaren jardunarekin zerikusia duten erabakietan parte hartu ahal izan dezaten, erabakiok eragina izango baitute euren eguneroko bizimoduan. Adibidez, iradokizun eta erreklamazioetarako buzoia jar liteke adinekoak erraz iristen diren lekuren batean.

Azkenik, komenigarria litzateke zaharrentzat zereginak eta terapia-lanak antolatzea, batez ere, euren ezintasun graduagatik talde-jardueretan parte hartzerik ez duten egoiliarrei zuzenduta. Astialdiko begiraleren bat kontratatu liteke, adinekoei astialdiko jarduera eta terapia-lan egokiak egiten laguntzeko.

Proposamen horiei buruz eskatu genuen informazioaren zain gaude. Halaber, Udalari informazioa eskatu genion, zahar etxe berrian adinekoak kokatzeari buruz gaur egun zer-nolako asmoak dituen jakiteko, eta galdetu genion ea egoitza berrian adinekoek aldi baterako egonaldiak egin ahal izango dituzten, orain arte bezala, eta eguneko zentrorik zabalduko den; hala egiten bada, adinekoek denbora gehiago egin ahal izango dute euren etxekoekin.

**"Ellacuría" egoitza (Sestao)**

Egoitza Udalarena da, baina Pauleko San Bizenteren Karitatearen Alabek kudeatzen dute. Laurogei lagunentzako lekua dago.

Hirigunean kokaturik dago eta instalazio eta zerbitzu onak ditu, baina zenbait alderdi hobetu egin behar dira.

Agerikoak dira Udalak kalitateko zerbitzua eskaini nahirik egiten dituen ahaleginak. Hala ere, bisitan ikusi genituen akatsak zuzenduko balira, egoitza-zerbitzu honen erabilera errazagoa eta erosoagoa izango litzateke.

Hala, bada, oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak hasita badaude ere, oraindik kendu gabe daude bainugeletako dutxa-platerak, eta eskudela gehiago jarri behar dira, korridore-tarte batzuetan oraindik ez baitago instalaturik laguntza-sistema hori.

Eraikinak ekipo onak ditu eta ondo artaturik dago, baina hemendik aurrera zaharberrikuntza obrak egiten direnean komenigarria litzateke guneak eta zerbitzuak argiago bereiztea, letreroak jarriz edo gune desberdinak kolore desberdinez pintatuz, egoiliarrek nondik nora dabiltzan errazago jakin dezaten. Bestalde, egoiliarrei motibazioa eman behar liezaieke logelak euren gauzez apaintzeko.

Bestalde, adinekoek egoitzaren jarduera orokorretan parte hartzea bultzatu behar dela adierazi diegu arduradunei, zaharrek eragin handiagoa izan dezaten.

Bisita abenduaren 14an egin zen. Beraz, oraindik ez zaigu heldu Udalaren erantzuna.

* * *

Udal eta foru erakunde batzuek 2000. urtean bidali dizkigute 1999. urteko bisitetan egindako galdera eta gomendioen erantzunak.

**Hernaniko Udalak** jakinarazi digunez, Ararteko erakundeak "**Sta. Mª Magdalena"** zahar etxera bisita egin eta gero eman zituen gomendioak aintzakotzat hartu dira. Beraz, gomendatu zitzaien bezala, liburutegia, gimnasia gela eta terapia-lanetarako

gela atondu dituzte eta adinekoek hainbat jarduera egiteko aukera dute.

Lehenengo solairuarteko hormetan eta jantokira eta bainugeletara doazen korridoreetan eskudela etengabeak jarri dira.

Liburutegiaren ondoan iradokizunetarako buzoia jarri da, erabiltzaileek eta euren senitartekoek kexak eta proposamenak erosoago azaldu ahal ditzaten.

Azpimarragarria da, era berean, egoiliarrak beste era batera banatu direla solairuetan, euren autonomia-graduaren arabera hain zuzen, eta gizarte-psikologiako esku-hartze programak egin direla, batez ere adinekoen senideei zuzenduta.

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak** ere erantzuna eman die Egia auzoko **“Nuestra Sra. de la Paz” egoitzara** bisita egin ondoren gure erakundeak azaldu zituen iradokizunei. Iazko apirilean jakinarazi zigunez, bere egoitzak pixkanaka egokitu nahi ditu, egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren eskakizun guztiak bete arte. Helburu horrekin, aditu-talde bati *“Egoitza mistoen akatsei buruzko azterlana”* egiteko agindu dio eta horren emaitzen arabera jarduteko plana egingo du.

## 1.1.4. ADINEKOENTZAKO EGOITZEZ KANPOKO LAGUNTZAREN KONTROL-JARDUEREN JARRAIPENA

1995. urtean *Adinekoentzako egoitzez kanpoko laguntza* izeneko txostena aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrera. Beste gai batzuen artean, zaharrek beren ohiko inguruan irauteko aukera emango luketen urgazpenerako eskaintza alternatiboak zabaltzeko erabaki bidezkoak har zitezen eskatzen zen txosten horretan.

Ahal den guztietan, zaharrak ondoen beren etxean eta beren famili inguruan daudelako ideia zen abiapuntu gisa hartzen zen printzipioa eta, horregatik, adinekoentzako egoitzen aurrean, zerbitzu alternatiboak eta osagarriak direnak sustatzea da Administrazioak daukan eginbeharra.

Adinekoentzat, eskaintza publikoak aukeran ematen dituen egoitzatik kanpoko bi tresnen analisia egin zuen txostenak, honako hauek direlarik bi tresnok: etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroak.

Nabaria da etxez etxeko laguntzak gizarte zerbitzuen konfigurazioan daukan funtsezko zeregina, eta bera izango da, besteokiko gero eta mendekotasun handiagoa duten adineko biztanleei arreta emateko ditugun esku-hartzeko tresnetan nagusietako bat. Hala eta guztiz ere, jarduera zehatzak ez direnean, eguneko zentroen funtzionamenduaren segimendua da gure esku-hartzearen xede nagusia eta, gehienetan egoitza baten edo jubilatuaren etxe baten babespean, txostena argitaratu eta gero sortu diren haietakoarena batik bat.

Mendeko gertatzen diren adineko pertsonentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua argitaratuz, honelako baliabideak sortzeko tenorean azaltzen ziren galdera ugariei erantzun nahi zitzaien, eta horretarako zehaztu ziren, zerbitzuaren kalitatea bermatuta gera dadin, honelako zentro batek eduki behar dituen material eta funtzio betekizunak.

Jabego publikoa duten zentroei ez ezik, jabego pribatukoei ere aplika dakieke dekretua, eta ezinbesteko baldintza da, baimena eman dakien, bertara bildutako ebazpenak betetzea. Arau honek, gainera, jabego pribatukoek, Administrazio Publikoarekiko hitzarmenerako izan behar dituzten homologazio irizpideak ere ezarri ditu.

Eguneko zentroek, komunitate-izaera duten beste gizarte zerbitzu batzuekin konbinatuta (etxez etxeko laguntza, tele-urgazpena, aldi baterako egonaldiak egoitzetan, eta abar), osasun-zerbitzuekin bat eginik, pertsona hauek, urgazpenari eta zainketari dagokienean dituzten beharrizanei erantzuna emango dieten zerbitzu-sarea eratu behar dute.

Arreta berezia eman behar zaie zerbitzu hauen jardueraren ardatz izan behar duten printzipio orokorrei, zeintzuk honakoak baitira: autonomi, partaidetza, integrazio, eta arreta pertsonalizatuaren eta integralaren printzipioak. Halaber, erabiltzaileek dituzten eskubideak eta betebeharrak ere zehaztuta daude, eta hori ere lagungarri gertatuko laguntzaren kalitatea bermatzeko.

Honakoak dira 2000. urtean zehar kontrol-jarduerak gauzatu direneko zntroak:

### "Los Hermanos" (Barakaldo)

1999. urteko azken hiletan sartu zen zentro hau diseinatuta zegoen bisitaldi-planean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak erakundeari igorri zion adinekoen

urgazpenerako zerbitzuen zerrendan ageri baitzen. Bisitaldia ezinezko gertatu zen, hala ere, artean martxan ez zegoela jakinarazi baitziguten.

Ondoren, 2000ko maiatzean, ofizio bidezko jarduera bati ekin genion, kudeaketa kontratatu gabe zegoelako, zentroa, 1999ko maiatzaren 17an inauguratu bazen ere, artean lanean hasi gabe zegoela zioen albiste bat azaldu zelako prentsan.

Kezkagarria zen Barakaldo bezain udalerri jendetsu batek, aintzat hartzeko moduko gizarte zerbitzuen eskaria zeukalarik, jarduera hori geldiarazita izatea, eta are gehiago kontuan izanda baliabide ekonomiko garrantzitsuak izan zirela bertara bideratu zirenak.

Udalari horri buruzko argibideak eskatu bazaizkio ere, zortzi hilabete iragan diren honetan, erantzunik jaso gabe gaude.

### Trapagako eguneko zentroa

Udal jabegoa duen zentro hau 1998ko ekainean inauguratu zen. Herri honetako Orconera plazako etxebizitza batzuen etxabeetan dagoela, ez da zaharrentzako behar bezain sartzeko erraza, izan ere, denak baitira 80 urtetik gorakoak eta mugitzeko arazoak dituztenak.

Hasiera batean 22 pertsona hartzeko proiektua eginagatik ere, 15 plazaren eskaintza besterik ez da egin, toki-arazoak direla kausa. Herriko jubilatuen klubean jarri izanari esker, haiekin batera erabil ditzakete zenbait zerbitzu, gimnasioa kasu, baina eguneko zentroaren erabiltzaileak diren zaharrak ez dira besteak bezain autonomoak, eta beraien urgazpena zailago gertatzen da.

Bisitaldian egiaztatu ahal izan genuen bezala, zentroak bainugela geriatrikoa daukan arren, jubilatuen klubeko komunak erabili behar dituzte, eta komun horiek ez dute ez segurtasun barrarik ez txirrinik, ez eta, beharrezko gertatzera, urgazpen azkarra bideratuko lukeen alarma sistemarik ere.

Bisita egin ondoren, aholku eman genion udalari huts horiek zuzendu eta eguneko zentroa eta jubilatuen kluba banatzeko lanak egin zitzaten, ordu jakin batzuetan bi taldeak batera gertatzeak, arratsaldez batik bat, arazoen iturri izateaz gain, mugitzeko muga gehiago dituzten pertsonak erortzeko arriskua gehi bailezake.

Guneak mugatzeko lanak egitean, hormetan etenik gabeko eskudelak ezarri beharra kontuan har zezaten aholkatu zitzaien, zentroaren orduko konfigurazioa zena izanik, oso zail edo ezinezko gertatzen baitzen halakorik ezartzea.

Udalak 2000ko ekainaren 5ean jakinarazi zigunez, antzemandako espaziori eza zela-eta, eguneko zentroa eta jubilatuen kluba banatzeko, beste areto bat egokitzea zeukan aurreikusita. Ez zuen, hala ere, artean erabaki zein izango zen handik beste toki batera eramango zuten zerbitzua eta, horregatik, moldaketa lanak atzeratu egingo ziren zeuden instalazioen helburua zein izango zatekeen jakin arte.

### Ermuko eguneko zentroa

18 pertsona hartzeko gaitasuna zeukan eta hasiera batean mini-egoitza gisa proiektatua izan zen eguneko zentroaren instalazioak bisitatu genituen 2000ko maiatzaren 16an.

Oso ona deritzogu udalerriaren erdian, hiru solairuko eraikin batean, kokatuta dagoen zerbitzu honi. Dena den, jarduerari ekin zitzaionean kontuan hartu ez ziren zenbait alderdi hobe ditzan aholkatu diogu Udalari, asistentziaren kalitatearen onerako izango bailitzateke.

Halatan bada, komunetako ateak aldatu beharko lirateke gurpildun aulkietan dabiltzanek erraz erabil ditzaten. Eskaileretako segurtasun sistema sendotu beharra ere badago, ezarrita dauden barrek ez baitute balio erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

Halaber, aholku moduan, esan liteke komenigarria litzatekeela gune zabalagoez gozatzen utziko luketen egitura-aldaketak egitea. Esate baterako, bigarren solairuan tabike bat bota beharko litzateke eta areto handi bat sortu, talde-jarduerak egiteko.

Jantokiaren ondoan dagoen kanpoko aldea egokitzea izan liteke beste aukera bat. Horretarako, kanpoko alderdi hau erabiltzeko egokia litzatekeen altzariez hornitu beharko luke zentroak.

Pertsona guztien partaidetza hobetzeko, berriz, ikusteko moduko toki batean iradokizun-ontzia ezartzea aholkatu diegu.

**"Axarte" eguneko zentroa (Arrigorriaga)**

Dauden 25 plazetatik 6 aldi baterako egonaldietarako gorde izana da udal jabegokoa izanik, kudeaketa pribatua duen ekipamendu honen berrikuntza. Zaharren zainketan diharduten senideek, gaixorik, atseden hartzen edo derrigor alde eginda daudelako, zeregin horri ezin erantzun diezaioketenean azaltzen den arazoari aurre egin nahi izan diote neurri horrekin.

2000ko maiatzean inauguratuta, instalazio eta zerbitzu onak dauzka. Toki lasai batean dagoela, udalerriko aisialdi-gune batean hain zuzen, errazago gertatzen da erabiltzaileek zerbitzu egokia izan dezaten eta beren gizarte loturei euts diezaieten.

Mendekotasuna duten pertsona hauek osatzen duten taldean pentsatuta diseinatu da zentroa, eta kontuan hartu dira guneak eta zerbitzuak bereizteko orientazio-teknikak, horretarako koloreak eta seinaleak erabiliz. Bisitaldian, hala ere, zenbait huts antzeman ziren, eta zuzenduak izan daitezen eskatu zaie.

Hormetan ez dago etenik gabeko eskudelik eta, halakoak ezartzea zail gerta daitekeeneko zenbait tokitan izan ezik, eraikinaren gainontzeko lekuetan ezarri egin beharko lirateke, erabiltzaileak errazago ibil daitezen.

Ez komunetan, eta ez bainugela geriatrikoan ere, ez dago beharrezkoa izatera, arreta azkarra erraztuko luketen txirrinik edo bestelako alarma sistemarik.

Erabiltzaileek eta beren senideek ez dute eskubideei eta betebeharrei buruzko informazio liburuxkarik eta, Udaletxeko gizarte-laguntzaileak informazio lan garrantzitsua betetzen badu ere, erabiltzaileen eskubideei eta betebeharrei eta partaidetzarako eta kexatzeko bideei buruzko behar adinako informazioak izan behar luke eskuragarri zentroan halakorik behar duenak.

Partaidetzari bide emateko, ikusteko moduko toki batean iradokizun-ontzia ezar dezaten ere aholkatu diegu.

Zentrora bisitaldia 2000ko abenduan egin bazen ere, 2001eko otsailean jaso genuen Udalaren erantzuna, txosten hau egiteko epealdian. Korporazioak eguneko zentroaren instalazioak Eusko Jaurlaritzaren araudi berriaren akordiora egokitzeko gogoaren berri eman ziguten, eta modu onean bereganatu zituzten guk eginiko iradokizunak. Gauzak horrela, handik gutxira ezarriko ziren gaztigu-txirrinak bainugeletan eta komunetan, hormetako eskudel etengabeak eta iradokizun-ontzia toki ikusgarrian.

Beste alde batetik, dibulgaziorako argitaratu zen informazio-liburuxka aldatuko dute, adinekoentzako arretarako zerbitzu garrantzitsu honi buruzko informazio handiagoa eman nahi dute-eta.

Zentroaren funtzionamenduari buruzko ordenantzara bilduta daude eguneko egonaldietarako eta aldi baterako egonaldietarako prozesua, eta balioespen-irizpideak.

* * *

2000. urtean zehar, 1999. urtearen amaiera aldean egindako bisitaldiei buruzko informazioa bidali digute zenbait udaletxetatik.

Horrela, Santurtziko Udalak, zerbitzuari heltzeko erabiltzen diren harrera-irizpideei buruzko informazio-eskaerari erantzunez, jakinarazi zigun hasita dauzkatela **Santurtziko eguneko** zentroaren instalazioetan gure iradokizunak eta proposamenak ezartzeko izapideak, eta zentroan sartzeko edo bertan egoteko kontuan hartzen diren faktore bakarrak mediku-izaeradunak direla. Gaineratu zuenez, irizpide horiek behin-behinekoak izango ziren, eguneko zentroen funtzionamendua arautzeko Eusko Jaurlaritzaren dekretua indarrean jarri bitartean.

**Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak** ere erantzuna eman zien erakundeak, eguneko zentroaren zenbait alderdi hobetze aldera, eginiko iradokizunei, eta aurtengo ekitaldirako atzeratu zuen haien betearazpena, izan ere, hobekuntza lan horiek ahalbidetuko dituen diru-partidaren mende baitago beraiek bete ahal izatea.

Zentzu horrexetan erantzun zigun **Errenteriako** Udalak, Udaleko jabetzapekoa den eta **"Sagrado Corazón" egoitzan** jarrita dagoen eguneko zentroa dela-eta.

**Hernaniko** Udalak adierazi zigunez, **"Santa Mª Magdalena"** eguneko zentroan handiagotu egin da aisialdi-ekintzetarako espazioa. Jolas eta kultur eskaintzak ere gehiagotu egin dira, eraikinean hobekuntzak eginez, eta eskudel etengabeak ezarri dira hormetan eta garabia bainugela geriatrikoan. Beste aurreikuspen batzuen artean, litekeena da asteburuetan eta jaiegunetan zentroa irekitzea, bai eta, udalerrian dauden beharrizanei erantzuteko xedeaz, plaza kopurua gehiagotzea ere.

**Vitoria/Gasteizko** udaletxetik martxoan jakinarazi zigutenez, hasita zeuden **"Los Arquillos" egoitzan**, eguneko arretarako zentroko erabiltzaileak toki batetik bestera errazago joateko, eskaileretan eta korridoreetan eskudelak ezartzeko beharrezko ziren izapideak.

## 1.1.5. BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEENTZAKO LAGUNTZA KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA

1997an Arartekoak txosten berezia aurkeztu zuen Legebiltzarrean; bertan, gure Erkidegoan babesik ezako egoeran zegoen haurtzaroa eta nerabezaroa zaintzeko zerbitzuak aztertzen ziren. Erakundeek pertsona talde horri emandako erantzuna ebaluatu nahi zen; izan ere, adin txikikoak babesik ezako egoera gogorrean daude. Azterketako emaitzen arabera, zenbait proposamen egin nahi ziren, adin txikikoak babesteko sistemak hobetzeko. Txostenaren azkenean, 42 gomendio zehatz egiten ziren, alderdi askori buruzko gomendioak (eremu juridikoa, kasuak aurkitzeko prozedurak, erantzun programak, egoitza zerbitzuen ibilera zein antolaketa, kontrolerako nahiz ebaluaziorako mekanismoak...).

Gure Erkidegoan dagoen eskumen banaketa kontuan hartuz, gomendioen jarraipen egokiagoa egiteko, Arartekoak ofiziozko jarduerak hasi zituen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean, hiru lurraldeetako foru aldundietako Gizarte Ongizateko sailetan eta Vitoria/Gasteizeko Udaletxean (zerbitzu batzuen arduraduna). 1998ko txosten arruntean, egindako jarduerak eta kasu bakoitzean lorturiko erantzunak jasotzen ziren (1998ko txosteneko 1.1.3 atala).

Beste alde batetik, iazko txostenean jarraipen bisitaldien emaitza jasotzen zen; bisitaldi horiek harrera zentro batzuetara egin ziren (hiru lurraldeetako zentroen artean aukeraturikoak). Laguntzarik ez zuten atzerriko adin txikikoentzako eta jokabide arazo larriak zituzten adin txikikoentzako zerbitzuak jartzeari dagokionez, bi joera adierazten ziren.

2000. urtean, Ararteko erakundeak bi jarduera lerro horiek aukeratu ditu, jarraipena egiteko. Horrela, egindako bisitaldiak halako adin txikikoak dituzten zentroetan edo etxeetan oinarritu dira, ofizioz egindako jardueretan eta Gizarte Ongizateko foru diputatuekin aurten egindako lan-bileretan ere, bi jarduera lerro horiek nabarmendu dira. Txosten honetan jasotako alderdiak ere lehentasun horien ondoriozkoak dira. Baina, horietan sartu baino lehen, komenigarria da arautegian hutsune handia dagoela adieraztea, eta hutsune hori lehen ere aipatu dugu, oso garrantzitsua baita.

Konstituzioak autonomia erkidegoei ireki zien adin txikikoen babesaren eremua, eta Gernikako Estatutuak Euskadiko Autonomia Erkidegoari eratxiki dio arlo horretako eskumen esklusiboa. Hala eta guztiz ere, gure Erkidegoan (gizarte babesaren eta haur nahiz gazte politikaren arloan legegintzako eskumenak eduki arren) oraindik ez dago horri buruzko arauketarik. Hutsune juridiko horren eraginez, eremu honetan diharduten zerbitzuek eta zentroek ez dute erreferentziako markorik, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan jarduera komunerako gutxieneko jarraibideak bermatzen duen markorik. Behin eta berriro iragarri den adin txikikoei buruzko legea (hutsune horiek beteko dituena) oraindik egiteko dago.

### A) **Laguntzarik gabe iritsitako atzerritar adin txikikoak**

Babesik gabe dauden adin txikikoen taldearen barruan, ezaugarri eta beharrizan bereziak dituen multzoa dago, atzerritar adin txikikoena (familiarik eta agiririk ez duten adin txikikoena). Azken urte honetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri dio talde horri, hain zuzen ere, lurralde bakoitzean talde horretara bideraturiko zerbitzuei. Ondoren, bakoitzaren egoeraren laburpena eskaintzen da.

a) **Gipuzkoa**

Talde honen arazoak, batez ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan biltzen dira; izan ere, bertan halako adin txikikoen sarrera kopuruak gorakada handia izan du azken urteotan:

- 1996: 2 sartze (2 adin txikiko)
- 1997: 29 sartze (28 adin txikiko)
- 1998: 97 sartze (82 adin txikiko)
- 1999: 268 sartze (103 adin txikiko)
- 2000: 148 sartze (85 adin txikiko)
- Guztira (1996-2000): 544 sartze, 300 adin txikiko

Adin txikiko horietatik gehienak Magrebetik datoz (guztizkoaren %70, gutxi gorabehera), eta, neurri txikiagoan, Europako, Afrikako eta Asiako beste herri batzuetatik. Babes zerbitzuen eskuhartzea, gehienetan, poliziaren ekimenez gertatzen da, horiek atxilotuak izaten direnean (kalean, mugan, Pasaiako portuan...).
Ikusitako arazoak kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak talde horretarako egoitza txiki berezia prestatzea erabaki zuen. Zerbitzu hori 1997ko irailean abiatu zen, eta, harrezkero, Gurutze Gorriak kudeatzen du, Aldundiarekin urtero sinaturiko hitzarmen baten bidez.
Urte hauetako esperientziak, bestalde, egoera eta helburu oso desberdinak argi bereizteko aukera eman du. Egoitzako arretaren aldetik, gutxienez, bi talde hauek bereiztu behar dira:

- Lurraldean egon baina beste nonbaitera edo beste herriren batera joateko asmoa dutenak.
- Lurraldean bertan gelditzeko eta integratzeko asmoa dutenak.

Arazo bikoitz hori ikusita, erantzunak bereiztu eta beste zerbitzu bat sortu zen, 2000ko abuztutik aurrera, hori ere Gurutze Gorriak kudeatuta.
1999an, Arartekoaren langileak Martuteneko zentroa ikustera joan ziren (atzerritar adin txikikoak hartzeko zentroa), eta datuak eta informazioak eskatu zizkioten Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Sailari (Gizartekintza). Zentrora egindako bisitaldiak eta Aldundian ofizioz aurkezturiko espedienteak, bestalde, zerbitzuaren ezaugarriak ezagutzeko aukera eman zuten, baita halako kasuetarako erakundeen artean ezarritako protokoloa (Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fiskaltza, Gobernuko Ordezkaritza) eta Aldundiaren babespeko kasu kopurua (7 adin txikiko) ezagutzeko aukera ere.
Joan den azaroaren 9an bigarren bisitaldia egin zen, Martuteneko zentrora, eta Iruneko zerbitzu berria ere ikusi genuen. Egindako bisitaldietatik ondorio hauexek atera daitezke:

- Iruneko baliabide berria irekitzearen ondorioz, egoitzetan zaintzeko aukerek gorakada izan dute (8 leku Irunen eta 9 Martutenen); gainera, nolabaiteko dibertsifikazioa eragin du (lehenengo harrera nahiz balorazioa Irunen, eta harrera egonkorragoa eta luzeagoa Martutenen). Izan ere, Iruneko zentroa abian jarri zenetik beti egon da lekua halako adin txikikoentzat. Bisitaldia egin den unean, Irunen 6 adin txikiko zeuden eta Martutenen 8.

- Baliabide bakoitzaren baldintzek eta egiturak (neurri arrunteko etxebizitza Irunen, hiru solairu erabilgarri dituen etxea Martutenen) aukera nahiko desberdinak eskaintzen dituzte, gelen intimitateari (4 leku gela bakoitzean, Irunen) edo gela komunen erabilerari (komunak, egongela…) dagokionez.
- Hobekuntza materialei dagokienez, irunen konponketa txiki bat egiten ari dira sukaldeko eramateetan, eta sutearen aurkako segurtasunaren arazoa konpondu barik zegoen. Martutenen hobekuntza lanak egingo dira eramateetan, komunetan eta leihoetan.
- Zerbitzuen kudeaketa hitzarmenaren bidez adjudikatzeari dagokionez, erakunde honen iritziz, pausoak eman behar dira oraingo mugetariko batzuk gainditzeko, kalitatean eta emandako zerbitzuaren bermeetan eragina duten arloetan. Horrela, esate baterako: elikadura bezalako oinarrizko beharrizanetarako gutxieneko partidak zehaztea; profesionalen ezaugarriak eta heziketa; ikuskapenerako mekanismoak…
- Bertan hartutako adin txikikoen kultur ezaugarriak errespetatzeko kezka handia dago, adibidez, erlijio errituari eta elikadurari dagokionez. Euren jatorrizko hizkuntzan mintzatzeko aukerari dagokionez, zoritxarrez orain langileen artean ez dago hori egiteko gaitasunik duenik, baldintza hori betetzen zuen bakarrak lana utzi baitu.
- Denbora betetzeari eta elkarteko beste baliabide batzuk eskuratzeko aukerari gagozkiola, egoera oso desberdina da zentro batetik bestera:

  • Irunen aukerak oso mugatuak dira: boluntarioek ordu jakinetan emandako gaztelaniako eskolak, udaleko polikiroldegia erabiltzeko aukera mugatua.
  • Martutenen, adin txikiko guztiak, bat izan ezik (tramitean, bisitaldia egin zenean) eskolaraturik daude, bertatik nahiko hurbil dauden ikastetxeetan, edo lana lortzeko aukera ematen duten ikastetxeetan.

  Irunen kasuan, egotaldia mugatua izatearen ondoriozko arazoak egon arren, beharrezkoa da jarduerak egiteko aukerak handitzea, bai bertako baliabideak edo bai komunitateko baliabideak erabiliz.

- Hezkuntza edo osasun zerbitzuen inplikazioa behar duten egoerak konpontzeko orduan ez dago arazo berezirik. Beste alde batetik, langileen ustez, zentroek inplikaziorik handiena duten erakundeekin dituzten harremanak oso onak dira (Gipuzkoako Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fiskaltza, Gobernuko Ordezkaritza-Atzerritarrak).
- Zentroek euren lana modu programatuan eta berme batzuekin egiteko behar diren hezkuntza tresna guztiak dituzte: barne araubideko arautegia, jarraipen orriak, banakako planak, aldian behingo ikuskapenak… Dirudienez ez dago horri buruzko arazorik. Hala eta guztiz ere, erakunde honen ustez, beharrezkoa izango litzateke erakunde arduradunek (Gipuzkoako Foru Aldundia…) arautegien edukiak ikuskatzea eta horien aplikazioa kontrolatzea.
- Sartzeei, irteteei, egotaldiei… buruzko datuek adierazitakoaren arabera, bertan dauden adin txikikoen kopuru nahiko handia ez da lurraldean gelditzen, ezta zentroan bertan ere. Horrela, adibidez, 1999an 24 adin txikiko sartu eta zentroa behin eta berriro utzi zuten (adin txikiko bakoitzak 6 bider, batez beste). Poliziak atxilotzearen ondoriozko sartzeak eta norberak nahita egindako irteteak dira.

Datuok gutxi ezagutzen den errealitatea jartzen dute agerian: atzerritar adin txikikoen taldea, inolako famili edo erakunde babesik ez duena, eta bizimodua kalean ateratzen duena. Erakunde honen iritziz, beharrezkoa da arazo hori konpontzea, oraingo zentroek horien itxaropenei erantzunik ez ematearen zergatiak aztertzea eta beste mota bateko erantzunak eman beharra planteatzea.

Zentro horiek bisitatu eta Gizarte Ongizateko foru diputatuarekin bilera bat egin ondoren, Ararteko erakundeak ofiziozko espedientea hasi zuen abenduan, Gipuzkoako Foru Aldundian; bertan, aurreko ondorioak jaso eta alderdi arazotsuenak edo konpontzeko modukoak azpimarratzen ziren.

Foru diputatuaren erantzuna joan den otsailaren 7an jaso zen; bertan, erakundeak hobekuntza proposamenak ikertzeko hartu duen konpromisoa adierazten da, baita ikusitako akatsak konpontzeko behar diren neurriak hartzeko konpromisoa ere; horrela, arazo zehatzenen artean, hauxe adierazten da:

- *"Gurutze Gorriarekin sinaturiko hitzarmenaren edukia, Irungo zentroaren egiturazko baldintzak eta zentro horretan dauden adin txikikoek egindako jarduera kopurua handitzeko aukera berrikusiko dira".*

- Halako zentroen ikuskapen eta kontrol lana indartu nahi da, egoitzan hartzeko laguntzarako zerbitzu teknikoa kontratatzearen bitartez.

- Adin txikiko horiekiko jarduera protokoloa berrikusten ari da, eta hori kasuan kasuko fiskaltzarekiko bileran aztertuko da.

Idazkian, halaber, biztanleri sektore horrekiko lanaren arazoak eta zentroetako hezitzaileen ahalegina aipatzen dira, baita inplikaturiko erakunde edo elkarte guztiak koordinatu beharra ere, agiri edo babesik ezari loturiko arazo jakin batzuk konpondu ahal izateko.

b) **Bizkaia**

Adin txikikoen talde horri emandako erantzuna, Bizkaian, horientzako zerbitzu berezia irekitzean oinarritu da; horretarako, Loiuko Zabaloetxe Egoitzako lokalak erabili dira; lokal horiek, lehen, babes zentro arruntzat erabiltzen ziren, San José Artesano izenarekin.
Talde horrek urteotan izandako bilakaerari buruzko datuak honako hauek dira:

- 1996: 5 sartze (5 adin txikiko)
- 1997: 15 sartze (12 adin txikiko)
- 1998: 23 sartze (23 adin txikiko)
- 1999: 48 sartze (30 adin txikiko)
- 2000: 59 sartze (52 adin txikiko)
- Guztira (1996-2000): 150 sartze, 122 adin txikikorena; egotaldiaren batez besteko denbora 6,2 hilabete.

Lurralde horretan, halaber, adin txikikorik gehienak Magrebetik iritsitakoak dira (%55 Marokotik eta %17 Aljeriatik) eta, neurri txikiagoan, Afrikako beste herri batzuetatik (harik eta guztizkoaren %89ra iritsi arte), Hego Amerikatik (%4), Europako Ekialdetik (%4) eta Asiatik (3 kasu).

Zentroko leku kopuruari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak 18 lekuko behin-behineko aurreikuspena egin zuen; horiek bi modulutan antolaturik daude, eta moduluotako bakoitzak 9 adin txikiko jasotzeko eta zaintzeko gaitasuna dauka. Adin txikiko neskak hartu behar izanez gero (orain arte salbuespenezko kasua), sareko beste zentro bat erabiltzen da. Zentroaren kudeaketa Kaputxino Hirugarrendarrek egiten dute.

Arartekoaren langileek azaroaren 17an joan ziren zentroa ikustera; egun horretan, famili babesik gabeko atzerritar gazteen kopurua 26koa zen; horren eraginez, hasierako aurreikuspenak berrikusi egin behar izan ziren, eta hirugarren talde bat antolatu behar izan zen beste modulu batean, egoitzak eskainitako aukerak aprobetxatuz; gainera, giza baliabideak ugaritu behar izan ziren. Gero, bertan harturiko ume kopurua 33raino handitu da, 2000. urteko azkenetan.

Gogoratu behar da Loiuko Zabaloetxe Egoitzan era askotako baliabideak eta zerbitzuak daudela. Kapitulu honetako beste atal batean, beste zerbitzu horietariko baten elementu aipagarrienak azpimarratu dira (jokabide arazoak dituzten nerabeentzako zerbitzuaren ezaugarriak); horietariko batzuk (adibidez, instalazioei edo hazkuntza proiektuari buruzkoak) baliozkoak dira, oinarri-oinarrian, familiarik gabe iritsitako atzerritar gazteentzako zerbitzu honetarako.

Egindako bisitalditik eta lorturiko informaziotik, ondoko elementuok atera daitezke:

- Zentroak hezkuntza proiektu egokia garatu du, adin txikiko hauen ezaugarrien araberako proiektua, eta horrek jarduera guztien erreferentziatzat balio du: laguntzako jarduerak, aurreikuspenekoak, gizarte-hezkuntzako arretakoak, gizarteratzen nahiz laneratzen laguntzekoak....
- Adin txikikoen administrazio egoeren arauketak, bestalde, ahalegin handia eskatzen du; baina emaitza pozgarriak lortzen ari dira, batez ere aurten 4/2000 Lege Organikoak (atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei nahiz askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko legea) sustaturiko arauketa aldiaren barruan. Izan ere, urtean zehar hauxe lortu da: pasaportea, bizitzeko nahiz lan egiteko baimena, 12 kasutan; pasaportea eta bizitzeko baimena, 15 kasutan; pasaportea eta bizitzeko baimenaren eskabidea, 8 kasutan; beste 8 kasutan, eskabideen erantzunaren zain geunden edo familiako agiriak noiz jasoko zain.
  Hurbileko etorkizunari begira, alderdien arteko adostasuna lortuta, jarduera protokoloa egin nahi da, eta bertan pausoak, denborak, erantzukizunak... finkatuko dira, parte hartzen duten erakundeei dagokienez: Bizkaiko Foru Aldundia, Adin Txikikoen Fiskaltza, Gobernuko Ordezkaritza, kontsulatuak... Nolanahi ere, zentroko arduradunen ustez, erakunde horiekiko harremanak eta koordinazioa onak dira.
- Bertatik hurbil dauden udalerrietako baliabide komunitarioak ondo aprobetxatu dira. Horrela, esate baterako:

- Eskolara joateko adinean dauden adin txikikoak eskolaratzeari dagokionez, bertan dauden aukera guztiak aprobetxatzen dira: lanean hasteko ikastaroak bertako LHIetan (Konpentsazio Hezkuntzako ikastetxeak), gaztelania ikasteko ikastaroak atzerritarrentzat (DBHko zentroetan). Horretarako, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren lankidetza dago. Bisitaldia egin zenean, adin txikiko bi (zentrora sartu berriak) gaztelania bertako ikasgela batean ikasten ari ziren, oraindik ere kanpoko ikastetxeetara joan barik. Aurten, hala eta guztiz ere, 2000-2001 ikasturtearen hasieran, Konpentsazio Hezkuntzan egin den eskabide kopurua uste baino nahiko handiagoa izan da eta hori kezkagarria da.
- Kirol ekipamenduei edo aisialdirako baliabideei dagokienez, gazteen zentroetan eta bertako taldeetan parte hartzen ari dira; gainera, bertatik hurbil dauden udalerrien instalazioak erabiltzen ari dira.

- Aurreko aukera guztiei, gainera, zentroko bertako baliabideen aprobetxamendua gehitu behar zaie: ikasgelak, kirol aldeak, jolas aldeak...
  Horri dagokionez, egoitza berregituratu egin da, zenbait zerbitzuri erantzuna emateko; horren eraginez, talde honek lantegiak erabiltzeko aukera galdu du, eta hori ez da ona.
- Harturiko adin txikikoen kultur ezaugarriak erabat errespetatzen dira, adibidez, elikaduran (menu bikoitza) eta erlijio errituak (Ramadanen ordutegietara egokitu...). Kasu honetan ere zentroko langileek ez dakite adin txikikoen talde ugarienaren hizkuntza.
- Aurten 11 babes eta 22 zaintza egin dira. Aditzera eman behar da ekainetik aurrera ez dela babesik egin, eta horrenbestez, iritzia aldatu egin da, ordura arteko egoerei zegokienez.
- Zentroan hartutako atzerritar adin txikikoen arteko zazpik kanpoan lan egiten dute, kontratu eta guzti. Hala ere, adin txikiko batzuek 18 urtera iristean emantzipaziorako dituzten aukerak oso kezkagarriak dira, eta proiektu berriak aztertzen ari dira, SAIO programaren oraingo eskaintza nahikoa ez delakoan.
- Gipuzkoan ikusitakoaren alderantziz, bildutako datuak aztertuta, ezin daiteke ondorioztatu halako adin txikiko kopuru handia kalean arretarik gabe dabilenik. Izan ere, hemen berriro sartzen direnen kopurua askoz ere txikiagoa da.

Bisitaldia egin ondoren, eta Gizarte Ongizateko foru diputatuarekin bilera bat egin ostean, abenduan ofiziozko espedientea hasi zen Bizkaiko Foru Aldundian; bertan, hemen aztertu eta hobetzeko modukoak diren alderdiak jaso ziren.

Gizartekintza Sailaren erantzuna 2001eko otsailaren 22an jaso zen. Bertan, hauxe adierazten da:

- Lantegien kokapen berria bilatzen ari da.
- Babesik eza ez da irizpide aldaketa baten ondorioa, administrazio tramitazioan lanak duen asetasunaren ondorioa baizik, eta hori konpontzeko ahaleginean ari gara. Horri dagokionez, zenbait ekimen jasotzen dira, esate baterako, haurtzaro, gaztaro, famili eta emakume zerbitzua berrantolatzea, haurrek jasotzen duten babesik ezako egoerei laguntzeko eskuliburua egitea edo protokolo berezia lantzea,

laguntzarik gabe iritsitako adin txikiko atzerritarrak hartzeko prozesuak formalizatzeko.
- Emantzipazio aukerei dagokienez, horren zailtasunak eta SAIO programa gogoratzeaz gain, zenbait ekimen adierazten dira, adibidez, zentrotik kanpoko etxebizitza baten proiektua egitea, banakako neurriak hartzea edo atzerritarrei laguntzeko erakundeekin harremanak edukitzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkian, zentroen ezaugarriak arautzen dituen legeria autonomikorik ez egotea azpimarratzen da; Ararteko erakundeak behin eta berriro planteatu du arazo hori eta Aldundiak berak ere hori aztertzeko asmoa dauka Haurtzaro Planean.

c) **Araba**

Araban, urte hauetan zaindu diren adin txikikoen proportzioa (famili babesik gabeko adin txikikoak) gainerako lurraldeetan baino askoz ere txikiagoa da. Hona hemen datuen laburpena:

- 1996: sartzerik ez
- 1997: 12 sartze (10 adin txikiko)
- 1998: 11 sartze (8 adin txikiko)
- 1999: 19 sartze (17 adin txikiko)
- 2000: 10 sartze (7 adin txikiko)

Zaindu diren adin txikikorik gehienak mutilak izan dira, Marokotik eta Aljeriatik iritsitakoak; kasu gutxi batzuetan, alde honetan gelditzea eta gizarteratzea erabaki dute. Izan ere, babesa bi adin txikikorekin baino ez da hartu, egoitza baimena lortu eta lan merkatura sartu dira.
Oro har, salbuespen gutxi batzuk kenduta, nerabe edo gazte hauek, aurten, Hazaldi larrialdiko harrera zentroan hartu dira; zentro hori Arabako Foru Aldundiaren menpekoa da eta Karitatearen Alabek kudeatzen dute. Lekuei dagokienez, ez da inolako arazorik egon.
Arartekoaren langileak azaroaren 28an joan ziren zentrora. Garai hartan laguntzarik gabeko atzerritar gazte bi zeuden zentroan: bata 18 egun lehenago iritsi zen eta bestea bezperan iritsitakoa zen.
2000ko abenduaren 1etik Arabako Foru Aldundiak, hitzarmen baten bidez, baliabide sarea indartzeko erabakia hartu du; horretarako, zazpi lekuko zerbitzu berria ezarri du (Bosco Etxea) eta bertan, besteak beste, Arabara babesi gabe iristen diren gazte atzerritarrak zainduko dira.
Bisitaren eraginez azterturiko alderdiak, beste alde batetik, aurreko ataletan adierazitakoak dira: zentroaren baldintzak nahiz baliabideak, beste erakunde eskudunekiko harremanak, oinarrizko eskubideen estaldura, desberdintasunarekiko errespetua, jarduera protokoloak, hezkuntza proiektua, bizikidetza arauak... Kasu honetan, ez dugu aipatzeko moduko alderdirik aurkitu.

* * *

Berton bildutako datuek gure artean gero eta agerikoagoa den errealitatea adierazten dute; errealitate horrek lurralde bakoitzean eragin eta erantzun desberdina dauka, eta horri aurre egiteko, babesik gabeko adin txikikoak zaintzeko sareak baliabide berriak sartu behar dira. Ararteko erakundeak aurrerantzean ere arreta berezia jarriko dio adin txikikoen talde honi eskainitako erantzunari (talde horrek beharrizan zehatzak ditu, sustrairik ezaren, familiarik ez izateari, administrazio egoeraren, hizkuntzaren, ingurua ez ezagutzearen eta abarren eraginez). 2000. urtean ofizioz hasitako jarduerek agerian jartzen dute lehentasunezko arretarako gogoa dagoela.

## B) **Jokabide arazo larriak dituzten nerabeak**

Babesik ez duen eta ezaugarri bereziak dituen beste gazte talde bat (horientzat zerbitzu berriak sortu dira), bestalde, jokabide arazo larriak dituzten gazteena edo nerabeena da. Ikusitako joera horientzako zerbitzu bereziak sortzea izan da. 2000. urtean Arartekoaren langileak zerbitzu horietariko bi ikustera joan ziren. Ondoren, bisitaldi horien laburpena eskainiko dugu.

Zabaloetxe Egoitza (jokabide arazoak dituzten nerabeentzako unitateak)
2000ko abuztuaren 1etik aurrera, Loiuko Zabaloetxe Egoitzan jokabide arazo larriak zituzten gazteentzako harrera zentroa ireki zen, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuta. Bizkaian berria den baliabide honek erantzun zehatza eman nahi die jokabide arazotsuak edukitzearen eraginez egoitzetan dauden gazteei (erasokortasuna, ihesak, lapurretak, droga kontsumoa...), babesturiko beste gazte batzuekin taldean bizitzeko arazoak dituzten gazteei alegia. Zerbitzu horretarako, behin-behinean, 16 leku aurreikusi dira, 8ko taldeetan antolatuta (egokitzapen taldea eta normalizazio taldea). Zentroaren titularra Gizarte Ekintzako Foru Institutua da eta kudeaketa Kaputxino Hirugarrendarrek egiten dute.
Zentrora azaroaren 17an joan ginen, eta egun horretan 12 gazte zeuden bertan. Jasotako informazioaren arabera, ondoko elementuok azpimarra daitezke:

- **Instalazioei** dagokienez, adin txikiak babesteko antzinako San José Artesano zentroa beharrizan berrietara egokitzearen ondoriozko zentroa dela kontuan hartuz, aldaketa hobekuntza handiak egin dira edo egiten ari dira, beharrizan berri horietara hobeto moldatzeko. Aldaketa askoren helburua modulu txikiak eta ibilera autonomokoak lortzea da (egoitza eta egitura mailako independentzia); beraz, Ararteko erakundeak lehenagoko txostenetan adierazitako mugak gainditzeko ahalegina egiten ari dira, bai txosten berezietan (harturiko adin txikikoei buruzko txostena) eta bai txosten arruntetan (jarraipen bisitaldiak) adierazitakoak. Egiten ari diren obrez gain, hurrengo ekitaldietan zenbait hobekuntza egin nahi dira; erakunde honen iritziz, horiek alde batzuen berriztapena osatu eta suteen aurkako sistemak jarri beharko dituzte, eraikin eta modulu guztietan.
  Zentroaren inguruak eta instalazioek aukera handiak eskaintzen dituzte, beharrizan guztiak betetzeko: laguntza eta ostatu urgazpena, gizarte-hezkuntzako laguntza, aurreikuspenezko laguntza...
- Nerabeak edo gazteak zentroan sartu ala ez sartzeari buruzko erabakia, beste alde batetik, adin txikikoen balorazioa egiteko batzorde teknikoak hartzen du.

Jarraitu behar diren prozedurak eta irizpideak berriro aztertzen ari dira, eta jarduera protokolo argia ezarri nahi da. Egotaldiaren iraupena, jatorrizko babes zentroan berriro sartzea edo famili inguruan sartzea bezalako alderdiak ere batzorde horrek erabakitzen ditu, zentroaren proposamenez.

- Eskolaratze beharrizanei dagokienez, horiek zentroko instalazioetan euretan betetzen dira, eta horretarako, egunero hurbileko institutu bateko bi irakasle joaten dira. Gure ustez, egoera horren jarraipena eta berrikuspena egin behar da, kontuan hartuz bakoitzaren beharrizanak, lortzen diren emaitzak eta hezkuntza baliabide normalizatuak eskuratzeko aukerak.
- Zentroaren antolamendurako oinarrizko tresnen zirriborroak eginda daude, adibidez, hezkuntza proiektua edo barne araubideari buruzko arautegia; gainera, egoera arazotsuetarako protokolo bereziak egin nahi dira, adibidez, ihesaldietarako edo erasoetarako.

  Arartekoaren langileek dagoeneko eginda dauden bi agiriren edukia aztertu dute, eta horien aldeko iritzia eman dute, barne antolamenduko tresnatzat. Barne araubideari buruzko arautegia, bestalde, Arartekoak ondokoari buruz emandako 29. gomendioaren araberakoa da: *Babesik ezako egoeran dauden umeei eta gazteei eman beharreko arreta*.

  Gure ustez, gainera, baliozkoak dira gerora egin daitezkeen jarraipen bisitaldi edo jardueretarako, horrela praktikan duten erabilera baloratu ahal izango baita.
- Laguntza psikiatrikoaren beharrizanei dagokienez, gure iritziz, lorturiko estaldura ez da nahikoa (hartutako adin txikikoen %50 tratamenduan ari da); hori hobetzeko, kudeaketa egiten ari dira, lurraldean buruko osasuneko ardura duten agintariekin.

<u>Sansoheta gizarte-hezkuntzako etxea</u>

Arabako Foru Aldundiaren menpeko zentro hau 1997aren azkenetan ireki zen; beraz, ez zen ebaluatu *Babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako laguntza kontrolatzeko jardueren jarraipena* deritzon txostenean. Horrenbestez, 1998an bisitatu genuen, urte horretako txostenean esaten denez. Hala eta guztiz ere, zentroa kudeatzeko urtero egindako lehenengo hitzarmena amaitu zenean ez zen berrikuntzarik egin, eta, hortaz, 1999tik aurrera kudeaketa hori Izan elkarteak hartu zuen bere gain. Etxearen antolaketak eta ibilerak izandako aldaketaren eraginez, bisitaldia egin behar izan dugu, eta bisitaldi hori azaroaren 28an egin genuen.

- Oraintsu eraikitako erakina denez, eta instalazioen kalitatea lehendik ere ezagutzen zela kontuan hartuz, bisitaldiaren interesa ez zen alderdi horretarantz bideratu. Hala eta guztiz ere, esan behar da baztertu egin dela zentroko lurraldean estalpedun frontoia egiteko proiektua; horren ordez, negutegia instalatzea erabaki da, baratze modura erabili ahal izateko; halaber, korta txikia egingo da, bertan abere batzuk hazteko (gazteek horien hazkuntzan parte hartuko dute).
- Zentroaren hasierako gaitasuna 12 lekukoa (egotaldietarako, eta beste 3, eguneko jardueretarako) izan arren, egokiago iritzi izan diogu leku kopuru hori 8ra murriztea (egoitzakoak, eta beste 4, eguneko jardueretarako), zerbitzuaren kalitatea hobetu ahal izateko. Bisitaldia egin zen garaian, 7 gazte bertan zeuden

(neska bat eta zazpi mutil, horietatik bat ihes eginda), eta beste gazte bat zegoen eguneko jarduerak egiten. Berez, ez da leku ezarik ikusten, baina foru aldundia hezkuntza indartzeko neurri berriak sartzen ari da bere zentroetan, horiek adin txikiko arazotsuenen tratamenduari ekin ahal izateko, gazteok Sansohetara eraman barik.

- Bisitaldia egin zenean, zentroaren antolaketarako oinarrizko irizpideak biltzen dituzten agiriak berrikusten eta berritzen ari ziren (hezkuntza proiektua, bizikidetza gida, etab.); beraz, ez dugu horien behin betiko idazketaren berririk.
- Eskolaratze beharrizanei dagokienez, bertan dauden gazteak ohiko ikastetxeetara eramateko ahalegina egiten ari dira. Sarritan, hori lortzeko arazoak egoten dira. Eskolaratze arazoei erantzun zehatza emateko, Aita Menesiarren ikastetxean garatzen den programa abiatu da (Nanclares de la Oca). Ikasketa proiektuaren egokitzapena edo programa osagarria da; oraingoz, Sansohetan dauden adin txikikoei bakarrik aplikatzen zaie, baina helburua gazteok apurka-apurka ikastetxeko gainerako ikasleen dinamikan sartzen joatea da.
- Zentroko arduradunek beharrezko zerbitzu bereziei dagokienez esandakoaren arabera, hauxe aipa daiteke:

  - Famili eskuhartzeari loturiko programak indartzea eta orokortzea.
  - Adin txikokoen babeserako zentroen eta berrikuntza zentroen arteko koordinazioa hobetzea, kasu bakoitzaren azterketa integrala eginez.
  - Nerabeentzako eguneko zentro kopurua handitzea, baita babes saretik irteten diren 18 urtetik gorako gazteentzako etxebizitza eta egoitza kopurua ere.
  - Arazo oso larritzat, azkenik, babesturiko adin txikikoei eman nahi zaien psikiatri eta psikologi arreta behar bezalakoa ez izatea aipatzen da. Komunitateko baliabideak oso masifikaturik daude eta adin txikikoek ez dute beharrezko arreta jasotzen. Halaber, gabezia handiak ikusten dira buruko gaixotasunen barruan sailkatu ezin diren kasu oso gogorrei dagokienez. Azkenik, drogamenpekotasunak dituzten adin txikikoen arretan dauden gabezia handiak ere aipatzen dira. Horientzat ez dago programa terapeutikorik, eta helduentzako zentroetan ere ez dute halako gazterik onartzen.

## 1.1.6. DELITUAK EGIN DITUZTEN ADIN TXIKIKOEKIKO JARDUEREN JARRAIPENA

1998ko abenduan, Legebiltzarreko presidenteari Arartekoak txosten berezia eman zion, delituak egin dituzten gazteekiko jarduerei buruz. Txosten hori Giza Eskubideen eta Hiritar Eskabideen Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen, 1999ko ekainaren 23an egindako bilkuran. Txosten orokorrean eta bertako gomendioetan zenbait erakunde aipatzen dira, batez ere honako bi hauek:

- Epai boterea (adin txikikoen fiskaltzak eta epaitegiak), prozedurei, neurriak hartzeari, horien jarraipena nahiz ebaluazioa egiteari eta abarri buruz.
- Eusko Jaurlaritza (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gazte Justiziaren Zerbitzua), neurriak betetzeari dagokionez, eta beraz, euren eskura jarritako baliabide eta tresna guztiei dagokienez.

Arartekoaren jarduera, Legeak horrela ezarrita, Eusko Jaurlaritzak betearazi behar dituen arazoetan eta proposamenetan oinarritu da.

1999an, Arartekoaren jarraipena egiteko, delituak egin zituzten adin txikikoak hartzeko hiru zentro bisitatzera joan ginen, gure Autonomia Erkidegoan; eta informazioa eskatu zitzaion (ofizioz) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari. Bisitaldien eta Sailak emandako erantzunaren emaitzari buruzko txostena egin zen iaz (1999ko txostenaren 1.1.6 atala). Bertan, gomendioak betetzeari buruz ikusi ziren alderdi onak nahiz txarrak aipatu, neurrien bilakaerari buruzko datu konparatzaileak eman eta arreta berezia jartzen zitzaien zerbitzuen eraginkortasunerako garrantzi handia duten lau alderdiri (askatasuna murriztea dakarten alderdiak)

- Harrera zentroen sarearen egituraketa.
- Bertako profesionalen lanbide egoera.
- Zerbitzuek laguntzako beste sare batzuekin dituzten harremanak.
- Adin txikikoak irteteko eta emantzipatzeko dituzten aukerak.

Arazo horiek lehentasunezko arreta izan dute 2000. urtean egindako jarraipenean. Arartekoaren langileek Andollu, Urtuella eta Aramaioko hezkuntza zentroetara egindako bisitaldi berriak urriaren 11n nahiz 30ean eta azaroaren 3an egin ziren. Gero, azaroaren 13an, Ararteko erakundeak, ofizioz, bi espediente bidali zituen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailera eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera. Espediente batean, delituak egin zituzten adin txikikoak eskolaratzeko baldintzak adierazten ziren (zentroetan egindako egotaldietan); bestean, lehen aipaturiko lau alderdiei buruzko informazio zehatza eskatzen zen, baita azken bi urteotan gauzaturiko neurriei eta zerbitzuen arautegiari buruzko informazioa ere. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren lehenengo erantzuna abenduaren 22an jaso zen, eta bertan, Gazte Justiziako Zerbitzuaren lan Memoria sartzen da (2000ko maiatzekoa). Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren erantzuna 2001eko urtarrilaren 3an jaso zen.

Arartekoak ofizioz eragindako jarduerak eta azterturiko alderdiak nahiz lorturiko erantzunak, beste alde batetik, ondoren laburbilduta daude, eta horietan interes bereziko alderdiak nabarmendu ditugu. Horiek aztertzen hasi baino lehen, gogoratu egin behar da erreferentziako elementutzat hartu beharreko datu bat, datu horrek (neurri handi

batean) etorkizunean baldintzatu egingo baitu arazoa: 2001eko urtarrilean 5/2000 Lege Organikoa indarrean sartzea, adin txikikoen zigor erantzukizuna arautzen duen legea.

Lege horri dagokionez, azpimarratu egin behar da parekatu egiten dituela (urte askotako atzerapenarekin) zigorrerako adin nagusitasuna eta adin nagusitasun zibila; horrela, arlo honi buruz nazioartean dagoen arautegia betetzen da, hain zuzen ere, Umearen Eskubideen Hitzarmena.

Adin txikikoei eta nerabeei emandako tratamendu desberdinaren eraginez, azken horiek euren nortasuna garatzeko prozesuan daudela onartzen da; hortaz, euren erantzukizun maila ezin da pertsona nagusiarena bezalakoa izan. Oinarri horretatik abiatuz, lege berrian ezartzen diren neurrien helburua hezkuntza da, baita delituak egin dituzten adin txikikoen gizarteratzea ere.

Legearen oinarrizko printzipioetariko bat hauxe da: adin txikikoaren egoera zehatzetara zigor erantzuna egokitu nahi izatea, eta horretarako neurri kopuru handia ezarri da. Printzipio horrek balorazio ona merezi du; dena den, salbuespen garrantzitsua dauka eta hori, gure ustez, arauketa berriaren puntu txarrenetarikoa da: *larritasun oso handiko* ekintzetarako barneratzeko zehapenaren objektibazioa (16-18 urte bitarteko gazteek egindako ekintzak); egoera hori, legean ezarritakoaren arabera, berrerortze kasuetan edo terrorismo delituetan gertatzen da, besteak beste. 7/2000 Lege Organikoak egindako erreformak larritasuna areagotzearen arrazoi hori azpimarratzen du; horren zorroztasuna, gainera, konstituzio printzipioekin nekez bateratzeko moduko mugetaraino eramaten du.

Nolanahi ere, aditzera eman behar da lege berriaren emaitzak bere aplikazio praktikoaren araberakoa izan dira, batez ere neurri guztiak gauzatzeko behar diren baliabide pertsonalak eta materialak egituratzearen araberakoa. Horri dagokionez, azken urteetan zenbait gauzaren jarraipena egin da, eta horiek berton jasota daude; gauza horiek garratzi handia hartu dute, lege hori indarrean sartu denetik.

## 1. **Barneratze zentroen sarearen egitura**

Gure Erkidegoan, delituak egin dituzten adin txikikoak barneratzeko hezkuntza zentroen sarea, aurten arte, hiru zentrok osatu dute: Andollukoak (neskentzat), Aramaiokoak eta Urtuellakoak (mutilentzat). 2001. urte honetan, Zumarragako zentroa ere sarean sartu da (oraintsu sorturiko zentroa).

Iazko urteroko txostenean, zentro horien ezaugarrien eraginezko ondorio txarretariko batzuk aipatu ziren. Ezaugarriak kokapena, titulartasuna edo lokalen egitura ziren. Eta horien ondorioak, berriz, honako hauek: inguruko gizarte ekipamenduak aprobetxatzeko zailtasunak; joan-etorrietarako zailtasunak, bai adin txikikoentzat eta bai familientzat; halako eginkizunetarako diseinaturik ez dauden eta horretarako behin-behinean laga diren eraikinetan hobekuntzak egin behar izatea... Gure ustez, gainera, Zumarragako zentro berria sarean sartzea une egokia izan daiteke horren oraingo banaketa berrikusteko eta etorkizuna planifikatzeko.

Ohar horiek kontuan hartuz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ondokoari buruzko informazioa eskatu genion:

- Zumarragako zentroaren oraingo egoera eta berori abiatzeari buruzko aurreikuspenak.

- Sailak oraingo zentroak erantzun beharrizanetara egokitzeari buruz egiten duen balorazioa, lehen aipaturiko ezaugarrien arabera: kokapena, gaitasuna, helburua (neskak-mutilak), azpiegiturak, ekipamendua eta titulartasuna.
- Sailak oraingo sarea indartzeari, aldatzeari edo hobetzeari buruz dituen aurreikuspenak.

Sailak emandako erantzunetik, ondoko elementu hauek aipa daitezke:

- Sareak eskainitako leku kopurua nahikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan halako adin txikikoak barneratzeko dauden eskakizun guztiei erantzuna emateko (5/2000 Legea indarrean sartu ondoren). Zumarragako egoitza zentroa sarean sartzean, beste 40 leku egongo dira, eta horiek gainerako zentroen 27 lekuei gehitu behar zaizkie.
- Onartu egiten dira M.A. Remírez (Urtuella) zentroaren mugak, egiturari edo titulartasunari dagokionez, eskainitako zerbitzua hobetzeko. Horretaz aditzera emandakoaren arabera, "*Bizkaian titulartasun publikoko beste Hezkuntza Zentro bat irekiko da, eta horrek Urtuellakoa ordeztuko du*", eta "*zenbait udalekiko kudeaketak hasi dira, eraikinak lagatzeko edo erosteko*", baina oraindik ezin daiteke esan noiz irekiko diren.
- Aramaioko Mendixola zentroari dagokionez, horren kokapenaren eraginez, zentro hori baliabideetatik urrun dago, baina azpiegitura oneko zentroa da (handitzeko moduko azpiegitura). Andolluko zentroaren azpiegitura ere (neskentzako zentroa) oso ona da, baina lur gehiago edukiz gero hobea izango litzateke.

## 2. **Bertako langileen lanbide egoera**

Andolluko zentroa orain ere Gaztaroan Ekin Hezkuntza Elkarteak kudeatzen du. Aramaiokoa eta Urtuellakoa, berriz, Berriztu Hezkuntza Elkarteak kudeatzen ditu. Zerbitzu horien kudeaketaren lagapena (Eusko Jaurlaritzak elkarteei egindako lagapena), bestalde, urteroko lehiaketa publiko edo hitzarmen-programa luzagarrien bidez egiten da.

Iazko urteroko txostenean, ikusitako arazoak adierazi ziren, eta arazo horiek indarreko hitzarmenaren edo urteroko kontratuaren formularen eraginezkoak dira: langileen osaketako aldaketa nahiz mugikortasun handia, lanbide egoera hobetzeari buruzko eskakizunak (kontratuen behin-behinekotasuna gainditu), oraingo sistemarekin langileen antzinatasunaren ondoriozko zamak onartzeko arazoak (hirurtekoak). Zerbitzuen kudeaketa adjudikatzeko modurik onenaren edo bertako langileen lan baldintza onenen balorazioa albo batera utzita, erakunde honek kezka handia erakutsi zuen, ikusitako arazo batzuek emandako zerbitzuaren kalitatean eta jarraitasunean duten eraginari buruz, gai hori garrantzi handikoa baita sektore horretako lanerako. Izan ere, elkarteen eta profesionalen ekonomi nahiz soldata egoerari buruzko jarduera batzuk hasi ziren, baita etorkizunean egin beharreko hobekuntzak jakiteko jarduerak ere. Horren guztiaren arabera, 2000. urtean ondokoari buruzko informazioa eskatu zitzaion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari:

- Zumarragako zentro berrirako aurreikusitako kudeaketa sistema (gastuaren aurreikuspena, adjudikazio sistema, berrikuspen zein jarraitasun mekanismoak...).

- Oraingo zentroen kudeaketari eta bertako langileen lanbide egoerari buruz egin diren edo egingo diren aldaketak.
- Sailak urteroko hitzarmen luzagarriei eta horrek zerbitzuaren kalitatean dituen ondorioei buruz egiten duen balorazioa.

Sailak emandako erantzunetik, ondoko elementuak aipa daitezke:

- Zumarragako zentro berriaren kudeaketarako aurreikusitako aurrekontua 541 milioikoa da, hiru ekitalditan banatuta: 29 milioi 2000. urterako, 197 milioi 2001. urterako eta 314 milioi 2002. urterako.
- Orain dauden hiru zentroen kudeaketa kontratuek kantitate hauek eman dituzte 2000. urtean:
  - M.A. Remírez HZ(Urtuella): 71.396.550 pta.
  - Mendixola HZ(Aramaio): 86.250.000 pta.
  - Andollu HZ: 56.500.000 pta.
- Zumarragako zentroaren kudeaketa adjudikatzeko prozedura, kontratuaren bereziaren bidezkoa (2002ko abenduaren 31ra arteko indarraldia, eta urtero luzatzeko modukoa, zortzi urteko gehieneko epean), 2000ko irailaren 12an hasi zen, eta horren berri EHAAn argitaratu zen.
- Zentro berria mailaka ireki nahi da, harik eta 2002. urtean ibilera erabatekoa izan arte. Eraikitako bost moduluen erabateko ibilerarako, gutxienez 60 profesional beharko dira, eta askotako ezaugarriak eta eginkizunak dituzten profesionalak (zuzendaritza, administrazioa, hezitzaileak, lantegiko irakasleak, gizarte langileak...).
- Sailak "*zentro guztietako hezitzaileentzat hileroko 200.000 pta. likidoko soldata bermatu*" nahi du. Zumarragaren kasuan, kantitate hori bermaturik egongo da aurten hasita. Gainerako hiru zentroen kasuan, Sailak adierazitakoaren arabera, egoera horretara iristeko, "*hurrengo bi ekitaldietan aurrekontuak handitu egingo dira*"; baina hori ezin izango da berehala egin, aurrekontuaren luzapenak ezarritako baldintzen ondorioz.
- Kontratuen iraupenari dagokionez, hauxe esaten da: "*Zumarragarako lehiaketarekin egin den bezala, Sailaren helburua bi urteko epean (2002) kontratuen iraupena 10 urtera arte luzatzea da. Aldaketa horrek oraingo kontratuek sortzen duten ziurgabetasuna (urteroko bi luzapen) galaraziko luke eta, horren ondorioz, profesionalek egonkortasun handiagoa edukiko lukete.*"

## 3. Barneratze zentroek laguntzarako beste sare batzuekin dituzten harremanak

Hemen elkarteko ekipamenduen aprobetxamendua, zerbitzu berezi hauek beste zerbitzu batzuekin dituzten harremanak (gizarte zerbitzuak, osasunekoak, hezkuntzakoak...) eta abar aipatuko ditugu. Arazo honi buruzko gomendio bereziak egin ziren Arartekoaren txosten berezian; gainera, jarraipena egiteko orduan ere arreta berezia jarri zaio. Horrela, iazko urteroko txostenean, halako nerabeak behar bezala eskolaratzeko dauden arazoak nabarmendu genituen; gainera, bertan gogorarazitakoaren arabera, adin tarte hori (14-16 urte) derrigorrezko hezkuntzaren barruan sartzen da eta, beraz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskumenekoa da.

Arartekoak 2000. urtean arreta berezia jarri zion arazo honi, eta ofizioz jardun zuen, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailean eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean.

Hiru hezkuntza zentroetara egindako bisitaldietatik (1999an eta 2000n egindako bisitaldiak), eskolaratzeari buruzko elementuok nabarmendu daitezke:

- Zentroek kudeatzen dituzten elkarteek hezkuntza Administrazioko ordezkariekin burutu dituzten ekimenek ez dute emaitza onegirik eman; ekimenok, berriz, bertan sarturiko adin txikikoak eskolatzeari loturiko arazoak konpontzeko egin ziren.
- Zerbitzu hauetako profesionalen iritziz, aurretiazko eskolaratzea eta euren aukerak kontuan hartuz, bertatik hurbil dauden ikastetxeetan arazo barik sartzeko moduko adin txikikoak oso gutxi dira. Izan ere, azken bisitaldiak egin zirenean (urria-azaroa) bildutako informazioaren arabera, egoera hori adin txikiko baten kasuan soilik gertatzen zen, Aramaion dauden hamaiketatik, eta hiru adin txikikoren kasuan, Urtuellan dauden zortzietatik.
- Oro har, barneratze zentroko hezkuntza taldeak kanpoko eskolaratzea egingarria eta onuragarria dela uste duenean, berak bere gain hartzen du ikastetxe egokia aurkitzeko eta jarraipena egiteko ardura. Aukeraturiko ikastetxean eskabidea ukatuz gero (halakorik gertatzen denean), hezkuntza ikuskapenaren eskuhartzea eskatzen da.
- Barneraturiko adin txikikoen egoerarik ohikoena eskola atzerapena edo porrota da (eskolatik aurretiaz irtetea ere bai); hori konpentsatzeko, banaketako edo talde txikien barruko arreta eskaintzen zaie, barneratze zentroan bertan.
- Barneratze zentroan bertan egiten den banakako arreta horretarako, zentro bakoitzak ikasgela bat eta titulazio egokia duen pertsonaren bat dauka, ordu batzuetan irakaskuntza lanak bere gain hartzeko. Halaber, lantegiren bat ere badauka, eta horrek kasuan kasuko aukerak eta ekipamenduak eskaintzen ditu.

Azaldutakoaren arabera, erakunde honen ustez, berehala konpondu beharreko arazo nagusiak bi dira:

- Ahal denean, eskolaratze arrunta erraztea.
- Beti ere, barneratze zentroan bertan egindako ikasketan baliozkotasun akademikoa bermatzea.

Soluziorako aukerak oso ugariak izan daitezke: jatorrizko zentroekiko lotura, lurralde ordezkaritza bakoitzean solaskideak finkatzea, irakaskuntza zuzena bereganatzea (bertako langileekin), barneratze zentroetan emandako ikasketen baliozkotzea... Beste alde batetik, kontuan izan behar da egoerak orain arteko hiru zentroetan zuela eragina, baina Zumarragako zentro berrira ere heda daitekeela, horrek ezaugarri bereziak dituen arren (16 urtetik gorakoak).

Arartekoak ohar horiek eta beste batzuk egin zizkien, bai Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari eta bai Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari, bakoitzaren eskumenen arabera.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailak abenduaren 20an emandako erantzunean, hezkuntzako zenbait zerbitzurekin egoera konpontzeko izandako

harremanak aipatzen dira. Gainera, Hezkuntzako Ikuskapen Nagusiak hauxe egiteko asmoa duela esan da: "*Zentroen zuzendariari proposamen idatzia bidaltzea, Zentro bakoitzean eskola arretarako unitateak sortzeko; unitateok sare publikoko irakasleak edukiko dituzte eta kasuan kasuko ikastetxera atxikita egongo dira.*"

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak 2000ko abenduaren 28an emandako erantzunean esaten denez, halako ikasleei emandako erantzunak 1998ko uztailaren 30eko Aginduan sartu behar dira, agindu horren bidez, aurkako gizarte nahiz kultur egoeran dauden edo eskolara egokitzeko arazoak dituzten ikasleentzako hezkuntza ekintza arautzen da. Agindu horretan ezarritakoaren arabera, halako ikasleentzat eskolaratze programa osagarriak egingo dira, DBH egiteko aukera izan dezaten, bai zatika edo bai lanaldi osoan, denbora epe jakinean (kanpoko unitate berezietan); gainera, halako programak Saileko ikastetxeetan euretan ere eman beharko dira, edo zentro homologatuetan, lankidetza hitzarmenen bidez.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Sailak oraindik ere ez du garatu agindu hau; horrenbestez, gaur egun ez dago zentroak homologatzeko mekanismorik. Hori dela eta, halako ikasleei eskolaratze osagarriko programak eskaintzeko, lankidetza hitzarmenak egiten dira zenbait erakunderen artean: udaletxeak, irabazi asmorik gabeko fundazioak edo gizarte ekimeneko hezkuntza zentroak. Nolanahi ere, sailak emandako erantzunaren arabera, programak banakakoak dira eta ikasle bakoitzak erreferentziako ikastetxe bat dauka (ikasle hori eskolaratzeko eta ebaluatzeko ardura hartuko duen ikastetxea).

Hezkuntza Sailak egoera hori arautzeko asmoa dauka, halako programak eskaini behar dituzten zentroak eta horretarako kontuan hartu behar diren baldintzak zehaztuz. Beraz, egoera behin betiko arautu arte, Hezkuntza Sailak delituak egiten dituzten adin txikikoak zaintzeko planteatzen dituen neurriak honako hauek dira:

a) "*Halako zentroetan dauden adin txikiko ikasleak inguruko ikastetxe arrunten batean matrikulaturik egongo dira, eta ikastetxe horrek ikaslearen espediente akademikoaren ardura izango du.*
b) *Ahal den neurrian, ikaslearen kanpo-eskolaratzea egingo da, inguruko ikastetxeren batean.*
c) *Ahal den neurrian, komenigarria dela pentsatuz gero, ikasleak eskolaratze osagarriko programa edukiko du, eta hori hitzarturiko zentroren batean edo alde horretako LHIren batean egingo da.*
d) *Hezkuntza Bereziko Lurralde Arduradunak halako ikasleak eskolaratzeko erantzukizuna edukiko du; gainera, Sailak Barneratze Zentroekin dituen harremanen solaskidea izango da.*
e) *Barneratze zentroetan egindako ikasketen baliozkotasuna, bestalde, halako ikasleak matrikulaturik dituen ikastetxeak erabakiko du; horretarako, kontuan izango du barneratze zentro horietatik egindako ebaluazio etengabea, eta proba jarri ahal izango du Bigarren Hezkuntza lehenengo zikloaren amaieran eta DBHko bigarren zikloko ikasturte bakoitzean.*"

Sailaren jakinarazpenak, beste alde batetik, neurri horien behin-behinekotasuna adierazten du; gainera, "*datorren ikasturtean ekimen berriak garatzeko konpromisoa*" ere adierazten du, "*delituak egin dituzten adin txikikoak eskolaratzeko arazoei erantzun egokiagoa eman ahal izateko.*"

## 4. **Irteteko eta emantzipaziorako aukerak**

Iazko urteroko txostenean, erakunde honek aditzera eman zituen egotaldia amaitu eta adin txikikoa bere berezko inguruan integratu behar denean edo beste zerbitzu batzuk zaindu behar dutenean sortzen diren arazoak. Aurten informazioa eskatu zaio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari, horri dagozkion aurreikuspenei, programei edo zerbitzuei buruz (Sail horrek berorrek edo beste erakunde batzuekiko lankidetzan gauzaturikoak).

Sailak emandako erantzunetik, honako elementu hauek azpimarra daitezke:

- Zailtasunik handienak familiara itzultzea komenigarria edo egingarria ez denean gertatzen dira, baldin eta babes-sareko beste edozein zentrotara edo etxetara joan nahi ez denean.
- 5/2000 Lege berria indarrean sartzearen eraginez, jarduera lerro hau indartu egin behar da; izan ere, barneratze neurri guztietan bi betearazpen fase ezartzen dira, bata zentroan bertan eta bestea zaindutako askatasun araubidean, itzultzeko orduan (barneraturik egon ondoren) sor daitezkeen arazoak inguruan bertan landu ahal izateko.
- Gazteak gizarteratzeko behar diren zerbitzuak eta programak (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte zerbitzuak…), garatu ere, biztanleria osoari zuzendutako gizarte babeseko sistemek eurek garatu behar dituzte, gazte horiek neurri judizialik bete duten ala ez kontuan hartu barik. Hala eta guztiz ere, programa edo zerbitzu bereziak sustatu behar dira (iraupen laburrekoak eta trinkoak), barneratze neurri nahiko luzea bete duten pertsonek elkarteko sarean gutxieneko batzuk segurtaturik edukitzeko.
- 2000. urtean lau milioiko aurrekontu partida ezarri da, eta hori luzatu edo handitu egin nahi da datorren urterako; horrela, emantzipazio programa aurrendaria zehaztu eta abiatu ahal izango da, barneratze neurriren bat bete duten pertsonentzat. Zerbitzu edo programa horrek kontuan hartu beharko ditu 5/2000 Legearen ondoriozko errealitateak eta arazoak: adin nagusiko gazteak (18-23 urte), familiarik gabe iritsitako adin txikiko atzerritarrak… Nolanahi ere, zerbitzu hori behin-behinekoa izango da, eta gizarte babeseko oinarrizko sareak bereganatu beharko du.

## 5. **Zerbitzuen araudiaren arauketa**

Arartekoaren txosten monografikoan, azpimarratu egiten zen zerbitzuen ibilera egokirako oinarrizko alderdi batzuk arautu behar zirela, berezko arautegi baten bitartez. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak 2000ko urtarrilean emandako erantzunean (Arartekoaren gomendioak betetzeari buruzkoa), handik urtebetera oraindik argitaratu ez den dekretu-zirroborroa aipatzen zen behin eta berriro.

Sailari berriro ere arazo horri erantzuna emateko eskatu eta 2000ko abenduaren 20an emandako erantzunean hauxe esaten da hitzez hitz: "*Dekretu hori amaituta*

*dago, eta laster egokitu egingo da, 5/2000 Legeak edukiko duen behin betiko testura; gainera, Estatuko Gobernuak Estatu osorako Arautegi Orokorra argitaratuko duen ala ez argitu behar du eta gu horren zain gaude. Nolanahi ere, 2001eko lehenen hiruhilekoan argitara daiteke."*

## 6. Azken urteotan betearazitako neurrien bilakaera

Arartekoaren txostenean (delituak egin dituzten gazteei buruzko txostenean) azterturiko jarduera lerro nagusienetarikoa, bestalde, Legaren ahalmen guztiak garatzeari buruzkoa da, ezarritako neurri guztiei dagokienez (batik bat, askatasuna gutxien murrizten dutenak, hezkuntza ahalmen handiena dutenak eta barneratzea eskatzen ez dutenak). Bitarteko eta baliabide gehiago edo gutxiago edukitzea ere faktore erabakigarria da, neurriak benetan aplikatzeko orduan; Ararteko erakundeak arreta berezia jarri dio horri, neurriak betearaztea Euskadiko Administrazioaren eskumenekoa baita.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak datuak emateari buruz egin diogun eskabideari emandako erantzunaren barruan (sail horrek neurriak betearazteko erantzukizuna dauka), "Gazteen Justizia Zerbitzuaren lanaren Memoria: 1999an adin txikikoen epaitegiek ezarritako neurriak betetzearen egoera" deritzona sartzen da, 2000ko maiatzari dagokionez. Bertan, informazio oso zehatza eta interes handikoa ematen da; horri dagokionez, hemen elementu oso esanguratsu batzuk baino ez ditugu jasoko, erakunde honen ikuspegitik.

Sailari eskatu dizkiogun datuen artean, 2000. urteari buruzkoak ere sartzen dira, eta memorian ez dira datuok jasotzen; urtea amaitzean, datuok berriro eskatu dira. Azken urteari buruzko daturik sasoiz lortu denean, txostenean sartu da.

Gertaeren edo urratzeen eta horiei aplikaturiko neurrien arteko egokitzapenaren edo neurri bakoitzaren eraginkortasunaren balorazioa albo batera utzita (hori ez da gure lana), memoria horren azterketatik ondoko elementuok aipa daitezke:

Alderdi onei dagokienez:

- Hezkuntza ahalmen handia duten neurrien aplikazioak izandako gorakada, adibidez, elkartearen onerako diren zerbitzuak ematea. Horri dagokionez, aipagarria da bitartekaritzetan ikusitako gorakada handia; izan ere, 1999an epaile-eskuhartzeen erdia eragin zuten.

**AZKEN LAU URTEOTAN GAUZATURIKO NEURRIAK**

| | 1997 | | 1998 | | 1999 | | 2000 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZT. | % | GUZT. | % | GUZT. | % | GUZT. | % |
| Bitartekaritza/Konponketa | 94 | 26.8 | 158 | 39.9 | 247 | 46.9 | 260[2] | 46[2] |
| Kargu hartzea | 120 | 34.2 | 97 | 24.5 | 72 | 13.7 | 70 | 12.4 |
| Zaindutako askatasuna | 53 | 15.1 | 60 | 15.2 | 56 | 10.6 | 65 | 11.5 |
| Elkartearen onerako zerbitzuak ematea | 53 | 15.1 | 39 | 9.8 | 77 | 14.6 | 83 | 14.7 |
| Anbulatorioko tratamendua | 4 | 1.1 | 3 | 0.8 | 9 | 1.7 | 7 | 1.2 |
| Asteburuko barneratzea | 5 | 1.4 | 8 | 2 | 15 | 2.8 | 16 | 2.8 |
| Zentroko barneratzea | 22 [1] | 6.3 | 31[1] | 7.8 | 51[1] | 9.7 | 64[1] | 11.3 |
| **GUZTIRA** | **351** | **100** | **396** | **100** | **527** | **100** | **565** | **100** |

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila)

[1] Zentroetako barneratzeak zenbatzeko irizpideak aldatu egin dira: horrela, 22 eta 31 adin txikiko dira (1997an eta 1998an); baina 51 neurri, 37 adin txikikori dagozkienak (1999an), eta 64 neurri, 33 adin txikikori dagozkienak (2000an).

[2] Urteko kalkulua, lehen seihilabeteko datuen arabera.

- Era guztietako gizarte eragileengandik eta erakundeetatik (publikoak nahiz pribatuak) lortu den inplikazioa, neurri batzuk gauzatzeko laguntzailetzat. Adibidetzat, elkartearen onerako emandako zerbitzuak aipa daitezke; horietan enpresa, elkarte eta erakunde askok hartzen dute parte.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zentroetan barneratzerik bete behar ez izatea (adin txikikoen hiru epaitegietatik edozeinek erabakita); iraganean beharrizan hori nahiko arrunta zen.
- 1999. urtean barneratze itxiko neurririk aplikatu ez izanak, bestalde, askatasuna murrizteko mailarik handiena adierazten du.
- Gazteen Justiziarako Zerbitzuaren lan Memoria egotea bera eta horren ikuspegia; izan ere, bertan, Legean ezarritako neurri bakoitza aztertzeaz gain (baloraziorako oso erabilgarriak diren datu asko emanez), zenbait hobekuntza planteatzen ditu, datuak biltzeari eta horien homogeneotasunari dagokionez (gerora egingo diren azterketarako).

Arazo kezkagarriei dagokienez, txosten monografikoan dauden edukien eta datuen arabera eta Arartekoaren ikuspegitik, ondokoak azpimarra daitezke:

- Azterturiko azken urteko datuek adierazten dutenez, txosten monografikoan Arartekoaren kezka eragin zuten egoeretariko bi oraindik ere konpondu barik daude:
  - delituak egin dituzten adin txikikoei erantzun judiziala emateari dagokionez dauden irizpide oso desberdinak; horren arabera, eskumen hori adin txikikoen epaitegiak dauka (ikusi, adibidez, bitartekariei edo anbulatorioetako tratamenduei buruzko datuak...);

- eskuhartzea eragin duten gertaeren edo urratzeen eta harturiko neurrien betetzearen arteko denbora luzeegia (urtebeteko batez bestekoa).

Kasu biotan, arazoa eremu judizialaren eskumenekoa da; horrek beharrezko neurriak hartu beharko ditu, ondoko taula bietan jasotako egoerak aldatzeko:

### 1999an GAUZATURIKO NEURRIAK, HORIEK ERABAKITZEN DITUZTEN EPAITEGIEN ARABERAN

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** | **Kop.** | **%** |
| Bitartekaritza/Konponketa | 27 | 15.7 | 165 | 64.7 | 55 | 57.3 | 247 | 46.9 |
| Kargu hartzea | 47 | 27.3 | 13 | 5.1 | 12 | 12.5 | 72 | 13.7 |
| Zaindutako askatasuna | 32 | 18.6 | 13 | 5.1 | 11 | 11.5 | 56 | 10.6 |
| Elkartearen onerako zerbitzuak ematea | 32 | 18.6 | 40 | 15.7 | 4 | 4.1 | 77 | 14.6 |
| Anbulatorioko tratamendua | 9 | 5.2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 9 | 1.7 |
| Asteburuko barneratzea | 5 | 2.9 | 6 | 2.3 | 4 | 4.1 | 15-16 | 2.8 |
| Zentroko barneratzea | 20 | 11.6 | 18 | 7.1 | 10 | 10.4 | 51(1) | 9.7 |
| **GUZTIRA** | **172** | **100** | **255** | **100** | **96** | **100** | **527** | **100** |

(Iturria: Gazteen Justizia Zerbitzuaren Memoria. Eurek landuta)

(1) gauzaturiko 51tatik 3 beste gazte epaitegi batzuetatik datoz

**1999an GAUZATURIKO NEURRIAK:**
**"DENBORA" ADIERAZGARRIEI BURUZKO DAUAK**

| | Neurri kopurua | Neurriaren iraupena | Gauzatzeko eskatzen denetik eta neurria hasi arteko denbora | Gertaeraren edo urratzearen eta neurria gauzatu arteko denbora |
|---|---|---|---|---|
| Bitartekaritza/Konponketa | 247 | – | – | |
| Kargu hartzea | 72 | – | | |
| Zaindutako askatasuna | 56 | 5.4 hilabete | 8 egun | 12.4 hilabete |
| Elkartearen onerako zerbitzuak ematea | 77 | 14 ordu | 27 egun | 13 hilabete |
| Anbulatorioko tratamendua | 9 | - | 28 egun | 11.3 hilabete |
| Asteburuko barneratzea | 15 | (**) | 21 egun | 9.9 hilabete |
| Zentroko barneratzea | 37 | Kautelakoa: 3 hilabete<br>Irekia: 3.65 hilabete<br>Erdi-irekia: 4.48 hilabe | (*) | Irekia: 8.5 hilabete<br>Erdi-irekia: 10.4 hilabete |
| **GUZTIRA** | **527** | | | |

(Iturria: Gazteen Justizia Zerbitzuaren Memoria. Eurek landuta)

(*) 51 barneratzeetatik 39tan, horiek lekua eskatu eta egun berean gertatu ziren, eta beste 10 kasutan, 8 egun baino lehenago

(**) Barneratze guztien %75, izan ere, 3 asteburutan izan ziren

- Oso adierazgarriak eta kezkagarriak dira neurrien menpeko pertsonen ezaugarriei buruzko datu batzuk. Memorian datu asko agertzen da (neurri edo eskuhartze judizial guztiei buruzkoak izan ez arren), adinari, sexuari, talde baztertu batzuetakoak izateari, berrerortze mailari eta abarri buruz.

Sexuari dagokionez, hurrengo taulan ikusten denez, eta bitartekaritzak eta kargu hartzeak kontuan hartu barik (ez daude memorian jasota), mutilen eta nesken arteko proportzioa lautik batekoa da. Gainera, alde nabaria dago (batez ere, nesken kasuan), zentroan barneratzeko neurriak eta erkidegoaren onurako zerbitzuak aplikatzeko orduan.

### 1999ko NEURRIAK, ADIN TXIKIKOEN SEXUAREN ARABERA

| | Mutilentzako neur. | | Neskentzako neurriak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Kop.** | **% zutabea** | **Kop.** | **% zutabea** | **Neurriak** |
| Bitartekaritza/Konponketa | | | | | 247 |
| Kargu hartzea | | | | | 72 |
| Zaindutako askatasuna | 47 | 28,1 | 9 | 21,4 | 56 |
| Elkartearen onerako zerbitzuak ematea | 59 | 35,3 | 18 | 42,8 | 77 |
| Anbulatorioko tratamendua | 9 | 5,4 | 0 | 0 | 9 |
| Asteburuko barneratzea | 13 | 7,8 | 3 | 7,1 | 16 |
| Zentroko barneratzea | 39 | 23,3 | 12 | 28,6 | 51 |
| **GUZTIRA** | **167+x** | **(100)** | **42+y** | **(100)** | **527** |

(Iturria: Gazteen Justizia Zerbitzuaren Memoria. Eurek landuta)

- Erakunde honen iritziz, adin txikiko horien ezaugarri batzuei buruzko datuak oso kezkagarriak dira eta azterketa sakona merezi dute; datuok, neurri handiagoan edo txikiagoan, euren ahultasunari buruzkoak dira. Esate baterako:
  - talde baztertuetakoak izatea;
  - benetan eskolaraturik ez egotea;
  - familien edo erakundeen babesik ez edukitzea;
  - berrerortze maila.

  Gazteen Justizia Zerbitzuaren Memoria ezaugarri horiek guztiak aztertzeko ahalegina egin du. Datu interesgarri guztiak jasotzen ez baditu ere, datu nahiko eskaintzen du, gutxi ezagutzen den errealitatea erakusteko, eta hori ondoko koadro honetan laburbildu nahi izan dugu:

### 1999an NEURRIREN BAT JASO ZUEN BIZTANLERIAREN AHULTASUNA

| | Neurri kopurua | Talde baztertuetakoa izatea | | Eskolaratu gabeak | | Babesturiko gazteak | | Berrerortzea | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **GUZT.** | **%** | **GUZT.** | **%** | **GUZT.** | **%** | **GUZT.** | **%** |
| Bitartekaritza/Konponketa | 247 | | | | | | | | |
| Kargu hartzea | 72 | | | | | | | | |
| Zaindutako askatasuna | 56 | 21 | 37 | 18 | 32 | 5 | 9 | 34 | 61 |
| Elkartearen onerako zerbitzuak ematea | 77 | 14 | 18 | 15 | 19 | | | > 20 | 28 |
| Anbulatorioko tratamendua | 9 | 3 | 33 | | | | | | >70 (1) |
| Asteburuko barneratzea | 15-16 | (7-8-9) | 50 | | | | | > 11 | >70 (1) |
| Zentroko barneratzea | 51 | 33 | 65 | 27 | 53 | 23 | 45 | > 35 | >69 (1) |
| **GUZTIRA** | **527** | **79, 209tik** | **38** | | | | | | |

(Iturria: Gazteen Justizia Zerbitzuaren Memoria. Eurek landuta)

(1) %ak 1999an beste neurriren bat bete edo jaso duten gazteei buruzkoak dira

Askatasunaren aurkako neurririk gogorrena eta murriztaileena hartuko dugu erreferentziatzat: zentroan barneratzea.

- 1999an aplikaturiko 51 neurriak 40 gazteri dagozkie (33 mutil eta 7 neska); horien batez besteko adina, gertaerak jazo zirenean, 15 urtekoa zen.
- Barneratzeko hartutako 51 neurrietatik, 33tan (%65) neurria jaso duen adin txikikoa bazterturiko talderen batekoa da: 30 ijitoak eta 3 magrebiarrak. Hau da, 1999an barneratze neurriren bat bete behar izan duten adin txikikoen erdia baino gehiago (%58) ijitoa da.
- Kasu guztien %53tan, nerabeak eskolaratu gabe zeuden (azken eskola hilabeteetan ez ziren ikastetxe batera joan, kasu batzuetan matrikulaturik egon arren). Eskolatu gabeko 27 kasuetatik 24 (%88,9) talde baztertuetakoak dira.
- Adin txikiko horietatik %45 babesturik zegoen, edo gure Erkidegoko foru aldundiek horien zaintza euren gain hartu zuten.
- "Berrerortzeari" dagokionez (1999an bertan beste neurri judizialen bat jaso dutenen kasua), barneraturiko 35 adin txikikoen kasua da (neurri hau jaso duten guztien %68,6).

Oso interesgarria izango litzateke datu horiek hain murriztaileak ez diren datuekin konparatzea, adibidez, bitartekaritzekin eta kargu hartzeekin.

- Gertaeren biktimei dagokienez, memoria batzuetan datu kezkagarria ikusten da, ondorengo jarduerak orienta ditzakeen datua. Hain zuzen ere, biktimarik gehienak ere adin txikikoak dira (adibidez, bitartekaritza prozesuetan inplikaturiko hirutik bat baino gehiago adin txikikoa da).
- Azkenik, neurriak gauzatzeko baliabiderik ez egoteari edo egon daudenen mugei dagokienez, deigarria da zerbitzurik ez egotea eta barneratze terapeutikoak edo anbulatorioetako tratamenduak aplikatzeko dauden arazoak.

2001ean adin txikikoaren erantzukizunari buruzko Lege berria indarrean sartuko da; horrek, zalantzarik gabe, aldaketa handiak eragingo ditu deskribaturiko panoraman, eta aldaketa horiek, halaber, baliabide eta jarraipen gehiago eragingo dituzte.

### 1.1.7. ARARTEKOAK SAN FRANTZISKO AUZOAN POLIZIAK ATZERRITARREKIKO EGINDAKO JARDUEREI BURUZ EMAN DITUEN GOMENDIOAK BETETZEA

1997ko azaroan, Arartekoak ofiziozko eskuhartzea hasi zuen, poliziak San Frantzisko auzoan atzerritarrekiko egindako jarduerei buruz. Ordura arte eta 1998an egindako eskuhartzeak, labur-labur, Arartekoak urte horretan emandako urteroko txostenean jaso ziren (1998ko txostena, I. kapitulua, 1.3, 1.4, 1.5, 1.6, 2 eta 2.1 atalak). Gero, 1999ko ekainaren 17an, Arartekoak Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean (Eusko Legebiltzarra) egindako agerraldian, urteroko txostenaren berri eman zuen; txostena aurkeztu eta Legebiltzarreko taldeei gaiari buruzko dossier osoa aurkeztu zitzaien.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak, 1999ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran, legezkoa ez zen proposamen bat eztabaidatu eta onetsi zuen, Bilboko San Frantzisko auzoko egoera gatazkatsuari buruz; eta, besteak beste, ondoko erabakiak hartu zituen:

> *"3.- Legebiltzarrak eskatzen duenaren arabera, bete egin beharko dira Arartekoak bere txostenean azaldutako gomendioak, Bilboko San Francisco auzoan poliziak atzerritarrekiko egindako jarduerei buruzkoak; gainera, inplikaturiko administrazioek gomendio horiek betetzeko konpromisoa hartu beharko dute. Puntu hori kontrastatzeko, Arartekoak bere gomendioen betetze-mailari eta horren gaineko ebaluazioari buruzko txostena eman beharko du, sei hilabete barru."*

Legebiltzarreko erabakia betetzeko, behin-behinean ezarritako epearen luzapena lortu ondoren, Arartekoak ondoko izenburua duen txostena eman zion Legebiltzarreko presidenteari: "*Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari eta Bilboko Udaletxeari egindako gomendioak betetzeari buruz egindako jarraipena, poliziak San Francisco auzoan atzerritarrekiko egindako jarduerei dagokienez*". Txosten osoak 75 orrialde ditu gaztelaniaz, eta 72 euskaraz, baita erantsitako zazpi agiri ere; horien artean, Arartekoak Bilboko Udaletxeari eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari egindako datu-eskabideak sartzen dira, baita bi erakunde horiek idatziz emandako erantzunak ere. Txostena Legebiltzarrean aurkeztu zen, 2000ko otsailaren 29an. Gainera, iazko urteroko txostenean horren laburpena jaso zen; laburpen hori balorazio mailako alderdietan oinarritzen zen edo, hain zuzen ere, Arartekoak egindako gomendioen nahiz proposamenen betetze-mailari loturiko alderdietan (1999ko txostena, 1.1.8 atala).

Jarraipen txostena egiteko (2000ko otsailean aurkezturikoa), Arartekoak datu bilketa handia egin behar izan zuen; gainera, bost informazio iturri osagarri erabili behar izan zituen, balio oso desberdineko informazio iturriak: Ertzaintzako nahiz Udaltzaingoko arduradunen datuak zein balorazioak; elkarteen datuak zein balorazioak; erakundean jasotako kexak; epaiak; eta prentsan agerturiko albisteak.

## 1.1.8. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERAREN JARRAIPENA

Arartekoak oinarrizko gizarte zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoerari buruz emandako txosten berezia argitaratu eta Eusko Legebiltzarreko Presidenteari eman zitzaion, 1999ko abenduaren 22an. Gero, 2000ko otsailaren 2an Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen. Beste alde batetik, iazko urteroko txostenean, egindako ikerketaren laburpena jaso zen, eta hori zazpi alderditan oinarritu zen, erakunde honen iritziz horiexek baitziren kezkagarrienak, eskubideak bermatzearen ikuspegitik.

2000. urteko lehenengo seihilekoan, txosten horren edukiari buruzko lan-bilerak egin dira, bai oinarrizko unitateetako profesionalekin eta bai udaletxeetan nahiz foru aldundietan zerbitzu horien ardura duten langileekin. Arabaren kasuan, bileren eraginez arazo zehatzak dituzten bi talde bereiztu ziren: Vitoria/Gasteizeko Udaletxeko gizarte zerbitzuak eta lurralde osoko gainerako gizarte zerbitzuak (batez ere, biztanleria sakabanaturik duten herri txikietako gizarte zerbitzuak). Bizkaian eta Gipuzkoan, bilerak bakarrak eta zerbitzu guztiei irekiak izan ziren. Sektoreko profesionalek partehartze handia izan zuten, kasu guztietan (300 pertsona inguru, lau bileratan); gainera, Gizarte Ongizateko foru diputatuen lankidetza aktiboa ere egon zen.

Egin diren bilerei esker, harremanak egon dira eta txostenaren edukiak zein gomendioak hedatu ahal izan zaizkie, zerbitzuaren arreta euren esku duten pertsonei; horrela, zerbitzu hori hobetzeko aukera eman zaie. Bilerek, halaber, oinarrizko arazoak eta eskakizunak zuzen entzuteko aukera eman dute. Horrela, esate baterako:

- profesional askok lanak gainezka egiten dien sentsazioa dute, adjudikaturiko lanei arreta egokia eman ezin izatearen edo planteatzen zaizkien beste lan batzuek hartzearen eraginez;
- baserri eremuetan, biztanle gutxiko guneetan eta alde sakabanatuetan gizarte lanaren zailtasun bereziak (batez ere, Arabako profesionalek planteatuta);
- lurralde eta udalerri bakoitzaren arabera ordainketetan eta lanbide estatusean dauden alde handiak, baita behin-behinekotasun egoeren proportzio handia ere;
- gizarteratzeko hitzarmenak gauzatzeko ereduen eta laguntza teknikoen eskaria;
- zerbitzu desberdinen arteko loturak argi ezartzen dituzten jarduera protokoloak eduki beharra, harreman horiek alderdien borondate onaren menpe egon barik;
- laguntza edo programa batzuetarako kudeaketa formulei buruzko zalantzak (udal kudeaketa edo zentralizatua).

Arazo horiek eta beste batzuk bileretara etorritako profesionalek azaldu zituzten; kasurik gehienetan, Arartekoaren txostenean jasotako ondorioak indarturik gelditu ziren, eta hausnarketa estrategikoa egiteko beharrizana planteatu zen, bai oinarrizko gizarte zerbitzuen oraingo garapenari eta bai horiek etorkizunean izango duten betebeharrari buruz (gizarte ongizateko politiken oinarrizko elementutzat).

2000. urtearen azkenean, Gizarte Ongizateko hiru foru diputatuekin ere bilerak egin ziren, txostenean jasotako arazoetariko batzuk aztertzeko eta hobekuntzarako dauden aurreikuspenak jakiteko. Azken horiei dagokienez, komenigarria da gauza bi adieraztea:

- Halako zerbitzuak indartzeko aurreikuspen batzuk gauzatzea (giza edo ekonomi baliabideak areagotzea eragingo duten zerbitzuak), kasu askotan, aurrekontuaren egoera orokorraren menpe dago (aurrekontu berriak onetsi edo aurrekontuak luzatu).

- 2000ko abenduan akordio garrantzitsuak sinatu ziren lurralde historikoetako Gizarte Ongizateko sailen eta Euskadiko Udalerrien Elkarteko (EUDEL) ordezkarien artean; horiek erantzukizunak eta eskumenak argitzen dituzte, gizarte zerbitzuei eta programei dagokienez (besteak beste, oinarrizko gizarte zerbitzuak).

Akordio horien eraginez, 2000ko azaroaren 9an EUDELek, hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osaturiko Erakundearteko Mahaiaren proposamena gauzatu zen, gizarte zerbitzuei buruzko 5/1996 Legea garatzeko. Bilera horretan eskumenak mugatzeko jarraitu beharreko irizpideak finkatu ziren; irizpideok lurralde bakoitzean gerora harturiko akordioen oinarrian daude. Horrela, esate baterako:

- Ez dago partekaturiko eskumenik. Zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakarraren esku geratuko da.
- Eskumenen ordezkaritza egin daiteke (aldundiek udaletxeei edo udaletxeek aldundiei), zerbitzuen prestazioa eraginkorragoa izateko.
- Eurenez moldatzen diren pertsonen arreta udaletxeen esku geratzen da, eta eurenez moldatzen ez diren pertsonen arreta, berriz, foru aldundien esku.
- Aldi iragankorrak ezartzen dira, eskumen banaketa berriari egokitzeko...

Oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikorako abenduaren 18an sinaturiko akordioan ezarritakoaren arabera, "*hiritarren informazioa, balorazioa eta orientazioa, euren eskubideei eta gizarte baliabideei dagokienez, udal eskumenekoa izango da*". Gainera, horiek "*gizarte zerbitzuen sistema osora sartzeko atea dira*"; alde sinatzaileek, berriz, "*2001eko urria banio lehen, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa egitea erabaki dute, zerbitzuak emateari dagokionez eska daitekeen maila ezartzeko, batez ere oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, lurralde, eskualde, azpieskualde edo udal mailan.*"

Arazo horretan eta aipaturiko akordioan azterturiko beste arazo batzuetan, erakunde honek Arartekoaren txosten monografikoetan aipaturiko arazoak konpontzeko eta gomendioak aplikatzeko gogo handia ikusten du.

Bizkaian oinarrizko gizarte zerbitzuek duten egoerari dagokionez, lurralde horretarako akordioan ezarritakoaren arabera (2000ko abenduaren 29a), "*Zerbitzu horien mantenimendua, langileen kostua ere barne, udaletxeen eskumenekoa izango da.*". Gainera, "*Foru Aldundiak laguntza eman ahal izango du zenbait arlotan, esate baterako, hezkuntzan eta aplikazio nahiz gurutzatze informatikoetan; gainera, Bizkaian aplikatzeko gizarte programak ezartzeko koordinazioa beharko da.*".

Lorturiko akordioak, erakunde honen iritziz, pauso garrantzitsuak dira, eginkizunak argitzeari dagokionez; era berean, baliozkoak izango dira hiritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko; azkenik, gerora beste akordio eta jarraipen batzuk egiteko abiapuntuak dira.

## 1.2. EAEn BURUKO GAIXOTASUNARI EMATEN ZAION ARRETARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

- 2000. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan buruko gaixotasuna zuten pertsonei eskaintzen zitzaien arretari buruzko ikerketa amaitu zen. Horren ikuspegia eta helburuak, berriz, iazko txostenean azaldu ziren (1.4 atala).
  Arartekoaren txosten berezia jendaurren azaldu eta Eusko Legebiltzarreko Presidenteari eman zitzaion ekainaren 19an; gainera, joan den urriaren 26an, Giza Eskubideen eta Hiritar Eskabideen Batzordeak eztabaidatu egin zuen. Halaber, berak nahita, Osasun Sailburua Legebiltzarreko Osasun Sailaren aurrean agertu zen, joan den azaroaren 16an.
  Lehendik argitaraturiko txostena izatean, hemen aurkeztu, bertan ageri diren elementu kezkagarriak aipatu eta berari buruz egindako gomendioak gogoratu baino ez dugu egingo.
- 1992an, Arartekoak buruko gaixotasunak zituzten pertsonen arazoari buruzko ikerketa monografikoa egin eta, Legebiltzarrean, *Psikiatrikoak. Buruko gaixotasuna duten pertsonen egoera ospitale psikiatrikoetan* deritzon txostena aurkeztu zuen. Horrela, beraz, txosten berria horren osagarria eta jarraipen gaurkotua da, baina ez da ospitaleetako arretan oinarritzen, halako pertsonek ospitaleetatik kanpo eta elkartean duen arretan baizik. Kontuan hartu behar da azken hamabost urteetan laguntza psikiatrikoaren berrikuntza handia egin dela; horren helburua, berriz, buruzko gaixotasuna duten pertsonak erakundeetatik ateratzea eta elkarte mailan (ospitale psikiatrikoetatik kanpo, alegia) beharrizanei erantzun hobea ematea izan da.
  Txostena, argi eta garbi, Ararteko erakundeak ahultasun handiko taldeekiko duen kezkaren eraginezkoa da, berori baita orain arteko txosten berezirik gehienen arrazoi nagusia. Buruko gaixotasuna duten pertsonek, zalantzarik gabe, babesik gabeko taldea osatzen dute. Sarritan ez dakizkite euren eskubideak edo ez daude horiek eskatzeko moduko egoeran. Askotan euren defentsa familiek eurenganatzen dute (edo famili elkarteek), eta gainera, euren eskakizunak gizarterantz eta erakundeetarantz bideratzen dituzte. Urte hauetan Ararteko erakundeak buruko gaixotasuna duten famili elkarte askorekin izan dituen harremanei esker, horien arazoak hobeto ezagutzeaz gain, miretsi egiten ditu euren adorea eta konpromisoa. Euren arazoak entzutea eta ulertzea, gainera, lan honi ekiteko beste arrazoietariko bat izan da.
  Erakundeetatik ateratzeko prozesuak burutzeko (gure Erkidegoan gauzaturikoa bezalako prozesuak), arreta eredu berria behar da; eredu horretan, gizartearen partehartzea, tolerantzia, banakako erantzunak, zaintzen jarraitasuna, denon erantzukizuna eta sektore nahiz zerbitzu guztien arteko koordinazioa ezinbesteko baldintzak dira, arretaren kalitatea bermatzeko.
  Hori dela eta, Arartekoari esleituriko eginkizunen arabera, egindako lanaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko oraingo egoera eta buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen nahiz horien familiakoen beharrizanak aztertzea izan da; horrela, eskubideen ikuspegitik, erakundeetatik eta gizartetik jasotzen duten erantzuna baloratu ahal izango dugu. Txostenean oinarrizko zenbait galderen erantzuna aurkitu nahi da: Zeintzuk dira gure Erkidegoan buruko gaixotasuna duten pertsonen bizi baldintzak? Zein dira beraien eta euren laguntza sarearen beharrizanak? Pertsona horien artean, zeintzuk dira gabezia handienak dituzten taldeak? Zein da erakundeek euren

beharrizanei ematen dien erantzuna? Nahiko dira Erkidegoko baliabideak? Badago baliabideok eskuratzeko arazo berezirik duen talderik? Pertsona horietan eragina duen arau juridikoa, baliozkoa da euren eskubideak babesteko?...

Horretarako, lehentasuna eman zaie talde eta arazo batzuei:

- Gure Erkidegoan bizi eta buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonei; horien bizi nahiz autonomi baldintzei; Erkidegoan eurentzat dauden baliabideei dagokienez duten ezagutza, erabilera eta poztasun mailari.
- Erkidegoan bizitzen laguntzen dien pertsonei, batez ere familiako emakumeei, euren lanak, beharrizanak eta baliabideen erabilera nahiz balorazioa jakiteko.
- Erkidegoko zaintza zerbitzuak sustatzen edo kudeatzen dituzten erakundeei eta elkarteei, euren politikak, helburuak, programak ezagutzeko...
- Ospitalekoak ez diren gizarte nahiz osasun zerbitzuen oraingo eskaintzari.
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen eskubideetan eragin zuzena duten alderdi juridikoei.

Txostenaren egitura eta edukiak, neurri handi batean, lehentasun horien araberakoak dira.

Erabilitako metodologiari dagokionez, hiru alderdi adierazi behar dira laburbilduta: informazioa biltzeko egindako ahalegina, lanaren diseinuan bertan sarturiko mugak eta datu fidagarriak eskaintzeko nahiz egoera jakinak baloratu ahal izateko aurkitu diren zailtasunak:

- Informazioa biltzeko ahalegina oso handia izan da. Elkarrizketa asko egin dira, inplikaturiko talde guztien ordezkariekin: buruko gaixotasun kronikoa duten 405 pertsona (jenero, adin, diagnostiko, kronikotasun eta bizilekua kontuan hartu dituen multzo osoaren lagina), "zaintzaile nagusitzat" diharduten pertsonak (gehienak emakumeak, gaixoturiko seme-alabak luzaroan zaintzen diharduten amak), era askotako erakundeetan zein zerbitzuetan lanean diharduten pertsonak (herri administrazioak, osasun-etxeak, famili elkarteak, erabiltzaile nahiz laguntza elkarteak, justizi Administrazioa, Ertzaintza), laguntzako 84 profesional... Txostenean talde bakoitzaren ekarpena jaso nahi izan da; gainera, bateratasunak (asko dira) eta ikuspegi bereziak jasotzeko ahalegina egin da, hobetu behar diren alderdiak nabarmenduz.
- Hala eta guztiz ere, egindako lana handia izan arren eta, batez ere, alderdi metodologikoak kontuan hartuz, gogoratu beharreko muga batzuk ezarri behar izan dira. Horrela, esate baterako, elkarrizketatu beharreko pertsonen zerrendan (buruko arazoak dituzten pertsonak) ez da drogamenpekotasun arazoak dituen taldea sartu (alkoholikoena ez den taldea), ezta adin txikikoena ere. Hala ere, batzuetan, txostenak talde horien arazoak aztertzen ditu, modu zehatzean aztertu ere, edo talde horren garrantzia edota ezaugarri bereziak nabarmentzen ditu. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, bertako biztanle kopuruaren eta egindako zenbait kalkuluren arabera, 20.000 eta 100.000 pertsona egon daitezkeela, buruko arazo kronikoekin. Lanean, pertsona horien guztien lagun adierazgarri baten arazoak aztertzea erabaki dugu.
- Txostena egiteko orduan aurkitu diren arazoei dagokienez, esan behar da horiek oso ugariak izan direla. Horrela, adibidez, arreta sareen konplexutasunaren eta zenbait administrazio nahiz elkarteren inplikazioaren eraginez, zailagoa da sektore horri

buruzko ikuspegi orokorra lortzea; Erkidegoko baliabideei buruzko terminologia bateraturik ez egotea ere oso nahasgarria da (horren eraginez, txostenaren lehenengo kapituluan terminologia sartu behar izan dugu); lortu diren datuak beti ez dira izan gaurkotuak, konparagarriak eta nahiko fidagarriak... Baina, agian, zailtasun nagusia egoera jakina baloratzeko aukera ematen duen irizpiderik ez egotea izan da. Horren ondorioz, kasuen arabera, balorazio irizpide desberdinak erabili behar izan ditugu: Administrazioak berak helburutzat ezarritakoak (halakorik egonez gero), nazioarteko erakundeek ezarritakoak, beste autonomia erkidego batzuek adierazitakoak... Beste zenbait kasutan, lurralde historikoetako datuak konparatu behar izan dira, edo Europako erkidego edo eskualde batzuekiko konparazioak egin behar izan dira... Hori guztia ez da beharrezkoa izango, eskuhartzeko erakunde mailako planak daudenean, horiek argi eta zehatz ezartzen baitituzte ebaluazioaren helburuak, epeak eta adierazleak.

Txostenaren eduki nagusia ikerketaren oinarrizko emaitzek osatzen dute:

- ospitaletik kanpoko arretarako oraingo sarearen deskribapena (arreta publikoa eta elkarte-mugimenduarena);
- era guztietako taldeek eskainitako ikuspegia eta balorazioa (erabiltzaileak, familiakoak, profesionalak...);
- ateratako ondorio nagusiak;
- halako pertsonen arazoetan eragin zuzenena duten alderdi juridikoak.

Hemen ez dugu halakorik aztertuko, baina elementu kezkagarri nagusiak aipatuko ditugu, oso adierazgarriak baitira, bermeetan oinarrituriko ikuspegi batetik.

• Talde batek edo besteak eskainitako datu zehatzak eta ikuspegi bereziak alde batera utzita, txostenean argi eta behin eta berriro ageri diren elementu batzuk nabarmendu behar dira; eskubideak bermatzearen ikuspegitik, elementu horiek oso esanguratsuak baitira. Arartekoaren ikuspegitik, hortaz, bederatzi arazo nagusiak ondoren ageri direnak dira eta horietan, erakunde honen iritziz, hobekuntza handiak egin behar dira.

**1. Pertsona horien beharrizanak, eskubideak eta eskubideok bermatzeko baliabideak egokitu beharra**

Buruko arazo kronikoak dituzten pertsonak, orokorrean, gainerako biztanleak baino egoera txarragoan bizi dira: adibidez, diru-sarrera maila baxuak eta langabezia handia dituzte (laginaren %25aren hileroko diru-sarrerak 39.000 pezetatik beherakoak dira; %23ak laguntzako pentsioak kobratzen ditu; lautik batek lanen bat dauka...), osasun txarragoa dute, gizarte harremanak mugatuagoak dira (batez ere, adin eta kronikotasun handiagoko pertsonen artean), autonomia eta poztasun txikiagoko bizitza... Euren beharrizanak ez dira osasunaren arlokoak soilik: egoitzakoak, lanbidekoak, garapen pertsonalekoak, gizarte integraziokoak...
Gizarteko baliabideak erabiltzeko eskubide osoa dute. Baina hiritarrek ez dute eskubide horien berririk. Euren osasunari dagokionez, esate baterako, ez dakite informaziorako eskubidea dutenik, alternatiba terapeutikoetarako eskubidea,

kexatzeko eskubidea, ospitaleetan sartzeko modalitateetarako eskubidea… Bakoitzaren egoera pertsonalaz gain, euren eskubideak zeintzuk diren ez jakitea ere oztopo handia da eurentzat.

Halako pertsonek nekez eskatzen dute zerbitzurik. Eskaintzen zaizkien programetara eta zerbitzuetara egokitzen dira. Horrenbestez, oso garrantzitsua da baliabideak nahiko izatea eta euren beharrizanetara egokiturik egotea: krisialdietako laguntza, biztanleriaren zahartze gero eta handiagoa, egoitzazko baliabideak… Erkidegoan euren arretarako dauden baliabideei dagokienez, txostenean horietariko batzuen hedapena eta erabilera handia ikusten da (esaterako, buruko osasuneko zentroak), baita gauza askoren berri ez edukitzea (lan bereziko zentroak, erizaintza programak, aisialdiko elkarteak) eta beste batzuk ez egotea ere (psikoterapiako baliabideak, birgaikuntza, adin txikikoentzako bitarteko egiturak…).

Horrenbestez, sarritan ez dago lotura edo egokitzapen nahikorik pertsona horien beharrizanen, eskubideen eta eskubideok bermatzeko baliabideen artean.

## 2. Erantzukizunak argitu eta "gizarte-osasuneko eremua" deritzona garatu beharra

Gaixotasun kronikoen kasuan, helburua ez da sendatzea, hauxe baizik: zaintzea, autonomia sustatzea, egoerak okerrera ez egitea… Osasun mailako beharrizanak bete behar dira (medikuntza arreta, tratamendua, birgaikuntza…), baita beste batzuk ere bai: alogera, elikadura, kultur edo lanbide gaitasuna, gizarte integrazioa… Horrela, gizarte eta osasun mailakoa sarritan batera doaz, halako gaixotasunak dituzten pertsonen arazoak konpontzeko orduan. "Gizarte-osasuneko eremua" deritzona topagunea da, halako arazoei erantzuna aurkitzeko orduan.

Gure Erkidegoan, jakina denez, osasun laguntza Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da; gizarte laguntza, berriz, foru diputazioen eta udaletxeen esku dago. Osasunari edo gizarteari buruzko legerian ez da bi sistema horiek egituratzeko edo koordinatzeko mekanismorik ezartzen. Koordinaziorik ezak, halakorik egonez gero, ondorio oso kaltegarriak ditu: arretaren hutsuneak (erantzulerik ez omen duten prestazioak), kontraesanak, zerbitzuen arteko desorekak, bikoiztasunak…

Azken urteotan, egoera hori gainditzeko ahaleginak egin dira, Osakidetzaren eta foru aldundien arteko akordio berezien bitartez. Txosten honetako edukiak indartu egiten du erakunde guztien erantzukizuna argitzeko beharrizana, baita gizarte-osasuneko eremua garatzeko eta koordinatzeko beharrizana ere.

## 3. Arreta sareak eta zerbitzuak koordinatu beharra

Arreta hobetzeko, beti ez da baliabide berririk behar. Batzuetan, erantzunaren kalitatea koordinazioaren eta dauden baliabideen aprobetxamendu hobearen araberakoa izaten da: baliabide horien zehazpena (argitasun handiagokoa edo txikiagokoa), antolamendua (eraginkortasun handiagokoa edo txikiagokoa), ikuspegia, programen egokitasuna, lankidetza mekanismoak…

Aurreko atalean, osasun eta gizarte zerbitzuak koordinatu beharra adierazi da. Baina hori ez da beharrezko baldintza bakarra. Halako pertsonen beharrizanei erantzuna emateko orduan, inplikaturiko zerbitzuak asko dira. Txostenean agerian

jartzen da zerbitzu horiek koordinatu beharra dagoela: oinarrizko arretako zerbitzuen eta buruko osasuneko zerbitzuen arteko koordinazioa, ospitale barruko eta kanpoko zerbitzuen arteko koordinazioa, zerbitzu publikoen eta elkarteek sustaturiko zerbitzuen arteko koordinazioa, hezkuntza zerbitzuekiko koordinazioa, lana aurkitzen laguntzen duten zerbitzuekiko koordinazioa... Ikusten denez, hemen koordinazioa tresna lagungarritzat planteatzen da: beharrizanei eman beharreko erantzunaren kalitatea hobetu egin behar da.

Zerbitzu batzuek eta besteek zenbait administraziorekiko duten menpekotasuna, eginkizunen edo jarduera eremuen zehazgabetasuna, planifikazio nahiz ebaluazio eza edo buruko osasunari loturiko programetan parte hartzeko mekanismorik ez egotea: horiek guztiak txostenean jasotako arazoetariko batzuk dira, zerbitzuen arteko koordinazio beharrizanei dagokienez. Erakunde honek talde hori gizarteratzeko plana egiteko gomendioa eman du, arazo horiei erantzuna eman ahal izateko.

## 4. Bitarteko baliabideei dagokienez dauden gabezia nabariak

Txostenean azterturiko alderdien artean, agian hauxe da arazotsuena; alderdi honetan, gainera, aurretiaz finkaturiko balorazio irizpiderik ez dagoela ikusi dugu, lehen esan dugunaren arabera.

Erabateko adostasuna dago bitarteko egiturak egon eta erabili behar izateari buruz: ospitaleak eta eguneko zentroak, lantegiak, elkarte terapeutikoak, babesturiko etxebizitzak, lanbide zentroak, klubak... horiek guztiak ezinbestekoak dira, ospitale psikiatrikoetan zeuden edo dauden gaixoak erakundeen menpetik ateratzeko, baita buruko osasuneko zentroetan edo egotaldi laburreko zentroetan egindako eskuhartzeak osatzeko ere. Halakorik egon ezean, familiak arretaren pisu guztia euren gain hartu behar du.

Gure kasuan, sarritan halako baliabideak ez dira osasun arloko ekimenetik sortu, ezta gizarte zerbitzuen ekimenetik ere, famili elkarteetatik edota bestelako elkarteetatik baizik. Gaur egun, halako baliabideen kopurua ez da nahikoa (itxaron-zerrendak, arretarako denbora laburra, baliabiderik gabeko aldeak), eta horietatik askok arazoak dituzte, giza baliabideak nahiz materiala zuzkitzeko; gainera, aurrekontu oso txikiak dituzte...

Alderdi honetan alde handia dago lurralde batetik bestera. Hala eta guztiz ere, oro har, txostenean jasotako datuek eta balorazioek agerian jartzen dutenez, zerbitzuak ez dira behar bestekoak, eta ez dago beharrizanei nahiz eskabideei erantzun egokia emateko gaitasunik.

Bitarteko zaintzarako baliabideei dagokienez, laguntza sare publikoak oraindik ere gabezia handiak ditu: ospitale edo eguneko zentro gutxi; prebentziorako, osasuna sustatzeko eta birgaikuntzarako programa gutxi; anbulatorioko arreta programen asetasuna... Bitarteko egituren defizita, izan ere, handiagoa da lanari, heziketari, etxebizitzari eta alokairuei loturiko baliabideetan.

## 5. Zailtasun bereziak eta arreta arazo bereziak dituzten taldeak

Txostenean buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonen beharrizanak aztertzen dira orokorrean; baina, aldi berean, talde jakin batzuen arazo bereziak ere

planteatzen dira. Gainera, pertsona talde desberdinen arazoak jakiteko aukera ematen du, euren adinaren, diagnostikoaren edo bizilekuaren arabera (kontuan hartutako aldagaietariko batzuk). Ikusten denez, talde guztiek ez dituzte Erkidegoko baliabideak eskuratzeko aukera berdinak. Horri dagokionez, aipagarria da:

- umeen eta nerabeen arreta psikiatrikorako baliabideen urritasuna (bitarteko egiturei dagokienez, ez dago halako baliabiderik);
- sasoiko programen, eguneko zentroen, lanbide programen, krisialdietako arreta unitateen eta abarren beharrizana, autismoa duten pertsonentzat. Egoera hori, neurri batean, norberaren baliabide sareak arindu du, gaixoen familien elkarteak halako baliabide gero eta gehiago sortu baitu;
- beharrizan "berri" eta gero eta handiagoei emandako erantzun ezegokia, adibidez, elikadura arazoen ondoriozkoak (anorexiak eta bulimiak).

Aipaturiko hiru kasuetan (anorexia eta bulimia, autismoa eta, oro har, umeen arreta psikiatrikoa) ezaugarri komuna dago: gehienak adin txikikoak edo gazteak dira. Txostenean talde horiei buruzko atal bereziak agertzen dira.
Gainera, erkidegoan dauden arreta zerbitzuak erabiltzeko arazo bereziak dituzten beste talde batzuk ere badaude:

- baserri inguruan bizi edo biztanle gune handietan bizi ez diren pertsonak, gune handi horietan baliabiderik gehienak zentralizatzen dira;
- etxebizitza finkorik eduki ez eta pobrezian bizi diren pertsonak;
- euren egoera administratiboa arautu ezin izan duten atzerritarrak, edo gutxiengo etnikoetako kide direnak;
- espetxeetan dauden pertsonak.

Azken urteotan, eta aurreko txostenetan, Arartekoak talde horietariko batzuen egoera azpimarratu du (gure gizartean guztiz bazterturik dauden taldeak), baita horiei gizarte-osasun laguntza eman beharra ere.

## 6. Sare naturalari laguntza eman beharra

Buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonarik gehienak euren familiakoekin bizi dira. Elkarrizketaturiko pertsonen artean, ia %80 familiekin bizi ziren; bakarrik edo ostatuetan bizi direnak ere badaude. Familia horietariko asko elkarturik daude, euren beharrizan komunei aurre egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoan, buruko gaixotasunen batek eragindako elkartetan 8.000 pertsona inguru daude. Norberaren buruari laguntzeko elkarteak, babes fundazioak eta abar ere badaude. Beraz, oso garatua eta anitza den elkarte mundua da.
Txostenean jasotako datuek aberastasun eta aniztasun hori ikusteko aukera ematen dute; gainera, galderak planteatzen dituzte, halako elkarteek erakundeetatik jasotzen duten finantziaziorako irizpideei (guztiz desberdinak, talde batzuk edo besteak izatearen arabera, edo lurralde batzuetatik besteetara) edo zerbitzuak emateari buruz hartzen ari diren erantzukizunei buruz.
Familiek (batik bat emakumeak, horiek baitira zaintzaile nagusiak) eta elkarteek halako pertsonen oinarrizko beharrizanak betetzen laguntzen dute; beraz,

erakundeek laguntza eskaini behar diete: programa nahiz zerbitzu bereziak, etxerik etxerako laguntza, dirulaguntzak...

### 7. Eskaintzen diren zerbitzuen kalitatearen kontrolean eta ebaluazioan dauden mugak

Baliabide nahikorik ez egotea (baliabideak egotea edo ez egotea) elementu kuantitatibo hutsa da, ez kualitatiboa. Baina, hedatuen dauden eta estaldura nahiz erabilera handiena duten zerbitzuei dagokienez ere (adibidez, buruko osasuneko zentroak), kexa kopuru handi batean talde guztiak bat datoz: zentroen asetasuna, gaixoei eskainitako denbora laburra, langileriaren aldaketak eta, beraz, harremanaren jarraitasunik eza, psikofarmakoak gehiegi erabiltzea, eskuhartze psikoterapeutikoen murrizketa, norberaren laguntzari zein familien laguntzari eskainitako arreta txikia...

Antza denez, oraindik ez dago eskainitako zerbitzuen ebaluazio kualitatibo eta sistematikorik. Ebaluazioa hori zaila da, nahiz eta halako zerbitzuetan eginkizunen mugaketa edo alderdi bakoitzaren erantzukizuna batere argi ez egon.

Erakundeek arazoa kontrolatzea eta ebaluatzea oraindik ere beharrezkoagoa da, halako pertsonen familien laguntzarik ez dutenean. Horrela, esate baterako, buruko gaixotasuna duten pertsonak familiakoen laguntzarik gabe bizi diren ostatuen baldintzei dagokienez (ostatuak, etxebizitzak), edo babesaren baldintzei dagokienez...

### 8. Gizarte sentsibilizazioa landu eta pertsona horien gizarteratzea hobetu beharra

Gaur egun ere, gure artean buruzko gaixotasuna duten pertsonekin batera eta, sarritan, horien familiekin batera doan estigma bat dago, eta estigma horren eraginez, ukapen eta bereizkeria jokabideak egoten dira. Estigma hori, zenbaitetan, indartu egiten da komunikabideetako albiste batzuek gaiari ematen dioten tratamendu sentsazionalistaren eraginez.

Txostenean egoera horren ondorio txarrei buruzko adibide adierazgarriak jasotzen dira: buruko gaixotasun kronikoa duten pertsona askok (batez ere nagusienak eta urte askotako gaixotasuna eduki dutenak) euren familiarekin edo egoera berean dauden pertsonekin baino ez dute harremanik edukitzen; gainera, heziketa eta lana eskuratzeko dituzten aukerak (batik bat lan normalizatua) oso mugatuak dira...

Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka edo, beste modu batera esateko, halako pertsonen gizarteratzea lortzeko, lan sistematikoa egin behar da gizarte osoa sentsibilizatu ahal izateko. Halaber, lan eskaintzak ere sustatu egin behar dira (berori baita gizarteratzeko bide nagusia), baita Erkidegoko baliabide normalizatuetan parte hartzeko benetako aukerak ere.

### 9. Egoera batzuen arauketa juridikoa hobetu beharra

Txostenaren barruan, kapitulu berezi batean, antolamenduak halako pertsonen egoera jakinak arautzeko duen moduari buruzko ikerketa juridikoa egiten da; gainera, beste egoera batzuk ere aztertzen dira eta, horietan, Sailak eman dezakeen

erantzuna beti ez da erraza, neurri asko hartu behar baitira, pertsona horien osasunaren babesarekin batera beste eskubide batzuk ere errespetatzeko: ezgaitasun prozesuak, informaturiko baimena, borondatearen aurkako barneratze psikiatrikoa, zigor egozgarritasuna…

Egindako ikerketan zenbait zerbitzuk, elkartek, organo judizialek nahiz profesionalek adierazitako iritzia jasotzen da, horiek lotura estua baitute halako biztanleekin (abokatuak, epaitegietako langileak, ertzainak, atxilotuak orientatzeko zerbitzuak...). Zalantzarik gabe, gai oso konplexuak dira, garrantzi handia dute halako pertsonentzat nahiz euren familientzat eta, sarritan, gure eskumenen eremua gainditzen dute. Horrenbestez, egoera aztertu ondoren, txostenean neurri batzuk baino ez dira sustatzen, gaixoen eskubideak hobeto bermatzeko; neurri horien helburua gaixoen eta horien ardura duten pertsonen babesik ezako egoerak arintzea da.

• Bermeen ikuspegitik garrantzitsuenak diren bederatzi alderdiak azaldu ondoren (Arartekoaren eginbeharra), txostenean hobekuntzarako proposamena eta erakunde eskudunei zuzendutako gomendioak egiten dira. Hemen, txosteneko 18 gomendioen enuntziatua (izenburua) baino ez dugu aipatuko:

  - Buruko gaixotasuna duten pertsonen eskubideak eta eurei dagozkien gutxieneko prestazioak (osasunekoak nahiz ez) zehaztea.
  - Erakunde guztien erantzukizuna argitzea eta gizarte-osasuneko eremua garatzea.
  - Gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.
  - Gizarte integrazioko plana egitea.
  - Bitarteko baliabideen sarea indartzea.
  - Adin txikikoei zuzendutako zerbitzu kopurua handitzea.
  - Adin nagusikoentzako egoitzazko baliabide gehiago eskaintzea.
  - Zaintzen eta arreta integralaren jarraitasuna bermatzea.
  - Buruko osasunaren prebentzioari eta sustapenari arreta handiagoa eskaintzea.
  - Birgaikuntza eskuratzeko bermeak ematea.
  - Sare naturala laguntzeko programak.
  - Zerbitzuen kalitatea kontrolatzea eta ebaluatzea.
  - Gizartearen sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasuna duten pertsonei dagokienez.
  - Lanaren bidezko gizarteratzearen benetako aukerak handitzea.
  - Babes fundazioen sorrera sustatzea.
  - Buruko gaixotasuna duten pertsonek ezgaitasun prozedura judizialetan dituzten bermeak hobetzea.
  - Halako pertsonen ondarearen errentagarritasuna erraztea.
  - Halako pertsonen zerga tratamendua hobetzea (1999ko urteroko txostenaren arabera; 8. gomendioa).

## 1.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA BEHARRIZAN BEREZIEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZ AURKI EGINGO DEN TXOSTEN MONOGRAFIKOA

Ararteko erakundeak, azken urteotan, bi txosten monografiko egin ditu, arazo bereziak dituzten umeei eta gazteei buruz: babesik ez duten gazteak eta delituak egiten dituztenak. Bazterkeriako edo babesik ezako egoeran dauden adin txikikoen defentsarekiko interes horrekin jarraituta, 2000. urtean gure Erkidegoan hezkuntza beharrizan bereziak dituzten ikasleen egoera sakon aztertu du.

Azken urteotan hezkuntza bereziak eta hezkuntza beharrizan berezien kontzeptuak berak ere aldaketa handiak eta ugariak izan dituzte. Euskal Autonomia Erkidegorako Hezkuntza Bereziko Plana onetsi zenetik igarotako epea (1982) eta arautegi berriaren berritasuna (118/1998 Dekretua, hezkuntza beharrizan bereziak dituzten ikasleen hezkuntzari eman beharreko laguntzari buruzkoa, eta horren osteko aginduak eta ebazpenak) kontuan hartuz, egindako lana baliozkoa da (aldi berean) orain arte egindako lanaren balorazioa egiteko eta gerora egingo diren jarduera berriak sustatzeko.

Lan berri hau egiteko orduan, hezkuntza beharrizan berezien kontzeptua bere esangura zabalean eta gaurkotuan hartu da aintzat, aipaturiko dekretuan adierazitakoaren arabera "*Eskolaratzearen aldi batean edo eskolaratze osoan hezkuntza mailako laguntza eta arreta bereziak behar dituzten ikasleenak hezkuntza beharrizan bereziak izango dira, minusbaliotasun fisikoak, psikikoak nahiz sentsorialak eta jokabide nahaste handiak edukitzearen edo gizarte edo kultur egoera txarrean egotearen ondoriozkoak; halaber, adimen mailako gaitasun oso handiak edukitzearen eraginez arreta berezia behar duten ikasleenak ere hezkuntza beharrizan bereziak izango dira.*"

Horren arabera, ikuspegi zabala eskaini nahi da, eta horrek hezkuntza beharrizan guztiak eta erantzun guztiak hartuko ditu kontuan: buruko atzerapena edota garapenaren nahaste orokorra; gortasuna eta entzuteko zailtasuna; ikusteko zailtasuna; gorputzaren ezgaitasuna eta buruko paralisia; neurriz gaineko adimena; gizarte edo kultur inguru txarra (gutxiengo etnikoa, komenigarriak ez diren inguruak...); eskolara egokitzeko arazoak; ospitaleratzea eta iraupen luzeko gaixotasunen bat, maila motelak eta ikaskuntzarako arazo handiak...

Ikerketa lana adjudikatzeko prozesua 1999aren azkenetan hasi zen. Harrezkero, eta 2000. urte osoan, informazioa jaso da iturri askotan: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta horren menpeko maila desberdineko zerbitzuak; sektoreko profesionalak eta adituak; famili eta laguntza elkarteak; era guztietako hezkuntza beharrizan bereziak dituzten pertsonak... Halaber, datuen eta txosten ustiapenean ere aurrera egin da: eskolaratzeari buruzko datu kuantitatiboak, hezkuntza beharrizan berezi jakinak dituzten pertsonen bizitzari buruzko historiak, adituek galdeketei emandako erantzunen azterketa, familiakoei eta elkartetako langileei egindako elkarrizketak...

Urteroko txosten hau idazteko unean eztabaida-taldeen bilerak egiten ari dira, lurralde guztietan; datuen ustiapena oso aurreraturik dago eta txostenean sartzeko atal batzuk idazten ari dira. Gure ustez, behin betiko txostena 2001eko lehenengo hiruhilekoan aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzan.

## 1.4. MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DUTEN GIZARTE INTEGRAZIOARI BURUZ AURKI EGINGO DEN IKERKETA MONOGRAFIKOA

Arartekoak laster txosten berezia egingo du, minusbaliotasunen bat duten pertsonen gizarte integrazioari buruz; txosten horren helburua, berriz, gizarte talde ahulen egoera sakon aztertzea eta halako taldeen hobekuntza sustatzea da, horixe baita erakunde honek sustaturiko azken txosten monografikoen ezaugarri nagusia.

Minusbaliotasunen bat duten pertsonen arazo berezia planteatzeko, Arartekoak zenbait bide erabili ditu. Horrela, esate baterako:

- Pertsonek edo elkarteek zenbait arazori buruz egindako kexak, adibidez, arkitektura nahiz hirigintza mailako hesiak, kasu batzuei emandako tratamendu fiskala, lana edo etxebizitza lortzeko aukerak, minusbaliotasunak baloratzeko sistemak edo irizpideak...
- Urte hauetan arazo horri loturiko elkarte, familia eta laguntza-talde askorekin izandako bilerak.
- Aurreko txosten batzuetan, arazo jakinak aztertzeko orduan: oinarrizko unitateetako eskuragarritasun eta mugikortasun baldintzak (oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko txostena), lana lortzeko aukerak (Elkarteak buru gaixotasunari eskaintzen dion arreta), eskolan integratzeko aukerak (hezkuntza beharrizan bereziei buruzko txostena).

Arazo horiei orain arte emandako erantzunak, beste alde batetik, kexa batzuk tramitatzea, elkarteekiko laguntza nahiz lankidetza, arkitektura nahiz hirigintza mailako oztopoei buruzko ofiziozko jarduerak, minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako politikari buruzko gomendio orokorra (iazko urteroko txostenean egindakoa) eta abar izan dira. Txosten monografikoaren helburua, berriz, arazo horiek eta beste batzuk ostera ere aztertzea da, pertsona horien beharrizanen eta orokorrean hobetu beharreko alderdien ikuspegi orokorragoa eskaintzeko.

Lan honetan kontuan hartzen diren pertsonen taldea mugatzeko erreferentziatzat, ondoko kontzeptuok hartu dira: Osasunaren Mundu Erakundeak Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapenean proposaturiko gabezia eta minusbaliotasun kontzeptuak; bertan, gaixotasunaren ondorio iraunkorren maila guztiak hartzen dira kontuan (organikoa-pertsonala-soziala). Talde horretan era askotako egoerak eta arazoak daude. Lan honetan aniztasun hori jaso nahi dugu.

Lan eremuaren bigarren mugaketa bat, bestalde, bertan aztertuko diren arazo zehatzei buruzkoa da. Arartekoari gehien azaltzen zaizkion arazoak lehendik adierazita daude: oztopoak, fiskaltasuna, lana eskuratzeko arazoak, etxebizitza lortzeko oztopoak, minusbaliotasunen balorazioa. Baina beste zenbait arazo ere horiek bezain garrantzitsuak dira: birgaikuntza fisiologikoa, aurretiazko arreta, egoitzako ostatua, laguntza teknikoak, arreta informala eta zaintzaileen arazoak.

Dirudienez, ezinezkoa da horiek guztiak aztertzea, edo behintzat horietan guztietan sakontzea. Ikerketaren helburua sektore horretako arazoen ikuspegi orokorra eskaintzea eta arazo batzuetan sakontzea da (lehentasunezko arazoetan edota erakundeen

eskumenetan sartzen direnak). Harturiko ikuspegia Arartekoarena izango da, hau da, halako pertsonen eskubideak defendatzea; gizarte ondasunak nahiz baliabideak eskuratzeko aukerak, kasu honetan, gainerako pertsonenak bezalakoak izan daitezen lortu nahi dugu (gizarte integrazioa).

Ikerketaren helburua, horrenbestez, minusbaliotasuna duten pertsonek gizarte integrazioari dagokionez dituzten benetako aukerak eta arazoak aztertzea da, gure Erkidegoan, orain arte adierazitakoak bezalako alderdietan (lana lortzea, etxebizitza eskuratzea, gizarte zerbitzuak nahiz baliabideak erabiltzea). Ikerketaren barruan hiru lurralde historiko sartuko dira; gainera, kontuan hartu nahi dira egoera berezi guztiak, eta, informazio iturritzat, inplikaturiko sektore guztiak erabiliko dira: minusbaliotasuna duten pertsonak eurak, administrazioak, profesionalak zein gizarte agenteak, elkarteak...

Ikerketa lana 2001. urte osoan garatuko da eta azken txostena Eusko Legebiltzarrari eman nahi zaio, datorren urteko lehenengo erdian.

# 2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANETARAKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

## 2.1. GIZARTE TALDE, ELKARTE ETA ERAGILEEKIKO LANKIDETZA HARREMANAK

Gure Erkidegoko gizarte talde guztiekin lankidetzan jarduteko gogo handia izanik (baita 2000. urtean ere, orain arteko jardueren jarraipenezko kasu askotan), Ararteko erakundeak gizarte eragileekiko harreman sistematikoa eduki nahi izan du. Batik bat egoera txarrean dauden pertsonei laguntza ematen edo era askotako gizarte arazoak konpontzen diharduten elkarte, erakunde eta taldeekiko harremanak eduki nahi izan ditu: talde bakezaleak, minusbaliotasuna duten pertsonen elkarteak, giza eskubideak defendatzeko taldeak, atzerritarren laguntzarako elkarteak, askatasunik ez duten edo bazterkeri egoeran dauden pertsonei laguntza emateko taldeak ...

Aurreko txostenetan adierazitakoaren arabera, Ararteko bezalako erakunde garantista batentzat, halako elkarteek benetako gizarte antenatzat jardun dezakete: bestela oharkabean igaroko ziren arazoak eta egoerak aurkitu eta jakinarazteko aukera ematen duten sentsoreak. Izan ere, sarritan, erakundeetara gutxien jotzen duten pertsonak defentsa eta babes handiagoa behar dutenak izaten dira: halako erakundeak egotearen berririk ez dutelako, euren eskubideak ezagutzen ez dituztelako, oinarrizko gizarte trebetasunik ez dutelako, orain arteko esperientzia txarren ondorioz gogorik ez dutelako, erakundeekiko edota horiek arazoak konpontzeko gaitasun nahiz gogoarekiko mesfidantza dutelako... Pertsona horietariko askok ez dakite kexak azaltzen edo ez dakite non azaldu, eta horrexegatik ez dute kexarik aurkezten.

Urte hauetan esperientziak agerian jarritakoaren arabera, elkarte eta talde askok bitartekaritza eginkizun bikaina izan dezakete, gure gizartean bazterturik edo babesik gabe dauden sektoreen eta Ararteko bezalako erakundeen artean; halako sektoreei euren eskubideen berri eta euren arazoak konpontzeko modua jakinaraziko diete; gainera, errebindikazioak egiten lagundu, administrazioei zerbitzu egokia emateko eskatu eta, horrela, erakundeekiko konfiantza handiagoa eta gizarte kohesio handiagoa eragingo dute.

Gure Erkidegoko elkarte, talde eta erakunde kopuru handia, bestalde, gizarte bizitasunaren seinale argia da; baina, aldi berean, horren aniztasuna eta aberastasuna erronka itzela da, eurekin lankidetza harremanak eduki nahi dituzten guztientzat. Gure kasuan, ditugun mugez jabetuta, lankidetzarako dugun gogoa gauzatzeko ahalegina egin dugu, bide osagarri batzuk erabiliz:

- euren arazoak eta proposamenak jakinarazteko interesa adierazi duten elkarteei eta taldeei erantzun egokia emanez;
- urterik urtera taldeekiko nolabaiteko harremanak edukiz, hori egingarria izan denean;
- ekimena hartuz, harreman berriak ezartzeko, eremu edo sektore arazotsuekin lanean diharduten taldeekin;
- antzeko interesak eta jarduera eremuak dituzten elkarteen arteko koordinaziorako plataformak aprobetxatuz.

Horrela, 2000. urte honetan, Ararteko erakundeak lankidetza harreman handiagoak edo txikiagoak izan ditu euren gizarte ekintzak ondoko eremu hauetan gauzatzen duten elkarteekin:

- buruko gaixotasunak dituzten pertsonei eta horien familiakoei laguntzea eta arreta eskaintzea;
- babesik gabeko adin txikikoak eta delituak egin dituztenak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- pertsonak espetxeetatik ateratzea edo etxera hurbiltzea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- HIESa duten pertsonei laguntzea eta arreta eskaintzea;
- babesik gabe dauden umeak eta gazteak familietan hartzea;
- giza eskubideak defendatzea eta horien urratzeak salatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- atzerriko inmigranteak gizartean integratzea;
- drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonei laguntza ematea;
- hirugarren munduko herrien garapenari eta horiekiko elkartasunari laguntza ematea;
- espetxeetan dauden pertsonen eskubidea defendatzea eta horiei arreta emateko programak garatzea;
- ijitoen beharrizanak planteatzea eta horiei erantzuna ematea;
- sasoiko langileei eta horien familiakoei laguntza ematea;
- hurbiltasun fisikoaren edo ezaugarri pertsonalen ondoriozko beharrizan komunei erantzuna ematea;
- hizkuntza eskubideak eta euskararen erabilera defendatzea;
- bazterturik dauden taldeak integratzea edo gizarte kohesioa lortzea, guztiz bazterturik dauden eskualdeetan;
- bakezaletasuna bultzatzea eta gatazkak konpontzea, elkarrizketan oinarrituriko formulen bidez;
- emakumeen eskubideak defendatzea;
- terrorismoaren biktimei laguntzea edo horien eskubideak defendatzea;
- minusbaliotasun modu guztiei gizarte erantzuna ematea;
- tratu txarrak saihestea eta tortura egoerak salatzea;
- bazterturik edo famili babesik gabe dauden pertsonei gizarte-osasun laguntza ematea;
- lanbide talde desberdinak defendatzea;
- herri zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak defendatzea;
- babesik eza handia duten familiei laguntzea...

Kasurik gehienetan (elkarteen eskabideei erantzuna ematea, talde batekiko harremanak hastea edo koordinazio foroetan egotea), harremana zuzena izan da eta bileraren bat egin da. Beste zenbait kasutan (adibidez, aurreko urteetan hasitako harremanarekin jarraitzea edo kasuan kasuko kexa kudeatzea), hori mantentzeko beti ez da bilera berririk egon behar izan: batzuetan, nahikoa izan da informazio trukeak egitearekin (ahozko nahiz idatzizko informazioa trukeak) edo egintzaren batean parte hartzearekin...

Nola edo hala, bide batzuk edo besteak erabiliz, eta lehen aipaturiko mugak kontuan hartuta ere, azken urtean bilerak, informazio trukeak eta lankidetza formulak egin dira, ondoko talde eta elkarte hauekin:

- Afrika Etxea
- Afrovasca
- Musika kontserbatorioko ikasleak
- Unibertsitateko fakultateetako ikasleak
- Amnesty International
- Andikona
- APNABI (Bizkaiko Ume Autisten Gurasoen Elkartea)
- Arazoak (Arabako Ume Autisten Gurasoen Elkartea)
- Askabide
- Laringektomizatuen Arabako Elkartea
- Aldapa Elkartea
- Euskadi-Nafarroa Trenbidearen Lagun Elkartea
- Saharako Lagun Elkartea
- Bide-berri Elkartea
- Bitarte Elkartea
- Euskadiko Txinatar Elkartea
- Euskadiko Ziberteka Elkartea
- Janarien Zientziaren eta Teknologiaren Elkartea (JZTE)
- Kontsumitzaileen Elkartea
- Torturaren aurkako Elkartea
- Carpe Diem Kultur Elkartea
- Ijitoen Irakasle Elkartea
- Etxeberri Elkartea
- Bizkaiko Famili Elkartea
- Saharako Presoen eta Desagertuen Famili Elkartea
- Bizia Eguneko Zentroko Erabiltzaileen Famili Elkartea
- Drogen Gehiegikeria Ikertzeko eta Aurreikusteko Gipuzkoako Elkartea (DGIAGE)
- Juana Mugarrieta Elkartea
- LAGAEL Elkartea (Laguntza Garapen eta Elkartasuna)
- Banandutako Gipuzkoar Guraso Elkartea
- Pío Baroja Elkartea
- Adsis-Bestalde Gizarte Ekimeneko Zerbitzuen Elkartea
- Gorren Elkartea
- Buruko Osasuneko Euskadiko Elkartea
- Gerrako Alargunen Bizkaiko Elkartea
- Laringektomizatuen Bizkaiko Elkartea
- San Francisco, Zabala eta Bilbao La Vieja Auzoen eta Laguntza Taldeen Elkartea
- Beste Herri Batzuetako Giza Eskubideen Defentsarako Elkartea
- HIESaren aurka borrokatzeko Elkarteak: Hiesaren aurkako Gipuzkoako Hiritar Elkartea, Hiesaren aurkako Bizkaiko Batzordea, Errotatxo, GHAT, Harri-Beltza, Hies-Ekimena, Txo-Ihesa, T-4, Hiesaren aurkako Arabako Batzordea
- Minusbaliotasun fisikoa dutenen Elkartea
- Zenbait ikastetxetako gurasoen Elkartea
- Hirigintza planen, ingurumen arazoen eta zerbitzu sarean dauden akatsen eragina duten auzo-elkarteak (Herripe, Aldapa, Errota, Zaharra, Zaldibia, Intxaurdi, Durana, Ulia, Zuazaurre…)

- ATEA
- AVAFAS
- Berriztu
- Besarka, harrerarako eta adopziorako Arabako Elkartea
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bilbo-Etxezabal
- Boroako Anaitasuna Elkartea
- Lurralde guztietako Caritas
- CEAR (Errefuxiatuak babesteko Batzordea)
- San Martín Ikastetxe Publikoko Irakasle Elkartea
- Jubilatu elkarteak eta hirugarren adineko taldeak
- Araban kanpo zorraren aurka dauden irakasleen taldea
- Terrorismoaren biktimen Euskadiko taldea
- Gizarte lanean diplomatuak diren Bizkaiko Elkargo Ofiziala
- Bilboko musulmanen Elkartea
- Gipuzkoako musulmanen Elkartea
- Zenbait tokitako jabe eta auzo elkarteak (Orereta, Getxo, Arrigorriaga, Basauri, Bilbo, Galdakao, Durango, Sopela, Portugalete, Vitoria/Gasteiz, Nanclares, Donostia/San Sebastián…)
- Euskadi Gazteri Batzordea
- Zenbait ikastetxetako eskola batzordeak
- Bilbao La Vieja birgaitzeko taldeen koordinadora
- Harresiak Apurtuz, inmigranteei laguntza emateko Gobernuz Kanpoko Erakundea (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Arrazakeria, Euskadiko Txinatar Elkartea…)
- Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea
- Gurutze Gorria
- Denon Artean
- Sindikatu, talde eta elkarte profesional batzuk (irakasleak, gizarte langileak, abokatuak, hezitzaileak, nekazariak, osasuneko laguntzaile teknikoak, leku batetik besterako saltzaileak…)
- Egunabar (psikiatriako erabiltzaileen elkartea)
- Eguzki
- EKI
- Ekimen
- Ekologistak Martxan - Araba
- Elkarri
- Enbat elkartea
- Errotalde
- Etorkintza
- Euskal-Aid
- Zenbait lekutan atxiloturik edo espetxean dauden pertsonen familiak eta lagunak
- FEDEAFES (Gaixotasun Psikikoa duten Familiakoen Elkarteen Euskadiko Federazioa) eta federazio horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Ikasleen guraso elkarteen federazioa
- Minusbaliotasun psikikoa duten pertsonen Gipuzkoako Elkartea

- FEVAAS (Aurrejubilatuen eta Pentsionisten Euskadiko Federazioa)
- Foronda
- Argia Fundazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Gizakia Fundazioa
- Haurralde Fundazioa, haurtzaroa, gaztaroa eta familia babesteko
- Hurkoa Fundazioa
- Buruko gaixotasuna duten pertsonak babesteko Arabako Fundazioa
- Gorabide Babes Fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la Paz
- GEU-Gasteiz (euskararen aldeko taldea)
- Gipuzkoako Psikologoen Elkargoa
- Gizaberri (Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkarte Profesionala)
- Goiztiri
- Oposizio taldeak, bitarteko irakasleak, funtzionarioak...
- Arazoak dituzten ikastetxeen guraso elkarteak
- Lankidetza programetan edo euren arazoak azaltzera Euskadira beste herri batzuetatik iritsitako pertsona taldeak
- Herri eta auzo askotako azotar taldeak
- Gure Lurra
- Gurasoak
- Hegoa
- Hezilan
- Hirugarren Mundua eta Bakea
- Iniciativa Gitana
- Lurralde guztietako gizarte integrazioko institutuak (LGGII)
- Izangai
- Kalé dor Kayikó
- MESTOS (sendagile espezialistak)
- Pastoral Penitentzialaria
- Amaitu plataforma
- Atoan plataforma
- Txagorritxuko zaintza bereziko unitatearen aurkako taldeen plataforma
- Abandoko zentral termikoaren aurkako plataforma
- Martutene plataforma
- Zornotza Bizirik plataforma
- Hiru lurraldetako oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Zenbait ikastetxeko irakasleak eta gurasoak
- Proyecto Hombre
- Saharako Errepublikako ordezkariak
- Salestarrak
- Salhaketa
- Senideak

- Sindikatuak edo sindikatu atalak (ELA, ERNE, UAGA...)
- Lurralde guztietako SOS-Arrazakeria
- Abokatu elkargoek espetxeetako laguntzarako dituzten txandak (AEE)
- Unesco Etxea
- UNICEF

Kasu askotan, elkarteekiko lankidetza Ararteko erakundeak berak buruturiko lan monografikoaren eremuan ezarri da. Halako lankidetza (Arartekoak landutako arazoaren jarraipena egiteko) urte osoan zenbait eremutan gertatu da: delituak egin dituzten adin txikikoak (Berriztu eta Gaztaroan Ekin elkarteak); sasoikako langileak (Era Berri, Hezilan, UAGA, Cáritas...); San Francisco auzoko polizi eskuhartzea (Harresiak Apurtuz koordinadoraren barruko taldeak, auzo elkarteak...); buruko gaixotasunaren elkarteko laguntza (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...). Beste kasu batzuetan, elkarteekiko harremanak mantentzeko, foro jakinen partehartze bateratua edo horiek antolaturiko egintzak erabili dira, edo kexak tramitatu edo arazoren bat konpontzeko jarduera tramitatu da...

Lankidetza eta informazio truke guztiek ez dute jarduerarik eragin, batez ere berehalako jarduerarik, Erakunde honi dagokionez. Hala eta guztiz ere, sarri askotan, egin diren bileren ondorioz, alderdi guztien lankidetzaren eraginez eta alderdi bakoitzaren jarduera askatasuna errespetatuz, ondoko lerroetariko baten barruko jarduerak sustatu dira:

- elkarteek eurek aurkezturiko kexen tramitazioa (taldekoak nahiz banakakoak);
- Arartekoak Administrazioaren bulego batzuetan ofizioz egindako jarduerak, agerturiko arazoak konpontzeko;
- elkarteen eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza lanak;
- zenbait taldek sustaturiko elkartasun kanpainei edo egintzei erakundeek emandako laguntza;
- Administrazioaren eta elkarteen arteko lankidetza harremanak hobetzeko proposamenak;
- arauak aldatzeko proposamenak;
- lanerako erabilgarria den informazio eta dokumentazio trukea;
- eremu jakinean sakon egindako ikerketa (lan monografikoak);
- presaka egin beharreko kudeaketak, zerbitzuren bat hobetzeko edo arazoren bat saihesteko;
- bitartekaritza eskuhartzeak...

Adibidetzat, Ararteko erakundeak 2000. urtean lankidetza eremu horren barruan egin dituen jarduera garrantzitsu batzuk aipatuko ditugu:

- Sasoikako langileen arazoetan inplikaturiko elkarteekin izandako harremanei esker, jarraipen hobea egin, datu gehiago eduki eta, horren ondorioz, errealitateari hobeto egokituriko eskuhartzeak, proposamenak eta gomendioak egin ahal izan dira (txosten honetako 1.1.2 atala eta 6. kapitulua).
- Zerbitzu batzuetako profesionalekiko elkarrizketak eta bilerak, bestalde, baliozkoak izan dira elkarteen eta administrazioen arteko hitzarmen batzuen ezaugarriak aztertzeko, baita horrek lan baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitasun bermeetan izan dezakeen eragina aztertzeko. Horren ondorioz, kasuan kasuko erakundeetan ofiziozko jarduerak edo bitartekaritza lanak hasi dira.

- Eskola batzordeek eta irakasleek aurkezturiko kexek, eskolako bizikidetzari eta diziplina araubideari buruzkoak, orain ere agerian jarri dute berrikusi egin behar dela eskubideei eta betebeharrei buruzko arautegia. Arartekoak horri buruzko gomendioak egin ditu.
- Minusbaliotasun fisikoak dituzten pertsonen federazioek azaldutako arazoen ondorioz, beste alde batetik, ofiziozko jarduerak egin dira, lokal publikoak eskuratzeari buruzko arautegia aplikatzeari buruz, edo arazo horri lehentasuna emango zaio egingo den hurrengo ikerketa monografikoan (txosten honetako 1.6 atala).
- Hirigintza planei edo jarduerei eta ingurumenean izandako eraginei buruz jasotako kexetariko asko, egin ere, plataformetan antolaturiko pertsona taldeek, auzo elkarteek, jabe elkarteek, talde ekologistek ... egin dituzte.
- Talde bakezaleekin, gatazkak konpontzeko lanean ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin izandako harremanen eraginez, erakunde honek bake hezkuntzarako proposamen orokorra aurkeztu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari; halaber, proposamen hori garatzen laguntzeko, lankidetza beketarako deialdia egin zuen, giza eskubideen hezkuntzara bideraturiko eskola-materialak egiteko eta hedatzeko (txosten honetako 2.3 atala).
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen famili elkarteekin izandako harremanak faktore erabakigarriak eta oso lagungarriak izan dira, halako pertsonek dituzten arazoak sakon aztertzeko, gure Erkidegoan jasotzen duten arretari buruzko lan monografikoan (kapitulu honetako 1.4 atala).
- Elkarte batzuek atzerritarrak atxilotzeari eta kanporatzeko aginduari buruz aurkeztu dituzten salaketei esker, era askotako jarduerak egin ahal izan dira: bitartekaritzak eta kudeaketak agintarien aurrean, kexen tramitazioa, ofiziozko jarduerak...
- Herri askotako presoak askatzeko plataformekin izandako bilerak, azkenik, baliozkoak izan dira zenbait erakundetan horien egoera azaltzeko (adibidez, Herriaren Defendatzailea edo Torturaren aurkako Europako Batzordea); halaber, baliozkoak izan da talde horiei Arartekoaren jarrera jakinarazteko ere, hau da, presoak etxera hurbiltzeari, espetxeetako egoerari edo zenbait arrazoiren eraginez presoak askatzeari buruz duen jarrera.

Zenbait kasutan, elkarteekiko harremanek euren arazoak jakiteko ere balio izan dute: euren lana egiteko dituzten arazoak, koordinazio mekanismoak ezartzeko dituzten zailtasunak edo euren arteko lankidetza bideak, euren programei jarraipena emateko, erakundeekiko topaguneak edukitzeko... Aurreko txostenetan, Arartekoak gai horiek guztiak aipatu ditu, eta proposamenak egin edo ekimen batzuk nabarmendu ditu: dirulaguntzetan oraingo eremua gainditzea, erakundeen eta elkarteen arteko foro bateratuak ezartzea, adibidez, inmigranteak gizartean integratzeko foroa, boluntarioei buruzko legea... (adibidez, atal hauxe aurreko urteetako txostenetan, edo txosten honetako 1.1.6 atala).

Erakunde honen ustez, herri administrazioen nahiz zerbitzuen eta gizarte zibil antolatuaren arteko lankidetza sustatu eta bultzatu egin behar da, oraingo baliabideak hobeto aprobetxatu ahal izateko. Gizarte eragileen partehartze aktiboa izateak, hala ere, ez du esan nahi erakundeak erantzukizunik gabe gelditzen direnik, hiritarrei zerbitzuak emateko orduan.

## 2.2. ARARTEKOAK DEITUTAKO IKERKETA BEKAK

Amaitzeko daude, giza eskubideen alderdi desberdinetan sakontzeko, erakunde honek eman dituen beken babesean egin diren azken ikerkuntza lanak.

Giza eskubideen kulturaren gaineko hausnarketa eta hedapena sustatzeko helburu berari begira, 2000. urtean ikerkuntzarako beste beka bat eman da. Ararteko erakundeak 2000ko urriaren 11ko ebazpenaren bitartez deitu zuen beka (urriaren 20ko EHAO) Amaia Herrán Fernándezi esleitu zitzaion.

Proposatutako azterlanak ingurumen gatazketarako ebazpen alternatiboaren gaineko gaiak jorratuko ditu, legez eta kulturaz gure ingurukoak diren herrialdeetan emaitza interesgarriak ekarri dituen herritarren bitartekaritza eta partaidetzako baliabide desberdinak aztertuz.

## 2.3. ESKOLAN ERABILTZEKO MATERIALAK LANTZEKO BEKAK, GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZARI BURUZKO MATERIALAK

Laugarren urtez, Ararteko erakundeak ematen duen bi beketariko batek izaera berezia eta helburu zehatza izan du: eskolan erabiltzekoak diren giza eskubideen hezkuntzari buruzko materialen prestakuntza eta hedapena sustatzea. Aurten deialdian beste pauso ba eman da, euskarri multimediako materiala prestatu nahi izan baita.

Beka hauen deialdia, beste alde batetik, Arartekoak bi urte hauetan izandako kezka eta konpromiso honen eraginezkoa izan da: belaunaldi berriak demokraziaren balioetan heztearen oinarrietariko bat giza eskubideen hezkuntza da, baita bakerako nahiz tolerantziarako hezkuntza ere. Eta eskola sistema ez da tresna bakarra, baina gazteek eta umeek halako balioak ikasteko erabil dezaketen tresnetariko bat da.

Gure gizarteko bake etorkizunerako ezinbestekoa den arlo honi buruz, Arartekoak planteatu dituen ekimenen edo proposamenen artean, “Bakerako hezkuntza” deritzona Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailburuari aurkeztu zitzaion, baita gainerako defendatzaileek Koordinazioari buruzko XI. Jardunaldietan horretaz aurkezturiko proposamenak ere (1996ko txosteneko 2.3.1.2. ataleko I. kapitulua).

Gure Erkidegoan halako balioak eskolaren eremuan garatzeko konpromisoa duten pertsona eta talde asko daude. Bekarako deialdiei dagokienez egon den erantzunak (100 proiektu inguru aurkeztu dira) agerian utzi du pertsona askok giza eskubideen hezkuntzarekiko duten interesa eta konpromisoa. Beka, batzuetan, horietariko batzuetarako balorazio edo motibazio gehigarria da.

2000. urtean, deituriko lehenengo bekari dagokionez, jardueren eta proposamenen prestakuntza amaitu ondoren (horiek, eskoletako dinamikan sartzeko), eta eurak berrikusi nahiz esperimentatu ostean, karpeta itxuran argitaratu zen, euskaraz eta gaztelaniaz, izenburu honekin: *Materiales para la Hezkuntza en Giza eskubideak. Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. Karpeta hori bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan (DBH eta Batxilergoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren laguntzan diharduten erakundeetan zein zerbitzuetan banatu da.

Deituriko bigarren bekari dagokionez, esan behar da Hegoa eta Oinarrian elkarteetako pertsona talde bati adjudikatu zitzaiola; horri gagozkiola, aurten materialen eta proposamenen prestakuntza amaitu da, ikasgelako egoerei buruzko esperimentuak egin dira eta hori argitaratzeko nahiz hedatzeko pausoak ematen ari dira.

Hirugarren bekari dagokionez (iaz deitutakoa), beka hori HIPren inguruko irakasle talde bati eman zitzaion (Hezkuntzako Ikerketak eta Programak). Kasu honetan, bekaren helburua haurtzaroaren eskubideetan oinarrituriko materialak egitea zen, Lehenen Hezkuntzako ikastetxeetan erabili ahal izateko. Sormen lana aurten amaitu da eta orain hori argitaratzeko nahiz hedatzeko pausoak ematen ari dira.

Azkenik, aurtengo deialdia EHAAko 202. zenbakian argitaratu zen, 2000ko urriaren 20an (Arartekoak 2000ko urriaren 11n emandako ebazpena). Lehen esan dugunez, azken deialdi horren helburu nagusia euskarri multimediako materialak lortzea da; hori berritasun itzela da, orain arteko deialdiei dagokienez, baita zailtasun gehigarria ere. Txosten hau idazteko unean, oraindik adjudikatu barik dago.

Deituriko beka guztien helburua erraza eta bakarra da: ikastetxeei hezkuntza lana garatzeko baliozko materialak eskaintzea. Aldi berean, Arartekoak behin eta berriro azpimarratuko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gai honetan duen erantzukizuna; gainera, bere gaitasunen barruan, giza eskubideen hezkuntzarekin konpromisoa duten pertsonen eta taldeen arteko harremanak eta lankidetza bultzatuko ditu, bai eskola eremuan eta bai bertatik kanpo.

## 2.4. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK “BAKEAREN KULTURA: GIZA ESKUBIDEETARAKO OINARRIA” DERITZONARI BURUZ ANTOLATURIKO UDAKO IKASTAROEN JARDUNALDIA

Ararteko erakundeak orain ere giza eskubideen ikerketari buruzko jardunaldia egin du Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen testuinguruan.

Aurtengo jardunaldia Bakearen Kulturaren Nazioarteko urtearen barruan kokatzen da; urte hori Nazio Batuen Biltzar Orokorrak aldarrikatu du.

Bakearen kultura honako hauek osaturiko multzoaren barruan zehazten da: bizitzaren, gizakiaren nahiz horren duintasunaren eta gizaki guztien errespetua islatzen duten balioak, jarrera eta jokabideak; biolentziaren gaitzespena, horren forma guztietan, eta askatasun, justizia, elkartasun nahiz tolerantzia printzipioekiko atxikipena, baita herrien eta taldeen zein pertsonen arteko elkar ulertzea ere.

Jardunaldi honetan bakearen kultura giza eskubideak erabiltzeko beharrezko baldintzatzat aztertu zen.

Arartekoak egindako aurkezpenean, Euskal Herrikoa bezalako gizarte zatikatu batean bakearen kultura berehala garatu beharra azpimarratu zen, belaunaldi berriek eta horien balioen hezkuntzak bake iraunkorraren euskarri eta bermetzat duten garrantzia nabarmenduz. Halaber, Euskal Gizartean nabaritzen den gizarte zatitzea eta endekapen etikoa nabaritu ziren; azkenean, Arartekoak “bakearen eskubidea” giza eskubidetzat eraikitzea aldarrikatu zuen.

Mayor Zaragoza irakasleak ponentzia iradokigarria egin zuen, “bakearen kultura” izenburupean.

Azalpen bikain batean, gogoetak egin zituen bake kulturaren kontzeptuari, elkartasun ezako oraingo egoerari eta umeen zapalkuntzari buruz. Askatasunaren balio gorena eta, *Un monde nouveau* deritzon liburuan oinarrituz (Jerome Binde autorearekin batera idatzitako liburua), mende honen amaierarako lau kontratu berri proposatu zituen: gizarte kontratua, gizarte mailako alderdiak eta ez zifra makroekonomiko handiak nabarmentzeko; ingurumen kontratua, baliabideen kontsumo zentzugabeari aukerak bilatzeko; kultur kontratua, kultura eta hizkuntza guztiak errespetatzeko; eta, azkenik, kontratu etikoa, itun moral berria sortzeko. Azkenean itxaropen mezua eman zuen Euskal Herriko egoerari buruz.

Vicenc Fisas irakasleak “Bakearen kultura euskal testuinguruan” izenburupeko ponentzia eskaini zuen.

Bertan, UNESCOk “Gure sormen aniztasuna” deritzon txostenean aipaturiko bost printzipioak gogoratu zituen (giza eskubideen errespetua, demokrazia partehartzailearen indartzea, gutxiengoen babesa, gatazkak modu baketsuan konpontzeko konpromisoa eta datozen belaunaldien pentsaera); era berean, printzipio horiek Euskal Herriko politika nahiz gizarte mailako bizitzara aplikatzeko aukera baztertu zuen. Azkenik, hausnarketa egin zuen entzun, hitz egin eta errespetatu behar izateari buruz. Berak esandakoaren arabera, Euskal Herrian ez dago bakearen kulturarik eta, lehenengo eta behin, *“hitza desarmatu”* egin behar da. Azkenean, *“sedukzioaren politika”* izenekoaren aldeko apustu sendoa egin zuen.

Jardunaldiaren bigarren zatian mahai-inguru bat egin zen hiru talde bakezaleekin (Gesto por la Paz, Denon Artean eta Elkarri).

Talde bakezaleen zeregina erabakigarria izan da eta oraindik ere bada, Euskal Herrian bakea eraikitzeko orduan. Halako taldeak duintasun zibikoaren erakusgarriak dira, fanatismoaren eta intolerantziaren aurkako erantzun etikoaren erakusgarriak.

Xabier Askasibarrek (Gesto por la Paz taldeko ordezkaria) esandakoaren arabera, bakearen kultura berriaren prozesuan esku hartzen duten subjektuak asko dira: familia; eskola; komunikabideak; erakundeak; alderdi politikoak; eliza; kirol nahiz kultur buruzagiak; elkarteak, gizarte mugimenduak, GKEak... Bakearen balioak eta biolentziaren kulturaren kontrabalioak elkarren aurkakotzat azaldu zituen. Halaber, hiritartasun kontzeptua aldarrikatu eta proposaturikoaren bideragarritasuna praktikan frogatu behar dela adierazi zuen, Gesto por la Paz taldeak zabaldu nahi dituen balioen bitartez.

Denon Artean taldearen ordezkariak (Javier Mendoza) ibilbide historikoa egin zuen, hiritarrek biolentziari eta jarduera terroristari emandako erantzunean izan diren lorpenetatik, eta talde bakezalearen mugimendua ere azpimarratu zuen. Oraingo egoerari buruzko ikuspegi ezkorra azalduz, etorkizunerako beharrezkotzat jo zuen gizarte eta demokrazi mailako adostasuna lortzea, alderdi politikoen eta gizarte taldeen artean. Berak esandakoaren arabera, gizarte berria sortzeko oinarria hiltzaileak damutzea da, baita biktimek barkamen eskuzabala ematea ere. Bakerako, tolerantziarako eta gainontzekoak errespetatzeko hezkuntza landu beharra aldarrikatu zuen.

Azkenik, Gorka Espiauk, Elkarriren izenean (elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua), “Euskal gatazka eta bakearen kultura” deritzonari buruz hitz egin zuen. “Bakearen kultura” kontzeptuari egin ahal zaizkion hurbiltze guztietatik, bestalde, gatazken eta horien konponbideen ikerketarena aukeratu zuen; era berean,

proposamenaren oinarrizko eta funtsezko ideia defendatu zuen, hau da, elkarrizketa defendatu zuen bakearen kulturaren sustatzailetzat. Beraren ustez Lizarrako akordioaren itxaropen nagusia zena aztertu zuen: isolamendu irizpidearen ordez ez-biolentziaren eta "bazterketarik gabeko elkarrizketa" deritzonaren aldeko irizpidea erabiltzea. Espiauren iritziz, Lizarrako adierazpenak gatazka konpontzeko metodologia demokratikoa eskaini nahi zuen, baina ahalmen hori honako bi arrazoi hauen ondorioz galdu zuen: *"Espainiako Gobernuaren jarrera inmobilistaren ondorioz eta Lizarrako Foroaren diskurtsoa nahiz dinamika eraikuntza nazionalarekin nahastearen ondorioz"*. Berak adierazitakoaren arabera, eraikuntzaren ordena logikoa honako hau da: 1) printzipioak eta 2) prozedura eta edukia; hala eta guztiz ere *"azken bi urte hauetan prozesua edukien osaketan oinarritu da, printzipioak edo euskarriak eta prozedurak edo egiturak aurretiaz ezarri barik"*. Azkenik, beraren iritziz, helburua denon arteko printzipioak eta prozedurak bilatzea da, aniztasun ahalik eta handienaren barruan.

Aurkezturiko ponentziak eta jakinarazpenak bakearen kulturaren ideiari ikuspegi desberdinetatik egindako hurbiltzeak dira, kultura horrek birtualtasun handia baitauka Euskal Herriko egoera zaila konpontzeko orduan.

# 3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

## 3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XV. JARDUNALDIAK

Jakina denez, Arartekoaren eta autonomi ordezkarien arteko harremanen oinarriak koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioak dira.

Eskubideak bermatzeko erakundeek, urtean zehar, ohiko jardueren gaineko harreman estuak badauzkate ere, koordinaziorako jardunaldiek komunean dituzten arazoei buruzko eztabaida eta mahaigaineratze-leku gisa dute balioa.

Koordinaziorako XV. Jardunaldiak Vitoria/Gasteizen egin ziren, ekainaren 29an eta 30ean, Ararteko erakundeak antolatuta. Eztabaida-gaiak ondoren zerrendatzen direnak izan ziren:

- Bakearen kultura.
- Espetxearen ordezko zigorrak.
- Administrazioaren ondare erantzukizuna.
- Administrazio-jakinarazpenak herritarren berme gisa.

Parte hartu zuten erakundeek lanerako lau eremu horiei buruzko ponentziak eta komunikazioak aurkeztu zituzten.

Interesgarri iritzi zitzaiolako, eranskin gisa kopiatu dira Ararteko erakundeak aurkezturiko ponentzia eta komunikazioak. Horrela bada, orduan Ararteko zen Xabier Markiegik, I. eranskin gisa itsatsi dugun “Gure erakundeen ekarpena bakearen kulturara” izenpeko ponentzia aurkeztu zuen.

Aztertu eta eztabaidatu ziren gainontzeko gaiei dagokienean, komunikazio bana aurkeztu zuen Ararteko erakundeak.

Halatan bada, aholkulari juridikoa den Miren Ortubay Fuentesek “Autonomi Erkidegoek zigor alternatiboen aplikazioan eta erregimen irekiaren betetzean dituzten eskuduntzak eta erantzukizuna” izenburua zeukan komunikazioa aurkeztu zuen (II. eranskina).

Ararteko erakundearen Carlos Barcina Fernández aholkulari teknikoak “Administrazioen ondare erantzukizunari dagokion jardueran gerta daitezkeen zenbait arazo” izena zeukan komunikazioa aurkeztu zuen (III. eranskina).

Nicolas Basarrate Hormaetxea aholkulari juridikoak, bere aldetik, “Ediktuen jakinarazpena Administrazio-zuzenbide zehatzailearen eremuan eta tutoretza judizial eraginkorrerako funtsezko eskubidea 4/1999 Legeak eragindako 30/1992 Legearen 59. Artikuluaren aldakuntzarekin lotuta” komunikazioaren defentsan jardun zuen (IV. eranskina).

Ponentziak eta komunikazioak aurkeztutakoan, arartekoen ondorioak hauexek izan ziren:

### “GURE ERAKUNDEEN EKARPENA BAKEAREN KULTURARA” PONENTZIAREN ONDORIOAK

Koordinaziorako XV. Jardunaldien zioz Gasteizera bildutako arartekoek honako konpromisoa hartu dugu:

1) Bakearen Kulturaren Nazioarteko Urtean, botere publiko guztiak partaide izan daitezen *“bakearen ikuskera hobe baten eraikuntzan, bizitzaren errespetuaren askatasunaren, justiziaren, solidaritatearen, tolerantziaren, giza eskubideen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balio unibertsaletan oinarri hartzen duen bake-kulturaren garapenaren bidez”*.
2) Konbentzitzeko magistratura garen aldetik, herritarrek Administrazioarekin dituzten gorabeherei, elkarrizketaren eta tartekaritzaren bitartez, konponbidea emateko erakunde garen aldetik, eta hitzaren eta arrazoiaren indarra tresna bakar hartuta, egunerokoan, hurren daukagunean, bake-kultura egitean partaide izatea.
3) Politika baino lehenagokoak izan arren, jarduera politikoaren inspirazio-iturri izan behar duten printzipio demokratikoak hedatzea eta gogoraraztea:
   Errealitatearen printzipioa, pluraltasunaren onarpen printzipioa; gatazkei irtenbidea eman diezaiekeen formularik ez dagoelako printzipioa; biolentziatik etekin politikorik hartzeko asmorik ez izatearen printzipioa; alderdi politiko demokratikoen arteko konfiantzari eusteko edo, hala gertatzera, berregiteko printzipioa, bakea eraikitzeari dagokionean behinik behin.
4) UNESCOk, bakerako eskubidea giza eskubide gisa onartzeko 1997an egin zuen Adierazpenaren alde jardutea.
   Adierazpen honetan azaltzen denez, *“bakerako giza eskubideak bermatua, errespetatua eta praktikan jarria izan behar du, inolako diskriminaziorik gabe”*.
   Adierazpenaren arabera, ezberdintasunak, esklusioak eta txirotasunak, bai nazio mailan, eta bai nazioarte mailan ere, bakea urratzea ekar dezaketelarik, gizarte justizia sustatzea eta bizkortzea Estatuei dagokienez gero, ararteko guztiok, zeinek bere esparruan, betebehar hau zinez betea izan dadin, zaindu egingo dugulako konpromisoa hartu dugu.

## “ESPETXEAREN ORDEZKO ZIGORRAK, ETA ZIGORRA ERREGIMEN IREKIAN BETETZEA”

Koordinaziorako XV. Jardunaldien zioz Gasteizera bildutako arartekoek honakoa baieztatu nahi dugu:

1) Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluaren arabera, askatasunaz gabetzeko zigorrak berriro gizarteratzera zuzenduta egongo dira. Zigor-administrazioei zuzentzen zaie, lehenik eta behin, manu hau, baina funtsezko eskubideen artean kokatuta dagoelarik, lotesle gertatzen da botere publiko guztietarako.
2) Konstituzioaren manu horren oinarrizko edukia –Europako Zigor-Arauen arabera-, espetxe-aldiak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak ekiditean datza. Horrek, hasteko, espetxe-zigorraren aplikazioa murriztea dakar berekin, azken baliabide gisa erabiliko delarik. Zigorra betetzeko baldintza egokiak sortu beharra ere badakar berekin, askatasunaz gabetzeak zigortuaren desgizarteratzea eragin ez dezan. Ildo honetatik, beste printzipio batzuen artean, presoaren eboluzio pertsonalaren araberako zigortrataera aplikatu beharra ezarri du zigor-legeriak, alde eginez erregimen irekira, bai eta baldintzapeko askatasunera ere, jo dezan. 1996ko Kode Penalak, zigorrak erregimen irekian betetzeko sorrarazitako aukeren ahalik eta erabilpen handiena gauzatzen saiatu behar dute bereziki Botere Judizialak eta Zigor Administrazioak, eta lankidetzarako eremu zabala aurkitzen dute hortxe autonomi administrazioak.

3) 1995eko Kode Penalaren zigor sistemak espetxeari oso lotuta badirau eta askatasunaz gabetzeko zigorra ez diren bestelako neurriei oso neurri txikian jotzen badu ere, herri-administrazioek baldintza objektiboak eta gizarte-kontzientziakoak sorrarazi behar dituzte asteburuko arrastatzeen aplikazio eraginkorrak sustatzeko, horretarako beraien araupetzearen alderdi disfuntzionalak aldatuz eta, batez ere, arrastatzeok beteak izan daitezen, toki egokiak sortuz. Komunitatearen onurako lanen bidezko zigorrari dagokionean, herri-administrazioek haien gizarte-hedapena eta onarpena sustatu behar dute, bai eta aplikatuak izan daitezen ahalbidetuko duten postuak sorrarazi ere. Toki erakundeek eta komunitatearen gizarte zerbitzuek zeregin hauetan sartu beharko dute, aldi berean, entitate eta erakunde pribatuen inplikazioa eta lankidetza eraginez zehazpenaren aipatutako betearazpenean.
4) Adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak, autonomi erkidegoen esku utzi zuen adin txikikoen epaileek hartzen dituzten neurrien betearazpenari dagokion eskumena. Zentro itxiak, irekiak, erdi irekiak eta terapeutikoak martxan jartzeak eta hornitzeak; zainpeko askatasunean dauden adin txikikoen aholkularitzarako, kontrolerako eta ebaluaketarako talde arduradunen prestakuntzak; esku hartzeko protokoloak egiteak; eta neurriak betearazteko lankide izango diren zentroak, proiektuak, familiak eta heziketa-taldeak zehazteak, lehentasuna izango duten zereginak beharko dute izan.

## “ADMINISTRAZIOAREN ONDARE ERANTZUKIZUNAREN INSTITUTUA DELA-ETA SORTURIKO ARAZOAK”

Koordinaziorako XV. Jardunaldien zioz Gasteizera bildutako arartekoek honakoa baieztatu nahi dugu:

1) Administrazioaren erantzukizuna pieza gako dela Zuzenbidezko Estatuan, administraziopekoek, zerbitzu publikoen esku-hartzearen aurrean duten bermeari dagokionean.
   Horregatik, botere publikoek ezin errespetutsuago behar dute izan erreklamazioen instrukzioa eta tramitazioa ahalbidetuko dituzten prozedurazko bermeekiko, aurreikusten diren arauak erabat errespetatuz, eta inoiz ere ezingo dute, beren erantzukizunaz salbuesteko xedeaz, prozedura saihestu.
2) Administrazioak, beraren funtzionamenduak sorraraz ditzakeen kalteen erantzuna emateko duen betebeharra bereganatu eta bere egin beharraren kontzientzia hartu behar du, interes orokorraren zati baita betebehar hori, eta ez da beraren jardueretan ordenamenduaren postulatuen aurka joan litekeen ondare-interes gaizki ulerturik bilatuko.
   Zentzu honetan, zerbitzu publikoen eraginik gabeko funtzionamendu guztietara hedatu beharko da administrazioaren erantzukizun hau, herri-administrazioei dagozkien tutoretza eta polizi potestateak ez betetzeak herritarrei ekartzen dizkien kalteak ere berorien barne daudela.
   Ez dago, alabaina, Administrazioa, zerbitzu publiko bat eman izanarekin zeharreko bidetik lotu dakiokeen eta partikularrei jazoriko edozein gertaeraren aseguratzaile unibertsaltzat hartzerik.

3) Administrazioek ezin dezakete zerbitzu publikoen zeharreko kudeaketa erabili zerbitzu publikoon funtzionamendutik eratorritako erantzukizun objektibotik ihes egiteko.
   Administrazioak, kontratatu den zerbitzuaren titularra den aldetik, erantzukizunari buruzko espedientearen tramitazioa bermatu beharko du, prozedurazko beharrezko bermeekin, berariaz ebatzi beharko duelarik erantzukizuna izan badela, nori egotz dakiokeen eta, hala gertatzera, zein den kaltea eta zein den kalte-ordainaren zenbatekoa.
   Era berean, emakidadunaren edo kontratugilearen gainean dauzkan eskubideak erabili beharko ditu Administrazioak, gerta litekeen kalte-ordainari erantzungo zaiola bermatzeko, eta errekerimendua egingo dio enpresari ordain dezan edo, hala gertatzen denean, era subsidiarioan erantzungo du partikularren aurrean.
4) Erantzukizun zibila arau zibilen eta izenpeturiko aseguruaren kontratuaren arabera zehazteko balio du aseguruen merkataritza-konpainien irizpideak, baina ezin dezake baliorik izan Administrazioa, bere erantzukizun objektibotik salbuesteko.
   Horregatik, administrazioek administrazio-espediente baten bidez zehaztu beharko dute beren erantzukizuna, eta inoiz ere ez dute halakorik egingo Administrazioak kontratatzen duen aseguruen merkataritza-konpainiaren txostenera igorriaz.
5) Desiragarria izan daiteke herri-administrazioek gatazken epaiketatik kanpoko irtenbiderako mekanismoak erabiltzea osasun publikoan gertatzen diren mediku-kalteen ziozko kalte-ordainei dagokienean.
6) Komenigarria da arartekoek Administrazioari eska diezaiogun ofizioz ekin diezaien ondare erantzukizuneko prozedurei, eta kexen ebazpenetan gaiaren barruko mamiari buruzko gure aburua eman dezagun, hau da, erantzukizuna dagoenentz eta eragina jasan duenari egin beharreko ordainketaz dugun aburua eman dezagun.

## “PROZEDURA ADMINISTRATIBOA HERRITARREN ESKUBIDEEN BERME. ERREFERENTZIA BEREZIA ADMINISTRAZIO-JAKINARAZPENEI” PONENTZIAREN ONDORIOAK

Koordinaziorako XV. Jardunaldien zioz Gasteizera bildutako arartekoek honakoa gogorarazi nahi dugu: prozedura administratiboa, administrazio-jardueraren eraginkortasunaren beraren funtsezko elementua izan ez ezik, herritarren eskubide indibidualen bermerako eta beroriek, administrazio-organoek erabakiak hartzeko dituzten mekanismoetan parte hartzeko sistema bihurtu ere bihurtzen dela. Ondorioz,

1) Herri-administrazioek, erabakiak hartzeko prozesuetan, ahalegin egin beharko dute prozeduren garapenak kontraesanen, gardentasunaren eta motibazioaren eskaeraren *pro actione* printzipioari zor zaion errespetua eta printzipio horrek daukan indarra susta eta zain ditzan, isiltasuna saihestuz ebazpenak hartzeko mekanismo gisa, eta indarrean dagoen prozesamendu-legeriaren interpretazio murriztailea egin gabe.
   Zentzu honetan, adierazi beharra dago intimitateari zor zaion errespetua ez dela aitzakia gisa erabili behar prozesu akademikoetan, hautatzekoak direnetan, dirulaguntzak ematekoetan edo ingurugiroari dagozkionetan, Administrazioak doazkienei eskatzen dituzten datuak ez emateko. Kasu askotan, herri-administrazioek eskubide hau argudiotzat hartuta, tutoretza judizial eraginkorrerako

eskubideari kalte egin diezaioketen jarrera opakoak eta gardentasunik gabeak babesten dira.

2) Jakinarazpenetarako mekanismoei dagokienean, azpimarratu beharra dago administrazio-jakinarazpenak herritarren onurarako egin behar direla erazko zorroztasun osoaz. Herri-administrazioek ahaleginak egin beharko dituzte administrazio-egintzen jakinarazpenek ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak zehatz-mehatz errespeta ditzaten, horrela bermatuko baita Espainiako Konstituzioaren 24. Artikuluan aurreikusitako funtsezko eskubideak –tutoretza judizial eraginkorrerako eskubidea eta prozeduraren bermeetarako eskubidea- betetzen direla. Ondorioz, ediktuen jakinarazpenak jakinarazpenetarako mekanismo salbuespenezko izan beharko du, hartzaileak, igorri zaiona idatziz hartu duena ziurtatzea ahalbidetzen duten aukera guztiak behin agortuta, jakinarazpen pertsonala eraginik gabe bihurtu delako ondoriora heldu ondoren –hori baino lehen arrazoizkotze-epaia eginda-.

## 3.2. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN MINTEGIA, ESTATU ETA GOBERNU BURUEN X. GAILUR IBEROAMERIKARREAN AZTERTUKO DIREN HAUR ETA NERABEEN GAIEN GAINEAN

Ombudsmanen Federazio Iberoamerikarra osatzen duten herrien defendatzaileek mintegia izan zuten Bartzelonan, 2000ko ekainaren 6tik 8ra bitartean, aurten izango den Estatu eta Gobernuetako Buruen X. Gailur Iberoamerikarrera eramango diren haur eta nerabeen gaineko proposamenak prestatu eta formulatzeko.

Lan topaketa horietan hainbat ponentzia eta komunikazio aurkeztu eta eztabaidatu ziren, ondoko lau gai garrantzitsu hauen inguruan: Haurren Eskubideen gaineko Nazio Batuen Hitzarmena, haurrentzako politikak ezartzeko oinarria eta norabidea; legearekin arazoak dituzten adin txikikoen egoera; adin txikikoen hezkuntzaren eta lanaren arteko oreka; haurren esplotazioaren aurkako neurriak. Ponentziak aurkeztu zituzten Mexiko, Argentina, Costa Rica, Kolonbia, Bolivia, Nikaragua, Guatemala, Peru, Catalunya eta Euskadiko herri defendatzaileek, bestea beste.

Arartekoaren ekarpenean “Adin txikiko lege hausleen tratamendua” aipatu zen. Xabier Markiegik gizatalde horren tratamenduari dagokionez gure sistemaren errealitatea zein den aztertu zuen, erakundeak hobetzeko egin dituen gomendioak azaldu zituen eta eremu horretako ekintza eta proposamenak bideratu behar dituzten oinarriak ekarri zituen gogora. Arartekoak azpimarratu zuen legeak urratzen dituzten adin txikikoei dagokienez ekintza guztiak hezteko helburuaz egin behar direla, eta adin txikikoen eskubideak ere zaindu behar direla eta, amaitzeko, eremu irekiko neurrien ahalmenak nabarmendu zituen, bai eta gizarte zibila ahalmen horietan inplikatzeak duen garrantzia, eta espetxeratze egoerak, askatasuna kentzekoak ahalik eta gehien murriztu beharra ere, neurri horiek ez ohikoak behar baitute.

## 3.3. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN, MANDATARIEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO BURUEN FEDERAZIOAK EGINDAKO BOSGARREN BILTZARRA

2000. urteko azaroaren 21etik 24ra arte, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak (gaztelaniaz, FIO izenekoak) V. Biltzarra egin zuen Mexiko Hirian. Jardunaldi horiek eztabaida-gune izan ziren, eta lagungarri gerta daitezke, Iberoamerikako herrietan Ombudsman izenekoaren erakundea ezartzeko.

Biltzar horretan, lan-gai desberdinak eztabaidatu ziren; gai guztiak ere giza eskubideei eta Iberoamerikako gizarteari buruzkoak izan ziren. Lehenengo eta behin, "etorkin, erbesteratu eta errefuxiatu"en arazoak aztertu ziren eta, ondoren, "arrazakeria eta xenofobiari buruzko mundu-batzarrerako prestaketa-lanak" burutu ziren.

Biltzarrean, jarduneko Arartekoak, Mercedes Agúndezek, komunikazioa aurkeztu zuen, honako izenburu honekin: "Ararteko erakundeak atzerritarren eskubideak babestu eta sustatzeko bete behar duen lana". Komunikazio hori V. eranskin gisa batu zaio agiri honi.

Era berean ere, aztergai eta eztabaidagai izan ziren "giza eskubideak eta Nazioarteko Gorte Penala".

"Ombudsmanak Iberoamerikan dituen erronkak eztabaidatzea" izenburupean, hasiera eman zitzaion lansaio berriari.

Jardunaldi horiekin batera, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak Batzarra egin zuen. Batzar horretan eztabaidatu eta onetsi zen Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko Prozedurari buruzko Erregelamendua.

Iberoameriako Federazioaren V. Biltzarrari amaiera emateko, "Mexikoko Adierazpena" izeneko agiria onetsi zen. Jarraian, adierazpen horren testua jasoko dugu:

*"Arartekoak, prokuradoreak, hornitzaileak, mandatariak eta giza eskubideen batzorde publikoetako buruak, Mexiko Hirian, Mexikon, bildu dira, 2000. urteko azaroaren 21etik 24ra bitartean, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak (gaztelaniaz, FIO izenekoak) V. Urteko Biltzarra egin baitu. Biltzar horretan, hainbat lan burutu dira, Arrazakeria, Arrazaren ondoriozko Bereizkeria, Xenofobia eta Intolerantziarekin lotutako beste bideei buruzko Mundu Batzarra prestatzeko. Bildutako guztiek BERRETSI DUTE euren konpromisoa, alegia, gizabanako guztien eskubideak sustatu eta babestea, betiere, arraza, etnia, hizkuntza, erlijio, sexu edo bestelako inguruabarren arabera inolako bereizketarik egin gabe. Bildutako guztiek BERRIZ DIOTE euren eginkizuna dela ordezkaritzazko demokrazia, justizia eta Iberoamerikako lurraldearen gobernagarritasuna sendotzea.*
*Aurrekari horiek guztiak aintzakotzat hartuta, Iberoamerikako Ombudsmanek:*

1. *estatuak BULTZATU NAHI DITUZTE, horiek Ombudsmanen erakundea susta eta sendo dezaten, euren antolamendu juridikoetako konstituzio eta legeen esparruan, erakundearen autonomia eta independentzia osoa bermatuz.*
2. *gogo biziz EUREN ONIRITZIA AZALDU NAHI DIOTE Txileko Errepublikako Lehendakariak Nazioko Kongresuan aurkeztu duen*

*proiektuari. Proiektu horren ondorioz, Txileko Konstituzioa eraldatuko da, herri horretan 'Arartekoa' ezartzeko. Iberoamerikako Ombudsmanak prest daude, Txileko Ombudsmanari eta, oro har, giza eskubideen inguruko erakunde guztiei, hala nahi izanez gero, laguntza teknikoa emateko; beharbada, erakundeok halako laguntza beharko dute, gizarte zibilak parte-hartze aktiboa izan dezan, Txileko egoera politikoan erabakigarri izan daitekeen une honetan.*

3. *ZORIONAK EMAN NAHI DIZKIOTE Dominikar Errepublikako Senatuari, horrek lege-proiektua onetsi baitu, Ombudsman dominikarra ezartzeko. Begi onez ikusi dute Diputatuen Ganberako kideek partaidetza izatea, FIO izenekoaren jardueran; partaidetza horrek argiro-argiro erakusten du harako erakunde eztabaildatzaileak laster onetsiko duela behin betiko legea.*
4. *bereziki, Paraguaiko kongresukideak BULTZATU NAHI DITUZTE, nazio horretan lehenengo arartekoa izendatzeko prozesua gauza dezaten.*
5. *Brasilgo Estatu Batuetako eta Uruguaiko Ekialdeko Errepublikako herria eta agintariak BULTZATU NAHI DITUZTE, horiek ere Iberoamerikako Ombudsmanen korrontearekin bat egin dezaten. Izan ere, korronte hori lurraldeko lagun guztien legebidezko guraria da eta, horrez gain, nahitaezko gertatzen da, demokrazia eta giza eskubideen kultura garatzeko.*
6. *estatuak BULTZATU NAHI DITUZTE, Ombudsmanen laguntzarekin, bakearen kultura susper dezaten. Kultura horrek gizartearen garapena eta segurtasuna ahalbideratuko ditu eta, esparru horretan, gizabanakoaren duintasuna gorengo balioa izango da, gizartearentzat eta estatuarentzat ere.*
7. *ETAk burututako atentatu terroristak KONDENATU NAHI DITUZTE, eta elkartasuna adierazi nahi diete biktimei eta Espainiako herriari, giza eskubideak, askatasuna eta demokrazia babesteko bidean.*
8. *Peruko Arartekoak egindako lana GORAIPATU NAHI DUTE, horrek jarduera nekaezina burutu baitu, herritarren eskubideak babesteko eta herri horretan demokraziaren ezarpena berreskuratzeko. Peruko Arartekoak berebiziko lana burutu du, orobat, aurton egindako hauteskundeak ikuskatzeko. Gainera, parte hartu du, Ameriketako Estatuen Antolakundeak sustatutako elkarrizketa-mahaian.*
9. *Kolonbiako Arartekoari LAGUNTASUNA ADIERAZI NAHI DIOTE, horrek egundoko lana egin baitu, Kolonbiako herritarren oinarrizko eskubideak babesteko. Gizalegezko eginkizuna bete du, berebat, Kolonbiako gatazkaren testuinguru korapilatsuan tartekari jardun eta bakea lortzeko.*
10. *Ameriketako Estatu Batuetako Lehendakaria BULTZATU NAHI DUTE, horrek guztiz eta behin betiko geldiaraz ditzan Puerto Ricoko Vieques udalerriaren uhartean burututako gerra-ekintzak. Hala eskatu diote, aho batez gainera, Puerto Ricoko alderdi politiko, eliz-agintari, lan-erakunde, herritarren erakunde eta gizarte-erakunde guztiek.*
11. *BERRIZ ERE ADIERAZI NAHI DUTE arazo larri batzuen ondorioz kezkatuta daudela. Arazo horiek oztopatu egiten dute gizarteen oso-osoko*

*garapena eta, era berean, arazo horiek eragozpen gisa har daitezke, herriek bizitza duina izan dezaten. Bizitza duin horretan, besteak beste, txirotasuna, bazterketa, ustelkeria, zigorgabetasuna, segurtasunik eza, justiziarik eza eta bereizkeria ezabatu behar dira.*

12. *AZALDU NAHI DUTE Iberoamerikako gizakien aniztasuna bertako aberastasunik handienetako bat dela. Horregatik, USTE DUTE desberdina dena jasan eta onartu behar dela, horretarako ingurumari egokia atonduz. Hori nahitaezko gertatzen da, arrazakeria, arrazaren ondoriozko bereizkeria, xenofobia eta intolerantzia ezerezteko. Esangura horretan, BERRIRO ADIERAZTEN DUTE Iberoamerikako Ombudsmanaren eginkizunik garrantzitsu eta konplexuenetako bat dela mota guztietako bereizkeriak ezabatzea. Hori dela eta, AZALDU DUTE Ombudsmanek erabateko partaidetza izan behar dutela, Arrazakeria, Arrazaren ondoriozko Bereizkeria, Xenofobia eta Intolerantziarekin lotutako beste bideei buruzko Mundu Batzarrean. Partaidetza horrek izugarrizko garrantzia du, arazo horiei aurre egin eta eurok konpontzeko.*
13. *AZALDU NAHI DUTE berdintasun-printzipioa indarrean dagoela eta, beraz, ezin dela gizabanakoen artean bereizkeriarik egin, sexua kontuan hartuta. Horregatik, KONPROMISOA HARTZEN DUTE, emakumeen giza eskubideak sustatu eta babesteko. Horretarako, emakumearen egoera oso-osorik izango dute gogoan, emakumeok Ombudsmanaren erakundearen barruan duten egoera ere aintzakotzat harturik. Ombudsman batzuek oraindik ez dute gai horren gaineko bulego espezializaturik sortu eta, ondorenez, ombudsman horiei GOMENDIOA LUZATZEN DIETE, horretarako neurri egokiak har ditzaten.*
14. *AZALDU NAHI DUTE sexuaren ondoriozko indarkeria, jazarpena eta esplotazioa eta, bereziki, emakume eta umeena, ez datozela bat gizabanakoaren duintasunarekin. Bide horretatik, erakunde eskudunekin elkarlanean aritzeko KONPROMISOA HARTZEN DUTE, halako ekintzak igarri eta ezabatzeko asmoarekin.*
15. *ONIRITZIA EMAN NAHI DIOTE, atseginez gainera, Panamako Adierazpenari. Adierazpen horren izenburua izan da, hain zuzen ere, "Haurtzaro eta Nerabezaroaren inguruan elkarturik, milurteko berrian hori baita Justizia eta Ekitatearen oinarri". Adierazpen hori Iberoamerikako Estatuburu eta Gobernuburuen X. Biltzarrean onetsi zen; biltzarra Panama Hirian egin zen, 2000. urteko azaroaren 18an. Aurtengo ekainean, FIO izenekoak Bartzelonako Adierazpena onetsi du, eta harako biltzarrean adierazpen berri horren oinarriak finkatu ziren. Bestalde, Federazioko kideeak BULTZATU NAHI DITUZTE, mandatariek hartutako konpromisoak betearaz ditzaten.*
16. *GAITZIRITZIA EMAN NAHI DIETE bereizkeria guztiei, halakoak intolerantzia eta xenofobiaz egiten direnean, herriz herri dabiltzanen aurka. Jakina denez, estatu batzuek etorkinak hartzen dituzte eta besteak, berriz, etorkin horien jatorrizko estatuak dira. Batzuei zein besteei ESKATU NAHI DIETE giza eskubideen ikusmiratik, migrazioak aztertu eta ulertzeaz gain, horiei aurre egiteko. Arean bere, giza*

*eskubideei babesa zor zaie, eta babes horrek ezin du inola ere oztopatu edo eragotzi agiririk gabeko migrazioa kontrolatzea. Ildo horretatik, Iberoamerikako Ombudsmanek PRESAZKO DEIA EGITEN DIOTE Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuari, horrek bere politika eten dezan. Izan ere, orain arte, mugen gaineko kontrola eta kriminalizazio-politika gauzatu ditu Ameriketako Estatuko Batuetako Gobernuak. Horrek kalte larriak egin dizkie joan-etorrian dabiltzanen bizitzari eta eskubideei. Gainera, Ameriketako Estatu Batuetako lurraldearen hegoaldeko mugan, talde pribatuek "agirigabekoen aurkako ehiza"ri ekin diote, eta bertako Gobernuari eskatu nahi diote, ehiza hori zaindu, kontrolatu eta zigortzeko. ONIRITZIA AZALDU NAHI DIOTE Mexikoko Ombudsmanek hasitako lanari, horiek giza duintasunaren aurkako egintzak salatu dituztelako.*

17. *GAITZIRITZIA EMAN NAHI DIOTE heriotza-zigorrari, hori munduko edozein tokitan aplikatzen denean. Eta BAT EGITEN DUTE, Amerika Barneko Giza Eskubideen Gorteak emandako KI/16 Kontsulta-Iritziarekin. Kontsulta-iritzi horrek hauxe ezarri du: atzerritarra hirugarren estatu batean atxilotzean, kontsul bidezko abisurik egiten ez bada, abisua ez egiteak urratu egiten du legebidezko prozesua. Hortaz, heriotza-zigorra ezarri eta betearazten bada, bizitza nahierara kenduko da. Horrek berarekin ekarriko du estatuak nazioarteko erantzukizuna izatea, eragindako kalteen ordaina emateko.*
18. *AZPIMARRATU NAHI DUTE Ombudsmanaren eginkizunetatik garrantzitsuenetarikoa dela herri indigenen eta jatorri afrikarra dutenen eskubideak babestu eta sustatzea. Herri indigena horien usadio eta ohiturak errespetatu eta zabaldu behar direla ADIERAZI NAHI DUTE, betiere, usadio eta ohiturok giza eskubideen aurkakoak ez diren heinean. Estatuak, gobernutik kanpoko erakundeak eta nazioarteko erakunde eskudunak BULTZATU NAHI DITUZTE, herri indigenei buruz NBAk eta AEAk prestatu dituzten adierazpenak negozia ditzaten eta, zehatzago, negoziazio horiek azkar egin daitezen. Ildo horretatik, Iberoamerikako Ombudsmanek konpromisoa hartzen dute, estatuei eskaera zehatza egiteko. Izan ere, Nazioarteko Lan Antolakundearen Hitzarmeneko 169. artikuluak herri indigenen eta tribuen eskubideak arautzen ditu. Bada, estatuek erreserbak egin badizkiote artikulu horri eta, hala denean, ez badituzte erreserba horiek berretsi edo kendu, orduan hori egiteko eskaera egiten zaie estatuoi eta, horrekin batera, neurri egokiak har ditzaten galdatzen zaie, neurriok barneko esparruan oso-osoko eragina izan dezaten.*
19. *EUREN GAIN KONPROMISOA HARTZEN DUTE, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea eta Gizalegezko Nazioarteko Zuzenbidea aztertu eta zabaltzeko lana sendoagoa izan dadin. Gainera, estatuak BULTZATU NAHI DITUZTE, Nazioarteko zuzenbidearen bi testu horiei buruz nazioarteko eta eskualdearteko agerkaiak berrets ditzaten edo horiei atxiki daitezen. ADIERAZI NAHI DUTE, berebat, Ombudsmanen eginkizun aipagarrienetarikoa dela euren herrien barnean eragina izatea, helburu hori lor dadin.*

20. *Nazio Batuen Giza Eskubideen Gorengo Ordezkaritzari BERRIZ ESKATU DIOTE, Ombudsmanen eskariari erantzuna eman diezaion. Eskari horren arabera, Ombudsmanek berezko estatutua izan behar dute, Nazio Batuen esparruan giza eskubideen gaia eztabaidatzen denean. ATSEGIN HANDIZ HARTU DUTE AEAren Batzar Nagusiak ezarritakoa; horri helduta, Ombudsmanek parte hartu behar dute, Amerika Barneko Giza Eskubideen Sistema indar dadin. KONPROMISOA BEREGANATZEN DUTE, gogo biziz horren inguruko proposamenak egiteko.*
21. *BERRIZ DIOTE Nazioarteko Gorte Penala iraunkortasunez ezartzea nahitaezkoa dela, zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko. Gorte hori osagarria da, barneko sistema juridikoei begira; eta, horregatik, erabakigarri gerta daiteke, sistema horiek eraldatzeko. Euren kezka ADIERAZI DUTE, estatu gutxik berretsi dutelako Nazioarteko Gorte Penalari buruzko Estatutua. Eta, ondore horretarako, AITORTU DUTE Ombudsmanek eginkizun garrantzitsua dutela, barnean beharrezkoak diren zuzenketa eta egokitzapenak aztertzeko; horrela, Erromako Estatutua sina, berrets eta abian jar dadin bultzatuko da.*
22. *AITORTU EGITEN DUTE euren erakundeek eta gizarte zibil antolatuak koordinaturik jardun behar dutela. EUREN ESANETAN, gizabanako, talde eta erakundeen eskubide eta eginbeharra da giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatu eta babestea, horien gaineko aitorpena unibertsala den heinean. ERABATEKO GAITZIRITZIA EMATEN DIETE giza eskubideen defendatzaileen aurka egindako erasoei, halako erasoak izaten baitira, bai haiek burututako lanaren aurka, bai euren osotasun fisikoaren eta adimen-osotasunaren aurka ere. KONPROMISOA HARTZEN DUTE, aurrerantzean ere horiekin batera lanean aritzeko, aipatutako helburua bete dadin.*
23. *Amerika Barneko Giza Eskubideen Erakundeak, FIO izenekoaren Idazkaritza Teknikoak, burututako jarduera GORAIPATU NAHI DUTE, horrek lan eskerga gauzatu baitu, herrialdean Ombudsmanaren erakundea sustatzeko. Gainera, ESKERRAK EMAN NAHI DITUZTE erakunde horrek laguntza eman duelako, FIO izenekoaren V. Urteko Biltzarra egin dadin. Nazioarteko lankidetzarako finantza-erakundeak BULTZATU NAHI DITUZTE, halako ahaleginak gauzatzeko laguntza eman dezaten, betiere, Amerika Barneko Giza Eskubideen Erakundearekin koordinatuta.*
24. *ZORIONAK EMAN NAHI DIZKIOTE zuzendaritzako batzordeari, horrek bikain bideratu baitu Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa; batzordearen buru jardun du Leo Valladares Lanza doktoreak.*
25. *ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIOTE José Luis Soberanes doktoreari, Mexikoko Ombudsmani, arrakasta handiarekin antolatu duelako FIO izenekoaren V. Urteko Biltzarra. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete batzorde antolatzaileari eta herriari berari, biltzarreko parte-hartzaileei harrera ona egiteagatik eta arreta gozoa eskaintzeagatik. AZALDU NAHI DUTE, halaber, ERABAKI hauei guztiei MEXIKOKO ADIERAZPEN izena eman nahi diotela.*

*Mexiko Hirian, Mexikon, 2000. urteko azaroaren hogeita lauan."*

# II. ATALA

# ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO ARRETA BEREZIA

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kexak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarrizko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.231 kexak eta 2000 urtean hasi ditugun ofiziozko 46 jarduerak askotariko arazoen erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal hiritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak «OF» erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, “erreklamazioa” atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedientea aztertzea eta ebaztea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Bestalde, nabarmendu behar da gaikako banaketa baten arabera egiten dela alorren ohiko egituraketa. Arartekoaren jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoen berariazko tratamendu batek osatu behar du banaketa material hori.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoen berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharrizanei beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira Arartekoaren jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakinen alde burutu diren jarduerak:

Berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:

- emakumeak
- zaharrak
- adin txikikoak
- atzerritarrak
- elbarriak

# A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

## 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

### 1.1. SARRERA

Ararteko erakundeak 2000n tramitatu ditu lehenengo arloari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako arloari, bigarren arloari edo industri arloari eta hirugarren arloari edo zerbitzuen arloari dagozkien arazo edo gatazken gaineko 19 kexa espediente. Erreklamazio hauen guztien lana erakundeak egindako zereginaren %2,04 besterik ez da, betiere herritarrek sustatutako kexa espedienteei dagokienez.

Erreklamazio bakoitzak ukitutako administrazioa aintzat harturik, kexa hauen estatistika ondorengoa da:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ................. 11
- Foru Administrazioa ....................................................... 7
- Toki Administrazioa ....................................................... 6

Halaber, edukia kontuan hartzen badugu, kexak modu honetara sailka ditzakegu:

- Industria .................................................................... 6
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza ................................ 4
- Kontsumoa .................................................................. 3
- Merkataritza ................................................................ 2
- Eskubideak eta askatasunak ............................................ 2
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .................................................................... 1
- Turismoa ..................................................................... 1

Autonomia Erkidego honetan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako jarduerei eragiten dieten kexen artean Getaria kolektiboak bidalitako kexa azpimarratzekoa da; izan ere, bertan udalerri horretako San Anton mendian egindako arbola-mozketaren legezkotasuna jartzen zen kolokan. Mozketa enpresa pribatu batek egin bazuen ere, udalak baimendu zuen, erreklamazio egileek adierazi zutenari jarraituz. Era berean, 2000n Arartekoaren jardueraren helburua izan da nekazaritza zein abeltzaintzako ustiategietako titularren eta basojabeen interes kontrajarriak bateratzeko beharrizana. Kasu hauetan, erreklamazio egileek, abeltzaintzako ustiategietako titularrak izan ohi direnek, euren haserrea azaltzen dute, euren iritziz, ukitutako administrazioek jarduten ez dutelako foru arauek ustiapenen arteko banaketarako ezarritako gutxieneko neurriak betetzen ez direla-eta jarritako salaketei erantzunez.

Orobat, bigarren edo industri arloan hainbat gairi oratu zaio. Ohar bezala, Mañariko herritar batek aurkeztutako kexa aipatuko dugu. Bertan azaltzen zuen ez zetorrela bat Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak udalerri horretako harrobi batek bere jarduerari jarraitzeko emandako baimenarekin; izan ere,

beraren iritziz, jarduera hori legez kanpo zegoen. Sail horren jarduerari dagokionez, azpimarratzeko da herritar batek egindako kexa; izan ere, bere ibilgailuko IATren txartela gorde zioten, horretan ohar bat ageri zelako. Igorritako informazioa aztertu eta gero, ondorioztatu zen sail horretako zerbitzuen jarduera zuzena izan zela, IATren txartela itzuli ziotelako, beste azterketa bat pasatzeko premiarik gabe. Edozein kasutan ere, sailak berak onartu zuen ohar hori IATren emakida zuen enpresak berak burutu zuela, Industria eta Energia Ministerioak emandako jarraibideak bete ahal izateko. Hori dela eta, iradoki zitzaion erreklamazio egileari egiaztagiri bat helarazteko beharrezko zereginak aurrera eramatea, arrazoi hori zela-eta beraren kontra hasitako zehapen prozeduran erabili ahal izateko.

Aurreko urteetan legez, Arartekori igorri zaizkio merkataritzako jarduerari lotutako gaiak, zehatzago esanda, elkarlehia askea egikaritzeari darizkion gatazkak. Horrela bada, planteatu da okindegi eta supermerkatuetan aldizkariak eta egunkariak saltzeak arazoak sortarazten dizkiola prentsaren salmentarekin arduratzen den arloari. Honen inguruan adierazi beharra dago elikagaietako establezimenduetan prentsa saltzeak ez duela ekarri behar kontrolerako erakunde honen esku-hartzea. Izan ere, herritar partikularrek aurrera eramaten duten merkataritza jarduera bat besterik ez da eta indarreko legeriak bi jarduerak lokal berean bateratzea baimentzen du osasun eta higienearen ikuspuntutik, abenduaren 24ko 318/1996 Dekretua indarrean sartu zenez geroztik; izan ere, horrek indargabetu du elikagaien eta prentsaren salmentaren zein ogiaren banaketa eta merkataritza araubidea arautzen duen dekretua.

Herritarrek, kontsumitzaile eta erabiltzaile modura duten gero eta kontzientzia handiagoaren ondorioz, erakunde honetara helarazi ohi diote Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari aurkeztutako kontsumo erreklamazioen gaineko ebazpenen desadostasuna; bat ez etortze hori sortzen da ebazpenetan agertzen den hizkuntza teknikoaren ezagupen faltagatik. Hori dela eta, iaz erakunde honek sail horri gomendatu zion ebazpen horietan erabiltzen den terminologia herritarrei errazteko ahaleginak egin ditzan.

Erakundeak kontsumo erreklamazioetan jarduteko duen tarte txikia kontuan hartuta, kasu horietan herritarrei argitu eta azaltzen zaie zeintzuk diren sail honek dituen bitartekaritza zereginak, baldin eta planteatutako kasuak kontsumoaren inguruko gairik urratzen ez badu.

## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

⇒ *Gutxieneko distantziak baso landaketen kasuan (794/2000)*

• Erreklamazioa

Bizkaiko udalerri batean dagoen etxebizitza bateko titularrak Arartekori igorri zion Nekazaritzako Foru Diputatuaren ebazpen bat; izan ere, horren bitartez adierazten zen ez zegoela urraketarik ez eta erantzukizunik ere baso landaketen eta alboko finken arteko distantziei buruzko zehapen espedientean.

Ebazpen horren arrazoietan ageri zen *insignis* pinuak landatu zireneko finka ez zela salatzailearen etxebizitzaren finkako mugakidea, bien artean auzo bidea zegoelako.

Ukitutakoak, ordea, uste zuen 101/1994 Dekretuak gutxieneko distantzien inguruan ezartzen duen araubidea aplikatzeko modukoa zela; izan ere, arauaren helburua kalteak saihestean baitatza, bai nekazaritzari bai inguruko eraikinei egin dakizkiekeen kalteak, alegia.

• Azterketa

Foru dekretu horren helburua baso ustiategi eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak bateragarri egitean badatza ere, arauaren gutxieneko distantzien araubidea aplikatzeko baldintzetariko bat da lursailak mugakideak izatea, hau da, ukitutako lursailak elkarren ondoan, alboan edo mugan egotea. Horrela bada, kokapen geografikoa hori ez zen kasu honetan ageri, bi finken artean auzo bide bat zegoelako.

Era berean, mendiei buruzko eta babestutako natur guneak administratzeko 3/1994 Foru Arauak, 101/1994 Dekretuari estaldura ematen dionak, 105.1. artikuluan ezartzen du ukitutako lursailak mugakideak izatea beharrezkoa dela, Foru Dekretuaren 1. artikuluan ezartzen duen bezala.

• Emaitza

Foru arauaren eta berori garatzen duen dekretuaren hitzez hitzeko ezarpena zein den ikusi eta gero, argi dago bi testuen egileen asmoa gutxieneko distantzien gaineko araubidea aplikatzea izan dela, betiere finkak elkarren alboan daudenean. Horrela bada, baso ustiapenaren mugakidea den elementuak zehaztuko du zein den errespetatu beharreko gutxieneko distantzia, horiek larreak, bideak, basoak edo etxebizitzak izanda ere.

Horrenbestez, aintzat hartu behar da arau juridikoak hitzen zentzuaren arabera interpretatu behar direla eta banaketa erregimen bat ezartzeak lurren ustiapen ahalmenak eta, ondorioz, jabetza eskubidea ere murriztea dakarrela, ustiapenari ezartzen zaion muga hori ezin da inola ere zabaldu arauak ohartemandako ezarpenetatik harantzago.

Hori dela eta, ukitutako pertsonari jakinarazi zitzaion, gure ustez, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren jarduera indarreko arautegiaren araberakoa izan zela.

## B) **Kontsumoa**

### ⇒ *Erabiltzaileak eta azken kontsumitzaileak (410 /2000)*

• Erreklamazioa

Taxilari batek Arartekori kexa bat aurkeztu zion, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak gaitz iritzi ziolako taximetroa instalatu zion tailerraren kontrako erreklamazioari; erreklamazio hori aurkeztu zuen, taximetroan kontsumitzaile eta erabiltzailearen izaera bereizten ez zirelako.

• Azterketa

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko uztailaren 19ko 26/1984 Legearen lehenengo artikuluak ezartzen du zein pertsonari aplikatuko zaizkion bertan zehaztutako bermeak. Horrela, legearen idazkerak ez du kontsumitzaile eta erabiltzailearen arteko

kontzeptu argirik zehazten, betiere zerbitzu edo produktu bat kontsumitu edo erabiltzen duen pertsona fisiko edo juridikoari buruzko kontzeptuari dagokionez. Aitzitik, arauak ezarritako babes eremua murrizten du eta produktu edo zerbitzuen azken erabiltzaile eta kontsumitzaileetara mugatzen du.

Zehatzago, lege horren 1. artikuluak ondoko hau ezartzen du:

> *"2. Lege honen ondorioetako, kontsumitzaile edo erabiltzailetzat jotzen dira ondasun higikor edo higiezinak, produktuak, zerbitzuak, jarduerak edo funtzioak azken hartzaile gisa eskuratu, erabili edo gozatzen dituzten pertsonak fisiko edo juridikoak, betiere horiek ekoiztu, eskuragarri jarri, hornitu edo luzatzen dituztenen izaera publikoa edo pribatua, banakakoa edo kolektiboa edozein izanik ere.*
> *3. Ez dira kontsumitzaile edo erabiltzailetzat jo beharko, azken hartzaileak izan barik, ondasunak edo zerbitzuak eskuratu, bildu, erabili edo kontsumatzen dituztenak, betiere ekoizpen, transformazio, merkaturatze edo gainerakoentzako prestazio prozesuetan sartzeko asmoz."*

Hori dela eta, arau horren arabera, produktu edo zerbitzu baten azken kontsumitzailea da bere, familiaren edo etxerako erabilerarako ondasuna eskuratu edo zerbitzua ordaintzen duena. Oso modu errazean adierazita, esan liteke azken kontsumitzailetzat hartzen dela ondasuna etxean kontsumitzeko eskuratzen duena.

Taximetro baten erabilerak zentzua hartzen du garraio zerbitzu baten prestazioaren markoaren barruan; izan ere, taximetroa ibilbidea neurtzeko tresna da eta haren erabilera lanbide jarduera zehatza garatzera mugatzen da. Esan nahi baita, taximetroa ekoizpen ekonomikoaren prozesu zehatz baten elementua baino ez da, kasu honetan taxi batena.

Kasu honi ondorengo honi emango litzaiokeen tratamendu bera ematen zaio: torlojuak egiten dituen enpresa bati trokela hondatu zaio eta tresna hori konpontzeko teknikari batekin kontratatzen du zerbitzua. Tresna hori torlojuak ekoizteko prozesuan erabiliko denez (hau da, kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko Legeak adierazi bezala, tresna ekoizpen prozesuan sartzen denez), zerbitzuaren kontsumitzailea (enpresa burua) ez da konponketa zerbitzuaren azken kontsumitzailea. Horrenbestez, legeak adierazten duen legez, ez zaizkio aplikatu behar izango ondasun eta zerbitzuen azken kontsumitzaileei arauak aintzatesten dizkien bermeak.

• Emaitza

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren erabakian ez legezkotasunik ikusi ez arren, ukituari azaldu nahi izango diogu modu errazean zein den ebazpen laburraren zergatia.

## C) **Industria**

⇒ *Etxeko erabilerako gasa banatzearen ondorioz sortutako arazoak (125/2000)*

• Erreklamazioa

2000ko otsailean gas butanoa banatzeko arazoak egon zirenean, herritar batek erakunde honi planteatu zion, batetik, banaketa zerbitzu egoki baten prestazio falta eta,

bestetik, etxeko erabilerarako gas bonbonak (butanoa, metanoa...) garraiatzeko ibilgailu partikularraz baliatu behar izatea.

• Azterketa

Baliabide energetiko honen prestazioa enpresa hornitzaile baimenduei dagokie. Enpresa horiek behartuta daude hornidura zerbitzua eskatzen duten pertsona guztiei ematera, betiere 1.085/1992 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera. Arautegi horren 25.2. artikuluak ezartzen du botiletan edo ontzietan egiten den horniduraren kasuan, *"hornikuntza zerbitzua kontratatu duten erabiltzaileek eskubidea daukate gasa euren etxean eman dakien, eskabidea egin eta berrogeita zortzi orduko epearen barruan, jaiegunak zenbatu barik"*. Baldintza horiek betetzen ez badira, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Lurralde Bulegoan salatu beharreko administrazio urratzea da. Edozein kasutan ere, ez betetze horrek erabiltzaileei kalte ekonomikoren bat badakarkie, horiek erreklamazioren bat plantea liezaiokete ardura duen enpresa hornitzaileari.

Merkantzia arriskutsuak garraiatzeko egokitutako ibilgailu bereziak erabiltzeko beharrizanari dagokionez, partikularrei gasa hornikuntza zentrotik garraiatzea ahalbideratzen zien aldarazpen bat zegoen. Horrela, urriaren 1eko 15/1999 Legegintzako Errege Dekretuak ibilgailu partikularretan 15 kilogramo gas eramatea baimentzen du, baldin eta beteta daudenean modu bertikalean eramaten badira eta horiek ez erotzeko beharrezko neurri egokiak hartzen badira.

• Emaitza

Beraz, aurrekariak aintzat hartuta, ez zegoen ezelako erregulartasunik euskal administrazio publikoek aurrera eramandako jardueran; beraz, azterketa hau erreklamazio egileari igorri eta gero, espedientea amaitutzat eman zen.

# 2. GIZARTE ONGIZATEA

## 2.1. SARRERA

Gizarte ongizatearen arloari dagokionez, 2000n 71 kexa espediente berri tramitatu dira. Erreklamazioek ukitutako administrazioaren arabera egindako banaketa ondokoa izan da:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ................. 17
- Foru Administrazioa ....................................................... 46
- Toki Administrazioa ........................................................ 24

Azpiarloen arabera banatuz gero, sailkapena ondokoa da:

- Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak ...................... 31
- Une eta nerabeentzako laguntza ...................................... 11
- Beste alderdi batzuk ........................................................ 7
- Adin nagusikoentzako laguntza ........................................ 6
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ........................................................................ 6
- Pertsona ezinduentzako laguntza ..................................... 5
- Emakumezkoentzako laguntza .......................................... 2
- Kontratazio araubidea eta administrazioaren erantzukizuna .. 2
- Eskubideak eta askatasuna .............................................. 1

Aurten ere aurreko urteetan emandako gomendioen jarraipena egin da. Horretarako egindako bisitak txosten honen 1. kapituluan jaso dira.

Iazko txostenean adierazi genuen Bizkaian sinaturiko erabakiak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz kexak sortu zirela osasun eta gizarte arloko arazoetan esku hartu behar dutenen aldetik. Erabaki horietan ezarritako emaitzak oraindik ere bete ez direnez gero, zirkunstantzia hori aipatu beharko dugu arlo honetan, osasunari dagokion esparruan egin dugun bezalaxe.

Buruko gaixotasunaren ardura komunitarioari buruzko txostenean pertsona minusbaliatuei buruz aipatutako laguntzaren eremuan, azpimarratu behar dugu laguntza plazak finantzatzeko hitzarmenak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen artean sinaturikoak, ekarri duen aurrerapena. Zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eraginkortasuna bultzatzeko ildoari jarraituz, aipatzekoak dira 63/2000 Foru Dekretuaren bitartez egindako arauzko egokitzapenak; izan ere, horiek lagun dezakete laguntza ekonomikoak kudeatzean sor daitezkeen arazoak konpontzen, betiere pertsona nagusiak foru erakundearen titularitatekoak ez diren egoitzetan sartzerakoan, 1.244/1999 espedientearen laburpenean adierazi bezala.

Erakunde honek 1996ko txostenean arau hori onesteko izaera orokorreko gomendio bat egin zuen, betiere familia ugariak babesteko erregulazioak dituen arazoei erantzun ahal izateko. Arau hori ez onestea, beste arrazoi batzuk tarteko, izan da beharrezko onurak aplikatzeko zailtasunak izan dituzten familia ugarien kexak jasotzen jarraitzeko arrazoia.

Araban egindako kexa baten ondorioz, osasunari dagokion arloan garun paralisiak jota dauden umeei laguntza emateko arazoa aipatu dugu -estimulazio eta fisioterapia

programen bitartez eman behar zaie tratamendua-, bai eta hainbat administrazioren menpeko zerbitzuek (osasuna, hezkuntza eta gizarte ongizatea) pertsona hauei laguntza emateko esku-hartzea ere.

Diziplina anitzeko esku-hartzeari dagokionez, tratamendurako Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa zuten seme-alaben guraso batzuek erakunde honetara jo zuten laguntza hori eteten zelako seme-alabek hiru urte betetzen zuten momentuan. Euren asmoa zen Gizarte Ekintza Sailak laguntzea, harik eta tratamendua amaitu arte, adi horretara arteko muga kontuan hartu barik.

Hiru urte betetakoan, gure erkidegoan eskolatzeko eskubide subjektiboa gauza daiteke, eta, horretara, ume horiek fisioterapeuten laguntza izan dezakete ikastetxeetan. Hari honi jarraituz, badirudi gizarte zerbitzuek hiru urte bete arteko laguntza ezartzeko irizpide orokorrak zerikusia duela umeak eskolatzeko zirkunstantzia horrekin, hau da, hezkuntza administrazioaren esku-hartzearekin; hala ere, irizpide hori berrikusia izan da, kexaren laburpenean jasotzen den bezala.

Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioei dagokienez, aipatzekoa da Gizarte Lan eta Gizarte Laguntzaileen Diplomatikoen Bizkaiko Elkargo Ofizialak kexa bat aurkeztu zuela Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren 2000ko otsailaren 3ko Agindua, IMI eta AESen onuradunen enplegua sustatzekoa, okerreko moduan aplikatzen zelako; izan ere, erabilitako formulak ez zuen urteko gutxieneko soldata kontuan hartzen, baizik eta hilabetekoa. Nolanahi ere, ez zen akats bat, ezpada sarrera salbuetsien zenbatekoa zehazteko erreferentzia hau (hileko soldata)hautatu izanaren emaitza. Beste daturik ezean, ezin genuen aukera hori txartzat eman, lan antolamendua arautzen duten printzipioen menpeko harreman eremua ez delako.

Administrazio publikoaren babesa behar duten adin txikikoei dagozkien kexen artean, bi kasu mota azpimarratu behar dira: alde batetik, gurasoenena, ez baitaude ados foru erakundeek euren seme-alaben berehalako jagotza hartzeko jarraitutako prozedurekin edo argudiatutako arrazoiekin; beste alde batetik, adin txikiko ondorengoekin bizi ez diren gurasoen kexak ere izan dira, betiere eurekin komunikatzeko ezarritako bisita araubideari dagokionez. Kasu bakar batean baino ez da izan adin txikikoa bera erakunde honetara jo duena gure esku-hartzea eskatzeko: Gipuzkoan bizi zen hamabi urteko haurra zen. Azpimarratzekoa da haurrak babesteko eremuaren barruan aurrera eramandako jarduera bakar batean ere ez dela inolako erregulartasunik aurkitu, nahiz eta hainbat kasutan jarduera batzuk hobetzeko iradokizunak egin ditugun, esate baterako administrazioaren eta ukitutako familien arteko komunikazioa hobetzekoak.

## 2.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Adin nagusikoentzako laguntza

⇒ *Udalerriaren aldaketa, adinekoen egoitza batean sartzeko laguntza eskatu eta gero (1244/1999)*

• Erreklamazioa

Bilbon bizi zen pertsona batek, udal horren bitartez, tramitatu zuen hirugarren adineko egoitza batean sartzeko banakako laguntza ekonomikorako eskabidea. Laguntza

hori Bizkaiko Foru Aldundiak deitu zuen, eta horren arautegiaren arabera, laguntza emanez gero, zati bat foru erakundeak ordaindu behar zuen, beste bat erroldatuta zegoeneko udalak eta hirugarrena interesatuak berak.

Eskabide honen ostean eta horren inguruko erabakirik hartu baino lehenago, interesatuak bere egoitza aldatu zuen Santurtzira, bertan erroldatuz eta egoitza pribatu baten sartuz.

Egoera honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak kontuan hartu zuen eskatutako laguntza. Hala ere, foru erakundeak ez zion berari zegokion zenbatekoa ordaintzen, udalak ere –Santurtzi edo Bilbo– horrelakorik egiten ez zuelako. Horretara, interesatuak ez zuen ezelako laguntzarik jasotzen.

• Azterketa

Abenduaren 2ko 116/1997 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 12ko 1/1999 Foru Dekretuak aldarazi duten azaroaren 2ko 108/1993 Foru Dekretuak arautzen zuen dirulaguntza.

Arazoa zen ukitutako bi udaletatiko zeinek hartu behar zuen bere gain udalari dagokion finantzazio zatia. Bilbokoak interesatua ez zela udalerriko herritarra aipatzen zuen eta Santurtzikoak laguntzarako eskabidea Bilboko Udalean aurkeztu zela argudiatzen zuen, hau da, interesatua hiri horretako auzokidea zenean.

Erakunde honek hainbat gestio burutu zituen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean eta Santurtziko Udalean, interesatuak lau urte baino gehiago emanak baitzituen erroldaturik.

• Emaitza

Azkenean, bi erakundeek –foru erakundea eta Santurtziko Udala- beren gain hartu zuten beharrezko ordainketa; hala ere, udalak zehaztu zuen interesatuari laguntza emango zitzaiola udal egoitza publikoan.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak beste foru dekretu bat onetsi zuen (maiatzaren 23ko 63/2000 Foru Dekretua, maiatzaren 30eko 70/2000 Foru Dekretua aldarazi zuena), betiere egoitzetara sartzeko sistema eta banakako laguntza ekonomikoak emateko modua arautzen zituena. Dekretu horren bitartez, espediente hau sortu zuten egoeren gisakoak saihestu nahi dituzte; izan ere, bertan hartzen dira kontuan, besteak beste, ondoko hauek guztiak: laguntza eskatu dutenen erroldatze aldaketa, itxarote zerrendan dauden pertsonen udalek finantzatzeko konpromisoa (zahar-etxean sartu baino lehenago) eta finantzaturiko plazak betetzeko lehentasuna izango duten egoitza motak.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Lan kontratazio baterako beharrezkoa zen minusbaliatu egiaztagiria ematerakoan atzeratu egin ziren (93/2000)*

• Erreklamazioa

Minusbaliatu egoera eskatua zuen pertsona batek Bizkaiko Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio Taldearen azterketa gainditu eta, berbaz, egoera hori baieztatu zioten,

nahiz eta beharrezko egiaztagiria eman arte itxaron behar zuen. Era berean, pertsona horrek enplegu eskatzaile modura izena emanda zuen INEMen eta minusbaliatu egiaztagiria aurkeztea baino ez zuen falta.

Horrela bada, egiaztagiri hori egin baino lehenago, lan eskaintza bat aurkeztu zioten, baina enpresa kontratatzaileak minusbaliatu egoeraren egiaztagiria behar zuen legez ezarritako baldintzak betetzeko.

Interesatuak egiaztagiri hori berbaz eskatu zien bera aztertu zuen balorazio taldeari, baina horrek zehaztu zion, administrazio barruko arazoak zirela eta, ezin ziotela eman hiru hilabete, gutxi gorabehera, igaro arte. Interesatuak adierazi zuen enpresak ezin zuela hainbeste itxaron eta bertan lan egiteko aukera gal zezakeela.

• Azterketa

Erakunde honek interesatuari eskatu zion egiaztagiria Bizkaiko Foru Aldundiari idatziz eskatzeko, gestio guztia berbaz burutu zuelako.

Beste alde batetik, erakunde honek, aldi berean, beharrezko gestioa egin zuen Aldundiko Minusbaliatu Zerbitzuan. Horrela, adierazi ziguten, behin betiko egiaztagiria emateko epea luza zitekeen arren, minusbaliatu egoera egiaztatzeko foru agindua sinatua zegoela, eta, beraz, interesatuari agindu horren fotokopia erkatua eman ahal zitzaiola, INEMeko bulegoan aurkezteko eta lan kontratazioa aurrera eroateko.

• Emaitza

Informazio horren berri interesatuari eman eta gero, egiaztagiria egun gutxiren buruan eskuratu zuen eta arazoa konpondu zen.

## C) **Eduki ekonomikoko gizarte prestazioak**

⇒ *Erroldatze arazoa prestazio osagarriei begira: kasu berezia (1231/1999)*

• Erreklamazioa

Gizarte Ongizatearen Fondoaren pentsio eskabide bati uko egin zioten, hori eskatu zuen pertsona ez baitzegoen lurraldean erroldatuta. Horregatik, pertsona horren jagotza zeukan fundazioak kexa bat aurkeztu zion Ararteko erakundeari.

• Azterketa

Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizatearen Fondoak edadeko pertsonei edota ezinduei ematen dizkien pentsioak erregulatzen dituen arauak beste betekizunen artean ezartzen du lurraldeko edozein udalerritan erroldatuta egoteko baldintza.

Prestazio ekonomikoa eskatu zuen pertsona Valladolideko zentro berezi batean zegoen, minusbaliatuaren egoera zela eta; horrenbestez, ez zuen betetzen exijituriko baldintzetarik bat. Edozein modutan ere, pertsona hori zentro horretan sartu izana foru agindu baten ondorioa zen; izan ere, pertsona horrek behar zuen laguntza ematea ezinezkoa zenez, urte batzuk lehenago onetsi zen zentro horretara bidaltzea.

Behin kexa aurrekari horiek kontuan hartuz aztertu eta gero, arrazoiturik egon zen; izan ere, erroldako datua aintzat hartu behar bazen ere, kasu honetan bestea bezain garrantzitsua zen beste batekin batera aztertu behar zen, hau da, interesatua beste autonomia erkidego bateko zentroan egoteko datuarekin, hain zuzen ere.

• Emaitza

Kexa aurkeztu zuen jagotza fundazioak Foru Aldundiari jarri zion beharrezko administrazio errekurtsoa; bertan alegatzen zuen erroldatze baldintza ez betetzeko arrazoia pertsona horri lurralde horretan beharrezko laguntza emateko ezintasunean oinarritzen zela, eta, horregatik, aldundiak onartu zuela interesatua Valladolideko zentroan sartzea.

Arartekori emandako erantzunean, aldundiak jakinarazi zuen jagotza fundazioak jarritako administrazio errekurtsoa ontzat ematen zuela. Horren ondorioz, ezintasunagatiko pentsioa bideratu zen.

*⇒ Gizarte larritasunagatiko laguntza ordaintzeko atzerapena (375/2000)*

• Erreklamazioa

Pertsona batek gizarte larritasunagatiko laguntza eskatu zion udalari eta horrek eman zion; hala eta guztiz ere, beharrezko ebazpena sinatu eta bi hilabete igarota, udalak ez zuen bideratu aintzat hartutako laguntzaren zenbatekoaren ordainketa.

• Azterketa

Udalarekin hartu-emanetan paratu ostean, adierazi ziguten ordaintzea berandutu zela aurrekontuko arrazoien ondorioz. Izan ere, aipatutako ebazpena aurreko urteko aurrekontuaren ekitaldia itxi baino bi egun lehenago sinatu zen; horrela bada, emandako laguntzaren zenbatekoa ekitaldi berriaren kontura eman behar zen.

Erakunde honen aburuz, gertakizun horrek ez du justifikatzen aintzatetsitako laguntza bat ordaintzeko berandutzea. Halaber, ebazpena sinatzeko legez ezarritako epea ere luzatu zen. Gauzak horrela, laguntzarako eskabidea aurkeztu eta lau hilabete eta erdi igarota, onuradunak ez zuen jasoa ezer ere ez, nahiz eta beraren aldeko ebazpena egon. Gainera, hori ez zen laguntza hauek ordaintzeko luzapenak ukitutako pertsona bakarra.

Egoera honek kalte egin dio erreklamazio egileari; hala ere, gizarte zerbitzuek kalte hau konpontzen saiatu ziren, laguntza aurreratzen saiatuz Cáritas erakundearen bitartez. Interesatuak, dena dela, horri jarraituz egindako gestioa baztertu zuen.

• Emaitza

Udalak erreklamazio egileari eta egoera berean zeuden gainerako pertsonei laguntza ordaintzeko tramiteak arindu zituen; horretara, handik gutxira guzti-guztiek jaso zuten beharrezko laguntza. Edozein modutan ere, Ararteko erakundeak idazki bat bidali zion udalari, ordainketetan izandako atzerapena zerk eragin zuen aztertzeko eskatuz; hala, behin arrazoiak aurkitu eta gero, salatutako kasuaren modukorik ostera ere ez gertatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzeko aholkua eman zitzaion.

*⇒ Garun paralisiak jotako umeei eman beharreko laguntza (1031/2000)*

• Erreklamazioa

Garun paralisiak jotako umeen guraso batzuek adierazi zuten zein arazo ekar ziezaiokeen euren seme-alaben tratamenduari laguntzak hiru urte betetzean etetea. Izan ere, adin hori eskolara hasi baino hilabete batzuk lehenago betetzen zutenez gero, bitartean laguntza eten ohi zen.

• Azterketa

Garun paralisiak jotako umeek estimulazio eta fisioterapia programen bitartezko tratamendua behar izaten dute eta horiei laguntza emateko hainbat administrazioren menpeko zerbitzuek (osasuna, hezkuntza eta gizarte ongizatea) hartzen dute esku.

Hiru urte betetzean, gure erkidegoan eskolara hasteko eskubide subjektiboa gauza daiteke eta haur horiek fisioterapeuten laguntza izan dezakete ikastetxeetan. Ildo horri jarraituz, badirudi gizarte zerbitzuek hiru urtera arteko laguntza ezartzeko irizpideak zerikusia duela zirkunstantzia horrekin, hau da, hezkuntza administrazioaren esku-hartzearekin.

Hemendik abiatuta, beraz, uler daiteke laguntza eskolatu arte emateak garun paralisiak jotako umeen tratamendua ez etetea ekar lezakeela.

• Emaitza

Aldundiak, azkenik, laguntza ematen jarraitzeko irizpidea hartu zuen kontuan, programari eskolara hasi arte eutsiz.

### ⇒ *Pertsona ezindu baten etxebizitzan dauden hesi arkitektonikoak (599/2000)*

• Erreklamazioa

13 urteko seme ezindua gurpil aulkian duen andre batek jo zuen erakunde honetara. Horrela, adierazi zuen igogailurik gabeko laugarren pisuan bizi zela, eta, semea eskolara egunero joan ahal izateko, berak jaitsi eta igo behar zuela bizkarrean hartuz. Udaleko gizarte zerbitzuari eskatu zion laguntza, baina ez zioten eman.

• Azterketa

Arazoa behin betiko konpontzeko etxebizitza aldatu beharra zegoen. Horretarako, interesatuak Etxebideri aurkeztu zion beharrezko eskabidea, une horretan udalerrian egiten ari ziren sustapen publikoko etxebizitza bat, hesi arkitektonikorik gabekoa, eskuratu ahal izateko. Alabaina, erakunde honek uste zuen bitartean administrazioak irtenbideren bat eskaini behar zuela eskailerek umeari etxebizitzara eta eskolara ere sartzeko ekartzen zioten oztopoa gainditzeko asmoz. Egoera honek amari zailtasun handia ekartzeaz gain, biak eskaileretatik behera erortzeko arriskua handia zegoen, ume horren egoera larriagotzeko aukera handia izanik.

Horretara, beharrezko gestioak bideratu ziren hainbat erakundetan –Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila, hainbat GKE-, baina batez ere interesatuek egoitza zuten Trapagako Udalean.

• Emaitza

Udalak ahaleginak egin zituen GKE bateko boluntarioek (Gurutz Gorria) umea eskaileretatik jaisten eta igotzen lagun zezaten, baina ez zuen ezer ere lortu. Azkenik, udalak gurpil aulkian eskailerak igotzea eta jaistea ahalbideratzen duen tresna bat (scalamovil izenekoa) erosteko erabakia hartu zuen.

Tresna hau haurraren amaren esku jarri da; horrek bere arazoa konpondu ahal izan du, eta, gainera, behar duenean, etxean sartu eta handik irteteko independentzia eman dio, harik eta hesi arkitektonikorik ez duen etxebizitza batera lekualdatu arte.

Horrela bada, etorkizunean tresna hau erabili ahal izango dute udalerriko beste pertsona batzuek.

⇒ *Egitatez baina ez zuzenbidez banandutako pertsona batek zergarik gabeko pentsio baterako egin zuen eskabidea blokeaturik zegoen (703/2000)*

• Erreklamazioa

Pentsiorik eta sarrerarik ez zeukan edadeko pertsona batek zergarik gabeko pentsio baterako eskabidea egin zuen, egitatez bananduta zegoela, baina sinesmen erlijiosoengatik ez zuela egoera legearen arabera konpondu adieraziz.

Foru Aldundiak egoera zibilaren inguruko argibideak eskatu zizkion. Bananduta egonez gero, banandu, deuseztatu edo dibortzioaren inguruko epaia eskatzen zion, notariotzan sinaturiko hitzarmen arautzailearekin batera. Tramitetan egonez gero, epaitegian aurkeztutako demandaren fotokopia. Horien ezean, beste ezkontidea abandonatzearen inguruko salaketa eskatzen zitzaion.

Eskatzaileak ez zeukan horrela agiririk eta ez zien horrelako tramiteei ekin gura. Egitatez bananduta egotea nahikoa zelakoan zegoen, eta hori ez zuen aldundiak onartzen; gauzak horrela, egoera erabat blokeaturik zegoen.

• Azterketa

Zergarik gabeko arautegi erregulatzaileak ezartzen du, sarrerak zenbateko asmoz, kontuan hartu behar izango direla urteroko baliagarriak eta hartzeko edo gozatzeko eskubidea duen gainerako guztiak. Ildo honi jarraituz, eskatzaileak bananduta zegoela adierazi arren, aldundiaren jarduera legezkotasunari lotzen zitzaion.

Edozein kasutan ere, kasua bideratzeko eta aldundiak proposatu ez zuen beste modu bat egon zitekeela uste izan genuen: laguntza eskatzea emaztearekin ezkonduta zegoela adieraziz (legez horrelaxe baitzegoen) eta biek zituzten sarrerak aitortuz, betiere beharrezko kalkulua egiteko.

Aukera hori baieztatu ahal izan genuen erreklamazio egilearen alabarekin hartu-emanetan paratuta (bera ere kexaren bultzatzailea zen). Beraren gurasoek 25 urte zeramatzaten egitatez banandurik, eta haien arteko harremanik ez bazegoen ere, alabak harremanak zituen biekin. Horrela, alabak zehaztu zigun bere amak –pentsioaren eskatzailearen legezko emaztea- Zahartzaro eta Elbarritasunagatiko Derrigorrezko Aseguru baten pentsioa jasotzen zuela. Emandako datuei esker, ulertu genuen beraren aitari egokitzen zitzaiola eskatutako pentsioa, baina zatiz.

Hala, gaia aldundiari aipatu eta gero, proposamen horren bideragarritasuna baieztatu ziguten. Gainera, alabak eman zezakeen aitaren pentsioa tramitatzeko amari buruz beharrezkoa zen dokumentazioa.

• Emaitza

Erreklamazioari honen guztiaren berri eman zitzaion eta proposamena onartu zuen. Foru Aldundian beharrezko dokumentazioa aurkezteko prest azaldu zen. Erakunde horrek, bere aldetik, artxibatzeko zorian zegoen espedientea martxan jarri eta azken proposamenaren arabera tramitatu zuen.

Gauzak horrela, espedientea artxibatu zen, kasua ondo bideraturik zegoela ulertu zelako.

# 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

## 3.1. SARRERA

2000n 20 kexa aurkeztu dira arlo honetan eta, horien banaketa, ukitutako administrazioak kontuan hartzen baditugu, ondokoa izan da:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ................. 2
- Foru Administrazioa ...................................................... 3
- Toki Administrazioa ....................................................... 14

Azpiarloei dagokienez, sailkapena ondoko hauxe da:

- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .................................................................. 5
- Kontratazio araubidea eta administrazioaren erantzukizuna .. 5
- Elebitasuna .................................................................. 4
- Kultur jarduerak .......................................................... 2
- Kirolak ........................................................................ 1
- Eskubideak eta askatasunak ............................................ 1
- Kultur ondarea ............................................................. 1

Atal honetako gaiarekin zerikusia duten kexen edukia aintzat harturik, ondoko iruzkina egin liteke:

Animaliak babesteko sentsibilitate desberdinak daude, animaliok ospakizun eta ikuskizunetan parte hartzeagatik aurkeztutako kexetan ikusten den bezala.

Beste kasu batzuetan, esate baterako beharrezko laburpenean jasotzen den adibidean (300/2000 espedientea), erakunde honek uste izan zuen "Antzar Eguna" telebistaz ematea telebista publikoaren kateak komunikaziorako duen askatasunaren parametroen barruan sartzen zela; izan ere, emanaldi hori animaliak babesteko legeriarekin bat zetorren.

Beste kasu batzuk, berbarako animaliak zozketetarako erabiltzea, beste era batera aztertu ziren. Gure ustez, horrek animaliak babesteko arautegia urratu dezake; izan ere, animaliok publizitateko erakargarritasun modura erabiltzen dira hainbat zozketatan; hori dela eta, partaidetza mota hau debekatu beharko litzateke ikuskizunetan edo herri ekimenetan baimenik gabe esku hartzen dutenean.

Eskolako kirolaren barruko azpiarloan, aipatu beharra dago guraso batzuek euren seme-alabek lehiaketa ofizialetan parte hartzeko dituzten zailtasunen inguruan aurkeztutako kexa, oraindik ere zabalik dagoena. Zehatzago esanda, seme-alabek beharrezko foru arauan ezarritako beharkizunak hainbat espezialitatetan betetzeko zailtasunak egon ziren, ikastetxe bereko gutxieneko ikasle kopuruari zegokionez, hain zuzen ere.

Eskubide eta askatasunen azpiarloan, azpimarratzekoa da Galdakaoko Udalak antolaturiko ikastaro bateko irudiak hartzearen gaineko kexa; izan ere, irudiok ukitutakoek jakin barik hartu eta eman ziren. Horrela, kexa honek zerikusia dauka grabazio batek ukitutako pertsonen oinarrizko eskubideekin, betiere Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan hartuta.

Elebitasunaren gaineko atalean, kexa batzuk bilbatu dira euskararen irakaskuntza sustatzeko udal deialdien inguruan. Euskararen irakaskuntzari lotutako gaia izanagatik ere, planteaturiko problema, Arartekoren iritziz, udal sustapenen eskumenekin zerikusia duten alderdiei dagokie edo, behinik behin, administrazio prozedura eraentzen duten printzipio orokorrak betetzeko moduari.

Azpiarlo honi dagokionez, kexa gutxi jaso dira gure jarduera eremuaren barruan. Horrela, estatuko administrazioak gure autonomia erkidegoan egindako ez betetzeak direla eta, bost kexa bideratu dira; horiek guztiak Estatuko Herri Defendatzaileari igorri zaizkio behar bezala azter ditzan, berori baita eremu horretan kontrolerako organo eskuduna.

Azkenik, ez dago zalantza izpirik ere Osakidetza euskalduntzeko planaren garrantziaren inguruan, betiere Arartekoak kexak jaso izan dituen bi arloei dagokienez: herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubideari dagokiona eta hainbat plazatara sartzeko hizkuntz eskakizunen exijentziari dagokiona. Eman dizkiguten datuetan oinarrituz, plana taxutzen dihardute eta aurrera doa korapilatsua den taxuketaren hainbat arlotan; hala ere, oraindik ere ez da onetsi eta horregatik aurten ere aipatu behar izango dugu zirkunstantzia hori.

## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Elebitasuna

⇒ *Euskara osasun arloan: kasu bat (740/1999)*

• Erreklamazioa

Ospitale bateko larrialdi zerbitzura ama laguntzera joan zen pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen, ezin izan zuelako euskaraz harremanetan jarri laguntza eman zieten pertsonetarik bakar batekin ere.

Kexan onartu zuen euskaraz ez jakitea euskaraz harremanetan jartzeko eskubidea egikaritzea baldintzatu zezakeen gauza zirkunstantziala dela. Guztiarekin ere, adierazi zuen ezin zuela inola ere azaldu ez eta justifikatu ere zaindariek amarekin eta berarekin izandako begirunerik gabeko tratua, eurek euskaraz hitz egitean. Begirunerik gabeko tratu hau bi zaindariei zegokien, eta ez amari laguntza eman zioten gainerako langileei, nortzuei eta lehenengoz euskaraz egiten ahalegindu ziren.

• Azterketa

Esan daiteke erabateko adostasuna dagoela gertakizun hauek hizkuntz eskubide bat egikaritzeko muga bat direla esatean; gainera, baieztapen hori are zuzenagoa da, baldin eta herritarrak gaztelaniaz berba egiteko zailtasunak baditu, kasu honetan gertatu zen legez.

Kasu hau gertatzean, Osakidetzako euskalduntze plana onartu gabe zegoen eta hori berori funtsezko tresna izaten da euskararen erabilerarekin zerikusia duten arazoei benetako erantzuna eman ahal izateko. Hizkuntz eskubideari dagokionez, arazoa plangintza hori onestearen bitartez konpondu behar izango litzateke.

Bi zaindariek emandako tratuari dagokionez, nekeza izaten da begirunerik gabeko tratua zen den baloratzea. Zailtasun hori onartuta ere, kexa horiek aztertzea bide bakarra izaten da benetan geratu diren egiaztatu ahal izateko, baldin eta erabiltzaileek errespetuz ez dituztela tratatu sumatzen badute. Ondorioz, Osakidetzari eskatzen diogu txosten bat egitea, betiere kexa hau aurkeztu zuten pertsonenganako errespetu falta adierazten duen zantzurik egon zen ala ez azaltzeko asmoz.

• Emaitza

Euskara erabiltzeko eskubideari dagokionez, Arartekok administrazioari egozten dizkio euskara erabiltzeko mugak eragindako kexak; izan ere, muga hori berari dagokio, eta, horregatik, ezagutu behar ditu horren inguruan sortutako kexak. Kasu honetan ere horrelaxe bideratu zen auzia, gaur egungo egoeraren eta euskalduntze plana onestearen artean dagoen lotura azpimarratuz.

Begirunerik gabeko tratuaren inguruan aipatzekoa da gertakizun honi buruzko berririk izan ez dugun epe luzeak iradokitzen digula ez dela inolako azteketarik egin salatutako jarreren gainean. Hori dela eta, Osakidetzari idazki bat igorri genion jarrera horrekin ez gentozela bat eta, era berean, herritarren kexak administrazioari berari jakinarazi behar genizkiola adierazteko, betiere salatutako gertakizunen gaineko jardueraren bat eskatu nahian; izan ere, jarduerarik aurrera eraman ezean, gure desadostasuna azaldu beharrean gaude.

⇒ *Euskara erabiltzeko eskubidearen bi alderdi: erazko aintzatespena eta benetakoa (84/2000)*

• Erreklamazioa

Bilboko Notarioen Elkargoko kide batek kexa bat helarazi zion Arartekori, berari organo horrekin euskaraz jarduteko zegokion eskubidea ez zela errespetatzen uste zuelako.

Kexan aipatzen zuen modura, elkargoari harreman idatziak euskaraz gura zituela adierazi arren, euskarazko bere idazkiei erdarazko erantzuna ematen zitzaien, eta behin eta berriz ekin eta ekin ondoren baino ez zuen lortzen erantzunak berak hautatutako hizkuntzan izatea. Era berean, kexa aurkeztu zuen, notarioen elkargorako gobernu organoetarako txartelak gaztelania hutsean besterik ez zeudelako.

• Azterketa

Gauzatzeko momentuan hizkuntz eskubideak hainbat maila onar ditzake; horrela bada, kasu bakoitza aztertu ahal izango dugu euskara erabiltzeko eskubidea gauzatzeko moduaren arabera.

Hori guztia abiapuntutzat hartuta, beraz, erakunde honen iritziz, euskarazko harremanak nahi dituenari hizkuntza horretan harrera egitea funtsezko maila edo mailarik txikiena izango litzateke, betiere komunikazio edo harreman idatzien esparruaren barruan. Esan nahi baita, arrazoizkoa dirudi komunikazio idatzien esparruan gutxieneko maila ezartzeak, baldin eta legeak euskara hizkuntza ofizialtzat hartzearen ondorioz ezartzen dituen beharkizunak beteko badira.

Kexa euskararen erabilera idatziaren inguruan bilbatzen denez gero, adieraz liteke, kasurik txarrenean ere, itzulpenak erantzuna atzeratu lezakeela; nolanahi ere, erantzun

hori interesatuak aukeratutako hizkuntzan idatzi beharko litzateke eta, aldi berean, ahaleginak egin beharko lirateke atzerapenik egon ez dadin eta, beraz, horrek gaztelania ez den hizkuntza bat erabiltzeko asmoa kentzeko ondorioak ekar ez ditzan.

Interesatuak kexa aurkeztean emandako datuak erakusten zuten egoera honako hauxe zen: notarioen elkargora igorritako gutunei ez zitzaiela erantzunik ematen hasiera batean aukeratutako hizkuntzan. Idazki horiei euskaraz geroago erantzuten zitzaienez gero, betiere behin eta berriz hori egiteko eskatu eta gero, pentsa zitekeen hizkuntz eskubidea kolokan jartzen zela inolako arrazoirik gabe. Horregatik, kexa tramitatzea onartu zen.

Puntu honen inguruan, notarioen elkargoak Arartekori adierazi zion jadanik harreman idatzietan interesatuek aukeratutako hizkuntza ofiziala kontuan hartzen zutela, eta, ondorioz, interesatuen idatziei hizkuntz aukera aintzat hartuz erantzuna ematen zitzaiela, betiere baliabideen eskasia ahaztu gabe, baina eskubide honi erantzuteko etengabeko egokitze prozesuaren barruan. Zehatzago, elkargoak erakunde honi adierazi zion elkargokideek euskaraz hasitako harremanei hizkuntza honetan erantzuten zitzaiela. Elkargoaren jakinarazpenak gaztelaniaz, gaur egungo lan hizkuntzan, egin ohi zaizkie elkargokideei, baina hori ez da oztopo jakinarazpen elebidunen kopuruak gorantz jo ez dezan, eta, areago, horrela eskatzen duen kidearen kasuan.

• Emaitza

Nekeza da aho batez zehaztea euskararen ofizialtasunari darizkion hizkuntz eskubideei erantzuna emateko ahaleginak zenbaterainokoak izan diren. Edozein kasutan ere, gure balorazioan ez zen kontuan hartu ea ahalegin hori egokia zen ala ez, baizik eta ikuspuntu juridiko batetik abiatuta uler zitekeen ala ez ea elkargoak bere jardueretan aintzat hartzen duen euskara hizkuntza ofiziala dela eta ea elkargoak interesatuekin dituen harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea urratzen duen ala ez.

Honen inguruan, bada, Ararteko erakundearen aburuz eta notarioen elkargoak adierazitakoan oinarrituz, hizkuntz eskubidea ez zela behar bezala kontuan hartzen pentsarazten zuten oztopoak gainditzen hasteko aurrerapausoak ematen hasiak ziren.

Euskararen ofizialtasunarekin zerikusia zuen beste alderdi zehatz bat ondoko hauxe izan zen: zuzendaritzako karguak hautatzeko gaztelania hutsezko txartelak erabiltzea, alegia. Horren inguruan eta betiere aipatutako etengabeko egokitze prozesuaren aldeko jarrerari jarraituz, notarioen elkargoak Arartekori jakinarazi zion txartelak elebietan gauzatzeko gaia hurrengo hauteskundeetan oso aintzat hartuko zela.

## B) **Kultura**

### ⇒ *Babestutako alderdiak eta ikuskizunak telebistaz ematea (300/2000)*

• Erreklamazioa

Herritar batek kolokan jarri zuen Euskal Telebistak Lekeitioko jaien barruan “Antzar Eguna” telebistaz ematea. Zehatzago esanda, ondoko hauxe planteatu zuen: ikuskizun hori telebistaz ematea ez zegokiola telebistako programazioan animaliei eta adin txikikoen babesari izan behar zaien errespetuari.

• Azterketa

Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legeak arautzen dituen herri ikuskizun eta adierazpenen ospakizunek ondoko debekua ezartzen dute: animalien sufrimendu, krudeltasun eta tratu txarrak azaltzen dituzten eszenak filmatzeko debekua, baldin eta horiei benetako kaltea badakarkie. San Antolineko jaien barruan "Antzar Eguna" izeneko ikuskizunaren ospakizunak ez dio benetako minik ematen animaliei, erabilitako antzarak lehenago hiltzen direlako.

Edozein kasutan ere, arazoa planteatzen da ikuskizuna euskal irrati eta telebista publikoaren bitartez ematearen inguruan eta horrek adin txikikoen babesari dakarkion errespetuaren inguruan. Telebista kateak informazioa askatasunez emateko mugatzat gazte eta haurren babesa hartzen da. Muga hori telebistaren emanaldiak arautzen dituen 22/1999 Legearen arabera zehazten da; izan ere, horrek beren beregi galarazten du adin txikikoen garapen fisiko, mental edo moralari kalte egin diezaiokeen programak edo eszenak ematea.

Ildo honi jarraituz eta herri ikuskizun hau animaliak babesteko legeriarekin bat datorrela kontuan harturik, berori Euskal Telebistaz ematea telebista kate publikoak komunikaziorako duen askatasunaren parametroen barruan sartzen da. Edonola ere, horrelako eskariei erantzuna emateko erakunderik egokiena EITB bera dela uste dugu.

• Emaitza

Gure balorazioaren berri eman zitzaion kexa aurkeztu zuen pertsonari; horren ostean, espedientea artxibatua izan zen.

# 4. HEZKUNTZA

## 4.1. SARRERA

2000. urtean barrena hezkuntza arloari dagozkion 74 kexa aurkeztu dira erakunde honetan. Horrenbestez, arlo honetako kexak tramitaturiko kexa guztien %7,93 dira.

Kopuruek erakusten dituzten datuei begiratuta, azpimarratzekoa da arlo honen garrantziak bere horretan dirauela erakundearen jarduera guztien multzoari dagokionez; gainera, aurreko ekitaldian gorantz hasitako bideari eusten zaio.

Administrazioen arabera, modu honetara sailkatzen dira:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ................. 71
- Foru Administrazioa ........................................................ 1
- Toki Administrazioa ........................................................ 4

Tramitaturiko kexen edukiari buruzko ikuspuntuan oinarrituz, erakunde honen esku-hartzea eskatu duten gaiak era askotarikoak izan direla esan behar da. Horietarik ondoko hauek nabarmendu behar ditugu:

- Unibertsitateko irakaskuntza ........................................... 21
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ...................................................................... 10
- Haur Hezkuntza ............................................................. 9
- Ikastetxeak ...................................................................... 8
- Bestelakoak ..................................................................... 8
- Eskubideak eta betebeharrak ........................................... 5
- Pertsona helduen heziketa .............................................. 4
- Heziketa berezia ............................................................. 4
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza .................................... 3
- Heziketa artistikoak ......................................................... 1
- Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna ................................................................. 1

### A) Haur hezkuntza

Haur hezkuntzako gelak etengabe eta orokortasunez zabaltzeak eragin du ikasleak hartzearen inguruan sortzen diren arazoetarik kopuru handi bat eskolatzeko lehenengo tarte honetan izatea. Honen inguruan jasotako kexek agerian jartzen dute hainbat ikastetxetan eskolatzeko eskabide kopuruaren ugaritasuna sortzen diren herriak guneen arabera banatzeko beharrizana (378/2000 kexaren laburpena). Era berean, azpimarratu beharrekoa da hainbat zentrotan burutzen diren hezkuntzako proiektu zehatzak eta sarrera prozesuen irizpideak bereizteko beharrizana (279/2000 kexaren laburpena). Azkenik, norberaren datuak hobeto babesteko premia ere aipatua izan da; izan ere, administrazioek eskolatzeko adina duten umeen datuak izaten dituzte (307/2000).

Beste alde batetik, jakina denez, EAEn hezkuntza administrazioa (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila) ez ezik hainbat toki administraziok ere

zerbitzuak ematen dituzte 0 urtetik 3 urtera bitarteko lehenengo hezkuntza zikloan, Vitoria/Gasteizeko Udalaren kasuan gertatzen den bezala. Horrela bada, 0 urtetik 3 urtera bitarteko lehendabiziko ziklo honetan parte hartzen duten administrazioek eskaintza koordinatua eskaintzen ez dutenez gero, hainbat kexa aurkeztu dira; horietan kolokan jartzen da eskolako udalerrian erroldaturik egoteko betekizuna eskatzea, diskriminatzailetzat jotzen delako. Horretara, Arabako Lurralde Historikoko herri txiki batean bizi diren haur baten gurasoek kexa bat aurkeztu dute eta bertan adierazten dute ezin dutela alaba adin tarte horretan eskolatu horrelako zerbitzurik ez baita eskaintzen Vitoria/Gasteizen izan ezik.

### Derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntza

Arabako haur autisten gurasoen elkarteak ("Arazoak") erakunde honen esku-hartzea eskatu du, euren seme-alabak eskolatzean ikusi diren arazoak, ahal den neurrian, zehazteko eta birbideratzeko. Gainera, legebiltzarraren ekimen batek (Hezkuntza eta Kultura Batzordearen 2000ko ekainaren 13ko erabakia) sendotu du jarduera hau; horretan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen zaio autismoak Araban ukitutako kolektiboaren heziketa beharrizan bereziak zehatz-mehatz azter ditzan eta premia horiei erantzuteko laguntza sistemak egokitu ditzan.

Itundutako Bizkaiko zentro pribatu batek doakotasun araubideari eutsi ez izana kolokan jartzen duen kexa espediente bat tramitatu da; aukera horretaz baliatuta, erakunde honek gomendio orokorra egin nahi izan du eta horretan hezkuntza administrazioari eskatzen zaio itunen araubideari darizkion beharkizunak betetzeko publizitate eta kontrol handiagoa ezar ditzan, batik bat doakotasun araubideari dagozkienen kasuan. (Ikus txosten honetako VI. Kapituluan egindako gomendio orokorra).

Era berean, erakunde honen esku-hartzea beharrezkoa izan da Gipuzkoako zentro pribatu batek gobernu organoaren osaketa bere beharkizunen arabera egokitu zezan. Izan ere, itundutako zentroa izanik, eskatu behar zitzaion hezkuntza komunitateko kolektibo desberdinek organo horietan parte hartzea.

1998. urteari dagokion txostenean, ikasleak zigortzeko araubideari buruzko hainbat ohar egin genituen. Ohar horiek zerikusia zuten zehapenak aplikatzean eska zitezkeen bermeekin; era berean, adierazi zen berme horiek aplikatzeko modukoak zirela bai zentro publikoetan bai itundutako zentro pribatuetan ere. Kasu horretan ere garrantzi handiko gai bat aipatu genuen: bermeen sistemak ez desaktibatzea ezarri beharreko diziplina neurrien eraginkortasuna. Zehatzago esanda, irakasleen pertzepzioa jaso genuen, betiere adierazi zutenean, zehapena ezartzeko denbora tartea luzatzeak akatsari erantzuna emateko zentzua kenduko ziola, eta hezkuntzako esparruan ikasleekin ohikoak diren harremanak ezin direla inola ere izan zigor judizio baten modukoak.

Urte honetan barrena, ikastetxe batzuek euren hausnarketak helarazi dizkigute irakasleek diziplina kontuetan izaten dituzten arazoetarik hainbaten inguruan; gauzak horrela izanik, erakunde honek adierazi nahi du ukitutako estamentuek gai honi oratzeko moduaren inguruan hausnartu beharko dutela, bai eta topatu ere, zigorrak aplikatzean izaten diren arazoei erantzuna emateko modu egokiren bat. Hori guztia horrelaxe burutu beharko litzateke, ikaslearen banakako eskubideak errespetatzearekin batera, hezkuntza komunitatearen gainerako eskubideak errespetatzea ekarriko duten baldintzak lortu ahal izateko.

Ikastetxeak mantentzeko eta zaintzeko beharrari dagokionez, erakundeen arteko bitartekaritza lana egiten jarraitu dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta udalen artean; izan ere, aintzat hartu dugu administrazio horiek duten erantzukizun banatua zentro publikoei eusteko momentuan. Tramitaturiko gaien artean, aipatzekoa da Portugaleteko Kanpanzar ikastolako obrei egin diegun jarraipena. Bitartekaritza lan hori planteatu da, era berean, gurasoen elkartearen eta eskola kontseiluaren hainbat proposamenari dagokionez; izan ere, obren ardura zuen administrazioak ez zituen hasiera batean proposamen horiek aintzat hartu. Horrela bada, aipatuko dugu Etxebarriko Jose Migel Barandiaran ikastetxe publikoaren gimnasioko obren kasuan betetako bitartekaritza lana (Bizkaia).

Eskolako garraio zerbitzuaren erabiltzaileak diren euren seme-alabek laguntzailerik ez dutela eta, aita batek egindako kontsulta batek ondokoa azpimarratzera behartu gaitu: garraio zerbitzuaren zeharkako kudeaketak ez diola ahalbideratzen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zerbitzu osagarri honen prestazioarekin duen erantzukizuna alde batera uztea, bereziki ikasleak euren zainketaz arduratzen diren pertsonekin batera garraiatzeko beharrizanari dagokiona.

Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko adinetik aurrera eskolatzen diren ikasleen egoera azaro bihur daiteke, beharrezko laguntzarik ez badute. Hori dela eta, B ereduan ikasteko zailtasunak dituen 8 urteko ikasle baten aita-amek kexa bat aurkeztu diote erakunde honi.

### Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza

Zorionez, gero eta gehiago dira heziketa premia bereziak dituzten eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko mailetara iritsi arte jarraitzen duten ikasleak. Errealitate honek, dena dela, beharrizan berriak sortzen ditu: ikasle hauei ematen zaizkien laguntzak hezkuntzako goi maila hauen exijentzien arabera egokitzea, besteak beste. Horretara, hainbat ukitutakok eskatutako jarduera zehatzak alde batera utzita, gure asmoa da laster aurkeztuko den txosten monografikoan gai honi buruzko hainbat ondorio biltzea.

### Unibertsitateko hezkuntza

Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan ebaluazioak egiteko prozeduraren inguruan (azterketa epaimahaiak osatu dira 1. deialditik 4.enera) aurkeztutako kexa batek berritasun handiak ekarri ditu (194/1999 kexaren laburpena). Kexa tramitatzean, UPV/EHUk izandako jarrera mesfidatiaren ondorioz, defendatu behar izan genuen erakunde honen Lege arautzailearen 13.1. artikuluan epaitegi arrunten menpe jarritako gaien kasuetarako ezarrita dagoen abstentziorako betebeharra ez aplikatzea. Era berean, 1999ko abenduaren 16ko Zuzendaritzako Idazkaritza Nagusiak egindako hainbat baieztapen zehaztu behar izan ditugu (*"...Irakasleak (...) adierazi du ez datorrela bat 66.2. artikuluan ikasgaien epaimahaien inguruan ezarritakoarekin, Arartekok egindako gomendioa ere aipatuz. Idazkaritza Orokorrak azaltzen du, Arartekoren gomendio hau egonik ere, hori eman dela judizioan planteaturiko gai baten inguruan eta horrek Ararteko behartuko luke espedientea bertan behera uztera. Ez zen horrela gertatu, baina Arartekoren teknikariekin izandako elkarrizketetan, onesteko planteatu den testua bat dator beraren gomendioarekin."*);

izan ere, baieztapen horiek ez zetozen inola ere bat erakunde honek adierazi eta defendatutakoarekin

Beste alde batetik, Somorrostro Prestakuntza Zentroak ematen dituen eta Europa mailan homologatu gisa iragartzen eta eskaintzen dituen titulazioen homologazio ezaren inguruko salaketa batek bide eman digu egiaztatzeko zentro honek ez daukala baimenik, betiere espainiar sistema unibertsitarioaren titulu unibertsitario ofizialen katalogoko titulazio bakar bat ere emateko (602/2000 kexaren laburpena).

Era berean, nabarmentzekoa da hainbat arazo egon direla Enpresaren Prebentziorako Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikaria izateko Masterrean sartzeko prozeduran. Kasu honetan, ika-mika sortu da teknikari ertainen hautagaien kopurua agortzeko premiaren inguruan (ikasle guztien %5), betiere sarrera merituritk handienen arabera bermatzen duen sistema objektibo batekin bat etorriz (336/2000 kexaren laburpena).

Azkenik, kexak sortarazi dituzten bestelako gaiak ondokoak izan dira: ikasgaien baliozkotzea (isiltasun positiboak eskabide hauek tramitatzean edo kudeatzean izan dezakeen eragina kontuan hartuta), prestakuntza pedagogikoen gaineko pedagogi gaitasun ikastarorik (PGI) ez eskaintzea (810 eta 951/2000 kexaren laburpena), bai eta bekak zein bestelako laguntzak ezeztatzea ere.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Ikastetxeetan matrikulatzeko kanpainen sustapena. Norberaren datuak babestea (307/2000)*

• Erreklamazioa

Eskolatzeko adinean dagoen aita baten alabak kolokan jarri zuen erakunde honetan itundutako zentro pribatuek norbanakoen datuak erabiltzea, matrikulazio kanpainak sustatzeko orduan. Kexarekin batera igorritako dokumentazioan ikastetxe zehatz bateko idazki bat ageri zen; bertan ondoko hau adierazten zen: *“Hezkuntza Ordezkaritzak hiri eta herri guztietako udalei eskatu zien Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei 1997an eta 1998an jaiotako haur guztien zerrendak ematea, matrikulazio kanpaina antolatzeko asmoz.”*

• Azterketa

Honen berri emateko eskaera eginda, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aitortu zuen kexan salatutako jarduera, hau da, udalei eskatzea bi eta hiru urteko umeen helbideari buruzko datuak fondo publikoz lagunduriko haur, lehen eta DBHko ikastetxeetako zuzendariei igortzea, betiere matrikulazio kanpainak antolatzeko asmoz.

Egindako kexaren garrantzia aintzat hartuta (izan ere, horren guztiaren arabera, konstituzioaren 18.1. artikuluak aintzatetsitako norbanakoaren eta familiaren intimitaterako eskubidea urratzen bide da), Arartekok hezkuntza administrazioaren iritziaren pean jarri nahi izan zituen ondoren ageri diren hausnarketak:

Egia esan, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.3. artikuluak ondokoa ezartzen du: *"udal erroldaren datuak horrela eskatu duten beste herri administrazio batzuei emango zaizkie ukitutakoaren aldez aurretiko baimenik gabe, baldin eta euren eskumenak egikaritzeko beharrezkoak badira eta egoitza zein helbidearen datuak garrantzitsuak diren gaietarako soil-soilik erabiltzen badira."*

Ildo honi jarraituz, Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak kontuan hartzen du hainbat herri administrazioren arteko datu pertsonalen jakinarazpena, hainbat xedapenek -fitxategiak sortu edo erregulatzearen ingurukoak -horrela ezartzen dutenean (21.1. artikulua).

Areago, lege organiko honek ezartzen du estatuko administrazio orokorrak eta autonomia erkidegoetako administrazioek Estatistikako Nazio Institutuari eskatu ahal izango diotela, interesatuaren baimenik gabe, euren eskumeneko lurraldeei dagozkien biztanleen udal erroldetan eta hautesleen erroldetan ageri diren izen-abizen, helbide, sexu eta jaiotze dataren inguruko datuek osaturiko fitxategiaren kopia gaurkotua; hori guztia, betiere, biztanleen fitxategiak edota erregistroak sortzeko.

Edozein kasutan ere, ohartarazten du biztanleen fitxategi edo erregistro hauen helburua ondorengoa izango dela: herri administrazio bakoitzaren organoek lurralde bakoitzean egoitza duten egoiliarrei egin beharreko jakinarazpenak, betiere herri administrazioen eskumenei darizkien harreman juridiko-administratiboei dagokienez.

Arestian aipaturiko xedapen hauek guztiak ikusita, baiezta daiteke hezkuntza administrazioak baduela bere eskumenak egokiro egikaritzeko erroldaren beharrezko datuen eskaera bideratzeko behar besteko legezko gaitasuna.

Horrela, guztiok jakitun gaude hezkuntzako eskaintza programatzeko lankidetza ezinbestekoa dela, biztanleen datuetatik ondorioztatzen den eskariari erantzun ahal izateko (balizko ikasleen kopurua, adin eta helbideen arabera). Halaber, jakin badakigu datu hauek nahitaezkoak izan daitezkeela EAEn bizi diren eta derrigorrezko hezkuntzako adinean dauden haurren eskolatzearen benetako kontrola izateko.

Bestela gertatzen da, hala ere, norberaren datuak beharrezkoak ez direnean eta administrazioei dagozkien eskumenak egikaritzeko behar ez direnean. Horrelako kasuetan, bada, norberaren eta familiaren intimitaterako babesak administrazioaren jardueraren gainetik egon behar du; horrela, jarduera hori antolatu behar izango da norberaren datuak alde batera utzita, betiere eta gorago aipatu bezala, administrazioari dagokion eskumenaren kudeaketaren eraginkortasuna bermatzeko ez badira.

Erakunde honen aburuz, horixe bera gertatzen da ikastetxeek sustatzen dituzten zerbitzuekin, hau da, matrikulazio kanpainen sustapenarekin; izan ere, horiek guztiak ezin egokiago kudea daitezke izaera pertsonaleko datuetara jo gabe, adibidez, eskaintzen diren zerbitzuen publizitate orokorra eta inpertsonal baten bitartez.

Laburbilduz, egindako oharren ondorio gisa, Arartekok uste du hezkuntza administrazioak eta EAEko udalek elkarri jakinaraz diezazkiokeela izaera pertsonaleko datuak, ukitutakoen aldez aurretiko baimenik gabe, baldin eta datu horiek hezkuntzako eskumenak egoki eta zuzen egikaritzeko beharrezkoak badira. Horrela bada, ezin izango dira inoiz ere erabili izaera pertsonaleko daturik gabe bidera daitezkeen bestelako jarduera administratiboetan –esate baterako matrikulazio kanpainen sustapenean-; izan ere, datuak ahalik eta gehien babestu behar dira, Espainiako Konstituzioaren 18.1. artikuluan norberaren eta familiaren intimitaterako ezarritako eskubidea bermatu eta ziurtatzeko asmoz.

• Emaitza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartu zituen norberaren eta familiaren intimitaterako garapenaren bermeari eusten dion jarrera honen aldeko baldintzak, Espainiako Konstituzioaren 18.1. artikuluak berretsitakoaren ildotik; izan ere, matrikulazio kanpainen moduko sustapenetan ez da beharrezkoa horrelako jarduera administratiborik bideratzea, administrazioaren eskumenak egikaritzeko.

Jarduera hau osatzeko, Arartekok bere arioz ekin zion espediente bat EUDELekin tramitatzeari, hausnarketa hauek toki administrazioei irits dakizkiekeen (23/2000/20O erreferentzia).

B) **Haur hezkuntza**

⇒ *Ikasleen onarpena (279/2000)*

• Erreklamazioa

Euren alaba Vitoria/Gasteizko ikastola batean eskolatu nahi zuten guraso batzuen kexa jaso genuen. Eskaeran erakunde honen esku-hartzea eskatzen zuten “D eredua: Mantendu” izenekoan matrikulatzeko aukerak zabaltzeko asmoz.

• Azterketa

Arartekok badaki hezkuntza ereduak aplikatzeko modua irizpide pedagogiko eta didaktiko berezien bitartez nabarmentzeko hezkuntza proiektuak daudela. Horixe bera gertatzen da kexa eragin zuen ikastolan; izan ere, bertan onartutako ikasleei harrera egiten zaie familien euskalduntze mailaren arabera.

Edozein modutan ere, aintzat hartu beharra dago hezkuntza eskaintza edo laguntza honek birtualtasuna lortzen duela zentroko hezkuntza eta curriculumaren arloko egitasmo gisa, betiere euskal eskola publikoa osatzen duten zentroei aintzatesten zaien autonomia pedagogikoan oinarrituz. Hau da, behin ikasleak onartzeko prozedurak amaitu ostean eta antolaketarako aukerek horrela bideratzen uzten duten heinean (ikasgelak bitan banatzea...). Horrela, hezkuntza proiektu berezi hauek ezin dute sekula ere eraginik eduki onarpen prozeduren aurretik, eta horiek legez eta ofizialtasunez aintzatetsitako hezkuntza ereduetara moldatu behar dira ezinbestean. Izan ere, ikastola honen hezkuntza edo curriculumaren arloko proiektuak onarpen eredutzat hartuko balira, euren egoitzatik hurbileko zentro publiko batean sartzeko interesatuta dauden ikasleei diskriminaziozko tratu bat emango litzaieke, kasu honetan familien euskalduntze mailaren arabera.

Hori dela eta, kexaren egileek hezkuntza proiektu honek onarpen prozeduran duen eraginari buruz emandako arrastoen arabera, erakundeak ontzat eman zuen hezkuntza administrazioari ondokoa eskatzea: eraginkortasunez kontrolatzea ea ikastola hau bereizten duen proiektu berezi honek (D ereduaren barruan “murgildu” eta “mantendu” bertsioak bereiztea) aukeren berdintasunerako printzipioa urratzen zuen ala ez.

• Emaitza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baieztatu zuen ikastetxe honek aurrera eramaten duen proiektu bereziak ez duela inolako eraginik izan kexaren bultzatzaileen

alaba onartzeko eskabidean. Halaber, ikastolan ikasleak onartzeko egingo diren hurrengo prozeduretan aukeren berdintasunerako printzipioa ez dela urratuko bermatzeko konpromisoa azaldu zuen sail honek.

⇒ *Ikasleen onarpena (378/2000)*

• Erreklamazioa

Euren semea Irungo Txingudi ikastolan eskolatzeko interesa zuten guraso batzuek erakunde honetan salatu zuten ikasleak onartzeko aukeren berdintasunerako printzipioa hautsi izana, familiaren egoitzaren hurbiltasunak ematen duen lehentasun irizpidea zatiz aplikatu zelako.

• Azterketa

Erakunde honek hasiera batean izandako esku hartzearen ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Irungo udalerriko D ereduaren hezkuntza eskariari buruzko bilakaeraren berri eman zuen, betiere aipamen berezi bat eginez hainbat ikasturtetan -2000-2001ean ere bai- ikastetxe batzuen gutxieneko zonifikazioa ezartzeko sortutako premiei. Laburbilduz, adierazi zuen hainbat zentrotan matrikulatzeko eskaera gehiegi egon zirela, behinik behin kexaren egileek eskatutako hiru ikastetxetan.

Kexa sortu zuen arazoa zertan zetzan zehatzago ezagututa, Arartekok uste izan zuen aski zela hezkuntza arloko legezko hainbat ezarpen kontuan izatea, planteaturiko kasuaren modukoetan aintzat hartu beharreko jarraibidea zein jakiteko.

Horrela bada, Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoaren 20. artikuluak zehazten du doaneko eskola lanpostuen programazio egoki batek bermatuko duela hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna eta ikastetxea hautatzeko aukera; alabaina, artikulu horretan bertan argitzen du ikasleak zentro publikoetan onartzeko, betiere behar adinako lekurik ez dagoenean, ondoko lehentasun irizpideak hartuko direla kontuan: famili unitatearen urteko errentak, egoitzaren hurbiltasuna eta zentroan matrikulaturiko neba-arrebarik egotea edo ez. Ildo beretik, gauza bera adierazten du Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 13. artikuluak. Zehatzago, EAEn ikasleak onartzeko dagoen arauzko antolamenduak (otsailaren 4ko 14/1997 Dekretua) oinarrizko eta bete beharrezko irizpide berberak azaltzen ditu.

Ondorioz, adierazi beharra dago hezkuntzarako eskubidearen prestazioaren izaerak eragiten duela ikastetxea hautatzeko posibilitatea erabatekoa ez izatea. Hori dela eta, eskaria gehiegizkoa denean, gerta daiteke eskatzaileen arteko lehentasun agindu bat ezartzeko beharra egotea; horrelakoetan, beraz, legez ezarritako irizpideak erabili behar izango dira eta ezin da horietariko batzuk zatiz aplikatzea edota erabiltzea planteatu.

Erakunde honek eskura zituen datuen arabera (kexaren bultzatzaileek egindako adierazpenak), badirudi hezkuntza administrazioak, Txingudi ikastolak ikasleak onartzeko jarraitutako prozeduran, lehentasun irizpide gisa erabili zituela familien errenta zein zentroan neba-arrebak matrikulatuta egotea. Beste bi ikastetxeen kasuan (Toki-alai eta El Pilar), ez genekien zeintzuk ziren ikasleak onartzeko prozeduraren zehaztapenak; hala ere, antzeman zitekeen bi zentroetan eskaera gehiegi egon zirela, egindako eskaera guztiei erantzunik eman ezin izan zitzaielako, besteak beste, guraso hauek egindakoari.

Txingudi ikastolaren kasuari lotuz eta ikastetxe honetan aplikaturiko onarpen irizpideei buruzko azterketari berriro ere helduz, bazirudien familiaren errentaren zein

zentroan matrikulaturiko neba-arreben kopuruaren inguruko irizpideak aplikatzeko erabakia hartua zela. Hortaz, bi irizpideok erabakigarriak ziren onarpen prozeduran; izan ere, familiaren egoitzaren hurbiltasunari dagokion irizpideari garrantzi osoa kendu zitzaion, zentroaren eraginpeko eremutzat Irungo udalerri osoa hartzen zelako (Hondarribiko Mendelu auzorako ezarritako salbuespena alde batera utzita).

Hala, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak adierazi bezala, onarpen prozeduran “zonifikazio” irizpideak kontuan hartu direla aipa litekeen arren, zehazki inguruko guneetatik etorri baina beste udalerri batekoak diren ikasleen sarrera baimentzeko, egia da egoitzaren hurbiltasunari buruzko irizpideari garrantzi osoa kendu zaiola, zentroaren eraginpeko eremutzat Irungo udalerri osoa hartzean, nahiz eta bertan hainbat ikastetxe egon.

Erakunde honen iritziz, familiaren egoitzaren hurbiltasuna aplikatzeko asmoz, zentroen eraginpeko eremuak zehaztea arrazoizkoa izango da, baldin eta eremu horrek udalerria bera baino txikiagoak diren guneak hartzen baditu; bestela, ezin baita inola ere neurtu zein den familiaren hurbiltasunari buruzko zirkunstantziak izan behar duen garrantzia, matrikulazio eskaria gehiegizkoa den kasuetan.

Beraz, zentroen eraginpeko eremuari dagokion eta gure ustez okerra den aplikazio mota hau kontuan hartzean, fondo publikoen bitartez bultzatutako zentroetan ikasleak onartzeko legezko irizpideak argi eta garbi aldarazi dira; izan ere, irizpide horiek (egoitza, familiaren errenta eta aldez aurretik matrikulaturiko neba-arrebak) batera kontuan hartu eta baloratu beharrean, horietariko batzuk besterik ez ziren erabiltzen edo lehenesten (kasu honetan eta kexaren egileek adierazten zuten bezala, familiaren errentari eta zentroan matrikulaturiko neba-arreben kopuruari buruzkoak) eta, ondorioz, indarrik gabe uzten zen, legearen beren beregiko aginduz, familiaren egoitzaren hurbiltasunak izan beharreko eragina.

• Emaitza

Arartekok gomendatu zuen Irungo Txingudi ikastolan ikasleak onartzeko jarraitutako prozedura berraztertzeko beharrezko neurriak hartzea, betiere ikasleak onartzeko legezko irizpideak (besteak beste, familiaren egoitzaren hurbiltasunari buruzkoa) benetan aplikatzen zirela bermatzeko asmoz.

Azkenik, gomendio hau kontuan hartu zen jakin ez arren, kexaren egileek administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzearen ondorioz, erakundeak eten behar izan zuen une horretara arte izandako esku-hartzea.

### C) **Unibertsitateko irakaskuntza**

⇒ *Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. Azterketetarako epaimahaien osaketa, 1. deialditik 4.era (194/1999)*

• Erreklamazioa

Erakunde honetan salatua izan zen Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien goi eskola teknikoan izaten den ebaluazio prozedura, azterketetarako epaimahaiak 1. deialditik 4.era osatuz; izan ere, kexa egilearen ustez, Hezkuntza Planifikazio eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudian ezarritakoa urratzen da.

• Azterketa

UPV/EHUko arduradunek defendatzen duten bezala, irakasleek soil-soilik bete dezakete azterketa egiteko estatutuen 104.a) artikuluak ematen dien zeregina, betiere unibertsitateak zentroen bitartez hartzen duen barruko arautegiaren eremuan eta azterketa gauzatzeko zereginari dagokion autoantolaketaren ahalmenaren arabera.

Hala eta guztiz ere, ohartarazi beharra dago erantzun honek ez diola erantzunik ematen egindako kexaren benetako edo egiazko arrazoiari. Izan ere, Estatutuen 194.a) artikuluak irakasleei ebaluatzeko aintzatesten dien eskubide-betebeharra kokatu behar den markoaren esanahi orokorretik harantzago, kasu honek exijitzen du Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan gaur egun indarrean dagoen arautegiaren jatorria zehaztea, betiere ikasleak ebaluatzeko alderdiei dagokienez.

Honen inguruan, unibertsitateak ez dauka inolako zalantzarik eta ondokoa ulertzen du: *"zuzenbidearen araberakoa da Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoak bere arautegian ezarri izana zein izango den zentro honek ezagupenak egiaztatzeko erabiliko duen modua; izan ere, ez dago horrelakorik debekatzen duen araurik eta, gainera, autoantolaketarako duen ahalmenaren barruan dagoen eremua da zentro horrek ebaluazioa kide anitzeko epaimahaien bitartez bideratzea"*. Beste era batera esanda, unibertsitatearen esanetan, Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoak autoantolaketarako duen ahalmen orokorra aintzat hartuz, kide anitzeko ebaluazioa bidera daiteke, horren kontrako arautegirik ez dagoelako.

Egia da hautazko ahalmen baten eskurantzak berekin dakarrela erabakigune libre baten aintzatespena eta horretan aukerazko irizpide estrajuridikoak kontuan har daitezkeela. Edozein kasutan ere, hautazko edozein ahalmen erabili eta egikaritzeak berekin dakar aldi berean ahalmen horren egikaritza baldintza dezaketen arauzko aurrekariak arreta handiz baloratzeko beharrizana.

Horrela, kasu honi dagokionez, Hezkuntza Planifikazio eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudia aipatu beharra dago, ezik horretan arautzen dira planifikazioari, ebaluazioari eta kalifikazioak berrikusteko araudiari buruzko oinarrizko arauak, betiere unibertsitateko ikasle guztiei zuzentzen zaien eta zentro eta sailen aurrean berdintasun jarrera benetan bermatzen duen elkargunea egon dadin.

Gai honi gagozkiolarik, Hezkuntza Planifikazio eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudi honek kalifikazioen erantzukizuna ematen die ikasgaiez arduratzen diren irakasleei. Halaber, lehenengo berrikuspena irakasleari berari egiteko aukera aintzatesten du, eta aldekoa ez bada, kide anitzeko goragoko organoetara jo daiteke erreklamazioak aurkezteko. Behin erreklamazioak agortuta, errektoreari administrazioarekiko errekurtsoa aurkez dakioke. Azkenik, epaimahaien osaketa 5. eta 6. deialdiko azterketak baloratzeko baino ez da aurreikusten.

Alabaina, erakunde honen esku dagoen dokumentazioaren arabera, Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoaren barruko arautegiak sail bereko katedratiko zein irakasleek osaturiko epaimahai bati ematen dio ikasleen errendimenduaren ebaluazioa, nahiz eta 1.etik 4. deialdirako azterketak izan..

Egia da Unibertsitateko Estatutuek (32. artikulua) hezkuntza zentroei ematen dietela barne arautegia taxutzeko ahalmena, eta horren arabera, besteak beste, ikasleen errendimenduaren ebaluazioari buruzko alderdiak arautzen direla (132 i. eta j. artikulua). Edonola ere, gorago adierazi den legez, autoantolaketarako ahalmen hau ez da modu

isolatuan ulertu; izan ere, UPV/EHUko Gobernu Batzak planifikazioari, ebaluazioari eta kalifikazioen berrikuspenari buruz onetsitako oinarrizko arauei lotu behar zaie.

Erakunde honen iritziz, arauzko aurrekari horiek guztiak batera gogoan izanik, ezin da unibertsitateak defendatzen duen moduko jarrerarik izan. Gure ikuspuntuari jarraituz, ezin da autoantolaketarako mugetatik kanpo dagoen ahalmen bat kontuan hartu, kide anitzeko ebaluazioa hautatzeko debekatzen duen araurik ez dagoela esaten denean, unibertsitatearen erantzunean adierazi bezala. Aitzitik, Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan ez ezik edozein hezkuntza zentrotan proposatzen diren barne arautegiek bete behar izango dituzte UPV/EHUko Gobernu Batzak onetsitako oinarrizko izaerako gutxieneko arauak, betiere hezkuntza planifikazioari, ebaluazioari eta kalifikazioen berrikuspenari dagokionez; izan ere, horiek guztiak beren beregi taxutu eta onetsi dira ikasle guztiei zuzentzen zaien elkargune bat eratzeko. Azken xede horri, beraz, ezin zaio muzinik egin autoantolaketarako ahalmena orokortasunean gogora ekarriz (are gehiago, oinarrizko izaerako arau horiek xedatzen badute euren edukiaren kontrako unibertsitate arautegien atal guzti-guztiak indargabetzea).

Ondorioz, Arartekoren iritziz, UPV/EHUko Gobernu Batzak bere sasoian hartutako erabakiak (hau da, ebaluazioari eta kalifikazioen berrikuspenari buruzko gutxieneko marko bat osatzea, ikasle guzti-guztiei bermatzeko zentro eta sailei begirako berdintasun jarrera) berekin dakar hezkuntza zentroek autoantolaketarako duten ahalmena baldintzatuta egotea, ebaluazioari eta kalifikazioen berrikuspenari dagokienez; izan ere, horretarako daude UPV/EHUko Gobernu Batzak Hezkuntza Planifikazioari eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudian onetsitako gutxieneko arauak.

• Emaitza

Erakunde honek 85/1999 gomendioa egin zuen: *"beharrezko neurriak hartu behar izango dira Bilboko Telekomunikazio eta Industri Ingeniarien Goi Eskola Teknikoak 1. deialditik 4.era bitartean erabiltzen duen ebaluazio prozedura Hezkuntza Planifikazioari eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudiko ezarpenen arabera egokitzeko; izan ere, Gobernu Batzak horrela onetsi zuen 1993ko uztailaren 20ko bilkuran, bai eta aldarazi ere, 1997ko martxoaren 13ko bilkuran."*

UPV/EHUk ez zuen gomendio hau onartu. Hala eta guztiz ere, berriki emandako epai batean (azaroaren 24ko 622/2000 epaian), Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusia erakunde honek azaldutako iritziarekin guztiz bat dator.

⇒ *Unibertsitateko Masterra, Enpresako Prebentzio Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikaria izateko. Erdi mailako titulatuen sarbidea (336/2000)*

• Erreklamazioa

Prebentziorako Medikuntza eta Osasun Publikoko Sailak antolaturiko Enpresako Prebentzio Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikaria izateko Masterra egin gura zuen erdi mailako titulatu batek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, UPV/EHUk uko egin ziolako master horretan matrikulatzeko eskaera onartzeari.

• Azterketa

1998ko azaroan erakunde honek gomendio (96/98) bat egin zuen Vitoria/ Gasteizko Industri Ingeniaritza Tekniko eta Topografiazko Ingeniaritza Teknikoko

Eskolako Kimika eta Ingurugiroaren Ingeniaritza Sailak antolaturiko Segurtasunaren Kudeaketa eta Arriskuen Prebentziorako Masterreko bigarren kurtsoan sartzea ondokoei bermatzeko: lehenengo kurtsoa egin eta gero, matrikula ukatu zitzaien interesatuei, lehen zikloko unibertsitate titulazioa (diplomatua, ingeniari teknikoa edota arkitekto teknikoa) besterik egiaztatu ez zutelako eta, ondorioz, unibertsitateko goi titulaziorik ez zutelako.

Sasoi hartan, kexa espediente hori tramitatu zenean, hain zuzen ere, Doktoregoko Batzordeak honako hau alegatu zuen: ikasketa hauek burutzeko posibilitatea lehen zikloko titulatuei ematean, gradu-ondoko tituluen antolamenduaren bitartez sarbide berezia izango zuten masterrak egin gura zituzten ikasle guztien %5 inguruk. Horretarako, gradu-ondoko ikasketei buruzko 96ko martxoaren 7ko Gobernu Batzaren arautegia aipatu zuen. Alabaina, Arartekok alegazio hori kolokan jarri eta erantzuna eman zion; izan ere, ikasleek egindako kexari funtsa ematen zion jatorria edo aurrekaria honako hau zen: erdi mailako titulatu horiei gradu-ondoko masterrean sartzea onartu zitzaiela, ezelako baldintzarik gabe.

Kexa honen kasuan, kontuan hartu behar izan zen doktoregoko batzordeak berak 1999-2000ko ikasturterako arauak eman zituela eta horietan aintzat hartzen zirela Gobernu Batzaren 96-03-07ko arautegia; ondorioz, beren beregi ezarri zen, unibertsitateko masterreko titulua eskuratzen ahalegintzeko, salbuespen gisa onartuko zela lehen zikloko titulatuen %5 gehienik ere sartzea titulua emateko proposamenean berariaz zehaztutako titulazioetan.

Halaber, arau osagarri horietan ezartzen zen behin-behineko izaera zuten matrikulak onartzea, planteaturiko betekizunak egiaztatzeko eta ondoren unibertsitatearen beraren arioz deuseztatzeko; horretara, baldintzak betetzen ez zituzten eskatzaileei tasen ordainketa itzuli behar izaten zitzaien.

Horregatik guztiagatik ondorioztatu behar izan zen kexaren egileak aurkeztutako berrikuspen eskariak ezagutu zituzten arduradun unibertsitarioek euren erabakia hartu zutela doktoregoko batzordeak aldez aurretik onetsitako prozedura arauei jarraituz; hortaz, jarduera horretan ez zen irregulartasun edo bidegabekeria zantzurik ikusi, betiere erdi mailako titulatuen eskaera kopurua %5era mugatzeari zegokionez.

Edonola ere, matrikularen datuen arabera, erdi mailako titulatua onartzeko aukera egon zen; horrela, ikasle hori aukeratu behar zen proposamenean finkatu edo onetsitako hautapen irizpideen arabera (kasu honetan, curriculum vitae, espediente akademikoa eta betetako postuaren deskripzioa). Hori guztia zela eta, ondoko ondorioa ere atera behar izan zen: masterreko arduradunek erdi mailako ikaslerik hautatzeko proposamenik ez egitea (nahiz eta horren kontrako makina bat eskaera egon) funtsik gabeko erabaki bidegabea zela, onetsitako hautapen irizpideei jarraituz, masterrean onartua izateko meriturik gehien zituen ikaslegaiarentzat.

• Emaitza

Arartekok 23/2000 gomendioa egin zuen, Enpresako Prebentzio Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikaria izateko Masterrerako erdi mailako titulatuen eskaeretariko bat ez onartzeko erabakia berrikusia izan zedin; horretara, erakunde honek eskatu zuen, masterra emateko proposamenean ezarritako hautapen irizpideak aplikatuta, meriturik gehien zituen erdi mailako titulatua aukeratua eta onartua izan zedin.

UPV/EHUk alegatu zuen ikasturtea aspaldi hasia zela, egindako gomendioa ez zuela onartzen justifikatzeko; hala ere, horren edukia hurrengo ikasturteetan aplikatzeko konpromisoa hartu zuen.

### ⇒ *UPV/EHU: pedagogi gaitasun ikastaroen eskaintza falta (810 eta 951/2000)*

• Erreklamazioa

Pedagogi gaitasun ikastaroa (PGI) egiteko interesa zuten bi lizentziatuk erakunde honi kexa aurkeztu zioten, ikastaro hauen eskaintza murritza salatuz. Zehatzago, jasotako kexetan salatzen zen ikastaro hauek ez zirela gaztelaniaz eskaintzen.

• Azterketa

Honen berri emateko beharrezko eskabidea eginda, UPV/EHUko idazkaritza orokorrak erakunde honi jakinarazi zion ikastaro hori gaztelaniaz ez eskaintzeko erabakia Hezkuntza Zientzietako Institutuaren Zuzendaritzak hartu zuela, behin Hezkuntza Berrikuntza eta Azpiegitura Errektoreordetzarekin batera egindako azterketa ikusi ostean, betiere ondoren ageri diren oharren arabera:

*"Lehenik.- 2000-2001eko ikasturteari begira bigarren hezkuntzako irakasleei zuzendutako prestakuntza zehatzaren berregokitzapena espero da; hori dela eta, PGI hainbat titulazio zehatzi eskaintzea besterik ez da aurreikusi.*
*Bigarrenik.- Euskal hezkuntza sistemaren elebitasuna eta euskaraz ez dakiten ikasleak praktikaldian onartuko dituzten bigarren hezkuntzako zentroak aurkitzeko zailtasuna kontuan harturik eta PGIren prestakuntzarako zentroetan egiten den praktikaldia ikastaro osoaren %45ekoa dela gogoan izanik, egokitzat hartu zen eskaintza hautagai elebidunei (euskara/gaztelania) besterik ez zuzentzea eta ikastaroa gehienbat euskaraz bideratzea.*
*Hirugarrenik.- Edozein kasutan, unibertsitatea ez dago behartuta ez urtero ez eta espezialitate guztietan ere PGI eskaintzera; izan ere, eskaintza hori erabakitzen da ikastaroa opestea gomendatzen duten zirkunstantziak aintzat harturik. Horrela eta esate baterako, 1998-1999ko ikasturtean, UPV/EHUk ez zuen horrelako ikastarorik eskaini titulazio bakar batean ere.*
*Laugarrenik.- 2000-2001eko ikasturtean PGI hainbat espezialitatetarako eskaini da ondoren azaltzen den moduan; horrela, ikus daitekeenez, hainbat titulaziotako ikasleei ez zaie horrelakorik eskaini. Horrela,*
- *Gipuzkoako campusa: Hezkuntza Zientziak eta Zientziak, biak euskaraz.*
- *Bizkaiko campusa: Zientziak gaztelaniaz eta Natur Zientziak euskaraz.*
- *Arabako campusa: Gizarte Zientziak euskaraz eta Atzerriko Hizkuntzak gaztelaniaz.*
- *Intercampusa: Teknologia gaztelaniaz."*

Txosten honetan ikusitakoari jarraituz, azpimarratu beharra dago unibertsitateak ez duela urtero-urtero eta espezialitate guztietarako pedagogi gaitasun ikastaroa eskaintzeko betebeharrik.

Handik abiatuta, hau da, hezkuntzako eskaintzari dagokion hautazkotasunetik, unibertsitateari eskatzen zaio horren inguruan hartutako erabakia arrazoituta egotea,

jarduera horretan bidegabekeriaz ez dela jokatu bermatu ahal izateko. Horrela, emandako informazioaren arabera, eskaera hori egoki bete du UPV/EHUk.

• Emaitza

Esku-hartze honen ostean, Arartekok ez zuen arrazoirik ikusi bestelako jarduerei ekiteko.

## D) **Bestelakoak**

### ⇒ *Heziketa bereziaren beharrizanak artatzea (381/2000)*

• Erreklamazioa

Zortzi urteko haur batek diabete zuen eta ikastetxean beraren gaixotasunari zegokion laguntzaren premia zuen (gluzemiaren balorazioa eta intsulina ematea). Gurasoen kexak zerikusia zuen semeak aurkitzen zituen arazoekin, harik eta bere burua zaintzeko ardura hartzeko ahalmena izan arte.

• Azterketa

Kexa hau eragin zuen kasua ez zegoen bi administrazioek (osasun eta hezkuntza administrazioak) ohikoa izateagatik euren gain hartzen zituzten funtzio edo zereginen barruan ezarritako egoeren artean. Alabaina, hezkuntza edo osasun aldetiko zeregin zehatz hauen diseinuan soil-soilik oinarrituz, ez zegoen haur hau normaltasunez eskolatzerik.

Ume honek, bere buruaren zainketaren ardura hartzeko moduan egon arte, behar zuen sorospena ez zen erizaintzako laguntza zehatz bati zegokiona; izan ere, ez ziren erizaintzako profesional batek bereziki bete beharreko zereginak. Arazoa, beraz, ez zen Hezkuntza Sailak osasun langileen zerbitzuen premia zuela. Gaiari hezkuntza eta osasun azpiegituren lankidetzaren eremuan hel zekiokeen.

Behin ume honen osasun premiak egoki bete eta gero (gaixotasunaren diagnostikoa, intsulinaren bidezko tratamendua, dieta egokia eta aldiro-aldiro pedriata-endokrinoen kontsulten jarraipena), berari laguntzeko prozedura Osakidetzak glukometro eta intsulina erabiltzeko umeei eta gurasoei zuzendutako prestakuntzaren eremuan bidera zitekeen; kasu honetan, prestakuntza hori eman behar zitzaien umearekin batera egongo zirenei, eskolaturik egon bitartean.

Haurra eskola orduetatik kanpo laguntzeak ez zion aparteko neurririk eskatzen Osakidetzari, eta osasun erakunde hori ikastetxera bertaratzen zenean ez zuen eteten ez eta oztopatzen ere neurririk edo laguntzarik batere, arrazoi hori zela eta. Izan ere, kasuaren berezitasuna eskolatzean datza, haurrari ezin zitzaiolako lagundu oporraldietan edo eskolako ordutegitik kanpora egiten zen modura.

Arrazoi horiek zirela eta, arazo honi erantzuteko irteera (behin-behinekoa, harik eta umea bere burua zaintzeko gai izan arte) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatu behar zuen, arazoa, azken batean, ohiko eskolatzea bermatzean zetzalako.

• Emaitza

Azkenik, sail horrek bere gain hartu zuen ikasle honen premiei erantzuteko erantzukizuna, heziketa bereziko laguntzaile batez -nahiz eta heziketa bereziko ohiko kasu bat izan ez - bai eta zentroko irakasleez ere baliatuz.

### ⇒ *Titulazioen homologazioa. Somorrostro prestakuntza zentroa (602/2000)*

• Erreklamazioa

Dirudienez Conservatoire National des Arts et Métiers (CNAM) izenekoarekin elkartea osatzen duen Somorrostro prestakuntza zentroak ematen dituen titulazioen homologazioa kolokan jarri zen erakunde honetan; izan ere, hezkuntza zerbitzuetako publizitatean aipatzen zen "*Europa mailan homologaturiko prestakuntza eta titulazio bi maila eskura daitezkeela*".

• Azterketa

Erakunde honen esku-hartzeari erantzuteko, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordeak emandako informazioan aipatzen zen momentuz Somorrostro prestakuntza zentroak ez diola inongo tramitazioari ekin unibertsitate mailako prestakuntza emateko, beste herrialde batzuetan indarrean dauden sistemekin bat etorriz; ondorioz, euren irakaskuntzaren homologazioa ez zetorren bat espainiar unibertsitateko sistemaren Unibertsitate Titulu Ofizialen Katalogoko titulazio bakar batekin ere.

Era berean, zehaztu zen prestakuntza zentro honek ez zuela diru-laguntzarik jaso Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik, prestakuntza mota hori emateari zegokionez. Aitzitik, Unibertsitateen Sailburuordetzaren jarduerak bideratzen zitzaizkion prestakuntza zentro honen egoera arautzera eta egokitzera, behin betiko baimena lortu ahal izateko.

• Emaitza

Argibide hauen ostean, erakundeak ulertu zuen ez zegoela jarduera berriei oratzeko arrazoirik, unean-uneko erantzukizunen eskaera izan ezik; horrela, kexaren egileak ez zuen ekimen hau bideratu nahi izan eta bertan behera utzi zuen prozedura.

# 5. FUNTZIO PUBLIKOA

## 5.1. SARRERA

2000. urtean zehar, 121 kexa aurkeztu dira, funtzio publikoaren arloan; kexa guztietatik %12,97, beraz, arlo horri dagozkio.

Iazko ekitaldiarekin, hau da, 1999. urtearekin, konparazioa eginez gero, gehikuntza gertatu da, 42 kexa gehiago jaso baitira. Dena den, horietatik hamabi espediente kolektibo zehatz bati buruzkoak izan dira; espediente horren arabera, unibertsitateaz besteko sare publikoan, irakasleen birbanaketa egin beharra zegoen:

- Euskadiko Administrazio Orokorra .................................. 103
- Foru Administrazioa ....................................................... 6
- Toki Administrazioa ...................................................... 15

Kexen edukia aintzakotzat hartuta, Arartekoaren esku-hartzea hainbat gaitan gauzatu da. Gai horien artean, besteak beste, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Funtzio publiko orokorra ............................................... 43
- Irakaskuntzako funtzio publikoa ....................................... 35
- Osasun arloko funtzio publikoa ....................................... 27
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ................................................................ 8
- Eskubideak eta askatasunak ............................................ 3
- Bestelakoak ................................................................... 5

Jarraian aztertuko ditugu, labur-labur bada ere, gairik interesgarrienak, horien inguruko gorabeherez jabetu ahal izateko.

### Irakaskuntzako funtzio publikoa

Jakina denez, unibertsitateaz besteko sare publikoan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide-heziketarako institutu zehatzak. Sare horretan, irakasleen birbanaketa gertatu da, aurtengo lehenengo hilabeteetan, hots, 2000. urteko lehenengo hilabeteetan. Birbanaketa horrek hainbat kexa eragin ditu; irakasle interesdunek banan-banan jarri dituzte halako kexak.

Irakasleen antolaketari dagokionez, prozesu horrekin buru eman zaio LOGSE izeneko legea indarrean jartzearen osteko eraldaketari. Ildo horretatik, helburua izan da plantilak eraldaketaren ondoriozko espezialitate berriei egokitzea, bai eta eredu elebidunen mailaz mailakako eskariari egokitzea ere.

Txosten honi erantsi zaio gai horren inguruko laburpena (kexaren laburpena, 174/2000). Arartekoak, gaia sakon aztertu eta gero, ez du igarri eskubideak urratu edo hautsi direnik eta, horregatik, ez du uste izan bere esku-hartzea bidezkoa zenik.

Irakaskuntzaren arloan ere, beste eskari batzuk izan dira. Eskari horien bitartez, irakasleek lanbideko erantzukizunak eta familiako erantzukizunak bateratu nahi dituzte; zehatz esateko, bateratze hori handiagoa eta hobea izan dadin eskatu dute.

Alde batetik, irakasle batek eszedentzia eskatu zuen, seme-alabak zaintzeko; irakasle hori bitartekoa eta ezegonkorra zen (kexaren laburpena: 557/2000). Konstituzioak eskari horri babesa ematen dioenez gero, Arartekoak gomendio egokia luzatu zuen. Gaur egun, oraindik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hori onartzeko trabak jartzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuetan ere, espedienteen izapideak egin dira, ofizioz gainera, arrazoi berberaren ondorioz. Administrazio horiek, ordea, ez dute inolako eragozpenik jarri, bitarteko funtzionarioek ere senideak zaintzeko eszedentzia eska dezaten.

Beste alde batetik, azaroaren 5eko 39/1999 Legeak zenbait neurri ezarri ditu, emakume langileen familia-bizimodua eta lan-bizimodua batera daitezen, eta bateratze hori susta dadin. Lege horren ondorioz, zenbait eskari jaso dira, harrera eta adopzio kasuetan gurasoei dagozkien baimenak parekatzeko. Izan ere, guraso biologikoen kasuan, hobekuntzak ezarri ohi dira, lan-baldintzei buruzko hitzarmen arau-emaileetan (kexaren laburpena: 921/2000).

Irakaskuntzari dagokion atal honetan, beste zenbait kexaren izapideak egin dira, lekualdaketarako lehiaketen kudeaketari buruz. Arartekoaren ikuspuntutik, kexa horiek argiro-argiro erakusten dute, kasu batzuetan, mugikortasun-prozesuok modu mekanikoan eta saldoz egiten direla; baina hori ezin da aitzakia izan, oinarrizko arauak ez aplikatzeko, halako arauak ezinbestekoak baitira administrazio-prozedura guztietan (kexaren laburpena: 817/2000).

Bukatzeko, ezin dugu alde batera utzi behin eta berriz errepikatzen den kexa bat. Ikasturtearen hasieran, lanpostuak banatzeko prozesuan zehar, errakuntzak gertatzen dira; berbarako, adjudikazio-errakuntzak. Kasu guztietan, eztabaidaren muina izan ohi da, azken finean, errakuntzen ondorioz kalteturik gertatu direnen interesak guztiz babestea.

### Osasun arloko funtzio publikoa

Otsailean, osasun-sektoreko mahaiak erabakia hartu du, Osakidetza izeneko erakunde publikoaren mugikortasun-sistemari buruz. Erabaki horrek ezarri duen bezala, borondatezko mugikortasuna gerta dadin, nahitaezkoa da lekualdaketarako lehiaketak antolatzea. Zernahi gisaz, sistema hori berehalakoan ezarri beharrean, mailaz maila ezarriko da eta, horregatik, etapa batzuk bereizi dira; etapa horietan, lehenengo bi lehiaketak egingo dira eta, horien ostean, hautaketa-prozesua gauzatuko da, enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez.

Erabaki horren ondorioz, zenbait kexa jaso dira; mediku-sendagileek aurkeztu dituzte, batik bat, kexa horiek. Lekualdaketarako lehiaketetan, hutsik dauden lanpostuak barneratu behar dira, eta mediku-sendagile horiek ez daude ados lanpostu horien ehunekoarekin. Jurisdikzio-bidean ere, eskariak egin dira, arrazoi berberaren ondorioz. Horregatik, Arartekoak bere jarduna eten beharra izan du.

Osasun-arloaren barruan, urtero-urtero, beste zenbait kexa azaltzen dira, kexa ugari gainera, aldi baterako kontratazioari buruz eta, zehatzago, kontratazio horren inguruko zerrendei buruz.

Ekitaldi honetan, hainbat erantzun bidali dira. Erantzun horien arrazoi nagusiak izan dira, hain zuzen ere, antolaketarako irizpideak. Arean bere, 1997. urtean, enplegurako eskaintza publikoan ez ziren sartu kategoria jakin batzuk. Ekainean, kategoria

horiei buruzko zerrendak irekitzeko erabakia hartu zen. Erabaki horretan, antolaketarako irizpideak ageri dira, eta eurok sortarazi dituzte hainbat kexa (txosten honen prestaketa bukatu denean, espediente horien izapidetza oraindik ez da amaitu).

Arartekoak beste gai batzuk ere aztertu ditu. Indarreko erabakiak aldi baterako kontratazio-zerrenden sistema aratu du. Bada, erabaki horren 5. artikuluan agindutakoari helduta, hutsik dauden lanpostu batzuk betetzeko, eskakizun zehatza ezar daiteke, horretarako aukera baitago. Badirudi, zenbait kasutan, aukera hori bidegabe erabili izan dela edo, behintzat, okerreko erabileraren zantzuak somatu direla. Aukera edo ahalmena bada izan, eskakizun erantsia ezartzeko. Alabaina, ahalmen horretaz abusatuz gero, hautagaiei lanbide-karrera hasteko aukera ken dakieke, batez ere, mediku-sendagile jakin batzuen kategorietan; hala gertatuko litzaieke, osasun-zentro jakin batean eta une zehatz batean, eskakizun egokia ez dutenei.

Bukatzeko, Osakidetzak esklusibotasunaren ondoriozko ordainketa osagarriak aitortzen dizkie lanbideko kategoria jakin batzuei, eta horren inguruan ere kexak azaldu dira. Osasun Administrazioak eskaintzen duen babes formalaz gain (Giza Baliabideen zuzendariak emandako 1/ 2000 Jarraibidea), langileen arteko bereizkeriak igarri dira eta, Arartekoaren ustez, horiek zuzendu beharrekoak dira.

**Funtzio publiko orokorra**

2000. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak enplegurako eskaintza publikoa iragarri du. Eskaintza hori izan da, hain zuzen ere, 2000. urte horretako gairik garrantzitsuenetarikoa.

Arartekoak jakin badaki, eta lehen ere bazekien, zergatik egiten dituzten eskari gehienak bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako kontratua dutenek. Egin-eginean ere, enplegurako eskaintza publikoetan, Administrazioak askotan ez du deialdirik egiten, eta hori okerreko ohitura da. Okerreko ohitura horren ondorioz, bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako kontratua dutenek ezin izan dituzte euren zerbitzu-harremanak normalizatu. Konstituzioak berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioak ezarri dituenez gero, horiei begirune osoa zor zaie. Horregatik, Arartekoak eginkizun berezia du arlo horretan, enplegu publikoa eskuratu nahi duten herritar guztiek euren igurikimenei euts diezaieten.

Interes horiek guztiak batera eta neurriz hartu behar dira kontuan, maiz-sarri elkarren aurkakoak izan arren. Hori ikusita, Arartekoak zenbait ondorio atera ditu. Ondorio horiek zehatz-mehatz eta xehetasunez jaso dira, jarraian erantsiko den laburpenean (kexaren laburpena: 123/2000).

Konstituzioak, beraz, berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioak ezarri ditu, eta horiei begirune osoa zor zaie. Ondorenez, Arartekoak eskua hartu behar izan du, Herri Kontuen Euskal Epaitegian. Esku-hartze horren ondorioz, Arartekoak hautaketa-proba batzuk geldiarazi ditu; proba horietan, aurretiazko esperientzia nahitaezko baldintza zen, deialdiko plaza guzti-guztiak eskuratzeko (kexaren laburpena: 872/2000).

Era berean ere, aipatzeko modukoa da Irungo Udalari begira izandako jarduna, hori oso berezia izan delako. Arartekoak hautaketa-prozesua berrikusteko eskatu dio Irungo Udalari. Izan ere, auzitegi kalifikatzaileak proba psikoteknikoak errepikatzeko erabaki zuen; horrekin mesede egin zion, irregulartasunez eta inolako arrazoirik gabe,

hautagai zehatz bati edo, zehatzago, gehitu egin zituen hautagai horrek lanpostua eskuratzeko zituen aukerak (kexaren laburpena: 753/2000).

Amaitzeko, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak hautaketa-prozesurako deialdia egin du eta, horren ondorioz, diziplina-jarduna gertatu da. Diziplina-jardun hori, azkenean, Arartekoari helarazi zaio, berak azter dezan. Hautagaiak lanpostua eskuratu zuenean, Gasteizko Udaleko bitarteko funtzionarioa ere bazen. Lansaioa txikitzeko eskubidea erabili zuen eta, horrela, praktiketarako sasoia bete zuen, inolako arazorik gabe. Geroago, eszedentzia-eskaera egin zuen eta, orduan, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak diziplina-espedientea ireki zion, bateraezintasun-arrazoien ondorioz. Espediente hori bukatu zen, Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz. Erabaki horretan, Gobernu Batzordeak lagun hori lanpostutik botatzeko agindu zuen.

Diziplina-jardun guztietan, ezinbestekoak eta betebeharrekoak dira zenbait osagai, besteak beste, nahita egin izana, zerbitzuari enbarazu egitea eta Administrazioari edo herritarrei kalte egitea. Osagai horiek aintzakotzat hartuta, Arartekoak gomendioa eman zuen ezarritako zehapena berrikus zedin. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak ez zuen Arartekoaren iradokizuna onartu; baina, azkenean, auzitegi arruntek oniritzia eman diote arrazoi berberaren ondorioz jurisdikzio-bidean ezarritako eskariari.

Baimenen gaiaz denaz bezainbatean, Gasteizko Udaleko funtzionario batek egokitzapen-ikastaroa egin zuen, dokumentazio-ikasketen inguruan, eta funtzionario horrek laguntza eskatu dio Arartekoari. Izan ere, Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi eskuordeak ukatu egin zion funtzionario horri ikastaro horretako azken probak egiteko baimena.

Arazo hori eta antzekoak behar bezala ulertu eta aztertzeko, uztailaren 6ko 6/1989 Legea izan behar da gogoan. Lege horrek Euskal Funtzio Publikoa arautu du (aurrerantzean, EFPL izenarekin identifikatuko dugu) eta, arauketa horren barnean, baimenen gaia ere jorratu du. Lege horrek gutxieneko baldintzak ezartzen ditu eta, gutxieneko horietatik abiatuta, administrazioek eta langile publikoen ordezkariek baldintza zehatzak ezar ditzakete, eurei dagozkien arloetan. Baldintza zehatz horiek, nolanahi ere, legez ezarritakoak baino onuragarriak izan behar dira beti.

Horrexegatik, Arartekoaren iritziz, Gasteizko Udalaren jarduna ez da zuzena izan, nahiz eta udal horrek hala aitortu ez. Zentro ofizialetan azken azterketak egiteko, baimena lortu behar da, eta erakundeak baimen hori emateko betebeharra du, nahiz eta ikasketek lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko loturarik izan ez. EFPLren 70. artikuluak baimen hori emateko betebeharra ezarri du eta, ondorenez, gutxieneko baldintza da. Langile publikoen lan-baldintzak negoziatzen direnean, baldintza hori errespetatu beharra dago, eta ezin da horretan aldaketa kaltegarririk egin.

Ohartarazteko modukoak dira, orobat, beste kexa batzuk. Funtzionario batzuek Estatuko Administrazioa utzi dute eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren berezko kidegoetan promozioa egin dute. Bada, funtzionario horiek kexak azaldu dituzte, erretirorako baldintzei buruz. Kexotan, funtzionario horiek salatu dute, euren kidego berriaren baitan, ez direla aintzakotzat hartu maila pasiboetara egindako kotizazioak.

Arartekoak zenbait jarduera burutu ditu, kexa horien oinarria eta zergatia aztertzeko. Jarduera horiek agerian utzi dute salatutako arazoa egiazkoa zela. Jarduera

horren ondorioz ere, Arartekoak jakin du zer-nolako konponbidea emango duen azkenean Gizarte Segurantzako Nazio Institutuak. Izan ere, funtzionario horien egoera erregularizatu beharra dago; orain, Estatuko funtzionario zibilen araubide berezian kokatuta daude eta, bistakoa denez, kokaera hori okerrekoa da. Gizarte Segurantzako Nazio Institutuak, horren inguruan, hurrengo erabakia hartu du: funtzionario horiei baxa emango zaie maila pasiboen araubidean eta, aldi berean, alta emango zaie Gizarte Segurantzako araubide orokorrean. Horrela, kotizazioak elkarrekiko zenbatuko dira.

Sarrera honi amaiera eman aurretik, Laudioko Udalak egindako eskaria aipatu nahi dugu. Udal horrek txosten juridikoa luzatzeko eskatu dio Arartekoari. Udal horretako lanpostuen zerrendari dagokionez, udalak galdetu du ea zein den postuak betetzen dituztenen egoera: “aldi baterakoa” ala “behin betiko atxikipena”?

Eskari horri zuzen-zuzenean erantzuna ematea ez da batere erraza eta, horregatik, Arartekoak honako ñabardura hau azaldu nahi du: helburua bada herritarren eskubideak ez haustea edo legezkotasunari kalterik ez egitea, orduan ez-betetzeak gertatu aurretik, horien gaineko aurreneurriak hartu behar dira, administrazio-egintzak herritarren eskubideak uki ez ditzan; alabaina, bistan dago erakunde bakoitzak legezko kasuetan bakarrik jardun dezakeela eta, alderantziz, ez duela jardun behar, bere eskumenekoak ez diren gaietan.

Antolamendu juridikoaren arabera, Arartekoak kontrol-eginkizunak betetzen ditu, eta auzitegiek ere hala egiten dute. Bi kasuotan, kontrol hori *a posteriori* gertatzen da, administrazio-jarduera jakin batzuetan. Horregatik, Arartekoaren eginkizuna ez da aldez aurretik txostenak ematea, aurreneurri gisa. Txostenak egiteko lan garrantzitsu hori Administrazioetako zerbitzu juridikoei eta organo aholku-emaileei dagokie.

Jakina denez, Arartekoak independentziarekin eta alderdikeriarik gabe jokatu behar du, legez berari eratxiki zaion eginkizuna betetzeko. Norberaren egintzen aurka egiteak zentzurik ez duenez gero, Arartekoaren zeregina ere kolokan jarriko litzateke, baldin eta aurretiaz Arartekoak gai zehatz bati buruzko iritzia azaltzen badu; ezin izango luke askatasunez jardun, gerogarreneko esku-hartzeak burutzeko.

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Adinekoen egoitzan langileak birbanatu edo berrantolatzea (42/2000)*

• Erreklamazioa

Adinekoen egoitza zehatz bat Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpe dago. Egoitza horretako langile-talde batek salaketa aurkeztu zuen, langileen berrantolaketarako proiektuaren aurka. Proiektu horren helburua zen modulu guztietako langile laguntzaileak emakumeak eta gizonezkoak izatea. Dirudienez, erabiltzaileen eskakizuna da eurei sexu bereko langileek laguntza ematea, haien intimitatea uki dezaketen beharrizanetan.

• Azterketa

Administrazioek euren burua antolatzeko ahalmena dute. Ahalmen horren eretzean, administrazioek zerbitzuak antola ditzakete, euren ustez komenigarri den moduan; horrela, zerbitzuok eragingarriagoak izango dira. Horretara behartuta daude administrazioak, Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluak hala agintzen duelako. Agindu hori betetzeko, zenbait antolaketa-modu desegoki gertatu badira, orduan ez dago inolako eragozpenik antolaketa-modu horiek ezabatzeko, ez baitzaie halakoei eutsi behar. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenak 1997ko otsailaren 17an emandako epaia kontsulta daiteke (JE 1.504/1997).

Administrazioek, beraz, euren zerbitzuak antolatzeko ahalmena dute. Baina ahalmen horrek badu mugarik. Izan ere, administrazio horietako langile publikoek, beharbada, eskubideak eskuratu izan dituzte, eta eskubideoi begirunea zor zaie. Edonondik begiratuta ere, eskubide horien artean ez dago administrazio-unitateen antolaketa-moduari aldaketarik gabe eustea, aspalditik zeuden moduan utziz.

Bestalde, administrazio publikoek euren burua antolatzeko ahalmena erabiltzen dutenean, nahierara jokatzen dute eta, horregatik, erabilera hori kontrolatu beharra dago. Arean bere, Espainiako Konstituzioan bertan (eta, zehatzago, EKren 9.3 artikuluan) ezarritako printzipioa da botere publikoen nahiera saihestea. Printzipio hori dela eta, administrazio publikoek neurri zehatzak hartzen dituztenean, harako ahalmena erabiltzeko, neurri horiek zentzuzkoak izan behar dira, eta zentzuzkotasun hori kontrolatu beharra dago. Eta horixe zen, hain zuzen ere, kexa eragin zuen eztabaida.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetan, dirudienez, jarduteko irizpideak edo printzipioak finkatu nahi dira. Irizpide edo printzipio horiei helduta, adinekoen eskubideak mugatu ahal izateko, nahitaezkoa da eskubide horien egikaritzak adineko beste lagun batzuen eskubideak ukitzea eta, berebat, eragin kaltegarria izatea, egoitzaren barruko elkarbizitzari dagokionez edo egoitza bera antolatzeko aukerei dagokienez.

Egoiliarrei aitortu beharreko eskubideen artean, jarraikoa azpimarra daiteke: adinekoek eskubidea dute, euren intimitatea errespeta dadin, betiere, egoitzako gizarte-zerbitzuen egitura eta baldintzak aintzat hartuta.

Egoitzako zuzendaritzak mugikortasunerako proposamena egin zuen, eta proposamen hori, egia esateko, ez zen nahierarakoa, beraren xedea baitzen modulu guztietan langile laguntzaileak emakumeak eta gizonezkoak izatea; horrela, erabiltzaileei laguntza emateko orduan, euren eskakizunak asebeteko ziratekeen.

Bestalde, gaur arte, ez da inolako eragozpenik edo arazorik izan, egoiliarrei emandako zerbitzuan. Zinez, iritzi desberdinak izan daitezke eta, horien ondorioz, kexa aurkeztu izan da. Alabaina, arazoak ez du behar besteko garrantzirik, zuzendaritzak proposaturiko neurriak proportziorik eta zentzurik ez duela adierazteko.

Bukatzeko, proposamenaren arabera, langileen artean aldaketak egin behar ziren, egoiliarren intimitatea errespetatzeko, noiz eta egoiliar horiek oinarrizko laguntzak behar zituztenean, hala nola, norberaren garbitasuna (hori kontuan hartuta, zentzuzkoa da egoiliarren sexua inguruabar garrantzitsua izatea, euren zaintzaz eta eurei laguntzeaz arduratu behar diren langileak aukeratzeko orduan). Egin-eginean ere, proposamen horrek ez zekarren sexuaren araberako bereizkeriarik (ezta zeharkako bereizkeriarik ere); neurriak zerbitzua antolatzen zuen, eta neurri horrek eragin berbera zuen, hala emakumeengan, nola gizonezkoengan.

• Emaitza

Goian azaldutako arrazoi guztiak direla bide, Arartekoak ez du uste bere esku-hartzea bidezkoa zenik.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Herritarrek, administrazio publikoekin harremanak dituztenean, eskubidea dute agintariak eta administrazioen menpeko langileak identifikatzeko (468/2000)*

• Erreklamazioa

Getxoko Udalak lagun bati tasa kobratu zion, ibilgailua eraman eta zaintzeagatik. Lagun hori ez zegoen tasaren kobrantzarekin ados eta, horregatik, idazkia bidali zion udalari. Udalak ez zionez erantzunik luzatu, lagunak kexa helarazi zion Arartekoari.

Kexa horretan, azpimarratzeko moduko arazo bat azaldu zen: ibilgailua udalaren menpeko areto batzuetara eraman zen eta, areto horietan, langile bat zegoen, horri baitzegokion tasa kobratzeko ardura; bada, langileak ez zuen bere burua identifikatu nahi izan, erreklamaziogileak hori eskatu zionean.

• Azterketa

Arartekoak Getxoko Udalari adierazi zion berariazko ebazpena eman behar zuela eta hori jakinarazteko betebeharra zuela, hala agintzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluak; lege horrek Administrazo Publikoen Araubidea eta Administrazioarekiko Prozedura Erkidea jaso ditu.

Bigarren arazoari dagokionez, ezaguna da Arartekoaren zeregina dela herritarrek zein eskubide duten zabaltzea. Zeregin horretatik abiatuta, Arartekoak egoki deritzo aipatutako legearen 35b) artikulua gogoratzeari. Artikulu horren edukiari ekinez, herritarrek, administrazio publikoekin harremanak dituztenean, eskubidea dute, agintariok identifikatzeko eta, era berean, prozeduraren izapideak zein langileren erantzukizunpean egin, eta langile hori ere identifikatzeko.

Udalak bidalitako dokumentazioa aztertu eta gero, Arartekoak ikusi zuen kexaren ondoriozko errekurtsoari berariazko ebazpena eman zitzaiola eta, bi aldiz behintzat, jakinarazpena egiteko ahaleginak egin zirela.

Halaber, Getxoko Udalak jakinarazpena egin zion interesdunari, berak horretarako zehazturiko egoitzan, eta udalak jakinarazpen horren kopia bidali zion Arartekoari, erakunde honek burututako esku-hartzeaz geroztik.

Datu horietatik guztietatik abiatuta, Arartekoak uste izan zuen kexaren arrazoi nagusia hauxe zela: herritarraren eskubidea izatea idazkien berariazko erantzuna jasotzea eta udal erabakiaren edukia jakinaraztea. Arrazoi nagusia hori izanik, berori konponduta zegoenez gero, igarritako administrazio-irregulartasuna konponduta zegoen.

Hala eta guztiz ere, beste arazoaren inguruan eta, bereziki, aipatutako 35b) artikuluari buruz udalak egindako interpretazioaren inguruan, ezin ondorio berbera atera.

Getxoko Udalak uste zuen artikulu hori bete zuela, herritarrak bazekielako edo arazorik gabe jakin zezakeelako nor zen zinegotzi eskuduna, gaiari zegokionez, eta nor zen alkatea; zinegotzia espedientearen instruktorea zen eta alkatea, aldiz, organo

erabakitzailea. Era berean, Getxoko Udalak ukatu egin zuen 1993ko otsailaren 3ko Ebazpena aplikagarria zenik. Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzak ebazpen hori eman zuen, eta bertan azaltzen da nola identifikatu behar diren Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileak. Erreklamaziogileak xedapen hori alegatu zuen, Administrazioari bidalitako idazki horretan.

Irizpide horien ondorioz, Arartekoak beste komunikazio bat bidali zion Getxoko Udalari. Komunikazio horretan, Arartekoak azalpen luzea egin zuen arazoari buruz. Azalpen horretatik, jarraikoa nabarmendu nahi dugu:

*"…Ezin gara ados egon udal horrek erabiltzen duen irizpidearekin; irizpide hori finkatzeko, udalak manuaren interpretazioa egin du, baina, gure ustez, interpretazio hori okerrekoa izan da. Interpretazio horren arabera, herritarrak interes berezia du, kexa eragin duen prozedura horretan; herritar horren eskubide bakarra izango litzateke arlo horretako zinegotzia identifikatzea, hura instruktore den heinean, eta alkatea bera identifikatzea, horrek ebazpena emateko ardura duelako. Agidanez, ondorio hori beste espediente batzuetan ere aplikagarria izango da.*

*Udalak herritarraren ibilgailua eramaten duenean, tasa bat ordaindu beharra dago, ibilgailua berreskuratu ahal izateko. Udaleko langile zehatz batek du tasa hori kobratzeko ardura, eta erreklamaziogilearen eskaria da langile zehatz hori identifikatzea. Prozedura horretan, gutxienez, honako egintza hauek guztiak burutu dira: ibilgailua zaintzea; ibiligalu horren titularrak edota ibilgailu horren bila doanak bere burua identifikatzea; tasa kalkulatzea, ibilgailuak udalaren aretoeetan zenbat egun eman dituen kontuan hartuta; tasa kobratzea; ibilgailua titularraren esku uztea; jasotako diru-kopurua gordetzea…*

*Aurreko komunikazioan, arazo hori azpimarratu nahi genuen, eta ez genuen aipatu ere egin 1993ko otsailaren 3ko Ebazpena. Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzak ebazpen hori eman zuen, eta bertan azaltzen da nola identifikatu behar diren Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileak. Arartekoak ez zuen bere idazkian ebazpen hori aipatu, hain zuzen ere, Toki Administrazioa ez delako sartzen haren aplikazio-esparruan.*

*Horrek ez du esan nahi, ordea, 35b) artikulua ezin dela zuzen-zuzenean aplikatu Estatuko Administrazioaz besteko administrazioen esparruetan; hala izan behar da, manua zehazten ez den bitartean, eta zehaztapen hori egin du, alegia, aipatutako ebazpenak.*

*Ebazpena bera abiapuntutzat har daiteke, Arartekoak gai horretan duen jarrera erakusteko. Ebazpenaren zati azaltzaileari eutsiz, lehenengo eta behin, ebazpenaren beraren helburua argitzen da. Helburu hori da, izan ere, 35b) artikulua garatzea eta, horretarako, langileak identifikatzeko sistema orokorra ezartzea. Hori argitu eta gero, baieztapen biribil eta zalantzagabe hau jasotzen du ebazpenak:*

'… Herritarrek identifikazio hori egiteko aukera izan behar dute, administrazio publikoekin dituzten harreman guztietan…'.

*Horren erakusgarri gisa, ebazpenaren zati arau-emailera jo daiteke. Bertan, identifikazio-sistema jasotzen da, esate baterako, harremanak telefonoz bideratzen direnean; horietan, elkarrizketa langile publikoarekin egiten da. Horretarako, ez da kontuan hartu behar langile hori instruktorea den edo gai*

*zehatzaren gaineko ebazpena berak eman behar duen. Era berean, ez da kontuan hartu behar deia herritarrak jaso duen ala herritarrak egin duen. Bigarren kasu horretan, nekez gertatuko da, arlo horretako zinegotzi arduradunaren zereginen artean eta udaleko alkatearen zereginen artean, telefonoa hartzearena egotea. Ezaugarri hori, zalantzarik gabe, ezin zaie aplikatu, ezta Estatuko Administrazioaren organo desberdinetako kargu politikoei ere.*

*Gainera, Getxoko Udalak proposatzen duen interpretazioa onartuz gero, ahaztu egingo genuke behin eta berriz aipatu dugun manu hori 30/1992 Legearen berrikuntzetatik garrantzitsuena dela. Jakina denez, lege horren eginkizunetatik bat izan da berak arautzen dituen gaiak Konstituzioaren printzipioei egokitzea. Bide horretatik, zioen azalpeneko 3. zatian, honako hau dio:*

'… 1978ko Konstituzioak Administrazioari buruzko kontzeptu berria jaso du. Administrazioa legearen eta Zuzenbidearen menpe dago, herriaren borondateak demokrazioaren adierazpena dakarrenez gero. Konstituzioak Administrazioaren tresna-izaera ezarri du, horren zeregina baita herritarren interesak asetzea …'.

*Eta 9. atala adierazpen honekin hasten da:*

'IV. tituluaren idazpurua <Administrazio Publikoen Jarduera> izanik, titulu horrek azalpen esanguratsua jasotzen du, herritarrek administrazio-prozeduretan dituzten eskubideei buruz; herritarrok, halaber, Konstituzioak berak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubideak izango dituzte. Azalpen horrek dakartzan berrikuntzen artean, jarraikoak dira aipagarrienak: agintariak identifikatzeko aukera dago eta, berebat, funtzionarioek prozeduren gaineko izapideak egiten dituztenean, eurak identifikatzeko aukera ere badago. Administrazioaren tradizioa iluntasuna izan arren, iluntasun hori hautsi nahi izan da…'.

*Labur-zurrean, Arartekoak uste du azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35b) artikulua zuzen-zuzenean aplika daitekeela, erakunde honek proposatzen duen esangurarekin. Horretarako, ez da arauaren garapenik behar. Araua garatu gabe egon arren, ez dago inolako eragozpenik, Estatuko Administrazioaz besteko administrazioetan ere, egungo araua interpretaziorako abiaburua izan dadin. Hala eginez gero, herritarren eskubideek babes sendoagoa izango dute, herritarrok euren administrazioekin harremanak dituztenean. Horri guztiari kalterik egin gabe, udalak, bere autonomia erabiliz, arau zehatzak eman ditzake, harako manua garatzeko. Edozein kasutan ere, formula bat erabili zein bestea erabili, manuari ez zaio eragingarritasunik kendu behar, eta badirudi hori gertatu dela aztergai dugun kasuan…".*

Aurreko oharbideei erantzuteko, Getxoko Udalak honako erantzun hau bidali zion Arartekoari:

*"…Lehenik eta behin, Getxoko Udalak adierazi nahi du Udaltzaingoko agenteek, orain dela urte asko, euren identifikaziorako lanbide-zenbakia dutela uniformeetan jarrita. Herritarrek, une oro, bistan dituzte zenbaki horiek, udaltzainen jantziak edozein izanik ere, eta urteko aroa edozein izanik ere.*

*Langileen identifikazioari dagokionez, egia da langile zehatzaren ardurapean dagoela tasa kobratzea, tasa hori ordaindu behar baita, ibilgailua berreskuratu ahal izateko. Halako langileen inguruan, hauxe adierazi behar dizuet: aurton*

*ezarri da, eta aurrerantzean hala izango da, Udaltzaingoko agenteek lan hori burutzea, horretarako uniforme egokia jarriz. Hortaz, langileok identifikatzea oso erraza da. Gaur egun, beraz, ezin da gertatu kexa eragin duen egoera horren modukorik.*
*Bukatzeko, udal honen araua da arlo guztietan etengabeko hobekuntzak burutzea. Horregatik, ahal den neurrian behinik behin, udalak neurri egokiak hartzeko ahaleginak egingo ditu, herritarren eskubideek eragin osoa izan dezaten…".*

Informazio berri hori oinarritzat hartuta, Arartekoak ondorioztatu zuen kexaren alde berezi horrek konponbide egokia izan zuela.

• Emaitza

Arartekoak bere jardunaren berri eman dio erreklamaziogileari. Ondoren, eta goian adierazitako guztia gogoan izanik, Arartekoak amaiera eman dio gai horretan izan duen jardunari. Arartekoaren ustez, administrazio-irregulartasuna konponduta dago, eta ez da beharrezkoa gomendiorik egitea.

⇒ *Hautagai batek osasun-arazoak alegatu zituenez gero, proba psikoteknikoak berriz egin ziren (753/2000)*

• Erreklamazioa

Irungo Udalak lehiaketa-oposizioa iragarri zuen, agiritegiko laguntzaileen plaza bat betetzeko. Parte-hartzaile batek Arartekoarengana jo zuen, hautaketa-auzitegiak hartutako erabakia zalantzan jarriz. Erabaki horren arabera, beste deialdi bat egin zen, oposizio-fasearen hirugarren ariketa (proba psikoteknikoen ariketa) berriz egiteko. Arrazoia zen, hain zuzen ere, hautagaietako batek osasun-arazoak izatea. Erreklamaziogileak kexa azaldu zuen, bere ustez erabaki horrek hautsi egiten zituelako prozesuan bete beharreko printzipio objektiboak, alegia, berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioak.

• Azterketa

Zinez, lehiaketa-oposizio hori arautzen zuten oinarrietan, hurrengoa ageri zen: *"Hautagaiei deialdi bat besterik ez zaie egingo, ezinbesteko kasuetan izan ezik; halako kasuak behar bezala egiaztatuko dira, eta auzitegiak askatasunez balioetsiko ditu".*

Oinarrietan, beraz, agindu hori ageri zen. Agindu horren ondorioz, auzitegiko kideek ahalmen berezia zuten, ezinbesteko kasuak balioesteko, bai eta horiei eman beharreko konponbidea erabakitzeko ere. Probetara aurkezteko ezintasuna, beraz, ezinbesteko kasua izan daiteke auzitegiarentzat, eta berak erabakiko du ea ez aurkezte hori beste deialdi bat egiteko arrazoia den ala ez.

Auzitegiak deialdi bat bakarrik egiten duenean, gerta daiteke hautagaietako bat bertara agertu ezin izatea. Kasu horietan, auzitegiak erabaki bikoitza hartu behar du. Aurrenik, auzitegiak erabakiko du ea ezinbesteko kasutzat har daitezkeen hautagaiak deialdira ez agertzeko alegatu dituen arrazoiak eta inguruabarrak. Eta, hurrenik, auzitegiak uste badu inguruabar horiek ezinbesteko kasutzat har daitezkeela, orduan

erabaki behar du ea beste deialdi bat egin behar den, betiere, hautaketa-prozesuaren ezaugarriek eta prozesu horretan zehar egin beharreko proba zehatzek hori ahalbideratzen dutenean.

Ezin ahantz daiteke, aztergai dugun kasuan eta antzekoetan ere, hamaika interes eta printzipio agertzen direla aurrez aurre. Interes eta printzipio horiek kasuz kasu balioetsi behar dira. Batetik, deialdira agertu ez den hautagaiaren interesak balioetsi behar dira; horrek beste deialdi bat eskatzen du, hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko. Bestetik, gainerako hautagaien interesak balioetsi behar dira; horiei bermatu behar zaie probak erabateko berdintasunez burutzen direla eta ez dagoela hautagai jakin batzuen aldeko traturik. Halaber, eragingarritasun printzipioa izan behar da gogoan, hori ere Konstituzioak ezarri baitu. Eragingarritasun printzipioaren arabera, administrazio publikoek, deialdia egiten dutenean, erabaki egokiak hartu behar dituzte, prozesu ugaritsu horien kudeaketa zuzena izan dadin, guztion interesa baita iragarritako plazak behar bezala eta azkar betetzea.

Hautaketarako auzitegiek edo organo teknikoek aukera edo ahalmen hori dutela onartuta, Arartekoak aztertu egin zituen … andreak, lehiaketa horretan hautagaia zenak, alegatutako inguruabarrak. Arartekoak jakin nahi zuen ea inguruabar horiek ezinbesteko kasutzat har zitezkeen eta, ondorenez, ea bigarren deialdia egitea bidezkoa zen.

Jurisprudentziak behin eta berriz adierazi duenez (besteak beste, Auzitegi Gorenak 1994ko apirilaren 21ean emandako epaia –JE 3.400/1994– eta Madrileko Auzitegi Nagusiak 1998ko ekainaren 3an emandako epaia –AKJE 2.230/1998–), ezinbesteko kasua gertatzen da, gertaera ezin denean aurreikusi edo, aurreikusita ere, ezin denean saihestu.

Alkatetzak emandako informazioari helduta, … andreak ez zuen inolako arazorik izan, auzitegiak test psikoteknikoen ariketarako deialdia egin zuenean, bertara agertzeko.

Behin proba egin eta gero, … andreak alegatu zuen *“buruko blokeo gaindiezina”* izan zuela. Hori justifikatzeko, Donostiako Udaleko Sorostetxeak emandako txostenak erakutsi zituen, bertan presazko laguntza eman ziotelakoan. Txosten horietatik bigarrena 2000ko maiatzaren 16koa zen. Horren arabera, gaixoak medikuaren txostena eskatu zuen; gaixoaren asmoa zen medikuaren txosten horretan agertzea berak zer-nolako laguntza edo tratamendua jaso zuen, test psikoteknikoak egitean izandako ahalmen-galerarengatik. Ahalmen-galera, antza, gaixoak hartutako botikaren ondorioz gertatu zen. Sorostetxearen txostenak hauxe besterik ez zuen adierazi: sendagile jarduleak aurretiaz osasun-txostena eman zuen, eta bertan ageri zen gaixoak takikardia, loezina eta abarreko ondorioak izan zituela, antsietateak eragindako bigarren mailako ondorio gisa.

Edozein modutan ere, aurretiazko txostena maiatzaren 14koa zen eta, bertan, gaixoak berak adierazi zuen *“urduri zegoela, palpitazioak zituela eta lo egin ezinik zebilela, Toki Administraziorako oposizioak egiten ari zelako”*. Adierazpen hori entzundakoan, sendagile jarduleak gaixoa aztertu zuen eta, diagnostiko gisa, gaixoak antsietate-krisiaren sintomak zituela adierazi zuen. Horri aurre egiteko, sendagileak botika berezi bat hartzeko agindu zion gaixoari; botika horretan, ez da inola ere ohartarazten, ezta baieztatzen ere, botika horrek buruko blokeoa eragin dezakeenik, nahiz eta interesdunak blokeo hori alegatu.

Arazo horren inguruan, berriz esan beharra dago sendagileetatik batek ere ez ziola *“laguntza”*rik eman … andreari, Sorostetxeko laguntza jarraituaren zerbitzuan;

bestalde, sendagile horietatik bat bera ere ez da buru-osasuneko espezialista. Bi horietatik batek ere ez zuen onartu, ezta baieztatu ere, buruko blokeo gaindiezina izateko aukera. Hortaz, nekez onar daiteke …andreak alegaturiko arrazoia oinarriduna izatea; nekez onar daiteke, orobat, gertaera hori agindutako botika hartzeagatik jazo zenik edota antsietatearen ondorioa zenik. Gainera, berriz diogu, antsietatea interesdunak deskribatu zuen eta ez, ordea, sendagile jarduleek.

Edozein kasutan ere, azpimarratzekoa da zeri buruzkoa den ezinbesteko kasuaren erakunde juridikoa. Ezinbesteko kasuetan, horien arrazoiak ezin dira aurreikusi edo, aurreikusita ere, ezin dira saihestu. Guretzat interesgarri diren ondorioetarako, halako arrazoiek bultzatu behar dute hautagaia auzitegiaren deialdira ez agertzea. Nolanahi den ere, … andreak ez zuen zailtasunik izan, iragarritako deialdira joateko. Behin proba egin eta gero, eta horren emaitzaz jabetutakoan, … andreak buruko blokeo gaindiezina alegatu zuen.

Gai horri dagokionez, erakundeak egoki iritzi zion Andaluziako Auzitegi Nagusiak emandako irizpena gogoratzeari; irizpen hori 1999ko otsailaren 25ekoa da (AKJE 2.401/1999). Errekurtsogileak bere burua aurkeztu zuen Andaluziako Batzarako oposizio batzuetara. Lehendabiziko ariketa egin eta gero, hautagai hori agertu zen, proba gainditu ez zuten hautagaien zerrendan. Erreklamazioa egin ondoren, lehenengo proba gaindituta zeukala adierazi zioten, bigarren ariketa egin baino hogeita lau ordu lehenago. Hautagaiak bigarren ariketa egin zuen, baina ez zuen hori gainditu. Gerogarrenean, auzitegiari nolabaiteko pribilegioa eskatu zion, lehenengo azterketa kalifikatzeko unean errakuntza izan zelako eta, ondorenez, hautagai horrek besteek baino denbora gutxiago izan zuelako, bigarren azterketa ikasteko; interesdunaren ustez, hori izan zen, hain zuzen ere, bigarren azterketa ez gainditzeko arrazoi nagusia.

Eskariaren tesia hori izanik, Andaluziako Auzitegi Nagusiak hurrengoa adierazi zuen:

> *"Auzi-jartzaileak pribilegiozko tratua eskatu du, bigarren azterketa egin eta, horretan, gutxi atera eta gero. Datu hori ezin da bazter utzi. Auzi-jartzaileak ez zuen inolako protestarik egin, bere burua bigarren ariketa horretara aurkeztu zuenean; horrekin onartu zuen hori egiteko parada edo egokiera zuela. Gerogarrenean, gutxi ikusitakoan, erreklamazioa egin du; baina erreklamazio hori ez da bidezkoa, eskatutako pribilegioak zuzeneko lotrak dituelako proba horretan ateratako emaitza negatiboarekin.*
> *(…) Zuzenbidearen esparruan, eskatzailearen erreklamazioa salbuespenekoa izan beharko litzateke eta, salbuespeneko izaera horren ondorioz, ezinbesteko kasutzat hartu beharko litzateke, pribilegiozko tratua justifikatu ahal izateko; horrek berarekin ekarriko luke azterketa berriz egitea eta ez, ordea, azterketa gaindituzat jotzea. Edonola ere, aztergai dugun kasua ezin da inola ere ezinbesteko kasutzat hartu. Zinez, auzi-jartzailearen egoera zoritxarrekoa da, kaltegarria delako. Baina egoera horrek ez du behar besteko garrantzirik, ezinbesteko kasutzat jotzeko, nahiz eta kontzeptuaren interpretazioa ahalik eta onuragarriena izan."*

Arartekoaren aburuz, kexa eragin duen kasuak eta Andaluziako Auzitegi Nagusian aztertutakoak antzekotasun handiak dituzte. Horregatik, Arartekoak zentsura egin zion auzitegi kalifikatzaileak hartutako erabakiari. Lehiaketa-oposizio horren bitartez, gorago

esan bezala, agiritegiko laguntzaileen plaza bat bete beharra zegoen eta, test psikoteknikoen probak egiteko, bi deialdi egin ziren. Bigarren deialdia egiteko erabakiak ez zuen babes juridikorik. Izan ere, … andreak egoera zehatza alegatu zuen, baina egoera hori ezin da ezinbesteko kasutzat jo. Hautaketa-prozesuaren oinarriei helduta, auzitegiak beste deialdi bat egiteko erabakia har dezan, nahitaezkoa da ezinbesteko kasua gertatzea, eta aztergai duguna ezin da hala kalifikatu.

• Emaitza

Arartekoak gomendioa egin zion Irungo Udalari. Gomendioaren arabera, Irungo Udalak neurri egokiak hartu behar zituen, bigarren deialdia berriskusteko eta hori ezerezean uzteko. Esan bezala, auzitegi kalifikatzaileak bigarren deialdi hori antolatu zuen, agiritegiko laguntzaileen plaza bat betetzeko, lehiaketa-oposizioaren bitartez. Bigarren deialdiaren ondorioz, berriz errepikatu behar zen oposizio horretako hirugarren ariketa, alegia, test psikoteknikoei zegokiena. Horrela, hautagaiak lehenengo deialdira agertu eta gero, hautaketa-prozesuan aurrera eginez gero, guztiak ere berriro aurkeztu beharko ziratekeen.

Irungo Udalak ez zuen onartu Arartekoak egindako gomendioa.

### C) **Irakaskuntzako funtzio publikoa**

⇒ *Jakina denez, unibertsitateaz besteko sare publikoan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide-heziketarako institutu zehatzak. Bada, institutu horietako irakasleak birbanatzeko prozesua burutu da (174/2000)*

• Erreklamazioa

Esan bezala, unibertsitateaz besteko sare publikoan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide-heziketarako institutu zehatzak. Bada, institutu horietako irakasleak birbanatzeko prozesua burutu da, urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuaren aginduz (EHAO, 14. zk., urtarrilaren 21ekoa). Irakasle-funtzionario batzuk prozesu horren aurka agertu dira.

• Azterketa

LOGSE izeneko legea indarrean jartzeaz geroztik, hezkuntzako eraldaketa burutu da. Era berean ere, euskal hezkuntza-sistemak bilakaera edo garapena izan du. Horrek guztiak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu, bigarren hezkuntzako zentroetan.

Aldaketa horien ondorioz, batetik, espezialitate berriak ezarri dira; espezialitate horiek nahitaezko abiaburuak izango dira, bigarren hezkuntzako irakasleak eta lanbide-heziketarako irakasle teknikoak atxikitzeko. Bestetik, gero eta ikasle elebidun gehiago daude, bigarren hezkuntzako zentroetan; beste modu batera esateko, ikasleon gizarte-hizkuntzazko errealitatea aldatu egin da. Ondorenez, eredu elebidunen gaineko hezkuntza-eskariak gora egin du.

Urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuak irakasleak birbanatzeko prozesua arautu du, unibertsitateaz besteko sare publikoari dagokionez; esan bezala, sare horretan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta goi lanbide-heziketarako institutu zehatzak. Bada, dekretu horren zioen azalpenak baieztatu duen bezala, ikuspegi

ezezaguna sortu da, hezkuntzako maila horretan. Horregatik, Hezkuntzako Administrazioak bere plantilak egituratu behar ditu, espezialitate berriak eta hizkuntz eskakizun berriak gogoan izanik.

Hezkuntzako beharrizan berri horiei, beraz, erantzun egokia eman behar zaie. Horretarako eta, batez ere, objektibotasunez eta zuhurtziaz jokatzeko, berebiziko ahaleginak egin behar dira. Egin-eginean ere, beharrizan berriei emandako erantzunak ondorio garrantzitsuak izan ditzake, hezkuntzako esparruaren bestelako arloetan ere; besteak beste, eragina izan dezake, hizkuntz aldaketen ondorioak jasan behar dituzten irakasleengan. Edozein modutan ere, Hezkuntzako Administrazioaren eskumena da erabaki egokiak hartzea, plantilen berregituraketa jarraian aztertuko ditugun antolaketa-tresnen bitartez gauza dadin.

Lehenengo eta behin, edonork dakien bezala, lanpostuen zerrenda berri bat ezarri behar da. Zerrenda berri horrek barneratu behar ditu, batetik, LOGSE izenekoaren ondoriozko espezialitate berriak eta, bestetik, ikasle elebidunek behar dituzten hizkuntz eskakizunak; gogoan izan behar da halako ikasleak gero eta gehiago direla.

Bigarren hezkuntzaren arloan, beraz, irakasleen lanpostuei buruz katalogazio berria egin behar da. Horretarako gaikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio. Izan ere, administrazio horrek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren proposamenari so eginez, bere lanpostu zerrendak finka ditzake, zerrendok tresna egokiak baitira, barneko egiturak arrazionalizatu eta antolatzeko, eta langileen beharrizanak zehazteko. Bestalde, lehenago aipatutako gaikuntza zertan datzan jakiteko, arestiko testu batzuetara jo daiteke. Testu horien artean aipa daiteke, adibidez, urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretua. Horrek bigarrenez aldatu du aurreko dekretu bat, aurreko horrek ezarri baitizuten hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak eta irakasleen lanpostuetako nahitaezko datak.

Lanpostuen zerrenda ezartzea, beraz, ezinbesteko aurrekaria da. Horren ostean, eta bigarren lekuan, edonork daki irakasleen berrantolaketa edo birbanaketarako prozesua gauzatu behar dela. Prozesu horren bitartez, irakasleon atxikipena zehaztu eta sortutako plazak finkatuko dira, betiere, espezialitate berriak, hizkuntz eskakizunetan izandako aldaketak eta nahitaezko datak gogoan izanik.

Berrantolaketa edo birbanaketarako prozesu hori 7/2000 Dekretuaren bitartez onetsi da. Egiatan, prozesu konplexua izango da. Gure iritziz, prozesuaren helburu nagusietatik bat da irakasleen eskubideei kalterik ez egitea. Helburu horrek eragiten du, hain zuzen ere, prozesuaren konplexutasuna.

Arean bere, birbanaketa-prozesua aurrera eramateko, mailaz maila eta elkarren segidan, honako fase hauek bete behar dira:

Lehenengo fasea. Fase horretan, irakasle guztientzat espezialitate eta hizkuntz eskakizunengatik dagozkien postuak finkatzen dira; horretarako beharrezkoa da, zentzuzkoa denez, lanpostuen zerrenda berrian nahitaezkoak diren zuzkidurak izatea.

Bigarren fasea. Fase horretan, honako azpifase hauek gertatu behar dira, hurrenkera honetan gainera:

* 2. hizkuntz eskakizuneko plazetan, borondatezko berratxikipena;
* langileen nahitaezko berratxikipena, langileon plazetan hizkuntz eskakizuna aldatu denean eta aldaketa horrek haiengan eragina duenean;
* espezialitate berrietako postuetan, borondatezko berratxikipena;
* izaera mistoko postuetan, borondatezko berratxikipena.

Prozesuaren fase eta txanda guztietan (bai eta lekualdaketa zehazteko unean ere), irakasleen arteko antolaketa egingo da, baremo bat bakarrik erabiliz. Baremo horrek zentroan irauteari lehentasuna ematen dio; baina ez du kontuan hartzen LOGSE izenekoa indarrean jarri eta gero eskuratutako katedradun-egoera.

Puntu horretara helduta, irakasleek kexa azaldu dute, ez dutelako uste prozesuak behar besteko babes juridikoa duenik eta, beraz, ez dutelako uste prozesua bera bidezkoa denik. Arazo horrentzat konponbidea bilatu aurretik, nahitaezkoa da zenbait arau aipatzea, eta horrexeri ekingo diogu jarraian:

LOGSE izenekoaren bederatzigarren xedapen gehigarriak adierazi duenez, lege horretan hainbat agindu jaso dira eta, horietako batzuetan, lekualdaketen lehiaketa arautu da, hori Estatu osoan postuak betetzeko erabili behar denerako; bada, agindu horiek irakasle-funtzionario publikoen estatutu-araubidea osatzen dute. Zehatzago, xedapen horren laugarren puntuak honako adierazpen hau barneratzen du:

> *"Aldian-aldian, hezkuntzako administrazio eskudunek lekualdaketen lehiaketarako deialdia egingo dute, Estatu osoari dagokionez; izan ere, administrazio horien menpeko irakaskuntza-zentroek zehaztuko dute zein plaza dagoen hutsik eta, plaza horiek guztiak betetzeko, lehiaketarako deialdiak egingo dira. Deialdi horietan, irakasle-funtzionario publiko guztiek parte har dezakete, horiek zein hezkuntza-administrazioren menpekoak diren edo zein administraziotatik sartu diren aintzakotzat hartu gabe. Horretarako, irakasle-funtzionario horiek baldintza orokorrak eta bereziak bete beharko dituzte; baldintzok deialdietan bertan agertuko dira, lanpostuen zerrenda zehatzak kontuan hartuta. Deialdiak 'Estatuko Aldizkari Ofizial'ean eta deialdia egin duten autonomia-erkidegoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko dira. Deialdiotan, baremo bat bakarrik ezarriko da, merituen baremoa, hain zuzen. Baremo horretan, aintzakotzat hartuko dira, besteak beste, heziketako ikastaroak, hobekuntzako ikastaroak, antzinatasuna eta, hala denean, katedradun izatea, bai eta katedra horren antzinatasuna ere."*

LOGSE izenekoak, beraz, lekualdaketen lehiaketarako deialdia arautzen du, Estatu osorako. Lanpostuak betetzeari dagokionez, LOGSE izenekoak ez du beste agindurik ezartzen. Horregatik, arauketa horren osagarri gisa, uztailaren 12ko 24/1994 Legea aipatu behar da, lege horrek lanpostuak betetzeko arauak ezartzen baititu. Lege horrek beren beregi aitortzen du hezkuntzako administrazioek aukera dutela, euren ustez egoki diren prozesuak antolatzeko; prozedura horien bitartez, lanpostuak beteko dira, eta arlo horretan somatutako beharrizan zehatzei aurre egingo zaie. Ildo horretatik, Legearen 1. artikuluak hauxe xedatu du:

> *"Eskola-ikasturtean zehar, Estatuko esparru osoari begira ez bada lehiaketarik egin (...), orduan Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, eta autonomia erkidegoetako organo eskudunek ere, lanpostuak betetzeko prozedurak antola ditzakete; horretarako, autonomia erkidegoetako organoek beren hezkuntza-eskumen guztiak izan behar dituzte eta, gainera, halako prozedurak haiei dagozkien lurralde-eremura mugatu behar dira. Horri guztiari kalterik egin gabe, eta une orotan, ministerioak eta organo horiek euren menpeko langileak birbanatzeko edo berrenplegatzeko prozesuak egin ditzakete."*

Hortaz, legeak onartzen du hezkuntzako administrazioek prozedura zehatzak antolatzea, lanpostuak betetzeko; prozedura horiek eta Estatuko esparru osoan egindako lekualdaketa-lehiaketak desberdinak dira. Era berean ere, hezkuntzako administrazioek euren langileak birbanatzeko edo berrenplegatzeko prozedurak burutu ahal dituzte, euren ustez halakoak beharrezkoak badira. Ahalmen horren inguruan, aitorpen formala jaso du legeak. Hala izan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.4 artikuluak eskumen esklusiboen artean sartzen baitu funtzio publikoa. Dena den, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan ezarritakoak eskumen esklusibo hori malgutzen du, Estatuak ezartzen dituelako arlo horretako oinarriak.

Erregelamenduei ekinez, urriaren 2ko 2.112/1998 Errege Dekretuak lekualdaketen lehiaketak arautzen ditu, Estatuko irakasleen plazak betetzeko. Estatu osoaren esparru horretan, eta irakasleen plazak betetzeko lekualdaketa-lehiaketei dagokienez, errege dekretu horrek hainbat gorabehera arautzen ditu eta, gorabehera horien artean, merituen baremoa aipa daiteke. Arauketa horrek oinarrizko izaera du, eta bete beharrekoa da hezkuntzako administrazio guztientzat. Errege dekretuak, halaber, antzeko erakundeak arautzen ditu, hala nola, zerbitzuen komisioa, horrek autonomia erkidegoa aldatzea edo trukatzea dakarrenean. Bukatzeko, errege dekretuak eskubide berezia aitortzen die bigarren hezkuntzako irakasleei eta lanbide-heziketarako irakasle teknikoei; horiek espezialitate berriak eskuratu badituzte edota euren plazak kendu bazaizkie edo lekuz aldatu badira, halakoek lehenespeneko eskubidea dute, euren zentroan bertan destino berri bat lortzeko.

Bestalde, 2.112/1998 Errege Dekretuak irakasleen antolaketarako irizpideak ezarri ditu, adibidez, plazak ezabatzen direnerako. Alabaina, irizpide horiek ez dute oinarrizko izaerarik; aitzitik, izaera ordeztailea besterik ez dute, autonomia erkidegoek arautegi zehatza ezartzen ez dutenean bakarrik aplikatzen direlako.

Azkenik, 2.112/1998 Errege Dekretuaren hamabosgarren xedapen gehigarriak beren beregi baimena ematen die hezkuntzako administrazioei, irakasleen birbanaketarako irizpideak eta prozedurak ezartzeko. Halakoak aplikatu beharko dira, derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa, batxilergoa eta lanbide-heziketa ezartzean, eta administrazio bakoitzak zehaztuko du hori egiteko modua.

Aipatutako arau guztiak eta urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuaren bidez onetsitako birbanaketa-prozesua elkarrekin alderatuz gero, Arartekoak uste du honako ondorio hauek atera daitezkeela:

1- Lehenengo fasean, ahal izanez gero behintzat, irakasle guztientzat euren espezialitate eta hizkuntz eskakizunengatik dagokien postuak finkatuko dira. Prozesu hori, argi dagoenez, berrantolaketarako prozesua da, eta ez du arazo berezirik sortzen. Benaz, lekualdaketak zehazteko orduan zein irizpide aplikatu behar den jakiteko, arazoak izan daitezke, eta laugarren puntuan arazo horien azterketari ekingo diogu.

2- Bigarren fasearen 1. txandan, honako agindu hau ezarri da: espezialitatearen barruan, lanpostu batzuk hutsik badaude, orduan kontuan hartuko da hasierako fasean zein irakaslerentzat ez den posturik finkatu, berari dagokion hizkuntz eskakizunean ez zegoelako behar besteko lanposturik; egoera horretan diren guztien artean aukeratuko dira, hain zuzen ere, hizkuntz eskakizuna aldatzearen ondorioak jasan behar dituztenak. Kasu horretan argi dago transformazio-prozesua gertatzen dela. Horren ondorioak martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak ezarri ditu;

dekretu horri “eskakizunen dekretu” deitu zaio. Beraren arabera, irakasle bat plaza jakin bati atxikitzeko, nahitaezkoa da, epe egokiaren barruan, hizkuntz eskakizuna egiaztatzea.

3- Bigarren fasearen beste txanda guztietan, lanpostu berriak direnez gero, horiek bete beharra dago. Hori kontuan hartuta, badirudi birbanaketa-prozesua baino gehiago, postuak betetzeko prozesua dela. Horrek berarekin ekar dezake gainerako interesdunen eskubideak urratzea, horiek ere interesa baitute hutsik dauden postu horiek eskuratzeko.

Hala eta guztiz ere, gorago esan dugun bezala, Estatuko oinarrizko arautegiak behar adinako babes juridikoa ematen die destino-aldaketei, prozesuaren bigarren fasean halako aldaketak gertatzen baitira. Arartekoaren iritziz, aldaketa horiek aplikatu besterik ez dute egiten 2.112/1998 Errege Dekretuaren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako lehenespen-eskubidea.

4- Antolaketarako irizpideen inguruan, berriz diogu Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioak ahalmena duela bere irizpideak finkatzeko, nahiz eta horiek eta Estatuko arautegian ezarritakoak desberdinak izan; egin-eginean ere, estatuko irizpideek ez dute oinarrizko izaerarik arlo horretan. Gainera, antolaketarako irizpideak nahierarakoak izan arren, horrek ez du esan nahi azkenean erabakitako irizpideek behar besteko motibaziorik izango ez dutenik. Bide horretatik, 7/2000 Dekretuaren zioen azalpenak adierazten du komeni dela bi printzipio hauek bateratzea: batetik, irakaskuntzan lortutako antzinatasuna, printzipio horri aspalditik garrantzi handia eman baitzaio; eta, bestetik, plantilen egonkortasuna, printzipio hori hamaika aldiz aldarrikatu izan delako. Azkenean, ordea, lehentasuna eman zaio egungo klaustroen egonkortasunari. Zioen azalpen horretan ere, katedradun izaerari dagokion arauketa jaso da (izaera hori LOGSE izenekoa indarrean jarri baino lehen lortuz gero, orduan kontuan hartu beharrekoa da). Arauketa horrek, gainera, Auzitegi Gorenaren oniritzia jaso du.

5- Bukatzeko, lekuz aldatutako irakasleei dagokienez, 7/2000 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak hauxe adierazi du: lekuz aldatutako irakasleek euren zentroan izango dute behin betiko destinoa eta, eurek hala nahi izanez gero, irakasleen postuak betetzeko antolatzen diren prozeduretan parte har dezakete, halakoetarako deialdia egiten denean; prozedura horietan, ezabatutako postuen titularrei dagokien arauketa aplikatuko zaie haiei ere. Bien bitartean, irakasleok irakaskuntzan arituko dira euren zentroetan, betiere, euren espezialitateari berezko zaion ordutegi-beharrizana izanez gero. Ez badago behar besteko ordutegirik, orduan beste zentro bati atxikiko zaizkio irakasleok, baina behin-behinean bakarrik.

Edozein modutan ere, eta Dekretuak berak adierazten duenez, irakasleek aukera dute, euren postua ezaba dadin eskatzeko. Izan ere, hori nahi duenak beste destino bat lortzeko borondatea adieraziko du eta, horrela, lehenago sartuko da, behin betiko gainera, hezkuntzako erkidego batean. Ez zaio aukera hori aitortzen, ordea, lekuz aldatutako irakasleari; hori, urte batzuetan, bere zentroan egon daiteke eta beste batzuetan, aldiz, beste zentro batzuetan egon daiteke, ordutegi-eskakizunek hala ondorioztatzen dutelako.

Bestalde, 2.112/1998 Errege Dekretuaren arabera, ezabatzeari buruz berariazko adierazpena ematearen ondorioz, lekuz aldatutako irakasleei lehenespeneko eskubidea aitortzen zaie, beste edozein hautagairi begira, zentro berean beste edozein postu eskuratu ahal izateko. Aldi berean ere, eta dekretu berberari helduta, hezkuntzako administrazioek baldintza zehatzak finkatuko dituzte, postuak betetzeko prozeduretan, lekuz aldatutako irakasleei eta ezabatutako postuen titularrei arauketa bera aplika dakien.

Bien bitartean, hau da, irakasleok euren borondatez lanpostuak betetzeko prozeduretan (hots, lekualdaketen lehiaketetan) parte hartu, eta lehenespenez beste destino bat eskuratzen ez duten bitartean, ziur asko euren destinoko zentroan ordutegia askieza izango da haien espezialitatean. Ondorenez, lekuz aldatutakoak direnez gero, behin-behinean beste destino batzuetara atxikita geratuko dira, berbarako, ikasturtearen hasieran postuak betetzeko egin ohi diren prozeduren bitartez.

• Emaitza

Arartekoak ezin du bere iritzia azaldu egokierako irizpideei buruz. Hori bazter utzita, Arartekoak ez du zantzurik antzeman, legezkotasuna urratu dela edota eskubideak hautsi direla adierazteko; horrek justifikatuko luke Arartekoak esku hartzea, irakasleen birbanaketa prozesuari dagokionez. Jakina denez, birbanaketa hori unibertsitateaz besteko sare publikoan gertatu da, eta sare horretan koka daitezke bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide-heziketarako institutu zehatzak.

⇒ *Bitarteko funtzionarioak. Eszedentzia eskatzea, seme-alabak edo senideak zaintzeko (557/2000)*

• Erreklamazioa

Bitarteko irakasle-funtzionario batek, egonkortasun-itunean sartuta ez zegoenak, Arartekoarengana jo zuen, Hezkuntzako Administrazioak eszedentzia ukatu ziolako, hark bere seme-alaba txikiak zain zitzan.

• Azterketa

Uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuak arautu ditu unibertsitateaz besteko irakasle-funtzionarioen lan-baldintzak. Dekretu horren bidez onetsitako hitzarmen arau-emailearen 33.6 artikuluak honako hau adierazten du: *"Alderdien asmoa da bitarteko langileen lan-baldintzak hobetzea. Horretarako, legezko xedapenekin bat etorriz, eta eskura dauden baliabideak erabilita, bitarteko langileen lan-baldintzak ahalik eta gehien hurbildu nahi zaizkie karrerako langile-funtzionarioen baldintzei. Egin-eginean ere, baldintza horiek zenbat eta hobeak izan, orduan eta kalitate handiagoa izango du hezkuntzako sistemak berak."*

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak epaia eman zuen 1999ko abenduaren 20an (KAE, 240/1999). Kasu horretan, bitarteko mediku batek borondatezko eszedentzia eskatu zuen, bere alaba zaintzeko, eta eszedentzia hori ukatu zitzaion. Konstituzio Auzitegiak, kasuaren inguruan, jarraiko adierazpena egin zuen:

> *"Lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da zergatik aitortzen zaien langileei borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea, horiek euren seme-alaba txikiak zaindu nahi dituztenean. Argi dago eskubidea aitortzeko arrazoia Konstituzioak berak eratortzen duela. Izan ere, Konstituzioaren arabera, gurasoen eginbeharra da seme-alabei, adingabetasunean zehar, orotariko laguntzak ematea (EKren 39.3 art.). Gurasoek eginbehar hori bete dezaten, lagungarri gertatzen da, hain zuzen ere, eszedentzia eskatzeko eskubidea. Gainera, gizarte-politikaren printzipio artezkaria da botere publikoek familiaren gizarte-babesa ziurtatzea (EKren 39.1. art.). Printzipio hori eragingarria izan dadin, lagungarri gertatzen*

*da, berebat, eszedentzia eskatzeko eskubidea. Hortaz, eszedentzia eskatzeko eskubideak jatorri berezia du, Konstituzioko printzipioek eta eskakizunek eratortzen baitute eskubide hori. Egiatan, Espainiako Konstituzioak ez du inon ezartzen herritarrek borondatezko eszedentzia lortzeko eskubidea dutenik, euren seme-alabak zaintzeko. Era berean, Konstituzioa aintzat hartuta, ezin da ukatu legegileak aukera duela eskubide hori Administrazioko langile jakin batzuei aitortzeko. Legegileak eskubide hori aitor diezaieke egonkortasunez Administrazioan lan egiten dutenei, eta eskubidea uka diezaieke, ordea, presarengatik edo zerbitzuaren beharrizanarengatik Administrazioan behin-behinean bakarrik lan egiten dutenei; behin-behinekotasun hori luzatuko da, harik eta karrerako funtzionarioek postuak bete arte. Zinez, guztion interesa da zerbitzua presaz egitea. Interes horrek, hipotesi gisa bederen, erabakia justifika dezake. Erabaki horren arabera, norbaitzuek plantilako plazak betetzen badituzte behin-behinean, orduan ezin dituzte plaza horiek aldi baterako hutsik utzi, nahiz eta uzte hori bidezkotuta egon, Konstituzioarentzat garrantzitsuak diren ondasunak edo balioak betetzen dituelako; ondasun edo balio horien artean aipa daitezke, konparazio baterako, seme-alabak zaintzea eta familia babestea.*

*Tratu desberdina egiteak, beraz, nolabaiteko oinarria izan dezake. Hala eta guztiz ere, oinarri hori ezerezean geratzen da, Konstituzioaren ikuspegitik bertatik, eta hori da orain interesatzen zaiguna. Hala gertatu da, errekurtsogileari tratu desberdina aplikatu zaionean, nahiz eta bost urte baino gehiago izan, errekurtsogileak Administrazioarekin zerbitzu-harremanak dituenetik. Kasu horretan, errekurtsogileari borondatezko eszedentzia ukatu zaio. Horretarako arrazoiak izan dira, batetik, errekurtsogileak Administrazioarekin aldi baterako eta behin-behineko funtzionario-harremanak izatea; eta, bestetik, zerbitzua egiteko beharrizana eta presa. Bi ezaugarri horiek berezko zaizkio bitarteko funtzionarioen legezko arauketari. Baina, aztergai dugun kasuan, horiek aplikatzea guztiz formalista gertatzen da. Begi-bistan dago eszedentzia-eskubidea ukatzea, kasu horretan, neurriz kanpokoa dela. Arean bere, eskubide batzuek zuzeneko loturak dituzte, Konstituzioaren babesa duten ondasunekin. Baina, zenbait kasutan, behar besteko arrazoiak izan daitezke, halako eskubideen titulartasuna ukatzeko. Aztergai dugun kasuan, ordea, ezin da halakorik onartu eta, ondorenez, kasu horretan ezin da tratu-bereizkeriarik egin, Administrazioaren zerbitzupeko bi langile-moten artean.*"

Arartekoaren lehenengo jarduna izan zen Hezkuntzako Administrazioari iritzia eskatzea, horrek erreklamaziogilearen eskaria onartuko zuen ala ez jakiteko. Eskari horri erantzuna emanez, Hezkuntza Saileko Langileen Kudeaketarako zuzendariak nabarmendu zuen kudeaketaren arloan hainbat zailtasun sor zitezkeela, epaileen erabaki hori praktikan aplikatuz gero. Ezin uka daiteke epai horrek berrikuntza garrantzitsua dakarrela, eta ez litzateke zentzuzkoa izango horrek sortarazten dituen galderak eta zalantzak ukatzea. Gelako magistratuetatik batek, gainera, boto berezia eman zuen erabakiaren aurka, eta boto horretan igar daitezke halako galdera eta zalantzak. Zehazteke dago, esate baterako, behin-behinekotasuna zenbat luzatu behar den, eszedentzia eskatzeko eskubidea izan dadin.

Nolanahi den ere, Konstituzio Auzitegiak geroago aukera izan zuen, gai berberari buruz bere iritzia emateko. Hala egin zuen, 2000ko uztailaren 24ko 203/2000 epaian. Bigarren adierazpen horretan, Konstituzio Auzitegiak 1999ko abenduko ondorio berberak plazaratu ditu. Ondorio horien azalpenari ekinez, halako kasuetan urratu egiten da EKren 14. artikulua. Arean bere, eskubide jakin batzuek Konstituzioaren babesa (eta, zehatzago, EKren 9.2 eta 39.1 artikuluen babesa) dute eta, aztergai dugun kasuan, eskubide horietako bat ukatu egin da. Ukatzeko arrazoiak izan dira, hain zuzen ere, lan-harremanen behin-behinekotasuna, eta zerbitzua emateko beharrizana eta presa. Gainera, kasu horretan, zeharkako bereizkeria burutu da, sexua kontuan hartuta.

Ondorenez, Konstituzio Auzitegiaren iritzia sendoa da, behin baino gehiagotan errepikatu delako. Arartekoak herritarren eskubideak defendatu eta babestu behar dituenez gero, bat egin behar du Konstituzo Auzitegiak egindako hausnarketa horrekin.

Berriz ere diogu jakin badakigula ekimen hori abian jartzeak zailtasunak ekar ditzakeela kudeaketaren arloan. Izan ere, senideak zaintzeagatik, eszedentzia eskatzeko eskubidea aitortu beharko litzaieke bitarteko funtzionarioei ere, nahiz eta horiek egonkorrak izan ez. Zailtasun horiek gainditzeko ahaleginean, Arartekoak uste du jarraikoa azpimarratu behar dela: azaroaren 5eko 39/1999 Legeak idazkera berria izan du, langileen familia-bizimodua eta lan-bizimodua batera daitezen sustatzeko. Lege horrek, senideak zaintzeagatik, eszedentzia eska daitekeela aitortzen du. Horrek berarekin dakar egoera horretan emandako denbora zenbatzea hirurtekoen ondorioetarako, eta langilearen gradua eta eskubide pasiboak sendotzeko. Lehendabiziko urtean zehar, eszedentzia eskatu duenak erreserbatuta dauka lanpostua. Behin epe hori igarotakoan, eszedentziadunak erreserbatuta dauka, herri berean, postu bat, maila eta soldata berberekin. Azken finean, eta erraz-erraz esateko, eszedentzia emateak berarekin dakar egoera horretan emandako denbora zenbatzea, antzinatasunaren ondorioetarako eta, zati batez behintzat, postua erreserbatzeko ere.

Horregatik, gure iritziz, bada modurik Konstituzio Auzitegiaren arestiko doktrina betetzeko eta, aldi berean, Hezkuntzako Administrazioaren kudeaketa-beharrizanak asetzeko. Horretarako, nahikoa izango litzateke eszedentziak urtero-urtero ematea, behar bezala egiaztatzen bada bitarteko funtzionario ezegonkor hori prest egon dela, hutsik dagoen postu bat betetzeko, ikasturte-hasierako enplegatze-prozesuan. Hasieran emandako eszedentzia ikasturtez ikasturte luzatuko litzateke, eszedentziako gehieneko epea agortu arte, betiere, bitarteko funtzionarioak bere izaera horri eutsiz gero.

• Emaitza

Arartekoak gomendioa luzatu dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Gomendioaren arabera, sail horrek neurri egokiak hartu beharko lituzke, bitarteko funtzionario ezegonkorrek eszedentzia eskatzeko eskubidea izan dezaten, euren senideak zaindu ahal izateko.

Halaber, Arartekoak, hasierako esku-hartze hori osatzeko, ofizioz espedienteak ireki ditu, espedienteok beste toki administrazio batzuei, foru administrazioei eta funtzio publikoaren bestelako arloei (orokorrak nahiz osasunekoak) bidaltzeko.

Txosten honen prestaketa bukatzeko unean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak trabak jarri ditu, Arartekoak egindako gomendioa onartzeko. Gainerako administrazioetan, esan bezala, ofizioz hasi da Arartekoaren jarduna. Administrazio

horiek, ordea, ados agertu dira, bitarteko langileek ere senideak zaintzeagatik eszedentzia eskatzeko aukera izan dezaten.

⇒ *Irakasle-funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketa. Destinoko kodeak zehazteko orduan, errakuntzak izan dira (817/2000)*

• Erreklamazioa

Irakasle-funtzionario batek kexa-idazkia bidali zion Arartekoari. Irakasle horrek lekualdaketen lehiaketa batean parte hartu zuen, euskal hizkuntza eta literaturari dagokion espezialitatean; 2000ko martxoaren 21eko Aginduak iragarri zuen lehiaketa hori (EHAO, hilaren 28koa).

Kexa jartzeaz gain, administrazio-bidean ere irakasleak errekurtsoa jarri zuen. Horren guztiaren arrazoia izan zen Administrazio Publikoen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan ezarritakoa aplikatzea, eskabideak ongitu eta hobetzeari dagokionez.

Izan ere, interesdunak bere partaidetza-eskabidean destinoko kodeak zehaztu zituenean eta, bereziki, hizkuntz eskakizunari dagokion laukitxoan destinoko kodea zehaztu zuenean, 2. zk. jarri zuen, D letra jarri beharrean. Akats hori ongitzea ezinezkoa zenez gero, destino-eskarian amore eman zuela uste izan zuen Administrazioak.

• Azterketa

Arartekoak laguntza eskatu zion Hezkuntzako Administrazioari. Arartekoak jakin nahi zuen ea zein tratamendu emango zitzaion interesdunak jarritako errekurtsoari eta zein arrazoitan oinarrituko zen tratamendu hori.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erantzuna luzatu zion Arartekoari. Erantzunaren arabera, lekualdaketen lehiaketari buruzko oinarriak aplikatu behar ziren. Oinarri horiei helduta, eskabidea ezin zen ezeztatu edo aldarazi, hori aurkezteko epea igaro eta gero. Izan ere, *"prozedura horretan, elkarlehia gertatzen da, eta horri deialdian bertan ezarritako arauak aplikatzen zaizkio. Gainera, arazoetatik bat besterik ez da legearen 70. artikuluan ezarritako betekizunetatik bat bete ez eta hori ongitzea. Horrez gain, oinarriak eurak urratu dira, horiek deialdipeko plazak nola eskatzen diren arautzen dutenean."* Hezkuntzako Administrazioak, beraz, hauxe ulertu zuen: *"Deialdiaren oinarrietan beren beregi jasotzen da nola eskatu behar diren deialdipeko plazak. Inprimakia okerretara betez gero, horren ondorioa ez da hautagaia hautaketa-prozesutik kanpo geratzea, baizik eta hautagai horri berak eskatutako plazak ez adjudikatzea".*

Arartekoaren iritzia, haatik, bestelakoa zen. Arean bere, gure ustez, funtzionarioak bazuen kexa egiteko arrazoirik. Horregatik, Arartekoak bere desadostasuna arrazoitu eta oinarritzeko, egoki iritzi zion 579/1999 epaiaren zati bat gogoratzeari. Epai hori Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak eman zuen, 1999ko ekainaren 4an (AKJE, 2.726/1999). Epai horretan aztertutako arazoa eta aztergai duguna antzekoak dira. Epaiaren kasuan ere, bigarren hezkuntzako irakasle-funtzionario batek parte hartu zuen, lekualdaketen lehiaketa batean; baina ez zuen bete "ama-hizkuntza"ri dagokion laukitxoa. Azaldutako eztabaidari buruz, Auzitegi Nagusiaren Gelak honako adierazpen hau egin zuen:

*"Argitu beharreko arazoa da ea errekurtsogileari epe bat eman behar zaion, eskabidea ongitzeko aukera izan dezan.*
*30/1992 Legearen 70.4 artikuluaren arabera (KEL 1992\2512, 2775 eta KEL\1993\246), administrazio publikoek eskabideen eredu eta sistema normalizatuak ezarri behar dituzte, prozedura horietan ebazpen ugaritsua hartu behar denean, beste hainbat prozedurari buruz. 30/1992 Legearen 71.1 artikuluak, bestalde, 'eskabidea ongitu eta hobetzea' izenburua du. Bertan, hauxe ezarri da: 'prozedura hasteko eskabideak ez baditu betetzen aurreko artikuluan ezarritako baldintzak eta, hala denean, aplikagarri den legeria berezian ezarritakoak, orduan interesdunari eskatuko zaio, hamar eguneko epean, okerra zuzen dezan edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan; interesdunari adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean amore eman duela uste izango dela eta, beste izapiderik egin gabe, eskabidea artxibatuko dela, 42. artikuluan ezarritako ondorioekin'. Hautaketa-prozesuak edo elkarlehia dakartenak ez daude 30/1992 Legearen 71.1 artikuluko agindutik kanpo. Horixe atera daiteke, berebat, 30/1992 Legearen 71.2 artikulutik ere, horrek epea luzatzeko aukera ukatzen baitu halako prozeduretan.*
*Hortaz, 30/1992 Legeak ez du salbuespenik egiten, hautaketa-prozesuekin edo elkarlehia dakarten prozesuekin; hau da, prozesu horiek eredu edo sistema normalizatuen bitartez gauzatzen direnean, ez dira geratzen 30/1992 Legearen 71.1 artikuluko aplikazio-esparrutik kanpo. Euskal Autonomia Erkidegoaren argumentu nagusia honako baieztapen hau izan da: lehiaketara hainbat eta hainbat hautagai aurkezten direnez gero, lehiaketa hori oso konplexua da; hautagai bakoitzak bere burua aurkezten du plaza desberdinetara, eta ezinezkoa da ongitze-izapidea gauzatzea. Jarrera horren oinarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoak 1995eko uztailaren 14ko epaia aipatu du (JE 1995\5982). Epai horrek 30/1992 Legearen aurreko arautegia aplikatzen du, eta epai horretan aztertzen da nola jakin daitekeen hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa baliozkoa den ala ez.*
*Deialdiaren XIV. oinarriak ezartzen du zein epe dagoen eskabideak eta agiriak aurkezteko. Hori ezarri eta gero, hauxe argitzen du: 'eskabideak aurkezteko epea bukatu eta gero, ez da beste eskabiderik onartuko eta, era berean, egindako eskarietan ezin izango da inolako aldaketarik egin. Behin eskabidea aurkeztutakoan, lehiaketan parte hartzeari uko egin dakioke, betiere, eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen. Horrez gain, bestelako ukoak onar daitezke, behin-behineko adjudikazioaren aurka erreklamazioak jartzeko epea zein izan eta epe horren barruan; epe hori hemezortzigarren oinarriak ezartzen du. Ukoen inguruan ulertuko da partaidetza-eskabidean ezarritako espezialitate guztiei uko egiten zaiela'. XIV. oinarriak ezarritakoari helduta, eskatzaileak ezin du inola ere bere eskabidea aldatu, ezta eskari berririk egin ere, behin eskabideak aurkezteko epea bukatu eta gero. Edozein modutan ere, ez da gauza bera eskabidea aldatzea (adibidez, beste zentro batzuk aukeratzea edota, aukeratutako lehentasun-hurrenkeraren ordez, beste hurrenkera bat ezartzea) eta eskabidea behar bezala betetzea, horrek ondoreak sor ditzan, aukeratutako zentroei begira. Hori guztia dela eta, ezin dugu bat egin Estatuko Abokatuak erabilitako irizpidearekin, horrek ulertzen baitu XIV. oinarriak eragotzi egiten duela eskabidea ongitzea."*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dio berez ezinezkoa dela 30/1992 Legearen 71.1 artikuluko izapidea gauzatzea, aztergai dugun kasuetan. Guk ez dugu uste ezintasun hori dagoenik. Lehenengo eta behin, 30/1992 Legeak sistema normalizatuak aplikatzeko agintzen du, eta prozedura horietan ez du baztertzen 30/ 1992 Legearen 71.1 artikuluko agindua. Bigarrenik, eskabideak betetzea, zinez, konplexua izan daiteke, informatikako sistemak erabiltzen diren heinean; izan ere, eskabideak betetzeko, kode alfanumerikoak erabili behar dira, dirudienez, datuak sartzeko fasean sistemaren aplikazioa errazagoa izan dadin. Hala eta guztiz ere, informatikako programak berak, hala denean, akatsak igar ditzake eskabideetan; akats horiek oztopa dezakete prozesuan datuak jartzea, nahitaez bete beharreko gakoak ez direlako agertzen. Egin-eginean ere, lanpostua zenbakiaren bidez identifikatu eta gero, eskatzailearentzat hizkuntz eskakizuna ez da aukera bat. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostu guztiek hizkuntz eskakizuna dutela adierazten denez gero, gako alfanumerikoek «ama-hizkuntza» laukitxoa barneratu beharko lukete, hau da, «C» edo «D» letrak barneratu beharko lituzkete. Administrazioaren ulerkerari eutsiz, laukitxo hori betetzen ez denean, eskaitzaileak egindako aukera horretan amore eman duela ulertu behar da, eta ez dago modurik eskabidea betetzean izandako okerra ongitzeko. Nabari denez, ulerkera horren arabera, eskaitzaileak bakarrik jasan behar ditu informatikako sistemaren konplexutasunak dakartzan ondorioak. Batetik, zailagoa izango litzateke eskabidea kode alfanumerikoekin betetzea. Eta, bestetik, Administrazioaren iritzirako, ezinezkoa izango litzateke eskabidea betetzean izandako oker materialak ongitzea, okerrok ez dituztenean aldatzen hautatutako plazak. Eskabidea betetzean, okerra gertatu bada, gerta daiteke informatikako programak oker hori igartzea eta, are gehiago, programak berak oker hori ongitzea; izan ere, postua zenbakiaren bidez identifikatu bada, horrek beti izango du «C» edo «D» letra, letra horrek adierazten baitu hizkuntz eskakizuna."

Oharbide horiek guztiak aintzakotzat hartuta, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak jarraikoa ulertu zuen: *"Errekurtsogileak eskubidea du, lehengo egoera juridikora itzultzeko. Horretarako, prozedura ere lehengo egoerara itzuli behar da, alegia, plaza jakin batzuetan amore eman zela ulertu zen une horretara itzuli behar da. Aztergai dugun kasuan, ez zen hala gertatu. Horregatik, prozedurak aurrera egin behar du, errekurtsogileari dagokion plaza, hala badagokio bederen, zein den zehaztu arte."*

• Emaitza

Arartekoak gomendioa luzatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Gomendio horren arabera, sailak neurri egokiak hartu behar zituen, kexa egin zuena lehengo egoera juridikora itzul zedin. Gogoratzekoa da erreklamaziogile horrek lekualdaketen lehiaketan parte hartu zuela; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak lehiaketa horretarako deialdia egin zuen, 2000ko martxoaren 21eko Aginduaren bitartez (EHAO, hilaren 28koa). Ebazpena sailburuak berak eman zuen, 2000ko uztailaren 27ko Aginduaren bitartez (EHAO, abuztuaren 31koa). Interesdunak Administrazioarekiko Justiziaren bideari ekin zion, administrazio-errekurtsoa jarri baitzuen, lekualdaketen lehiaketan emandako behin betiko ebazpenaren aurka. Horrez gain, Hezkuntzako Administrazioak berak ere ofizioz berrikuspen-bideari ekin zion.

Nolanahi den ere, interesdunak jurisdikzio-bidea erabili zuenez gero, Arartekoak bere esku-hartzea eten beharra izan zuen.

### ⇒ *Gurasoek baimena lortzea, adopzio edo harrera kasuetan (921/2000)*

• Erreklamazioa

Irakasle-funtzionario batek adingabeko bat adoptatu zuen, eta Arartekoarengana jo zuen, gurasoei dagozkien baimenen arloan ez baita tratamendu bera ematen adingabekoen adopzio edo harrera kasuetan eta amatasun/aitatasun biologikoaren kasuan.

• Azterketa

Uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuak onetsi du lan-baldintzei buruz indarrean dagoen hitzarmen arau-emailea. Hitzarmen hori Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle-funtzionarioei aplikatzen zaie, horiek unibertsitateaz bestekoak direnean. Dekretu horrek haurdunaldi, erditze eta edoskitzearen ondoriozko baimena arautzen duenean, hauxe xedatzen du 43.1 artikuluan: *"Euskadiko Autonomia Erkidegoko irakasle-funtzionarioek eskubidea dute, haurdunaldi eta erditzearen ondoriozko baimena lortzeko; baimen horrek iraupen mugatua du, ezin baita 18 astetik gorakoa izan…"*. Adopzioaren ondoriozko baimenari dagokionez, 45. artikuluak ezartzen du baimenak iraupen aldakorra izango duela, adingabekoaren adina kontuan hartuta.

Dekretu horren ostean, azaroaren 5eko 39/1999 Legea onetsi zen, langileek familiako bizimodua eta laneko bizimodua batera ditzaten sustatzeko. Lege horrek aldarazpen garrantzitsuak egin ditu, adopzioaren, harrera iraunkorraren eta adopzio aurreko harreraren ondoriozko baimenen arauketan. Aurreko legeriaren arabera, baimenaren iraupena adingabekoaren adinaren araberakoa zen. Lege berriak, ordea, ez du bereizketarik egiten adingabekoen adina kontuan hartuta, baldin eta adingabeko horiek sei urtekoak baino gaztetxoagoak badira. Lege berriak, halaber, gurasoei dagozkien baimenetan, parekatu egin ditu amatasun biologikoa, eta sei urte arteko adingabekoen adopzioa eta harrera. Kasu horietan guztietan, baimenak 16 asteko iraupen etengabea izango du.

Aurrekari horiek ikusita, funtzio publikoaren legerian parekaketa antzeman daiteke, gurasoei dagozkien baimenak arautzeko orduan –amatasun biologikoa gertatu zein adopzioa edo harrera izan–. Parekaketa hori Zuzenbide ordeztaile gisa eta, are gehiago, Aginduzko zuzenbide gisa, aplikatu behar da. Nondik-nahi begiratuta ere, parekaketa ez da irakasle-funtzionarioen lan-baldintzetara hedatu. Gorago esan dugun bezala, gurasoei dagokien baimen horrek orain iraupen luzeagoa du; lehen, 16 astekoa zen eta orain, berriz, 18 astekoa da. Baina luzapen hori amatasun biologikoaren kasuan bakarrik gertatu da.

• Emaitza

Arartekoak jakin badaki lan-baldintzak negoziatu eta arautzeko eskumenik ez duela. Horretarako eskudun dira, aitzitik, Administrazioko ordezkariak eta Administrazioaren zerbitzuetan lan egiten dutenak. Autonomia kolektiboaren printzipioak ondorio hori dakar, eta errespetatu beharra dago. Hala eta guztiz ere, Arartekoak Hezkuntzako Administrazioari iradokizuna egin zion, horrek gurasoei dagozkien baimenen tratamendua pareka zezan. Parekaketa hori adopzio edo harrera kasuetan eta amatasun biologikoaren kasuan gertatu behar da, irakasleen lan-baldintzei buruzko arauketari dagokionez. Horrela,

baldintza egokiak sustatuko dira, pertsona guztien arteko berdintasuna egiazkoa izan dadin.

Geroago, eta Hezkuntzako Administrazioak berak hala eskatuta, esku-hartze bera izan zuen Arartekoak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailean. Izan ere, negoziazio orokorreko mahaia eratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langile guztien baimenak homogeneoak izan daitezen.

Txosten honen prestaketa bukatu denean, bi sail horiek (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ogasun eta Herri Administrazio Saila) prest agertu dira, baimenen arloan parekaketa egiazkoa izan dadin. Dena den, baimen horien arauketa zehazteke dago, negoziazioen arloan ez baita oraindik gauzatu.

## D) **Funtzio publiko orokorra**

⇒ *Enplegurako eskaintza publikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean (123/2000)*

• Erreklamazioa

Bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako kontratua dutenen talde batek lan egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzuetan. Talde horrek Arartekoarengana jo du, enplegurako eskaintza publikoa dela eta. Administrazio Orokorrak eskaintza hori egiteko asmoa du eta, horren inguruan, aipatu taldeak gutxieneko baldintzen arazoa helarazi zaio Arartekoari.

• Azterketa

Kexa eragin zutenei, erantzun gisa, txosten bat bidali genien. Txostena interesgarri izan daitekeelakoan, jarraian horren zati bat alderatuko dugu:

### B) **Funtzio publikoan sartzeko sistema salbuespenekoa izanik, horren legezkotasuna zalantzan jar daiteke**

Jakina denez, Konstituzio Auzitegiak (KA, aurrerantzean) onartu du, kontratua dutenentzat eta bitarteko funtzionarioentzat, funtzio publikoan sartzeko sistema berezia ezartzea. Sistema horrek iraupen mugatua izan behar du, deialdi-kopuru zehatz batean agortu behar delako. Konstituzio Auzitegiak emandako epaien artean, nire ustez interesgarria da arestian emandako KAE 12/1999. Horrek jarraikoa adierazi du:

> *"Aztergai dugun arazoaren ondorioz, hainbat epai eman dira. Epai horietan guztietan ezarritako doktrina sistematizatu eta berretsi egin dugu, arestian emandako KAE 16/1998 horretan. Sasoi hartan (eta, zehatzago, 5.A oinarri juridikoan) gogoratu genuen bezala, funtzio publikoan sartzeko probak, zenbait kasutan, murrizgarriak izan daitezke. Orokorrean, halako prozedurak 'debekatuta daude, EKren 23.2 artikuluaren aginduz. Hala eta guztiz ere, salbuespeneko kasu batzuetan bederen, onar daiteke legeak tratu desberdina ematea, batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako. Hori, zenbait kasutan, arrazoizkoa eta proportziozkoa izan daiteke, eta ez da nahierarakoa izan behar, nahiz eta tratuan desberdintasunak ezarri. Horretarako, beharrezkoa da desberdintasun horiek salbuespeneko bideak izatea, era berean salbuespenekoa den egoera konpontzeko. Desberdintasunok lege-lerruna duten arauetan jaso behar dira eta, euren helburua, Konstituzioaren ikusmiratik, legebidekoa izan behar da. Helburu horien artean koka daiteke, hain zuzen ere, Administrazioaren eragingarritasuna bera'. Zehatzago, epai horretan bertan adierazi dugu halako sistemak ez direla Konstituzioaren 23.2 artikuluaren kontrakoak, baldin eta sistema horiek arauetan jasotzen badira eta, arau horietan, 'behin-behineko eta salbuespeneko neurriak ezartzen badira, egoera berezia konpontzeko. Egoera horretan, prozesu bakarra eta errepikaezina*

*gertatu behar da. Prozesu horren ondorioz, administrazio publikoak antolatzeko modu berri bat sortu behar da, autonomia erkidegoen esparruan. Izan ere, iraganean nahitaezko gertatu zen zenbait pertsona Administrazio zuzenbidearen araubideari berehala atxikitzea, oraindik funtzionarioen plantilarik izan ez arren. Egin-eginean ere, ez zegoen behar besteko denborarik, karrerako funtzionario gisa, Administrazio Publikoan sartzeko modu arruntak erabil zitezen."*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan, salbuespeneko neurri horiek hartu ziren, uztailaren 6ko 6/1989 Legea onetsi zenean. Lege horrek euskal funtzio publikoa arautu zuen (aurrerantzean, EFPL). Beraren hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrek garatu egin zuten abuztuaren 2ko 30/84 Legearen seigarren xedapen iragankorra; bigarren lege horrek funtzio publikoaren eraldaketarako neurriak ezarri zituen. Bada, hirugarren eta laugarren xedapenek salbuespeneko sistema ezarri zuten, administrazio-kontratua zuten langileentzat, kontratu hori behin-behineko lankidetzarako izanez gero, eta horren data 1984ko martxoaren hamabosta baino lehenagokoa izanez gero. Sistema berbera aplikatu zitzaien bitarteko izaera zuten langileei eta behin-behineko lankidetzarako administrazio-kontratua zutenei, hori EFPL indarrean jartzean gertatuz gero.

Hortaz, salbuespeneko tratamendua emateko aukerak agortu egin dira, KAk berak aitortu duen moduan. Horregatik, salbuespeneko neurri horiek ezin zaizkie aplikatu funtzio publikoan sartzeko deialdiei. Nahiz eta deialdiok iragarri eta argitaratzeko orduan atzerapen larregiak izan, deialdi horiek funtzio publikoan sartzeko deialdi arruntak besterik ez dira. Osterantzean, EKren 23.2 artikulua urratuko litzateke.

Arean bere, KAk behin eta berriz ezarri duen jurisprudentziari helduta, funtzio publikoan sartzeko, tratamendu berezia eta salbuespenekoa erabil daiteke, eta horrek ez du EKren 23.2 artikulua urratuko, honako baldintza hauek betetzen badira: lehenengoa, salbuespeneko egoera gertatzea; bigarrena, prozedura hori behin bakarrik erabiltzea; eta, hirugarrena, aukera hori lege-lerruneko arau batean jasotzea.

Zuen idazkiaren arabera, egoera berezia da, eta guk balorazio horrekin bat egiten dugu. Izan ere, lagun horiek bitarteko funtzionarioak dira edo aldi baterako lan-kontratua dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez duelako enplegurako eskaintza publikoaren deialdirik egin hainbat alditan. Hala eta guztiz ere, zuek salbuespeneko tratamendua aplikatu nahi duzue; eta tratamendu horrek, une honetan, ez du lege-gaikuntzarik, eta hori nahitaezkoa da (salbuespen gisa, batzuei oraindik aplika dakieke EFPLren laugarren xedapen iragankorra). Horrela, EFPLk ezartzen dituen parametro orokorrak bete behar dira, besteak beste, hautaketa-prozesua itxuratzeko, prozesuaren fase desberdinek izan behar duten garrantzia zehazteko eta lehiaketaren fasean balioetsi beharreko merituak finkatzeko.

**Aurretiazko esperientzia balioestea**

Lehiaketa-fasea itxuratzeari dagokionez eta, zehatzago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzuetan egindako lana balioesteari dagokionez, gomendio orokor bat gogoratu behar dut. *"Funtzio publikoan sartzeko prozeduretan, egindako zerbitzuak meritu gisa balioestea"* izenburuarekin, gomendio hori jasota dago, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 1998. urtean aurkeztu zion Urteko Txostenean (439. orrialdetik 445.era artekoak).

Gomendio hori egin nuen, hainbat kexa jaso nituelako. Enplegu publikoak eskuratzeko orduan, berdintasun printzipioa (hots, EKren 23.2 art.) urra daiteke, besteak beste, deialdia zein Administraziok egin eta administrazio horretan izandako esperientzia bakarrik balioesten delako, edota esperientzia horri lehenespeneko balorazioa ematen zaiolako, beste administrazio publiko batzuetan izandakoari begira. Hori salatu zuten, hain zuzen ere, harako kexek.

Ondorio gisa, Arartekoak ohartarazi zuen ikuspuntua aldatu beharra zegoela. Administrazioek, funtzio publikoan sartzeko prozeduren deialdiak egiten dituztenean, beste modu batera balioetsi behar dute Administrazioan izandako esperientzia, hori meritu gisa hartzeko. Esangura horretan, Arartekoak hauxe adierazi zuen:

*"Gaur egungo jarrera da, ahal den neurrian behintzat, norberarentzat egindako zerbitzuek balorazio handiagoa izatea, zerbitzuok bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako kontratua dutenek egin dituztenean. Horrela, lehenespeneko balorazioa edo balorazio neurtua ematen zaie norberarentzat egindako zerbitzuei, harik eta funtzio publikoan sartzeko orduan berdintasun-printzipioa hautsi dela salatu arte. Hori egin beharrean, balorazio berbera eman behar zaio aurretiaz edozein administraziotan izandako esperientziari; salbuespenez, postuaren arabera bete beharreko eginkizunak kontuan izanik, gerta daiteke jarrera desberdina hartzea, hori guztiz oinarriduna eta bidezkoa delako.*

*Arartekoaren iritziz, tratamendu bera eman behar zaie administrazio publiko desberdinetan egindako zerbitzuei. Printzipio hori erabat onartu behar da, salbu eta bete beharreko eginkizunen*

*arabera, zerbitzu horien balorazioa desberdina izan behar denean, hori zentzuzkoa delako. Horrela jokatuz gero, eta horrela bakarrik, EKren 14 eta 23.2 artikuluetan ezarritako berdintasun-printzipioa errespetatuko da bete-betean."*

Horregatik, Arartekoaren aburuz, eginkizunen inguruko arrazoi objektiboak kontuan izanik, gerta daiteke tratu-desberdintasuna zilegi izatea. Halako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean egindako zerbitzuak bakarrik balioets daitezke edo, behintzat, lehenespeneko balorazioa eman dakieke halakoei.

**Hutsik dauden lanpostu guztien artean, zenbat sartu behar dira Enplegurako Eskaintza Publikoan?**

Jakina denez, bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako kontratua dutenek hutsik dauden plazak betetzen dituzte. Zuen idazkian egindako proposamenari helduta, hutsik dauden plaza horiek guztiak sartu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Enplegurako Eskaintza Publikoan. Proposamen hori bat dator aurretiaz beste eskaintza bat aurkaratzeko erabili zen arrazoiarekin. Izan ere, Osakidetzak, 1995. urtean, Enplegurako Eskaintza Publikoaren deialdia egin zuen. Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, eskaintza horren aurkako errekurtsoa jarri zen; zehatzago, administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri zen. Eskaintza aurkaratzeko erabili ziren arrazoien artean, bat izan zen, hain zuzen ere, zuen proposamenean azaltzen den hori. Sasoi hartan, orduko, honako arazo hau gertatu zen:

*"... Enplegurako Eskaintza publikoak (1995eko EEP horrek) hainbat plaza jasotzen ditu; baina Osakidetzan, 1994ko abenduaren 31n, bitartekoek betetzen dituzten plazak, hau da, hutsik dauden plazak, horiek baino askoz gehiago dira. Plaza horiek guztiak nahitaezko giza baliabideak dira, Osakidetzari dagozkion eginkizunak betetzeko eta helburuak erdiesteko. Ez dago inolako arrazoirik, hutsik dauden plaza guztiei begira deialdia ez egiteko. Horregatik ulertu behar da, batetik, erabakia nahierarakoa dela eta, bestetik, urratu egiten dituela Konstituzioaren 9.3, 103 eta 24.1 artikuluak, bai eta Funtzio Publikoaren Eraldaketarako Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/84 Legearen 18. artikulua ere. Azken horrek izan duen idazkera berriaren arabera, ez dago Administrazioaren esku jadanik existitzen diren plazetarako deialdia egitea ala ez egitea; Administrazioaren esku dago, ordea, plaza berriak sortzea."*

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak behin betiko konpondu du eztabaida hori, 1999ko irailaren 30eko 629/99 epaian. Guri dagokigunez, epai horren 3. oinarri juridikoak jarraikoa nabarmendu du:

*"Abuztuaren 2ko 30/84 Legeak funtzio publikoaren eraldaketarako neurriak arautu ditu. Lege horren jatorrizko idazkera arabera, 18. artikuluak sistema berezia ezarri zuen, eta sistema horrek oinarrizko izaera zuen; sistema horren bitartez, enplegu publikorako eskaintzak bere barnean hartu behar zituen, nahitaez, aurrekontuko zuzkidura zuten eta hutsik zeuden plaza guztiak.*

*EFPLren 22.2 eta 92.2 artikuluek autonomia erkidegoko antolamenduan barneratu zuten arau erkide hori; ezin beste modu batera izan.*

*Nolanahi den ere, abenduaren 29ko 22/93 Legeak 30/84 Legearen 18.4 artikulua eraldatu zuen, eta printzipioa goitik behera aldatu zuen. Idazkera berriaren arabera, enplegurako eskaintzak bere barnean hartu behar ditu egungo langileek bete ezin dituzten eta hutsik dauden lanpostuak. Eraldaketa hori, alabaina, ez zen autonomia erkidegoko antolamenduan barneratu, EFPL eraldatu arte. Eraldaketa azaroaren 7ko 16/97 Legeak egin zuen; lege horren 23.1 artikuluak oinarrizko arauaren esangura jasotzen du."*

Horrexegatik, arauak aldatu direnez gero, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak hurrengoa ulertu du: ez dago legezko betebeharrik, Enplegurako Eskaintza Publikoan hutsik dauden plaza guztiak sartzeko; are gehiago, legezko agindua da ahalik eta langile berri gutxien sartzea funtzio publikoan. Aurrekontuei buruzko legeetan, ondoz ondo, hori islatu izan da.

Hur-hurreko erreferentzia gisa abenduaren 29ko 54/1999 Legea aipatu behar da. Horrek Estatuko aurrekontu orokorrak jasotzen ditu 2000. urterako. Lege horren 21.1 artikulua oinarrizko xedapena da, eta hauxe ezartzen du: *"Arlo publikoan langile berriak sar daitezen, plazetarako deialdiak egiten direnean (...), deialdi horiek lanbideko sektore, eginkizun eta kategoria jakin batzuetara mugatuko dira; sektore, eginkizun eta kategoria horiek lehentasun osokoak izan behar dira, edo eragina izan behar dute, oinarrizko zerbitzu publikoen jardunbidean. Edozein kasutan ere, langileen birjarpen-tasa zenbatekoa izan, eta horren 100ko 25 baino txikiagoa izan behar da sarrera berriko plazen kopurua".*

Laburbilduta, lehen, Enplegurako Eskaintza Publikoaren iragarkia egitean, iragarki horri arauzko eskema aplikatu behar zitzaion; izan ere, eskaintza horrek bere barnean hartu behar zituen aurrekontuetako zuzkidura zuten eta hutsik zeuden plaza guztiak. Alabaina, arauak aldatu direnez gero, administrazio publikoek nahierara joka dezakete, horretarako aukera zabala ematen baitzaie. Administrazio publikoek eurek zehaztuko dute,

egokierako irizpideak aplikatuz, zeintzuk diren lehentasunez ase beharreko lan-beharrizanak, edo zein beharrizan dagoen langileak hautatzeko.

Egia esateko, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak, 2000. urterako, jarraikoa onartu du: administrazio publikoek postuetarako deialdiak egin ditzakete, baldin eta postu horiek aurrekontuko zuzkidura badute, eta lanpostuen zerrendetan, katalogoetan edo plantiletan jasota badaude, eta bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako kontratua dutenek betetzen badituzte postu horiek.

Hori gorabehera, berriz diot Enplegurako Eskaintza Publikoari buruzko arauketa berriak aukera zabala ematen diela administrazioei, nahierara jokatzeko. Bestalde, Konstituzioak beren beregi ezarritako aginduaren ondorioz (103.1 art.), eragingarritasun printzipioa bete behar da, administrazio publikoen jardunean. Hori guztia dela eta, administrazio publikoek kontuan izan behar dituzte arrazoi objektibo eta teknikoak eta, horien ondorioz, Enplegurako Eskaintza Publikoan sartu beharreko postu hutsak muga ditzakete. Horrekin ez da nahierarik izango, ezta boterea desbideratuko ere.

Ildo horretatik, eta teoriaren ikusmira hertsiari eutsiz, nahitaez aitortu behar da Administrazioaren ahalmenak, aztergai dugun kasuan, nahierarakoak direla. Nahierarakoak izatearen ondorioz, erabakiak hartu behar dira, giza baliabide guztien kudeaketa ahalik eta eragingarriena izan dadin. Erabaki horiek ezin dira legezkotasunaren ikuskeratik aztertu. Aitzitik, egokiera teknikoaren ikuspuntutik aztertu behar dira. Hala egin behar da, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak onetsi dituen erabakiekin. Jakina denez, erabaki horien ondorioz, Enplegurako Eskaintza Publikoak ez ditu jarraikoak jaso: 1) betekizun zehatzak behar dituzten postuak, baldin eta horiek, hutsik egon arren, oinarrizko EEP bati ez badagozkio; 2) lanpostu gutxiko taldeei dagozkien plazak, baldin eta horiek hutsik egon arren, euren gaineko iragarkia egitea oso konplexua bada, eta konplexutasun horrek hautaketa-prozesu osoaren kudeaketan eragin kaltegarria baldin badu; eta 3) bitarteko funtzionarioei dagokien zuzkidura-proportzioa bete dadin, hutsik geratu behar diren postuak. Proportzio hori %5 da eta, dirudienez, horren bitartez ziurta daiteke sistema osoko langile guztiak behar bezala kudeatzea, besteak beste, zerbitzu aktiboan sartzeko eskariak egiten direnean etab.

Hori guztia onartuta, ez dago inolako arazorik etorkizunean kontrol xehea egiteko, orain definitu izan dire irizpide teknikoen gainean. Bide horretatik, honako adibide hau jar daiteke: arrazoi tekniko horien ondorioz erabakitzen bada EEP horretan ez direla sartuko funtzionarioen talde zehatz batean hutsik dauden plaza guztiak, ezpada horren ehuneko bat, orduan plaza horiek zeintzuk izango diren zehatz-mehatz esateko, berriro ere irizpide arrazoituak eta objektiboak erabili beharko dira; bestela, kasuan kasuko administrazioaren jarduna nahierarakoa izango da eta, areago oraindik, boterea desbideratzea ekar dezake.

**Barne igoera**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak konpromisoa hartu du, lan-baldintzei buruzko hitzarmen arau-emaileetan, bitarteko funtzionarioei eta aldi baterako kontratua dutenei lanpostua sendotzeko. Zuek, zuen idazkian, honako asmo hau azaltzen duzue: bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako kontratua dutenen sarrerak lehentasuna izan behar du, jadanik karrerako funtzionario direnen barne igoerari begira. Agidanez, asmo hori bat dator Administrazio Orokorrak hartutako konpromisoarekin.

Zernahi gisaz, konpromiso horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak legezko agindua bete behar du; legezko agindua da, hain zuzen ere, Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioei barne igoera erraztea. Abuztuaren 2ko 30/84 Legeak funtzio publikoaren eraldaketarako neurriak arautu ditu, eta lege horren 22.1 artikuluak ezartzen du legezko agindu hori.

Legezko agindua bete beharra dago eta, horregatik, ezin da zuen eskaria onartu. Eskari horren arabera, funtzionarioen barne igoera gertatu behar da, bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako kontratua dutenen egonkortasuna lortu eta gero. Erabaki hori hartuz gero, funtzionario jakin batzuen igurikimenak ezerezean geratuko lirateke; funtzionario horiek dira, izatez, legezko baldintzak bete eta goiko taldeetara igotzeko moduan daudenak.

Funtzio Publikorako Zuzendaritzak bidalitako informazioaren arabera, bi konpromiso horiei aurre egin nahi izan zaie. Horregatik, eta deialdia egiten duen administrazioak nahiaerara jotzeko aukera duela kontuan hartuta, barne igoerako txanda modu murrizgarrian itxuratu da; baina, aldi berean, barne igoerako txanda itxuratzeko modu hori bat dator errealitatearekin, funtzionario jakin batzuek igotzeko aukera handiak dituztelako.

Egungo lan-poltsei eustea eta, orobat, lanpostu berriak sortzea, astero hogeita hamabost orduko lansaioa ezartzearen ondorioz

Puntu horretara helduta, berariazko oharbideak azaldu nahi ditut, arazo jakin bati buruz. Indarreko arautegiak zenbait xedapen ezarri ditu, administrazio publikoen zerbitzuetako langileek euren lan-baldintzak zehazteko orduan izan behar duten ordezkaritza eta parte-hartzeari buruz (ekainaren 12ko 9/1987 Legea).

Ildo horretatik ezarri dira, ezarri ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zerbitzuetako langileen egungo lan-baldintzak (uztailaren 28ko 190/1998 Dekretua - EHAO, 149. zk., abuztuaren 10ekoa). Hortaz, lan-baldintzak negoziazio kolektiboaren bitartez ezarri dira, eta zuen kexan azaltzen diren gaiek negoziazio hori ukitzen dute.

Horregatik, idazki honen sarreran, bereziki azpimarratu nahi izan dut, administrazioko ordezkarien eta haren zerbitzuetako langileen artean, beharrezkoak eta komenigarriak direla entzunaldiko, elkarrizketako eta partaidetzako bideak. Horrela, interes desberdinei behar den moduko tratua eman dakieke, guztiak ere legebidezko interesak baitira, eta halakoak tartekatzen baitira aztergai izan ohi ditugun arazoetan.

Hortaz, negoziazio edo hitzamen kolektiboak aztertu behar dira. Azterketa horrek berebiziko garrantzia du, bitartekoen beharrizanak nola aseko diren zehaztu behar denean, eta horretarako sistema ezarri behar denean. Era berean ere, egundoko garrantzia du, lansaioa finkatu behar denean, lansaio horrek eragina izango baitu lanpostu berriak sortzeko orduan. Aurretiaz egindako proposamenekin gertatu aldera, indarreko legeriak berak ahalbideratzen du erabaki desberdinak hartzea. Hari horri segiz, eta adibide gisa, aukera dago egungo zerrenden sistemari eusteko edo zerrenda berriak egiteko. Aukera egiteko, nahitaezkoa da meritu eta gaitasunari buruzko irizpide objektiboak aintzakotzat hartzea. Irizpide horiek erabilita, aukera nahierara egin daiteke. Horren arabera hartutako erabakia ezin izango da legezkotasunaren ikusmiratik aztertu. Haatik, egokierako irizpideen ikuskeratik aztertu beharko da. Irizpide horiek negoziazio-prozesuan zehar adostu behar dira, administrazioko ordezkarien eta haren zerbitzuetako langileen artean.

Horregatik, Arartekoak legezkotasunaren gaineko kontrolak burutu ditu; baina ez du eskurik sartu nahi izan, negoziazio edo hitzarmen kolektiboen esparruan. Horretarako, kontu handiarekin jardun dut. Guztioi adierazi behar dizuet Arartekoak ez duela inolako baloraziorik egiten gai horren inguruan. Arartekoaren iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko ordezkariek eta haren zerbitzuetako enplegatu publikoek definitu behar dituzte arazo horiek.

• Emaitza

Arartekoak jakin badaki kexa aurkeztu duen taldeak egoera berezia duela, eta egoera horrek eragin duela taldeak Arartekoarengana jotzea. Egoera hori okerreko ohitura baten ondorioa da, eta nik neuk hamaika aldiz salatu dut ohitura hori, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako txostenetan. Okerreko ohitura da, izan ere, Enplegurako Eskaintza Publikoaren deialdirik ez egitea. Azken finean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak berak ahalbideratu du bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako kontratua dutenek euren zerbitzu-harremanak ez normalizatzea. Inguruabar horrek, berez, urratu egiten du EKren 23.2 artikulua, langile horiek ezin izan dutelako funtzio publikoan sartu, aurretiaz meritu eta gaitasun nahikoa egiaztatu eta gero.

Salatutako egoera, beraz, guztiz irregularra da. Edozein modutan ere, testuinguru horretan, Arartekoari dagokio herritarren oinarrizko eskubideak defendatzea, Konstituzioak eta legeek eskubide horiek jasotzen dituzten ginoan. Alabaina, Arartekoari ez dagokio Administrazioari gomendio bat edo beste egitea, berak legezkotasunaren barruan dituen aukeren artean. Legezkotasunaren ikusmiratik, Arartekoak kexan azaltzen diren arazo guztiak aztertu ditu. Baina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jardunean ez du irregulartasunik edo nahierarik igarri. Beste hitz batzuekin esateko, Arartekoak legezkotasunaren irizpidea erabili du, bere jardunean hori baita nagusi; baina, aztergai dugun kasutan, ez du behar besteko arrazoirik aurkitu Administrazioan esku hartzeko.

## ⇒ *Herri Kontuen Euskal Epaitegia (872/2000)*

• Erreklamazioa

Arartekoari kexa helarazi zitzaion, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean, HKEE) argitaratutako deialdiari buruz; deialdi horrekin, letradu, informatikako laguntzaile eta gidarien plazak bete nahi ziren.

Kexa eragin zuen pertsonaren iritzirako, salaketa egin behar zen, lehiaketaren faseari buruz eta, bereziki, egindako zerbitzuen balorazioari buruz. Erreklamaziogilearen iritziz, deialdiaren oinarriek agindu zehatza jaso zuen gai horren inguruan; agindu horren arabera, ez zitzaien balorazio berbera eman behar, batetik, kontuen epaitegietan eta autonomia erkidegoko kanpo kontrolerako organoetan egindako zerbitzuei eta, bestetik, gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuei. Erreklamaziogilearen aburuz, hori egitean, tratu-desberdintasuna eragiten da, eta hori Konstituzioaren printzipioaren aurkakoa da; jakina denez, Konstituzioaren printzipio horiek bete behar dira, enplegu publikoak eskuratzeko orduan.

Deialdiaren oinarriak sakon aztertu eta gero, agerian geratu zen beste arazo bat azaldu eta arakatu beharra zegoela; arazo hori ere egindako zerbitzuen tratamenduari zegokion. Arazoarn azalpenari ekinez, aurretiazko esperientzia nahitaezkoa zen, deialdipeko plaza guzti-guztiak eskuratzeko.

• Azterketa

Gure ustez, interesgarri izan daiteke HKEEra bidali genituen oharbideak hemen jasotzea, oharbide horiek azterketaren osteko ondorioak baitira:

*"Lehenengo eta behin,* ***aurretiazko esperientzia postua eskuratzeko baldintza*** *gisa ezarri da. Hori Zuzenbidearekin bat datorren edo, alderantziz, berdintasun-printzipioaren aurkakoa den aztertu beharra dago; dakigunez, Konstituzioaren 23.2 artikuluak ezarri du berdintasun-printzipio hori. Zalantza hori argitzeko, ez dago bide egokiagorik Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia kontsultatzea baino.*

*Erantzun-idazkian zuzen nabarmendu izan den bezala, Konstituzio Auzitegiak behin baino gehigotan adierazi du jarraikoa:*

> 'Egindako zerbitzuak aintzat hartzea bat dator meritu eta gaitasunari buruzko kontzeptuekin. Izan ere, hainbat zerbitzu egin izanak berez erakuts dezake funtzio publiko jakin bat burutzeko egokitasun edo gaitasuna; eta, era berean, esperientzia hori meritu gisa aitor eta balioets daiteke'.

*Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak, kasu zehatza aztertu eta gero, bestelako ohartarazpena egin behar izan du. Kasu horretan, lehiaketarako deialdia egin zuen Murtziako Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio eta Herrizaingo Sailak. Lehiaketa horren bitartez, letradu-aholkulari baten plaza bete nahi zen. Deialdiak, beste betekizun batzuen artean, honako hau ezarri zuen: 'gutxienez, bi urteko zerbitzuak egin izana, Administrazio Zentralari edo Autonomia Erkidegoko Administrazioari aholkuak ematen eta judizioan defentsa egiten' –1994ko otsailaren 28ko epaia-KTE 1994\60-. Ohartarazpena jarraikoa izan zen:*

> 'Ez litzateke inolako arazorik egongo, egindako zerbitzuak, lehiaketan parte hartu ahal izateko betekizun gisa hartu beharrean, meritu gisa balioesten badira, lehiaketaren hurrengo fase baterako; hori ezin da neurriz kanpokoa izan, ezta nahierarakoa edo zentzurik gabekoa ere. Arazoa sortzen da, aginduak betekizun hori baldintza baztertzaile gisa edo *sine qua non* baldintza gisa ezartzen duenean, hautagaiek lehiaketan parte hartzeko aukera izan dezaten. Izan ere, hori ezartzean, hautagai batzuei funtzio publikoan sartzeko ateak ixten zaizkie, eta aukera galtzen dute, euren gaitasuna eta merituak erakusteko.
>
> Arean bere, aurreko erregela aplikatuz gero, hasiera-hasieratik hautagai batzuk lehiaketatik baztertuta geratzen dira. Horrek, praktikan, aurretiazko murrizketa sortarazten du, eta tratu-desberdintasuna eragiten du. Nahitaezkoa bada aurretiaz Administrazioko zerbitzuetan denboraldi bat egin izana, orduan ondorioa azaldutakoa izango da. Inguruabar hori ezin da zentzuzkoa edo ezinbestekoa izan, lehiaketaren aurretiazko fase horretan behintzat. Merituen balorazioa egiteko orduan, ordea, inguruabar hori balioesteko modukoa izan daiteke.'

*Konstituzio Auzitegiak bestelako arrazoiak ere ematen ditu, bere iritziaren oinarri gisa. Horien artean, besteak beste, hurrengoa azpimarra daiteke:*

> 'Horri guztiari ondokoa gehitu behar zaio: letradu-aholkulariaren plaza betetzeko, aurretiaz beste deialdi batzuk egin izan direnean, ez da betekizun osagarri hori ezarri. Ez da hori gertatu, ezta aztergai dugun deialdiaren osteko deialdian ere. Hori 1990eko azaroaren 8ko Aginduak

onetsi zuen eta, bertan, irizpidea aldatu eta betekizuna aipatu ere ez da egiten. Horrek nolabait erakusten du aurkaratutako aginduarekin arazoak izan zirela. Agindu horrek zenbait erregela ezarri zituen, funtzio publikoan sartzeko. Baina, dirudienez, erregela horiek ez ziren orokor eta abstraktuak izan. Aitzitik, aipamen bereziak izan ziren, pertsona jakin batzuei mesede egiteko; eta horrek ez dauka oinarri objektiborik, ezta hurrik eman ere'.

*Dirudienez, gauza bera gertatu da, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak iragarri izan dituen deialdietan. Arartekoak aurreko deialdiak aztertu ditu. (Adibidez, 1991ko uztailaren 24ko Ebazpena; EHAO, 154. zk., uztailaren 31koa. Ebazpen horrek lehiaketa-oposiziorako deialdia egiten du, HKEEren zerbitzuetako karrera-funtzionario gisa sartzeko). Azterketaren ondorioz, Arartekoak egiaztatu du deialdi horretan esperientzia ez dela izan plaza jakin batzuetan sartzeko baldintza; plazok izan dira, besteak beste, auditoreak, letraduak eta administrazioko laguntzaileak. Haatik, deialdi horretan, zerbitzuak egin badira deialdipeko postuei dagozkien eginkizunetan edo antzekoetan, zerbitzuoi tratu berbera eman zaie, Administrazio Publikoan egin nahiz horretatik kanpo burutu (hori auditoreen kasuan). Beste modu batera esateko, zerbitzuoi puntuazio berdina eman zaie, betiere, lehiaketaren fasearen barruan.*

Are gehiago, Arartekoaren ustez, komeni da konparazio bidezko azterketa egitea. Azterketa horretan, hautaketa-probetarako beste deialdi batzuk alderatuko dira, antzeko erakundeek halakoak iragarri izan dituztenean. Antzeko erakundea da, hain zuzen ere, Estatuko Kontuen Epaitegia. Azterketari ekinez,

- Lehendakaritzak 1999ko urriaren 29an emandako Ebazpena (EAO, 269. zk., 1999ko azaroaren 10ekoa). Ebazpen horren bitartez, hautaketa-probetarako deialdia egiten da, Estatuko Kontuen Epaitegiko Letraduen Goi Taldean sartzeko.

  Hautaketa-prozesuak oposizio hutseko fase bat besterik ez du; hautagaiek bete beharreko baldintzen artean, ez da inondik ageri aurretiazko esperientziarena.
- Lehendakaritzak 1999ko azaroaren 25ean emandako Ebazpena (EAO, 289. zk., 1999ko abenduaren 3koa). Ebazpen horren bitartez, hautaketa-probetarako deialdia egiten da, Estatuko Kontuen Epaitegiko Auditoreen Goi Taldean sartzeko.

  *Hautaketa-prozesu horrek ere oposizio hutseko fase bat besterik ez du; hautagaiek bete beharreko baldintzen artean, ez da inondik ageri aurretiazko esperientziarena.*

*Arartekoak, halaber, beste deialdi batzuk arakatu ditu. Deialdi horiek Parlamentuko Administrazioaren esparruan argitaratu dira, bai Estatu osorako, bai autonomia erkidegoen eremurako:*

- *Diputatuen Kongresuko eta Senatuko mahaiek 1999ko irailaren 20an emandako Erabakia (EAO, 244. zk., 1999ko urriaren 12koa). Horretarako, bi mahaiek batera bilera egin zuten, Gorte Nagusietako Mahaiaren eginkizuna betez. Erabaki horren bitartez, oposiziorako deialdia egiten da, Gorte Nagusietako Letraduen Taldean lau plaza betetzeko.*

  *Berriro ere, hautaketa-sistema oposizio hutsekoa da. Hautagaiek bete beharreko baldintzen artean, ez da inondik ageri aurretiazko esperientziarena.*
- *Lehiaketa-oposiziorako deialdia, Eusko Legebiltzarraren zerbitzuetako letraduen plaza bi betetzeko.*

  *Lehiaketaren fasean bakarrik hartzen da kontuan aurretiaz administrazio publikoetan izandako esperientzia. Zerbitzuok aintzakotzat har daitezen, nahitaezkoa da zerbitzu horiek plaza jakin batzuetan egin eta aitortu izana, eta plaza horietan sartzeko titulua Zuzenbideko lizentzia izatea.*

*Deialdi horietako batzuetan, oposizio hutseko sistemaren bitartez aukeratzen dira hautagaiak; eta beste batzuetan, aldiz, lehiaketa-oposizioaren bitartez. Baina, deialdi batean ere ez da ageri aurretiaz gutxieneko esperientzia izatea plaza eskuratzeko baldintza denik. Lehiaketa-oposizioen kasuan, eta kasu horretan bakarrik, egindako zerbitzuak balioetsi egiten dira, baina lehiaketaren fasean. (Azpimarratzeko modukoa da aztertutako deialdi guztien bitartez lanpostu teknikoak bete nahi zirela –auditoreak, letraduak–. Halako kategorietan, logika handiagoa izan dezake aurretiazko esperientzia eskatzeak; izan ere, aurretiazko esperientzia horrek hautagaien gaitasun edo egokitasun teknikoa erakuts dezake, harako auzitegiak inoiz adierazi izan duen moduan).*

*Arrazoibide hori indartzeko, nire ustez egokia izan daiteke Andaluziako Auzitegi Nagusiak arestian plazaratutako doktrina hona alderatzea (1999ko apirilaren 21eko epaia. AKJE 1999\1344). Kasu horretan, hautaketa-probetarako deialdia egin zen, Andaluziako Kontu Ganberako auditoretza-teknikarien taldean sartzeko. Epai horretan, auzitegia aldendu egin da zuen erantzunean aipatzen duzuen aurrekari horretatik. Aurrekariak Kontuen Ganbera horretan sartzeko deialdia aztertu zuen eta, zehatzago, ganbera horretako letraduen taldean sartzeko deialdia aztertu zuen. Kasu horretan, auzitegiak ez zuen inolako eragozpenik jarri, lehiaketaren fasea kanporatzailea izan zedin. Nolanahi den ere, arestiko epai horretan, bestelakoa ezarri du:*

*'Arlo Publikoaren barruan, kanpo kontrolerako organoetan aurretiazko esperientzia izanez gero, horri lehentasuna ematen zaio; adibidez, hautagaia bitarteko funtzionarioa izan bada Andaluziako Kontuen Ganberan, edo bertan lan-kontratua izan badu, orduan lehentasuna emango zaio. Lehentasun hori ez da gertatzen, antzeko esperientzia lortzen bada Administrazioko beste unitate batzuetan, eta unitate horiek administrazio publikoen barne-kontrolaz arduratzen badira; eta ez da halakorik gertatzen, orobat, esperientzia auditoretzako enpresa pribatuetan lortzen denean ere. (Hala da, horrek balorazio bikoitza izango zuela adierazi arren). Aitzitik, aurretiazko esperientzia hura aintzakotzat hartzen da, lehiaketa-fasean sartzeko **gutxieneko eta nahitaezko baldintza gisa**. Beste modu batera esanda, esperientzia hori izan behar da, hautagaiak lehiaketaren fasea gainditzeko aukera izan dezan (horretarako, 6,5 puntu behar dira). Esperientziari, beraz, beste meritu batzuei baino garrantzi handiagoa ematen zaio. Desberdintasun hori erabakigarria da, lehiaketaren fasea kanporatzailea delako. **Horregatik, norbaitek aurretiazko esperientziarik ez badu, orduan aukera mugatuak ditu; are gehiago, lehiaketa-oposizio horren bitartez, aukera urriak ditu funtzio publikoan sartzeko, aukerarik ez duela ez esatearren**. Horrela, EKren 23.2 artikuluan ezarritako eskubidea urratu egin da; eskubide horren arabera, berdintasun-baldintzak bete behar dira, funtzio eta kargu publikoetan.'*

*(Guk jarri ditugu letrak beltzez)*

*Arartekoaren iritziz, behin deialdi horiek guztiak eta epaileen adierazpenak aztertu eta gero, ondorio bat besterik ezin da atera, aurretiazko esperientzia funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa hartzeko orduan. Ondorio hori jarraikoa da: aztergai ditugun lanpostuetan, hau da, HKEEko lanpostuetan, baldintza horrek urratu egiten du berdintasun-printzipioa, eta printzipio hori ezinbestekoa da funtzio publikoetan sartzeko.*

*Egia esan, arrazoi objektiboak izan daitezke, aurretiazko esperientzia kontuan hartzeko; arrazoi horiek izan daitezke, besteak beste, meritua eta gaitasuna. Hala eta guztiz ere, aurretiazko esperientzia funtzio publikoan sartzeko baldintza baldin bada, orduan ez da egokia, ezta neurrizkoa ere, sarrera berriko langileen profesionaltasuna bermatzeko. Egin-eginean ere, hautagai interesdunek funtzio publikoan sartzeko igurikimenak eta aukerak dituzte, eta aukera eta igurikimen horiek ezereztu eta mugatu egiten dira, baldin eta hautagai horiek ezin badute aurretiazko esperientza egiaztatu. Beharbada, hautagaiok gaitasun eta meritu berberak edo handiagoak dituzte, eta hautaketa-prozesuan zehar horiek erakusteko gauza izan daitezke. Baina aukera hori ukatu egiten zaie.*

*Kexaren izapideak egin bitartean, Arartekoak hainbat harreman izan ditu. Harreman horietan jakin izan du HKEEk zein arrazoi erabiltzen duen, baldintza hori ezartzeko. Gorago esan bezala, lehiaketa-oposizioaren deialdia iragarri zenean, funtzio publikoan sartzeko baldintza gisa ezarri zen aurretiazko esperientziarena. HKEEk dioenez, hori egiteko arrazoia izan zen HKEEren lanpostuen zerrendan (LP, aurrerantzean) ezarritakoa bete beharra.*

*Horrela justifikatu du HKEEk aurretiazko esperientzia nahitaezko betekizuna izatea. Betekizun hori katalogatutako kargu guztiei aplikatu behar zaie ia-ia. Lanpostuak balioesteko unean, irizpide zehatzak erabili ziren, eta haien ondorioa da, hain zuzen ere, betekizun hori. Bestelako OCEX izenekoetan ere, lanpostuen zerrendek jasotzen dute aurretiazko esperientziaren eskakizun hori. Datu horiek guztiak berresteko, dokumentazioa bidali izan digute. Dokumentazioa aztertutakoan, hurrengo adierazpenak egin behar ditugu:*

*Kataluniako Kontuen Sindikatutzak, bere lanpostuen zerrendan, esperientziaren inguruko betekizuna jasotzen du, modu berezi eta zehatzean. Izan ere, betekizun hori izan behar da auditoreen eta auditore-laguntzaileen postuetarako; baina betekizuna aipatu ere ez da egiten, orain HKEEren deialdian sartzen diren postuen antzekoetan.*

*Bestalde, Gaztela-Mantxako Kontuen Sindikatutzak eta Estatuko Kontuen Epaitegiak, beren lanpostu-zerrendetan, joera argia erakusten dute. Esperientziaren inguruko betekizuna karrerako sisteman bakarrik aplikatzen dute. Gaztela-Mantxaren kasuan, betekizun hori ezartzen da, postu irekientzat edo atxikipen bereizgabea duten postuentzat, betiere, administrazio publiko desberdinetako funtzionarioei begira. Estatuko Kontuen Auztegiaren kasuan, betekizun hori ezartzen da, ez nahitaezko baldintza gisa, baizik eta karguan aritzeko lehentasun-betekizun gisa.*

*Bukatzeko, Andaluziako Kontuen Ganberaren kasuan, egia da esperientziaren inguruko betekizun berezi hori ezartzen dela, lanpostuen zerrendan katalogatutako postu jakin batzuentzat bakarrik. Nolanahi den ere, hori gaitzesteko modukoa da, epaileek egindako adierazpenak aintzat hartuta; adierazpenok aurreko lerroetan aipatu izan ditugu (Andaluziako Auzitegi Nagusiak 1999ko apirilaren 21ean emandako epaia; AKJE, 1999\1344).*

*Ikuspuntu materialari helduta, aurretiazko esperientzia funtzio publikoan sartzeko baldintza baldin bada, orduan inork ezin du ukatu hori kritikatzeko modukoa denik. Egin-eginean ere, horrek urratu egiten du berdintasun-printzipioa; enplegu publikoak eskuratzeko orduan, printzipio hori ezinbestekoa da, hala ezarri baitu EKren 23.2 artikuluak. Hortik atera daiteke, azken finean, HKEEko LZ aurkaratu nahi izan dela, zeharka bada ere. Horrek berarekin dakar lanpostuen zerrenda bera berrikusteko beharra, auzitegiak berak egoki deritzon prozedura erabiliz.*

*Hori abiaburua izanik, kexaren hasierako helburuari helduko diogu berriro. Kexak zalantzan jartzen zuen* ***aurretiazko esperientzia lehiaketa-fasean meritu gisa balioestea.*** *Deialdipeko postuen oinarri zehatzek bereizi egin dituzte, batetik, kontuen epaitegietan eta autonomia erkidegoko kanpo kontrolerako organoetan egindako zerbitzuak eta, bestetik, gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuak; bereizketa egiten da, batzuei eta besteei balorazio desberdina emateko. Hautagaiaren esperientzia balioets dadin, hautagai horrek lanbide-esperientzia izan behar du; bera zein postutara aurkeztu, eta postu horrekin zuzeneko lotura duten eginkizunetan izan behar da esperientzia hori. Gidariaren postua betetzeko deialdian, esperientziaren balorazioa letradu eta informatikako laguntzailearen postuei dagokiena baino txikiagoa da, hautaketa-prozesu osoari begira.*

*Irailaren 19an informazioa eskatu genuenean, hauxe adierazi genuen: kasu horietan, Konstituzioan ezarritako printzipioei begirunea zor zaie, eta printzipio horiek dira, hain zuzen ere, berdintasuna, meritua eta gaitasuna. Begirune hori dela medio, zerbitzu batzuei eta besteei balorazio desberdina ematen bazaie, zein administraziotan edo zein erakundetan egin diren kontuan hartuta, orduan desberdintasun hori oinarriduna izan behar da. Zehatzago, desberdintasuna egiteko, eginkizunaren araberako arrazoiak egon behar dira; arrazoi horiek modu objektiboan bidezkotu behar dute tratu desberdina ematea.*

*Gai horren inguruan, zuen erantzun-idazkian, INTOSALek emandako Limako Adierazpena aipatzen duzue. Bestalde, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoetako Koordinazio Batzordeak onetsi ditu Arlo Publikoaren Auditoretzako printzipioak eta arauak, eta horiek ere aipatzen dituzue, aurretiazko esperientziaren beharrizana justifikatzeko.*

*Ildo horretatik, honako hau azpimarratu duzue: 'Lanbideko gaitasuna lortzeko, heziketa eta esperientzia bateratu behar dira. Horregatik, auditoretzaren antolaketak finkatuko du auditoretzako langileek zein esperientzia izan behar duten, euren eginkizunak behar bezala betetzeko'.*

> *Aurrekoari erantsi beharreko argumentu gisa, jarraikoa gaineratzen da:*
>
> *'... Gure asmoa da azaldutako jarraibideak betetzea. Horrela, HKEEko plantila eratuko da, eta plantila horretako langileek esperientzia egokia izango dute, eurei dagokien jarduera betetzeko, alegia, fiskalizazio-jarduera betetzeko. Horregatik, balio handiagoa eman zaio erakunde fiskalizatuetan lortutako esperientziari. Esperientzia hori, zati batez behintzat, egokia izan daiteke, kasuan kasuko postua betetzeko. Baina ez du lehenengoak bezainbesteko baliorik. Izan ere, lehenengo esperientzia "zehatza" da, eta OCEX izenekoek egiten dituzten eginkizun "zehatzetan" lortu da'.*

*Zinez,* ***letradu****aren kasuari so eginez, ezin uka daiteke egoki-egokia dela HKEEn bertan edo kanpo kontrolerako antzeko organoetan esperientzia izatea, kategoria horri dagozkion zereginak betetzeagatik. Esangura horretan, ezin du inork ukatu, kasu horietan bederen, eginkizun berberak bete izana kontuan hartu beharreko datua denik.*

*Idazkian, lanpostuaren berezitasunak aipatzen dira, baina hori aipamen orokorregia da. Haatik, ez da inola justifikatzen edo bidezkotzen eginkizunaren araberako desberdintasunak izatea, ez baitirudi bete beharreko zereginak oso bestelakoak direnik. Horregatik, ez du ematen oinarriduna denik kanpo kontrolerako organoetan izandako esperientziari lehentasuna ematea, eta auditoretza, fiskalizazio edo kontrolerako eginkizunak bete badira Administrazioaren barruko organo edo zerbitzuetan, orduan esperientzia hori bigarren mailakoa izatea. Azken buruan, HKEEko letraduek zenbait eginkizun bete behar dituzte, eta ez du ematen halako eginkizunak bereziak direnik eta, ondorenez, tratu desberdina izan behar dutenik, beste administrazio batzuetan eta antzeko postuetan lortutako esperientziari begira.*

***Informatikako laguntzaile****aren plazari dagokionez, eta orokorrean azaldutako arrazoiak bazter utzita, azpimarratu egiten da zer-nolako garrantzia duten informatikako teknikek, auditoretzaren arloan. Era berean ere, diziplina anitzeko taldeak eratzea garrantzitsua denez gero, hori ere nabarmendu egiten da. Bi inguruabar horiek, antza, postuari dagozkion bereizgarriak edo zehaztasunak dira. Bi-biok aintzakotzat hartuta, informatikako teknikari batek aurretiaz esperientzia izan badu arlo publikoko fiskalizazio-erakunde batean, orduan esperientzia horri lehentasuna eman behar zaio, antzeko lanpostuetan lorutako esperientziari begira.*

*Aldi berean ere, xehetasunez azaldu dira kontabilitatea mekanizatzeko lanak eta auditoritza informatikoari dagozkionak, horiek HKEEren berezko aplikazioak izango bailiran. Era berean ere, zehatz-mehatz azaltzen dira aurrekontuen auditoretzarako prestatutako informatika-prozesuak. Datu horien guztien bitartez ohartarazi nahi da informatikako aplikazio batzuk berezko zaizkiola kontuen epaitegiari.*

*Informatikako tresnak erabiltzen direnean, beraz, tresna horien diseinua eta itxura ere bereziak dira. Hori guztia alde batera utzita, informatikako laguntzailearen plazari dagozkion oinarri zehatzetan, postu horretako egitekoak deskribatzen dira eta, egia esateko, ez dago alde handirik, funtsean behinik behin, kategoria horri berezko zaizkion zereginak aintzat hartuta:*

- *PC nahiz AS/400 inguruneak ezarri eta horiei eusteko laguntza ematea.*
- *Erabiltzaileek egindako kontsultak jaso eta konpontzea.*
- *Hardware eta Software izenekoak instalatzea.*
- *Segurtasun-kopiak egitea.*
- *Instalatutako ordenagailuen gaineko kontrol operatiboa izatea.*
- *Interneten erabilera erraztea.*
- *Komunikaziobideak ondo ibil daitezen zaintzea.*
- *Tokiko sareen baliabide elkarbanatuak kudeatzea.*
- *Informatikako osagai suntsikorren biltegia kontrolatzea.*
- *Informatikarekin zerikusia duten agiriak eta idazkiak prestatzea.*
- *Aplikazioen erabiltzaileak hezitzen laguntzea.*
- *Periferikoak kargatzea eta horiek abian jartzea.*

*Horregatik, gure aburuz, epaitegi horrek erabiltzen duen informatika-tresna berezia da, aplikazio hori berezkoa eta zehatza delako. Baina horrek ez dakar berarekin aurretiazko zerbitzuei balorazio desberdina eman beharra. Ezin da halakorik egin, zerbitzuok Administrazio Publikoaren esparruan egin izan direnean eta aipatutako zereginekin zuzeneko lotura dutenean.*

*Bukatzeko,* ***gidari*** *plazaz denaz bezainbatean, arrazoi gisa hurrengoa aipatu da: garrantzitsua da eginkizun hori bete behar duenak esperientzia izatea, eta berarentzat eguneroko kontu izatea, besteak beste, OCEX izeneko horien goi karguetako egitura, jardunbidea eta esanahia, bai eta kargu horien arteko harremanak ere.*

*Arrazoi horri helduta, beraz, OCEX izenekoen egitura eta antolaketa hurbil-hurbiletik ezagutzea oso garrantzitsua da. Berriro ere, arrazoi hori ez dator bat eginkizunen araberako irizpideekin. Eta berriz diogu irizpide horiek bakarrik ahalbidera dezaketela egindako zerbitzuei tratu desberdina ematea; bestela, berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioak urratuko lirateke, eta halakoei begirunea zor zaie, enplegu publikoetan sartzeko orduan".*

• Emaitza

Arartekoak gomendioa luzatu zion HKEEri. Gomendio horren arabera, HKEEk neurri egokiak hartu behar zituen eta, neurri horien bitartez, berrikusi egin behar zituen, batetik, lanpostuen zerrendako (Lzko) postuen itxuraketa eta, bestetik uztailaren 28ko 33/00 Ebazpenaren bitartez argitaratutako oinarriak (EHAO, 154. zk., uztailaren 11koa). Oinarri horiek onetsi ziren, hain zuzen ere, letradu, informatikako laguntzaile eta gidarien plazak betetzeko. Horiek guztiak berrikustean, ezerezean eta ondorerik gabe utzi behar zuen aurretiazko esperientziaren eskakizuna; eskakizun horren arabera, bi (2) urteko eta urtebeteko (1) esperientzia izan behar zen, hurrenez hurren, postuari dagozkion eginkizunetan. Arartekoak, halaber, HKEEri gomendioa eman zion, horrek argitaratutako oinarri zehatzak berrikus zitzan; berrikuspenaren ondorioz, eta lehiaketaren faseari dagokionez, zerbitzuak egin badira deialdipeko postuarekin zerikusia zuen eginkizunetan, orduan horiek balioetsi beharko dira, zein administrazio edo erakunde publikotan egin diren kontuan hartu gabe.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Arartekoari adierazi zion gomendio horiei kasu egingo ziela.

# 6. OGASUNA

## 6.1. SARRERA

2000. urtean zehar, 123 kexa jaso dira Ogasunaren arloari buruz; jasotako kexa guztien %13,18, beraz, arlo horri buruzkoak izan dira. Ukitutako administrazioak zeintzuk izan diren kontuan hartuta, honako sailkapen hau egin daiteke:

- Euskadiko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) ......... 3
- Foru Administrazioa ......... 59
- Toki Administrazioa ......... 63

Azpiarloak gogoan izanik, honako banaketa hau egin daiteke:

- Udal zergak ......... 3
- Foru zergak-PFEZ ......... 32
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ......... 21
- Udal tasak ......... 11
- Foru aldundiek tokiko tributuak kudeatzea ......... 8
- Udaleko prezio publikoak ......... 7
- Foru zergak – BEZ ......... 3
- Foru zergak - OEZ ......... 1
- Bestelako arazoak ......... 1
- Prezio publikoak – EAE ......... 1
- Prezio publikoak – Foru prezioak ......... 1
- Kontratazio-araubidea, ondarea eta administrazio-erantzukizuna 63

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) da oraindik, eta alde handiarekin gainera, kexa gehien eragiten duen foru-tributua. 2000. urtean zehar, zergadun batzuek euren desadostasuna azaldu zuten, zerga horren aitorpena aurketezko betebeharrari buruz; izan ere, zergadun horiek ez zuten gainditzen 5 milioiko muga, muga hori ezartzen baitute foru-arau desberdinek; baina muga gainditu ez arren, aitorpena aurkeztu behar zuten. Esate baterako, ordaintzaile bat baino gehiago izanez gero, aitorpena aurkeztu behar da, jasotako errenten zenbatekoa edozein izanik ere. Bestalde, aitorpena aurkeztu behar duenak, bere gurasoen aitorpenean, ondorengoen ziozko kenkaria sortarazten badu, orduan aitorpena aurkeztu beharrak berarekin dakar kenkaria izateko aukera galtzea. Era berean, ohiko bizilekuan inbertitzearen ziozko kenkariak arazoak sortzen ditu, batik bat, aurrezki-etxebizitza kontuetan gordailatutako kopuruen destinoari buruz eta subjektu pasiboak etxebizitza horretan izan behar duen egiazko bizilekuari buruz; bi kasu horietan, itzuli egin behar dira kontzeptu horren ondorioz kendutako kopuruak.

Zerga horren azterketa bukatzeko, zenbait kexa aipatu behar dira. Ezgai batzuek helarazi zituzten kexa horiek. Euren diru-iturri bakarra ezgaitasunaren ziozko pentsioa zen, eta ezin zituzten lan-etekinak arindu, zerga-arinketa hori langile “elbarri”ek bakarrik aplika dezaketelako.

Gainerako foru-zergei dagokienez, kexak ez dira oso garrantzitsuak izan. Dena den, kexa-espedienteak ireki dira Oinordetzen gaineko Zergari buruz, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari buruz eta BEZari buruz.

Tokiko tributuen esparruaz denaz bezainbatean, Ondasun Higiezinen gaineko Zergak, oraindik ere, arazo anitz sortarazten ditu; hainbat oker atzematen dira, ondasun higiezinen katastro-balioa finkatzeko orduan, eta oker horiek eragina dute ordaindu beharreko kuotaren gainean. Jakina denez, El Limitado izeneko barrendegia Araba eta Bizkaiko lurraldeen artean dago. Bada, barrendegi horren inguruan, hamaika kexa heldu dira, zerga-ezarpen bikoitza dela eta; izan ere, bi aldundi horiek, betearazpen-bidean, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga erreklamatu dute.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren arauketak zenbait aldaketa izan ditu. Aldaketa horien bitartez, beharbada, konpon daitezke gaur arte izan diren interpretazio-arazoak.

Aldaketa horiek ukitu egin dute, besteak beste, atoi arinen eta ibilgailu mistoen tributazioa. Gainera, zergaren tarifak aplikatzeko orduan ere, aldaketak izan dira, ibilgailuaren potentzia fiskala kontuan harturik.

Lehenengo eraldaketa gertatu da, Fiskalitate, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legearen 18.22.b) art.aren ondorioz. Manu horrek Arartekoaren tesiak berretsi ditu; tesi horietan, Arartekoak defendatu zuen TMIZ horren ondorioz, atoi eta erdiatoi arinek ez zutela tributatu behar; atoi eta erdiatoi arinak dira, izatez, 750 kilo gainditzen ez dutenak, betiere, gehieneko pisu baimendua gogoan izanik. Hortaz, arauak beren beregi jaso du Arartekoaren ustez lehendik ere isilbidez zegoen agindua; isilbidezko agindu hori TMIZaren zerga-oinarriaren definiziotik atera zitekeen.

Areago oraindik, arau horren aginduz, lehen baino kasu gehiago geratzen dira zergatik kanpo. Egin-eginean ere, atoiak eta erdiatoiak ez daude TMIZaren menpe, baldin eta euren pisua 750 kilokoa edo hori baino txikiagoa bada. Horrez gain, trakzio mekanikozko ibilgailu batek atoia edo erdiatoia garraiatzen badu, eta horren **zama erabilgarria** ez bada 750 kilotik gorakoa, orduan horiek ere ez daude TMIZaren menpe. Azken agindu hori, nabari denez, zama erabilgarriari buruzkoa da, eta hori ezin zen atera zerga-oinarriari buruzko aurreko idazkeratik, ez oinarri horren definiziotik, ezta haren norainokotik ere.

Argibide horiek barneratu behar izan dira, aldi berean ere, beste bi foru-arautan. Zehatz-mehatz esateko, argibide hori jaso du, batetik, 7/89 Foru Arauak; horrek arautu du Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Bizkaiko lurralde historikoan. Eta argibide hori jaso du, bestetik, 14/1989 Foru Arauak; horrek zerga bera arautu du Gipuzkoan. (Arartekoak ez du uste Araban aldarazpena jaso denik, lurralde horretan ez baita inoiz kexarik izan).

Bigarrenik, argi eta garbi ezarri da zer-nolakoa izan behar den ibilgailu mistoen tributazioa. Ibilgailu horien kalifikazioari dagokionez, gogoan izan behar da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretuak aldarazpena sartu duela Gipuzkoan. Dekretu horrek ibilgailu-mota desberdinei buruzko kontzeptuak eman ditu eta, horrekin batera, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko erregelak finkatu ditu. Dekretu horrek 1984ko Agindua ordeztu du; agindu horrek zehaztu zuen nola kalifikatu behar ziren ibilgailu-mota desberdinak, TMIZ ordaintzeko orduan.

Zalantza ugari sortu ziren, ibilgailu zehatz batzuen tributazioari buruz eta, bereziki, furgoien tributazioari buruz. Foru dekretu horrek behin betiko argitu ditu zalantza horiek, 2. paragrafoan hurrengoa ezarri baitu:

*"Furgoiek, furgonetek, ibilgailu misto modalgarriek eta turismo-eratorriek turismoek bezala tributatuko dute, euren potentzia fiskalaren arabera, salbu eta 1.000 kilogramotik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena dutenean; kasu horretan, kamioiek bezala tributatuko dute".*

Ildo beretik, legearen testuak Auzitegi Gorenaren zehaztapenak barneratu behar zituen; Auzitegi Gorenaren Administrazio Auzibideetarako Gelak zehaztapen horiek egin zituen, 1999ko otsailaren 6ko epaian (JE 1999\1205). Egokitzapen horren ondorioz, tarifen egitura berrantolatu da; egitura hori jaso zuten, batetik, Toki Ogasunen Foru Arauak eta, bestetik, 14/1989 Foru Arauak, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautu duenak. Horrela, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako lurralde historikoko udalek turismoen TMIZ hori likidatu behar dute, honako sailkapen hau aplikatuz:

- 9 zaldi fiskal baino gutxiago
- 9tik 11,99 arteko zaldi fiskal
- 12tik 13,99 arteko zaldi fiskal
- 14tik 15,99 arteko zaldi fiskal
- 16tik 19,99 arteko zaldi fiskal
- 20 zaldi fiskal baino gehiago

Tokiko tributuen esparruari ekinez, zenbait kexa azaldu dira, Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoaren jardunarengatik. Partzuergo horrek hornidura egiten duen herrietan, erabiltzaile batzuek gehiegi ordaindu dute ur-horniduraren ondorioz eta zabor-bilketaren ondorioz, eta gero oso zail gertatu zaie gehiegiko pagamendu hori berreskuratzea.

Partzuergoak tarifa desberdinak aplikatzen ditu eta, horretarako, aintzakotzat hartzen du zein destinotarako erabiltzen den ur-hornidura. Horrela, etxebizitzetarako hornidura eta jardueretarako hornidura bereiz daitezke; bigarrenak lehenengoak baino tarifa handiagoa du. Hala eta guztiz ere, orain duela gutxi arte, denboraldi desberdinetako jasoagirietan, tarifen kode batzuk besterik ez ziren ezartzen (05 eta 37), eta kode horien bitartez ezin zen jakin zein kontzepturi zegokion kobrantza. Horregatik, harpidedunak ez zekien zer-nolako ordainketa egiten ari zen; ondorenez, ezin zuen egiaztatu datuak ondo zeudenik ala ez eta, beraz, ezin zuen erreklamaziorik egin.

Behin akatsa igarri, eta aldarazpena eskatu eta gero, Ur Partzuergoak aldaketa onartu du; baina, ordaindutako jasoagiriei dagokienez, partzuergoak uste du aurretiazko likidazioetan aintzakotzat hartu zirela indarreko kontratuan zeuden datuak. Horregatik, erabiltzaileak partzuergoari horniduraren izaera aldatu dela jakinarazi arte, ezin da tarifa berria aplikatu; une horretatik aurrera, ordea, tarifa berria aplikatuko da.

Gai horretan, gogoratzekoa da Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuei buruzko 3/1986 Foru Dekretu Orokorra, martxoaren 26koa eta, zehatzago, horren 64.d) artikulua. Horren arabera, herritarrek zor ez dituzten sarrerak egin badituzte, horien itzulketa erreklamatzeko eskubidea dute; eskubide horren preskripzioa hiru urte

igarotakoan gertatzen da. Artikulu hori Zuzenbide publikoko sarrerei ere aplika dakieke, horiek tributukoak ez direnean.

Beste kexa batzuk ere badira izan, eta horiek aintzat hartzea nahitaezko gertatzen da, berdintasunaren konstituzio-printzipioa kolokan jar dezaketelako. Guraso bakarreko familiei tratamentu berezia ematen zaie prezio publikoen arloan, eta horrek sortarazi ditu kexak; guraso bakarreko familietan, izenak berak dioenez, gurasoetatik bat eta seme-alabak barneratzen dira. Ezin da esan, inola ere, bereizkeria orokorrak egiten direnik. Alabaina, egoera jakin batzuk ez dira batere zuzenak, egoerok sortzen direlako, beste barik, familia horietan guraso bakarra dagoelako. Hori dela eta, Arartekoaren esku-hartzea beharrezko gertatu da.

Bukatzeko, Administrazioko tributu-prozedurari dagokionez, zenbait kexa jaso dira, trafikoko zehapenak zuzen-zuzenean PFEZko itzulketekin konpentsatzen direlako. Beste kexa batzuk ere jaso dira, hiru lurralde historikoetako foru auzitegi ekonomiko-administratiboetan erreklamazio ekonomiko-administratiboak gauzatzeko orduan, atzerapenak izan direlako. Amaitzeko, beste kexa batzuk izan dira, betearazpen-bidean enbargoak egin direlako, ustez preskribatuta dauden zorren ondorioz.

## 6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Balioei buruzko egiaztapena jakinarazten denean, subjektu pasiboari ere jakinarazpen hori luzatu behar zaio (803/2000)*

• Erreklamazioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak gauzatutako jardunaren ondorioz, herritar batek kexa azaldu zion Arartekoari. Kexa horren arabera, 1997. urtean, herritarrak babes ofizialeko etxebizitza eskuratu zuen Bilbon; eta, 2000ko uztailaren erdialdera, jakin zuen Bizkaiko Foru Ogasunak etxebizitzaren balorazioa berrikusi zuela. Berrikuspenaren ondorioz, Bizkako Foru Ogasunak balioen egiaztapenari buruzko erabakia hartu zuen. Erabaki horren arabera, herritarrak eskuratutako ondasun higiezinaren balioa handiagoa zen. Azken finean, horrek berarekin zekarren Ondare Eskualdaketen gaineko Zergan gehiago ordaintzea.

Kexaren arrazoietako bat izan zen, hain zuzen ere, ondasun higiezinaren balorazioan gertatuko gehikuntza. Alabaina, kexaren arrazoi nagusia jarraikoa izan zen: erabakiari buruzko jakinarazpena 2000ko ekainean egin zen, Bilboko notario baten egoitzan, alegia, ondasun higiezinaren salerosketari buruzko eskritura publikoa formalizatu zuen notarioaren egoitzan. Are gehiago, erabakia notariotza horretako langile bati zuzendu zitzaion.

Notarioak herritarrari bidali zion balioen egiaztapenari buruzko erabakia. Baina herritarrak horren berri jaso zuenean, jadanik 15 eguneko epea agortuta zegoen, eta ezin zuen balorazioaren gaineko erreklamaziorik egin eta beste tasazio bat eskatu.

Halaber, Foru Ogasunak, ondasun higiezinaren balorazioa egiaztatzeko orduan, ez zuen kontuan hartu eskuratutako etxebizitza ez zela askea; hots, ez zuen kontuan

hartu etxebizitza horri babes ofizialeko etxebizitzen araubidea aplikatzen zitzaiola eta, beraz, ezin zela saldu indarreko legeriak ezartzen duen preziotik gora.

• Azterketa

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian behin eta berriz azaltzen dena ikusita, Arartekoak txostena eskatu zion Foru Ogasunari. Arartekoak azpimarratu zuen ez dela nahikoa balioen egiaztapenari buruzko egintza agiri-aurkezleari (hau da, notarioari) jakinaraztea. Subjektu pasiboari ere egintza jakinarazi behar zaio; izan ere, gure antolamenduak subjektu pasiboari bakarrik ematen dio beste peritu-tasazio bat eskatzeko eskubidea. Sujektu pasiboak ezin izango du tasazio hori eskatu, baldin eta balioen egiaztapenari buruzko erabakia ez bazaio jakinarazten. Arartekoak berriz azpimarratu nahi du balioen egiaztapenari buruzko erabakia ez dela izapide hutseko egintza. Aitzitik, egintza horretatik ondorio garrantzitsuak sortzen dira herritarrarentzat, zergaren oinarria handitzea dakarrelako.

Gainera, auzitegietako jurisprudentziak hauxe erreklamatu du: balioen egiaztapenari buruzko erabakia zioduna izan behar da; beste modu batera esanda, argi geratu behar da zein irizpide edo datu erabili den, eskualdatutako ondasunaren balioa zehazteko. Erabakiak ez zituen jasotzen balorazioa egiteko irizpide horiek.

Bukatzeko, eskualdatutako etxebizitzari babes ofizialeko etxebizitzen araubidea aplikatzen zitzaionez gero, ondokoa aintzat hartzea ezinbestekoa zen: *"babes ofizialeko etxebizitzak edota horiekin berdinetsitako administrazio-kategoriak balioetsi behar badira, eta eurok besterentzeko gehieneko balioa tasatuta badago, orduan zergaren oinarria ezin da izan etxebizitza horiei dagokien gehieneko prezioa baino handiagoa; gehieneko prezio hori finkatzeko, babes ofizialeko etxebizitzen edota horiekin berdinetsitako administrazio-kategorien legeria aplikatu behar da".* (Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 23ko 3/1979 Foru Arauaren 44.7. art.)

• Emaitza

Bizkaiko Foru Ogasunak Arartekoari adierazi zion igorritako likidazioa ezereztu egingo zuela.

⇒ *Tributu-betebeharrak bankuan helbideratzeagatik, arazoak sortu ziren (859/1999)*

• Erreklamazioa

Arartekoak kexa-idazkia jaso zuen, zergadun batek arazoak izan zituelako, Bilboko Udalarekin zituen tributu-betebeharren ordainketa helbideratzeagatik.

Orain urte batzuk, erreklamaziogileak helbideratu egin zuen udalarekin zituen tributu-betebeharren ordainketa. Guztien ordainketa bankuko kontu berean helbideratu zuen, eta kobrantza arazorik gabe egiten zen.

Harrigarria bada ere, 1997. urtean, Bilboko Udalak premiamendu-probidentzia bidali zion zergadunari, OHZren jasoagiria eta estoldetako tasa ez ordaintzeagatik.

Harrezkero, interesdunak hainbat idazki bidali zizkion korporazio horri. Idazkiotan, interesdunak adierazi zuen nondik etor zitekeen arazoa: udalak bankuari bidalitako

zerrenda horretan, ez zen agertzen interesdunaren kontu-korronteko kontrol-digitua. Idazkiak bidali arren, udalak behin eta berriz eskatu zion herritarrari, zorra errekargu eta guzti ordaintzeko.

• Azterketa

Arartekoak hauxe ulertu zuen: ordu arte, kobrantzak arazorik gabe egin zirenez gero, udalari berari egotzi ahal zitzaion, agidanez, jasoagiria ez ordaintzea. Horregatik, Arartekoak gaiari buruzko informazioa eskatu zion udalari. Bilboko Udaleko Kontu-hartzailetza eta Diruzaintza Sailak erantzuna eman zuen. Erantzunari helduta, interesdunak jasoagiriak helbideratu zituen bankuan, baina ez zuen banku horren egiaztagiririk aurkeztu, ordainketak ez egiteko arrazoia hori dela adierazteko.

Era berean, udaleko sail horrek Arartekoari azaldu zion ez zegoela inolako trabarik, behin datu hori egiaztatutakoan, aplikatutako premiamendu-errekarguak ezeztatzeko.

• Emaitza

Bilboko Udalak, hasieran, premiamendu-errekargua aplikatu zien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ondorioz eta estoldetako tasen ondorioz igorritako jasoagiriei. Baina, azkenean, udalak oniritzia eman zion eskariari, eta errekargu hori itzuli zion herritarrari; horretarako, banku-tranferentzia egin zuen titularraren kontuan, errekargu horren zenbatekoa sartu zuen.

## B) **Foru zergak – PFEZ**

### ⇒ *Zergaren oinarria zehaztea, PFEZ izeneko horretan (428/1999)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak adierazi zuenari helduta, berak PFEZko aitorpenak egin zituen, 1995 eta 1996ko ekitaldietan. Aitorpen horietan barneratu zituen errentapeko ustiategi baten ondoriozko zenbatekoak; izan ere, erreklamaziogilea errentapeko lokal horren jabea zen.

Edonola ere, erreklamaziogileak ez zituen kopuru horiek inoiz kobratu, errentaria kaudimengabea zelako. Horren ondorioz, Donostiako lehen auzialdiko 5. epaitegian, erreklamaziogileak epaiketa eragin zuen, eta epaiketa horren sententziak hark adierazitakoa berretsi zuen.

1996ko ekitaldiaren aitorpena egitean, erreklamaziogileak ziurtzat jo zuen aurreko urtean etekin horiek aitortu izana. Horregatik, 7.200.000 pezeta aitorpenean sartu zituen, nekez kobra daitezkeen saldoen artean; diru-kopuru horiek kobratu gabeko errentei zegozkien.

Kexa azaltzeko orduan, Gipuzkoako Foru Ogasunak interesdunari 3.588.935 pezeta erreklamatu zizkion, 1995eko ekitaldiko aitorpenarengatik, aitorpen horretan ez zituelako sartu errentamenduaren ziozko errentak. Baina oraindik Gipuzkoako Foru Ogasunak egin gabe zeukan 1996ko ekitaldiari zegokion likidazioa; horretan, aintzakotzat hartzen ziren nekez kobra zitezkeen saldo horiek.

Erreklamaziogileak azaldutakoari eutsiz, Tributu Administrazioak bereizkeria burutu zuen beraren aurka. Haren ustez, berak jasotako errenta gisa zenbatu behar zituen

errentamenduak ustez eratortzen zituen errentak; baina gero Administrazioak ez zion itzultzen izaera horrekin eta nekez kobra daitekeen saldo gisa 1996ko ekitaldian barneratutakoa.

• Azterketa

Arartekoak informazioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Ogasunari. Zuzeneko Zergen Kudeaketarako zerbitzuburuak erantzuna eman zuen, idazki baten bitartez. Idazki horren edukia jarraikoa zen:

> *"Abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautu du. Foru Arau horren 56. artikuluan xedatutakoari helduta, sarrerek eta gastuek zergaren oinarria zehazteko kontuan hartu behar direnean, horiek zein denboralditan sortu eta denboraldi horri egotzi behar zaizkio, kobrantzak eta ordainketak zein unetan egiten diren kontuan hartu gabe.*
> *Bestalde, otsailaren 25eko 21/1992 Foru Dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onetsi du. Foru Dekretu horren 7. artikuluko lehenengo atalaren A puntuko e) letrak ezarritakoaren arabera, nekez kobra daitezkeen saldoak kentzeko moduko gastuak dira, ondasun higiezinen errentamentuak sortutako sarrerei begira, baldin eta inguruabar hori behar bezala egiaztatzen bada; inguruabar hori behar bezala egiaztatu dela ulertuko da, noiz eta zordunak ordainketa-etendura, porrota edo horien antzeko egoerak dituenean, edota urtebete baino gehiago igaro denean, subjektu pasiboak kobrantza lortzeko lehenengo kudeaketa burutu duenetik zergaldia bukatu arte, baldin eta epe horretan ez bada kreditua berriztatu.*
> *Azaldutakoaren harira, Zuzeneko Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak eta, horren barruan, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari dagokion Atalak, hauxe adierazi nahi du: errentamentuaren ondorioz errentak sortu dira eta, eskatzeko modukoak izan arren, ez dira kobratu. Erronta horiek, likidazio egokiaren bitartez, higiezinen kapitaleko sarrera gisa egotzi dira, 1995eko ekitaldian; egozketaren kopurua 7.200.000 pezetakoa izan da. Kopuru hori ere gastu gisa zenbatu da, nekez kobra daitezkeen saldoen artean, hurrengo ekitaldian; horrela, 1996ko sarrerak txikitu egin dira. Ondorenez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, 1996. ekitaldian, 514.910 pezeta itzuli dira, zergaren kuota diferentzial gisa. Hortaz, Tributu Administrazioak ez du inolako bereizkeriarik burutu erreklamaziogilearen aurka. Aitzitik, zuzen jokatu du, zerga-oinarriari dagozkion sarrerak eta gastuak zein denboralditan sortu, eta denboraldi horri egotzi izan dizkionean halakoak, kobrantzak eta ordainketak zein unetan egin diren aintzakotzat hartu gabe; errentak, jakina denez, 1995eko ekitaldian sortu dira, urte horretako errentamenduaren ondorioz, eta nekez kobra daitezkeen saldoak, aldiz, 1996ko ekitaldian".*

• Emaitza

Idazki horren edukia irakurrita, hauxe atera daiteke: Ogasunak, 1995eko ekitaldian, zuzenketa egin du, jaso ez diren errentak sarrera moduan sartu dituelako. Horrekin batera, zuzenketa egin du 1996ko ekitaldian ere, nekez kobra daitezkeen saldoen artean zenbatu dituelako kopuru berberak.

Bestalde, 1996ko ekitaldiko likidazioaren ondorioz, itzulketa egin behar zen, eta Arartekoak ziur daki 541.908 pezeta itzuli direla, Zuzeneko Zergen Kudeaketarako zerbitzuburuak berak hori adierazi diolako Arartekoari.

### C) **Foru zergak – BEZ**

⇒ *Tributuen arloko arau-haustea dela eta, zehapena ezarri eta zehapen hori mailakatzea (306/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak dioenez, manuzko epearen barruan, BEZaren urteko aitorpen laburtua aurkeztu zuen. Aitorpen hori 1998ko ekitaldiari zegokion, 391 ereduarekin beteta zegoen eta aurkezpena banku baten bitartez egin zen. Aitorpen horren arabera, erreklamaziogilearen aldeko emaitza 264.561 pezetakoa zen, eta erreklamaziogileak hurrengo denboraldietako emaitzekin konpentsatzeko eskatu zuen.

Geroago, BEZaren atalak jakinarazpena bidali zion erreklamaziogileari. Jakinarazpen horri helduta, sarrera epez kanpo egiteagatik, 25.000 pezetako zehapena ezarri zitzaion erreklamaziogileari. Une hori arte, erreklamaziogilea ez zen ohartu zigilatutako kopia ez zegoela bere eskuetan; kopia horrek egiaztatzen zuen aitorpena garaiz eta epe barruan aurkeztuta zegoela.

Une horretan, erreklamaziogileak azalpenak eskatu zizkion bankuari, baina gaur oraindik dio berak ez dakiela non dagoen aurkeztutako aitorpena.

• Azterketa

Edozein kasutan ere, interesdunak eskatu zuen zehapena gutxienekoa izatea, alegia, zehapena arau-hauste arinei dagokiena izatea. Izan ere, autolikidazioaren emaitzak ez zekarren berarekin kopuru jakin bat sartzeko betebeharrik eta, ondorenez, Fou Ogasunari ez zitzaion inolako kalterik egiten. Gainera, egitateak erreklamaziogileak dioen bezala gertatuz gero, zehatutako jokabidea nahigabekoa izan zen.

Arartekoak Gipuzkoako Foru Ogasunari azaldu zizkion gertaera horiek guztiak. Atal eskudunaren buruak txostena bidali zion Arartekoari, erantzuna emateko. Txosten horren arabera, interesdunak alegatzen zuen, aitorpena garaiz eta epearen barruan aurkeztu zuela; baina ez zegoen inolako frogarik hori egiaztatzeko.

Ezarritako zehapenaren zenbatekoari dagokionez –25.000 pezeta–, Ogasunak Tributuei buruzko 1/185 Foru Arau Orokorra gogorarazi zuen; horren arabera, arau-hauste arinei 1.000 pezetatik 150.000 pezeta arteko isunak ezarriko zaizkie.

Arau berberak, 82. artikuluko e) eta f) letretan, hurrengoa ezarri du: arau-hauste arinak mailakatzeko, kontuan hartuko da, batetik, betebeharrak betetzeko orduan nahigabeko urratzea edo atzerapena gertatu den; eta, bestetik, jarduera horiek zein garrantzi duten, tributuen kudeaketa eragingarria izan dadin. 4/97 Foru Dekretuak Tributuei buruzko Foru Arau Orokorraren xedapenak garatu ditu eta, bertan ere, antzeko zerbait ezarri da.

Bestalde, 59/97 Foru-Aginduak arau-hauste arinentzako zehapenak ezarri ditu. Foru-agindu horren 1.1.c) artikuluari helduta, norbaitek epez kanpo aurkezten baditu BEZaren urteko aitorpen laburtuak, aitorpen horiek 390, 391 edota 392 ereduan bete

badira, eta ez bada oraindik urtebete igaro, orduan horri 25.000 pezetako isuna ezarriko zaio.

• Emaitza

Ogasunak dioenez, interesdunak alegatu du bankuari garaiz aurkeztu ziola aitorpena –hori esanguratsuena izan zitekeen–. Baina inguruabar hori ez da inola ere frogatu eta, gainera, bankuak berak ere ez du horren kargurik hartu.

Ogasunaren iritziz, zergadunak ez zuen ardura handirik izan, aitorpenaren kopia zigilatua ez izateagatik. Egin-eginean ere, aitorpena bankuari aurkeztuz gero –eta, itxuraz, hala egin zuen erreklamazogileak–, bankuak kopia hori eman behar zion, zigilu eta guzti.

Zerbitzu horrek interesdunari errekerimendua egin zion unean, orduan sortu zen aitorpena aurkezteko kezka.

Hori guztia dela eta, Arartekoaren lanari dagokionez, hori bukatutzat jo daiteke eta, beraz, espedientea itxi egin da, Arartekoaren eskumenak horretan agortzen baitira.

## D) **Udal zergak**

⇒ *Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) ordaintzeko eskatu zen, automobil baten baxari buruzko izapideak egiteko (1159/1999)*

• Erreklamazioa

Bilboko Udalak betearazpen-bidea erabili zuen interesdunaren aurka, horri TMIZko jasoagiri batzuen ordainketa ereklamatzeko. Interesduna ez zegoen jarduera horrekin ados. Interesdunak zioenez, ezin zituen jasoagiri horiek ordaindu eta, beraz, ezin zuen izapiderik egin, Trafikoko Probintzia Burutzan ibilgailuari baxa emateko. Ordainketa ezarengatik, urtero-urtero zorra handitu egiten zen.

• Azterketa

Arartekoak, kexa sakon aztertu eta gero, nahitaezkotzat jo zuen erreklamaziogileari hurrengoa adieraztea: Trafikoko Probintzia Burutzan ibilgailuari baxa emateko, ezinbestekoa da TMIZaren azken jasoagiria ordaintzea. Betebehar hori ez du Bilboko Udalak ezarri. Kontrara, betebehar hori 7/89 Foru Arauan dago jasota, horrek arautzen baitu TMIZ izenekoa, Bizkaiko lurralde historikoan. Hortaz, agindu hori udal guztietan aplikatu behar da, eta idazkera bera dute Gipuzkoako, Arabako eta estatuko gainerako lurraldeetako arauek ere.

Bestalde, Arartekoak interesdunari jakinarazi zion horrek bazuela aukerarik urtero-urtero zorra handitu ez zedin. Horretarako nahikoa izango zatekeen, borondatezko epearen barruan, jasoagirietatik edozein ordaintzea eta, jarraian, ibilgailuaren baxari buruzko izapideak egitea. Horri kalterik egin gabe, Udalak aurreko jasoagiriak eskatzeari ekingo zion, horiek premiamendu-bidean izanez gero.

• Emaitza

Arartekoak ez du uste, beraz, Bilboko Udalaren jardunean irregulartasunik izan denik. Horregatik, interesdunari eskerrak eman dizkio Arartekoarekin konfiantza izateagatik eta, ondoren, espedientea itxi du.

### ⇒ *Ibilgailu misto, furgoi eta furgoneten tributazioa, TMIZ izeneko horretan (295/2000)*

• Erreklamazioa

Furgoiaren titularrak kexa azaldu zuen, Irungo Udalaren aurka. Erreklamaziogileak zioen udalak ibilgailuaren kalifikazioa aldatu zuela, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga (TMIZ) kobratzeko.

Esangura horretan, erreklamaziogileak honako informazio hau eman zion Arartekoari: 2000. urtea arte, Irungo Udalak kamiotzat hartu zuen erreklamaziogilearen ibilgailua eta, horren ondorioz, erreklamaziogileak zerga ordaindu zuen, ibilgailuak garraia zezakeen zama erabilgarriaren arabera. Nolanahi ere, 2000. urtean, Irungo Udalak zerga igorri zion erreklamaziogileari, 12 zaldi fiskal baino gehiagoko turismo baten titularra izateagatik. Ibilgailuaren kalifikazioa, beraz, aldatu egin zen, eta aldaketa horrek ondorio ekonomiko kaltegarriak ekarri zituen ibilgailuaren jabearentzat.

• Azterketa

Ibilgailu horien kalifikazioari dagokionez, gogoan izan behar da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretuak aldarazpena ekarri duela. Dekretu horrek ibilgailu-mota desberdinei buruzko kontzeptuak eman ditu eta, horrekin batera, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko erregelak finkatu ditu. Dekretu horrek 1984ko Agindua ordeztu du; agindu horrek zehaztu zuen nola kalifikatu behar ziren ibilgailu-mota desberdinak, TMIZ ordaintzeko orduan.

*Zalantza ugari sortu ziren, ibilgailu zehatz batzuen tributazioari buruz eta, bereziki, furgoien tributazioari buruz. Foru dekretu horrek behin betiko argitu ditu zalantza horiek, 2. paragrafoan hurrengoa ezarri baitu:* “Furgoiek, furgonetek, ibilgailu misto modalgarriek eta turismo-eratorriek turismoek bezala tributatuko dute, euren potentzia fiskalaren arabera, salbu eta 1.000 kilogramotik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena dutenean; kasu horretan, kamioiek bezala tributatuko dute”.

• Emaitza

Herritarrak ibilgailuaren titulartasuna zuen, baina ez zuen bamienik 1.000 kilotik gorako zama erabilgarria garraiatzeko. Hortaz, Arartekoak herritarrari jakinarazi zion Irungo Udalaren jarduna indarreko legeriarekin bat zetorrela.

### ⇒ *Zergagaia gertatzea, Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan (330/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak hurrengoa azaldu zion Arartekoari: 1990. urtean, negozio-lokala hartu zuen errentan beste lagun batekin, ondasun erkidego gisa, bertan taberna bat jartzeko.

Baimena eskatzeko, proiektua egin zen, baina proiektu horren inguruan hainbat arazo sortu ziren. Gainera, bazkideak gaixotasun larria hartu zuen. Hori guztia dela medio, erreklamaziogileak bertan behera utzi zuen taberna jartzeko ekimena. Lokalean,

beraz, ez zen taberna-jarduerarik burutuko eta, horregatik, lokalaren jabeak beste lagun batzuei eman zien errentan lokal hori.

Hala eta guztiz ere, interesdunak ez zion baxarik eman baimen fiskalari eta, ondorenez, udalak likidazioak eskatzen zizkion.

• Azterketa

Arartekoak informazioa eskatu zion udal ukituari eta, era berean, abisua eman zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Izan ere, interesdunak birjarpen-errekurtsoa jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundian, eta horrek interesdunaren alegazioei oniritzia eman zien. Kasu horretan, interesdunak alegazioak jarri zituen, zehapena jarri ziolako udalak, 1991ko ekitaldiko BEZaren urteko aitorpena ez aurkezteagatik.

• Emaitza

Bilboko Udalari gaiaren inguruan eskaria egin eta gero, udalak erantzuna bidali zuen, Ekonomia eta Ogasun Saileko zuzendariak egindako idazkiaren bitartez. Idazki horretan, Arartekoari jakinarazi zion udalak kontuan izango zituela kasuan kasuko inguruabarrak eta, ondorenez, Ekonomi Jardueren gianeko Zergaren jasoagiriak baliogabetuko zituela, 1992. ekitalditik 1999. ekitaldia arte. Horretarako, Ekonomia eta Ogasun Saileko zinegotzi eskuordeak Dekretua eman zuen, 2000ko ekainaren 2an.

### ⇒ *Gizarte-etxebizitzen ondoriozko hobariak, OHZ izeneko hori ordaintzeko orduan (439/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak babes ofizialeko etxebizitzen titularrak dira Gasteizen. Arartekoarengana jo zuten, Udalak ez zielako aplikatu %50eko hobaria, Ondasun Higiezinen gaineko Zergan (OHZ).

• Azterketa

Gasteizko Udal Ordenantzak, OHZ arautzen duenean, zergari berezko zaizkion hobariez gain, beste batzuk aitortzen dizkie babes ofizialeko etxebizitza jakin batzuei: "*Zerga honen kuotari dagokionez, Udalak %50eko hobaria emango die gizarte izaerako etxebizitzei, baldin eta horiek azalera-eskubidearen araubidearekin bat etorriz okupatu badira; araubide hori uztailaren 30eko 12/1996 Dekretuaren 16. artikuluak jasotzen du, dekretu horrek gizarte etxebizitzen finantza-neurriak eta araubidea ezarri baititu. Hobari hori izateko epea bost urtekoa izango da, hobaria ematen denetik zenbatuta; baina, hobaria lortzeko, aldez aurretik beharrezkoa da subjektu pasiboak hori eskatzea*".

Argiago esanda, hobaria lortu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira: alde batetik, zerga ordaindu behar duena benetan etxebizitza horretan bizi behar da, eta etxebizitzaren ondorioz OHZ izeneko zerga ordaindu behar du; eta, beste alde batetik, ondasun higiezina eskuratu behar izan da, ez jabetza eskubidearen bitartez, ezpada azalera eskubidearen bitartez.

• Emaitza

Arartekoak erreklamaziogileei adierazi zien, euren kasuan, udalaren erabakia legeriarekin bat zetorrela. Izan ere, erreklamaziogileek babes ofizialeko etxebizitzen jabetza osoa eskuratu zuten, horiek erosi zituztenean.

*⇒ Udaleko ordenantza foru-arauarekin bat ez etortzea (839/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak %77ko ezgaitasun fisikoa du, eta Arartekoarengana jo zuen, Asparrenako Udalak zerga-salbuespena ukatu ziolako, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ).

Horren inguruan, interesdunak Arartekoari adierazi zion berak bazekiela zerga-salbuespena izan zezakeela zergaren ordainketan eta, ondorenez, TMIZean zerga-salbuespen hori eskatu zion toki-erakundeari.

Zernahi gisaz, udalak gaitziritzia eman zion erreklamaziogilearen eskariari. Arean bere, Asparrenako Udalaren Ordenantza Fiskalak TMIZ izenekoa arautzen du. Bada, ordenantza horren 4.1.d) artikuluaren arabera, zerga-salbuespena bidezkoa izango da, baldin eta ibilgailuak 12 zaldi fiskal baino gehiago ez baditu eta ibilgailu hori moldatuta badago, horren gidaria ezgaitasun fisikoa duen lagun bat izan dadin. Erreklamaziogilearen ibilgailuak 12.93 zaldi fiskaleko potentzia fiskala zuen.

• Azterketa

Arazo horren inguruan, Arartekoak Asparrenako Udalari azaldu zion kontuan izan behar zuela apirilaren 19ko 6/1999 Foru Araua, horrek neurri fiskalak arautzen dituelako. Egin-eginean ere, Arabako lurralde historikoko Batzar Nagusiek aldatu egin zuten elbarritasunaren ziozko zerga-salbuespena, TMIZ horren ondorioetarako. Aldaketa hori aplikagarria zen, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bide horretatik, Arartekoak toki-korporazioari jakinarazi zion zein den 22.1.d) artikuluaren idazkera berria. Idazkera berri horren arabera, "*elbarrien ibilgailuak zergatik salbuetsita egongo dira (...), baldin eta ibilgailuok moldatuta badaude, euren gidaria ezgaitasun fisikoa duen lagun bat izan dadin, euren potentzia 14 edo 17 zaldi fiskalekoa baino txikiagoa bada, eta titularrek %65etik beherako elbarritasun-maila badute edo %65eko ezgaitasun fisikoa edo hortik gorakoa badute*".

Jakina denez, udal ordenantzak Foru Arauari egokitu behar zaizkio. Bistakoa da, halaber, erreklamaziogilearen ibilgailuak ez dituela gainditzen Foru Arauak ezarritako potentzia fiskalaren mugak. Hortaz, erreklamaziogilea zerga-salbuespenaren onuradun izan daiteke eta, horregatik, Arartekoak Asparrenako Udalari jakinarazi zion interesdunaren eskaria bidezkoa zela.

• Emaitza

Toki erakunde horrek Arartekoari adierazi zion bere ordenantza fiskala aldatzeko erabakia hartuko zuela. Horrekin batera, erreklamaziogileari zerga-salbuespenaren onura aitortuko zion. Arartekoak hori guztia jakinarazi zion interesdunari. Era berean, Arartekoak interesdunari adierazi zion zerga-salbuespena eska zezakeela, baita 1999ko ekitaldiaren ondorioetarako ere. Izan ere, 6/1999 Foru Arauaren ondoreak atzera-eraginezkoak dira, 1999ko urtarrilaren bata arte.

## E) **Udaleko prezio publikoak**

⇒ *Prezio publikoen zenbatekoa, espaloietako pasabideak eta bideak direla eta (605/1999)*

• Erreklamazioa

Auzotarren erkidego bat ez zegoen ados Donostiako Udalak igorritako likidazio batzuekin, erkidegoak uste zuelako likidazio horien zenbatekoa neurriz kanpokoa zela. Udalak likidazio horiek igorri zituen, 1994. urtetik 1998. urtea arteko sasoian, jabekidetzako garajeen pasabide eta bideen ondorioz.

• Azterketa

Arartekoak, kexa jaso bezain laster, informazioa eskatu zion aipatutako korporazioari. Horrek erantzuna luzatu zuen, Datu Baseen zerbitzuburuak egindako idazkiaren bitartez.

Idazki horretan, zerbitzuburuak aitortu zuen hainbat eta hainbat errekurtso aurkeztu zirela aipatutako likidazioen aurka. Ondorenez, Donostiako Udalak kanpoko adituei txostena eskatu zien; espaloietatik pasabideak eta bideak izateagatik, prezio publikoak ordaindu behar dira, eta udalak jakin nahi zuen zeintzuk ziren prezio publiko berriak finkatzeko irizpideak.

Kanpoko adituen txostenak berretsi egin zuen udalak erabiltzen zituen balioak egungo errealitatearekin bat zetozela. Alabaina, txostenak ez zuen bat egiten udalak erabilitako irizpidearekin. Txostenaren arabera, lur hori espaloietatik igarotzeko erabiltzen denean, bi erabilera-mota bereizi behar dira: batetik, jarduera ekonomikoa burutzeko eta, beraz, irabaziak lortzeko erabilera; eta, bestetik, etxeko erabilera (jabeen garajeak). Azken kasu horretan, kanpoko adituen txostenak ezarri zuen hobe zela urripen esanguratsua egitea udalak finkatutako balioetan.

• Emaitza

Donostiako Udalak aitortu zuen zergaren ikusmiratik egokiagoa zela hurrengoak bereiztea: aurrenik, garaje kolektiboa izateagatik, espaloietatik igarotzea; eta, hurrenik, merkataritzako nahiz industriako jarduera burutzeagatik, lokalak aprobetxamentu mota hori izatea. Horregatik, Donostiako Udalak beste likidazio batzuk egin zituen, 1994. urtetik 1998. urtea arteko sasoian, espaloietatik izandako pasabide eta bideen ondorioz. Eta, horretarako, 1993. urtean indarrean zeuden prezioei aplikatu zien Kontsumorako Prezioen Indizeak urtero-urtero izandako gehikuntza.

## F) **Udal tasak**

⇒ *Tasa baten zergagaia, hirigintza arloko txostenak igortzeagatik (199/2000)*

• Erreklamazioa

Interesdunak adierazi duenez, 1997ko urtarrilean, Bermeko udaletxeko bulegoetara jo zuen, informazioa eskatzeko. Interesdunaren aita lur baten jabea zen, eta interesdunak jakin nahi zuen ea lur horretan eraikitzeko aukerarik zegoen ala ez.

Kontsultaren edukia ikusita, funtzionario jarduleak ez zuen horri erantzuteko beste gaitasunik. Horregatik, funtzionarioak txostena eskatu zion udal arkitektoari. Alabaina, funtzionarioak ez zuen esan jarduera horrek tasa bat ordaintzea zekarrenik.

Jarduera horren ondorioz, udal arkitektoak txostena egin zuen. Interesdunaren iritziz, txosten horrek ez zuen argitzen berak azaldutako arazoa. Hala eta guztiz ere, 11.000 pezetako likidazioa igorri zitzaion, subjektu pasibo gisa interesdunaren aita hartuz.

1998ko ekainean, erreklamaziogileak idazkia aurkeztu zion udalari. Idazki horren arabera, arkitektoaren txostena ulertezina zen eta, gainera, interesdunari ez zitzaion inoiz esan gastu hori bere gain hartu beharko zuenik. Hori guztia dela medio, igorritako likidazioa ezeztatzeko eskatu zuen interesdunak.

Udalak ez zion erantzunik eman idazki horri, eta enbargatu egin zuen interesdunaren aitak zuen kontu bat. Aitak errekurtsoa jarri zuen enbargo horren aurka. Errekurtso horri oniritzia eman zitzaion, 1999ko azaroaren 11ko ebazpenaren bitartez; ebazpen horrek aitortu zuen aita ez zela tasaren subjektu pasiboa.

1999ko abenduaren 10ean, erreklamaziogileak beste idazki bat aurkeztu zuen. Bertan berriro ere errepikatu zuen 1998ko ekainean adierazitakoa. Baina, kexa aurkezteko unea arte, erreklamaziogileak ez du erantzunik jaso. Eta, gainera, ez da itzuli aitaren kontutik enbargatutako zenbatekoa.

• Azterketa

Arartekoak, kexa jaso bezain laister, horren inguruko informazioa eskatu zion Bermeko Udalari. Horrek erantzuna eman zion, Alkateak berak egindako idazkiaren bitartez. Idazki horren arabera, eta erreklamaziogileak adierazitakoaren kontra, erreklamaziogilearen aitak sinatu zuen informazio-eskaria; sinaduran, argi eta garbi ikus daiteke aitaren izena.

Horrekin batera, Bermeoko Udalak hurrengoa adierazi zuen: *"…udaleko funtzionario batek erantzukizuna edo gaikuntza du, hirigintzari buruzko kontsultei erantzuteko eta horien inguruko txostenak egiteko. Funtzionario hori udaleko arkitektoa da, eta ez beste edozein funtzionario, nahiz eta hori bere lana betetzen ari.*

*Hirigintzari buruzko kontsulta egiten denean, udalak jarduera zehatza burutu behar du eta, horren ondorioz, kopuru zehatz bat ordaindu behar da, hala baitago ezarrita Hirigintzako eta Ingurumeneko Zerbitzuen ziozko Tasari buruzko Udal Arautegi Fiskalean.*

*Horregatik, errekurtsoa ebazteko txostenak egin eta gero, 2000ko urtarrilaren 31n honako erabaki hau hartu zen: errekurtsoari gaitziritzia ematea, 52 Dekretuaren bitartez. Interesdunak erabaki horri buruzko jakinarazpena jaso zuen 2000ko otsailaren 25ean."*

• Emaitza

Tasa kobratzea, beraz, legezkoa zen, eta horren inguruan ezin da inolako eragozpenik jarri. Beste kontu bat da, ordea, ea udal arkitektoaren txostenak erantzun egokia ematen dion interesdunak egindako kontsultari.

Hortaz, tasa ordaintzea komeni da, esan dugun bezala, hori eskatzea bidezkoa delako. Hala ere, Arartekoak interesdunari iradoki dio udalari beste idazki bat aurkezteko. Idazki horretan, interesdunak argibideak eska ditzake, udal arkitektoaren txostenean ilun dauden gaiei buruz edota behar bezala konpondu ez diren gaiei buruz.

# 7. HERRIZAINGOA

## 7.1. SARRERA

2000. urtean Ararteko Erakundearen aurrean aurkeztutako kexetatik laurogeita bat herrizaingo arlokoak izan dira, 1999. urtean arlo horretan bertan aurkeztutakoak baino %16 gehiago. Eragindako administrazioei dagokionez, hona hemen zerrenda:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .......... 45
- Foru administrazioa .......... 3
- Toki administrazioa .......... 38

Hasitako espedienteen kopurua, azpiarloka, honako hau da:

- Trafikoa .......... 57
- Herritarren segurtasuna .......... 13
- Eskubide eta askatasunak .......... 5
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .......... 3
- Joko eta Ikuskizunak .......... 2
- Hauteskunde araudia .......... 1

Era berean, bere arioz egindako bost espediente hasi dira; horietatik hiru herritarren segurtasunerako azpiarloan sartu ziren, bat eskubide eta askatasunen azpiarloan eta bat trafiko azpiarloan. Goiko datuen arabera, 2000. urtean laurogeita sei kexa espedienteren tramitazioa hasi zen herrizaingo arloan, guztira 1999an hasitakoak baino %6 gehiago alegia.

Trafiko azpiarloan alderdi batek auzialdirako tramitatutako berrogeita hamar kexetatik hiru Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzaren eta Bizkaiko Foru Ogasunaren jardueren kontra tramitatu dira, hogeita bi Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzaren jardueren kontra, hamabi Bilboko Udaleko jardueren kontra, bost Vitoria-Gasteizko Udalaren jardueren kontra, lau Donostiako Udalaren jardueren kontra, hiru Errenteriako Udalaren jardueren kontra, eta bat Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailaren eta Barakaldo, Basauri, Getxo, Erandio, Santurtzi, Hondarribia eta Ibarrako Udalen jardueren kontra hurrenez hurren. Kexen jatorriak zerikusi handia du trafikoa erregulatzeko araudi juridikoaren aplikazioarekin, bai antolamenduaren aldetik, bai, eta batez ere, zehapen araubidearen aldetik, horren alderdi material eta prozedurazkoetan. Zenbait kasutan ezarritako isunak derrigorrez ordaintzeko jarraitutako premiamendu prozeduretatik sortutako alderdiak aztertu dira, zenbait kexatan zehapenak preskribiturik zeudela aurresuposatu baita. Trafiko azpiarlo horretan bere arioz egindako espediente bat hasi da Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoak ibilgailu bat kendu zuelako bide publikotik. Arartekok horren berri izan zuen eragindako hiritarrak idatzi zuen eskutitz baten bidez, komunikabide batean argitaratu baitzen. Horren bitartez udal zerbitzuen ekintzak eragindako ondoeza agertzen zuen, desegokitzat jotzen zuelarik. Informazioa eskatu ondoren, salatutako jarduera administratiboa aztertu eta ezeztatzea erabaki zuela esan zigun Vitoria-Gasteizko Udalak, interesatuari ibilgailua kentzeagatik ordaindutako dirua itzuli ziotelarik.

Herritarren segurtasunaren azpiarloan alderdi batek auzialdirako tramitatutako hamahiru kexetatik Arartekoren eskuetara eraman dira Ertzaintzako funtzionarioen hamar jarduera eta Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoetako funtzionarioen jarduera bana. Bere arioz egindako jarduerei dagokienez, hiru espediente hasi dira. Horietako bi, komunikabideetan agertutako zenbait informazioren ondorioz, Ertzaintzako eta Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko funtzionarioek egindako atxiloketa batzuk zirela eta. Bestea, Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko funtzionarioek egindako jarduera baten ondorioz, kasu honetan zenbait hiritar, hobeto ulertzeko, gizarte bazterketaren esparruan sar litezkeenak, lekualdatu zituzten modua zela eta.

Hiritarren segurtasunaren azpiarlo honetako espedienteetako jardueraren alderdi materialetik, azpimarratzekoa da Herrizaingo Sailak 1999an egindako onarpen bat (1974/1998 esp.). Onarpen horretan, honakoa eskatu zen: atxilotutako pertsonen eskubideak urratzen ez duen polizia jokabiderik ez dagoela bermatuko dituzten neurri prebentiboak ezartzea. Horretarako, ertzain etxeetako ziegetako pasilloetan kamerak ipini eta horiek grabatutakoan oinarrituriko kontrol sistema bat ipintzeko aukera aztertu eta, hala balitz, ezartzeko eskatu zen. 1999ko txostenean, azterketaren arlo honetan bertan, Herrizaingo Sailak bi gomendio onartu zituela esan genuen. Horietan Ertzaintzako zenbait funtzionarioren jardueren ondorioz beste hainbeste ikerketa prozedura hasteko eskatzen zen. Horietako bat emakume batzuei egindako identifikazio, eta miaketagatik; eta bestea, identifikazioa eta ondorengo atxiloketagatik. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo horrek gomendiook onartu izana ez da jarduera zehatzetan islatu. Behin baino gehiagotan gogorarazi arren, 2000ko abenduaren 31n Arartekok ez du goian aipatutako ikerketa espedienteen tramitazioaren berri izan, ezta emaitzaren berri ere. Frogatutako eraginkortasun eza azpimarragarritzat jotzen dugu, Administrazioak hasiera batean emandako erantzunarekin bat ez baitator.

Alderdi batek auzialdirako tramitatutako bost espedienteen bidez, eskubide eta askatasunen azpiarlokoak, Arartekoren eskuetara honako gai hauei buruzkoak eraman dira: poliziako funtzionarioek emandako tratu txarrak; Ertzaintzaren artxiboetan dauden datuetara heltzeko eskubidea; identifikazio-saioak egitea; korporazioaren osoko bilkuretan pankartak agertzean Getxoko alkatearen jarduera eta udaletxe honen aurrean udalerri honetako auzoko baten etxe ondoan ipinitako lehergailua zela-eta protestatzeko egindako kontzentrazio batean Ertzain batek egindako grabazioa. Azken arrazoi horregatik hiritar talde batek kexa aurkeztu aurretik, Arartekok bere arioz egindako ikerketa hasi zuen.

Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozeduraren azpiarloan hiru kexa tramitatu dira eta honako gaiak aztertu dira: garraioen arloko zehapen espediente bateko prozedurazko arazoak; indarkeriak kaltetutakoentzako laguntza egitarauan ezarritako kalte-ordain bateko desberdintasunak eta Hiritarren Segurtasunari buruzko legea aplikatzean tramitatutako zehapen espediente bateko auzibidezko alderdiak. Kasu guztietan ere, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko organoek tramitatu dituzte prozedurak.

Joko eta ikuskizunen azpiarloko kexa biak Beasaingo udalerriko ostalaritza establezimenduetako ordutegien araubidearen aplikazioarekin daude lotuta batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren zerbitzuek ziberteka moduan ezagunak diren lokaletan izandako jarduera batekin bestetik.

Bukatzeko, hauteskunde araudiaren azpiarloan kontsulta bat tramitatu zen atzerriko jatorria duten hiritarrek botoa emateko eskubidea izan dezaten eskatzen diren baldintzei buruz.

2000. urtean Ararteko erakundeak, zenbait akordio sinatuta, laurogeita zazpi kexa espedienteren tramitazioa burutu zuen, ekitaldi honetan eta aurrekoetan hasitakoak, eta tramitean, noiz ebatziko zain, berrogeita hemeretzi geratu ziren abenduaren 31n.

Goian emandako datuek informazio bikoitza ematen digute. Batetik, zenbakien ikuspegitik, arlo jakin honetako zerbitzuen jardueraren balantzea egiaztatzen da. Era berean, hiritarrek gure eskuetan ipinitako arazoen ezaugarriak ezagutzera ematen dira. Alabaina, aurrekari horiek irakurrita ezin da ondorioztatu, aurkeztutako kexa guztiei aurre egiteko egindako ikerketa guztien bidez, ordenamendu juridikoan irregulartasunak edo urratzeak egiaztatu direnik. Kontrolatutako jarduera administratiboen balioespena alderdirik bereizgarrienen laburpenetan eta txosten honetako beste atal batzuetan islatzen da, bereziki formulatutako gomendioen betearazpenari dagokion horretan.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Ertzaintzaren esku-hartzea Hondarribiko Alardean (32/1999OF)*

• Erreklamazioa

Hondarribiko Alardeaaren ospakizuna zela eta, 99-09-08an, Arartekok hainbat berri eta telefono dei jaso zuen Ertzaintzaren esku-hartzea egin zen moduarekin desadostasuna agertzen zuten pertsonen partez. Kontatu zigutenaren arabera –eta hurrengo egunean komunikabideek jasotakoaren arabera- Euskal Poliziako agenteek Jaizkibel Konpainiari bidea itxi zioten lehenengo kontzentraziora zihoala, eta hori modu bortitzean eta neurriz kanpokoan bai konpainiako kideen aurka, baita horien alde zegoen jendearen aurka ere.

• Azterketa

Duela zenbait urtetik hona Irunen eta Hondarribin suertatu izaten diren gatazkek asko kezkatzen dute Ararteko eta horrek behin eta berriz defendatu du pertsona guztiek beren herriko jaietan berdintasunez parte hartu ahal izateko eskubidea. Herritarren atal bat Alardeatik kanporatzea emakumeak izateko arrazoi bakarragatik diskriminazio hutsa da, eta hori ez da legezkoa Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluaren arabera eta Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak emandako hainbat ebazpenetan hala agertu da.

Horrexegatik, eta 1998an Hondarribiko Alardeaan Ertzaintzak egindako jarduera bat dela-eta jasotako kexa baten ondorioz, Arartekok idazki bat bidali zuen (98-11-26ko data zuena, erref: 2261/1998/21) Herrizaingo Sailera, bertan gogorarazten zuelarik emakumeek Alardeaan parte hartzeko zuten eskubidea bermatzea zela Ertzaintzaren zeregina. Hausnarketa horiek berreskuratuz, oraindik ere guztiz baliagarriak direnak, Herrizaingo Sailak Hondarribiko Alardeara joan behar zuten ertzainei emandako gidalerroen eta jarduera irizpideei buruzko informazioa eskatu genuen batetik, eta pertsona guztiek diskriminaziorik ez jasateko duten eskubidea eta, kasu honetan bereziki, herri horretako Alardeaan parte hartzeko eskubidea defendatzeko hartu zituzten mekanismo eta dispositiboei buruz bestetik.

Ertzaintzak Jaizkibel Konpainia “kontramanifestaziotzat” jo zuela jakitean, Arartekok Herrizaingo Sailari galdetu zion baieztapen horiek bere kargu hartzen zituenentz. Era berean, elkarte edo partikularren talderen batek Hondarribiko Alardeaaren berri manifestaziotzat hartzen eman balu, komunikazio horren onespena edo hori jaso duela adierazten duen ebazpen administratiboa helarazi dakigun eskatzen dugu.

• Emaitza

Herrizaingo Sailak bidalitako informazioa ikusita, Arartekok gomendio bat ematea jo zuen beharrezkotzat. Horren oinarria gure desadostasuna da, bai izandako ikuspegiarekin eta baita administrazio horren ondorioztapenekin. Gure ikuspuntutik, desadostasunen jatorria Herrizaingo Sailaren planteamenduan datza, poliziaren esku-hartzea antolatzean, horren abiapuntua bi Alardea desberdin eta elkarren kontrakoak direla baita. Eta hori ez da horrela. Irailaren 8an Hondarribin herriko kultura eta jai manifestaziorik handiena den Alardeaa egiten da. Arazoa sortzen da pertsona talde batek ospakizun horretan parte hartu nahi duela eta aukera hori kendu nahi dietela emakumeak izateagatik.

Arartekoren aburuz Herrizaingo Sailaren jarrera ez da egokia espazio baten kontrolagatik elkarren etsaiak diren bi talde izango balira bezala ikusten duelako egoera. Horren ondorioz, Ertzaintzaren zeregin bakarra aurkaketa saihestea eta orden publikoa zaintzea izan zen. Horrela jardutean, Herrizaingo Sailak ez zuen aintzat hartu Hondarribiko Alardeako antolatzaileak ekitaldi publiko bat burutzen ari direla bide publikoa okupatuz eta horrela argi eta garbi emakumeen parte-hartzea oztopatuz, emakumeak izateagatik diskriminatuz eta, beraz, oinarrizko eskubide bat urratuz.

Administrazio horren planteamenduaren aurrean, erabat beharrezkoa da agerian uztea botere publikoen zeregina pertsonen arteko berdintasuna sustatzea dela eta hori oztopatzen duten traba guztiak kentzea. Hau da, diskriminatzen duen talde baten –handiagoa izan arren- eta diskriminatua den eta eskubideak ezeztatuta dituen beste talde baten arteko pasibitate jarrerarik edo ustezko inpartzialtasunik ez dago. Erakunde publiko batek berdintasuna sustatzeko duen eginbeharra betetzen ez badu jarduera diskriminatzaileari legezkotasun itxura ematen dio.

Beste alde batetik, Ararteko bat dator Herrizaingo sailburuarekin Alardeako arazoak gizarte krisi garrantzitsua eragin duela Hondarribin eta hori konpontzeko pentsaera eta herritarren jarrera aldatzea beharrezkoa dela. Izan ere, aldaketa horiek elkarbizitzatik sortu behar dira eta inola ere ez agindu batetik. Alabaina, arazoa konpontzeko bidea poliziari ez dagokiola onartu arren, ezin da alde batera utzi Herrizaingo Sailak hiritarren eskubideak babesteko duen erantzukizuna.

Ildo horretatik, argi dago gatazka sozial horrek Ertzaintzaren babesaren beharra eragiten duela, eta horrek bide bikoitza du: poliziak, alde batetik, emakumeek Alardeaan diskriminaziorik gabe parte hartzeko duten eskubidea zaindu behar du eta, beste alde batetik, hiritarren segurtasuna bermatu behar du, sor daitezkeen aurkaketa egoerak saihestuz. Helburu biak legezkoak badira ere, benetan saila da biak babestea. Horrexegatik, hori dagokion administrazioak oreka bilatu behar du gatazkaren alderdi biek berdintasuna ikus dezaten eta bataren onerako bestea kaltetua izan ez dadin.

Goiko hausnarketen ondorioz, Arartekok honako gomendioa bidali zion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari:

"Botere publiko guztiek pertsona guztien arteko berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzeko duten eginbeharra bete dezaten, Ertzaintzak neurri egokiak hartu behar ditu Hondarribiko Alardeaan parte hartu nahi duten emakumeek horretarako duten eskubidea bermatzeko, betiere gizonen baldintza berdinetan. Helburu horrekin, aipatutako eskubidearen aldarrikapenak etorkizunean ere biztanleen parte baten kontrajarpena dakarren bitartean, Ertzaintzak aipatutako eskubidearen babesa pertsonen segurtasunaren babesarekin batera burutu behar du. Ertzainen jarduera irizpideak aldez aurretik ezartzeko asmorik gabe, argi dago horretarako ezin dela kontuan hartu jarrera batek zein besteak duen jarraitzaile kopurua, planteamendu desberdinen legezkotasuna baizik. Halaber, ez dugu ahaztu behar orden publikoa eskubideak gordetzeko baldintzak posible egiten dituen bidea dela, beraz eskubideak ezin dira deuseztatu orden publikoa mantentzeko. Aitzitik, pertsonen segurtasunaren babesa alde batera utzi gabe, Hondarribiko edo gatazka sor daitekeen beste edozein udalerritako ospakizun nagusian parte-hartze berdintzailea bermatuko duten neurririk egokienak, neurrizkoenak eta eragingarrienak bilatu behar dira".

Hilabete batzuk geroago, Herrizaingo Sailak erakunde honetara bidali zuen gomendioaren *onarpen ñabartua*. Ñabardura horien oinarria administrazio horrek Justizi Auzitegi Nagusiaren 2000-2-11ko epai bati buruz egindako interpretazioa da, eta gu horrekin ez gaude batere ados. Gure ikuspuntutik, epaia guztiz argia da honakoa esaten duenean: *"(...) errekurtsoa balioetsi dugu eta ondorioz errekurritutako ekintzak* –hau da, poliziaren jarduerak– *deuseztatu ditugu bertan ez zutelako baimendu "Jaizkibel Konpainiako" emakumeen parte-hartzea, horrek Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urratzen baitzuen"*. Ondorioztapen hori ikusita, Herrizaingo Sailaren idazkiak aurkezten zituen arrazoiak paragrafoen zatiak eta testuingurutik ateratakoak erabiltzen zituela pentsa dezakegu, beraz benetan duten zentzutik urrun dagoen esanahia egotzi zaie.

Laburtzeko, uste dugu epailearen ebazpena guztiz bat datorrela Arartekok Alardeaaren inguruan sortutako gatazkari buruz beti izan duen jarrerarekin, eta 102/1999 Gomendioan jarraitutako ildoak ezartzen du helburu nagusia jai ospakizun horretako parte-hartze berdintzailea dela, eta horretarako, beharrezkoa denean, kontrajarrita dauden interesak ahalik eta gehien bateratuko dituzten neurriak hartu beharko ditu poliziak. Herrizaingo Sailak gatazkako alderdi biak aldez aurretik bat kaltetu gabe aintzat hartzeko duen asmoa adierazi duenez, eta horixe da emandako gomendioaren oinarria, uler dezakegu, hasiera batean, Herrizaingo Sailak bere gain hartu duela osorik. Hala eta guztiz ere, etorkizunerako proposamena denez, egindako gomendioa benetan bete den hurrengo Alardeaak ospatutakoan balioetsiko da.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Garraio arloan zehapen espedienteak tramitatzean, dagokion organoak haste-ebazpena hartu behar du (1043/1999)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoren eskuetara eraman zituen garraiobideen araubide juridikoa urratzeagatik Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzak ipinitako

zehapenak. Bere kexan urratzeak zehaztearekin eta zehapen espedienteak tramitatu eta ebatzi zuen organoaren eskumenarekin lotutako arazoak planteatzen zituen.

• Azterketa

Batetik interesatuak bere kexa oinarritu zuen alderdiei buruz eta, bestetik, erakunde honek, bere arioz, zehapen ekintza horien baliagarritasuna edo baliagarritasun eza ezartzeari eman zituen horiei buruz Arartekok ateratako ondorioak kaltetu gabe, espedientearen tramitazioa eta jarduera administratiboaren balioespena garrantzi handiko alderdi batean oinarritu ziren. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eman zigun informazioari esker jakin genuen zehapen espedienteetan zegokion agintaritzak ez zuela haste ebazpenik eman eta salaketa egin ondoren burututako lehenengo ekintza organo izapidegileak komunikazio baten bidez honen berri ematea izan zela. Komunikazio horretan honakoa esaten zen hitzez hitz "erreferentzia salaketa egin da eta horregatik goian aipatutako zenbakia duen zehapen espedientea hasi da".

Alderauzketa horren agertarazpena administraziora bidali zen adieraziz Lurreko Garraioak Antolatzeko Araudiaren (aurrerantzean LGAA) 205.2 artikuluak, irailaren 28ko 1.211/1990 Errege Dekretuak onetsiak, ezartzen duela zehapenak ipintzeko prozedura, bere arioz, dagokion organoaren erabakiz hasiko dela. Agindu bera aurki dezakegu Zehatzeko Ahalmenaren Egikaritzarako Araudiaren 11.1 artikuluan aurreikusita, abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak onetsia, eta edozein kasutan ere Eusko Legebiltzarraren 2/1998 Legean, otsailaren 20koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek Zehatzeko duten Ahalmenari buruzkoan. Arau erreferentzia horiei eta, Arartekoren irizpidez, horietatik eratorritakoari erantzuna emateko, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko zuzendariak honakoa adierazi zuen guri bidalitako txosten batean: "*...goian aipatutako 1211/1990 Errege Dekretuaren 204. artikuluak ezartzen du prozeduraren hastea eta instrukzioa araudi aplikagarriak ezartzen dituen organoek egingo dutela, horregatik izango da dagokion lurraldeko zehapen-ikuskatzailea prozedura hasiko den salaketaren berri emango duena". E*rantzun horretatik, zalantzarik gabe, aztertutako espedienteak hastea formalki erabaki gabe tramitatu zirela ondorioztatuta, Arartekok Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari jakinarazi zion haste akordioa egin ez den zehapen prozedura ez dela prozeduratzat hartzen, eta ondoren datozen tramite eta akordio guztien deuseztasun karia dela.

Prozeduraren alderdi horri buruz, eta garraioen zehapen araubidearen esparruan, Valentziako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salak, 1997ko ekainaren 16ko epaian (1997/2107 RJCA) honakoa ezarri zuen:

> *"Gauzak horrela, errekurtso honek dakarren lehenengo arazoa egilearen kontra jarraitutako zehapen espedientearen haste akordioan datza. Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko legearen 146.2 artikuluak prozedura erkidera eramaten gaitu lege horrek aurreikusten dituen zehapenak ezartzeko. Bere aldetik, Zehapen Ahalmenak Egikaritzeko Araudiak ezartzen du hasteko erabakia izapidegileari jakinaraziko zaiola eta horren berri salaketa ipintzen duenari emango zaiola. Horrek berekin dakar, jakina, erabakia benetan egotea. Alabaina, gure eskuetan ipinitako kasuan, demandatuak bidalitako espedienteak azpimarratzen du aurkaratutako zehapena sortu zuen prozedurak ez duela ezinbestekoa den haste akordioa. Izan ere, bere izapidegileak haste*

*akordioaren notifikazioa deritzona besterik ez dago espedientean, baina ez dagokion organoak esandako ebazpena, akordioa bera egiten duena, eta horren ondorioz, ezta izapidegileari egindako jakinarazpena ere, aipatutako 13.2 artikuluak agintzen duen moduan.*
*Alderauzketak garrantzi handia du zehapen prozeduraren izaeran bertan eragina duelako, dagokion organoarekiko akordiorik ez badago (...) ezin baita balioz ulertu zehapen espedientea hasita. Horrexegatik guztiagatik ezinbestekoa da formulatutako errekurtsoaren onirizpen epaia ematea, beharrezkoa den jardueren deuseztapena eta atzera eragina deklaratuz (ondorio horrek egileak azaldutako gainerako prozedurazko irregulartasunen azterketa zehatutik askatzen gaitu). Horrela, salaketatik abiatuta, prozeduraren tramitazioa hasi egingo da –pasatutako denborak oztopatzen ez badu- Zuzenbidearen arabera".*

Ildo berean, Andaluziako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salak (Sevillako Sala), 1997ko urriaren 29ko Epaian (1997/2270 RJCA) (FJ 1.) honakoa ezarri zuen:

"*Demandaren lehenengo oinarrian honako alegazioa azaldu zen: zehapen espedientearen haste akordioaren oinarrizko tramiterik eza. Eta hori egia da. Administrazioak bidali zigun zehapen espediente osoan ez da agertzen ebazpen hori hartu izana ez originalean ezta kopian edo fotokopian ere, eta hori dagoen erreferentziarik ere ez da egiten.- Administrazioaren Zehapen Ahalmena Egikaritzeko Prozeduraren Araudiko 13.1 artikuluak (1398/1993 ED) xedatzen du zehapen prozeduraren hasiera zehazten duen gutxieneko eduki batekin egingo dela. 2. atalean, hasiera akordia izapidegileari jakinaraziko zaiola, salatzaileari horren berri emango zaiola eta betiere erruzkatuari. Eta azken horri jakinaraziko zaio hasieraren edukiari buruzko alegaziorik egin ezean, hori ebazpenerako proposamen bezala hartu ahal izango dela.*
*Zehapen espedientearen hasierari legez egozten zaion esanahi horrekin, hori ez egotea edo alderauztea, kasu honetan bezala, eskubide osoko deuseztapenari buruzko 30/1992 Legearen 62.1 artikuluko aurreikuspenak sartzen dira. Eta hori hala izango da errekurritutako ebazpenak prozedura aintzat hartu gabe eman izanagatik."*

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko zuzendariak, arazo horri dagokionez bere jardueraren baliozkotasuna bermatzeko ondokoa zioen txosten bat bidali zigun: "*agente salatzaileen salaketez gain, espedientean bazegoen, irailaren 28ko 1.211/1990 Errege Dekretuaren 207. artikuluko baldintzekin, zehapen prozedurari hasiera ematen dion ekintza administratiboa, 1999ko uztailaren 22koa, baina horren erredakzioa oso ona ez denez, alderdi hori alde batera utzi da. Egia esan, 1999ko uztailaren 28an jakinarazitako egintzak 30/1992 Legearen 135. artikuluak batzen dituen ustezko erantzulearen eskubideak betetzen ditu, defentsarik eza eragin gabe*". Ondorio horri laguntzeko, Balearretako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salak emandako epai baten (1997ko urriaren 15ekoa) erreferentzia egiten du. Epai horrek garraioen arloko zehapen araubidearekin lotutako gai bat aztertzen du eta honakoa adierazten du: "*argi dago hastea Trafiko Burutzari zegokiola, eta*

*horrek hala egin zuen salaketa bidaliz –gidariari lehenengo, eta gero ibilgailuaren jabeari- ".*

Erabaki horrek eduki hori izan arren, Arartekok aurretik ateratako ondorioei eutsi zien, bere ustez jurisdikzioko organoak modu desegokian aplikatzen baitzituen antolamendu juridikoaren aurreikuspenak. Gure eskuetan ipinitako prozedurak tramitatu ziren datan, uztailaren 30eko 16/1987 Legearen, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa (LGAL), 146.1 artikuluan, orduan indarrean zegoena, salatutako urratzeak zehatzeko eskumena trafikoaren eta bideko segurtasunaren arloan eskudunak ziren organoei zegokien, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Trafiko zuzendaritzari zegokion. Eta hori egia da. Hala eta guztiz ere, LGAAren 204.2 artikuluaren arabera, prozeduretan ebaluatutako jokabideei egotz litezkeen erantzukizun administratiboak eskatzeko araudi sustantibo eta prozedurazkoa LGALk eta araudiak berak ezarriko dute. Aipatutako epaian islatzen den prozedura trafikoaren arloan zehapen prozedurei aplika dakieken araudian egon daiteke oinarrituta; izan ere, horren aurreikuspenek espediente horiek salaketa baten bidez hastea onartzen dute. Baina ezin izango dira oinarritu garraioen arloan tramitatzen direnetan aplika daitekeen horretan, gorago azaldu dugunez, halakoetan ezinbestekoa baita haste akordioa egitea.

• Emaitza

Ondorio horiek Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera eraman ziren kexa eragin zuten zehapen ebazpenen aurka ipinitako errekurtso administratiboak ebaztean kontuan har zitzan.

## C) **Ordena publikoa**

### ⇒ *Poliziaren atxiloketa bat luzatzea (924/1998)*

• Erreklamazioa

Erreklamazio egileek -afrikar jatorriko ama-semeak- aurretik ere joanak ziren Arartekorengana Bilboko San Frantzisko auzoan bizi izaki sarritan pairatuak edo ikusiak zituztelako poliziaren jarduera bere ustez irregularrak. Oraingoan planteatutako kexa erreklamazio egilea atxilotua izan zen –haien ustez, arrazoirik gabe– gertaera batekin dago lotuta. Horrek kontatu zuenaren arabera, bera bizi den atariaren ondoan poliziaren jarduera bat burutzen ari zela, beste aldi batzuetan ikusita ezagutzen zuen ertzain batek bultzatu eta iraindu zuen eta berak erantzun zionean ertzainak atxilotu egin zuen.

Erreklamazio egilea Deustuko ertzain etxera eraman zuten. Bertan ondo tratatu zuten, baina bere aburuz atxiloketa behar baino askoz luzeagoa izan zen ertzainek legelarien laguntzari ipini zizkioten trabak zirela eta. Azaltzen dutenaren arabera, atxiloketa egin zutenetik denbora gutxira ama ertzain etxera joan zen abokatu batekin; hala eta guztiz ere, izapidegileek ofiziozko abokatua hartua zuela jakinarazi zieten, beraz ezinbestekoa zen bera heldu arte itxarotea. Azkenean, hainbat elkarrizketa izan ondoren eta erakunde honetako aholkulari batek telefono dei bat egin ondoren, Ertzaintzak onartu egin zuen familiak ipinitako abokatua izango zela aitorpenean egongo zena.

Guztira, atxiloketa -Instrukzioko Epaitegiak hasiera batetik hutsegitetzat jo zuenagatik- zortzi ordu ingurukoa izan zen.

• Azterketa

Arartekok onartu zuen jasotako kexan bazeudela irregulartasun arrastoak, eta horrexegatik Herrizaingo Sailera jo zuen, beste batzuen artean, honako informazio hauek eskatzera: poliziaren argiketan zein den atxiloketaren arrazoia, noiz atxilotu zuten, Deustuko ertzain etxera sartu zen ordua eta bertatik irten zen ordua eta ofiziozko abokatuari deitu zitzaion ordua erreklamazio egileari laguntza eman ziezaion.

Galdera horri dagokionez, Herrizaingo Sailaren erantzuna ez zen ez osoa ez argia izan, eta zenbait puntutan, atxilotua lagundu zuen abokatuak esandakoa kontraesaten zuen, baita erakunde honetako aholkulariari emandako telefonozko informazioa ere. Horregatik guztiagatik, Arartekok lortutako informazioak zabaltzeko eskatu zuen.

• Emaitza

Herrizaingo Saileko erantzuna urtebetera etorri zen. Atxilotua ertzain etxean zegoenean gertatutakoari dagokionez, Arartekok aldez aurretik Sail horri bidaliak zizkion hainbat arazori buruzko erantzunekin zerikusia zuten galderak berriz ere planteatu ziren. Zehazki, garrantzi txikiko gertaeren ondoriozko atxiloketaren arazoa berriz ere azaldu zen, izan ere, horiek hutsegitetzat hartzen baititu epaitegiak; gorputzaren miaketaren diligentzia sistematikoki egitea ere zalantzan ipini zen eta neurri hori ez zen ez beharrezkotzat ez neurrikotzat jo. Arazo horiek zirela eta, Arartekok aurretik emandako gomendioak gogoratu eta azpimarratu besterik ez zuen egin eta oraingo honetan atxiloketak iraun zuen denborari zegokionean zentratu zen.

Gorago aipatu dugun bezala, gure ikerketak ofiziozko abokatuari abisua noiz eman zitzaion argitzera bideratu ziren, hori baitzen Ertzaintzak ipintzen zuen aitzakia atxilotutakoaren amak kontratatu zuen abokatuari jarduten ez uzteko. Emandako azken erantzunean, Herrizaingo Sailak argitu zuen ez zirela ofiziozko abokatua deitzera heldu, Arartekok, beraz, legelarien laguntza bost ordu atzeratu zela ondorioztatu zuen, eta horrexegatik luzatu zen atxiloketa arrazoirik gabe. Horri guztiari gaineratu behar zaio abokatuak bere lana bukatu ondoren, ordubete eta erdi –Sailaren arabera– edo bi ordu eta erdi gehiagoz –erreklamazio egileen arabera– luzatu zela atxiloketa, baina hori ezin da justifikatu atxilotuak deklaratu ondoren, txostenean agertzen den bezala, egin behar izan ziren diligentzien aitzakiaz, gorputzaren miaketaren diligentzia baitzen berak egon behar zuen bakarra.

Azaldutako guztiagatik, Arartekok erabaki zuen Ertzaintzaren jarduera ez zela guztiz zuzena izan erreklamazio egilea atxilotuta zegoenean eta, etorkizunean jarduera horiek alda daitezen, honako gomendio hau egin zuen:

“Ertzaintzak agenteei hasiera batetik Instrukzioko Epaitegiak hutsegitetzat jotzen dituen gertaerengatik atxiloketak ez egiteko agindua emateko gomendioari eutsi egiten dio Arartekok. Edozein modutan ere, atxiloketa bat egiten denean, J.K.L.aren 520.1 artikuluak agintzen duena goitik behera bete behar da. Izan ere, artikulu horren arabera gertatutakoa argitzeko beharrezko ikerketak egiteko behar beste denbora luza daiteke

atxiloketa, baina gehiagorik ez. Horretarako, argiketaren agente izapidegileak hasiera-hasieratik deitu behar dio atxilotutako pertsonari lagunduko dion abokatuari, ofiziozkoa zein atxilotutakoak aukeratua den kontuan hartu gabe. Poliziaren funtzionamenduari egotzi ahal zaizkion atzerapenek ezingo dute inola ere atxilotutako pertsonaren askapenaren atzerapena justifikatu".

Herrizaingo Sailaren erantzunean ez dago argi Ertzaintzak erreklamazio egilearen atxiloketak izandako atzerapena justifikatu gabea onartzen duen ala ez. Edozein modutan ere, Sailak gomendioaren edukia onartzen du eta horrek -atxiloketa suertatu zenetik pasatutako denbora dela eta- formulazio orokorra eta etorkizunari begira besterik ezin du izan. Era berean, atxiloketen iraupenak ahalik eta gehien laburtzen saiatzeko konpromisoa hartu du, eta joera hori finkatzeko prozesuari jarraipena egingo diola ere. Hori oso positiboa da atzerritarren atxiloketen batez besteko iraupena nazioko pertsonen atxiloketena baino askoz altuagoa da, eta hala agertzen da 2000-02-29ko txostenean, etorkinekiko polizia jarduerari dagokionez Arartekoren gomendioen betetzearen jarraipenari buruzkoa.

### ⇒ *Adingabeko baten atxiloketa irregularra (2643/1998)*

• Erreklamazioa

Erreklamazio egileak honakoa azaldu du: R. izeneko bere semea, 15 urtekoa, Leioako parke batean lagun batzuekin zegoela, hiru udaltzain inguratu zitzaizkien autoan. R.rengana hurbildu eta hirugarren bati buruz galdetu ondoren, udaltzainek autoan sartzeko esan zioten, eta berak ezetz esan zuenez, indarrez sartu zuten. Ondoren, poliziek gainerako lagunak identifikatu zituzten.

R.k kontatutakoaren arabera, hasiera-hasieratik eskatu zuen amari atxiloketaren berri emateko, baina udaltzainek erantzun zioten inork ez zuela jakingo non zegoen bi egun pasatu arte. Udaltzainen egoitzara zeramatela –atxilotutakoaren arabera– udaltzainek mehatxatu zuten leku ageri batera eraman eta bertan jipoituko zutela esanez, eta gertatzen ari zenaz inori ezer ez kontatzeko esanez. Komisaldegira eraman zutenean, kafearen gelan sartu zuten, eta bertan, atxilotu zuten polizietako batek –J.A. izenekoa– indarrez hartu zuen lepotik eta harraskaren kontra bultzatu zuen. Aldi berean, bere adineko beste mutil batekin jotzeko geratuta zegoela egozten zion, baita udaltzainaren senidea zen neska batekin sartu zela ere. Baina R.k aitortu zuen ez zuela neska horrekin inolako harremanik izan. Erreklamazio egilearen semeak, era berean, baieztatzen du gutxi gorabehera ordubete eta erdiz izan zutela galderak egiten eta ez zutela askatu harik eta R. ezagutzen zuen eta atxiloketaren berri izan zuen kale hezitzaile bat agertu zen arte.

• Azterketa

Arartekoren ustetan erreklamazio egileak azaldutako bertsioak irregulartasun garrantzitsuak agertzen zituen polizien jardueran, eta horregatik informazioa eskatu zuen Leioako Udalean.

Handik gutxira, administrazio horrek jakinarazi zigun bazegoela auzibideratze bat kexa sorrarazi zuten gertakari berdinengatik, beraz, espedientearen tramitazioa bertan

behera utzi genuen. Hala eta guztiz ere, udalari eskatu genion epailearen ebazpenaren berri emateko, hartara, gure esku-hartzeari berrekingo genioke beharrezkoa izango balitz, beste arrazoi batzuen artean, zigor-prozedura artxibatzeagatik edo absolbitzeko epaia emateagatik.

2000ko urtarrilean, udalak jakinarazi zigun absolbitzeko epaia emana zela, baina Arartekoren ustetan horrek ez zuen zertan ekarri poliziak R.rekiko izandako esku-hartzea zuzena izan zen ala ez argitzeko jarduerak bertan behera uztea. Izan ere, aipatu dugun epaian frogatutako gertaerak diziplinazko hutsegitea izan zitezkeen -prozedurazko arrazoien arabera, zigor-urratzetzat hartu izan ez balira ere-. Horrela, adingabekoak salatutako tratu txarrak benetakotu ez arren, hiru poliziak 15 urteko gazte bati poliziaren egoitzara laguntzeko eskatu izanak –ikuspuntu juridikotik eskaera hori legeztatzen duen inolako arrazoirik gabe– agerian uzten du agenteen botere abusua eta eragindako hiritarraren mugimendu askatasunaren zaurtzapen argia. Hasierako zaurtzapen hori larriagoa da komisaldegian edukitzeagatik, horren iraupena frogatu ez zen arren –adingabekoak ordubete baino gehiagoz izan zela zioen–, eta baita gazteak jasandako "zentzarazpenagatik" ere, horrek ere, atxiloketak berak bezala, legezko oinarririk ez baitzuen.

Beraz, Arartekok beharrezkotzat jo zuen espediente bat hastea diziplinazko erantzukizunen bat dagoenentz zehazteko, eta hala jakinarazi genion Alkateari.

• Emaitza

Leioako alkateak azkar bidali zuen guk eskatutako informazioa eta aldi berean azaldu zuen udalaren zerbitzu juridikoek ikusten zutela, batetik, diziplinazko hobena preskribituta egon zitekeela eta, bestetik, frogatutako gertaerak zehapena ezartzeko oinarria izateko ez zirela oso zehatzak. Era berean, espedientea ez tramitatzeko abaguneko arrazoiak azaltzen zituen, baina, neurri berean, udaltzainen prestakuntza bermatzeko konpromisoa hartu zuen hiritarren eskubideen errespetua azpimarratuz.

Ararteko prozedurazko oztopoekin bat ez zetorren arren, abaguneko arrazoiak garrantzitsutzat jo zituen. Egia esan, bere esku-hartzearen asmoa, batez ere, etorkizunean gizabanakoaren eskubideak errespetatzen ez dituzten poliziaren jarduerak saihestea izan zen. Diziplinazko espediente bat zabaldu izana helburu hori lortzeko bide baten moduan planteatu zen, baina argi dago hori ez dela horretarako dagoen bide bakarra, ezta, segur aski, eraginkorrena ere. Perspektiba horretatik, benetan ezinbestekotzat jo genuena honakoa da: Alkateak, egokien iruditzen zitzaion moduan, kexa eragin zuen gertaeran zerikusia izan zuten udaltzainei jakinarazi behar zien ez absolbatzezko epaiak ezta diziplinazko espedientea ez hasteko erabakiak ere ez zutela haien jarduera zuzena izan zenik adierazi nahi, baizik eta zigor prozedura tramitatu izana nahikoa oharbide garrantzitsua izan zela.

Beraz, Arartekoren iritziz, udalak ezin zuen jarrera pasiboa hartu, aitzitik, gertatutakoaren garrantzia azpimarratu behar zuen eta poliziak hiritarren eskubide eta askatasunen babesari dagokionez duen zeregin funtsezkoa azpimarratu behar zuen. Ildo horretatik, udaltzainen prestakuntza indartzeko hartutako konpromisoa positibotzat jotzen dugu, bereziki oinarrizko eskubideak babesteko duten funtzioari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, Arartekoren ustetan, Leioako Udalak zenbait udaltzainen jarduera irregularra konpondu du posible suertatu zaion moduan.

## D) **Herritarren segurtasuna**

### ⇒ *Poliziaren atxiloketetan gorputzaren miaketa egitea (377/2000)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek erakunde honetara jo zuen Donostiako zenbait udaltzainek emandako tratu desegokia dela-eta kexa bat ipintzeko.

Kontatu zuenaren arabera, erreklamazio egilea goizaldean joan zen Udaltzaingoaren komisaldegira ziklomotorearen atzealdean zuen maleta baten lapurreta salatzeko. Baieztatu zuen hasiera-hasieratik udaltzainek ez ziotela salaketa hartu nahi izan, haien ustetan, erreklamazio egilea mozkortuta zegoelako. Azkenean, komisaldegitik bota zuten erreklamazio egilea eta –aitortutakoaren arabera- udaltzain batek zorroa eta kaskoa kalera bota zizkion.

Erreklamazio egileak erantsi zuen protesta zaratatsuak zirela eta, udaltzainek atxilotu zutela: udaltzain batek komisaldegiko eskaileretatik herrestan eraman zuen eta, ondoren, arropak eranztera behartu zuten arakatzeko asmoz. Baieztatzen zuenaren arabera, tratu mespretxagarri eta iraingarri hori inolako justifikaziorik gabe eman zioten. Era berean, aitortu zuen salatutako tratu txarren ondorioz, zauri desberdinak izan zituela eta Sorostetxera joan behar izan zuela.

• Azterketa

Erreklamazio egileak salaketa bat gau eta eguneko epaitegian aurkeztu zuela baieztatu arren, gertatutakoaren izaera larriagatik egokitzat jo genuen aipatutako polizia zerbitzuko buruengana zuzentzea.

Alde batetik, Arartekok udalari ikerketa bat egitea proposatu zion goian aipatutakoak nola gertatu ziren argitzeko eta udaltzainen jarduera egokia izan zen ala ez erabakitzeko. Baldin eta erreklamazio egileak egindako salaketaren ondorioz zigor prozedura bat hasi bazen, proposatutako ikerketa epai instrukziotik kanpo geratzen ziren alderdietara mugatu behar zen edo, beharrezkoa izango balitz, zigor auzibidea bukatu arte atzeratu.

Beste alde batetik, ikuspegi orokorragoa hartuta, erakunde honek Udaltzaingoak miaketa pertsonalak –atxilotutakoa biluzik– egitea erabakitzeko zituen irizpideak ezagutu nahi izan zituen.

• Emaitza

Udalaren erantzunarekin batera argiketaren kopia bat bidali ziguten, bertan udaltzainen bertsioa agertzen zelarik. Argiketa horretan –guk horren berri ez genuela– erreklamazio egilea salatuta agertzen zen eta, ziur aski, zigor prozedura bat eragin zuen. Hala eta guztiz ere, ez ziguten jakinarazi erreklamazio egileak egindako salaketaren ondorioz epailearen jarduerarik egon zen ala ez eta, hala izatekotan, prozedura biak batera tramitatzen ziren ala ez. Datu horiek interesgarriak ziren Arartekorentzat epaitegian planteatuko ziren alderdiak ez aztertzeko.

Planteatu den arazo orokorrari dagokionez, atxilotutako pertsonari gorputzaren miaketaren diligentzia praktikatzeari buruzkoa, Udaltzainburuak Auzitegi Gorenaren (AG) eta Konstituzio Auzitegiaren epaietako irizpideak aplikatzen zirela besterik ez zuen baieztatu. Ararteko erakundearen iritziz, gaiaren konplexutasuna zela eta, irizpide horiek orokorrak ziren, beraz, beharrezkotzat jo genuen gomendio bat egitea.

Izan ere, jurisprudentziak argi eta garbi zedarritu ditu –eta, beraz, debekatu– iraingarri suertatzen diren poliziaren jarduerak; horrela, adibidez, AGren 96-5-11, 98-6-26 eta 99-2-17 epaietan konstituzionalki ez-zilegitzat jotzen da atxilotutakoari biluztu eta flexioak egiteko eskatuz probak lortzea. Hala eta guztiz ere, atxilotutakoa biluztera –ondoren gehiagorik eskatu gabe– behartzen duen neurriaren balorazioa, ez dago hain argi.

Edozein kasutan ere, AGren 96-5-11ko epai horrek dioenez, "*pertsona bat biluztea bere intimitatea erasotzea da*", beraz, neurri hori lege bidez hartzean Konstituzio Auzitegiak hainbat ebazpenetan ezarritako proportzionaltasun printzipioa bete behar da, hau da: a) erdietsi nahi den lege bidezko helburua lortzeko neurri hori egokia izatea; b) neurri hori hartzea beharrezkoa izatea beste arinago bat ez dagoelako; eta c) proportzionaltasuna hitzaren zentzu zorrotzean, hau da, eskubideen urratzeak ez du neurriz kanpo egon behar gertatutakoaren larritasunari eta dauden susmoei dagokienez.

Beste alde batetik, aipatutako jurisprudentziaren irizpideak ez dira pertsonaren miaketaren (biluztearekin) diligentziaren legezkotasuna zedarritzeko dauden bakarrak. Helburu horrekin, Herri Defendatzaileak 1996an gomendio bat bidali zion Barne Arazoetarako Ministerioari eta, neurri berean, Arartekok hainbat gomendio bidali ditu ildo horretatik, bai Ertzaintzari baita hainbat herritako Udaltzaingoei ere.

Horregatik guztiagatik, Arartekok honako gomendio hau bidali zion Donostiako alkateari:

> "Atxiloketa kasuetan gorputzaren miaketa (atxilotua osorik biluztuta) ezin izango da beti edo sistematikoki egin, eta bakarrik egongo da justifikatuta atxilotutakoaren egoera, egotzitako delituarena edo atxiloketaren dinamika direla-eta beharrezkotzat jotzen denean, betiere arrazoigarritasun eta proportzionaltasun irizpideekin bat etorriz. Edozein kasutan ere, neurri hori hartzea erabakitzen duenak idatziz eman beharko du erabakiaren berri, arrazoiak laburki azalduz, horrela, gerora neurri hori egokia izan den ala ez kontrolatu ahal izango da".

Emandako erantzunean Udalak gomendioaren edukia onartzen zuela agertu zuen, baina ez zituen argitu hori abian ipintzeko hartuko zituen neurri zehatzak. Horrexegatik, onartutako gomendiotzat hartu arren, udalburuari jakinarazi genion proposatutako irizpideak behar bezala aplikatzen zirela ziurtatzeko jarraipen lana egingo genuela.

### ⇒ *Poliziaren atxiloketan tratu txarrak (591/2000)*

• Erreklamazioa

CEAR-Euskadiko arduradun batek erakunde honen aurrean salaketa baten kopia bat aurkeztu zuen. Horren bidez, atzerritar batek zenbait ertzainek emandako tratu desegokiaren berri eman nahi zion gau eta eguneko epaitegiari.

> *Salatzaileak baieztatzen zuen kalean zihoala bi ertzainek bidea itxi eta poltsikoan zeraman guztia ateratzeko eskatu ziotela. Bere gauza pertsonalak eman ondoren, ertzain batek ukabilkada gogorra eman zion eskuineko aldean besteak borra idunean ipintzen zion bitartean arnas hartzea eragotziz. Gaineratu zuen handik gutxira polizia gehiago agertu zirela eta, guztien artean, lurretik herrestan eraman zutela eskuburdinak ipini eta Ertzaintzaren autoan sartu zuten arte. Autoan sartzean, beste polizia batek -aurretik beste batean atxilotu zuena- ukabilkada bat eman zion aurpegian, bitartean iraintzen*

*zuelarik. Ondoren, Deustuko ertzain etxera eraman zuten eta bertan laguntza juridikoa izan zuen. Ordura arte -erantsi zuen- ez zioten atxiloketaren arrazoia azaldu. Abokatuak ukabilkaden aztarnak ikusi zituenean, atxilotua ospitalera eramateko eskatu zuen eta salaketa ipintzeko aholkua eman zion.*

• Azterketa

Auzibideratzea egon arren, kontatutako gertaeren izaera ikusita, Arartekok komenigarri ikusi zuen lortutako informazioa Euskal Poliziaren arduradunei jakinaraztea hartu beharreko neurriak har zitzaten.

Beste alde batetik, zigor jarduerak alde batera utzita eta horien ikerketarekin bat egin gabe, kexa espediente bat hasi genuen Arartekok aldez aurretik emandako gomendioekin lotuta zeuden bi arazo planteatzeko:

1. Gure ustez, bereizgarria zen erreklamazio egileak aitortutako gertaerak eta 1998ko kexa espediente batean bertan zegoen lekuko batek poliziaren jarduerari buruz emandako bertsioaren antzekotasuna: kasu bietan salatzaileek baieztatzen zuten ertzain batek atxilotutakoari ukabilkada bat eman ziola hori geldirik zegoela eta poliziei inolako erresistentziarik ipintzen ez ziela.

1998ko espediente hori itxi zenean, tamalez, kexa eragin zuen gertaera ez zen guztiz argitu, edo, behintzat, erakunde honek ez zuen jaso gertatutakoari buruz ertzainek emandako bertsioa. Kasu hartan argi zegoen atxiloketa egin zuten agenteek ez zutela hori egindako moduari buruzko inolako informaziorik eman, beraz, indarra erabili behar izan zuten azaldu ere ez zuten egin. Informazio hori ez zegoenez, konturatu ginen Sail horri bidalitako 6. gomendioaren c.1 atala, San Frantzisko aldean atzerritarrekin egindako polizia jarduerei buruzkoa (98-12-24an idatzia), ez zela praktikan betetzen ari. Izan ere, gomendio horretan planteatzen zen komenigarria zela poliziek izandako arrazoiak eta, horren beharra izan dutenean, indarra nola erabili duten azalduta uztea.

Horregatik guztiagatik, esku artean dugun kexa honekin lotuta, informazioa eskatu genuen erreklamazio egilea atxilotu zuten poliziek, bai argiketan, bai beste txostenen batean, dena gertatu zen modua kontatu zuten ala ez jakiteko.

2.a Gomendio horretako bigarren atalean -hau da, 6. gomendioaren c.2- honakoa ezarri zen:

"*2. Droga izateko susmagarriak hori ez irensteko idunetik heltzea, orokorrean, proportziotik kanpoko praktikatzat jotzen dugu, beraz, ohitura hori kendu behar da.*"

Herrizaingo Sailak erantzunik eman ez zigunez, eta Arartekoren gomendioak betetzen direnentz jakiteko Eusko Legebiltzarrak eskatu zuen jarraipena egiteko helburuz, 99-10-06ko idazkian berriz ere galdetu genuen praktika hori kentzeko aginduren bat eman zen ala ez (6.3.1 atala). Gai horri buruz, Herrizaingo Sailak 00-01-27an egindako idazkian honakoa baieztatu zen:

"Idunetik heltzeari dagokionez, Ararteko jaunaren txostena eta Herrizaingo sailburu jaunak horri emandako erantzuna zabaltzeaz gain, alde horretan lan egiten duten agenteei praktika horiek ez egiteko eskatu zaie. Izan ere, gaur egun ez dugu horrelako jarduerari buruzko kexen berri."

Erreklamazio egileak egindako kexan eman zuen azalpenak praktika hori oraindik ere egiten dela berez frogatu ez arren, erakunde honek ulertu zuen emandako deskripzioa xehea eta sinisgarria zela, eta horrelakorik jasan duten beste pertsona batzuen

aitorpenekin bat zetorrela. Edozein modutan ere, erreklamazio egilearen salaketa nahikoa zen -gure ustez- jarduera hori aurrezaintzeko polizia buruek proposatu beharreko ekimenak eragin zitzan.

• Emaitza

Herrizaingo Sailak emandako erantzunean ez zegoen salatutako agenteek emandako bertsioari buruzko informaziorik, bakoitzak bere agertze akta -argiketan sartu zirenak- egin zuela besterik ez baieztatuz. Alabaina, erantzun horrekin batera Herritarren Segurtasunerako zuzendariak Ertzaintzaren hiru lurralde burutzetara bidalitako komunikazio baten kopia -2000-7-10ekoa- bidali zuten. Bertan, Arartekoaren gomendioak beteko zituztela baieztatu ondoren, honako neurri hauek hartu ziren:
*"1.- Nahastutako guztiek derrigorrez idatzi behar izango dute agertze aktan, ahalik eta osoen, gertatutakoaren kontaketa, egoera garrantzitsu guztiak agertuz eta, bereziki, Arartekok aipatutakoak.*
*2.- Nahastutako guztiei jakinarazi Arartekok "idunetik heldu" deritzon praktika ezin dela ohiko praktikatzat hartu susmagarriak ahoan duen droga ez irensteko. Beraz, horrelakorik egin behar izatekotan, betiere salbuespen moduan, ondoren, arrazoitutako txosten bat egin behar izango da."*

Aipatutako irizpideen aplikazioari buruzko jarraipena egitea beharrezkoa bada ere, Herrizaingo Sailak emandako ebazpenari aurrerapen positiboa deritzogu poliziek indarra erabiltzean egin ditzaketen gehiegikeriak aurrezaindu edo, hala badagokio, kontrolatzeko.

## E) **Trafikoa**

⇒ *Barakaldon aparkatzea arautzen duen udal ordenantzaren ezarpenetariko batzuk antolamendu juridikoaren aurkakoak dira (9/1999OF)*

• Erreklamazioa

Barakaldoko Gurutzeta auzoan aparkatzeko ezarritako sistemarekin zerikusia duen kexa espediente bat tramitatzearen ondorioz, Arartekok gai honi buruz 1997ko uztailaren 30eko osoko bilkurak onetsitako udal ordenantza (179. BAO, irailaren 18koa) lortu eta aztertzeko aukera izan zuen, bai eta erabaki ere bere arioz kexa bati ekitea.

• Azterketa

Egindako azterketaren ondoren, Arartekok uste izan zuen ordenantzaren manu batzuek antolamendu juridikoaren hainbat ezarpen urratzen zituztela. Ondorio honetara funtsaz iristeko oso kontuan hartu ziren ondorengo oharbideak.

Arautukako aparkatze gunean egoiliarraren txartela lortzeko, ordenantzaren 8.1.b) artikuluak baldintza modura eskatzen zuen eskatzailearen egoitza bat etortzea udal erroldan agertzen denarekin eta *"benetan bizi denarekin"*. Beharkizun hau 10.b) artikuluan ere agertzen zen. Arartekoren iritziz, aipamen horiek ez zuten inolako garrantzirik Biztanleei eta Lurralde Mugapeari buruzko Araudiaren 53.1. artikuluaren edukia kontuan hartuz gero (abenduaren 20ko 2.612/1996 Errege Dekretuak emandako idazketa berrian eta urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legeari eragindako aldarazpenen itzalpean). Izan ere, Biztanleei eta Lurralde

Mugapeari buruzko Araudiaren manuak ondoko hau ezartzen du: *"Udal errolda udalerri bateko herritarrak agertzen diren administrazio erregistroa da. Horren datuak egiaztatzen dute egoitza udalerrian dagoela, eta, beraz, ohiko egoitza ere bai"*. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu gorago aipatutako baldintza ez dela beharrezkoa eta, edozein kasutan ere, ez duela garrantzirik, udal erroldan inskribaturik egoteak egiaztatzen baitu interesatua non bizi den eta non duen egoitza.

Era berean, txartela lortu ahal izateko, ordenantzaren 8.1.c) artikuluak eskatzen zuen *"zerga ordaindua izatea"* (ibilgailuen zirkulazio zerga). Baldintza hori betetzeko premia 10.f) artikuluan berresten zen. Horrela bada, Arartekoren ustez, ezarpen hori antolamendu juridikoaren ezarpenak urratzen zituen, Auzitegi Gorenak 1987ko uztailaren 13ko epai batean adierazi zuen bezala (1987\6893). Epai horrek, besteak beste, ondorengoa ezartzen du: *"Zirkulazio zerga ez ordaintzeak premiamendu bideari ekitea ekarriko du (...) Alabaina, ez ordaintzeak ez du ekarriko mugagabeko epean aparkatzeko ezintasuna (...) mugagabean aparkatzea baimentzen duen bereizgarria lortzeko, zirkulazio zerga ordainduta izateko baldintzak zergaren subjektu pasiboaren egoera apalaraztea dakar; izan ere, ordaindu ez badu, horren legezko ondorioak jasan behar izango ditu -premiamendu bideari ekitea- baina ez eskubideen bestelako murrizketak. Apalarazte hori legezko xedapen bitartez besterik ezin da gauzatu, hau da, lerrun hori duen arauaren bitartez, jadanik adierazi bezala"*.

Ordenantzaren 8.2. artikuluak ezartzen zuen, egoiliar txartelaren titularrak egoitza edo ibilgailua aldatzen zuenean, udal zerbitzu eskudunei jakinarazi behar ziela aldakuntza horiek eta manu horren 3. idatz-zatiak aipatzen zuen horiek txartel berri bat emango ziotela interesatuari, baldin eta beharkizun zehatz batzuk betetzen baziren. Jarraian, manu horrek ezartzen du *"arau hori betetzen ez bada, egoiliar txartel berezia ezeztatu eta berria ukatuko da, horretarako eskubidea izanez gero"*. Ordenantzaren 15. artikuluak arau hori ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioak berresten ditu. Aratekoren iritziz, egoiliar txartela ibilgailu zehatz baterako eman zaion erabiltzaile batek ibilgailua edo egoitza aldatzen badu, egia da baimena eman zitzaion egunean zehaztutako betekizunen aldakuntza bat egon dela; horretara, aldakuntza horren ondorio logikoa da txartelak baliozkotasuna galtzea. Edozein kasutan ere, arau orokorrari egin beharreko salbuespenak zirela pentsatu zen; adibidez, interesatuak egoitza aldatu bai, baina berria baldin badago txartela emandako gunearen barruan. Kasu honetan, aldarazpen espedientea tramitatzea beharrezkoa izanik ere, baimena ezeztatzea gehiegizkoa izan daiteke. Gauza bera gertatzen da aldatzen dena ibilgailua izaten denean, baina egoitza lehengo bera izanik. Arartekoren ustez, ez zen batere bidezkoa txartel berria ukatzea, interesatuak horretarako eskubidea izanik, aldakuntzen berri ez emateagatik. Pentsatu genuen ondorio hori, benetan zehatzailea, ez zela proportzionatua, betiere alde batera utzita txartelaren titularrak izandako akatsa nahigabekoa zenentz.

Arautako aparkatze guneetan aparkatzeko aldi baterako murrizketa kentzeari dagokionez, ordenantzaren 12. artikuluak ezartzen du elbarrituen ibilgailuek ez luketela murrizketarik jasan beharko, baldin eta Barakaldoko Udalak emandako baimen berezia badute eta ibilgailuak titularra erabiliko balu. Arartekok ondorioztatu ahal izan zuen ezarpen hori Eusko Jaurlaritzako urriaren 17ko 236/1989 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoari kontrajartzen zitzaiola; izan ere, horren bitartez pertsona minusbaliatuak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartela sortu eta horren ezaugarriak zehaztu

ziren. Hala, manu horrek ondokoa dio: *“Udalek dekretu honetan ezarritako prozedurarekin bat emandako txartela baliozkoa izango da autonomia erkidegoko udalerri guztietan eta titularrari bide emango dio udalek euren ordenantzetan ibilgailuen antolamendu eta zirkulazioari buruz ezarritako onura zehatzak lortu ahal izateko”*. Pertsona minusbaliatuak tratatzeko modu zehatzari dagokionez, Arartekok uste izan zuen ordenantzaren ezarpenak, bereziki 13. artikulua -txartel berezia eskuratzeko minusbalia sailkatzen duena eta berori lortzeko eska daitezkeen betekizunak zehazten dituena - egokitu beharko liratekeela 236/1989 Dekretuaren edukira.

Ordenantzaren 18. artikuluan jasotzen diren zehapen jarreren sailkapenari dagokionez, Arartekok hainbat arazo zeudela egiaztatu ahal izan zuen. Lehenengoz, urratze modura sailkaturiko jarreretariko batzuek lege lerruneko arauen estaldura falta zuten. Honen barruan sar genezakeen urratze modura sailkatzea aparkatzeko txartelak ikusteko moduko tokian ez jartzea -c) idatz zatia-, ibilgailuaren aldaketa eta ibilgailuaren eskualdaketa jakinarazteko betebeharra ez betetzea -h) idatz zatia-, eta beharrezko txartela lortzeko eskatutako betekizunetariko batzuk jadanik ez direla betetzen ez jakinaraztea -k idatz zatia-. Beste alde batetik, ondorioztatu genuen ordenantzan -j) idatz zatia- ezarritako arauak ez betetzea urratze modura sailkatzea ulertu behar zela lege lerruna zuen arau baten araberako urratze modura sailkatutako jarrerei zegokienez. Azkenik, Arartekoren aburuz, d), e), f), g) eta i) idatz zatietan ezarritako jarrerak beharrezko txartela erabiliz aparkatzeko betebeharra betetzen ez zuten zehaztapenak baino ez ziren; izan ere, urratze modura sailkatzen zituzten faltsifikatu, ezeztatu edo iraungitako txartelak erabiltzea, egoiliar txartela erabiltzea behin ibilgailua eskualdatu eta gero, txartela egoiliar gunetik kanpora erabiltzea eta ordenantzaren itzalpean emandako edozein txartel desegokiro erabiltzea. Hori zela eta, Arartekoren ustez, jarrera edo portaera horiek urratzeen katalogoan sartzea egokia izan zitekeen.

Ohar hauek guztiak Barakaldoko Udalari jakinarazi zitzaizkion aztertuak izan eta, hala bazegokion, kontuan hartuak izan zitezen.

• Emaitza

Barakaldoko Udalak Arartekori jakinarazi zion, korporazioaren bilkurako erabaki baten bitartez, udalerriko trafikoa arautzen zuen udal ordenantza berria onetsi zela eta horren barruan jaso zirela erakunde honek egindako gomendioak.

⇒ *Bizikletak, patinak, monopatinak eta antzeko tresnak ezin dira ibili oinezkoentzako guneetan zehar (31/1999OF)*

• Erreklamazioa

Hedabideen bitartez eta erakundearen zerbitzuei egindako kontsulten ondorioz, Arartekok egiaztatu ahal izan zuen Vitoria/Gasteizko hainbat herritar kezkaturik zeudela bizikletak oinezkoentzako guneetan zehar ibiltzen zirelako eta, era berean, patina, nonopatinak eta antzeko tresnak zituzten herritarrak gune horietan abiadura desegokian ibiltzen zirela egiaztatu ahal izan zutelako. Errealitate hau zela eta, herritar hauek euren ardura azaldu zuten; izan ere, praktika horiek arriskua sortarrazten zien oinezkoei eta udal agintaritzak ez zion egoera honi erantzunik ematen. Aurreko guztia kontuan hartuta, Aratekok kexa espediente bati bere arioz ekitea agindu zuen.

• Azterketa

Arartekok kexa espedienteari hasiera ematea erabaki zuenean indarrean zegoen hiri izaerako bide publikoetako erabilera, trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko udal ordenantzak ahalbideratzen zuen oinezkoentzako guneetan (espaloiak, nasak eta ibiltokiak, barne) bizikletak, patinak, nonopatinak eta trizikloak zirkulatzeko, baldin eta oinezkoen kopuruak hori egiten uzten bazuen eta betiere horien lehentasuna errespetatuz, arriskurik sortu gabe eta neurriko abiadurari eutsiz.

Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsitako Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren erainskinaren 4, 5, 6, 55 eta 56. idatz zatietan ezarritakoarekin bat etorriz, bizikletek, ibilgailuak diren aldetik, galarazita daukate oinezkoentzako guneetatik zirkulatzea. Urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazioari buruzko Arautegiaren 121.5. artikuluak ondoko hauxe ezartzen du: *edozein ibilgailu motaren zirkulazioa* (eta bizikletak ibilgailuak dira) *ezin izango da espaloietan edo oinezkoentzako gainerako guneetan burutu".* Era berean, Zirkulazio Kodearen 132.1. artikuluak honakoa aipatzen du: *"motor bizikleten, bizikleten eta euren gidarien indarrak mugiarazitako gainerako ibilgailuen gidariek aplikatzekoak diren arauak bete beharko dituzte, bai eta kapitulu honetan ezarritako apartekoak ere".* Motor bizikletak eta bizikletak soil-soilik gidatu ahal izango dira oinezkoentzako pasabideetan zehar, baldin eta maniobra hori oinez egiten bada, Trafikoari buruzko Legearen Testu Artikuluatuaren erainskinaren 2. idatz zatiak ezartzen duen bezala.

Herritarrek patin, monopatin edo antzeko tresnekin zirkulatzeari dagokionez, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorraren 121. artikuluaren 4. idatz zatiak ondorengoa ezartzen du: *"Monopatin, patin edo antzeko tresnak erabiltzen dituztenek (...) pertsonen pausuan baino ezin izango dute zirkulatu espaloietatik* (horiek guztiak oinezkoentzako guneak dira) *edo behar bezala seinaleztaturiko egoitzazko guneetatik zehar".*

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu bizikletak ezin direla ibili oinezkoentzako guneetatik, gidariak oinez ez badoaz. Era berean, patinak, monopatinak edo antzeko tresnak erabiltzen dituztenek soil-soilik zirkulatu ahal izango dute espaloi, oinezkoentzako gune edo behar bezala seinaleztaturiko egoitzazko guneetatik zehar pertsonen erritmoan joanez gero. Indarreko arauek, beraz, zehazten dute herritarrek, ibilgailuek eta gorago aipatutako tresnek oinezkoentzako guneak batera erabiltzeko ezintasuna.

Horrela bada, behin ohar hauek guztiak Vitoria/Gasteizko Udalari jakinarazi eta gero, Arartekok egiaztatu ahal izan zuen udal zerbitzu teknikoak bat zetozela erakunde honen ondorioekin, betiere bidali zizkiguten txostenak aintzat hartuta. Txostenetan azaldutako ondorioek adierazten zuten ordenantzaren manuak aldarazteko premia; izan ere, horiek oinezkoentzako guneak erabiltzeko bide ematen zuten eta hori ez dator bat Trafikoari buruzko Legearen Testu Artikulatuarekin ez eta Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrarekin ere. Ildo honi jarraituz, azpimarratu beharra dago Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.2. artikuluak ezartzen duela goi lerruna duten lege edo administrazio beste prozedura batzuk urratzen dituzten administrazio xedapenak deusezak direla zuzenbide osoan.

• Emaitza

Vitoria/Gasteizko Udalari gomendio bat bidali zitzaion udal ordenantzaren hainbat manu ondoriorik gabe uzteko edo aldarazteko; izan ere, horiek ahalbideratzen zuten bizikletak oinezkoentzako guneetatik zirkulatzea eta patinak, monopatinak zein antzeko tresnak oinezkoentzako guneetan eta behar bezala seinaleztaturiko egoitzazko guneetan "pertsonen pausuen erritmoan" baino abiadura handiagoan erabiltzea. Era berean, bizikleta, patin, monopatin eta antzeko tresnen erabiltzaileek antolamendu juridikoaren itzalpean zirkulatzen zutelako kontzientzia zeukatela aintzat hartuta, udalari eskatu zitzaion jendaurrean ezartzeko zeintzuk ziren bizikleta, patin, monopatin eta antzeko tresnei oinezkoentzako eta egoitzazko guneetan baimentzen zitzaizkien erabilerak; halaber, erabilera desegokiak behin eta berriro agertzea saihestu nahian, beharrezko zorroztasuna erabiltzeko eskaera egin zitzaion.

⇒ *Udaltzaingoen zerbitzuen betebeharrak, ohiko aparkatze desegokiak saihesteko orduan (868/1999)*

• Erreklamazioa

Herritar batek esandakoaren arabera, Santurtziko udaltzaingoaren zerbitzuek ez zituzten beharrezko neurriak hartzen udalerriko gune zehatz batean izaten ziren aparkatze desegokiak saihesteko; orobat, udal agintariek ez zieten erantzuten arau-urratze horiek ekidin nahian beharrezko neurriak hartzeko egindako eskaerei.

• Azterketa

Informazioa eskuratzeko egindako lehenengo eskabideari erantzunez, Santurtziko Udalak txosten bat bidali eta horretan adierazten zigun udaltzaingoaren funtzionarioek aparkatze desegokiak saihesteko beharrezko neurriak hartzen zituztela. Horren adibide modura, kexak aipatzen zuen tokian izandako urratzeengatik 1999an barrena izandako salaketen kopiak ere igorri zizkigun; halaber, aparkatze desegoki guztiak salatzeko ezintasuna azpimarratu zuen. Txosten horretan ez zen ezer ere aipatzen udal horren isiltasunari buruz, ez eta salaturiko ez betetzeak saihesteko herritarrek proposaturiko neurriei buruz ere.

Informazio hau kontuan hartuta, Arartekok udalari jakinarazi zion, martxoaren 2ko 330/1990 Errege Dekretuak onetsitako Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 57.1. artikuluan ezarritako ezarpenekin bat etorriz, bideetako titularrei dagokiela zirkulazioaren segurtasunerako beharrezko seinaleak instalatzeko eta zaintzeko zeregina. Erantzukizun horiek betetzeko, udalak gune horretan gelditzeko eta aparkatzeko debekua ezarri zuen; horretarako eta betiere guk eskuratutako informazioaren arabera, seinale bertikalak ezarri zituen, bai eta beharrezko bide marrak ere. Zirkulazio seinaleak errespetatzeko betebeharra ez konplitzearen ondorioz (gorago aipatutako arauaren 53.1. artikuluan ezarritakoa) trafikoa arautzeko ezarpenak urratzen dira, eta, horrek, hala badagokio, legeetan ezarritako zehapenak ekarri behar ditu.

Udaltzainek bete beharreko zereginak Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 53.1. artikuluan eta EAEko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 27. artikuluan ezarrita daude. Beste

erantzukizun batzuen artean, bi manuetako 1.b) idatz zatiak aipatzen du *"udalerrian trafikoa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzea, zirkulazio arauetan ezarritakoaren arabera"*. Beste alde batetik, Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 75.2. artikuluak ondokoa ezartzen du: *"trafikoa zaintzeko zerbitzuarekin arduratzen diren agenteek ikusitako arau-urratzeak salatu beharko dituzte, bide zirkulazioa zaintzeko eta kontrolatzeko zereginak betetzen dituztenean"*. Horretara, aurreko ezarpenak aintzat harturik, ondorioztatu genuen udaltzaingoaren funtzionarioek, trafikoa kontrolatzeko ardura duten agenteak diren aldetik, ikusitako urratzeak salatu behar zituztela bide zirkulazioa zaintzeko eta kontrolatzeko zereginak betetzen zituztenean.

Toki arazotsu horretan Santurtziko udaltzainek aurrera eramaten zuten jarduera salatzailearen erdiespenari kalterik egin gabe, bazirudien eskumen horren egikaritza ez zela nahikoa korporazioak beharrezko seinaleen bitartez herri bide horretarako erabakitako erabilera betearazteko. Horregatik, antolamendu juridikoan ezarritako mekanismoak -kautelazko neurriak- erabiltzeko proposamena egin zen, instalaturiko seinaleek ezarri bezala, bidea libre uzteko, baldin eta unean uneko zirkunstantziek uzten bazuten legeetan ezarritako neurri horiek hartzen.

Izaera orokorreko balorazio gisa, Santurtziko Udalari ohartarazi genion trafiko arauen hainbat urratzek, esate baterako behar bezala ez aparkatzeak, herritarrei kalte handiak sortaraz diezazkiekeela eta herri administrazioek, euren eskumenak egikarituz, jagon behar dutela legea zorroztasunez bete dadin, betiere administratuen ongizateari eusteko asmoz. Auzitegi Gorenak 1996ko abenduaren 26ko epai batean finkaturik duen bezala *"hiri trafikoaren antolamenduak bestelako dimentsio publiko berri eta garrantzitsua dauka gaur egun. Neurriz gain mintzatu gabe, baiezta daiteke trafikoa behar bezala arautzeak ibilgailuen eta pertsonen zirkulazio libreari eragiteaz gain, beste eskubide batzuk benetan egikaritzeari ere eragiten diola, hala nola lanpostura joateko eskubideari edo osasun, hezkuntza edo kulturakoak bezain garrantzitsuak diren zerbitzuez gozatzeko eskubideari ere (...). Hiriko bizi kalitateak zerikusi handia du eskudunak diren herri administrazioen esku dauden teknika juridikoak -zerbitzu publikoak antolatzeko arautegiak, herri jabaria kudeatzekoak eta abar- egokiro egikaritzeko eta aplikatzeko zereginarekin"*.

Aztertzen ari ginen gaiak bazeukan arreta erakartzeko moduko bigarren alderdi bat: Santurtziko Udalak erantzun ez izana ukitutakoek udal arduradunei arazoak azaltzeko zuzendutako idazkiei. Hortaz, udalari jakinarazi genion, herritarrek egindako eskabideei erantzuteko herri administrazioek daukaten betebeharrari kalte egin barik, herritarrek eurei eragiten dieten arazoen artikulazioan parte-hartzea antolamendu juridikoan ageri dela. Hala, Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 18. artikuluak adierazten du herritarren eskubideak eta betebeharrak direla, besteak beste *"udal kudeaketan parte hartzea legeetan ezarritakoaren arabera eta, hala badagokio, gobernu organoek eta udal administrazioak borondatezko lankidetza eskatzen dutenean"*. Halaber, 69.1. artikuluak ondokoa xedatzen du: *"toki korporazioek euren jardueraren gaineko informaziorik zabalena emango diete herritarrei eta herritarrek herri bizitan parte hartzea ahalbideratuko dute"*. Auzitegi Gorenak 1991eko epaian ulertzen duenez *"...herritarren partaidetza esanguratsua izan dadin eta benetan, goragoko argudioan aipatutako 69. artikuluak ezarri bezala, herri bizitzan parte hartzea ekar dezan, kasu batzuetan ezinbestekoa izaten da, oraingoan bezala,*

*partaidetza hori gobernu organoei eta udal administrazioari egindako iradokizun edo erreklamazioen bitartez hezurmamitzea eta horiek iradokizun edo erreklamazio horiek kontuan hartzea gai zehatz horri buruz erabakitzeko momentuan".*

Ohar horiek aintzat hartuta, Santurtziko Udalak txosten bat igorri zion Arartekori. Bertan modu laburrean adierazten zuen gune arazotsu horretan debekatutako aparkatzeak saihesteko betebeharrak konplitzen zituela, lehenengoz, seinaleak instalatuz eta, bigarrenez, egindako urratzeak salatuz. Era berean, aipatzen zuen udaltzain kopurua handitua zela eta zirkunstantzia horrek egoera hobetuko zuela. Kautelazko neurriei zegokienez, esaten zuen, adibidez ibilgailuak ibilgetzea edo herri bideetatik kentzea, proportzionaltasun printzipioaren arabera baloratu behar zela, neurri hauek hartzeak –kontuan hartuta hori egitea ahalgoa dela eta ez betebeharra- gehiegikeriazko egoerak ekar zitzakeelako. Gainera, aipatzen zuen, egindako eskabideei erantzun ez izanaren arrazoiak aztertzeko, kontuan hartu behar zela udalean bazirela ahalegin handiagoak eskatzen zituzten arazo larriagoak eta horietan indar handiagoa jarri behar zela; edozein kasutan, bere ustez, isiltasun horrek ez zien herritarrei galarazten gai arazotsuak justizi auzitegietara eramatea.

Erantzun hau oinarritzat hartuta, Arartekok Santurtziko alkateari txosten bat igorri zion; horrek ondoko iritziak jasotzen zituen berbarik berba:

> *"1- Trafikoa antolatzeko udal eskumenak gauzatzearen inguruan udal zerbitzuek dituzten erantzukizunak egikaritzeari dagokionez, berretsi behar ditugu arestian aipatutako txostenaren edukia eta berori eusteko arauzko eta jurisprundentziako oinarriak. Antolamendu juridikoan ezarritako kautelazko neurriak erabiltzeko gaiari dagokionez, ondoko iruzkina egin behar dugu. Lehenengo eta behin, aipatu beharra dago ibilgailuak ibilgetzea zein herri bidetik kentzea araututako administrazio jarduerak direla; izan ere, hori egiteko bide ematen duten kasuak antolamendu juridikoan ezarrita eta ohartemanda daudelako, zehatz-mehatz martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuak onesten duen Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 70 eta 71. artikuluetan eta Zirkulazio Kodearen 292, artikuluan, baldin eta aurreko ezarpenei kontrajartzen ez bazaie. Garrantzizkoa da adieraztea jarduera hauek ez dutela zehapen izaerarik. Horrela bada, behin indarreko arauek hartzea ahalbideratzen duten zirkunstantzia bat egiaztatu eta gero, administrazio eskudunak horren ildora jardun ahal izango du. Gure iritziz, jarduteko "aukera" honek ez dauka zerikusirik jarduera baten hautazko egikaritzarekin.*
>
> *Gidariek euren portaerak finkatu behar dituzten modua arautzerakoan, legegileak zein arauzko ahalmena duen administrazioak gaitzespenerako hainbat prozedura zehaztu dituzte, arauetan ezarritako aginduak hausten direnean. Gure ustez, kautelazko neurriak hartzeko aukerak helburutzat izan behar du gidarien portaera desegokiak eta, bidenabar, herri bideak modu egokian erabiltzeko onartezinak diren ondorioak saihestea. Ezin dugu ahaztu Auzitegi Gorenaren 1996ko abenduaren 26ko epaiak hiri trafikoaren antolamenduari ematen dion garrantzia; izan ere, ibilgailuen eta pertsonen zirkulazio librea bermatzen duen zirkunstantzia da, eta, beraz, bestelako eskubideak bermatzen ditu, esaterako lanpostura joateko eskubidea eta zerbitzuez zein bizi kalitateaz gozatzekoa. Ondorioz, proportzionaltasun eta*

*hautazkotasuna (administrazioaren ahalmen honen egikaritzaren printzipio gisa) trafikoa antolatzeko azken helburu hau eskuratzeko neurrikoak izango dira. Nolanahi ere, ildo honetatik har litekeen jarduera permisiboak bi ondorio mota sortaraz ditzake gidarien portaeran. Lehenengo eta behin, udal agintariek erabakitako seinaleztapena ez dela egokia, ez eta zuzena ere; eta bigarrenik, gainera, antolamendu juridikoaren arauak hausteak edo ez betetzeak erabateko zigorgabetasun egoerak sor ditzakeela, baldin eta irtenbiderik ematen ez bada.*
*2- Era berean, oso kezkatu gaitu jarduera honen jatorrian dagoen arazoak ukitutako herritarren idazkiei erantzunik eman ez izanaren inguruan egindako iruzkinak. Udal erantzukizunen arloan harrera kualifikatua behar duten arazoak egon daitezkeela alde batera utzita, egia da isiltasuna ezin dela herritarren eskabideei eman dakiekeen erantzun onargarria izan. Gure ustez, ezin da argudiatu, isiltasunaren aldeko ondorio gisa, interesatuek bide jurisdikzionalari ekiteko aukera dutela arazoak konpondu ahal izateko. Gure iritziaren pean jarritako gai honetan aintzat hartu behar da planteaturiko gaiak ezin direla behar bezala egokitu instantzia judizialetara; izan ere, planteaturiko kasurik gehienetan, herritarrek udal kudeaketan parte hartzeko eskubidearen gainean hitz egin dugu, aurreko urriaren 8ko txostenean aipatzen genuen legez. Edozein kasutan ere, gogora ekarri beharrean gaude herri administrazioek herritarrek zuzendutako idazkiei erantzuna emateko duten betebeharra, bai eta udalerriko herritar gisa dagozkien eskubideak egikaritzen laguntzeko bete beharreko zeregina ere*".

• Emaitza

Arartekok Santurtziko Udalari gogorarazi zion, trafikoa antolatzeko eskumenak egikaritzean, udal zerbitzuek jardun behar zutela bidalitako txostenetako oharretan azaltzen ziren parametroekin bat etorriz. Halaber, ebazteko betebeharra konplitu zein herritarrek udalerriaren bizimoduan parte hartzeko duten eskubidea bultzatu nahian, jakinarazi zion herritarrek egindako eskabideei erazko erantzuna eman behar zitzaiela.

# 8. JUSTIZIA

## 8.1. SARRERA

Arartekoaren jarduera antolatzeko, erregela orokorra da arloz arlo jokatzea. Arlo horien gorabeherak definitzeko, kontuan hartzen da zein den aztertutako administrazioaren jarduera-eremua. Hala eta guztiz ere, Justiziaren arloan, ezin esan daiteke, zehatz-mehatz behintzat, auzitegien jardunbidea kontrolatzen denik. Aitzitik, arlo horretara gai desberdinak biltzen dira, eta gai horien arteko antzekotasun bakarra jarraikoa da: Justizia Administrazioarekin, zuzenean edo zeharka, loturak izatea. Gainera, Justiziaren arloan jarduteko, Arartekoak begi-bistako muga bat du. Jakina denez, epai-boterea independentea da, hala ezartzen baitu, beren beregi gainera, epai-boterearen independentziari buruzko printzipioak. Printzipio hori dela eta, Arartekoak eta, era berean, epai-boteretik kanpoko beste organo guztiek ere, ezin dute inolako gairik aztertu, baldin eta jurisdikzio-organoek jadanik gai hori ebatzi badute. Hala dator jasota 3/85 Legearen 13. artikuluan; lege horrek sortu eta arautu du Ararteko erakundea. Arrazoi horren ondorioz, urte honetan, 20 kexa ezerezean geratu dira.

Bestalde, kexa batzuei buruzko izapidetza onartu da. Kexa horiek talde hauetan sar daitezke:

- Espetxe-arloko jarduna .................................................. 19
- Justizia Administrazioaren jardunbidea .............................. 18
- Abokatu eta prokuradoreen elkarteak ............................... 9
- Dohaineko laguntza juridikoa ........................................... 2
- Bestelakoak.................................................................... 1

Kexa horiez gain, Espainiako estatuko Arartekoari ere zenbait kexa helarazi zaizkio, eta beste horrenbeste gertatu da, beste herri batzuetan antzeko eginkizuna betetzen duten erakundeekin. Datu hori ere aintzakotzat hartu da, sailkapena egiteko orduan; baina ez da kontuan hartu kexok zer-nolako lotura duten jorragai dugun gaiarekin.

Azter ditzagun, bada, xehetasunez, erreklamaziogileek azaldu dituzten kexak. **Justizia Administrazioaren jardunbide**ari dagokionez, zenbait kexa azpimarratu behar dira, horiek guztiak epai-prozeduretan izandako atzerapenei buruzkoak direlako. Atzerapenak, egia esateko, jurisdikzio-esparru guztietan gertatzen dira. Baina protestak areagotu egiten dira, Familia Zuzenbidearen inguruko epaiketetan eta, bereziki, ezkontideen arteko banantze eta dibortzio kasuetan. Hurrengo atalean, azaldutakoaren erakusgarri gisa, atzerapenaren adibide bat ageri da; kasu horretan, banatzearen osteko neurriak aldarazteko, prozedura gauzatu zen, eta prozedura horretan gertatu zen atzerapena. Kasu-mota horiei dagokienez, ohartarazteko modukoa da, 1999. urtearen bukaeran, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiak erakunde honi egindako komunikazioa. Komunikazio horri helduta, Bilboko lehen auzialdiko seigarren epaitegiko magistratu-titularrari zehapenak ezarri zitzaizkion, Arartekoak 1998. urtearen hasieran bidalitako hiru kexen ondorioz. Aurton, beste kexa baten inguruko izapidetza burutu da eta, espediente hori dela bide, diziplina-ondorioak gerta dakizkioke magistratu berberari. Dena den, aurreko urteetako eskarmentuak agerian utzi du espedientea irekitzeak beti ez dakarrela epai-ebazpena garaiz ematea; beste modu batera esanda, erreklamaziogileak

ez du atzerapenik nahi epai-ebazpena jasotzeko, eta hori beti ez da saihesten espedientea irekitzearen bidez.

Bestelako arazoak azalarazi dira, bi kexaren bitartez. Arazook sortu dira, izatezko bikoteak hautsi arren, Gasteizko Familia Epaitegiak behin-behineko neurriak hartu ez dituelako. Bi kasuok oso bereziak ziren eta, beharbada, berezitasun hori aintzat harturik, uler zitekeen behin-behineko neurririk ez hartzea. Dena den, neurririk ez hartze horrek egundoko gatazkak eragin ditu, eta arazook iraun egin dute prozeduretatik bat bukatu arte ere –urtebete baino gehiago–. Zinez, ez da irregulartasunik somatu bi kasu horietan. Nolanahi den ere, legeriak kasu hori arautzen du, eta legeria horrek ez du onartzen izatezko bikoteen aurka –eta, oraindik larriagoa dena, bikote horretako seme-alaben aurka– bereizkeriak egiterik. Hortaz, halako bereizkeriak saihestea komeni da.

Arlo penalean, espetxeratuek zenbait kexa aurkeztu dituzte, atzerapenak direla eta ez direla. Kexa horien inguruan, geroago arituko da. Kexa horiez gain, bada guretzat deigarri izan den beste kexarik ere. Kexa hori aurkeztu du, hain zuzen ere, adimeneko gaixoei laguntzeko elkarte batek. Kexa horri helduta, halako gaixoek egundoko kalte psikikoak jasaten dituzte, epaiketetan auziperatu gisa agertu eta, epaiketa horietan, atzerapenak gertatzen direnean.

Jurisdikzio penalari dagokionez ere, Arartekoari beste zenbait kexa helarazi zaizkio, Justizia Admnistrazioak burututako irregulartasun batzuen ondorioz eta, zehatzago, prozeduretan izandako atzerapenen ondorioz. Herritar batek kexa-espedientearen izapideak eragin ditu, bi egunetan askatasunik gabe egon zelako, judizio bidezko zitazioa jaso arte (kexa horri buruzko laburpena hurrengo atalean irakur daiteke). Horrekin batera, beste lagun bat lekuko babestua zen eta, ahozko ikustaldian aitorpena egin baino lehen, gela berezi batean sartu zuten, bertan itxaroteko; alabaina, gela horretan auziperatua ere bazegoen, eta horrekin aurrez aurre topo egin zuen. Erreklamaziogileak adierazi zuen bezala, gertaera horren ondorioz, haren lekukotza ezerezean geratu zen eta, ondorenez, erruztatua absolbitu egin zuten. Txosten hau idazteko unean, oraindik ez dakigu zein izango den Justizia Administrazioak herritar horren kexari emango dion erantzuna.

Atal hau bukatzeko, beste kasu bat aipatu behar da; kasu horretan, adingabeen intimitatea babesteko arazoa azaltzen da. Herritar batek, lan-arrazoiak direla eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala kontsultatu ohi du. Behin konturatu zen aldizkari horretan umeen izen-abizenak azaltzen direla, familiek euren etxeetan ume horiek hartu behar dituztenean eta, horren ondorioz, judiziozko prozedurak burutzen direnean. Aipatutako lurralde historikoko fiskaltzari arazoa jakinarazi zitzaion, eta berak arazoa helarazi zien ukitutako erakunde desberdinei. Guztiek adierazi zuten umeen izen-abizenak argitaratzea ez dela zuzena; baina noizbehinkako okerra besterik ez dela azaldu zuten. Guztiarekin ere, neurri egokiak hartzeko konpromisoa hartu zuten, aurrerantzean halako okerrik izan ez dadin.

Atal honen hasieran nabarmendu dugun moduan, Arartekoak ezin ditu aztertu **jadanik judizio bidez ebatzi diren arazoak**. Horren ondorioz, ezin ditugu hainbat eta hainbat kexa onartu. Hori da, hain zuzen ere, jurisdikzio-esparruan ez sartzeko printzipioaren ondorioa. Printzipio hori gorabehera, herritarrek hamaika kexa bidaltzen dizkigute; kexa horietan, arazo eta gatazka ugari azaltzen dira eta, herritarron ustez, auzitegiek ez dituzte behar bezala konpontzen arazo horiek. Aurreko urteetako txostenetan azpimarratu dugun bezala, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan bereziki, herritarrek uste dute epaileen babesa askieza dela.

Herritarren ustez, beraz, tratu txarren aurkako epai-babesa askotan eraginik gabekoa da. Egia esateko, 2000. urtean zehar, kexa gutxiago aurkeztu dira; baina oraindik badira hainbat kexa, gai horren inguruan. Berbarako, emakume batek protesta egin du, ez delako kautelazko neurririk hartu, erasotzailea berarengana hurbil ez dadin. Kasu horretan, arazoa jarraikoa zen: epaiketan, erasoa zen aztergaia, baina epaileak faltatzat hartu zuen eraso hori; eta, faltei buruzko prozeduretan, legeak ez du onartzen kautelazko neurri hori hartzerik.

Etxean izandako tratu txarrak, beraz, faltatzat hartzen dira, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu. Ondorio horietako bat aipatzearren, epaileak bestelakoa erabakitzen ez duen bitartean, salaketa egin duen emakumeak ez du dohaineko laguntza juridikorik; izan ere, falten inguruko judizioetan, ez da nahitaezkoa abokatuak esku hartzea.

Epai-jardunaren inguruan, ondorenez, halako ezinegona soma daiteke zenbait kasutan. Ezinegon edo atsekabe hori prozedura zibiletan eta bestelako jurisdikzioetan ere igar daiteke. Kasu penalei dagokienez, bi espetxeratuk kexa azaldu dute, kartzelan eman duten denbora eurei ezarritako zigorra baino luzeagoa izan delako. Espetxeratu horietako bat aurreneurrizko espetxealdian egon zen delitu jakin baten ondorioz eta, azkenean, epaileak delitu horretatik absolbitu egin zuen. Beste espetxeratuaren kasuan, 1995eko Zigor Kodea aplikatuz gero, bete beharreko zigorra jadanik beteta zegoena baino laburragoa zen. Bi espetxeratu horiek, gaur egun ere, kartzelan daude, kondena betetzeko; baina aurretiaz bete duten gehiegizko denbora horrek ez die balio orain betetzen ari direna gutxitzeko.

**Espetxeratu**en arazoei ekinez, Langraiz Okako espetxeko preso batzuek kexa aurkeztu dute. Lagun horiek batu egin ziren, instalazioetan, baliabide materialetan, elikagaietan, espetxeratuei emandako tratuan eta bestelakoetan atzemandako akatsak salatzeko. Arartekoak jaso egin zuen espetxeratuek prestatutako txostena, eta txosten hori bidali zion Espainiako estatuko Arartekoari. Erakunde horretako ordezkariek bisita egin zuten aipatutako espetxe horretara. Ordezkariok, *in situ*, zenbait datu bildu zituzten eta, horietatik abiatuta, Espainiako estatuko Arartekoak argibideak eskatu zizkion Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari. Horrek erantzuna igorri zuen. Erantzun horretan, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak aitortzen du Arabako espetxe horretan berrikuntzak burutu behar direla (gai horren inguruan, argibide gehiago lor daitezke, kartzelei buruzko txostenean eta, zehatzago, txosten horri dagokion atalean: I. kap., 1.1.1).

Aurreko urteetan bezalaxe, Arartekoak hainbat kexa jaso ditu, askatasunaz gabetzeko zigorren inguruan eta, bereziki, zigor horiek betetzeko tokien inguruan. Erakunde honek behin eta berriz adierazi duenez, erregela orokor gisa komeni da espetxeratu guztiek kondena betetzea, euren bizkilekuetatik hurbil dauden espetxeetan. Adierazpen horiek gorabehera, azpimarratzeko modukoa da espetxe-legeriak Espetxeetako Administrazioari askatasun handia ematea, arlo horretan erabakia hartzeko. Hamaika espetxeratuk kexa azaltzen dute, euren familia-egoitzetatik urrun bete behar dituztelako kondenak. Alabaina, kexa horiek, maiz-sarri, ez dakarte erakundeek eskurik hartzea, herritarren eskubideak babesteko.

Bestelako gaiak ere urtero-urtero azaltzen dira. Horiei dagokienez, besteak beste, hurrengoak aipa daitezke: gaixotasun larri eta sendaezina izan arren, baimenak ukatzea, bisitak ukatzea, baldintzapeko askatasuna ukatzea edota kartzelatik atera ezin izatea; orobat, espetxeratuei banakako tratamenturik ez ematea edota aurreneurrizko espetxealdia luzatzea. Arartekoari beste arazo batzuk ere jakinarazi zaizkio; horietan

salatu egin da espetxeratuek luzaroan araubide itxia izatea. Gai horretan gogoratzekoa da Euskadin ez dagoela sail berezi bat, araubide horretan zigorrak betetzeko. Ondorenez, espetxeratuari lehen graduko kalifikazioa ematen zaionean, autonomia erkidego honetatik urrun dagoen espetxe batera bidali behar da espetxeratu hori eta, beraz, neurriaren zorroztasuna areagotu egiten da.

Espetxeetako azpiegiturak, hortaz, askiezak dira. Bide horretatik, azpimarratzeko modukoa da Amen Unitatea ez dela oraindik abian jarri, nahiz eta horren inguruko eskariak behin eta berriz jaso; unitate horretan, emakume espetxeratuek euren umeekin bizitzeko aukera izango lukete, umeok hiru urtekoak baino gazteagoak izanez gero. Gai horri buruz, Espetxeetako Administrazioak behin baino gehiagotan adierazi du halako unitate bat izango dela, etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoan egingo den espetxe berri horretan. Edozein modutan ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Arartekoari jakinarazi dio Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak ez duela sail horrekin inolako harremanik izan, espetxe berria eraikitzeko.

Espetxe barruko osasun-laguntzak ere zenbait kexa erakarri ditu. Kexa horien edukia era askotakoa izan da. Kexa batzuek salatu dute ez dela laguntza berezirik izan, gose-greba bukatu eta gero. Beste batzuek espezialisten laguntzarik ez dagoela salatu dute; psikiatra edota odontologoen laguntza eza salatu dute, batik bat. Dena den, argitu beharra dago, aurton ere, euskal herritarrek gai horren ondoriozko kexak egin dituztela, baina herritar horiek beste autonomia erkidego batzuetako espetxeetan egon direnean.

Espetxeratuak atzerritarrak direnean, euren egoera ahulezia handikoa izan ohi da. Halako espetxeratuek ustezko bereizkeriak salatzen dituzte, adibidez, baimenak jasotzeko orduan. Salaketa horiez gain, agiriak berriztatzeko arazoak azaltzen dituzte espetxeratu atzerritarrek. Arartekoak kasu larri-larri baten berri ere badu izan; kasu horretan, oker barkaezina gertatu zen auziperatua identifikatzeko orduan. Afrikako etorkin bati bi urtetik gorako espetxealdi-zigorra ezarri zitzaion, auzitegiak berrerortze-astungarria aplikatu zuelako. Alabaina, lehenengo delituaren ondorioz kondenatutako laguna ez zen bigarren delituaren erantzulea. Txosten hau idazterakoan jakin dugu Bizkaiko Probintzi Auzitegiak berraztertzeko errekurtso berezia egiteko baimena eman duela. Horren bitartez, espero dugu pertsona zigortu horrek ez bete behar izatea dirudienez ez zegozkion bi urte horiek.

Bestalde, euskaldun batzuk atzerriko espetxeetan daude. 2000. urtean zehar, Arartekoak kasu berri bati buruzko datuak besterik ez ditu jaso. Kasu horretan, espetxeratu euskaldunak orduko lortu zuen Kubako espetxetik hemengo batera etortzea. Era berean, Arartekoak eskua hartu du, beste kasu batean ere; kasu horretan, Frantziak ETAko kide bat egotzi nahi zuen Espainiako estatuko lurraldera, lagun horrek Frantzian kondena beteta zeukalako; ETAko kide horren inguruan, ordea, ez zegoen estradizio-demandarik. Arartekoak arazoa helarazi zion Espainiako estatuko Arartekoari eta, azkenean, epailearen aginduz, Frantziako Administrazioaren erabakia geldiarazi egin zen.

Atal honen hasieran adierazi bezala, justiziaren arloan sartu dugu Arartekoak **adingabe urratzaile**en tratamenduari buruz gauzatu duen jarduna. 2001eko urtarrilean, indarrean jarri da 5/2000 Legea, adingabeen erantzukizun penala arautu duena. Euskal Administrazioak ahalegin berezia egin du, beharrezkoak diren azpiegiturak prestatzeko eta, ondorenez, neurriak behar bezala bete ahal izateko. Esate baterako, urtebete honetan zehar, lehentasuneko laguntza-zentroa eratu da erakunde honentzat. Gauzatutako jardun osoa zein izan den jakiteko, kapitulu berezia kontsulta daiteke, hain zuzen ere, *adingabe urratzaileen gaineko esku-hartze*ari dagokion kapitulua (I. kap., 1.1.6).

**Abokatu eta prokuradoreen elkarte**en aurka ere, hamaika kexa aurkeztu dira. Kexok ez dira izan beste urte batzuetakoak baino gehiago. Zernahi gisaz, azpimarratzekoa da, hainbat idazki eta kontsultetan, herritarrek euren ezinegona eta atsekabea azaltzea, halako profesional batzuen jardunarekin. Kexa horiek subjektu pribatuen arteko gatazkak baino ez dira eta, beraz, Arartekoak ezin ditu horietan eskurik sartu. Abokatu eta prokuradoreek egindako zerbitzuei dagokienez, Arartekoaren lana da profesionalen elkarteek nola diharduten ikuskatzea, elkarteok korporazio-administrazioaren barruan koka daitezkeen heinean.

Ildo horretatik, gehien errepikatzen den kexa jarraikoa da: erabiltzaileek salaketa jartzen dute, profesionalek burututako jarduera jakin batzuen aurka eta, salaketa horiei erantzuna emateko orduan, atzerapenak gertatzen dira edo, larriagoa dena, ez da erantzunik ematen. Bizkaiko Abokatuen Bazkune Ohoretsuak eragin ditu, beste behin ere, kexarik gehien; dena den, horren arrazoia begi-bistakoa da: elkarte horretan daude profesional gehienak, eta elkarte horretako profesionalek biztanle anitzi ematen diete laguntza. 2000. urteko azken hilabeteetan, ohartarazteko modukoa da aipatutako elkarteak arinago bidali dituela erantzunak, Arartekoak eskariak egin dizkionean; dena den, aurreko urteetako eskaera batzuei oraindik ez zaie erantzunik eman. Erantzunik gabeko eskari horien artean, batek gure kezka eragin du. Kasu horretan, profesionalen korporazio horrek prozedura eragin du, ordainsarien kopuruari buruz adostasunik ez dagoelako. Arartekoaren asmoa da azterketa xehea egitea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru elkarteak konparatu edo alderatzeko.

Hurrengo atalean, kexen laburpena ageri da. Bertan aurki daiteke eguneroko bizimoduan behin baino gehiagotan azaltzen den arazoa. Arazo horren azalpenari eutsiz, bezeroek salaketak jartzen dituzte, profesionalek jarduera irregularrak burutzen dituztenean; bada, salaketa horiek ebazten direnean, ebazpen horiek ziodunak edo arrazoituak izan behar dira. Zinez, indarreko arautegiak ez du ezartzen, informazio-eginbideak artxibatzen direnean, artxibatze horren arrazoiak edo zioak azaldu behar direnik. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da abokatu eta prokuradoreen elkarteak Zuzenbideko profesionalen elkarteak direla. Hori dela eta, prozedurako bermeak ahalik eta egokienak izan behar dira, besteak beste, erreklamaziogilea egoera txarragoan jar ez dadin; izan ere, erreklamaziogileak, eskuarki, ez du prestakuntza juridikorik izango eta, bidezkoa izan zein izan ez, bere burua babes txikiagoarekin ikusiko du, profesional bat aurrez aurre badu.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Abokatu eta prokuradoreen elkarteak

⇒ *Abokatuen elkarteari kexa aurkeztu zitzaion eta, hori ebazteko orduan, atzerapena gertatu zen (397/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak Arartekoarengana jo zuen, bere kexa azaltzeko. Erreklamaziogilearen ustez, Bizkaiko Abokatuen Bazkune Ohoretsuak atzerapenak burutu

zituen eta, gainera, ez zituen zenbait erantzun eman. Aurretiaz ere, herritar berberak kexa azaldu zion Arartekoari, korporazio berberaren jardunbidea dela eta. 1998. urtean, Arartekoak kexa-izapidetzari hasiera eman zion eta, interesdunak jakinarazi zigunean ebazpena jaso zuela, orduan guk espedienteari bukaera eman genion. Nolanahi den ere, ebazpen horrek ez zekarren berarekin diziplina-prozedura amaitzea –guk hala uste izan genuen arren–. Aitzitik, ebazpenak diziplina-prozedura hori irekitzea eragin zuen, eta prozedura horren izapidetzan atzerapenak gertatu omen dira.

Erreklamaziogileak adierazi zuen, berebat, abokatuen elkarteak ez ziela erantzunik eman berak luzatutako idazki batzuei; erreklamaziogileak idazki horiek aurkeztu zituen, salaketapeko abokatuak erantzukizun zibila izan zezakeelakoan.

• Azterketa

Arartekoaren ikuspuntutik, erreklamaziogileak hainbat arazo azaldu zituen, eta horietatik nagusia zen diziplina-espedientea ebazteko orduan atzerapenak izatea; erreklamaziogileak espediente hori eragin zuen ofizioz izendatutako abokatuaren aurka, bere interesak babesteko. Horregatik, eta atzerapena ikusita, Arartekoak abokatuen elkartera jo zuen, elkarteak interesdunaren eskariari kasu egin ziezaion; eskaria zen, hain zuzen ere, arazoa atzerapen gehiagorik gabe ebaztea edo, gutxienez, ordu arte gauzatutako izapideei buruz informazioa ematea. Arartekoak profesionalen korporazio horri gogorarazi zion horrek duen betebeharra; betebeharrari helduta, abokatuen elkarteak berariazko erantzuna eman behar die erreklamaziogilearen idazkiei, horietan eskatzen bada abokatuak erantzukizun zibilik duen ala ez erabakitzea.

• Emaitza

Arartekoak idazkia bidali zion abokatuen elkarteari, informazioa eskatzeko. Handik egun gutxira, Arartekoak jakin zuen erreklamaziogileak abokatuen elkartetik erantzuna jaso zuela; erantzun horren eretzean, abokatuaren lanbide-jarduerak kaltea zekarren, eta kalte horren ordaina jasotzeko eskubidea izan zezakeen erreklamaziogileak.

Hilabete batzuk geroxeago, Arartekoak abokatuen elkarteko dekanoaren komunikazioa jaso zuen. Komunikazio horretan, dekanoak Arartekoari jakinarazi zion zein ebazpen hartu zen, izapideak eragin zituen diziplina-espediente horretan. Hori guztia dela eta, Arartekoak uste izan zuen konponduta zegoela kexa eragin zuen arazoa; beraz, Arartekoak bukatutzat jo zuen bere esku-hartzea.

⇒ *Abokatuen elkarteak ebazpena eman zuen, baina horren zioak adierazi gabe (812/2000)*

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileek kexa azaldu zioten Gipuzkoako Abokatuen Elkarteari, elkarte horretako letradu batek burututako lanbide-jardueraren ondorioz. Bada, erreklamaziogileak ez zeuden ados Gipuzkoako Abokatuen Elkarteak kexaren ondorioz burututako jardunarekin. Erreklamaziogileek adierazi zuten, berebat, errekurtsoa jarri zutela Abokatuen Euskal Kontseiluan ere, euren salaketa artxibatzeko erabakia hartu zuelako Gipuzkoako Abokatuen Elkarteko Gobernu Batzordeak. Erreklamaziogileek zenbait egitate egotzi zizkioten abokatuari, eta abokatuak *"ezetz biribila"* eman zien

halako egitateei. Erreklamaziogileen iritziz, ezetz biribil hori izan zen, hain zuzen ere, elkarteak bere erabakia oinarritzeko erabili zuen arrazoi bakarra. Gobernu Batzordeak ez zien kasurik egin erreklamaziogileek aurkeztutako arrazoi eta frogei.

• Azterketa

Arartekoak jasotako informazioaren arabera, Abokatuen Euskal Kontseiluan aurkeztutako errekurtsoa oraindik ebatzi gabe zegoen. Horregatik, Arartekoak erreklamaziogileei azaldu zien ebazpenari itxaron beharra zegoela eta Arartekoak ezin zuela inola ere prozesu horretan eskurik sartu.

Hala eta guztiz ere, Arartekoak akats bat atzeman zuen: abokatuen elkarteak interesdunei Gobernu Batzordearen erabakia jakinarazi zien idazki baten bitartez; baina idazki horretan ez zen gutxieneko arrazoirik ere azaltzen, hartutako erabakiaren zioak ulertzeko. Egin-eginean ere, agiri horretan, zenbait egitate aipatu eta gero, zuzen-zuzenean, ondorioak agertzen ziren, honako baieztapen hau gaineratuz: "*hasitako eginbideak largetsi eta artxibatzeko erabakia hartu da, salatutako egitateak ezin direlako faltatzat hartu*".

Idazki horretan, ez zegoen inolako azalpenik eta, beraz, erreklamaziogileek ezin zuten inola ere jakin zergatik eman zion gaitziritzia elkarteko organoak euren salaketari, eta zergatik ez zen arduragabea izan profesionalaren jarduera. Horregatik, eta arazoaren muina aztertzeari ekin gabe, Arartekoak uste izan zuen, espedientearen izapideak egiteko orduan, prozedurako bermeak hautsi zirela edo, behintzat, horren zantzuak zeudela.

Egia esan, errekurtsopeko ebazpenaren akats formalen artean, erreklamaziogileek ez zuten aipatu ebazpena zioduna ez izatea –ziur asko, erreklamaziogileek Zuzenbiderik ez zekitelako–. Erreklamaziogileen ustez, begi-bistakoa zen abokatuen elkarteak abokatuaren aitorpena besterik ez zuela kontuan hartu. Arartekoaren iritziz, erreklamaziogileen uste horrek agerian uzten du haiek informazio ezaren ondorioak jasan zituztela.

Ondorenez, eta Abokatuen Euskal Kontseilua arazoa aztertzen zegoela jakinda, Arartekoak erakunde horretara jo zuen, argibideak eskatzeko. Izan ere, erreklamaziogileek eskubidea dute, Gobernu Batzordearen erabakiak zein zio edo arrazoi izan dituen jakiteko (30/1992 Legearen 89. art.); eta, beharbada, kasu horretan, eskubide hori urratu egin zen.

• Emaitza

Abokatuen Euskal Kontseiluko lehendakariak, azkar-azkar, erantzuna eman zion Arartekoaren informazio-eskariari. Erantzun horretan, lehendakariak hainbat azalpen eta argumentu juridiko azaldu zituen. Horiek guztiak honetara labur daitezke:

Abokatuen Euskal Kontseiluak azpimarratu nahi du bereizi beharrekoak direla, batetik, informazio-eginbideen izapidetza eta, bestetik, diziplina-espedienteen izapidetza. Diziplina-espedienteetan, zentzuzkoa denez, ebazpen guztiak ziodunak izan behar dira, eta hala ezartzen du, gainera, Diziplina Prozedurari buruzko Erregelamenduak; jakina denez, erregelamendu hori indarrean dago abokatuen elkarteetan. Haatik, ez da gauza bera gertatzen, informazio-eginbideei amaiera emateko erabakiekin. Kexa eragin duen kasuan ere, prozedura mota horretakoa zen eta, beraz, Abokatuen Euskal Kontseiluak ez du uste kasu horretan herritar interesdunen eskubideak hautsi zirenik.

Hori guztia dela eta, Abokatuen Euskal Kontseiluak ez du uste beharrezkoa denik erreklamaziogileei beste komunikazio bat egitea, komunikazio horrek aurreko erabakiaren

zioak edo arrazoiak azal ditzan; hau da, ez du uste abokatuen elkarteak hartutako erabakiari buruz, azalpen laburrik eman behar denik ere. Hori gorabehera, kontseilu horretako lehendakariak Arartekoari ziurtatu zion kasu guztietarako baliozkoa den zerbait: "*Kontseiluaren ebazpenak ziodunak dira beti eta, irizpidea eratzeko, auzialdiko elkarteak administrazio-espediente osoa bidaltzen dio Kontseiluari; informazio-eginbideek osatzen dute, osatu ere, espediente hori. Hortaz, organo ikuskatzaileak informazio xehea du bi alderdiek egindako alegazioei buruz, hots, herritar salatzaileak eta salaketapeko letraduak egindako alegazioei buruz*". Beste modu batera esateko, Abokatuen Euskal Kontseiluak konpromisoa hartu zuen, nolabait, erreklamaziogileei elkarteak isildu zituen azalpenak emateko.

Arartekoak ezin ditu bete-betean onartu Abokatuen Euskal Kontseiluko lehendakariak egindako baieztapen horiek. Egia da bi prozedura horien esangura ez dela berbera; eta, zinez, indarreko arautegiaren arabera, berme gehiago izan behar dira, diziplina-espedienteen izapideak egiteko orduan. Zalantzazkoa da, orobat, 30/92 Legearen 89 eta 54. art.ak zehatz-mehatz aplikatu ahal izatea. Edonola ere, duda-mudarik gabe baiezta daiteke jarraikoa: letraduaren jardunaren ondorioz kalteturik gertatu denak salaketa jarri du abokatuen elkartean, eta diziplina-espedientea ez eragiteko erabakiak haren legebidezko interesak uki ditzake.

Arean bere, informazio-eginbideak artxibatzeko erabakia hartzen denean, horrek berarekin dakar nolabaiteko iritzia izatea profesionalak burutu duen jarduerari buruz. Iritzi hori, bistan denez, profesionalaren aldekoa da, ez baita inolako zantzurik somatzen, horren ustezko jokabide irregular edo arduragabeari buruz. Balorazio horrek ukatu egiten du abokatuak inolako erantzukizuna izatea eta, beraz, zuzeneko eragina du profesionalaren jardunaren ondorioz kalteturik gertatu den horrentzat.

Bestalde, hurrengoa azpimarratu behar da: aipatutako ebazpenak ziodunak izanez gero, herritar salatzailearen bermeak gehitu egingo dira –horrek aukera duelako, eginbideak artxibatzeko erabaki ulertu, erabaki horren arrazoiak jakin eta arrazoi horiei aurre egiteko–; eta, gainera, organo erabakitzailearen jarrera eta izen ona indartu egingo dira. Ziorik gabeko ebazpenek, nahitaez, korporatibismo-susmoak eragiten dituzte, eta halako susmoak izaten dira, maiz-sarri, profesionalen elkarteei buruz. Arartekoaren ustez, abokatuek euren eskura dauden bide guztiak erabili beharko lituzkete, hori saihesteko.

Erreklamaziogileen kexa eragin zuen kasu zehatzari dagokionez, Arartekoak uste du Kontseiluak arrazoiak azalduko dizkiela erreklamaziogileei eta arrazoi horiek, nolabait, konpondu egingo dituztela Gipuzkoako Abokatuen Elkarteak hasieran isildutakoak. Hortaz, herritar salatzaileek kontrako daturik ekartzen ez duten bitartean, Arartekoak uste du kexa konponduta dagoela eta ez dela gomendiorik behar.

## B) **Justizia administrazioaren funtzionamendua**

*⇒ Epai-zitazioa jakinarazteko, ez zen askatasunik izan (363/2000)*

• Erreklamazioa

Lan arrazoien ondorioz, herritarrak egoitza aldatu zuen Bartzelonatik Bilbora, baina ahaztu egin zitzaion egitate hori Instrukzio Epaitegiari jakinaraztea; herritarra epaitegi

horretan auziperatuta zegoen, trafiko-segurtasunaren aurkako delitu baten ondorioz. Epaitegiak bera bilatu eta harrapatzeko agindua eman zuen eta, agindu horren ondorioz, Polizia Nazionala agertu zen, goiz batean, haren lantokian, bera atxilotzeko. Polizia-etxean sei ordu egon eta gero, poliziek Bilboko 2. Instrukzio Epaitegira eraman zuten herritarra; epaitegi horretako titularrak agindu zuen hura espetxean sartzeko. Espetxean egon zen, hurrengo eguneko arratsaldea arte. Une horretan, judiziorako zitazioa jakinarazi zitzaion, eta horrela jakin zuen zergatik zegoen atxilotuta.

Erreklamaziogilearen ustez, askatasunaz gabetzea, kasu horretan, gehiegizko neurria da guztiz, eta ez zegoen behar besteko arrazoirik halako neurri bat hartzeko.

• Azterketa

Epai-erabakiaren gaineko baloraziorik egin gabe, Arartekoak uste izan zuen, kasu horretan, instrukzio epaitegien arteko komunikazioan ez zela koordinaziorik eta azkartasunik izan. Horren zantzuak somatu zituen, behinik behin, Arartekoak. Horregatik, kasu horrek Justizia Administrazioaren jardunbide akastuna erakuts zezakeen. Aintzakotzat hartzeko modukoa da autonomia erkidego desberdinetako epai-organoek hartu zutela parte kasu horretan. Horregatik, Arartekoak kexa helarazi zion Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari (EBKN).

• Emaitza

Erantzuna ematean, EBKNko lehendakariak hauxe adierazi zuen: "*Kontseilu honek txostena eskatu dio Ikuskapen Zerbitzuari. Txosten horretan jakinarazi didate Bilboko 2. Instrukzio Epaitegiak, gau eta eguneko zerbitzua betetzean, organo eskudunaren jarrabideak bete besterik ez zituela egin; kasu horretan, organo eskuduna Bartzelonako 12. Zigor Epaitegia zen. Azken epai-organo horren jardunari dagokionez, jardun horren arrazoia jarraikoa izan zen: akusaziodunaren aurka, hots, kexa egin duen lagunaren aurka, judizioa zegoen, eta judizio hori bi aldiz eten beharra egon zen, akusazioduna bertan agertu ez zelako; akusaziodunak epai-organoari jakinarazi behar zion egoitza-aldaketa, horretarako betebeharra zuelako.*"

Baieztapen horietatik atera daitekeenez, EBKNk ez zuen uste kasu horretan epaileek inolako irregulartasunik edo arduragabekeriarik burutu zutenik. Badirudi, berebat, EBKNk ez zuela balioetsi nahi zenbat ordu igaro ziren, epaitegi batek besteari zitazioa helarazi arte.

⇒ *Ezkontideen arteko banantzean, neurri zehatzak hartu eta gero, prozedura hasi zen, neurri horiek aldarazteko. Bada, prozedura hori ebazteko orduan, atzerapena gertatu zen (384/2000)*

• Erreklamazioa

Emakume ezkondu batek kalte ekonomikoak izan zituen; izan ere, banantzearen osteko neurriak aldarazteko, prozedura eragin zuen, eta prozedura horretan izandako atzerapenak kalteak eragin zizkion. Horregatik, emakumeak Arartekoarengana jo zuen. Berak zioenez, demanda jarri zuen 1998ko abenduan. Demandaren ondorioz, intzidenteen prozedurari buruzko izapideak egin ziren, Durangoko lehen auzialdiko 2. epaitegian. Prozedura ebazteko, urtebete baino gehiago igaro zen. Gainera, 2000ko

martxoan emandako autoaren bitartez, epaileak jardun osoaren deuseztasuna adierazi zuen, Fiskaltzari ez zitzaiolako demanda helarazi. Ondorenez, jardun osoa, atzera-eraginez, hasierako unera itzuli zen.

Erreklamaziogileak uste zuen, behin betiko ebazpena emateko unean, orduko eraginik gabekoa izango zela eskatutako neurri-aldaketa. Horregatik, erreklamaziogileak informazioa eskatu zuen, Justizia Administrazioaren jardunbide akastunarengatik, horren auka erantzukizun-erreklamazioa jarri ahal izateko.

• Azterketa

Arartekoaren aburuz, azaldutako gertaera horiek gogoan izanik, badirudi bidegabeko atzerapenak izan zirela, epai-prozeduraren izapideak egiteko orduan. Horregatik, Arartekoak kexa helarazi zion Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Gelari. Gela horretako lehendakariak arazoa bidali zion Durangoko Epaitegi Dekanoari, eta horrek txostena eskatu zion lehen auzialdiko epaitegiari. Txostena eskatzeaz gain, prozedura ahalik arinen ebazteko eskatu zion.

• Emaitza

Idazki baten bitartez, Epaitegi Dekanoak hurrengoa jakinarazi zion Arartekoari: lehen auzialdiko epaitegiak egindako txostena ikusita, "*eta prozedura berehalakoan ebatziko dela kontuan harturik, ez dago inolako arrazoirik diziplina-txostena irekitzeko*".

Arartekoak komunikazioa bidali zion erreklamaziogileari. Arartekoak, benaz, ez zuen aukerarik izan, aipatutako txostena ikusteko. Hala ere, magistratuak azalpenak eman zituen, berak egin baitzituen neurriak aldarazteko prozeduraren izapideak. Itxuraz bederen, azalpen horiek egokiak ziren. Nolanahi den ere, Arartekoak erreklamaziogileari adierazi zion berak gai horretan zuen ikuspuntua: epai-organoak jarduera arduragabea ez izateak ez du esan nahi prozeduraren izapideak egiteko orduan atzerapenik izan ez denik; hori dela medio, erreklamaziogileak kalteak izan baditu, erreklamazioa egin dezake Justizia Ministerioan, erreklamaziogileak berak kexan adierazi izan duenez.

# 9. INGURUMENA

## 9.1. SARRERA

2000ko ekitaldian, 83 kexa jaso dira arlo horri dagokionez; hau da jasotako kexa guztien %8,9.

Bestalde, honela bana ditzakegu ukituriko administrazioak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ....... 4
- Foru Administrazioa ........................................................ 2
- Toki Administrazioa ........................................................ 79

Kexen edukiari dagokionez, honela sailka ditzakegu:

- Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak .............................. 63
- Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak ............................. 11
- Hondakinak eta isurketak ................................................ 3
- Naturgune babestuak. Landaredia eta faunaren babesa ........ 2
- Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk ....................... 2
- Lurzoru urbanizaezinean sailkaturiko jarduerak .................. 1
- Administrazioaren jardunbidea eta administrazio prozedura .. 1

Aurten ere, ingurumen arloko kexa gehienek aipaturiko jarduera sailkatuek sorrarazten dituzten zarata, usain eta kearen aipu egiten dute. Gehienbat, jarduera horiek guztiak egoitza-lurzoru hiritarrean garatzen dira eta udal baimenen araubideari men egin behar diote.

Sailkaturiko jardueren lizentziak jardun ahal izateko lizentzia ezagunak dira; izan ere, lizentziak ematen dituen administrazioak etengabe artatu behar ditu jarduerak, behin-behinean itxi artean, jarduera horiek ingurumenari eragiteko arrisku handia baitago.

Ostalaritzako establezimenduen jardunbideak sorrarazitako eragozpenak izan dira gatazkatsuenak. Kexa horietan, establezimenduen jarduerek eragindako zaratak salatu dira, lokalak ez daudelako behar bezala hosgabeturik zarata saihesteko, edo, potentzia mugatzaileak edo haietan jarritako ainguraketa sistemak manipulaturik, musika ekipoak neurriz gaindi erabiltzen direlako.

Halaber, salaketa asko aurkeztu dira aire girotuko aparatuek sorrarazitako arazoen inguruan, baita lokalak egurasteko eta kea nahiz usainak kanporatzeko sistemen gainean ere, batez ere jatetxeetakoei dagokienez.

Erakunde honek askotan adierazi du udal askok ez diotela behar bezalako garrantzirik ematen establezimendu publikoak ikuskatu eta artatzeko eginkizunari, ez diote behar bezalako arretarik eskaintzen eta, sarritan, ez dute baliatzen kudeaketa egokia bermatzeko beste material eta giza baliabiderik.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 61.2 artikuluak dioenari jarraiki, agindu bidez eta udalak irekitzeko baimena eman baino lehen, udal teknikariek ikuskapen bisita egin behar dute, instalazioa onartu den proiektuaren arabera eta Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak edota foru organo eskudunak ezarritako zuzentze-neurrien arabera eginda dagoela egiaztatu ondoren.

Prozeduraren aldi horretan, udal agintariek lokal horietako aireko zarata saihesteko soinu-isolamendua neurtu behar dute, hosgabetze askieza duten establezimenduak jarduten hasi ez eta ondoko auzokideei sortu ahal dizkieten eragozpenak ekiditeko. Hala ere, oso udal gutxik egiten dituzte aginduzko soinu-neurketa horiek.

Era berean, aipatu dugu urte hauetan guztietan ez dela lan erraza izan establezimendu batzuen jokaera begiratzea: hasiera batean, lokalaren hosgabetzea egokia izanik ere, ondoko etxebizitzetara zabaltzen diren zarata-eragozpenak sorrarazten dituzte. Esan gabe doa kasu gehienetan zaratek musika-ekipoekin zerikusia dutela, eta, beraz, aparatu horiek erabiltzen dituzten pertsonen jarrerarekin. Hori dela eta, salatzeko den ekintza gertatzen denean, ukituriko auzokideek udal agintariei hots egin behar diete, ikuskapen bisita une horretan bertan egiteko.

Herritar askok eta askok Arartekorenera jo dute Udaltzaingoak beraien kexei erantzuten ez diela salatzeko. Era berean, Ertzaintzarekin harremanetan jarrita, bertatik esaten diete ikuskapen horiek udal eskumenekoak direla, eta, beraz, horiek ezin dutela eskurik hartu horretan.

1996ko txostenean, Ararteko erakundeak irizpen orokorra eman zuen auzi honen inguruan. Irizpenak honako izenburua zuen: “Ostalaritzako saltokietan instalaturiko musika-ekipoek sorrarazitako zarata-kutsadura”. Toki Administrazioari eskatzen diogu jarrera erabakigarria har dezala lehenbailehen, eta etengabeko ahalegina egin dezala arazo horiek konpontze aldera, zuzen-zuzenean eragiten baitiete herritarren bizitza-kalitateari; baita ikuskapen eta artapena egiteko behar diren bitarteko guztiak eskuratu ere egin ditzala, indarrean dagoen legeria betetzearren.

Egun, esan dezakegu urrats laburra egin dugula arlo horretan, eta, ondorioz, jende askori ukatzen zaiela ingurugiro egoki eta osasungarriaz gozatzea. Biziki kezkagarria da ostalaritzako establezimenduek sorrarazten dituzten arazoei aurre egiteko Euskadiko udalek ageri duten ezintasuna.

Jarduera horiei dagokienez, nabarmendu behar dira, gure aburuz, udal agintarien artapen eta jarraipen ezaren zioz, txoko eta gastronomia elkarteek batzuetan sorrarazten dituzten arazoak. “Txoko eta gastronomia elkarteen jardunbidea jagon eta artatzeko eginkizunak nola bete udal zerbitzuek” izenburua duen irizpen orokorrak lokal zehatz horiek eragindako arazoak jorratzen ditu. Bada, jendearentzat beti zabalik egon ez arren, bertako instalazioek baldintza tekniko batzuk bete behar dituzte, hala nola, isolamendu edo keak kanporatzeari loturikoak, lokal horietatik hurbil bizi diren norbanakoek kalitateko inguruneaz gozatzeko eskubidea bermatzekotan.

*Motocross* eta *skate* pistek sorrarazten duten ingurumen-eragina ere salatu da maiz erakunde honen aurrean.

Beste alde batetik, oso esanguratsuak izan dira industri jarduerek eragindako aireko poluzio eta zarata-kutsaduraren gaineko kexak. Horiei buruzko espedienteak bideratzean, konturatu gara udal txiki batzuek berebiziko ahaleginak egiten dituztela kutsagarri izan daitezkeen jarduera horiek legeztatzeko, eta, horrela, indarrean dagoen araudi juridikoak ezarritako kutsadura-mugen balioetara egokitzeko; arazo horretan, kontuan hartu behar da jarduera horiek gehienak hainbat hamarkadatan ibili direla eta garrantzi-garrantzizkoak direla udalerriaren ekonomiari eusteko.

Halaber, auzokideen elkarteek zenbait salaketa egin dituzte proiektu batzuen aurka, hala nola, ziklo konbinatuko zentral termikoen aurka edo Gasteizko Erdi Aroko hirigunean hiri hondakin solidoak biltzeko planta pneumatikoaren aurka. Galdapen

horien aurrean, Ararteko erakundea eratu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak ezartzen duenarekin bat, erakunde honi dagokio ikertzea proiektu horiek betetzen dituzten aplikagarri den legeriak ezartzen dituen arauak, bai baimenen araubideari dagokion arloan, bai egoera bakoitzak dituen hirigintza inguruabarrei dagokien arloan.

## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Egoitza lurzoruan sailkaturiko jarduerak

*⇒ Legez kanpoko tailer-jarduerak eragindako zarata (953/1999)*

• Erreklamazioa

Itsasondoko bizilagun baten arabera, bere higiezinaren azpian baimenik gabeko tailer-jarduera zebilen, eta zarata-eragozpen larriak sortzen zituen. Halaber, bizilagun horrek adierazi zuen Udalaren erabaki batek agintzen zuela, besteak beste, berehalakoan jarduera bertan behera uzteko, baina, instalazioaren jabeak erabakia betetzeko apea amaiturik, erabakiak ez zuela indarrik izan.

• Azterketa

Udal agintariek azaldu ziguten erabakia ez zela bete hainbat arrazoi direla tarteko: jardueraren titularraren familia egoera; ezin izan zen erabaki lokalean jarritako makinek tailerraren ondoko auzokideei eragozpenik egiten zienentz; eskulangintzako jarduera izan eta jabeak legeztatzeko tramiteak hasita zeuzkan; eta, azkenik, jardueraren titularrak instalazioa salatu zuten pertsonekin izan zezakeen erreakzioaren beldur zirelako.

Udalaren txostenaren edukia ikusirik, erakunde honek egokitzat jo zuen honako irizpideak helaraztea udal agintariei:

"Toki Korporazioen Araubidearen 1. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, udalek administratuen jardueran esku hartu ahal izango dute, polizia eginkizunak beterik, herritarren lasaitasuna, segurtasuna, osasuna edo moralitatea larriki nahasi edo larriki nahasteko arriskua egonez gero, aurreko guztiak leheneratu edo jagoteko xedez.

*Halaber, araudi horren 22. artikuluak dioenari jarraiki, udal baimena eskatu behar da derrigor jarduera batean aritzeko.*

*Esku artean darabilgun auzi honetan, lokalaren ondoko bizilagun batek balizko eragozpenak salatu zituen udal horren aurrean, eta salaketak eragina izan zuen lokal horretako jardueran.*

*Udalak ezin izan zuen frogatu instalazio horrek eragiten zuen zarata-maila arauz ezarritako soinu-mailatik gorakoa zenik. Nolanahi ere, ikuskapenari esker eskulangintzako jarduera bazela egiaztatu zenez gero, udal agintariek 1999ko urtarrilaren 5ean agindu zuten baimenik gabeko jarduera hori bertan behera uztea, eta titularrari ohartarazi zioten lokala itxiaraziko zela erabakia bete ezean, baina garaia zenean hasitako tramiteak berriro bidera zitzakeela jabeak jarduera legeztatzeko.*

*Udal horrek emandako datuen arabera, derragun orain arte ez duela etenik izan jarduerak, eta titularrak ez duela aurkeztu proiektu teknikoa hura legeztatzeko. Beste alde batetik, egin den soinu neurketa bakarrean ateratako emaitza Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritako baliotik gorakoa ez bada ere, ez dakigu zer-nolako aireko zarataren kontrako hosgabetzea duen lokalak hurreko etxebizitza ez kaltetzeko, eta beraz, ez dakigu zein soinu-iturri erabil dezakeen jarduerak, eraikin berean bizi diren norbanakoei zarata-eragozpenik eragin gabe."*

Goian esandakoetan oinarri harturik, Arartekok honako irizpen hau helarazi zion Itsasondoko Udalari:

*"Itsasondoko (...) etxearen azpian dabilen jarduera legez kanpo egiten dela egiaztaturik, udalari eskatzen diogu, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 65. artikuluak dioena bete dezala. Ondore horietarako, honako hau xedatzen du legeak:*

*"Dagozkion zehapenen kaltetan gabe, alkate jaunak/andreak jakiten badu jarduera bat baimenik gabe dabilela, honako hauek egingo ditu:*

*a) Jarduera legeztatzerik badago, titularrari galdatuko dio egoera arteztu dezala, eta hori egiteko sei hilabeteko epea emango dio gehienez (behar bezala bidezkoturiko egoeretan izan ezean), eta jarduerari amaiera emanaraz diezaioke, hori bidezkoa bada, interesdunari entzun ondoren.*

*b) Jarduera legeztatzerik ez badago, indarrean dagoen arloko araudia edo dagozkion udal ordenantzak ezin bete dituelako, amaiera eman beharko zaio, interesdunari entzun ondoren".*

• Emaitza

Itsasondoko Udalak aintzat hartu zuen Arartekoren irizpena, eta titularrari galdatu zion jarduera legeztatu zezan, ezin luzatuzko sei hilabeteko aldian.

⇒ *Donostiako alde zaharreko bizilagunak soinu-kutsadura dela eta kexu ziren (1132/1999)*

• Erreklamazioa

Donostiako alde zaharreko bizilagunek, auzokideen elkarte gisan, erakunde honen aurrean salatu zuten Donostiako Udalak ustez ez zituela betetzen "zarata arloan indarrean dauden araudiak". Kexa horretan, auzokideek adierazi zuten izugarri ugaritu zirela azken urtean gaueko zaratari loturiko jarduerak, bai ostalaritzako jarduerari dagokionez, bai alde zaharrean egiten ziren ekitaldiei dagokienez.

• Azterketa

Bizilagunek aurkezturiko salaketen ostean, Donostiako Udalak egin zituen jarduerei, edo, hala badagokio, arazoa konpontzeko erabaki zituen jarraibideei buruzko argibideak eskatu zion erakunde honek alkatetzari.

Eskaerari erantzuteko, Donostiako Udaleko Hirigintza Araubide eta Ingurumen zinegotzi-ordezkari andreak jakinarazi zigun sail horrek ondoko jarduera hauek proposatu zituela:

*"- Ikuskizun publiko eta jolas-jarduerak egiten diren lokal eta instalazioen ikuskapen eta egiaztapenei buruzko plan orokorra onartzen duen abuztuaren 31ko 216/1998 Dekretua betetzeko, ikuskapena egingo da lokal horietan guztietan, baina lehenbizi alde zaharrean daudenetan.*
*- Establezimendu publiko eta jolas-jarduerak kokatzeko Udal Ordenantza Arautzailea aldaraziko da, Donostiako alde zaharra eremu ase sailkatzeko xedez. Horrek honako ondorio hauek ekarriko ditu:*
*•Alde horretan, honako hauek bete beharko dute ordenantza: jatetxeak; sagardotegiak; self-service direlakoak; gastronomia elkarteak, kultur eta jolas elkarteak; jolas-aretoak, bolatokiak eta bingoak; kruasantegiak; izozkitegi eta txokolategiak, eta abar.*
*•Elikagaien, edarien, ogitartekoen edo plater prestatuen salmentan jarduten duten merkataritza-establezimenduei jarduera baimena emango zaie 8etatik 22etarako ordutegian zabalik egoten badira. Bestelako ordutegirik nahi duten lokalek distantzia-araubideari men egingo diote.*
*•Ez dira aplikatuko lokalak handitu edo zatitzeko, edo jarduera aldatzeko aukera ematen duten ordenantzaren aginduak.*

*- Ingurumen arloko Ordenantzetan, zarata eta dardarak ateratzeari buruzko ordenantza bideratu eta onartuko da lehentasunez, ingurugiroaren kalitatea hobetzeko helburuz.*
*- Establezimendu publikoak ixteko ordutegia Gabonetan, Santo Tomas egunetan, Urtezahar egunean eta Erregeen bezperan luzatuko da.*
*Halaber, adierazi nahi dizut Ikuskizunen eta Turismo Bulegoak, alde zaharreko jaiak izugarri ugaritu direla eta, haiek murrizteko plana idatzi duela, eta guztizko kopurua 8-10 bitarteko jaiegun kopuruan ezarri duela, tradizioz ospatu diren jaiei begira."*(sic)

Aldi berean, udal agintaritzak alkatetzak berak prestatutako lan agiri bat igorri zigun. Bertan hiriko alde zaharreko egoeraren berri ematen zen eta hainbat irtenbide planteatzen ziren hiriko gune horretan bat egiten duten interes desberdinen arteko gatazkak apaltzeko. Azterketa horretan ageri da zeintzuk diren hain burrunba handiaren eragileak: edariak lokaletik kanpora zerbitzatzea, zarama biltzeko ordutegia, terrazadun establezimenduak, kalez kaleko musika, lokalak intsonorizatuta ez egotea, ireki eta ixteko ordutegiak ez betetzea, portaera bidegabeak, zama lanak, gune honetako plaza eta kaleetan izaten diren jendaurreko ikuskizunak eta abar.

Arartekok alkatetzak egindako azterketa eta bertan proposaturiko jarduera neurriak eman zituen ontzat, bai eta Hirigintza Diziplina Ordezkaritzak egindakoak ere; horrela, ulertu zuen horrek guztiak lagundu behar zuela ingurumenaren aldetik eremu honetako auzokideek jasan behar dituzten kalteak apaltzen.

Edozein kasutan ere, erreklamazio egileek adierazi zuten berehalako irtenbideak bilatu behar zitzaizkiola ostalaritzako jarduerek sortutako zaraten ondorioz etengabe jasan beharreko traba eta kalteei; izan ere, lokalak behar bezala intsonorizaturik ez egoteaz gain, musika ekipoetan ezarritako potentzia mugatzaileak manipulatzen ziren, lokaletako ateak zabalik egoten ziren edo edariak lokaletik kanpo kontsumitzea baimentzen da abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan ezarritako ordutegia gaindituz; izan ere, dekretu horrek EAEko ikuskizun publiko eta aisialdi jardueren ordutegiak zehazten dira.

Agerian jarri nahi zuten beharrezkoa zela, batetik, udal agintaritzak gai honetan zeukan erantzukizuna berehala hartzea bere gain, eta, bestetik, antolamendu juridikoak bere esku jartzen zituen neurriak ezartzea, betiere establezimendu hauetako titularrei indarreko arautegia betetzea eskatzeko, bai errespetatu beharreko zatara mailen mugari bai eta jarduera hauek ireki eta zabaltzeko ordutegiei ere zegokienez.

Halaber, adierazi nahi zuten udalak ez ziela erantzunik ematen auzokideek gaueko ordutegian egiten zituzten salaketei, azaldutako irregulartasun egoerak antzeman eta pairatu behar izaten zituzten momentuan.

Hori zela eta, erakunde honek egokitzat jo zuen ohar horiek udal korporazioari igortzea, ondorengo hausnarketa hauekin batera:

Sailkatutako jarduera lizentziak funtzionamendu lizentzien multzokoak dira; izan ere, horiek men egiten diete baimena ematen duen administrazioak etengabe eta itxi arte kontrolatu beharreko instalazioei, arrisku handia baitago horiek ingurugiroaren aldetiko kalteak sortaraz ditzaten.

Horren esan nahi du administrazioak baduela jarduerok eragindako trabei erantzuna emateko beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzeko ahalmena; gainera, neurri horiek berrikusi eta gaurkotu ditzake, baldin eta funtzionamendu egokia bermatzeko eraginkorrak ez badira.

Arartekok behin eta berriz adierazi du udalek, indarreko legeriarekin bat, euren gain hartu behar dutela sailkatutako jardueren funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola udalen nahitaezko prestazioaren beste zerbitzu bat besterik ez dela; izan ere, ukitutako herritarrentzat zeharo garrantzitsua da horiek bideratzea, euren bizi kalitateari nabarmen eragiten diotelako.

Ildo honi jarraituz, herritarrek udalari eskatzen diote jarduera hauen kontrol eta jarraipenerako beharrezko ikuskapen teknikoei aurre egiteko beharrezko neurriak har ditzala. Eskakizun horiek egin ziren irregulartasunak ustez gertatzen ari ziren momentuan.

Kasu honen inguruan, beraz, Donostiako Udalari eskatu genion Alde Zaharreko auzokideek ostalaritzako jardueren funtzionamendu desegokiaren ondorioz jasan behar dituzten zatarrak direla-eta egindako salaketei gaur egun erantzuteko hartzen dituen kontrol neurrien berri emateko, bereziki gaueko ordutegian.

Eskaera horri erantzunez, toki erakundeak honako udal txosten hau igorri zigun:

*“Planteaturiko lehenengo gaiari buruz udalak hartu dituen neurri zehatzei dagokienez, zehaztu beharra dago, ukitutako auzokideek eskatuta egiten diren eta esku-hartze zehatzak eragiten dituzten egiaztapenez gain, udal honek ingeniaritza enpresa bati (LAECOR, S.L.) eman dio Alde Zaharrean musika ekipoak erabiltzen dituzten ostalaritza lokal ia guztiak (zehatzago 64) ikuskatzeko zeregina, betiere lokalek duten soinu iturrien, soinu isolamenduen eta gai akustikoari buruzko gainerako neurri zuzentzaileen kontrola gauza dezaten, besteak beste.*

*Beste alde batetik, udalbatzak (...) data duen egunean onetsi du Establezimendu Publikoen Kokapen eta Aisialdiko Jarduerari buruzko Ordenantza aldaraztea; horrela, Alde Zaharra betetako gunetzat hartzen da eta, besteak beste, debekatzen du lokalak, batez ere ohiko tabernak disko-taberna bihurtzea; hori dela eta, hemendik aurrera ezin izango da musika instalaziorik duen jarduera gehiagorik abian jarri.*

*Bigarren arazoari, hau da, auzotik zehar ibiltzen diren pertsonek sortarazitako zarata kontrolatzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago zeregin horrek zailtasun handiak dakartzala; izan ere, erakunde horrek 296/97 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera zehatzeko egindako proposamenak ez du arazoa konpontzen besterik gabe. Kontuan hartu behar da kalean sortzen den zarata ezin zaiela establezimendu baten inguruan zerbait dastatzen ari diren pertsonei huts-hutsean egotzi, auzo horretatik etengabe paseoan dabiltzan pertsonek ere zarata handia sortzen baitute eta, jakina denez, ez duten urratzen Ararteko erakundeak aipatzen duen xedapena.*

*Agerikoa da hiritarren portaerari lotutako arazo baten aurrean gaudela, eta hori ez dagokiola huts-hutsean auzo zehatz edo hiri honi, baizik eta gizarte ingurune guztiari; hortaz, toki erakunde batek zailtasun handiak izaten ditu arazo mota hauek zuzentzeko. Horrela, ez da ezagutzen udalen bakar batek ere arazo honi irtenbidea biltzeko martxan jarritako inolako politikarik"* (sic).

• Emaitza

Edozein kasutan ere, Ararteko erakundeak uste izan zuen ingeniaritza enpresak egin beharreko egiaztapenak erabakigarriak izango zirela Donostiako Alde Zaharreko ostalaritzako establezimenduek legeria betetzen zuten ala ez jakiteko. Hori zela eta, egindako gestioen berri eman zien interesatuei, era berean, kexa espediente hau itxi eta artxibatuko zela jakinaraziz.

Guztiarekin ere, erakunde honek abian jarritako jardueren berri eman zien; izan ere, ugari izan dira ostalaritzako establezimendu kopuru handia dagoen guneetan bizi diren pertsonek jasan behar izaten dituzten arazoei buruzko kexak.

Horrelako kasuetan, planteatutako arazoaren jarraipen pertsonalizatutik abiatuta, sarritan administrazioaren erantzun egokia lortu da eta beharrezko neurriak hartu dira arazoari erantzuna emateko.

## B) **Ingurumenaren bestelako arazoak**

⇒ *Legeztatzeko tramitazioan dagoen jarduera batek sortutako egurats eta zarata kutsadura (2072/1998)*

• Erreklamazioa

Billabonako herritar batek salatu zuen udalerriko biztanleek jasan beharreko egurats eta zarata kutsadura, Zizurkileko udal mugartean dagoen "Oria S.A." enpresak abian jarritako jardueraren ondorioz.

• Azterketa

Udal agintaritzak jakinarazi zigun jarduera legeztatzeko tramiteak hasiak zirela eta Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak neurri zuzentzaileak ezarri eta kalifikatzeko arauzko txostena egina zuela. Edozein modutan ere, era berean jakinarazi zigun neurri horiek hartzea nahiko korapilatsua suertatzen ari zela; beraz, horiek betetzen ziren ala ez egiaztatzeko, jarraipen eta kontrol zereginak abian jartzea agindu zuen.

Udalak eman zituen azalpenak ez ziren nahikoak izan, hasitako legeztatze prozeduran Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko 1961eko Araudian jarduera lizentziak tramitatzeko ezarritako baldintzak eta tramiteak ez zirela betetzen iradokitzen zutelako. Horrela, udal agintaritzak, kalifikazio txosten hori jaso eta gero, ez zuen beharrezko udal lizentzia eman; izan ere, kalifikazio txostena enpresaren titularrari igorri zion, horren berri eman eta, hala bazegokion, bertan ezarritako neurri zuzentzaileak hartzeari ekin ziezaion.

Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko 1961eko Araudiaren 33. artikuluak zehazten du udal agintaritzak jarduera edo instalazio lizentzia eman behar duela, behin organo kalifikatzaileak (kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailburuordetza) udalari espedientea beharrezko kalifikazioarekin eta neurri zuzentzaileen ezarpenarekin itzuli eta gero; horretarako baldintza, hala ere, neurri horiek betetzea izango da. Kontuan hartu beharra dago neurri zuzentzaileak ezartzea udal agintaritzari ere badagokiola, gorago aipatutako araudiaren 7. artikuluak ezartzen duen bezala.

Gainera, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudiaren 34. artikuluari jarraituz, udalaren zerbitzu teknikoek egiaztapenerako beharrezko bisita egin behar dute, eta xede horretarako baliabide material edo pertsonalik ez badute, egiaztapen hori eskatu behar diote Ingurugiro Sailburuordetzari.

Egindako ikuskapenean jarduera ez zaiela neurri zuzentzaileei egokitzen egiaztatzen bada, udal agintaritzak jardueraren titularrari eskatu beharko dio epe zehatz batean akatsak zuzen ditzan, betiere Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudiaren 36. eta 37. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Azkenik, behin instalazioak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen dituela egiaztatu eta gero, alkateak irekiera lizentzia eman ahal izango du.

Hori guztia dela eta, arestian aipatutako araudian ezarritako arauek jarduera hauek ingurumenaren aldetiko eraginak jasatea saihesteko helburua dutela kontuan hartu eta legezkotasun printzipioaren arabera botere publikoen jarduera guztien berri eman behar dela gogoan izanik, Ararteko erakundeak gomendio hau bidali zion Zizurkileko udalari: *"Jardueraren titularitateak egindako legeztatze eskaeraren ondotik hasitako udal espedienteak (...) Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudiak ezarritako prozedurari jarraitu beharko dio".*

• Emaitza

Zizurkileko Udalak erantzun zigun enpresak obra zuzendaritzako egiaztagiria aurkezteko zain zegoela eta bertan adierazi behar zela instalazioak aurkeztutako jardueraren proiektu orokorrari egokitu eta ezarritako neurri zuzentzaileak jarriak zirela; horretara, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak jardueraren arauzko ikuskapen teknikoa egin ahal izango zuten.

Orobat, toki erakundeak enpresaren arduradunek eskatutako udal jardueraren espedientea tramitatzen jarraitzeko borondatea azaldu zuen, eta, gainera, bere gain hartzen zuen jardueraren titularrei ingurumenaren aldetiko eraginak saihesteko beharrezko neurri teknikoak behin-behinean hartzeko eskaera, batik bat enpresak sortutako zaratak gutxitzen lagunduko zuten neurriak.

Argudio horietan oinarrituz, erakunde honek egindako gomendio onartutzat eman zen.

## C) **Hondakinak eta isurkiak**

⇒ *Asuako ibaiaren osasun eta ingurumen hondamenari darion egoera osasungaitza (1027/1999)*

• Erreklamazioa

Erandioko Asua auzoko herritarrek Asuako errekaren osasun eta ingurumen hondamenaren ondorioz jasan beharreko egoera osasungaitza salatu zuten, batez ere Asua-Sondikako errepidearekin bat egiten duen lekuan. Gainera, egoera hau larriagotu da Txorierriko kolektorea 1994an instalatu zenez geroztik.

• Azterketa

Auzoan bizi ziren pertsonek eskatuta, Arartekok bisitatu zuen Asua ibaiak egoerarik txarrena duen lekua eta egiztatu zuen auzotarren kexak erabat arrazoituta zeudela.

Errekak Asua auzotik goragoko metro batzuetan Txorierriko haraneko ur beltz guztiak; horrela, Bizkaiko Ur Partzuergoak puntu horretan jaso eta gero, errekara botatzen dira arazi gabe, aplikatzekoa den arautegia urratuz. Usainak jasanezin egiten zaizkie herritarrei, eta, gainera, saguak ugariak dira ibaiaren bi ertzetan. Egoera hau 1994az geroztik pairatu behar izan dute; izan ere, urte horretan instalatu zen Txorierriko kolektorea. Gainera, ibaiaren hondoko lokatzetan metal toxikoak daude, iraganean kontrolik gabe botatzen ziren industri isurkien ondorioz.

Ur Partzuergoaren Osoko Saneamenduari buruzko Planean ezarritakoarekin bat, kolektore hori behin-behinean instalatu zen; izan ere, Saneamenduari buruzko Planaren bigarren fasean aurreikusita dago kolektorea Lamiakon instalaturiko ponpaketa zentroari lotzea; handik hondakin urak Galindoko araztegira eramango dira. Horrela, aurreikusita dago obrak 2005erako amaitzea eta errekan horren emaitzak 2003. urtetik aurrera igar litezke, proiektutako obraren arabera.

Erakundeek auzotarrei adierazitako epeak luzeegiak iruditu zitzaizkien. Hori dela eta, kexa jaso ostean, inplikaturiko administrazioetan beharrezko gestioei ekin zitzaien ahalik eta irtenbiderik berehalakoena aurkitzeko.

Gestio hauen ondorioz, Arartekok ondoko konpromisoak lortu ditu:

- *Bilbao-Bizkaiko Ur Partzuergoak programaturiko epeak aurreratzeko konpromisoa hartu du. Horrela, Arriaga-Sangroniz tarteko kolektorearen azpitartearen eraikuntza lehenago ahal izango da (erregistroko PR 19 eta PR 13 putzuen artean); gainera, horretarako lurrak hemendik gutxira erabili ahal izango dira. Hondakin urak errekara botako lirateke ponpaketa sistema eta behin-behineko hodi baten bitartez, "Prisma, S.A." enpresaren inguruan. Obra hauen kostua 300 milioikoa izango da eta obra horietariko gehienak behin betiko instalaziotzat hartuko dira; ponpaketa besterik ez da behin-behinekoa izango.*

Irtenbide hau ezartzeko epea 14 hilabetekoa izango da (proiektua egiteko 3 hilabete, lizitaziorako 4 hilabete eta eraikuntzarako 7 hilabete); horrela bada, indarrean egongo da 2001eko udaberrian.

Hemendik aurrera, beraz, 2. fasea egiteko egongo litzateke, hau da, Lamiakoko ponpaketarekin lortzen duena eta horren bitartez Galindoko Araztegiarekin. Hori guztia 2003. urterako izango da.
- Erandioko Udalak jakinarazi digu Asuako ingurua saguak hiltzeko kanpaina trinkoetan eta arruntetan sartzen dutela, eta, inguru horretan aplikatu ohi den tratamendua trinkoagoa dela udalerriaren gainerako guneetan baino, betiere gune horren berezitasunak direla eta.
- Portuko agintaritzak, bere aldetik, Bilboko itsasadarraren ingurumena berreskuratzeko proiektuaren burutzapen obrak onetsi eta horiei dagoeneko ekin die kolektorea instalatuta dagoen gunean. Horrela bada; obren barruan, Asua erreka bere onera ekartzeko zeregina dago, betiere itsas-lehorreko jabari publikoaren guneari dagokionez.
*Jarduera hau oso garrantzitsua izango da ibaia bere onera ekartzeko; izan ere, azaleren egonkortasuna lortu, sedimentuak zein hondoak garbitu eta ingurumena lehenera ekartzeko helburua dago. Horretarako, ingurumenaren aldetik egonkorra den egoera berrezartzea ahalbideratzen duten baldintzak jarri dira abian eta modu horretara ibarretako balio estetikoak zein ikusmen eta ingurumenaren arlokoak ez ezik ibaiaren sistema osoa ere hobetu ahal izango da.*

• Emaitza

Ondorio modura, aipatzekoa da hondakin uren isurkia herritarrak bizi diren gunetik beherago aldatzeak, lokatzak kentzeak eta portuko agintaritzak ibaiaren hondoaren gaitasun hidraulikoa hobetzeak lagunduko dutela Sangroniz guneko ingurumenaren egoera hobetzen, harik eta kolektorea Lamiakoko sistemarekin martxan jarri arte. Une honetan Asua ibaian botatako isurkien arazoa behin betiko konpondu dela esan daiteke.

# 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

## 10.1. SARRERA

Herrilanen eta zerbitzu publikoen barruan, erakunde honek 110 kexa tramitatu ditu, eta horrek aurkezturiko erreklamazio guztien %11,79 egiten du.

Eragindako administrazioen arabera, :

- Euskadiko Administrazio Nagusia (Eusko Jaurlaritza .......... 11
- Foru Administrazioa ........................................................ 20
- Toki Administrazioa ........................................................ 89

Azpiarloen arabera:

- Tokiko zerbitzu publikoak .............................................. 31
- Kontratazio araub., ondarea eta adm. erantzuna ............... 21
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .................................................................... 14
- Garraioak.................................................................... 14
- Lanen burutzapena ........................................................ 8
- Derrigorrezko desjabetzapena ......................................... 6
- Baserriko bideak .......................................................... 5
- Obra proiektuak ........................................................... 5
- Beste zerbitzu publiko batzuk .......................................... 4
- Eskubideak eta askatasunak ........................................... 2

Arlo honetako kexarik gehienak proiektuak egiteari eta gauzatzeari buruzkoak dira, baita herri zerbitzuak emateko moduari buruzkoak ere (batik bat, garraio zerbitzuan eta udalerri mailako zerbitzuetan), eta herri administrazioen ondare erantzukizuna gauzatzearen ondoriozko arazoei buruzkoak ere bai.

Herrilan proiektuak egitearen eta betearaztearen eraginez, erakunde honek zenbait aldiz esku hartu behar izan du, batik bat errepideak egitearen edo hobetzearen ondorioz edo proiektu berriak trazatzearen eraginez, esate baterako, Bilboko Tranbia. Erakunde honen esku hartzeko dituen aukerak kontuan hartuz, ezarritako prozeduraren alderdi formalen kontrola baino ez dugu planteatu (organoaren eskumena, jendaurreko informazioa, inguru gaineko eraginaren azterketa, manuzko txostenak edo baimenak, etab.). Horri dagokionez, albo batera gelditzen da Administrazioak aukera guztien artean interes orokorrari mesederik handiena egiten diona hautatzeko duen zuhurtziarakotasun handia. Nolanahi ere, aipagarria da beharrezkoa dela Administrazioak informazio egokia eta osoa ematea, herrilanei eta administrariek lortu nahi duten emaitzari buruz. Era berean, hiritarren partehartze egokia ere ezinbestekoa da; partehartze hori, batez ere, auzo edo ukitu elkarteen bitartez egingo da, eta horiek esku hartuko dute egon daitezkeen gatazkak saihesteko proiektuak egiteko orduan. Halaber, Arartekoak beti ere elkarrizketa sustatu du, jarrera guztien hurbiltzea eragiten duen tresnatzat; azken batean, halako jarduerak eragiten dituzten aurreiritziak murriztu egin behar dira.

Garraioari dagokionez, arazo batzuk sortu dira; izan ere, erabiltzaileek ez dute informaziorik garraioan diharduten enpresek eskainitako garraio-tituluen ezaugarriei buruz, edo ez dituzte halako tituluak ezagutzen.

Herrilanen burutzapenetik eta zerbitzu publikoen erabileratik sortzen den ondare erantzukizunak, beste alde batetik, era guztietako erreklamazioak eragin ditu erakunde honetan. Zerbitzu publikoak emateko orduan kalitate handiagoa egotea eta hiritarrek administrazioen ibilera txarraren ondorioz jasotako kalteen eraginezko ordaina eskatzeko orduan behar duten pentsaera aldaketa kontuan hartuz, atal hau handiagoa da urterik urtera. Erreklamaziogileek aurkitzen duten arazo nagusienetarikoa, bestalde, Administrazioak euren eskabideak tramitatzeko duen geldotasuna da; horri dagokionez, aipagarria da Donostiako Udaletxea, administrazioek ondare erantzukizunaren arloan dituzten prozedurei loturiko Arautegiari buruzko martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritako epea behin eta berriro urratzearen eraginez. Beste alde batetik, kaltearen eta administrazio jardueraren arteko lotura erakusten duten frogak aurkeztu behar izatea arazo nagusia da, ordaina jasotzeko nahia bete ahal izateko. Kalteen jatorriarekin batera (batez ere, bide publikoan egoten diren erortzeak) egoten den berehalakotasunaren eraginez, ezin izaten da behar beste froga aurkeztu, kasuan kasuko erakundeak kaltearen eta zerbitzu publikoaren arteko lotura egiaztatu ahal izateko. Froga hori inondik inora bete ezin den eskakizuna ez izateko, erakunde honek administrazioei gogorarazi egin die kasuan kasuko erakundea zorrotza izan behar dela, erreklamazioa eragin duen gertaerari buruzko frogak lortzeari dagokionez, eta, horretarako, frogaren ofizialtasun printzipioa erabili behar duela. Azkenik, zerbitzuak zeharkako kudeaketaren bidez emateak, batzuetan, defizita eragin du zerbitzu publikoen erabilera txarraren ondoriozko ordaina jasotzeko eskubidea erabiltzeko orduan. Erakunde honek, kexen hautapenaren atalean ikusten denez, azpimarratu egin du zerbitzu publikoaren titularra den administrazioak ebazpena eman behar duela zerbitzu publikoaren ibileraren ondoriozko erantzukizunik egon ala ez egoteari buruz, baita ordainketa egin behar duen erakundeari buruz ere (enpresa edo Administrazioa bera).

Tokiko zerbitzu publikoen artean, aipagarria da hiriko hondakinen bilketa selektiboko zerbitzuak ezarri direla, eta horiek kexa kopuru handia eragin dute. Horien artean, zalantzan jartzen da edukiontzien kokapen egokia, horiexek baitira bilketa sistema horren euskarriak. Kexa horietan desadostasuna dago, eta horren oinarria, lehenengo eta behin, kaltetuek salaturiko informaziorik eza da. Era berean, hondakin solidoen edukiontzietatik dauden behe solairuetan eta lehenengo solairuetan bizi diren pertsonak haserre daude kiratsek eta zaratek eragindako eragozpenen ondorioz. Era berean, zenbait udalerritan, bado plaka iraunkorren titularrek kexak aurkeztu dituzte; izan ere, garabi zerbitzurik ez dagoenez, sarritan garajean duten lekurako edo etxebizitzarako sarbidean beste automobil batzuk daude eta horiek traba egiten diote.

Nitxoak edo panteoiak familiakoen edo gainontzekoen artean duten titulartasunaren tramitazioen ondoriozko arazoetan ere kexak aurkeztu dira, orain ere. Arazo hori azaltzen duten hiritarrek horien jabe direla uste dute. Hala eta guztiz ere, hilerriak zerbitzu publikoko demaniotasunezko ondasunak dira. Hori dela eta, hobiak, nitxoak eta panteoiak okupatzeko, emakida behar da; antolamenduaren arabera, bestalde, emakida hori behin-behinekoa da, nahiz eta gero okupazio hori luzatzeko modukoa izan, izaera iraunkorreko emakidetan eskuraturiko eskubidetzat.

Arazoak sortzen dituen beste gauza bat baserriko bideak mantentzeko zerbitzua ematearena da, batez ere horien titulartasun publikoa edo pribatua argi ez dagoenean; horien etxebizitzara baldintza egokietan iristeko egin behar diren konponketak ere oso arazotsuak dira. Ararteko erakundeak ondasunen inbentario gaurkotuak edukitzeko eskatu die herri administrazioei; bestela, antolamenduak eskainitako ikerketa edo zedarritze ahalmenak erabili beharko dituzte.

## 10.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Eskuragarritasuna**

⇒ *Garraio publikoen eskuragarritasuna (398/2000)*

• Erreklamazioa

Gasteizeko hiri garraioaren udal zerbitzuko (TUVISA) erabiltzaile batek kexa bat azaldu zion Arartekoari; izan ere, berak ikusitakoaren arabera, hiri garraioaren udal zerbitzu horretako zenbait autobusetan ez zegoen lau eserlekuko erreserba adierazita (mugikortasun mugatua duten pertsonentzat), eta Eskuragarritasuna Sustatzeko Legeak erreserba hori eskatzen die garraio zerbitzuei.

• Azterketa

Toki erakunde horrek gabezia hori konpontzeko hartuko zituen neurriei buruzko informazioa eskatu zen.

• Emaitza

Udal enpresa horrek Arartekoari jakinarazitakoaren arabera, gaur egun TUVISA zerbitzuko autobusek ahozko informazio sistema instalatuta dute, ikus-ezintasunak dituzten pertsonei kasuan kasuko geltokien berri emateko; gainera, TUVISAko administrazio batzordeak, 1993. urtean erabakitakoaren arabera, plataforma baxuko autobusak baino ez ziren erabiliko, eta horiek egokiturik daude mugikortasuna mugatua duten pertsonek erabiltzeko, eta gainera leku bat gordeko zen gurpildun bi aulkitarako. Horri dagokionez, aditzera eman zuten autobus guztiek bi eserleku erreserbaturik dituztela, mugikortasun urria duten pertsonentzat; gainera, 2000. ekitaldirako aurrekontu proiektuak partida berezia dauka, autobusetan ikus-informazioko sistema jartzeko, entzumen arazoak dituzten pertsonentzat.

Era berean, TUVISA enpresak adierazitakoaren arabera, mugikortasun mugatuko pertsonentzako eserleku kopuruak Eskuragarritasuna Sustatzeko Legean ezarritako baldintzak betetzen ez zituela egiaztatu ondoren, autobus guztiak lege horretan ezarritakoari egokitzeko asmoa zuen, eta, horretarako, autobus bakoitzean lau eserleku gordeko zituen mugikortasun urriko pertsonentzat.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Errugabetasunaren ustezkotasunari eta zantzuen proba aplikatzeari buruz, zehapen zuzenbide administratiboaren arloan (443/1999)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek hauxe jakinarazi zion Arartekoari: Bilboko Udaletxeak zaborrak uzteko ordutegia urratzearen ondorioz ezarritako zehapena, baita horren eraginezko premiamendu espedientea ere, isuna gauzatzeko erabilitakoa, ordainketa ez baitzen norberak nahita egiteko ezarrita dagoen epean egin.

• Azterketa

Bilboko Udaletxeak bidalitako informaziotik ateratzen denez, zehapen espediente hori honexen ondorioz hasi zen: bide publikoan, horretarako ordutegitik kanpo, horren edukia eta interesatua lotzen zituen elementuren bat zuen zabor-poltsa aurkitzearen ondorioz. Udalbatzaren ustez, hori frogarako elementu nahikoa zen, pertsona horrek poltsa bide publikoan utzi zuela ondorioztatzeko; beraz, zehapen egokia ezarri zioten. Espedientearen tramitazioan ikusi zenez, salaketa pertsona horri berari jakinarazi zioten, baina horrek ez zuen hartu nahiz zehapen ebazpenaren jakinarazpena.

Egin daitezkeen beste ohar batzuen kalterik gabe, gai honetan ikusi den arazoaren azterketaren ostean, honako ondorio hauek atera ziren:

Lehenengo eta behin, zehapen espedientearen tramitazioak errugabetasunaren ustezkotasuna urratu zen (EKaren 24.2 artikuluan ezarrita dago, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137. artikuluan ere jasota dago, administrazioko zehapen araubideari aplikatzeko); izan ere, jasotako frogen arabera (poltsaren barruan interesatuari buruzko informazioa aurkitu izana), ezin da inondik inora ere ondorioztatu zabor poltsa ordutegik kanpo utzi duena zehaturiko pertsona izan denik.

Konstituzio Auzitegiak hasierako ebazpenetatik (Konstituzio Auzitegiak 1982ko apirilaren 1ean emandako Epaia) ezarritakoaren arabera, errugabetasunaren ustezkotasuna oinarrizko eskubidea da, eta botere publiko guztiek errespetatu egin behar dute, edozein ebazpen administratibo edo jurisdikzional hartzen dutenean: "*Errugabetasunaren ustezkotasunak, zalantzarik gabe, salbuespenik gabe arautzen du zehapen antolamenduan, eta beti errespetatu behar da, edozein zehapen jartzen denean (zigor zehapenak, administratiboak edo zergazkoak); izan ere,* ***ius puniendi*** *deritzona bere adierazpen guztietan erabiltzeko, Konstituzioko 24.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, frogak eta kontraesaneko prozedura bete behar dira, bakoitzak bere jarrerak defendatu ahal izateko. (...) Zigor zehapenak ezartzeko (zigorrekoak edo administratiboak), seguru jakin behar dira egotzitako gertaerak, eta horretarako frogak lortu behar dira; gainera, seguru jakin behar da gerta horiekiko erruduntasuna*" (Konstituzio Auzitegiak 1990eko apirilaren 26an emandako Epaia). Epai horretan adierazitakoaren arabera: 1) Zehapena egotzitako jokabidea frogatzen duten egintzetan edo froga-bideetan oinarriturik dago; 2) Frogaren zama salatzaileari dagokio, eta inork ere ez du bere errugabetasuna frogatu beharrik; 3) Egindako frogen emaitzan aurkituriko urritasun guztien ondorioz (erakunde zehatzaileak

libreki baloratu ondoren), absoluzio prozedura sortu behar da; 4) Errugabetasunaren ustezkotasuna gertaeren eta erruduntasunaren alderdi bikoitzean adierazten da.

Errugabetasunaren ustezkotasun printzipioari eta interesatuek bere burua defendatzeko egin beharko zituzten jarduerei dagokienez, eta horrek alegaziorik edo errekurtsorik aurkeztu ez duela ikusita, Bilboko Udaletxearen iritziz, "*bere jokabideari buruzko azalpenik eman ez duenez, Administrazioak ez ditu eduki zalantzan jarritako (aurkezturiko frogaren arabera) errugabetasunaren ustezkotasuna berrezartzeko behar diren tresnak*". Ondorio horri dagokionez, Bilboko Udaletxeari jakitera eman zitzaion zehapen ahalgoa erabiltzean Administrazioak erruztatuaren erruduntasuna frogatu behar duela, eta ez alderantziz (berak bere buruaren errugabetasuna frogatzea). Erruztatuak zehapen prozeduran jarduteko modu bereziari eta hortik atera daitezkeen ondorioei dagokienez, 1992ko Auzitegi Gorenak urriaren 1ean emandako Epaian adierazitakoaren arabera: "*Erruztatuak, jakina, deklaratzeko eta ez deklaratzeko eskubidea dauka, eta inork ezin du bata edo bestea egitera behartu; eta, deklaratzen badu, berak nahi duena deklaratuko du; baina oinarrizko printzipio hori guztiz bateragarria da Auzitegiak egiten duen legebidezko balorazioarekin (deklaratu nahi izatea barne). Ez deklaratuta ere ezin daiteke, gehiagoko barik, gertaerak onartzen dituela edo horietan parte hartu duela ondorioztatu*".

Erakunde honek errugabetasunaren ustezkotasuna urratu izanari buruz atera dituen ondorioak ikusita (zehapena zentzuz ezarri baitzen, lehen aipaturiko frogako elementuetan), Bilboko Udaletxearen ustez, zigor-jarduera ustezkotasunen froga aplikatzean oinarritzen zen. Arartekoak arrazoi horiek ikusita udalbatzari adierazitakoaren arabera, ustezkotasunen froga zigorreko administrazio zuzenbidera aplikatzeak ez dauka adiera bakarreko erantzunik jurisprudentzian. Orain dagoen joera batean ezarritakoaren arabera (Auzitegi Gorenak 1989ko maiatzaren 23an emandako Epaia), "*Administrazio eta zigor eremuan, administrazio urratzeren bat frogatutzat jotzeko ez da bidezkoa zentzuzko frogetara jotzea, erruztatuaren errugabetasunaren ustezkotasunaren aplikazioa Administrazioari ezarrita, horrek salatu eta zigortu egiten baitu; gainera, egotzitako gertaerak egiazkoak direla frogatu behar da (horiek erruztatuari leporatu ahal zaizkio); urratzearen kalifikazioa, bestalde, ez da zehapen administrazioaren zuhurtziarakotasun ahalmena; kalifikazio hori, izan ere, jarduera juridikoa da eta, berori gauzatzeko, egotzitako gertaera urratzetzat ezarritako motaren barruan sartu behar da*". Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak 1988ko abenduaren 5ean emandako epaian ezartzen denez: "*Erruduntasun adierazpenera iristeko, aurre egin behar zaio EKko 24.2 artikuluan ezarritako errugabetasun ustezkotasunari, baita* ***in dubio pro reo*** *printzipioari ere (zigor Legeen aplikazioaren berri ematen duen printzipioa); beraz, salaketa aztarna gutxi batzuetatik sor daitekeen arren, eta horiek salaketa prozedura hasteko nahiko direla kontuan hartuz (...), prozedura horretan frogako elementuak aurkeztu behar dira, halako aztarnak errugabetasuna frogatzeko edo agerian jartzeko*". Jurisprudentziaren sektore horren iritziz, "*zehapen eskubidearen eremuan, ustezkotasun hutsak ez dira nahiko, erruztatua babesten duen errugabetasun ustezkotasuna suntsitzen duen balio-iritzia eratzeko*" (Auzitegi Gorenak 1987ko azaroaren 2an emandako Epaia).

Ustezkotasunen frogaren aplikagarritasuna defendatzen duen beste joera bat ere badago jurisprudentzian (Auzitegi Gorenak 1988ko urriaren 15ean emandako Epaia),

eta bertan esaten denez: "*errugabetasunaren ustezkotasun printzipioa egonda ere, gertaera batzuk frogatutzat eman daitezke, zentzuzko edo bidezko ustezkotasunak eginez gero; baina, horretarako, gertaerak zuzen eta zorrotz frogatu behar dira, lotura zentzuzkoa eta zehatza eginez, zehapen arautegia behar bezala aplikatu ahal izateko*".

Ustezkotasunen froga (zigor araubide administrazioaren eremuan) aplikagarria izan ala ez izateari buruzko zalantza argituz gero, horren inplementaziorako aztertu egin beharko lirateke halako froga-elementu batek prozedurako erruztatuaren errugabetasunaren ustezkotasuna suntsitzeko eskatzen diren baldintzak. Konstituzio Auzitegiak onartu egin du froga hori krimen-prozeduraren eremuan aplikatzeko aukera. Jakina denez, zigor prozedura oinarritzen duten printzipioak administrazioko zigor eremuan aplika daitezke, bi horiek *ius puniendi* deritzonaren adierazpenak baitira. Ustezkotasunen froga legez aplikatzeko eskatzen diren baldintzak, bestalde, honako hauek dira: a) oinarrizko aztarnak edo gertaerak ondo egiaztaturik egotea; b) horien eta ustezko gertaeren artean (erruduntasuna eragin duten gertaerak) lotura logikoa, zehatza eta zuzena egotea; eta c) erabakia hartu behar duen agintariak lotura hori egoteari buruzko arrazoiak ematea, ematen duen ebazpenean.

Auzitegi horrek, 174/1985 Epaian, aztarnaren frogaren definizioa eman zuen: "*halako frogen helburua delituzkoak ez diren gertaera (aztarna) batzuen egiatasuna erakustea da; hala ere, aztarna horietatik ezin da frogatu erruztatuaren partehartzerik, frogaturik eta frogatu gabe dauden gertaeren arteko lotura kausalean eta logikoan oinarrituriko arrazoibidearen bidez*". Era berean, bertan esaten denez, "*aztarna-froga bat guztiz frogaturiko gertaeretan (aztarnak) oinarritu behar da, ezin baita ziurtasunik eraiki zalantzazko aukera hutsetan oinarrituz. Aztarnazko gertaera horietatik, buruz egindakoak eta giza irizpidearen araberakoak diren prozesu arrazoituaren bidez, delituzko gertaerak frogatutzat hartuko ditugu. Frogaturiko gertaerek eurek, batzuetan, aukera ematen dute zenbait ondorio ateratzeko, eta prozesuan horiei buruzko interpretazio desberdinak egoten dira. Auzitegiaren kasuan, horiek guztiak kontuan hartu beharko ditu, eta bat (komenigarriena) hartzearen zergatia azaldu behar du (...), aztarna-frogaren helburua hauxe denean: gehiagoko barik frogatutzat hartzen diren gertaera batzuk, arau juridiko egokiak eta horien baloraziorako zentzuzko irizpideak aplikatzea eragiten duen arrazonamendu juridikoa, baita lorturiko frogak eta horien balorazioan jarraituriko zentzuzko irizpideak ere, halako frogetan berariazko balorazioa ezinbestekoa baita, benetako froga den ala ez jakiteko (aztarnazkoa baino ez bada ere), edo errugabetasunaren ustezkotasuna baliogabetu ezin duen susmo edo aukera multzoa baino ez bada*". Konstituzio Auzitegiak emandako 94/1990 nahiz 24/1997 Epaiak eta Auzitegi Gorenak 1990eko urtarrilaren 31n eta 1991ko azaroaren 14an emandako Epaiak ere horren araberakoak dira.

Azterturiko gaiari buruzko baldintzen inplementazioak (bidalitako espedientea ikusita, eta bestelako froga osagarririk gabe), ikuspegi horretatik, aukera eman zigun zigorturiko pertsonaren errugabetasunaren ustezkotasuna ez zela suntsitu ondorioztatzeko, baita Udaletxearen jarduera antolamendu juridikoaren aurkakoa izan zela ondorioztatzeko ere. Arartekoaren iritziz, ezin daiteke esan zabor poltsa batean pertsona bat horren edukiarekin lotzen duten agiriak aurkitzea aztarnako froga denik,

pertsona horri poltsa hori ordutegitik kanpo utzi izana. Nolanahi ere, zehapen ebazpenean ez dira azaltzen organo eskudunak aurrekoa ondorioztatzeko erabilitako arrazoiak, hau da, ez da loturarik azaldu frogatu den gauzaren (poltsaren barruan agiri jakinak egotea) eta delitugilea agiriotan aipaturiko pertsona izatearen artean.

• Emaitza

Bilboko Udaletxeari ezarritako zehapena atzera botatzeko eta ondorerik gabe uzteko gomendatu zitzaion, baita premiamendu espedientean jasotako jarduerak (isun egokia gauzatzeko jarraituriko espedientea) atzera botatzeko eta ondorerik gabe uzteko ere. Gomendioa onartu egin zuten.

## C) **Beste zerbitzu publiko batzuk**

### ⇒ *Ez dute telebistako seinalerik jasotzen (1068/1999)*

• Erreklamazioa

Bilboko El Peñaskal auzoko auzo-elkarteak kexa bat aurkeztu zuen hauxe salatzeko: 1996ko azarotik ez dute euren etxebizitzetan ondo jasotzen Euskal Telebistako seinalea eta, beraz, ez dituzte ETBko kateak ikusten.

Auzoko horiek diotenez, telebistako seinalea ezarri zenetik, Gainetako errepikagailuaren instalazioek jasan zuten sabotajearen ostean, euren etxebizitzak errepikagailu horren estalduratik kanpo daude.

Halaber, Euskaltel enpresarekin hitz egin zuten, Euskal Telebistako azpiegitura kudeatzen duen enpresarekin, eta horrek ezin zien konpondu arazoa. Behin, euren diotenez, El Peñaskal auzorantz orientaturiko errepikagailua instalatzeko proposatu zieten. Hala eta guztiz ere, proiektu hori ez zen burutu.

• Azterketa

Burutzen ari diren jarduerak zeintzuk diren jakiteko (arazoaren irtenbidea aurkitu ahal izateko), erakunde hau harremanetan jarri zen Euskaltelekin eta, gero, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin; izan ere, telekomunikazio sareetako (irratikoak nahiz telebistakoak) azpiegituren ezarketaren planifikazioa, zehazpena eta eredua azken sail horrek egin behar ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Horri dagokionez, erakunde honi jakitera eman zioten sail hori kudeaketak egiten ari zela Bilboko Udaletxearekin eta dorre errepikagailua kokatzeko erabili nahi ziren lurren titularrarekin.

• Emaitza

Handik gutxira, sustaturiko jardueren berri eman ondoren, Eusko Jaurlaritzako sail horrek hauxe jakinarazi zion erakunde honi: 2000ko otsailaren 28tik Bilboko El Peñaskal auzoko biztanleek Euskal Telebistako bi kateak ikusten zituztela euren etxeetan.

## D) **Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna**

⇒ *Administrazioaren erantzukizuna, herri zerbitzua ematen zuen enpresa batek hiritar bati egindako kalteen ondorioz (2484/1998)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Bilboko Udaletxeak ondare erantzukizuna bere gain ez hartzeari loturiko erreklamazioa egin zuen; izan ere, fuel-olio isuri batean irrist eginda, erori egin zen, eta olio hori udal garbiketa zerbitzuko kamioi batek isuri zuen udalerri horretako kale batean.

Horren ondorioz, ondarezko administrazio erantzukizunaren eraginezko erreklamazioa egin zuen. Udaletxeak ez zuen ebazpenik eman. Irizpena eman zuen, eta bertan azaltzen zenez, toki administrazio horren iritziz, herri administrazioen kontratuei buruzko 13/95 Legeko 98. artikulua aplikatuz, erantzukizun orokorra kontratistarena zen, eta erreklamazioa enpresa horretan egin behar zen. Hala eta guztiz ere, enpresak ahoz esandakoaren arabera, ez zuen kalterik ordaintzeko asmorik.

• Azterketa

Udalaren arrazonamendua jakiteko asmoz, Bilboko Udaletxeari txosten juridikoa eskatu genion, Udaletxe horren erantzukizuna baloratu ahal izateko, Administrazioko kontratistek edo emakidagileek jarduera horretan sorturiko kalteei dagokienez; gainera, herri zerbitzu bat ematearen ondoriozko kalteen eraginezko ordainak ematea bermatzen zuten elementuak adierazteko ere eskatzen zen. Eurek emandako erantzunean ondoko argudioak azaltzen ziren:

• Irizpide orokorra erantzukizuna kontratistari leporatzea da (kaltea Administrazioak ezarritako aginduaren ondoriozkoa denean izan ezik), 1995eko ekainaren 17an Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiko 128.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Irizpide hori berori, beste alde batetik, kontratistaren eta Administrazioaren arteko kontratu-harremana arautzen duen baldintza juridiko-administratiboen pleguan sartzen da.

• Jurisprudentziak zenbait ñabardura egin dizkio printzipio orokor horri, Administrazioaren jarduerarik eza (zerbitzua edo obra kontrolatzeko eta zaintzeko dituen ahalgoen barruan) zigortzearen ikuspegitik. Horrela, Auzitegi Gorenak 1980ko maiatzaren 28an emandako Epaia alegatzen da; bertan, kontratistaren eta Administrazioaren arteko elkartasun printzipioari ñabardura egiten zaio, kalteen erantzukizunari dagokionez.

• Horrela, bere ustez, kasu honetan Udaletxeak arau orokorraren arabera jardun zuen, eta kontratistaren erantzukizuna ere ezartzen zen, modu arretatsuan jardun baitzuen, eta beraz, ezin zitzaion inolako erantzukizunik leporatu, emakidagileek eragindako kalteei zegokienez.

• Azkenik, ez da ezer esaten Udaletxearen berme mekanismoei buruz, kontratistak eragindako kalteen ondoriozko ordaina ordaintzeari dagokionez.

Argudio guztiak aztertuta, Arartekoak ondoko oharrak egin zituen gaiari buruz:

Administrazioko kontratisten edo emakidagileen egintzen ondoriozko erantzukizunaren kasua, planteatu ere, Administrazioaren ondare erantzukizuneko institutuaren eremu juridikoaren barruan planteatu behar da, eta hori Espainiako Konstituzioak berak

ere jasotzen du (106.2 artikulua, hiritarrek herri zerbitzuen ibileran ondoriozko kalteen eraginezko ordainak jasotzeko duten eskubidea). **Konstituzioak ezarritako ondare erantzukizuneko araubidea objektiboa da eta horren emaitzak, berriz, ez dauka inolako loturarik herri zerbitzuek jardutearen edo ez jardutearen ondoriozko erruduntasun edo arduragabekeriarekin**. Horrela, administrazioen erantzukizunak justifikatzeko, hauxe esan behar da: hiritarrak ez dituela zertan jasan administrazio jardueraren ondorio kaltegarriak (jarduera horien helburua, besteak beste, denon interesa izan behar da).

Eskubide hori ezin da mugatu edo ezabatu, herri zerbitzu horiek emateko moduaren arabera. Gau egun, herri zerbitzuak modu askotan ematen dira: kudeaketa zuzenaren bidez, Administrazioko edo erakunde autonomoetako organoen bitartez edo zeharkako kudeaketaren bidez.

Hala eta guztiz ere, hiritarrek herri zerbitzuen ibilerak sorturiko kalteen ordaina jasotzeko duten eskubidean oinarritu behar da, herri zerbitzuaren kudeaketa mota kontuan hartzeak sortzen duen nahastean erori barik.

Udaleko txostenean aipaturiko printzipio orokorra (horren bidez, kontratistaren erantzukizuna aipatzen da), beste alde batetik, Administrazioaren (herri zerbitzuaren titularra) eta hori gauzatzeko ardura duen enpresaren arteko harreman juridikoetan sartzen da.

Hala ere, kontratu erantzukizuneko printzipio horrek ez du zertan sartu hiritarraren eta Administrazioaren arteko harremanetan; harremanok, berriz, Konstituzioko 106. artikuluak ezarri eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeak garatzen ditu (HAAJ-APE).

Horren arabera esan daitekeenez, hiritar batek herri zerbitzu baten ibileraren ondoriozko kalterik jasoz gero, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea onartu beharko da, nahiz eta zerbitzuaren titularra den Administrazioak kontratistari kontratu erantzukizuna eskatzeko mekanismoak eduki, batez ere 13/1995 Legeko 98. artikulua.

Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeak edo aipaturiko gainerako arauek ezin dute inoiz ere konstituzio-eskubide horren onarpena baztertu.

Udaletxe horrek proposaturiko soluzioak ez du oinarrizko arazoa konpontzen; izan ere, Administrazioaren ondare erantzukizuna objektiboa da (30/1992 Legearen 139. artikulua), eta norbanakoen erantzukizuna, kasu honetan kontrataturiko enpresarena, aldiz, erruaren ondoriozkoa da (Kode Zibileko 1902. artikulua) .

Kasu horretan, herri zerbitzuen kudeaketa motaren arabera erantzukizun araubide desberdina jarraitu behar dela ezartzeak (hau da, erantzukizun objektiboa, emaitzaren eraginez, baldin eta zuzen kudeatzen bada; eta erruaren edo arduragabekeriaren ondoriozko erantzukizuna, zeharka kudeatuz gero) Konstituzioaren 14. artikulua urratzen du.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia lerroari dagokionez, aho batekoa izan ez arren, Administrazioak bertako agenteek eragindako kalteen ondorioz duen erantzukizun solidarioaren teoria nagusia da, eta udal txostenean azaldutakoa baino geroagokoa.

Laburtzeko: Arartekoak esandakoaren arabera, Udaletxeak zaindu egin behar du hiritarrek herri zerbitzuaren ibileraren ondorioz jasandako kalteen ordaina; beraz, lehenengo eta behin, kaltearen eta herri zerbitzuaren arteko lotura dagoela frogatu beharko du. Kasu horretan, onartu egin behar da hiritarrak kalte-ordaina jasotzeko duen eskubidea.

Gero, Administrazioak erantzukizuna norena den zehaztu beharko du: edo kontratistari, kontratazio arauen barruko arau orokortzat; edo Administrazioari berari, bera baita herri zerbitzuaren titularra eta erantzukizun zuzena baitauka sortutako kalteetan.

Nolanahi ere, Administrazioak kalte-ordainari erantzun eta, behar izanez gero, kontratistaren aurka egin behar du, hiritarraren eskubidea gauzatu egingo dela bermatzeko.

Horri dagokionez, hauxe zioen gomendioa bideratu zen: "*Bilboko Udaletxeak berariazko ebazpena eman beharko luke, aurkezturiko ondare erantzukizuneko eskabideari buruz; ebazpenean, gainera, alegaturiko kaltea herri zerbitzuaren ibileraren ondoriozkoa den ere adierazi beharko du, Konstituzioaren 106.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.*"

Udaletxeak emandako erantzunaren arabera (azaldutako argudiorik gehienak kontuan hartu barik emandako erantzuna), kasu honetan ezin da berariazko ebazpena emateko betebeharra aplikatu. Azaldutakoaren arabera, udalbatza honen iritziz, kontuan hartutako arauek ez dute Udaletxea behartzen, gomendioan adierazitakoari buruzko ebazpenik emateko. Udal txostenean, erakunde honi aditzera ematen zaizkio antolamendu juridikoa aldatzeko dauden bideak, horien aplikazioaren emaitza hiritarrentzako bidegabea dela pentsatuz gero.

Hala eta guztiz ere, berriro ere argitu egin behar dugu Arartekoak emandako gomendioaren helburua administratuen defentsa-gabeziari (Administrazioaren eraginezkoa) soluzioa ematea dela, udalaren ibilera oinarritu behar duen interes orokorra zaintzeko.

Argudio horren aurka, beharrezkoa da Konstituzioaren 106.2 artikulua jasotzea; hori, gero, legegileak garatu du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko X. tituluan.

Udal txostenean emandako argudioari erantzunez (jarraitu beharreko prozedurari buruzko argudioa), hauxe argitu behar dugu: administrazio horrek ebazpena emateko duen betebeharra ez da ondorioztatzen ondare erantzukizuneko prozedura aplikatzetik edo ez aplikatzetik (martxoaren 26ko 428/1993 Errege Dekretua, administrazioen ondare erantzukizuneko prozedura ezartzen duena), 30/1992 Legeko 42. artikulutik bertatik baizik, bertako 89.4 artikuluari dagokionez; izan ere, horrek Administrazioa berariazko ebazpena ematera behartu eta ez du prozedura amaitu barik uzteko aukerarik ematen (legezko manuen iluntasunean edo urritasunean oinarrituz), azterturiko espedientean gertatzen den bezala. Horrela, Administrazioak martxoaren 26ko 428/1993 Errege Dekretuko 1.3 artikulua aplikatu behar du, baldin eta agindu zuzenaren ondoriozkoa edo egindako proiektuaren akatsaren eraginezkoa bada. Nolanahi ere, gainerako kasuetan, kalteen ondoriozko ordaina eskatzeko prozedurak errespetatu egin behar ditu administrazio prozedurako fase eta printzipio guztiak, batik bat erreklamazioaren ebazpena, Konstituzioko 24. artikuluan ezarritako benetako epai-babesaren eskubidea kontuan hartuz.

Kontratista publikoek egindako kalteei loturiko administrazio egintza ezartzeko, legeria sektorialera jo eta erreklamaziorako ezarrita dagoen prozedura ondorioztatu beharko dugu.

13/1995 Legeko III. tituluak kontratazioari loturiko jarduerak arautzen ditu, kontratistaren eta Administrazioaren artean. Horrela, 98. artikuluan administrazio kontratuak betetzeari buruz jasotakoaren arabera, kontratistak gainontzekoei eragindako kalteak eta galerak ordaintzeko betebeharra dauka. Printzipio orokor hori ez da betetzen,

kalteak agindu zuzenaren ondoriozkoak edo Administrazioak aurkezturiko proiektuaren akatsaren eraginezkoak direnean.

Guri dagokigun kasua biotarik zein den argitzeko, kontratuari buruzko legeriak aurretiazko baldintza bat ezarri du, eta hori 98. artikuluko hirugarren atalean ageri da: "*gainontzekoek, aurretiaz (...) kontratazio organoari eskaera* ***egin ahal izango diote*** *(...), kalteak kontratuaren barruko alderdietarik zeinek ordaindu behar dituen esateko*".

Eskaera hori, beste alde batetik, hiritarrak Administrazioari ebazpena emanarazteko duen ahalmena da; hiritarraren erreklamazioaren aurretiazko tramite-egintza baten izaera dauka, eta horren eginkizuna, berriz, Administrazioak ardura duen erakundeari buruzko ebazpena ematea da .

Hori dela eta, kontratua egin duen organoak horri buruzko ebazpena eman ondoren, 98.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, kalteak jasan dituzten gainontzekoek administrazio erreklamazioa egingo dute; gainera, kasu bakoitzerako prozedura berezira jotzeko esaten da. Horrela, bertan adierazitakoaren arabera, "*euren erreklamazioa, beti ere, kasu bakoitzeko legeria aplikagarrian ezarritako prozeduraren arabera egingo da*". Hau da, kaltea Administrazioari leporatu ahal izanez gero, jarraitu beharreko prozedura martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretua izango da. Aldiz, gainerako erreklamazioetan kaltea kontratistari egotziko zaio, eta Administrazioak Derrigorrezko Desjabetzapenari buruzko 1954ko Legeko 123. artikuluan jasotako prozedura jarraitu beharko du.

Udaletxeak, horrenbestez, hiritarrak aurkezturiko erreklamazioa ebatzi beharra dauka, eta erantzukizunik egoteari buruzko ebazpena eman beharko du, egindako kalteari eta hori ordaindu behar izateari dagokionez.

Kontratistak sortu diren kalteak ordaintzeko duen betebeharra ez betetzeak (13/1995 Legeko 98., 143. eta 162. artikuluak), halaber, kontratua ebazteko arrazoia izan daiteke (lege horretako 112.g artikulua). Hori dela eta, kontratua egin duen Administrazioak zerbait egin behar du kontratistari bere betebeharra betearazteko, bai ordaintzeko eskatuta, bai sorospidez erantzunda, edo bai administrazio kontratua ebatzita.

Azaldutako argudioen ondoriotzat, gure ustez Bilboko Udaletxeak hauxe ulertu behar du: udal zerbitzuen kudeaketa albo batera utzita, ibileraren ondoriozko erantzukizuna objektiboa dela. Era berean, herri zerbitzuaren titulartzat, udalak hiritarraren erreklamazioari berariazko erantzuna emateko erantzukizuna dauka.

• Emaitza

Gero, Bilboko Udaletxeak gomendioa onartzeko erabakia hartu du; beraz, udal ebazpena ondorerik gabe utzi du. Halaber, berak jakinarazitakoaren arabera, organo instruktoreak ondare erantzukizuneko espedientearen tramitazioarekin jarraitu du, gure gomendioan adierazitako prozedura mailako zehazpenei kasu eginez. Horrenbestez, eten egin genuen arazo horretan hasitako eskuhartzea.

⇒ *Herri zerbitzuek eragindako kalteen ondoriozko erreklamazioa egiten duenak frogak aurkeztu beharra dauka (1029/1999)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Gipuzkoako Foru Aldundian aurkezturiko ondare erantzukizunaren ondoriozko erreklamazioak jasotako gaitzirizpena aurkeztu zuen erakunde honetan;

erreklamazio hori, berriz, Hondarribiako N-628 errepideko zulo batek bere ibilgailuan sorturiko kalteen eraginezkoa zen.

• Azterketa

Foru Aldundiak emandako ebazpenak ez zuen erreklamazio hori onartu, ez baitzuen lotura zuzenik ikusi alegaturiko kaltearen eta herri zerbitzu horren ibileraren artean. Administrazioek hiritarrei eragiten zaizkien kalteekiko duten erantzukizuna, bestalde, kalte-ordaina ematera mugatzen da, baldin eta kasuan kasuko kaltea herri zerbitzuen ibilera zuzenaren edo okerraren eraginezkoa bada, eta kalte hori ezinbestez gertatu ez denean.

Kalte-ordaina egoteko, kaltea benetan egon dela egiaztatu eta frogatu behar da, baita udal zerbitzuaren ibilera okerra (kalte hori zuzen eta berehala sortu duen udal zerbitzua) eta bien arteko lotura zuzena ere.

Kaltea eta kausalitate lotura, beste alde batetik, administrazio espedientean zehar erreklamazio egiten duen pertsonak frogatu behar ditu. Tramitaturiko espedientean, tarte bat ireki zen alegazioak aurkezteko eta kaltea dagoela erakusten duten frogak aurkezteko, baita horrek herri zerbitzuren baten ibilerarekiko lotura duela frogatzeko ere. Hala eta guztiz ere, erreklamaziogileak ez zuen horri buruzko frogarik aurkeztu; espedientearen tramitazioaren ardura duten foru organoek, horrenbestez, erabaki zuten erreklamaziogileak ez zituela frogatu kalteak eragin zituen gertaera eta horrek herri zerbitzuren batekiko zuen lotura.

Gauzak horrela, espaloi irregularra dagoela eta Udaletxeak hiriko bideak mantentzeko zerbitzua eman behar duela albo batera utzita, ezin izan zen kalte-ordainerako eskubidea sortu zenik erabaki.

• Emaitza

Arartekoaren ustez, erakunde honek zuen informazioaren arabera, ebazpena antolamendu juridikoaren araberakoa zen; horrenbestez, eten egin genuen arazo horretan hasitako eskuhartzea.

## E) **Tokiko zerbitzu publikoak**

⇒ *Pasabide iraunkorretarako baimenaren mugak (26/2000)*

• Erreklamazioa

Portugaleteko auzoko batek Arartekoari jakitera eman zizkion bertako Udaletxeak pasabide iraunkorrak ezartzeko baimena emateko orduan erabiltzen dituzten irizpideak.

• Azterketa

Komenigarria da gogoan hartzea halako lizentziak (jabari publikoko ondasun baten erabilera edo onura pribatiboa eragiten duten lizentziak) beti ere zuhurtziarakotasunez ematen direla, aldi baterako izaten direla, eta ez dietela gainontzekoei kalterik egin behar.

Horrenbestez, udalek (pasabideen emakida erabakitzeko orduan) eskabidearen edukia haztatu ahal dute, baita pasabidea jartzeak ibilgailuak bide publikoan aparkatzeko

orduan izango dituen eraginak ere. Hain zuzen ere, ibilgailuak aparkatzeko leku kopuruan izan dezakeen eragina hartu beharko dute kontuan, erabakiaren ondorioz leku kopuru horri murriztu egin daiteke eta. Azterketa hori egiteko, erreferentziako elementutzat auzoko ibilgailu-parkea hartzen da, eta aintzat hartzen da oraingo leku kopuruarekin alde horrek aparkalekuei dagokienez dituen beharrizanak betetzen diren ala ez.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da udalek ibilgailuen eta pertsonen trafikoaren (bide publikoan egindako trafikoa) antolamenduaren ardura dutela; arlo horretan, gainera, zuhurtziarakotasuneko gaitasun handia dute, denon interesa babesteko erabakirik egokienak hartzeko.

Gaur egun, toki erakunde guztien joera jabari publikoaren errendimendu ahalik eta handiena lortzea da, hau da, azalerako aparkalekuak ezabatzea (pasabideak ematearen ondoriozko egoera) eta aparkaleku arazoa nabarmen hobetzea. Horren ondorioz, ibilgailu gaitasunari loturiko baldintzak sartzen dira, espaloitik zeharko igarotzea eta bide publikoaren gaineko erreserba baimentzeko.

• Emaitza

Hiritarrari aditzera eman genion gure ustez ez zegoela irregulartasunik Portugaleteko Udaletxeak harturiko erabakian.

⇒ *Ura udal saretik etxebizitzetara eramateko hartuneen instalazioak sorturiko arazoak (613/2000)*

• Erreklamazioa

Auzo-elkarte batek ur-hartuneak egiteko eskabidea onartu ez izana azaldu zion erakunde honi; hartune horiek eraikineko fatxadarainokoak izango ziren, eta Lasarte-Oriako Udaletxeak egin beharko zituen.

• Azterketa

Bost eraikineko taldeak hartune bakarra zuen, udal sare berriarekiko. Une horretan, Udaletxea hirigintza lanak egiten ari zen: sekzio handiagoko banaketa sare berria, higiezin bakoitzerako banakako hartuneak ezartzeko, sare orokorrak oraingo instalazioak ezabatzeko aukera ematen duenean. Horrenbestez, une horretan ez zegoen hartune horietarako obrarik egin beharrik, harik eta sare orokorreko presioaren gorakadak oraingo instalazio guztiak ezabatzeko aukera eman arte.

Nolanahi ere, auzokoen eta Udaletxearen arteko desadostasunak instalazioaren kostuak nork egin eta ordaindu behar izateari buruzkoak ziren (instalazioa udal saretik hasi eta elkarte bakoitzeko banakako giltzaraino joango zen). Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, 1975eko abenduaren 9ko Agindua aplikatuz (ur-hornidurako barruko instalazioetarako oinarrizko arauak onesten dituen agindua), hauxe adierazi du horren antzeko kasuetan: hartuneko eta maniobrako giltzen instalazioaren (ura eraikin baten barrualdera hornitzeko giltzak) gastuak enpresa hornitzailearen kontura izan behar direla. Hartune hori eraikina iristeko hormarainokoa izan behar da (hornitzailearen jabetzako eraikina); hortik pasabiderako giltza instalatu behar da, atearen ondoan, higiezinaren barruan. Hori dela eta, oraingo instalazioa ezabatzen den unean, enpresa hornitzaileak hartunea egin beharko du, arauek eta jurisprudentziak ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, planteaturiko gaiari dagokionez, erakunde honen iritziz, arau horiek aplikatzeko arazoak Eusko Jaurlaritzako Industri Saileko lurralde ordezkaritzetan aurkeztu behar dira aurretiaz, 1975eko abenduaren 9ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

• Emaitza

Ohar horien guztien berri eman genien Lasarte-Oriako Udaletxeari eta jabe-elkarteetako ordezkariari, eta arazo horretan hasitako eskuhartzea eten egin genuen.

# 11. OSASUNA

## 11.1. SARRERA

Osasunaren arloaren barruan, aurten 86 kexa aurkeztu dira, eta horiek, ohi den legez, ez dira baliabide mugatuak edukitzeari buruzkoak bakarrik: osasun zerbitzuen ibilerari buruzkoak ere badira, elementu hori funtsezkoa baita, osasun prestazioen eraginkortasunerako.

Aipatzen diren administrazioen araberako banaketa honako hauxe izango litzateke:

- Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusia .................... 81
- Foru Administrazioa ........................................................ 1
- Toki Administrazioa ........................................................ 6

Azpiarloen araberako banaketa, berriz, hauxe da:

- Erabiltzaileen eskubideak ................................................ 40
- Osasun laguntza ............................................................ 21
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura .................................................................... 10
- Osasun publikoa ............................................................ 6
- Bestelakoak .................................................................... 3
- Kontratazio Araubidea eta Administrazio Erantzukizuna ....... 3
- Buruko osasuna .............................................................. 3

Osasun zerbitzuen ibilerari dagokionez, kexa batzuek agerian jarri dute erabiltzaileen eskura dauden baliabideek beti ez dutela emaitzarik ematen, jasotako arretari buruzko azalpenak eskatzeari dagokionez.

Hiritarrek osasun zerbitzuen ibilerari buruzko erreklamazioak egiteko eskubidea dute, baita erantzuna jasotzeko eskubidea ere. Prozedura hori, beste alde batetik, gaixoaren arretarako zerbitzuen bitartez egiten da, eta justizia administratiboaren bideekiko bide independentea da.

Batzuetan, gaixoek salaturiko jarduerei buruzko ikerketek ibilera txarra dagoela adierazten duten arren (edo, behintzat, hobetzeko moduko jarduera adierazten dute), erabiltzaileei helarazitako ondorioek ez dute halako onarpenik jasotzen, segurutik hori onartzeak ondorio juridikoak edukiko lituzkeelako, lehen aipatu ditugun beste erreklamazio bide batzuetan.

Erakunde honen iritziz, gaixoaren arretarako zerbitzuei egindako erreklamazioei ez zaizkie aplikatu behar ondare erantzukizuneko prozedura arautzen duten printzipioak. Baina, kexarako arrazoi zehatzak planteatuta, erantzuna arazoaren araberakoa izan beharko litzateke, eta ibilera txarrik egon dena ala ez azaldu beharko litzateke, baita horren zergatiak ere.

Baliabide mailako eskubideen eremuan jarraituz, kexa batzuk informazio eskubideari buruzkoak izan dira. Horri dagokionez, aditzera eman behar dugu prestazioak legez zehaztea funtsezko mekanismoa dela horren gauzapenerako; gaina ez da nahikoa erabateko eraginkortasuna lortzeko. Eskubideen egitura juridikoa bezain funtsezkoa da zerbitzuen ibilera ona, batez ere erabiltzaileak horiei buruz jasotzen duen informazioa.

Informazio hori, pertsona batek behar duen arretan zenbait administraziotako zerbitzuek esku hartzen dutenean (osasunekoa, gizarte ongizatekoa, hezkuntzakoa), orduan eta funtsezkoagoa da. Buruko paralisia duten umeek diziplinarteko jarduera hori behar dute, eta gurasoei dauden zerbitzuei buruz ematen zaien informazioa oinarrizkoa da, seme-alabaren zaintzan eragin zuzena eduki eta sasoian egindako arretak garrantzia handia izan baitezake umearen gaitasunak garatzeko orduan. Gogoeta horren jatorrian, bestalde, guraso batzuek euren semearen gaixotasunaren diagnostikoa egin zuen osasun zerbitzuaren aldetik oraingo zerbitzuei buruz jasotako informazio urriari egindako kexa dago.

Informazioari loturiko alderdi hori aztertzeaz gain, kexa baliozkoa izan daiteke honako hauxe planteatzeko: ea buruko paralisia duten umeen zaintzarako jarritako baliabideak egokitu egiten diren ala ez zaintza horrek eduki beharko lukeen berdintasun printzipiora, zaintza edozein lurraldetan eginda ere.

Iazko ekitaldiari buruzko txostenean, Bizkaian sinaturiko akordioak ez direla behar bezala gauzatu esaten da (akordio horiek gizarte-osasuneko arazoetan esku hartu behar duten arduradunek sinatu zituzten). Akordio horiek oraindik ere ez dituzte aurreikusitako emaitzak ematen. Lerrokada honetan aipatzeak ez du esan nahi horien erantzukizun osoa osasun arloko arduradunek dutenik.

Orain dauden baliabideei dagokienez, ugalkortasun tratamenduak jaso nahi izan dituzten bikote batzuek, aurten, baliabide urritasunari loturiko kexak aurkeztu dituzte. Kexa horiek ez dituzte tratamenduko teknika gehiagoren beharra soilik planteatzen: zerbitzu bat berori mantentzeko modurik ez edukitzearen ondorioz etetea (adibidez, oporraldietan) ere aipatzen da. Bi kasuotan, erakunde honen iritziz, osasun Administrazioak emandako datuek (teknika berria eta antolaketa mailako neurriak hartzea) aditzera ematen dute kexa horiei dagokienez esku hartzeko neurriak hartzen ari direla.

Aurreko txostenetan Euskadiko erabiltzaileek beste erkidegoren batean daudenean osasun garraioa erabiltzeko eskubideari buruz azaldutako kexak aipatu ditugu. Erakunde honen ustez, komenigarria da txosten honetan gomendio orokorra hartzea, Osasun Sailak 63/1995 Errege Dekretuaren aplikazioari dagokionez erabiltzen duen irizpidea aldatzeko; irizpide hori, esan digutenaren arabera, beste autonomia erkidego batzuetan aplikatzen dena da. Hori dela eta, gai hau eskualdearteko batzorde egokian azter daitekeen arren, Osasun Sailari txosten honetan jasotako gomendioa jakinaraziko diogu, gure iritziz erabilitako irizpidea ez baita antolamenduaren araberakoa.

Opiazeoekiko menpekotasuna metadona ez bezalako programen bidez tratatzeak, beste alde batetik, Eusko Legebiltzarraren jarduera eragin du. Horren ondorioz, Osasun Sailak opiazeoekiko menpekotasunaren tratamendu psikofarmakologikoan dauden aukerak aztertu ditu; bertan, metadona ez bezalako beste aukera batzuen egoera ikusten da. Gaixo batzuek porrot egin dute oraingo tratamenduekin (metadona), eta horrek beste aukera batzuk ere kontuan hartu behar direla adierazten du. Beste tratamendu batzuekin egiten diren saiakuntza klinikoak pertsona horientzat lagungarriak izango direla uste dugu.

Osasun Sailburua, halaber, Eusko Legebiltzarrean egon da, loditasun morbidoa duten pertsonen tratamendua azaltzeko, baita kirurgia bariatrikoko ebakuntzak egiteko dauden arazoak azaltzeko ere.

Arartekoari arazo horri loturiko kexa batzuk aurkeztu dizkiote; gaur egun, Osasun Teknologien Ebaluazio Zerbitzuaren azterketaren zain daude, baita kasuan kasuko

batzorde teknikoaren ikerketaren zain ere, arlo horretan lan egiteko modurik onena zein den jakiteko.

Tabakoaren kontsumoari buruzko mugak argi eta garbi zehaztuta daude antolamenduan, baina hiritarrek oraindik ere kexa asko aurkezten dute, lantokian tabakoa erretzen dutenek eragindako eragozpenak salatzeko.

Pertsona berdinek egoera berberak salatzeak aditzera ematen du, bestalde, tabakoa erretzeari dagokionez Legean ezarritako debekuak betearazteko ardura duten agenteen eskuhartzea ez dela nahikoa. Kexak langile publikoek aurkeztu dituzte, euren administrazioak duen permitibitate handiaren eraginez.

Salaturiko egoeretan arazo zailak daudela ikusten da, denok dakigu tabakoak gure gizartean duen garrantzia. Baina erakunde honek ezin du ahantzi tabakoa substantzia kaltegarritzat hartu dutela, pertsonaren osasunerako; gainera, Legeak erretzeko debeku argiak ezartzen dituen arren, tabakoaren kontsumoa eragin nahi duten iturriek onartu egiten dute gatazkarik egonez gero ez-erretzaileen eskubidea nagusitu behar dela dioen printzipio orokorra. Tabakoaren kontsumoak eragindako arazoei dagokienez, laringektomizatuen Bizkaiko eta Arabako elkarteek erakunde honetara jo dute, Herri Administrazioak tabakoaren kontsumoa murrizteko orduan esku har dezan eskatzeko.

## 11.2. **AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK**

### A) **Osasun laguntza**

⇒ *Bigarren iritzi bat edukitzeko eskubidearen alde bat (1272/1999)*

• Erreklamazioa

Antzutasunari buruzko aurretiazko ikerketak egin ondoren, bikote batek tratamendua hasi zuen bere ospitalean. Lehenengo hormona-kontrolera joan zirenean, esan zieten mutilak C hepatitisaren antigorputzak zituela eta, horren ondorioz, programatik kanpo gelditzen zela, ezin baitzen odolemaile izan.

Zenbait adituren kontsultara joan ondoren, horiek esan zioten ez zegoela horretarako oztoporik, eta, hortaz, tratamenduarekin jarraitzeko eskatu zuten, bera odolemailetzat. Euren eskabideari kasurik egin ez ziotenez, Arartekoari kexa aurkeztu zioten.

• Azterketa

Gai hori, nahitaez, teknikaren eta medikuntzaren ikuspegitik aztertu behar zen. Horri zegokionez, interesatuek ez zuten kexa eragin zuen arrazoiarekiko desadostasun hutsa aurkezten: desadostasun hori beste sendagile batzuen iritzietan oinarritzen zuten, horiek ez baitzuten ulertzen mutilari odolemaile izateko jarri zizkioten oztopoak.

Aurrekari horiekin, osasun Administrazioaren ustez, gaia berriro aztertzeko beste arrazoi zegoen.

C hepatitisaren birusa (VHC) lagundutako ugalketa tekniken bidez kutsatzeko aukera gai eztabaidagarria zen. Hala eta guztiz ere, gertaerak jaso zirenean, nabaritasunaren

egoera aldatu egin zen, Osasun Sailaren txostenean jasotakoaren arabera. Horrek, bestalde, beste jarduera jarraibide batzuk iradokitzen zituen, lagundutako ugalketan VHC kutsatzeari buruz.

• Emaitza

Osasun Sailak hauxe jakinarazi zion Arartekoari: gaia nabaritasun berria kontuan hartuz aztertu ondoren, Osakidetzak interesatuei deitu eta jakitera eman zien Gurutzetako Ospitaleak berriro ebaluatuko zuela euren kasua. Gaia horrela bideratu ondoren, espedientea artxibatu egin zen.

## B) **Erabiltzaileen eskubideak**

⇒ *Osasun garraiorako eskubidea (1238/1999)*

• Erreklamazioa

Pertsona bat presaka sartu beharra izan zuten Palentziako ospitalean. Tratatu ondoren, bere ospitalera (Donostian) eraman zuten anbulantzian.

Anbulantziaren gastua itzultzeko eskatu zuen, baina Osasun Sailak ezetz esan zion, hauxe argudiatuz: "*osasunekoak ez diren lekualdatzeak (geografikoak edo familiak eragindakoak) ez dira ordaintzen*".

• Azterketa

Osasun prestazioei buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak osasun garraiorako eskubidea onartzen du, erabiltzaileak garraio arrunta erabili ezin duenean. Pertsona hori hasieran hartu zuen ospitaleak emandako txostenak argi esaten du ezinezkoa izan zela garraio arrunta erabiltzea.

Osasun Sailaren ustez, halako kasuetan, hau da, pertsona bat beste Erkidego bateko ospitaleren batean tratatu behar denean, pertsona horrek osasun garraiorako duen eskubidea bere etxeraino heltzen da (behin-behinean dagoen probintziaren barruan).

Irizpide hori Saileko irizpide batean oinarritzen da, baina ez arauzko edo eskubide positiboko aurreikuspen batean. Arartekoa ez dago ados irizpide hori aplikatzeko erabiltzen ari den moduarekin.

Egoera batzuetan irizpide hori (erreferentziatzat behin-behineko etxerako lekualdatzea hartzea) zentzuzkoa izan daiteke; baina, egoera guzti-guztietara aplikatuz gero, kasu bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartu barik (adibidez, behin-behineko etxerik ez egotea), zentzugabea izan daiteke.

63/1995 Errege Dekretuak, osasun garraioari buruz, hauxe esaten du: "*... ezintasun fisikoa (...) garraio arrunta erabiltzeko, ospitalera edo etxera joateko orduan, kasuan kasuko osasun arreta jaso ondoren.*".

Egoera batzuetan erabiltzaileak osasun laguntza jaso duen ospitaletik hurbil behin-behineko etxea duela onartuta ere, osasun Administrazioak ahantzi egiten du beste egoera batzuetan ez dagoela halako behin-behineko etxerik.

Horrenbestez, beste Erkidego batean tratatzen dituzten erabiltzaile guztiek eurenez ordaindu behar izango dute tratamenduaren osteko lekualdatzea (anbulantzian), eta, horrela, ukatu egiten zaie antolamenduak halakotzat onarturiko prestaziorako eskubidea.

• Emaitza

Arartekoak azaldu egin zituen erabiltzaile horren eskabideari ezezkoa eman izana berriro aztertu behar izatearen arrazoiak; arrazoi horietan oinarrituz, gomendio bat formulatu zuen.

Osasun sailak ez zion kasurik egin gomendioari; berriro esan zuen Gipuzkoako ospitalerako lekualdatzea modu artifizialean sortu zela, gaixoaren beraren ekimenez.

## C) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Osasunaren arloan intimitaterako dagoen eskubidea (1240/1999)*

• Erreklamazioa

Enpresaburu batek kexa bat azaldu zuen, osasun ikuskapeneko zerbitzuek berak egindako informazio eskabideari ez erantzutearen ondorioz; informazio eskabide hori, bestalde, bere enpresako langile baten gaixotasunaren zergatiei buruzkoa zen.

• Azterketa

Arartekoak informazio guztia eskatu ondoren, osasun Administrazioak interesatuari erantzuna eman ziola esan zuen, baina ez ziola gaixotasunaren zergatia azaldu, datu hori isilpekoa baita.

Langileen estatutuko 20.4 artikuluan, enpresaburuak langilearen gaixotasuna kontrolatzeko aukera jasotzen da. Baina estatutu horretan kontrolerako dagoen ahalmen hori bi alderdien arteko harremanen eremuan kokatzen da, langilearen eta enpresaburuaren harremanen eremuan, hain zuzen ere.

Kontrol pribatua da, eta ez dauka zerikusirik Gizarte Segurantzak gaixotasunari egiten dion kontrol publikoarekin. Hau da, enpresaburuak kontrol pribatua egiteko ahalmena dauka, beraren medikuaren bidez; baina Gizarte Segurantzako organoek ezin dute gaixotasunaren kontrol publikoa baino gehiago egin, gaixotasunaren jatorria agerian utzita.

• Emaitza

Arartekoak interesatuari bere eskabideari buruzko berariazko ebazpena egon zela jakinarazi zion; gainera, gaiaren oinarriari dagokionez, gure ustez gaixotasunaren arrazoiak agerian jartzeak urratu egingo luke gaixotasunaren datuen intimitaterako eskubidea.

## D) **Bestelakoak**

⇒ *Larrialdi zerbitzuaren arreta (37/1999OF)*

• Erreklamazioa

Egunkari batean argitaraturiko gutun batean, hiritar batek larrialdi zerbitzuaren aurkako kexa bat azaldu zuen. Hain zuzen ere, berak adierazitakoaren arabera, bizikletatik

erori, larrialdietara laguntza eskatu (telefono mugikorretik) eta bere egoera anbulantzia bidaltzeko modukoa ez zela esan zioten.

Gaia ustez laguntza ukatzeari buruzkoa zenez, espediente bat hasi zuten ofizioz.

• Azterketa

Erakunde honetako ordezkari bat larrialdi zerbitzura joan zen, gaixoaren deiari buruz grabaturiko zinta entzutera. Interesatuak udaltzaingora deitu zuen, eta horiek larrialdietara deitu zuten. Larrialdi zerbitzuak, gero, txirrindulariaren telefono mugikorrera deitu eta galdera batzuk egin zizkion, egoera baloratu eta larrialdiko arretarik behar zuen ala ez baloratzeko.

Deiak eskaintzen dituen datuak aztertuta, larrialdietako sendagile koordinatzaileak egoera ez zela anbulantzia bat bidaltzeko modukoa erabaki zuen.

Elkarrizketan argi entzuten zen txirrindulariak berak moztu zuela deia, ez baitzegoen ados anbulantziarik ez bidaltzearen erabakiarekin. Hori ere kontuan hartu behar zen txirrindulariak aurkezturiko salaketa aztertzeko orduan. Hala eta guztiz ere, larrialdi zerbitzuak kasuaren jarraipena egin eta hiritarra etxera udaltzaingoak eraman zuela egiaztatu zuen; etxetik, bere kabuz, larrialdietara joan zen.

• Emaitza

Aurrekariak ikusita, erakunde honek hauxe erabaki zuen: oinarrian larrialdi zerbitzuaren jarduera ez dela irregularra izan.

Beste alde batetik, erabiltzaileak zerbitzuen funtzionamenduaren aurkako kexa aurkezteko duen eskubideari dagokionez, eta kexa horren erantzuna jasotzeko duen eskubidea kontuan hartuz, idatzizko eta arrazoituriko erantzuna eman ziotela egiaztatu dugu, berak egindako erreklamazioari buruz.

## E) **Buruko osasuna**

### ⇒ *Tratamendua aplikatzeko baimena (111/2000)*

• Erreklamazioa

Ama batek kexa bat aurkeztu zuen; izan ere, bere semeari, ospitale batean sartuta, txokeko tratamendua aplikatu nahi zioten. Berak zioenez, bera tratamendu horren aurka egonda ere ospitaleak horixe aplikatu nahi zion.

• Azterketa

Oro har, tratamenduarekiko baimena beharrezko baldintza da, medikuntzako jarduera hori baliozkoa izateko. Horretan oinarrituz, salaturiko egoera ikusita, beharrezkoa zen ospitaleak (baimenaren ikuspegitik) tratamendu hori zein baldintzatan egin nahi zuen ikustea.

Kexan tratamendua denbora gutxiren buruan aplikatzeko asmoa zegoela esaten zen; hori kontuan hartuz, Arartekoak ospitalera deitu eta informazioa eskatu zuen, bi alderdi zehatz hauei buruz harturiko berme juridikoei buruz: gaixoa ospitalean sartzea eta tratamendua aplikatzea.

Lehenengo alderdiari zegokionez, ospitaleak epaitegiari jakinarazi zion gaixoa ospitalean gogoz kontra sartu izana.

Tratamenduarekiko adostasunari zegokionez, ospitaleak Arartekoari jakitera eman zion gaixoaren aitaren berariazko baimena zuela, baita familiako beste kide baten baimena ere. Hori egiaztatu ondoren, ospitaleak jakitera eman zigun jarrera horrekiko desadostasunak gurasoak bananduta egotearen eraginezkoak izan zitezkeela.

• Emaitza

Gora-behera horiek aztertu ondoren, erreklamaziogileari Arartekoak ospitalean egindako jarduerei buruzko informazio eman zitzaion. Hain zuzen ere, esan genion, berak azaldutako desadostasuna ikusita, ospitaleko arduradunei hauxe adierazi geniela: bere semea ospitalean sartzeko epailearen baimena zegoenez, komenigarria izango litzatekeela aplikatuko zitzaion tratamendua ere jakinaraztea, eta ospitalea ere planteamendu horren aldekoa zen.

# 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

## 12.1. SARRERA

Lan eta Gizarte Segurantza arloa, oraindik ere, erakunde honek tramitaturiko kexei dagokienez kexa gutxien duen arloetarikoa da, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eremu oso mugatua baitauka arlo horretan.

Horrela, gizarte segurantzari buruzko kexa guztiak Herriaren Defendatzailearen erakundera bidaltzen dira; dena den, horrek ez du esan nahi Arartekoak aurretiazko kudeaketarik egin ezin duenik, salaturiko arazoen benetako garrantzia argitzeko. Horri dagokionez, funtzio publikoaren arloan sarreran horiek guztiak aipaturik dauden arren, jubilatzeko baldintzei buruz egindako kexa batzuk aipa daitezke; kexa horiek, berriz, Estatuko Administraziotik EAEko Administrazio Nagusiko lanpostuetara transferituriko funtzionarioek egin dituzte.

Pertsona horiek, kexetan, maila pasiboetara (euren lanpostu berriren arabera) egindako kotizazioak kontuan ez izatea salatu dute. Kexa horien ondorioz egin diren jarduerek aukera eman digute salaturiko arazoa benetakoa dela egiaztatzeko. Era berean, aukera izan dugu Gizarte Segurantzako Nazio Institutuak proposaturiko soluzioa (Estatuko funtzionario zibilen araubide berezian bidegabeki sartuak izan direla uste duten funtzionario horien erregularizaziorako) hauxe dela ikusteko: horiek maila pasiboetan baxa hartzea eta, berehala, alta hartzea gizarte segurantzako araubide orokorrean, kotizazioen elkarrekiko zenbaketa egokiarekin.

Beste alde batetik, 2000ko ekitaldian INEMek (Enplegurako Nazio Erakundea) eta Hobetuz fundazioak (lanbide heziketa etengabekorako euskal fundazioa) antolaturiko heziketa plan eta jardueretan parte hartzeko aukerei buruzko bi kexa jaso dira erakunde honetan, eta horien laburpena, berriz, kexen hautapenaren atalean dago.

Era berean, aipagarria da Elgoibarreko BHIk aurkezturiko kexa, Gipuzkoako Foru Aldundiak enpleguaren aldeko programa integralaren eremuan iragarritako laguntzei buruz (kexa hori ere behean dagoen kexen hautapenerako atalean jasota dago).

## 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Enpleguaren aldeko programa integrala. Laguntzak (2/2000)*

• Erreklamazioa

Elgoibarko Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI) erakunde honen eskuhartzea eskatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak Enpleguaren aldeko Programaren eremuan iragarritako laguntzei dagokienez (programa hori martxoaren 2ko 24/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, 1999ko martxoaren 16ko 50. zenbakidun GAO). Kexa horretan, ikastetxe horrek esaten du ez dakizkiela eskaturiko laguntza ukatua izanaren arrazoiak.

• Azterketa

Lehenengo jarduera batean, Gipuzkoako Foru Aldundiak hauxe jakinarazi zion erakunde honi:

> *"Dekretu horri laguntzeko eskabideak aztertzean, lehenengo eta behin, arautegia betetzen den ala ez ikusten da, erakunde onuradunari eta diruz laguntzeko moduko egintzari dagokienez; hau da, aurreikusitako laguntzak lortzeko beharrezkoa baina nahikoa ez den baldintza. Bigarrenez, hori betetzen dutela egiaztatzen duten eskabideen artean, eta aurrekontuko mugak kontuan hartuz, lehia printzipioak aplikatzen dira, martxoaren 2ko 24/1999 Foru Dekretuko 5. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatuz.*
> *Elgoibarreko Institituren kasuan, esan behar da horrek arautegia betetzen zuela; baina, lehia printzipioa institutak aurkezturiko egintza motan aplikatzea (LHko beste heziketa erakunde batzuek aurkeztutakoarekin gertatzen zen bezala), izatez, CONFEBASKek aurkezturikoa baino beheragoko mailakoa zen; izan ere, azken hori Gipuzkoako lurralde osoa barru hartzen zuen planteamendua zen (eta, beraz, heziketa erakundeena), eta ez Gipuzkoako heziketa erakunde bakarreko ikasleak barru hartzen dituen planteamendua (Elgoibarreko institutuaren kasua)."*

Hasierako informazio horren ondorioz, espediente horren tramitazioan kontuan hartu beharrekoa hauxe zela pentsatu genuen: ea 24/1999 Foru Dekretuko 5. artikuluan jasotako irizpide orokorren eta berezien aplikazioa jarduera arrazoituaren eraginezkoa zen, arbitrarietate eta bereizkeria susmo guztiak (eskainitako laguntzak lortzeari dagokionez) urruntzen zituen jarduera baten eraginezkoa alegia.

Horrenbestez, gure ustez, beharrezkoa zen aditzera ematea kexaren sustatzaileek Ekonomiako Foru Aldundiari formulaturiko errekurtsoaren kopia helarazi zigutela. Errekurtso horretan, besteak beste, bereizkeria egotea aipatzen zen, Leonardo da Vinci programari (Europako Elkarteko ekintza programa, Europan lanbide heziketako politika aplikatzeko) buruzko ekintzetan; izan ere, euren iritziz, ekimen guztien helburua berdina izanda ere, ez zuten tratamendu berdina, dirulaguntzak lortzeko orduan.

Ararteko erakundearen ustez, LEONARDO DA VINCI programari buruz planteaturiko ekimenek edo proposamenek (besteak beste, Elgoibarreko BHIk eta CONFEBASKek aurkezturikoak) gainditu egiten zituzten hautapen orokorreko irizpideak, 1999ko enplegurako jarraibideei buruzkoak, hain zuzen ere, lanbidean sartzeko gaitasuna hobetzeari buruzkoak.

Lehenengo hautapen maila hau gainditu ondoren, CONFEBASKek aurkezturiko ekimena itxuraz behintzat egokiagoa zen, heziketa programetako irizpide bereziak kontuan hartuz: pertsona onuradunen enplegu mailaren gorakada, Gipuzkoako egitura ekonomikoaren hezkuntza beharrizanekiko koherentzia, etab.

Hasierako balorazioa horixe izanda ere, zalantza batzuk zeuden eta, gure iritziz, horiek argitu beharra dago, batez ere aintzat hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak zuen betebeharra, hau da, Elgoibarreko BHIk planteaturiko errekurtsoa berariaz eta arrazoiak emanez ebazteko zuen betebeharra:

> * CONFEBASKek aurkezturiko ekimenaren helburua eta Elgoibarreko BHIk aurkezturiko helburuak berdinak ziren ala ez: lanbide heziketako ikasleen trukeak, atzerriko enpresetan praktikak egiteko.

* Aurreko lerrokadan adierazitakoa egiaztatuz gero, hau da, CONFEBASKen ekimenaren eta Elgoibarreko BHIen ekimenaren helburuak berdinak izanez gero, zalantza bat planteatzen zen: ea CONFEBASKekin lorturiko konpromisoak aurrekontuko fondo berdin-berdinen erreserba bermatzen zuen, ekintza horiek egiteko (lanbide heziketako ikasleen trukeak, atzerriko enpresetan praktikak egiteko); CONFEBASK, horrela, emandako laguntzen kudeatzaile nagusia izango zen, ikastetxe bakoitzak eskainitako tramitazio bananduko ereduaren aurrean.
* Bestela, hau da, CONFEBASKen ekimenaren barruan lanbide heziketako ikasleen trukea sartu ezean, beharrezkoa zen CONFEBASKek heziketaren atalean edo eremuan proposaturiko ekintza motari emandako lehentasuna arrazoitzea.

Bigarren eskuhartzeari erantzunez, Gipuzkoako Ekonomia eta Turismo Sailak hauxe adierazi zuen:

*"CONFEBASKek aurkezturiko ekimenaren helburua, izan ere, lanbide heziketako ikasleen trukea da, horiek atzerriko enpresetan praktikak egin ahal izateko. Egin-eginean ere, bi ekimenok (Elgoibarreko BHIk eta CONFEBASKek aurkezturikoak) Europako Elkarteko LEONARDO Programak babesten eta aurkezten ditu, horrek besteak beste aipaturiko ekimena babesten baitu; eta, CONFEBASKen kasuan, Elkarteko 98/61698/I.1.a proiektuak dira.*
*Azken batean, CONFEBASKekin lorturiko konpromisoaren barruan hauxe sartzen da:*
*a) Aurreko jarduera batekiko laguntza mantentzea (lanbide heziketako ikasleen trukea, horiek atzerriko enpresetan praktikak egiteko),*
*b) Foru Aldundi honek jarduera horri emandako finantza laguntza handitzea,*
*c) Eraginkortasuna eta eragingarritasuna kontuan hartuz, jarduera horren garapena hobetzea; Gipuzkoan, horren ondorioz, heziketa erakundeek partehartze handiagoa izan eta beka kopuru handiagoa eman da (parte hartu duten ikasleei)."*

• Emaitza

Ararteko erakundeak ez zuen ikusi beste jarduera batzuk justifikatzeko moduko arrazoirik: bere ustez, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektuak aukeratzeko irizpide orokorrei eta bereziei buruz egindako aplikazioa (martxoaren 2ko 24/1999 Foru Dekretuaren 5. artikuluan jasotako irizpideak), izan ere, jarduera arrazoitu baten ondoriozkoa zen, eta horrek aukera ematen zuen arbitrariotasun eta bereizkeria susmo guztiak baztertzeko, eskainitako laguntzak lortzeari zegokionez.

## B) **Bestelakoak**

⇒ *Hobetuz fundazioak kudeaturiko heziketa egintza eskuratzeko, sektore pribatuko langilea izan beharra (763/2000)*

• Erreklamazioa

Pertsona batek ondokori buruzko kexa aurkeztu du laburbilduta: Hobetuzek (lanbide heziketa etengabekorako euskal fundazioa) berak kudeaturiko heziketa ikastaroak egiteko jartzen dituen baldintzekiko desadostasunari buruz.

Hain zuzen ere, desadostasun hori honexetan oinarritzen da: Osakidetzan zerbitzuak emanda eta, beraz, erakunde publiko langiletzat hartuta, ezin ditu baliabide horiek eskuratu, sektore pribatuko langileentzat baino ez direlako.

Erreklamaziogilearen iritziz, hori bereizkeria egitea da, eta Arartekoari halako bereizkeriak saihesteko laguntza eskatu dio.

• Azterketa

Kexaren edukia aztertu eta arlo horretan indarrean dagoen araudiarekin erkatu dugu, baita Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak emandako informazioarekin ere.

Egindako azterketaren ondorioa, bestalde, hauxe da: ez da arrazoirik gabeko administrazio jarduera, hau da, ez da eskuhartze berria eragiten duen irregulartasuna duen jarduera.

Horri dagokionez, erakunde honen oinarrizko edukien artean, hiritarrak agintekerietatik nahiz botere gehiegikerietatik eta herri administrazioen arduragabekerietatik babestea aipa daiteke. Baldintza horietan oinarrituz (gure iritziz, kasu honetan ez da halakorik gertatzen), gure funtzioak garatzeko aukera dugu.

Horrela, erakunde hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Lanbidearteko Akordioan oinarritzen da (1995eko urriaren 25eko EHAA); era berean, arlo horretan sektore publikoko langileei zuzendutako heziketa ekintzak daude, eta horiek Herri Administrazioetako Heziketa Etengabeko Akordioan oinarritzen dira (1997ko otsailaren 19ko EAO).

Akordio hori aplikatzeko (sinatzen den bigarrena), 2000ko otsailaren 3ko Estatuko Aldizkari Ofizialean aipaturiko ekitaldirako laguntzen deialdia argitaratu zen.

• Emaitza

Egindako oharretan oinarrituz, eta erreklamaziogileari horiek aurretiaz jakinarazi ondoren, amaitutzat jo dugu gai horretan izan dugun eskuhartzea, ez baitago inolako irregulartasun administratiborik.

# 13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

## 13.1. SARRERA

Hirigintzak eta etxebizitzak 92 kexa eragin dituzte, eta horrek kexa guztien %9,8 egiten du, erakunde honek egindako lanari dagokionez.

Eragindako administrazioaren arabera, kexak ondoren adierazten den moduan banaturik daude:

- Euskal Herriko Administrazio Nagusia (Eusko Jaurlaritza ..... 36
- Foru Administrazioa ........................................................ 2
- Toki Administrazioa ........................................................ 59

Azpi arloen arabera, hauxe dugu:

- Etxebizitza ........................................................................ 40
- Hirigintza diziplina eta aurria ........................................... 19
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ........................................................................ 10
- Hirigintza Antolamendua ................................................ 10
- Hirigintza Kudeaketa ........................................................ 4
- Eskuragarritasuna ............................................................ 3
- Bestelakoak ...................................................................... 3
- Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzuna ........... 3

Administrazioak lurraldeko hirigintza antolaketan izandako eskuhartzeak hiritarren erreklamazio asko eragin ditu, (era askotako erreklamazioak), planeamenduari eta hirigintza kudeaketari buruz. Hala eta guztiz ere, esangura berezia izan dute toki administrazioei loturiko hirigintza diziplinaren erabilerak eragindako arazoek.

Hirigintza planeamenduari buruzko kexetan, administrariek zalantzan jartzen dituzte euren jabetzako lurraldeetan lorturiko kalifikazio motaren egokitasuna eta ezarritako hirigintza aprobetxamendua. Halako arazoetan, berriro esan behar dugu toki administrazioek zuhurtziarakotasun eremu zabala dutela, euren antolaketa planak edo arau subsidiarioak egiteko eta diseinatzeko orduan, udalerri baten hirigintza plangintza ezartzeko dituzten eskumenen barruan. Hori, batzuetan, ez dator bat lurraldeen jabeen iritziarekin; izan ere, horiek ez dituzte beteta ikusten euren helburuak, euren jabetzari erabilera batekin edo bestearekin emandako kalifikazioarekin, udalerrian garaturiko irizpide orokorren arabera. Halako arazoak, hiritarren interesetan eragina izan dezaketen arren, guztiz bat datoz udalerriko antolamenduarekin; dena den, akordioek arrazoituak eta arrazonamendu objektiboen araberakoak izan behar duten arren, erabakia Udaletxeko gobernu organoek hartu behar dute. Elkarte ekologista batzuek erakunde honi planteaturiko kasu batek zalantzan jartzen zuen Barakaldoko Galindo ibaiaren ibarrean dagoen hezegune baten babesik eza, bai Barakaldoko Antolamenduko Plan Orokorrean eta bai Ibarreta-Zuloko sektoreko plan partzialean zuen babesik eza alegia; izan ere, arau horiek ez zuten inolako babes berezirik jasotzen hezegune horretarako. Gainera, indarreko Lurralde Antolamenduko tresnetan ez zegoen hezegune hori babesteko betebeharrik edo hitzarmenik, ezta Lurralde Antolamenduko Jarraibideetan edo EAEko

ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ere. Antolamendu tresna horietan ezer ezarrita ez badago ere, Arartekoak administrazio eskudunen irizpidea jakiteko ahalegina egin du, bai udalerriko hirigintza antolamenduari eta bai inguru naturalaren babesari dagokionez, Galindo ibaiaren ibarrak duen ingurumen nahiz ekologi balioari eta etorkizuneko antolamendurako dauden aurreikuspenei buruz.

Hirigintza kudeaketari dagokionez, lurzoruaren jabe txikien kontsultak eta kexak oso ugariak dira; egin-eginean ere, horiek nahasita daude berriro sailkatzeari eta konpentsazio proiektuei loturiko espedienteetan, horretarako sortutako konpentsazio kidetzat. Kasurik ohikoenetarikoa erakunde honetara honako hau gertatzen denean datozen pertsonena da: berriro sailkatzeko edo konpentsatzeko proiektu batean nahasita egon eta proiektu horrek euren ohiko etxebizitzaren eraispena ezartzen duenean, etxebizitza hori antolamendutik kanpokotzat hartuta. Sarri askotan, higiezinari buruz egindako balorazioarekin ez da lortzen jabeak gerora eraiki nahi diren etxebizitzetariko batean berriro sartzeko aukera. Lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Batégineko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, etxebizitza batean berriro sartzeko beharrezkoa da administrazioak desjabetzapenez jardutea; hala eta guztiz ere, hirigintza jarduerararen helburua hirigintza planen kudeaketa bateragarria izan behar da hiritarrek etxebizitza duina nahiz egokia lortzeko duten eskubidearekin, eta Arartekoaren helburua horixe lortzea da.

Sarritan, kexetan zalantzan jartzen dira udaletan obra lizentziari emateari buruz lortzen diren akordioak. Halako kexak urtetik urtera egoten dira, eta sarritan, auzokoen arteko desadostasunei lotutakoak izaten dira. Aipagarriak dira, halaber, hirigintza diziplinaren eremuan, auzoko batzuk egiten dituzten kexak, Udaletxeak euren eskabideari kasu ez egiteari buruz (hirigintza arautegia urratzearen ondoriozko salaketa tramitatzeko eskatu diote Udaletxeari).

Etxebizitzaren azpiarloari dagokionez, hiritarren kexak, batik bat, etxebizitza sustatzeko politikak kudeatzeko moduari buruzkoak izaten dira, Eusko Jaurlaritzak eta toki administrazio batzuek behin eta berriro erabiltzen dituzten politikei buruzkoak, hain zuzen ere.

Arlo honetan kexa kopuru handia dago, eta beraz, kexa horiek nolabaiteko garrantzia dute erakunde honen lanean. Izan ere, hiritarrentzat oso garrantzitsua da etxebizitza duina lortu ahal izatea; era berean, botere publikoek eskatzen dituzten sustapenen bolumenaren gorakada iraunkorra ere kontuan hartzekoa da. Horrekin batera, etxebizitzen prezioa gero eta garestiagoa da, gure Erkidegoko udalerri guztietan, batez ere hiru hiriburuetan, horietan 2000. urtean inoizko preziorik handienak egon baitira.

Horri dagokionez, aipagarria da Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak urtero egiten duen ahalegina; ahalegin hori sustapen publiko edo pribatuko etxebizitzen sustapen kopuru handian gauzatzen da, horien prezioa tasatua eta merkatuko arauek ezarritakoa baino txikiagoa izaten baita. Aurten "Etxebizitza Plan Zuzentzailea, 2000-2003" izenekoa aurkeztu da sektore honen antolamendurako tresnatzat, biztanleek etxebizitzak errazago eskuratzeko.

Erakunde honek arlo honetan esku hartzea eragiten duten arazo nagusiak honako hauek dira: babes ofizialeko etxebizitzen eta etxebizitza sozialen adjudikaziorako prozesuak lortzeko irizpideak, horien eraikuntzatik sortutako akatsak nahiz gabeziak eta, azkenik, babes ofizialeko etxebizitzen araubide juridikoa bera, batez ere euren kalifikazioa galdu baino lehen modu askean saltzeko aukera.

Babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzak izaten dituen akatsak, gehienetan, bigarren mailakoak izaten dira eraikuntzari dagokionez, eta lotura handiagoa izaten dute etxebizitzen barruko akaberekin. Etxebizitzen adjudikatariek edo erabiltzaileek, batez ere, hezetasunak egotea, parkeak altxatuta egotea, arrakalak egotea, berokuntza instalazioek akatsak edukitzea eta halako gabeziak planteatzen dituzte. Ohiko prozedura, beste alde batetik, auzokoek etxebizitza-ordezkaritzan edo VISESA enpresan aurkezten duten erreklamazioen ostean hasten da (sustatzailea nor izan den kontuan hartuz). Ikuskapen bisitaldia egin ondoren, sustatzaileari edo enpresa eraikitzaileari aurkituriko akatsak konpontzeko eskatzen zaio. Sarri askotan, egindako konponketak kontrolatzeko prozedura orokorra behar izaten da. Era berean, akatsen izaeraren beraren eraginez, apurka-apurka, gabeziak agertzen dira. Akatsen kudeaketa eta erreklamazioa errazteko, elkarrizketa bultzatu beharko litzateke, jabe edo auzo elkarteen bitartez.

Halaber, babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko irizpideei buruzko kexak ere jaso ditugu. Orain ere, araudiak ezin ditu aurreikusi etxebizitza eskatzaileek aurki ditzaketen gora-behera guztiak, nahiz eta horretarako ahalegina egin; horren eraginez, aurkitzen ditugun egoera jakin batzuetan araudia ez da egokia eta zuzena izaten. Horretarako, eskaturiko urtean gutxieneko diru-sarrerak erakusten ez dituzten hiritarrek egindako gomendio orokorren barruan jasotako kasua gogoratzea baino ez dago; halako kasuak, bestalde, hiritarrak soldadutza edo, bestela, horren ordezko gizarte prestazioa ematen egotearen ondorioz gertatzen dira. Erakunde honek, orain ere, hauxe iradokitzen die botere publikoei: segurtasun juridikoaren printzipioarekin bateragarria den interpretazioa erabiltzea, edo, bestela, malgutasuna izatea, egoera araudian sartzeko orduan.

Era berean, hiritar batzuek zalantzan jartzen dute babes ofizialeko etxebizitzen salmentaren prezioari muga batzuk ezartzea, baita horiek euren kalifikaziotik ateratzeko ezintasuna ere, deialdirako ezarri den epea igaro ez bada. Arartekoaren iritziz, botere publikoek sustaturiko etxebizitza horien helburua zehatza da: hiritarren ostatuak sortutako oinarrizko beharrizana betetzea eta, azken batean, etxebizitza duina lortzeko eskubidea betetzea. Hori dela eta, babesturiko etxebizitza bat lortzen duten pertsonek onura batzuk dituzte, esate baterako, prezio mugatua ordaintzea, salbuespen fiskalak lortzea, interes motaren sorospena eta fondo galdura egindako finantziazioa. Hori dela eta, hiritar horiei bermeak gauzatu beharra jakinarazi diegu; horrela, babes ofizialeko etxebizitza baten hobariak dituzten hiritarrek ez dute bidegabeko aberastasunik lortuko, kasuan kasuko etxebizitza merkatuko prezioan saltzearen ondorioz, prezio hori babes ofizialeko etxebizitzena baino nahiko handiagoa baita. Kasu hau, beste alde batetik, Plan Gidarian oinarrituz salbutzen da (halako etxebizitzak lortzeko baldintzen oraintsuko arauketan jasotako planak), birgaikuntzarako laguntzak lortzeagatik kalifikaturiko etxebizitzetarako. Halako etxebizitzak saldu egin ahal izango dira, lorturiko laguntza guztiak aurretiaz itzulita.

Eskuragarritasunaren arloan, arautegiaren garapen teknikoa gertatu da, eskuragarritasun baldintzei buruzko arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretuaren bitartez; horren azterketa, berriz, minusbaliotasuna duten pertsonen arazoei buruzko atalean egiten da.

## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Hirigintza diziplina eta aurria

⇒ *Balkoia ixteko hirigintza lizentzia emateari buruz (639/2000)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoarengana jo zuen bere etxebizitzako balkoia ixteko hirigintza lizentzia ematearen ukapena berriro aztertzeko. Balkoia ixteko eskabidea, bestalde, etxebizitzaren segurtasuna bermatzeko egin zuen, eta, beti ere, material gardenak erabiltzeko asmoa zuen.

• Azterketa

Hirigintza lizentzia baimen egintza arautua baino ez da; bertan, administrazioak egin nahiz legeztatu behar den obra edo jarduera xedapen arautzaile aplikagarrietara egokitzen den ala ez egiaztatu behar du. Horrela, ez du onartu behar halako xedapenen aurkako lanen bat egiteko lizentzia, eta lizentzia hori berriro emango du kasuan kasuko obra xedapen horietara egokitzen denean.

Kexa honi tramite egokia emateko, Arartekoak hauxe eskatu zion Udaletxeari: eskaturiko lizentzia ez onartzearen arrazoi zehatzak jakitea. Halaber, halako obrak egiteko aukera baztertzen duten hirigintza planeamenduko edo legeko xedapenei buruzko informazioa ere eskatu zion. Emandako erantzunean, Udaletxeak jakitera eman zuen eskabidea ez onartzearen arrazoiak fatxadaren aldaketa eta apaindura publikoa kontuan ez hartzea zirela. Halaber, Udaletxearen iritziz, Andoaineko Arau Subsidiarioek ez dute balkoien itxierarik baimentzen, horrek handitu egiten baitu eraikitako azalera, eta handitze hori ez dago ezarrita eraikinaren eraikuntza lizentzian; horrek, gainera, hirigintza aprobetxamendu handiagoa ahalbidetzen du.

• Emaitza

Itxierarako lizentzia ez onartzea, bestalde, oraingo antolamendu juridikoaren araberakoa da. Hori dela eta, Arartekoak amaitutzat eman zuen gai honetako eskuhartzea.

### B) Hirigintza antolamendua

⇒ *Egoitza erabileretarako baimena, itsas-lehorreko jabaria babesteko zorraren barruan (826/2000)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek jakitera eman zigun betearazketa unitatea aldatu egin zutela Lekeitioko Udaleko Arau Subsidiarioetan, eta hori bateragarria zela itsasertzei buruzko araubidearekin; izan ere, beraren iritziz, horrek egoitzazko erabilera ahalbidetzen zuen, itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zor-aldearen barruan. Era berean, arrazoi horrexetan oinarrituz, zalantzan jartzen zuen Ingurumen Sailburuordetzak enpresa sustatzaile bati alde horretan eraikuntza obrak egiteko eman zion baimena.

• Azterketa

Erakunde honek Lekeitioko Udaletxera jo zuen, planeamendua aldatzeko egin zituzten tramiteak jakiteko; era berean, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailera ere jo zuen, ondokoari buruzko azalpenak lortzeko: ea enpresa sustatzaileari baimena zergatik eman zioten, itsas-lehorreko jabaria babesteko zor-aldearen barruan aurkeztutako eraikuntza proiektua egiteko.

Lehenengo eta behin, Lekeitioko Udaletxeko jarduerari dagokionez, gure ustez udalerriko Arau Subsidiarioen aldaketak (egoitzazko betearazketa unitateari dagokionez), itsasertzaren alde batean egindako antolamendua kontuan hartuz, ez zuen Ingurumen Ministerioaren manuzko txostenik, eta txosten hori ezinbestekoa zen, Itsasertzei buruzko 22/1988 Legeko 112.a) eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Beste alde batetik, Ministerioaren Aginduaren bitartez, Estatuko administrazioak onetsi egin zuen behin betiko zedarritzea, Lekeitioko kostaldeko tartean; bertan, itsasertzaren lerroa eta babeserako zorraren lerroa finkatu ziren. Horrela, Euskal Herriko Itsasertzen Mugapeak plano ofiziala bidali zuen Udaletxera, babes-zorraren lerroa Ministerioaren 1998ko irailaren 30eko Aginduan behin betiko onetsitakoa zen ala ez egiaztatzeko. Arau Subsidiarioen aldaketan ezarritako antolaketaren eta erabileren barruan ez zen kontuan izaten egoitzarako edo gelarako eraikinen debekua, babes-zorraren aldean (Itsasertzei buruzko Legeko 25.1 A) artikuluan adierazitako debekua); horrenbestez, alde hori modu argi eta nabarian okupatu zen, aurreikusitako eraikinarekin. Gero, lurraldeko jabeek eskatuta, alde horretako beste plano bat eskatu zen; bertan, itsasertza aldatzen zen, itsasertz hori gehienez bi metro atzeratzen zuen haitz-plataforma bat zegoela pentsatuta. Hala eta guztiz ere, kasu hau aztertzeko orduan, erakunde honek Lekeitioko Udaletxeari aditzera eman zion Ministerioaren 1998ko irailaren 30eko Aginduan onetsitako zedarritzea soilik hartu behar zuela baliozkotzat, berori baita orain dagoen bakarra. Horri dagokionez, berori onesten duen egintzak legezkotasun eta baliozkotasunaren ustezkotasuna dauka, antolamenduak administrazio egintza guztiei ematen dien ustezkotasuna. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da arau subsidiarioen aldaketa itsasertzei buruzko legean eta onetsitako zedarritzean ezarritakora egokitzea.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak Arartekoari bederatzi etxebizitza eta garaje eraikitzeko baimena jakinarazi zion, horretarako oinarritzat Euskal Herriko Itsasertzen Mugapeak emandako txostena hartuta; txosten horren bidez, sustatzaileek plano ofizialaren itsasertzaren lerroaren aurrean egindako zatiaren neurketa nagusiarazten da; izan ere, *"modu hertsian aplikatuz gero, titularren jabetza eskubideei kalte egiteko arriskua dago"*. Halaber, Sailaren ustez, baimenak kontuan hartzen ditu Itsasertzari buruzko Legearen oinarrizko printzipioak; egin-eginean ere, hirigintza jarduera honen bidez, desagertu egiten da babes-zorreko aldearen barruan antolamendutik kanpo dagoen eraikina. Informazio hori ikusita, Sailari hauxe jakinarazi genion: Ministerioaren 1998ko irailaren 30eko Aginduaren bidez, behin betiko zedarritzea onesten dela, Lekeitioko kostaldeko bitarte horretan; izan ere, bitarte horretan itsasertzaren lerroa eta babes-zorraren lerroa finkatzen dira, betearazketa unitate honi dagokionez. Horrela, kontuan hartu behar dugu zedarritzeko administrazio ebazpenaren balio juridikoa, administrazio egintza horrek Ingurumen Sailaren nahia eragiten baitu (kasu honetan, administrazio eskuduna, Kostaldeei buruzko 22/1988 Legearen 11-16 artikuluetan eta Kostaldeei buruzko Arautegiaren 9-19 artikuluetan arauturiko prozeduran ezarrita dauden

bermeen bitartez). Hori dela eta, Ministerioaren 1998ko irailaren 30eko Aginduak onetsitako zedarritzeak legetasun eta baliozkotasunaren ustezkotasuna dauka, antolamendu juridikoak administrazio egintzei onesten diena. Beraz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari berriro esaten diogu herri administrazioek aintzat hartu behar dutela administrazio egintza hau, eta bertan ezarritakoa bete behar dutela; bestela, ordenamendu juridikoak dituen bideak erabili beharko dituzte egintza honen errekurtsorako edo berrikuspenerako. Ezin da, inondik inora ere, horren aplikazioa erabaki ala ez, beste ezaugarri batzuetan oinarrituz, esate baterako, alderdi baten txostenean oinarrituz (kasu honetan gertatzen dena); izan ere, administrazio eginera hori Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasotako segurtasun juridikoari buruzko printzipioaren aurkakoa da. Beste alde batetik, sail honek egindako txosten teknikoan berariaz onartzen zen eraikinak hauxe okupatzen zuela: 25 $m^2$ inguru, oinplanoaren %10, bigarren solairuko terrazako 95 m, eta beste 35 $m^2$ garajeak egiteko. Txosten horretan ikusten denez, ingurumen administrazioak (Autonomia Erkidegokoa) onartu egiten du babes-zorraren barruan sartu dela, Hirigintza Antolamenduari edo Kudeaketari loturiko arrazoietan oinarrituz (hain zuzen ere, lurren lagapena, etorkizunean itsasertzetik doan pasealeku publikoa egiteko). Hirigintza mailako onarpen hori, hala eta guztiz ere, ez da bateragarria honako honekin: *"itsasertzaren osotasuna eta kontserbazio egokia segurtatzea"* edo *"itsas-lehorreko jabari publikoa osatzen duten ondasunen zentzuzko erabilera bermatzea, horien izaera, helburuak eta paisaiaren, inguramenaren nahiz ondare historikoaren errespetua kontuan hartuz"*. Hori guztia Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legean jasota dago.

• Emaitza

Hori dela eta, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpena berrikusteko gomendioa eman zitzaion; izan ere, baimen horretan ezarritakoaren arabera, babes-zorreko aldean eraikuntza erabilera zegoen, kostaldeei buruzko 22/1988 Legeko 25.1a artikuluan ezarritakoaren aurka. Era berean, Lekeitioko Udaletxeari txosten bat bidali zitzaion Arau Subsidiarioei egindako aldaketa egokitu egin behar zuela esanez; bestela, kostaldeei buruzko legeko eta onetsitako zedarriko arauetara egokitu beharko zituen planeamenduko tresnak.

## C) **Etxebizitza**

⇒ *Minusbaliatuen taldeak gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzeko zailtasuna, Foru Ogasunetik lortzen duten errenta hobariarengatik (2117/1998 eta 434/1999)*

• Erreklamazioa

Minusbaliotasuna duen herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egindako jardueraren aurka. Kexaren arrazoia, bestalde, babes ofizialeko etxebizitzen sustapenak lortzeko eskatzen diren (arautegia) baldintza ekonomikoak egiaztatzeko moduari buruzkoa zen.

Hain zuzen ere, PFEZren zerga-onarria eskatzaileen errentaren erreferentetzat erabiltzea euren interesen aurkakoa da, taldetzat duten interesen aurkakoa. Halaber, euren uztez, erabaki horren eraginez minusbaliatuen taldeari tratamendu berezia

ematen zitzaion babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen zituzten gainerako hiritarrei zegokienez.

Hori, beste alde batetik, tokiko Ogasunek zerga-onarriaren kalkulua egiteko duten moduaren eraginezkoa da. Zerga-onarriak, batez ere, kontuan izaten ditu zergadunek lan-errenten ondorioz lortzen dituzten diru-sarrerak. Kantitate horretatik, %5 zergarintzen da, nekez justifikatzeko moduko gastuen eraginez, adierazpena egin duen pertsonak egiaztaturiko minusbalioa duenean izan ezik, kasu horretan %15eko gorakada egoten baita diru-sarrera gordinen guztizkoari dagokionez. Murrizketa horrek (horren jatorria hiritar talde honetako onura fiskalean dago), itxuraz diru-sarrera kantitatea murriztean, nahi ez diren ondorioak eduki ditzake beste zenbait arlotan, esate baterako, etxebizitza politikan; izan ere, gainerako eskatzaileen besteko diru-sarrerekin halako pertsonek ezin dute egiaztatu Etxebizitza Sailak eskatzen duen gutxieneko errenta.

• Azterketa

Gai horri dagokionez, Arartekoak txostena eskatu zion sail horri; halaber, koordinazio printzipioaren araberako interpretazioa egiteko aukera ere eskatu zion, printzipio horrek botere publikoen jarduera arautu behar baitu. Hala eta guztiz ere, sail horren iritziz, hiritarrek arautegi fiskalaren arabera egiaztatu behar dituzte euren diru-sarrerak.

Hori dela eta, zerga-onarria datu fiskala dela azpimarratu zen; horren bitartez, zerga-egintza deklaraziogileen errentaren zenbatekoaren arabera kualifikatzen da, zerga-zorra finkatzeko balio duen aldian. Hala ere, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak zerga-onarriaren datua baino ez zuen kontuan izan; horren eraginez, pertsona talde batek, gutxieneko diru-sarrerak baino errenta handiagoa eduki arren, ez du eskaturiko gutxienekoa egiaztatzen, aitorpenean Foru Ogasunak errentaren %15 zergarintzen baitie. Horrela, errentarik txikiena duen minusbaliatu taldeak, foru Ogasunak ezarritako neurri positiboaren eraginez, ezin du parterik hartu sail horrek antolaturiko etxebizitza-politiketan. Ezin dugu ahaztu, bestalde, errentaren hobaria foru Arautegiak egindako ustezkotasuna dela; horren bidez, gastuak gainerako hiritarrenak baino handiagoak direla ulertzen da.

Beste alde batetik, 1997ko azaroaren 12ko aginduaren 4.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, sailak eskatzaileen benetako diru-sarrerak egiaztatzeko behar dituen frogabide guztiak eskatzeko aukera dauka. Hori dela eta, Arartekoak hauxe iradoki zion Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari: Minusbalioa duten eskatzaileen kasuan benetako diru-sarrera kontuan hartzea, hau da, %5eko murrizte orokorra egitearen ondoriozko zerga-onarria kontuan hartzea, edo foru Ogasunak aintzat hartzea, hobari berezi hori kontuan hartu beharrean. Neurri hori betetzeko, sail horrek kudeaketa ahalegin handiagoa egin behar du; hala eta guztiz ere, gure iritziz kontuan hartu beharko litzateke, aintzat hartuta ekimen horrek eragindako hiritar taldea txikia dela, eta talde horren integrazio handiagoa lortzeko.

• Emaitza

Sailak emandako erantzunean, aplikatu beharreko legeria baino ez da jasotzen, beraz, horri buruz egin dugu iradokizuna kontuan hartzeko borondaterik ez dagoela ikusita, baina kontuan hartuta Sailak deialdiko oinarrien arabera eta gainerako lege xedapen guztien arabera jardun duela, agortutzat jotzen ditugu jarduteko ditugun aukerak.

### ⇒ *Etxebizitzak birgaitzeko laguntzen kontrola (474/1999)*

• Erreklamazioa

Jabe elkarte batek hauxe planteatu zion erakunde honi: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak ezeztatu egin zituela bere jabetzako eraikin batean egindako birgaikuntza baterako emandako laguntzak. Ezeztatuaren helburua, bestalde, ez zen birgaikuntza lanak ezarritako epean ez bukatzearen arrazoiak ematea. Hala eta guztiz ere, erreklamaziogileek alegaturikoaren arabera sailari jakitera eman zizkioten obrak ezarritako epean bukatu ezin izanaren arrazoiak, eta arrazoi horiek, kasu guztietan, obrak egiteko ardura zuen kontratistari leporatzeko modukoak ziren.

• Azterketa

Lehenengo eta behin, eskabidea egiteko egunean laguntza edo dirulaguntza emateko jarraitu behar zen prozedura uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuan jasota zegoen. Bertan ezarritakoaren arabera, birgaikuntza obrak ezarritako epean hasi behar ziren, eta ezin zuten lau hilabetetik gorako etenaldirik eduki (kasu horretan, betearazketa epearen luzapena onartzen zen) baldintza hori ez betetzeak, beste alde batetik, finantzaren ezeztapena eragiten zuen, *"ezinbesteko kasuak eta erabiltzaileari leporatzeko modukoak ez ziren arrazoiak zeudenean izan ezik"*. Planteaturiko kasuan, lanak ezarritako epean egin ziren. Hala eta guztiz ere, obrak ez ziren behar bezala egin eta hortxe sortu zen arazoa; beraz, obrak kontratatu zituen elkarteak salaketa jarri zuen enpresa arduradunaren aurka, itundutako baldintzak ez betetzearen ondorioz. Horrexegatik ezin izan zen bete birgaikuntza, eta sailean ez zen horren amaiera justifikatu. Sailera bidalitako agirietan eta informazioan, agerian geratzen zen obrak egiteko atzerapena ezin zitzaiela erreklamaziogileei egotzi, gainontzeko bati baizik. Kasu hori Sailak berak ere onartu duenez, 189/1990 dekretuak ezarritako salbuespenen barruan sartzen da. Horrela, laguntzak ukatzeko erabakiaren oinarrizko arrazoiak obren etenaldiaren zergatiak justifikaturik ez egotea zela kontuan hartuz, hori ez zen egokitzen uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuaren prozedurara, birgaikuntzaren etenaldiaren zergatiak lehendik azalduta baitzeuden.

Nolanahi ere, dirulaguntzak epe jakinaren menpe egon behar dira, diru publikoa kontrolatzeko ahalgoak erabili ahal izateko, horiek ezin baitira inondik inora ere *sine die* luzatu. Horrenbestez, araudiak ezarritako epeak igaro ondoren, obra horiek gauzatzeko bideratu ez diren dirulaguntzak eurok eman zituen administrazio organora itzuli beharko dira.

Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenak ezarritakoaren arabera, proportzionaltasun eta ekitate irizpidea aplikatu behar da, dirulaguntzak itzultzeko orduan; izan ere, justifikazio eza diruz lagundutako pertsonei leporatzeko modukoa ez denean (kasu honetan horixe gertatzen da), itzultze hori obrak egiteko bideratu ezin den dirulaguntzaren zati proportzionalaren araberakoa izan beharko da.

Hori guztia dela eta, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari gomendio bat egin zitzaion, birgaikuntzarako emandako dirulaguntzak ukatzen dituzten ebazpenak ezeztatzeko; egin-eginean ere, obren etenaldia behar bezala justifikaturik zegoen eta atzerapenaren arrazoiak ez ziren inondik inora ere adjudikatariei leporatzeko modukoak. Gero, obren amaiera egiaztatzeko denbora luzea kontuan hartuz, Sailak

laguntzak itzultzeko beste espediente bat tramitatu behar zuen; bertan, laguntzak itzultzeko eskatuko zen bakarrik, gauzatu gabeko aurrekontuari dagokion proportzioan itzuli ere.

• Emaitza

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak erakunde honi jakinarazitakoaren arabera, gure gomendioa betetzeko, espedienteetan birgaikuntzarako emandako dirulaguntzen ezeztapena ezeztatuko zuen.

⇒ *Gizarte etxebizitzetan dauden akatsak (286/2000)*

• Erreklamazioa

Auzo-elkarte batek VISESAren jarduera eza salatu zuen Arartekoarengana jota; izan ere, enpresa horrek ez zuen ezer egin elkarteko garajetan zeuden iragazpenak konpontzeko, eraikinaren estalkian euri-urak biltzeko arazoa konpontzeko eta ur iragazpenak konpontzeko (Bilboko babes ofizialeko etxebizitzen sustapen bateko esekitokietan).

• Azterketa

Horri dagokionez, administrazioek babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzaren ondoriozko akatsak edo gabeziak kontrolatzeko eta ikuskatzeko dituzten aukerak argitu behar ditugu. Esate baterako, eraikitako eraikinak errespetatu egin behar ditu eraikuntzari buruzko oinarrizko arauak, baita Eusko Jaurlaritzak 1994ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez diseinurako onetsi zituen ordenantzak ere; horiek babes ofizialeko etxebizitzek diseinuari dagokionez bete behar dituzten baldintzak arautzen dituzte. Hala eta guztiz ere, administrazioak ezin dio eraikuntza soluziorik eskatu egileari; baldin eta, goian aipatutako arautegiaren barrukoak ez izanda ere, zenbait arazo konpontzeko balio badute, adibidez, fatxadako zikinak edo euri-ura esekitokietara iristea. Kasu honetan, halako arazoak konpontzeko hobekuntzak jabeek eurek egin behar dituzte.

Kexa horri dagokionez VISESAk txosten bat bidali dio Arartekoari; bertan adierazitakoaren arabera, enpresa horren ustez, garajeetako hezetasunei loturiko akatsak VISESAk konpondu behar ditu eta, beraz, arazo hori konpontzeko obrak hasita daude. Beste alde batetik, enpresak berak dioenez, euri-urak eraikinaren fatxadan erortzea eta ura esekitokietara sartzea, berriz, ez dira VISESA enpresak konpondu beharreko arazoak, ezta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak konpondu beharrekoak ere.

• Emaitza

Horrela, garajeko hezetasunak konpontzeko bitartekoak jarri direla kontuan hartuz, eta gainerako obrak edo hobekuntzak jabe-elkartearen erantzukizunekoak direnez gero, amaitu egiten dugu arazo horretan daukagun eskuhartzea.

⇒ *Hirigintza kudeaketan berriro ostatua lortzeko dagoen eskubidea (369/2000)*

• Erreklamazioa

Jabe elkarte batek, bere legezko ordezkariaren bitartez, Arartekoarengana jo zuen Mungiako Udaletxeak behin-behinean onetsitako lursailtze proiektu baten berri emateko.

Zenbait jarduera adierazi dituzte, besteak beste, eurak bizi diren higiezinaren eraispena, udalerriko Arau Subsidiarioetan antolaketatik kanpokotzat agertzen baitzen.

Proiektu horren barruan, erreklamaziogileen ustez, euren erakinaren balioa benetako balioaren azpitik kalkulatu zen. Era berean, proiektu horretan ez da kontuan hartzen jabeak laster eraikiko diren etxebizitzetariko batean berriro sartzea. Horri dagokionez, hauxe alegatzen zen: familia horiek (orain eraikin horretan bizi direnak) errenta mugatua zutela eta, kalte-ordainaren balioa kontuan hartuz, ezin zutela etxebizitza berririk aurkitu.

• Azterketa

Gai horri dagokionez, Arartekoak dituen aukerak Euskadiko herri administrazioek egindako gehiegikeriak kontrolatzera mugatzen dira (botere gehiegikeriak eta akatsak). Oraingo antolamendu juridikoan, hiritarrak beste eraikin batean sartzea kasu bakarrean onartzen da: administrazioak planeamenduaren kudeaketa desjabetzearen bidez ezartzen duenean, lurzoruari buruzko 1992ko Legearen Testu Bateginaren laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera.

Nolanahi ere, erakunde honek gogoeta batzuk bidali zizkion Udaletxeari hirigintza jarduerari buruz; izan ere, hirigintza jarduera horren helburua hirigintza planen kudeaketa eta hiritarrek etxebizitza duina nahiz egokia lortzeko duten eskubidea bateratzea da. Horrela, Mungiako Udaletxeari informazioa eskatu genion, aipaturiko eskubide horrekiko soluzio bateragarria aurkitu ahal izateko.

Udaletxe horrek emandako erantzunean, etxebizitzen balorazio errealagoa lortzeko nahia ikusten da, kalteturiko alderdi guztien interesak defendatzeko asmoz. Era berean, Udaletxeak adierazitakoaren arabera, erreklamaziogileei babes ofizialeko etxebizitzak lortzeko aukera eskaintzeko asmoa zuen; horretarako ez zuen eraikina eraitsiko, harik eta unitate horretako etxebizitzak eta hirigintza erabat eraikita egon arren.

• Emaitza

Beste alde batetik, Udalak hartutako konpromisoa ikusita, gai horretan izandako eskuhartzea etenda utzi genuen, administrazio horrek antolamendu juridikoaren arabera jardun zuelakoan.

*⇒ Babes ofizialeko etxebizitza bat epea iritsi baino lehen kalifikaziotik kanpo ateratzeko aukerari buruz (562/2000 eta 717/2000)*

• Erreklamazioa

Zenbait hiritarrek hauxe planteatu diote erakunde honi: indarreko marko juridikoa aplikatuz babes ofizialeko etxebizitzak kalifikazio horretatik atera eta merkatu askean saltzeko gaur egun dauden zailtasunak, hau da, etxebizitzari buruzko araudian etxebizitzak kalifikaziotik ateratzeko ezarrita dagoen epeari itxaron gabe eta administrazioak lehentasunezko lorpen eskubidea erabili barik.

• Azterketa

Lehenengo eta behin, gure ustez, arazo hau ez da administrazioaren jarduera irregularra, ez baitira urratzen babes ofizialeko etxebizitzak kalifikaziotik kanpo uztea edo saltzea arautzen duten arauak.

Nolanahi ere, saltzeko muga batzuk eskatzea justifikaturik dago etxebizitza horien helburuan bertan. Botere publikoek sustaturiko etxebizitza horien helburua, beste alde batetik, hiritarren ostatu emateak eragindako oinarrizko beharrizana betetzea da, eta, azken batean, etxebizitza duina lortzeko eskubidea betetzea, beharrizanik larriena duten pertsonei laguntza eta erraztasunak emateko (egoera ekonomikoak eta famili arazoek eragindako beharrizana). Horretarako, halako etxebizitza bat lortzen duten pertsonek hobari batzuk dituzte, esate baterako, prezio mugatua ordaintzea, salbuespen fiskalak lortzea, interes-motaren sorospenak eta fondo galdurako finantziazioa ...; horrek guztiak, etxebizitza duina lortzeko aukera ematen die, merkatukoak baino baldintza nahiko hobeagoetan. Ez da ahantzi behar, etxebizitzen prezio eskuragarri horretara iristeko, herri botereek ahalegin ekonomiko handia egin behar dutela.

Horrenbestez, zentzuzkoa da bermeak eta kontrolak ezartzea, babes ofizialeko etxebizitza baten onurak dituzten hiritarrek bidegabeko aberasterik ez lortzeko, etxebizitza hori merkatuko prezioan salduta, prezio hori gehienetan babes ofizialeko etxebizitzen prezioa baino nahiko handiagoa baita, Euskadiko herri eta hiririk gehienetan.

Bermeetariko bat, bestalde, administrazioak eskuratzeko duen eskubidea da, Eusko Legebiltzarreko 7/1988 Legeak sartutako eskubidea. Sistema horren helburua, bestalde, babes ofizialeko etxebizitzak euren berezko prezioa baino prezio handiagoan ez saltzea da; bestela, etxebizitza hori saltzen dutenek legez kontrako gainbalioa lortzen dute, etxebizitza hori erosteko orduan ordaindu dutenari dagokionez.

Horrela, etxebizitza hori administrazioak finkaturiko prezioan saldu beharra ez da legearen aurkakoa; aldiz, betebehar horrek legea betetzea eragiten du, denon interesaren aurkako egoerak saihestuz.

Nolanahi ere, etxebizitza bat erostean erosleek aurretiaz dakizkiten baldintza batzuk sinatzen dira eta horiekiko adostasuna adierazi behar izaten dute. Baldintza horietako bat, izan ere, babes-kalifikazioa hogei edo hogeita hamar urte bitarteko epean ezartzea da. Arau horren salbuespena, bestalde, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari babes ofizialeko etxebizitza kalifikazio horretatik kanpo uzteko eskatzea da. Eskabide hori *"zuhurtziarakotasunez"* eman ahal izango da; kasu horretan eskatzaileak itzuli egin beharko du hobari fiskalen, tasen, dirulaguntzen eta jasotako gainerako laguntzen zenbateko gaurkotua, eta kasuan kasuko interesak ere itzuli egin beharko ditu, indarreko atzerapen interesen arabera. Zuhurtziarakotasunak esan nahi du Administrazioak berak erabakitzen dituela halako etxebizitzak kalifikazio horretatik kanpo ateratzearen arrazoiak, denon interesa eta ez norbanakoena kontuan hartuz.

• Emaitza

Ohar horiek guztiak eginda, Arartekoak ondorioztaturikoaren arabera, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren jardueraren helburua antolamendua betetzea da, baita babes ofizialeko etxebizitza horien helburua betetzea ere. Horrenbestez, amaitutzat jo genuen gure eskuhartzea.

# 14. ZENBAIT KUDEAKETA

## 14.1. SARRERA

Arlo honen barruan sartzen diren jarduerak, jorratzen dituzten gaien berezitasuna kontuan hartuz, ezin dira ondo sartu erakunde honen lana antolatzeko erabiltzen diren arloetan.

Izenak berak dioenez, arlo honek hondakinezko izaera dauka, eta bertako edukiak oso era askotakoak dira. Arlo honen bi ezaugarri horiek zaildu egiten du azterturiko gaien barneko egituraketa, eta, horren ondorioz, zaila da kasu batzuk beste batzuei dagokienez nabarmentzea.

Adibidetzat, arlo oso desberdinak aipa daitezke, esate baterako, erakundeei egindako laguntza nahiz lankidetza eskabidea (autonomia erkidego honetan bizi den familia batek aurkeztu zuena, Nikaraguako gazte baten hezkuntza finantzatzen jarraitu ahal izateko), edo Euskadin bizi diren inmigranteek gainditu behar izaten dituzten arazoak (legezko dokumentaziorik ez duten inmigranteak). Era berean, euren abizenen ordena aldatzeko jarraitu behar den prozedura ezagutu nahi duten hiritarrek eskaturiko informazio eskabidea ere aipa daiteke (gure antolamenduak seme-alabaren bat jaiotzakoa ez den erregistro zibilean inskribatzeko adierazten dituen bideak jakiteko ere informazioa eskatu dute) .

Halaber, aipamen berezia merezi dute erlijio askatasunaren inguruan sortzen diren arazoek. Esate baterako, sekta suntsigarrien sareen eraginpean dauden pertsonen familiakoek euren arazoak eta beldurrak azaldu dizkiote Arartekoari. Eremu horretan bertan, erlijio askatasunerako eskubidearen babes eskabidea ere jaso da, eliza minoritario batek adierazitakoa; izan ere, eliza horrek ikusi du bere sinesmenak sektatzat hartu direla, jabetza pribatuko komunikabide batean. Kexa horiek guztiek tratamendu berezia izan zuten; izan ere, euren jatorrizko adierazpenek edo egintzek jarduera pertsonaletan eragiten zuten arren (inoiz ere ez administrazio eskuhartze batean), ez da bidezkoa horiek inolako tramiterik gabe ukatzea.

Azkenik, espediente horiek bitartekaritzaren edo aholkularitzaren ikuspegitik tramitatu dira beti; egin-eginean ere, jorraturiko gaiek eragin zuzena duten gizakiengan eta kexa horietan aipaturiko arazoek eragin handia dute autonomia erkidego honetan. Halako kasuetan, kaltetuei aholkua edo orientazioa emango zaie, euren eskura dituzten jarduera aukera guztiei buruz.

## 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Administrazioei eskabideak egiteko formularioetan jaso beharreko datu pertsonalak (888/1998)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoaren irizpean jarri zuen Bilboko Udaletxeak eskatzailearen adina (datu pertsonalen artean) ezagutzeko jarritako koadroa, erabilera arrunterako dituen eskabide formularioetan.

• Azterketa

Datu pertsonal hori EEko 18.1 artikuluak babesturiko datuen eremukoa zenez (eta ez prozedura baten tramitaziorako behar diren datuen eremukoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 70.1 artikuluan ezarritakoaren arabera), Udaletxeari informazioa eskatu zitzaion, datu hori eskatzearen arrazoiak jakiteko eta datuok nahi izanez gero ematekoak direla jakinarazi beharra gogorarazteko. Bilboko Udaletxeak jakitera eman zuen datu hori egoitza eta bizikidetza ziurtagiriak tramitatu beharraren ondorioz sartu zutela. Hala eta guztiz ere, gaur egun ez dira beharrezkoak eta ez dira eskatzen.

• Emaitza

Nolanahi ere, Udaletxeak jakitera eman zigun formularioak berritu egin zituztela; horietan, kendu egin dute eskatzailearen adina jasotzeko erabiltzen zen koadroa. Horrenbestez, akats hori zuzendu ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

# B) TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

## 1. EMAKUMEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

2000ko ekainean New Yorken NBEren Biltzarraren bilera berezia egin zen *2000ko emakumeak: Sexuen arteko berdintasuna, garapena eta bakea XXI. menderako* izenpean. Bilera "Pekin+5 bezala ezaguna izan da. Izan ere, Pekingo IV. Mundu Konferentzian 1995ean emakumeen aurerapenerako onetsiriko ekintza-plataformaren jarraipena egin zen bertan. Gogora ekarri behar da ezen konferentzia horrek *Emakumeen aurkako bazterketa era guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioa* bereganatu zuela eta berau bultzatzen saiatu zela. Egin-eginean, munduko leku guztietan daude oraindik sexuen arteko desberdintasunak, leku batzuetan bestetan baino handiagoak baina. Hori egiaztatu zen eta, gainera, nazioarteko gune horretan azpimarratu da ezen berdintasuna eta emakumeak gizarte eremu guztietara sartzea interesatzen zaiola, haiei ezezik, gizarte osoari ere. Hori dela eta, helburu hori kontutan hartu behar da jarduera politiko guztietan.

Ildo beretik, irmoki uste da ezen gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka ezin dela erakunde honen jardueraren arlo zehatz batera mugatu: haren ibilera osoan sartu behar da borroka hori. Hori uste dugula eta, sexu-perspektiba delakoa hartu dugu. Errealitateari begiratzeko beste era bat da, gizarte arazoek emakumezko eta gizonezko taldeak era ezberdinean zein neurritan ukitzen dituzten nabaritzen ikasteko.

### 1. Sarrera

Arartekoaren eguneroko jarduerak gainetik ikusita, pentsa dezakegu ezen ez dagoela ezberdintasun nabarmenik emakumeek azaltzen dituzten arazoen eta gizonezkoek azaltzen dituztenen artean. Gure eginkizuna administrazio-erakundeak nola dabiltzan ikuskatzea dela eta, bistan bide da Herri Administrazioaren irregulartasunek, gehiegikeriek edo axolagabekeriek berdin ukitzen dituztela pertsona guztiak. Hori dela eta, sexu-perspektibatiko analisiak ezin du ondorio garrantzitsurik iritsi.

Hala ere, gure iritziz, aurreko planteamendua azalekoa izango litzateke. Egia da orokorrean Administrazioaren organoak ezin direla zuzeneko sexu-bazterkerietan erori. Alabaina, irudika litezke zuzenean edo ezkutuan eginikako tratu ezberdineko kasuak. Kasuok, gertatuz gero, askoz detektagaitzagoak izango lirateke.

Baina gure helburua ez datza bazterkeria horiek aurkitzean soilik, haien berri jakinez gero; ikusteko moduan jarri nahi ditugu gizarte arazoek gizonezkoak eta emakumeak ukitzen dituzten era ezberdinak. Badakigu lana erraza ez dena. Alde batetik, hiritarrek erakunde honi bidalitako kexetan islatzen diren gizarte errealitatearen alderdiak oso mugatuak dira eta Herri Administrazioaren esku-harmenei buruzko arazoak bakarrik azaldu ohi dira. Dinamika horretatik, gure alkantzutik kanpo geratu dira emakumezko taldeak menpeko posizioa argi harturik duen edota gizonezkoek baino zailtasun handiagoak topatzen dituen egoerak eta arazoak.

Beste alde batetik, ohar eta deskribapen koantitatiboak besterik ez dugu egin behar, ikusitako emaitzak dakartzaten arrazoiak ikertzeko biderik ez baitugu. Horrela, esate

baterako, emakumeek zenbat kexa aurkeztu duten edo haiek interes handiagoa zein arlotan agertu duten jakin dezakegu, baina ez dugu gertaerok azaltzeko gaitasunik.

Azken batean, mugekin bada ere, sexu-perspektibak dimentsio bikoitza agertzen du erakunde honen lanean. Kanporantz, sentsibilitate berezia garatu gura dugu sexu ezberdineko pertsonen arteko berdintasuna benetakoa ez den egoerak somatu eta, horren ondorioz, berauen aurrean jarduteko. Aipatutako perspektibak eragina du, halaber, erakunde honen barneko lanean eta, zehazki, gure lana aztertzeko eran. Honakoa gertatzen den kasuak detektatzen saiatzen gara: a) emakumea izateak arazoa sortu edo larriagotzea; b) benetako arazoak emakumeak ukitzea gehienetan; eta c) Administrazioaren hasierako jarduerak edo gure esku-harmenaren emaitzak emakumezko taldearentzat ondorio ezberdinak izatea. Bistakoa denez, azterketa hori egiteko berdin da kexa azaltzen duen pertsonaren sexua.

Sexu-perspektibarekin loturik dagoen beste kontu bat lengoaia era sexistan ez erabiltzeari buruzkoa da. Jakina denez, hori ez da erraza gaztelaniaz, hizkuntza horretan arra generiko bezala erabiltzen da eta. Egin-eginean ere, txosten honen aurkezpenean nabarmendu denez, Arartekoaren erakunde hau araupetu duen 3/1985 Legean idatzita dagoenak arazoak sortzen ditu. Izan ere, erakundearentzat eta bertako buruarentzat izen berdina ezarri da bertan. Arazo hori agerian jarri du 2000ko irailaren 10az geroztik jarduneko Arartekoa emakumezkoa izateak. Halaber, zailtasunak islatu dira txosten hau idaztean. Izan ere, nahi baino sarriagotan jo behar dugu termino maskulinoetara taldeak izendatzeko (esate baterako, *ciudadanos, niños, extranjeros*), emakumeak ez ikusteko moduan jartzen ez dituzten beste hitz batzuen kaltetan (*ciudadanía, infancia, personas extranjeras...*).

Azkenik, gogora ekarri behar da ezen emakumeen interesen perspektibatik erakunde honen jardueraren gainean egiten den zeharkako irakurketa egiten dela bereziki zaurtu ahal diren beste talde batzuekin (pertsona atzerritarrekin, adinez txikiekin adinekoekin, minusbaliatuekin eta abarrekin) ere. Hitz lauz, giza talde horietan guztietan sexu-perspektiba aplikatu ahal da, haien arazo espezifikoen "emakumezko bertsioa" nabarmentzeko. Hala ere, argi azaltzeko, atal bakarra baliatu gura izan dugu emakumeak bereziki ukitzen dituzten arazoak aztertzeko. Dena dela, kontutan hartu behar da ezen bazterturiko talde bakoitzarengan badagoela emakumezko izaerak bazterketa-kariarekin elkarreraginean diharduen pertsona azpitalde bat. Bertan ia beti biderkatzen dira haren ondore negatiboak. Pentsa bedi, esate baterako, emakume etorkinengan, atsoengan edo emakume minusbaliatuengan.

Bestelako itzulingururik gabe, emakumeek erakunde honi zuzendutako kexetan nolako arazoak azaltzen dituzten aztertuko dugu.

## 2. Emakumeak erreklamatzaile bezala

Aurreko urteetako txostenetan bezala, soziologi estatistikari buruzko atalean sartu dugu pertsona erreklamatzailearen sexua kontutan harturik kexen kopurua banatzearen aipamena. Atal honetan, laburki bada ere, emaitzako kopuruen azalpen posibleen gainean hausnar egiten saiatuko gara.

Iaz agerian jarri genuenez, emakumeek aurkezturiko erreklamazio kopuruan goranzko joera etena zen. 2000ri begira, gauza bera egiaztatu dugu. Hurrengo taulan ehunekoen bilakaera ikus daiteke:

| | Emakumeak | Gizonak | Taldeak |
|---|---|---|---|
| 1996 | 36,74 | 46,89 | 16,25 |
| 1997 | 39,88 | 48,72 | 11,90 |
| 1998 | 45,19 | 46,84 | 7,97 |
| 1999 | 38,97 | 45,99 | 14,65 |
| 2000 | 36,55 | 49,80 | 13,65 |

Zuzeneko arretarako gure bulegoetara joan diren emakumeen ehunekoa egonkor mantendu da azken urteetan zehar, %39 ingurukoa izan delarik. Guztiarekin ere, bitxia da baina Donostian eta Gasteizen sexu bietako pertsona kopurua antzeko samarra den bitartean (258 emakume eta 254 gizon eta 227 emakume eta 283 gizon, hurrenez hurren) proportzioa Bilbon aldatzen da, non 530 gizonezkoren eta 356 emakumeren bisitak jaso diren.

Emakumeek arreta berezia jartzen duten gaiei dagokienez, ikus dezagun nola banatzen diren haiekaurkeztutako 450 kexak:

| | Gizonak | Emakumeak | Taldeak |
|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 11 | 4 | 4 |
| Gizarte Ongizatea | 23 | 41 | 7 |
| Kultura eta Elebiduntasuna | 14 | 3 | 3 |
| Herriaren Defendatzaileak | 66 | 27 | 15 |
| Hezkuntza | 29 | 25 | 20 |
| Funtzio Publikoa | 40 | 65 | 16 |
| Hainbat kudeaketa | 13 | 8 | 3 |
| Ogasuna | 71 | 43 | 9 |
| Herrizaingoa | 55 | 21 | 5 |
| Justizia | 29 | 17 | 3 |
| Ingurugiroa | 36 | 29 | 18 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 56 | 36 | 18 |
| Atzera boteak | 104 | 38 | 24 |
| Osasuna | 27 | 52 | 7 |
| Lana eta Gizarte Segurtasuna | - | 3 | 1 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 39 | 38 | 15 |
| Guztira | 613 | 450 | 168 |

Bistan denez, kopuruak soilik aztertuta ezin da emakumeek Arartekoaren erakundera joateko dituzten zergatiei buruzko ondoriorik atera. Gainera, kontutan hartu behar da ezen arazoak zuzenean ukituriko pertsona ez dela izaten erakundeari bidaltzen diona. Ildo horretatik, oso erakusgarria da egiaztatzea zein kasutan azaltzen dituzten emakumeek beren arazoak, zein arazotan eskuordetzen dioten beren ordezkaritza gizonezkoari. Esate baterako, hezkuntzaren arloan, tradizioz, emakumeek gizonek baino kexa gehiago aurkezten dituzte, baina 2000n kontrakoa gertatu da. Baliteke datuak ezer ez adieraztea, baina, era berean, baliteke aitek beren seme-alaba adinez txikien arazoetan lehen baino parte handiagoa hartzea, zorionez. Horren baikorra ez den beste

ulerkera bat da pentsatzea ezen, amak arazoa konpontzeko lehenengo mailetan (hezkuntza-zentroaren aurreko kudeaketetan, gurasoen elkartearen aurrekoetan…) protagonistak diren bitartean, aitak harremanik instituzionalenetan direla familiaren ordezkari.

Oraingoz ez dugu horrelako analisiari ekiteko biderik, emakumeek zuzenean azaldutako arazoen gainean azaletik hausnar egitearekin konformatuko gara.

Emakumeek izenpeturiko kexa kopururik handiena biltzen duen arloa Funtzio Publikoarena da. Gainera, kopuru hori gizonezkoek gai beraren gainean aurkezturiko erreklamazioena baino askoz handiagoa izan da. Nonbait gertaera horretan eragina du, beste faktore batzuen artean, enplegu publikoan emakume asko agertzeak. Izan ere, enplegu publikoa atzitzeko bazterketa gutxiagorekin topo egiten dute lan pribatuaren merkatuan.

Emakumezko taldearen kexak gizonezkoenak baino askoz ugariagoak diren beste arlo batzuk Gizarte Ongizatea eta Osasuna dira. Hori dituela zenbait urtetatik ikusi izan da, eta gerta daiteke horrek menpeko pertsonak (adinez txikiak, atsoak…) zaintzen gehienbat emakumeek ematearekin zerikusia izatea.

1999an gertatu ez zen bezala, 2000n emakumeek Ingurugiroaren arloan jarritako kexak ez dira gizonezkoenak baino ugariago. Hala ere, emakumeek jarduera izorragarriei zara-arazoei eta abarri buruzko kexarik gehienak aurkezten diraute. Are gehiago, espediente batzuetan gizona erreklamatzaile bezala agertzen bada ere, arazoari buruzko informazio zehaztua ekartzen duena emakumea da, “*etxean ordu gehiago ematen dituelako*”.

Era berean, Herri lan eta Zerbitzuen arloaren barruan, badago atal bat, ia kexa guztiak emakumeek jarri dituztena: herri garraioarena. Bistan bide denez, hori gertatzen da, zeren eta, gizarte talde edo familia beraren barruan ere, emakumeek garraio hori gehiagotan erabiltzen baitute.

Kexarik gehienak gizonezkoek jartzen dituzten gaiek (Nekazaritzak, Industriak, Merkataritzak eta Turismoak; Kulturak; Ogasunak; Herrizaingoak…) beren horretan diraute aurreko urteen aldean. Alabaina, oraingo honetan gizonezkoek eskatuta Herriaren Defendatzaileari bidalitako aferak emakumeek azaldutakoak baino askoz ugariago dira, beste urte batzuetan kopuruak antzekoak izan direla ere. Eremu horren barruan aipatu behar dira emakumeek beren senide presoen eta, bereziki, seme-alaben eta senarren egoerari buruz egindako kexak.

## 3. Sexuarengatiko bazterkeriak

Lehen adierazi denez, ez dira ohikoak Herri Administrazioak egindako bazterkeriazko tratuak zuzeneean eragindako erreklamazioak. Baina horrelakotzat har daiteke Hondarribiko emakumeek azaldutako arazoa. Izan ere. Alardean parte hartzeko aukera ukatzen zaie, herri horretako jai-agerbide nagusian alegia. Osorik konpondu ez den arren, Irungo gatazka berriz zuzendu da; izan ere, Alarde ofizialean, hau da, udalak finantzaturikoan, emakumeek soldaduen modura desfilatzen dute, beren gizonezko auzokideek dituzten baldintzetan. Aitzitik, Hondarribian jazoeraren antolakuntza pribatizatu gura izan da emakumeek funtsezko eskubideekiko errespetua saihesteko. Baina gai hori aztertu duten azken epaiek ezarri dute ezen Alardea egitea ez dela agertzeko

eskubidea erabiltzea baizik eta sexu-bazterketa onartezina den ikuskizun publikoa, antolatzailea nor den kontutan hartu gabe.

Testuinguru horretan, Ararteko erakundea esku hartzen hasi zen 1999an: orduan hark Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari gomendio bat egin zion.Bertan Ertzaintzari eskatu zitzaion Alardean baldintza-berdintasunean parte hartzeko emakumeen eskubidea babesteko neurriak har zitzan (espedientearen laburpen bat kontsulta daiteke Herrizaingo arloari dagokion txosten honen atalean). Herrizaingo Sailak gure planteamenduak onartu zituen eta Ertzaintzak Hondarribiko Alardean 2000ko irailaren 8an esku hartu zuen, baina, zoritxarrez, hark ez zuen lortu Jaizkibel konpainiak, emakumeak integraten dituenak, bertan parte hartzerik.

Herri erakunde batek egindako beste ustezko bazterkeriazko tratu bat salatu zen INEMen kontrako kexa batean. Emakumezko erreklamatzaileak azaldu zuen ezen, garabilaria izateko titulazioa, gaikuntza eta lanbide esperientzia zuen arren, ez zutela kontratatzen horrelako langileak behar zituzten enpresek. Bistan zenez, kasu batzuetan, tratu ezberdina enpresetan gertatzen zen, hau da, eremu pribatuan, baina hark baieztatua zuen ezen batzuetan, emakumea izateagatik, INEMek ez zizkiola enpresek egindako lan-eskaintzak jakinarazi. Aipatutako erakundea Estatuko Administrazioaren menpean dagoelako, kexa bidali diogu Herriaren Defendatzaileari, haren ibileraren gaineko kontrola dagokion erakunde bermatzaileari. Beste alde batetik, erreklamatzaileak afera Lan Ikuskatzailetzari jakinarazi zion.

Zerbitzu horrek egindako txostenean adierazi zenez, ez zen INEMen jarduera irregularrik egiaztatu. Dena den, Ikuskatzailetzak baieztatua zuen ezen herri erakunde horri eskatu zitzaiola enpresek eginiko enplegu-eskaintzetara bazterkeriazko beharkizun jakin batzuk sartzea saihesteko beharrezkoak ziren neurri guztiak har zitzan eta enplegua atzitzeko berdintasuna une orotan berma zezan.

Lehen esan den bezala, bazterkeriazko traturik ez jasotzeko emakumeen eskubidea norbanakoen arteko harremanen eremuan zaurtu ohi da larrienik. Hori dela eta, fenomeno bat aipatu behar da, gure gizartean, giza eskubideen kontrako eraso nagusietako bat dena: emakumeen kontrako indarkeria, haiekin bizi diren gizonezko batzuek burutzen dutena. Behar den bezala, indarkeria sexistak sakonki kezkatzen du Ararteko erakundea. Egin-eginean ere, beronen ordezkariek gaiari buruzko eztabaidetan eta hausnarguneetan parte hartu dute. Alabaina, gure esku hartzeko ahalbideak oso mugatuak dira; izan ere, orokorrean, aztertutako gaiari buruz jasotzen ditugun kexak gure eskumen-eremutik kanpo geratzen dira. Sarritan agertzen dituzte emakumeek epailearen ebazpenekiko beren adostasunik eza (kautelazko neurririk ez hartzea, hobenen epaiketetako absoluzioak, kondena batzuen arintasuna...) erakunde honek ez epai-boteretik kanpoko ezein erakundek esku hartu ezin duen arazoak mahaigaineratuz. Inoiz jaso dira tratu txarrengatiko hobenen epaiketetan doako laguntza juridikoa ukatzeagatiko protestak.

Era berean, mehatxatutako emakumeen polizi babeseko eraginkortasunik eza salatu da. Hala ere, inguruabarrak aztertu ostean, egiaztatu dugu ezen kontua ez dela poliziaren jarduera irregularra, baizik eta salatzailearen eskeei jaramon egiteko bitartekoen falta.

Beste emakume batek tratu txarrak eta erasoak bizi izan zituela kontatu zuen, ezkontideen egoitza zergatik utzi behar izan zuen azaltzeko bakarrik baina. Beraren kexaren ardatz nagusia haren etxebizitza-arazoa zen. Halaber, tratu txarrak jasanak

zituen eta iraganean drogen menpekoa izateagatik harrera-pisua atzitzea ukatu zitzaion emakume baten kasuan esku hartu dugu.

Agerian jarri behar denez, kexa-espedienterik ekarri ez duten kontsulten artean, semeak amaren kontra buruturiko sexu-indarkeriazko kasu batzuk azaldu dira.

Bukatzeko, beharrezkoa da gogora ekartzea, aurreko urteetan bezala, presolekuko emakumezkoak gizonezkoak baino txartoago daudela, sailei eta azpiegiturei dagokienean bereziki. Ildo horretatik nabarmendu ahal denez, ez dago emakume-sailik Basaurin, ez dago zabalik araubide-modulurik Langraiz Okan ez Martutenen, eta ez da hiru presolekuotariko ezeinetan sortu eskatutako amentzako unitatea. Horrek dakarrenez, EHAEn emakumezko presoak ezin dira beren hiru urtetik beherako haurtxoekin bizi izan.

## 4. Emakumeak bereziki ukitzen dituzten beste kontu batzuk

Atal honetan hainbat kontu aipatuko ditugu, tratu desberdineko balizko bezala azaldu ez diren arren emakumeentzat ondorio ezberdinak dakartzatenak. Horrek sarritan esan gura izaten du ezen haiek gizarte sisteman sendoturik dauden menpekotasunezko egoerak edo bazterketak dituztela jatorri. Horrela, esate baterako, deigarria da lanbide eta famili erantzukizunak biltzearen gaineko kexa guztiak emakumeek aurkeztu izana. Funtzio Publikoaren arloaren sarreran aipatuta daude seme-alabak zaintzeko, harrerarengatiko edo adopzioarengatiko lizentzien iraupena parekatzeko eta biologi amatasunaren ziozko eszedentzien gaineko hainbat espedient. Funtzionario-eremutik kanpo, emakumezko erreklamatzaile batek GSNEk amatasunarengatik ematen dituen ekonomi prestazioei begira azken bi balizkoen arteko tratu-berdintasuna eskatu zuen, halaber.

Era berean, kexa baten bitartez, seme-alaba adinez txikiak zaintzeko lansaioa txikituz gero ordutegia zehazteko pertsona langilearen lehenespenezko eskubidearen gainean zehazki 39/1999 Legea aplikatzeari begira Euskal Herrian emandako lehenengo epaietariko baten berri jakin dugu. Jakina denez, horixe da lege horrek famili eta lan bizitza biltzeko proposaturiko neurrietariko bat.

Gizarte rolen banaketa ezberdina islatzen duen beste eremu bat menpeko pertsonak edo pertsona minusbaliatuak zaintzearena da. Gai horri buruzko ia kexa guztiak emakumeek aurkeztu dituzte, lan horrek eragiten duen norberaren akidura sarritan aipatu dutenek. Halaber, emakumeek erreklamatzen dute erakunde eskudunek gurasoak seme-alaba adinez txikien tutoretzaz babesik gabeko egoera dagoelakoan gabetuz gerozko kasuetan.

Estatistiken arabera, ahaide bakarreko familiak ia beti egoten dira emakumeen pentzutan. Beraiek ukitzen dituzten arazoei dagokienez, erakunde honetara kontu batzuk heldu dira, hala nola, etxebizitza atzitzeko zailtasunekin loturik daudenak eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko udal prezio publikoen tratamendua.

Era berean, emakumeak dira pertsona alargunetarik gehienak. Hori dela eta, emakumeek azaltzen dituzte egoera horri buruzko arazoak. 2000n berriz jaso dugu egitatezko bikoteen balizkoetan alargunaren pentsioa jaso ezinaren gaineko kexa bat, baina guk ezin izan dugu esku hartu; izan ere, pentsioaren ukapena ez da irregulartasuna: legea aplikatzetik dator. Kontrako kasuan, hau da, alargun-pentsioaren emakumezko

hartzaileen kasuan, honako arazo hau sortu da: alargunak, lan egiten duenean, ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik errentak lortzen ditu; hori dela eta, PFEZren aitorpena aukeztu behar du, beraren sarrerak legezko muga baino txikiagoak izan arren (Ogasun arloaren sarrerako kop., II. kap., A.6.1).

Soziologi azterketek erakusten dutenez, emakumeek gizonek baino askoz maizago erabiltzen dituzte garraio publikoak. Hori dela eta, lehen esan den bezala, eremu horrekin loturik dauden ia kexa guztiak emakumeek bultzatzen dituzte. Kontuak askotarikoak dira: famili ugariarengatiko deskontu-aplikazioetatik tolestu gabeko haur kotxe edo aulkiarekin hiriko autobus batzuetara sartzeko zailtasunetarainokoak.

Halaber, osasun arloan bilduta daude emakumeek bultzatutako erreklamazio asko. Aurreko urteetan bezala mamografiak egiteari buruzko arazoak piztu dira berriro, adin jakin bateko emakumeak aurretik zaintzeko programa batzuk baztertzeagatik edo proba horren menpean jartzetik ustez datozen osasun-arazoak agertzeagatik. Emakumezko taldea bereziki ukitzen duten beste sendabide mediko batzuk honakook ditugu, besteak beste: obesitate erigarriari loturik daudenak eta ugalketa lagunduarenak.

Gizarte laguntzen eremuan, agerian jarri behar da pentsio ez kontributiboen hartzaileak diren emakumeen arlo garrantzitsu baten egoera. Hasiera batean, prestazio horiek biztanleei eskaintzen zaizkie orokorrean. Hala ere, egia esan, tradizioz, gizonak neurri handiago batean lan-merkatura sartu dira eta, hortaz, pentsio kontributiboetarako eskubidea sortu dute. Horrela, batez ere, emakumeek, eta, askotan, atsoek hartzen dituzte diru-laguntzak, eta berauen araupeketako aldarazpenek bizikiago ukitzen dituzte. Hori gertatu da pentsio ez kontributiboak jasotzen dituztenentzat hiru foru aldundiek onetsiriko laguntzari Araban eman zaion izaerarik murriztaileenarekin.

Bukatzeko, titulartasun publikoko gizarte komunikabideak atzitzeko gizarte taldeen eskubidea EITBn erabiltzeari buruz Lanbroa talde feministak eskatuta tramitaturiko espedientea aipatuko dugu. Informazio-askatasunerako funtsezko eskubidearen alderdi hori (20.3.EE artikulua) talde ideologiko guztiei berdin dagokie eta, ildo horretatik, Arartekoak 1998an EITBri gomendio bat zuzendu zion eskubidea benetan erabiltzea bermatu beharraren gainean (gomendio horren aipamena txosten honen V.1 kapituluan). Hala ere, Lanbroa izan da gure gomendioaren ostean bere eskubidea erabiltzeko erari buruzko interesa agertu duen elkarte bakarra: hain zuzen ere, sexu-berdintasunarekin loturiko kontuak telebistaren bitartez zabaltzen saiatzeko agertu du interes hori.

## 2. ZAHARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Zaharrei dagokienez buruturiko jardueretariko batzuen helburua, izan ere, aurreko urteetan egindako lanaren jarraipena egitea izan da, egoitzak eta eguneko zentroak ikustera joanez, bertan dauden zaharren egoera jakiteko. Bisitaldi horien emaitza I. kapituluan jasota gelditu da.

Laguntza zerbitzuen eremu horretan kokaturik, aipagarria da urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren onespena (menpekotasuna duten zaharrentzako eguneko zentroak arautzen dituen dekretua); egin-eginean ere, hori lagungarria izan daiteke halako pertsonen eskubideak bermatzeko.

Egituraketa juridikoa eta behar beste baliabide edukitzeaz gain, zerbitzuen ibilera egokia funtsezko elementua da, edozein eskubide gauzatzeko orduan, baita zaharren eskubideak gauzatzeko orduan ere. Ikuspegi juridikotik eskubide horren alderdi bati edo besteari dagokionez edozein ondorio atera nahi izanda ere, esan daiteke hori guztiz gauzaturik egoteko, beharrezkoa dela ondo kudeatuta egotea.

Eskubide hori gauzatzeko erabiltzen diren baliabideen kudeaketari dagokionez, iazko txostenean adierazitakoaren arabera, gure ustez bi alderdi hauetan jardun beharra dago: batetik, Bizkaiko Lurraldean gizarte nahiz osasun arazoak dituzten zaharren arazoak kudeatzeko akordioa behar bezala garaturik ez egotea; bestetik, hirugarren adinekoentzako egoitzetan sartzeko prozedura mailako neurriak (lurralde bakoitzaren egoera desberdina da).

Lehenengo alderdiari dagokionez, gaur egun ere akordioa garatzea galarazten duten arazoak daude, osasun eta gizarte ongizate arloei buruzko atalean adierazi dugunez.

Aipaturiko bigarren alderdiari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko 63/2000 Foru Dekretuaren egokitzapenak ekarriko duen aurrerapena (kudeaketa hobea egiteari dagokionez) aipatu behar da; izan ere, hori lagungarria izan daiteke dirulaguntzen kudeaketan egon daitezkeen arazoak konpontzeko (zaharrak Foru Aldundien titulartasunekoak ez diren egoitzetan sartzeko dirulaguntzak).

Azkenik, seguru dakigu kexetan salaturiko eragozpenen arazoak (batez ere, zaraten ondoriozkoak) eragin handia duela zaharrengan; zarata horiek, berriz, hirietako alde zaharretan aisialdiari lotuta sortzen diren pilaketen eraginezkoak izaten dira. Gure iritziz, arazo horren eragin berezia izan dezake, 202/2000 Dekretuan adierazitako helburuetariko bat lortzeko orduan: zaharrak euren berezko inguruan mantentzea.

# 3. GAZTEEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Atal honen helburua, izan ere, aurten babesik eza handia duen biztanleri sektore baten eskubideen defentsari buruz buruturiko jarduera nagusiak labur-labur azaltzea da: adin txikikoak.

Arartekoak 2000. urtean talde honen eskubideen defentsarako jarritako arreta, bestalde, honako jarduera lerro hauetan zehaztu daiteke:

- kexak ebatzi eta gomendio bereziak eman;
- bazterturiko adin txikikoen talde batzuen arazoak aztertu eta horien jarraipena egin, baita babesik eza handiena duten taldeen azterketa eta jarraipena ere;
- biztanleri sektore horretan eta euren eskubideen kultura zabaltzeko lanean ari diren gizarte eragileekin, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzan jardun.

Laburpen honetan, hiru puntuko eskema horri jarraituko diogu; puntu bakoitzean, egindako lanaren elementu deskribatzaileak eta baloratzaileak aurkeztuko ditugu; azkenean, gomendio nagusietariko batzuk gogoratuko ditugu.

## 1. Kexa eta gomendio bereziak

Erakunde honetan gazteei buruz jasotzen diren kexak oso gutxi izaten dira; are gutxiago gazteek eurek aurkeztutakoak. Segurutik, hori zenbait faktoreen eraginezkoa da: euren eskubideei buruzko kontzientziazio eza, erakunde hau ez ezagutzea (euren defentsarako mekanismotzat), erakundeetarako jotzeko trebetasun edo ohitura eza, familiarekiko edo beste pertsona nahiz erakundeekiko menpekotasuna... Faktore horietako batzuk, bestalde, baztertuta dauden edo ahulak diren beste sektore batzuetan ere gertatzen dira.

Biztanleri sektore horrek, zalantzarik gabe, hezkuntza zerbitzuarekin dauka harreman zuzen eta ohikoena. Horrela, ikuspegi zabal batetik begiratuta (ia-ia hezkuntza eremu osoa, Unibertsitateko hezkuntzaren goiko maila izan ezik), harreman zuzena dauka gure Erkidegoko gazteen tratamenduarekin (Hezkuntza eremua, txosten honetako II. kapituluan).

Hezkuntza arloari egindako aipamen orokor hori alde batera utzita, aurtengo kexak eta jarduerak honako arazo hauei buruzkoak izan dira:

- foru aldundiek babesa erabiltzea, ikastetxeetan hartzen diren eta laguntzarik ez duten atzerriko gazteen kasuetan.
- babestutako gazteen guraso biologikoen bisita-araubideari buruz aplikaturiko irizpidea;
- hezkuntza beharrizan bereziak dituzten gazteen minusbaliotasunen eta eskolaratzearen balorazio irizpideak, ikastetxe arruntetan eta berezietan;
- gurasoek, bananduz gero, seme-alabei dagokienez dituzten eskubideak;
- gazteen eskura dauden kioskoetan material pornografikoak erakustea eta saltzea;
- ikasle ijitoak eskolaratzeko baldintzak;
- umeen hagin-laguntza programari dagokionez dagoen informazio eza;
- ikasleak Gasteizeko udaletxeko haur-eskoletan onartzeko irizpideak;

- gaixotasun jakina duten gazte batzuk Espainian merkaturatzen ez diren sendagaiekin tratatzea;
- guraso biologikoen eta babes zerbitzuen artean arrera kasuetan egoten diren desadostasunak;
- lurralde historikoko aldizkari ofizialean, hartze-prozesuetan gazteen izenak agertzea;
- langile berezien bidezko laguntza eta arreta mailari dagokionez dauden irizpide-desadostasunak; hezkuntza-beharrizan bereziak daudenean, halako umeak eskolaratu egin behar izaten dira;
- gazteentzako ziberteken arauketa;
- gabezia eta adin jakinak dituzten gazteen suspertze programei laguntza emateko sistemak eta irizpideak;
- Atzerriko gazteak eskolaratzeko arazoak, kasuan kasuko ikastetxetarako hizkuntza ereduei dagokienez;
- Gazte-talde jakinak eskolaratzeko baldintzak, babesik ezako egoerak daudenean, batez ere ondokoak:
  - sasoikako langileen familietako seme-alabak
  - delituak egin dituzten gazteak, horientzat prestaturiko zentroetan
  - inoren laguntzarik gabe iritsitako atzerritar gazteak
- anorexia arazoak dituzten gazteei emandako medikuntza arreta behar bezalakoa izan ala ez izateari buruzko desadostasunak;
- ikastetxeen inguruan obrak edo instalazioak egotearen ondoriozko arriskuari loturiko egoerak;
- gazteak hartzeko modurik onenari buruzko irizpideetan dauden desadostasunak, gazte jakinen kasuan eta gazte horiek hartzen dituzten ikastetxeen baldintzak kontuan hartuz;
- ikastetxe bateko gobernu organoek legezkotasunera ez egokitzea;
- jarduera jakinetarako eskoletako instalazioak erabiltzeari buruzko dauden desadostasunak;
- eskola garraioa;
- eskolako jantokiaren kuotak;
- ikasleek ikastetxe pribatuetan dituzten eskubideen eta betebeharren araudiaren aplikazioa;
- ikastetxeen zehapen araubidea.

Zerrenda horretan ikusten denez, kexarik edo jarduerarik gehienak honako hiru eremu hauetan oinarritzen dira:

- Hezkuntza: eskolaratzeko baldintzak, batez ere gizartean bazterturik dauden taldeentzat edo hezkuntza beharrizan bereziak dituzten taldeentzat, diziplina araubidea eta eskubideen zein betebeharren arautegia ...;
- Gazteen babesa: harrera-egoeretan dauden desadostasunak;
- Gaixotasun jakinak dituzten gazteei eskainitako osasun arreta.

Eremuok, nola edo hala, ondoko atalean ere agertzen dira, beste perspektiba batetik izan arren.

## 2. Sektore oso ahulen arazoak aztertzea eta horien jarraipena egitea

Gazteen taldearen barruan (Euskal Autonomia Erkidegoan hirurehun eta berrogeita hamar mila inguru), halaber, arrisku bereziko egoeran dauden taldeak edo sektoreak ditugu. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta eskaini die halako sektoreetako umeei, nerabeei eta bazterketa egoeretan edo beharrizan bereziko egoeretan dauden gazteei. Horretarako, batik bat lan monografikoak nahiz txosten bereziak erabili ditu, eta horiei buruzko jarraipena egin du. Horrela, aurten, ondoko sektoreotako seitan jarraipena egin da edo arazoak aztertu dira:

- laguntzarik gabe iritzitako atzerritar gazteak;
- babestu gabeko haurtzaroa (arrisku egoerak eta babesik eza);
- delitua egin dituen gazteak (neurri judizialak bete behar dituzte);
- sasoikako langileen seme-alabak (eskolaratze ezako benetako egoerak dituzte);
- buruko gaixotasunak dituzten adin txikiko pertsonak;
- hezkuntza beharrizan bereziak dituzten gazteak;
- Laguntzarik gabe iritsitako atzerritar gazteei dagokienez, txosten honetan horien egoera aztertzeko atal berezia dago lehenengoz (1.1.5. atala); jasotako datuek agerian jartzen dutenez, orain arte errealitate hori ez da batere ezaguna izan, eta arazoa haziz doa urtetik urtera, lurralde bakoitzean eragin desberdina izan arren. Foru Aldundiak, bestalde, arazo horri erantzuna emateko ahaleginak egiten ari dira, baliabide eta zerbitzu berriak abian jarrita. Erakunde honetako langileak gure Erkidegoan dauden halako harrera-zentroak ikustera joan dira, eta egoera guztiak aztertu dituzte; alderdi onak nabarmendu dituzte, baita hobetu beharreko alderdiak ere, eta horren ardura duten erakundeetan zenbait jarduera hasi dituzte ofizioz.
- Familiaren babesik ezako egoeran dauden umeei dagokienez, Arartekoaren txosten berezia 1997an argitaratu zen, eta bertan 42 gomendio berezi egin ziren. Aurten, jarraipenekin jarraitu dugu, gomendioak zein neurritan betetzen diren ikusteko; harrera-zentroei egindako bisitaldiei dagokienez, esan behar da horiek talde oso zailerako sortzen joan diren zerbitzuetan oinarritu direla: jokabide arazo larriak dituzten nerabeen taldea (txosten honetako 1.1.5. atala).
- Delituak egiten dituzten gazteei dagokienez, txosten berezia 1998an argitaratu zen eta bertan 46 gomendio egiten zitzaizkien erakundeei. Aurten egindako jarraipenak aukera eman du gure Erkidegoan orain dauden hiru zentroren gaur egungo egoera ikusteko eta aztertzeko. Beste alde batetik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari neurriak betetzeari buruz eskatutako datuek, bestalde, horien bilakaera jakiteko eta baloratzeko aukera ematen dute, baita arazo nagusiak nabarmentzeko eta txostenaren hasierako gomendioetariko batzuk berraztertzeko aukera ere. Hori guztia txosten honetan jasota dago; aurten, gainera, arreta berezia jarri zaio, 2001eko urtarriletik aurrera gaztearen zigor erantzukizunari buruzko Lege berria indarrean sartu baita, eta horrek aldaketa garrantzitsuak ditu (txosten honetako 1.1.6. atala).
- Sasoikako langilearen seme-alaben arazoei dagokienez (Araban mahatsa eta patata biltzeko lanetara joaten dira euren familiekin), esan behar da erakunde honek urtero-urtero planteatzen duela arazo hori, eta arreta berezia jarri zaiola.

Arabako Errioxan eta mendialdean dauden ikastetxeetan lorturiko eskolaratze maila aztertu da, eta lorpenak nahiz gainditu gabeko arazoak nabarmendu dira. Elkarte batzuek egindako lanari esker, datu multzo handia bildu, oraindik eskolaratu gabe dagoen taldea kuantifikatu, konpondu gabeko arazoak adierazi eta neurri kualitatiboak proposatu ahal izan dira (txosten honetako 1.1.2. atala).

- Aurten, Parlamentuan, *Buruko gaixotasuna duten pertsonei Erkidegoan emandako arreta* deritzonari buruzko txostena aurkeztu eta eztabaidatu da; txostenean jasotako kapitulu bitan, modu zehatzean, bildu egin da umeei eta gazteei egindako arreta psikiatrikoaren egoera zehatza, baita elikadura arazoak dituzten gazteen egoera ere (anorexia eta bulimia). Halaber, atal batean, ume autisten arazo berezia ere aztertu da. Txostenean egindako 18 gomendioetatik, batean umeen biztanleriari bideraturiko zerbitzu kopurua handitu beharra aipatzen da (txosten honetako 1.4.atala eta txosten bereziko 4.6., 4.7. eta 3.4.2. atalak).
- Arartekoak aurkeztuko duen hurrengo txosten monografikoa, bestalde, hezkuntza beharrizan bereziak dituzten gazte eskolaratuei buruzkoa izango da (gabezia fisikoak, psikikoak edo sentsorialak, gutxiengo baztertuetakoak izatea, etab.). Bertan hezkuntza sistemak halako gazteei erakundeetatik ematen dien erantzuna aztertuko da (txosten honetako 1.5. atala).

## 3. Gizarte eragileekiko lankidetza eta gizarte sentsibilizazioa

Biztanleri sektore honi buruzko kexak hain gutxi izatea azaltzeko aipatu den arrazoien artean, nagusiak erakundearen berri ez izatea edo gazteek euren eskubideei buruz duten kontzientziazio txikia izan daitezke, baita eskubide horiek geurea bezalako erakunde batean defendatzeko aukerari buruzko berririk ez edukitzea ere. Arartekoak aurten buruturiko jarduera batzuen helburua arrazoi horiek konpontzea edo eurok aldatzeko laguntza zuzena nahiz zeharkakoa ematea izan da. Era berean, eskubide horien berri ematea eta gizarte osoa sentsibilizatzea ere lortu nahi izan da.

Jarduera horien artean, ondokoak aipatuko ditugu adierazgarrienak direlakoan:

- Arrisku egoeran dauden edo beharrizan bereziak dituzten gazteei laguntza ematen diharduten elkarteekin edo erakundeekin izandako harremanak eta lankidetza. Elkarte hauek aipa daitezke: Berriztu, Gaztaroan Ekin, APNABI, Arazoak, Besarka, Era Berri, Gurutze Gorria, Hezilan, Nuevo Futuro, Unicef, ikastetxeetako guraso-elkarteak...(txosten honetako 2.1. atala).
- Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren barruan, halaber, aipagarria da Arartekoak halako elkarteek antolaturiko foro eta topaketetan parte hartzea; horietan, gazteen arazoak aztertu dira, bai gure erkidegoan eta bai bertotik kanpo dituzten arazoak.
- Retuertoko Ametzaga IP ixtearen eraginez (ikasturtearen erdian itxi da), eta bertako ikasleak Barakaldoko beste ikastetxe batzuetan banatzearen ondorioz, sektore batzuek ez zituzten gazte jakin batzuk eskolaratu nahi, hain zuzen ere, ijitoen familietako gazteak. Arartekoak, horiek guztiak eskolaratu beharra eta

eskolaratzeko erantzukizuna azpimarratzeaz gainera, bitartekaritza lana egin zuen zenbait sektoreren artean, eta eskolaratze proposamen zehatzak eskaini zituen; gainera, *Asociacion Iniciativa Gitana* izenekoarekin eta Hezkuntza Saileko arduradunekin ere lankidetzan jardun zuen.

- Gizarte sentsibilizazioko egintzetan eta kanpainetan parte hartu da, esate baterako, Arabako ikastetxe askok kanpo zorraren aurka sustaturikoetan; kanpaina horretan maila askotako 5.000 ikasle inguruk hartu zuten parte. Bertan Arartekoak Espainiako, Europako eta Iberoamerikako defendatzaileek harturiko erabakiak eta egindako proposamenak jakinarazi zituen.
- Giza Eskubideen Defendatzaileen, Prokuradoreen eta Ordezkarien Mintegian parte hartzea. Mintegi hori Federación Iberoamericana del Ombudsman (FIO) izenekoak antolatu zuen Bartzelonan, haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko proposamenak egiteko, Estatuburuen eta Gobernuburuen X. Gailur Iberoamerikarrari (Panaman izan zen). Mintegi horren ondorioz, “Bartzelonako Deklarazioa” sortu zen, 2000ko ekainaren 8an.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen artean, bestalde, Bakearen Kulturaren Nazioarteko Urtearen eraginezko kartelak banatu dira.
- Erakundea Gasteizeko ikastetxeetako ikasle taldeei aurkeztea; horiek egoitza ikustera etortzen dira, euren Udaletxearekiko lankidetza programaren barruan.
- Giza eskubideei buruzko eskolako materialak egiteko eta hedatzeko beketarako deialdiaren ondorioz, azken urte honetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara materialen lehenengo karpetak bidalita, Lehen Hezkuntzarako nahiz Bigarren Hezkuntzarako materialen prestakuntza amaitu da (Hegoa Oinarrian eta IPE taldeei emandako beketan) eta laugarren beka baterako deialdia egin da, multimediako materialak egiteko (txosten honetako 2.3. atala).
- Ikuspegi zabalago batetik, Ararteko erakundeak bere kezka eta konpromisoa mantendu ditu gazteak giza eskubideen kulturan eta tolerantziaren nahiz errespetuaren balioetan hezteko, gizarte demokratiko guztiek horren beharrizana baitute. Gure kasuan, hori egiteko beharrizana eta erantzukizuna are handiagoa da, izan ere, gure gizartean biolentzia eta hilketa urte askotan sustraiturik egon dira. Horri aurre egiteko, Arartekoak gizakiaren bizitzaren balio gorena defendatu nahi izan du; halaber, berak egindako kudeaketan elkarrizketa, bitartekaritza eta erabakien lorpena gauzatu nahi izan ditu. Beste alde batetik, zenbait proposamen egin ditu, bizikidetzari loturiko balioa hezkuntza sisteman modu sistematikoan aztertu ahal izateko. Eskolan giza eskubideei buruzko materialak (ikaslearentzat) egitea eta hedatzea, azkenik, horretarako laguntza baino ez da.

* * *

Amaitzeko, hemen hiru gomendio arauemaile gogoratu nahi ditugu, Arartekoak gazteen egoerari buruz egindakoak, gomendio horiek oraindik ez baitira bete:

- Umeen hezkuntza arautzeko beharrizana; erakunde honek 1998an horri buruzko gomendio orokorra egin zuen (VI. kapitulua, 2. atala, 1998ko txostena).

- Ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudia berrikusteko beharrizana; erakunde honek horri buruzko gomendio ere egin zuen (VII. kapitulua, 7.3. atala, 1997ko txostena), eta azken urte honetan horri buruzko kexak eta jarduerak egon dira.
- Gure Erkidegoko haurtzaroari eta nerabezaroari kasu egiteari buruzko lege baten beharrizana; lege horrek hiru Lurralde Historikoetan eska daitezkeen oinarrizko iritziak eta baldintzak ezarriko ditu (babesik gabeko gazteei buruzko txosten berezietan egindako gomendioak, 1997, eta delituak egiten dituzten gazteei buruzkoetan egindakoak, 1998, baita txosten honetako 1.1.6 atala ere).

## 4. ATZERRITARREN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

1999ko ekitaldiko txosten arruntean, Arartekoak atal bat sartzea erabaki zuen, erakunde honek atzerritar jatorriko pertsonen arazoei laguntzeko buruturiko jarduerak adierazteko. Gure inguruan gero eta atzerritar gehiago egotearen ondorioz, Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batek kontuan hartu beharreko egoerak sortu dira. Ikuspegi horretatik, ezin dugu ahaztu inmigrazioaren fenomenoak batez ere jatorri ekonomikoa duela, herria uzteko erabakia hartu duten pertsonek (familiak eta bizi ingurua ere uzten dute) euren bizi maila hobetu nahi dutela, mendebaldean nekez uler daitezkeen pobrezia eta bidegabekeria egoerak gainditzeko ahaleginean. Estatuko botereek eta gizarteak berak halako pertsonen eskabideei ematen dieten erantzuna, sarritan ez dator bat elkartasun printzipioaren aplikazioarekin eta horien oinarrizko eskubideak onartzearekin. Babesik eza, arauak ez ezagutzea, erakundeen nahiz organismo publikoen jardueren kontrolerako mekanismoaren berri ez edukitzea eta euren eskubideak ez jakitea kontuan hartuz, halako pertsonak ahultasun oso handiko egoeran daude. Horrenbestez, gure ikuspegitik, arreta berezia behar dute.

Inmigrazioaren fenomenoak garrantzi handia hartu du eremu guztietan, eta gizabanakoen buruan jarrera desberdinak sortu ditu. Beraz, gure uztez, talde hori gure gizartean ondo integratzeko, botere publikoek egin beharreko lan nagusienetariko bat integrazio horren eraginari garrantzia kentzea izango litzateke. Horretarako, interesgarria izango litzateke gizartea hezteko eta kontzientziatzeko kanpainak diseinatzea eta argitaratzea; halako kanpainetan landuko diren alderdiek, ezezagunak edo bereziak direnez, justifikazio gabeko kezkak sor ditzakete, pertsona horiek gure bizi-inguruan izango duten eraginari buruz. Izan ere, hau ez da “atzerritartasun” fenomenoa; pobrezia eta bazterkeriari loturiko arazoa da, eta hori areagotu egiten da gure artean jaio ez diren hiritarren kasuan; egin-eginean ere, ez ditugu horien arazoak ezagutzen, ezta halako pertsonen egoera pertsonalak eta kulturalak ere. Konpondu gabeko arazoa da eta ahalegin guztiak egin behar ditugu, jendearen iritzian ikusten den egoera hori gainditu ahal izateko. Beldurrak alde batera utzi eta buruak ireki behar ditugu, bertan aire berria sartu ahal izateko, zalantzarik gabe oso aberasgarria izango den aire berria.

Horri dagokionez, Arartekoaren jarduerak (2000ko ekitaldian buruturiko jarduerak) alderdi bikoitza eduki du. Batetik, ofiziozko jarduerak sustatu ditu, erakunde honen erantzukizunekin lotura estua duten jarduerak, baita erakunde mailako eskuhartzeak ere, jendea halako hiritarren arazoez jabetzeko. Beste alde batetik, kexa zehatzak tramitatu dira, interesatuek eurek edo GKEk eskatuta, azken horien jarduerek fenomeno honi zuzen lotuta baitaude.

2000. urtean, Arartekoak adin txikiko atzerritarrei dagokienez egindako kontrol jardueren jarraipenarekin jarraitu du. Jarduera hori babesik eza duten haurren eta gazteen arretarako burutu da, kasu honetan laguntzarik gabe iritsitako haur atzerritarrei dagokienez, baita delitua egin duten haur atzerritarren egoerari laguntza emateari dagokionez ere. Burutu diren ekintzak hobeto ezagutzeko, txosten honetako kapitulu egokira joko dugu.

Aztertzen ari garen ekitaldian, Arartekoak sasoikako langileen arazoen kontrol jarduerekin jarraitu du. Txosten honetan beste gomendio orokor bat eman da, sasoikako langileen ostatu baldintzak arautzeari buruz. Ezin dugu ahaztu horri dagokionez, aldi baterako langile horietarik gehienak atzerritarrak direla, Elkartekoak eta Elkartetik

kanpokoak. Jarduera horien irispena hobeto ezagutzeko, txosten honetako kapitulu egokietara joko dugu.

Era berean, ekitaldi honetan Bilboko San Francisco auzoan bizi diren atzerritarrekiko polizi eskuhartzeen kontrolerako jardueren jarraipena egin da. Gure eskuhartzearen irispena jakiteko behar den informazioa, bestalde, txosten honetako kapitulu egokian jasota dago.

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak arautzen dituen legearen aldaketak, beste alde batetik, kezka handia sortu du erakunde honetan. GKE batzuetako ordezkariekin harremanak izan dira, horiek halako hiritarren arazoetan laguntza eskaintzen baitute, batez ere “atzerritartasun” araubidearen ikuspegitik. Ordezkari horiek arazo horri buruz jakinarazi zizkiguten oharrak, balorazioak eta ondorioak, bestalde, herriaren defendatzaileari jakinarazi genizkion, horiek azter zitzan. Ezin dugu ahaztu, horri dagokionez, “atzerritartasun” araubidearen diseinua eta aplikazioa Estatuko organoen eskumenekoa dela (Gorte Nagusiak eta Gobernua); beraz, halako eskuhartzeei buruz egin daitezkeen kontrol jarduerak ere erakunde horren eskumenekoak izango dira.

Estatuko Herriaren Defendatzaileari, halaber, aurkezturiko kexa batzuk bideratu zaizkio; izan ere, kexa horiek lotura dute Estatuko Administrazioko Organoen eskumenak erabiltzearekin. Esate baterako, honako honi loturiko kexak jakinarazi zaizkio: naziotasuna, bisa, egoitza nahiz lan baimenak emateko espedienteetako arazoak; Elkartekoak ez diren atzerritarrek gida-baimenak lortzeko dituzten arazoak; atzerrian emandako unibertsitate tituluak homologatzeko zailtasuna; erakunde jakinetan lanpostua lortzeko egoten diren diskriminazioak…

Ofizioz edo alderdiak eskatuta tramitatu diren kexa espedienteetan era guztietako arazoak aztertu ditugu, eta horien artean honako hauek dira aipagarrienak: familiak berriro biltzeko prozeduren tramitazioan egoten diren atzerapenak, polizi jarduera irregularra, lan baimenak berritzeko arazoak, atzerritarrei trafikoaren arloan zehapen-araubidea aplikatzeko ezartzen zaizkien betebeharrak, haurren zentroaren kokapena, gizarte prestazio ekonomikoak lortzea…

Hasieran esan dugunez, atzerritarrak diren hiritarren egoerak kezka handia sortu du hau bezalako erakunde baten jardueran. Horrela, aditzera eman behar da txosten hau amaitzeko unean, eta Kanarietako Komunaren Diputatuak eskatuta, autonomietako defendatzaile guztiak Kanaria Handiko Las Palmas hirian bildu direla, 2001eko otsailaren 15ean eta 16an; lanerako forua osatu dute eta, bertan, “Autonomia Erkidegoak eta Inmigrazioak” epigrafearekin, zenbait jarduera aztertu eta baloratu dira; hain zuzen ere, kasuan kasuko eskumenen arabera, halako egoeretan laguntza emateko arazoei aurre egiteko egin daitezkeen jarduerak, Herriaren Defendatzailearekin koordinaturiko eskuhartze baten eremuan. Gure iritziz, halako ekimenen bitartez, beharrezko erakunde eta gizarte mailako sentsibilizazioa sortuko da, atzerritar jatorriko hiritarrek jasaten dituzten egoerak errealismoz eta elkartasunez aztertu ahal izateko, horiek pertsona arruntak bezala bizitzera iristen baitira geure herrira.

## 5. MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA

Aurten ere, atal honetan Arartekoak egin dituen jarduerak biltzeko ahalegina egingo dugu, jarduerok eragin zuzena edo zeharkakoa izan baitute minusbaliotasuna duten pertsonen taldean. Batetik, alderdiren batek eskatuta hasitako kexa-espedienteen tramitazioaren barruko jarduerak aztertuko ditugu; bestetik, berriz, erakunde honek talde horren eskubideen defentsan ofizioz egindako eskuhartzea.

**Hezkuntzaren** eremuan, gero eta gehiago dira hezkuntza beharrizan bereziak izanik ere euren eskolaratze arruntarekin jarraitzen duten ikasleak, derrigorrezkoak baino maila handiagoetaraino jarraitu ere. Errealitate horrek, hala eta guztiz ere, beharrizan berriak sortzen ditu: horien artean, eskainitako laguntzak goi mailako hezkuntza etapa horietako eskakizunetara egokitu beharra aipa daiteke. Horri dagokionez, talde horretako kideek eskatuta egindako jarduerak alde batera utzita, gure helburua ondorio batzuk biltzea da, laster barru aztertuko den txosten monografikoan.

Beste alde batetik, erakunde honetan aztertutako gai zehatzei dagokienez, Arabako ume autisten guraso-elkarteak egindako eskabidea aipatu nahi dugu (Arazoak Elkartea); eskabide horren helburua, berriz, euren seme-alaben eskolaratzearen eraginez aurkitutako arazoak zehaztea eta horietan orientatzea da. Jarduera hori Legebiltzarrak egindako ekimen baten bidez indarturik gelditu da (Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 2000ko ekainaren 13an hartutako Erabakia); bertan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari talde horretako kideen hezkuntza beharrizan bereziak zorrotz aztertzeko eskatzen zaio, baita beharrizan horiei erantzun egokia emateko laguntza sistemen egokitzapena aztertzeko ere.

Guraso batzuek egindako eskabidean adierazitakoaren arabera, euren 8 urteko semeak diabetea zuen eta gaixotasun horren araberako arreta bereziak jaso behar zituen ikastetxean; Arartekoak arazo horretan ere esku hartu zuen (gluzemia baloratu eta intsulina eman); gurasoek aurkeztutako kexak lotura estua zuen euren semeak bere burua berenez zaindu arte aurkituko zituen arazoekin.

Ume horrek eskolaratze egunetatik kanpo jaso behar zuen arretarako, Osakidetzak ez zuen arreta neurri berezirik ezarri behar; eta, osasun erakunde hori ikastetxera joaten zenean, ez zen eteten neurri edo arretarik. Kasu horren berezitasuna, beraz, ume horren eskolaratzean oinarritzen zen; izan ere, eskolan oporraldietan edo eskolatik kanpoko orduetan baino zaintza txarragoa jasotzen zuen.

Azkenik, Sailak ikasle horren beharrizanei kasu egiteko erantzukizuna bereganatu zuen; horretarako, hezkuntza bereziko laguntzailearen laguntza ezarri zuen (nahiz eta hezkuntza bereziko ohiko beharrizana ez izan) eta ikastetxeko ikasleek ere parte hartu zuten horretan.

1999ko txostenean iragarritakoaren arabera, ikerketa monografiko baten aurretiazko tramiteak hasi ziren; ikerketa hori, EAEn hezkuntza beharrizan bereziei eman beharreko erantzunari buruzkoa zen; txostenean hezkuntzaren arloko beharrizan berezi mota desberdinen erantzuna aztertuko zen, esate baterako, minusbaliotasun fisikoak, psikikoak edo sentsorialak (jokabide arazo larriak edukitzeagatik edo gizarte nahiz kultur egoera txarrean egoteagatik); era berean, adimen gaitasun handiak izatearen ondorioz arreta berezia behar zuten ikasleen kasua ere kontuan hartuko zen.

Ikerketa lan horren adjudikazio prozesua 1999aren azkenetan hasi zen.

Ordutik aurrera, 2000. urte osoan, iturri askotako informazioa jaso da: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta horren menpeko zerbitzu asko; sektore horretako profesionalak eta adituak; famili eta laguntza elkarteak; hezkuntza beharrizan bereziak dituzten pertsonak... Halaber, datuen eta txostenen ustiapenean ere aurrera egin da: eskolaratzeari buruzko datu kuantitatiboak, hezkuntza beharrizan bereziak dituzten pertsonen bizitzako historiak, Delphiko galdeketei adituek emandako erantzunen azterketa, familiakoei nahiz elkartetako langileei egindako elkarrizketak...

Urteroko txosten hau idazteko orduan, eztabaida taldeen bilerak egiten ari dira lurralde guztietan; datuen behin betiko ustiapena oso aurreraturik dago eta atal batzuk idazten ari dira horiek txostenean sartzeko. Behin betiko txostena 2001. urteko lehen seihilekoan eman nahi zaio Eusko Legebiltzarrari.

**Ogasunaren** eremuan, oraingoan ere erakundearen jarduera eremua hauxe izan da: minusbaliotasun fisikoen bat duten pertsonei Foru aginduetan jasotako onura fiskalak aplikatu ahal izatea.

PFEZri dagokionez, minusbaliotasunen bat duten pertsonen kexa batzuk jaso dira; horien diru-sarrera iturri bakarra kalifikazio horren ondoriozko pentsioak dira; kexa horietan, berriz, lan-errendimenduen desgrabazioa egiteko ezintasuna salatzen da, desgrabazio hori modu berezian aplikatu behar baitzaie langile "minusbaliatuei"; talde horri onartzen zaion desgrabazio horrek (areagoturiko desgrabazioa) eskatzen duenaren arabera, pertsonak inorentzako lana egin behar du; gainera, langileari minusbaliotasunak dakarkion gastu handiagoa konpentsatzeko moduren bat ere aurkitu nahi da.

Prezio publikoen arloan, talde horren interesak ordezkatzen dituzten zenbait elkarteren kexak aipa daitezke, batez ere kobrantzen kudeaketari buruzko alderdian; izan ere, Administrazioak halako kobrantzak egiten ditu, zentro berezietan halako pertsonak edukitzearen ondorioz.

Toki-zergen kasuan, Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen Zergari dagokionez, esan behar da erakunde honek toki-erakundeei gogorarazi egin diela euren ordenantza fiskalak zerga hau arautzen duten foru arauetara egokitu behar direla. Foru arauetan, beste alde batetik, jasota dago gehienezko ahalmen fiskalaren aplikazioa, hau da, minusbaliotasunen bat duten pertsona guztien ibilgailuek zerga hori ez ordaintzeko eduki behar dutena; hala eta guztiz ere, udal batzuek oraindik ere salbuespen hori aplikatzen jarraitzen dute, udal ordenantzetan jasotako ahalmen fiskalaren mugei dagokienez. Muga horiek, berriz, foru arauek ezarritakoak baino murriztaileagoak dira.

Beste alde batetik, esan behar da salbuespen hori ez dela ibilgailuaren titularrak minusbaliotasunen bat edukitzearen ondoriozkoa (Aldundiek medikuntzako balorazioa egiteko dituzten zerbitzuek onartutako minusbaliotasuna); garraiobide batzuen zergarekin beste gauza bat gertatzen da eta horri matrikulazio zerga esaten zaio. Zerga horretan, salbuespena automatikoa eta ibilgailuaren titularrak minusbaliotasunen bat edukitzearen ondoriozkoa da; dena dela, zergaren aitorpena egiten den unean eskatu behar da; izan ere, salbuespenaren aplikazioa likidazioa aurkeztu eta ordaindu ondoren eskatuz gero, Foru Ogasunek ez dute ordaintzen zergaren itzulketa, nahiz eta frogatu ibilgailuaren titularrak minusbaliotasuna onartuta zuela, ibilgailua lortu eta matrikulatu baino lehen.

1999ko txosten arruntean sartutako gomendio orokorrean jasotako arau-aldaketak onartzeko mailari dagokionez, **"EAEn minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako zerga politika izenburupean",** horiek txostena amaitzean argia ikusiko duten zergak arautzen dituzten xedapenetan izango duten eragina ikusi beharko da. Horien

artean, esate baterako, PFEZn gaixotasunaren ondoriozko gastuen murrizketa berriro ezartzea aipatzen da, minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat.

**Funtzio publikoaren** eremuan, aipatu egin nahi dugu minusbaliotasuna duen hiritar batek aurkezturiko kexa; horrek interesa zuen Bizkaiko Foru Aldundian zerbitzuak emateko; kexan zalantzan jartzen zen bera ordezpenen zerrendan sartu ezin izatea.

Gure eskuhartzeak jasotako erantzunean, Foru Aldundiak bidalitako txostenean, minusbaliotasunen bat duten pertsonen integrazioari loturiko konpromisoaren berri jasotzen zen, halako pertsonek lan merkatuan sartzeko dituzten arazoak kontuan hartuz. Horri dagokionez, bete gabeak erreserbatzeko (gutxienez %3) betebeharra ezartzen duten arauak bete behar zirela esaten zen, %33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila duten langileen babeserako. Era berean, behin-behineko kontratazioaren %3,33ko erreserba egiaztatzen zen minusbaliotasunen bat zuten pertsonentzat.

Hala eta guztiz ere, kexa eragin zuen helburuari dagokionez (zerrenda jakin batzuetan egotea), sistema itxia zegoen, ordura arteko hautapen prozesuetako emaitzak kontuan hartuz; egoera horrek, berriz, pertsona horrek egindako kontratazio eskabidea kontuan hartzeko zegoen muga azaltzen zuen.

Behin-behineko edo aldian behingo beharrizanak betetzeko hautagaiak aukeratzeko, sistema asko erabil daitezke, eta guztiek errespetatzen dituzte berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak (Konstituzioan ezarritakoaren arabera, enplegu publikoak lortzeko behar diren printzipioak).

Arartekoak badaki hautagaien interes guztiak ez direla beti berdinak izaten; izan ere, horiek aurretiazko hautapen prozesuen emaitzetan oinarrituriko sistemak mantendu nahi izaten dituzte, baita beste sistema batzuek ere, hain zuzen ere, antzinatasunean edo emandako zerbitzuetan oinarrituriko sistemak.

Era berean, aipaturiko edozein sistema berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen araberakoa dela kontuan hartuta, sistema bata edo bestea aukeratzea herri administrazio guztien zuhurtziarakotasunen barruan sartzen da, euren baliabideak hobeto eta modu eraginkorragoan antolatzeko duten zuhurtziarakotasunaren barruan. Hori dela eta, kasu bakoitzean egiten den aukera ezin daiteke aztertu edota fiskalizatu legezkotasun irizpideen arabera; izan ere, aukera irizpideen arabera baloratu beharko da, erakunde honen kontrolpetik kanpo dauden irizpideen arabera.

Minusbaliotasunen bat duten pertsonen arazoek (2000. urtean) eragina izan dute ibilgailuak aparkatzeari loturiko alderdietan. Horrela, interesatuek eurek eskatuta, arazo horri loturiko kexa batzuk jaso dira **barne** eremuan. Kasuetariko batean, Arartekoaren iritzipean jarri da minusbaliotasuna duen pertsona baten ibilgailua bide publikotik kentzea, ibilgailua minusbaliotasuna duen pertsona batena dela jakin ondoren, eta gero salaketa egokia egitea, automobilak erabiltzaile jakinak erabiltzeko erreserbaturik zegoen eremu batean aparkatzeagatik. Beste kasuetariko bat, bestalde, Donostiako portuan aparkatzeko araubidea aldatzeari buruzkoa da; araubide horren arabera, eremu horretan ez da erreserbarik egiten minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat. Azkenik minusbaliotasunen bat duten pertsonek arazoak dituzte euren ibilgailuak egoera horrek eragindako hiritarrentzat gordetako lekuetan aparkatzeko, leku horiek gaituriko ibilgailuek okupatzen dituztenean.

Bestalde, erakunde honek hiriaren antolamenduan **eskuragarritasuna** sustatzeko eragindako jarduerei dagokienez, herri administrazioei berriro adierazi zaie botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela, eskuragarritasuna bermatzeko hiriko

ingurura, eremu publikoetara, eraikinetara, garraiobideetara eta komunikazio sistemetara, pertsona guztiei eta baldintzarik egokienetan bermatu ere. Horrela, Gasteizeko Udaletxeari hauxe eskatu zaio: hiriko autobusetan minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako ezarlekuak gordetzeko seinaleak kontuan hartzeko.

Era berean, arreta berezia jarri zaio eraikin publikoen barrualderako sarbidea bermatzeko neurriak hartzeari, batez ere, eraikin horietan (egoitzak, eguneko zentroak) edadeko pertsonentzako oinarrizko gizarte zerbitzuak ematen direnean.

Babes ofizialeko etxebizitzak minusbaliotasunetara egokitzea eta etxebizitzen birgaikuntzetarako laguntzak lortzea ere, ekitaldi honetan, erakunde honen jarduera eremuaren barruan sartu da, minusbaliotasunen bat duten pertsonen eskubideen defentsan.

Beste alde batetik, azterturiko gaien artean, Arartekoari Gipuzkoako Minusbaliatu Fisikoen Koordinaziorako Federazioak aurkezturiko kexa aipatu nahi dugu. Bertan adierazitakoaren arabera, Iruneko udaletxearen iritziz abenduaren 4ko 20/1997 Legea (eskuragarritasuna sustatzeari buruzkoa) ezin daiteke aplikatu ostalaritzako lokal publikoetan.

Hori ez zen horri buruz aurkezturiko lehenengo kexa, Udaletxe batzuek irizpide hori mantentzen baitute.

Arartekoak idazki bat bidali zuen Iruneko udaletxea; bertan adierazikoaren arabera, abenduaren 4ko 20/1997ko Legearen 4.3.1 artikuluaren jarduera eremuaren barruan, ostalaritzarako diren oinplano berriko eraikinak eta instalazioak sartzen dira.

Nolanahi ere, argiturik gelditzen da 20/1997 Legearen aplikazioari buruz egin daitekeen edozein zalantza edo interpretazio, ostalaritzako lokalei dagokienez, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua kontuan hartuz; azken dekretu horren bidez, onetsi egiten dira eskuragarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak, hiriko inguruan, eremu publikoetan, eraikinetan eta informazio nahiz komunikazio sistemetan. Dekretu hori 2000ko ekainaren 12ko 110. EHAAn argitaratu eta 2000ko abenduaren 12an sartu da indarrean.

Dekretu hori onestearen eraginez, 20/1997 Legearen aplikazioari edukia eman zaio, eta minusbaliotasunen bat duten pertsonen taldearen errebindikazio nagusietako bat lortu da, gizarte osoan duen eragina ere kontuan hartuta; egin-eginean ere, arauaren unibertsaltasun nabariaren helburua inguru fisikoaren eskuragarritasuna bermatzea da, baita pertsona guztien komunikazioa bermatzea ere, batez ere dena delakoagatik mugaren bat duten pertsonen komunikazioa.

68/2000 Dekretuak eranskin batzuk ditu eta, horien bidez, arau teknikoak honelaxe zehazten edo banatzen dira:

I. eranskinean elementu antropometrikoak zehazten dira; horren barruan, eskuragarritasunaren arloko oinarrizko definizioak sartzen dira, eta eskuragarritasun horretan arazoak dituzten pertsonen taldeak identifikatzen dira. Era berean, neurriak, gorputzaren dimentsioak, kontrol egoerak eta espazio beharrizanak ezartzen dira mugimenduetarako eta transferentzietarako; halaber, hiriko inguruaren, eraikuntzaren, garraioaren eta komunikabideen diseinurako kontuan hartu behar diren alderdi guztiak ere ezartzen dira.

II. eranskinean, hiriko inguruaren eskuragarritasun baldintzak arautzen dira; hain zuzen ere, eremu publikoetan eta Erkideko ekipamenduetan, pertsonek horiek erabili eta eurotaz gozatu ahal izateko.

III. eranskinean eraikuntzaren eskuragarritasun baldintzak jasotzen dira; horrek eragina dauka titulartasun pribatu edo publikoko eraikin guztietan, pertsona guztiek horiek erabili edota eurotaz gozatu ahal izateko.

Azkenik, IV. eta V. eranskinetan (hurrenez hurren) komunikazio sistemen eskuragarritasun baldintzak ezartzen dira, baita handitze, berritze edo aldatze lanetan ere.

Arau honetan ezarritakoa bete egingo dela bermatzeko, beharrezkoa izango da administrazio guztiek egiten duten jarraipena eta kontrola (batez ere udaletxeek egiten dutena), aurkezten diren eraikuntzako edo berrikuntzako proiektu tekniko guztiei dagokienez, baita eurek sustaturiko lanen betearazpenari dagokionez ere.

Amaitzeko, erakunde honek minusbaliotasunen bat duten pertsonek azaldutako arazoei emandako erantzunak (lehen esan dugunez) kexen tramitazioan oinarritu dira, baita elkarteekiko laguntzan nahiz lankidetzan, ofizioz egindako jardueretan (arkitektura nahiz hirigintza oztopoei buruzkoak) eta zerga politikari buruzko gomendio orokorrean ere (gomendio hori, berriz, iazko urteroko txostenean egin zen minusbaliotasunen bat duten pertsonentzat). Hala eta guztiz ere, instituzio honek erabakitakoaren arabera, ekitaldi honetan **txosten berezia egingo da minusbaliotasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruz**; arazo horiek eta beste batzuek ere berriro aztertuko dira, halako pertsonen beharrizanen ikuspegi orokorragoa eskaintzeko, eta hobetu beharreko alderdien ikuspegi orokorragoa eskaintzeko ere bai.

Lan honetan aipaturiko pertsonen taldea mugatzeko erreferentziatzat hartu diren kontzeptuak, bestalde, elbarritasuna eta minusbaliotasuna izan dira; kontzeptu horiek Osasunaren Munduko Erakundeak (OMS) proposatu ditu Elbarritasunen eta Minusbaliotasunen Nazioarteko Sailkapenean; sailkapen horretan kontuan hartzen dira gaixotasunaren ondorio orokorren maila guztiak (organikoa-pertsonala-soziala). Talde honetan era askotako egoerak eta arazoak daude. Lanak aniztasun hori guztia jaso nahi du.

Lan eremuaren bigarren mugaketak lotura estua dauka aztertuko diren arazo zehatzekin. Lehen ere aipatu ditugu Arartekoak gehien adierazten dituenak: oztopoak, fiskaltza, lana eskuratzeko aukera, etxebizitza lortzeko aukera, minusbaliotasunen balorazioa. Baina garrantzi handiko beste arazo batzuk ere badira: birgaikuntza fisiologikoa, sasoiz egindako arreta, egoitzazko ostatua, laguntza teknikoak, arreta informala eta zaintzaileen arazoak...

Ez dirudi horiek guztiak aztertzeko aukerarik dagoenik, behintzat ezin da horiei guztiei buruzko azterketa sakonik egin. Ikerketaren helburua sektore horretako arazoen ikuspegi orokorra eskaini eta arazoetarikoren batzuetan sakontzea izango da, hain zuzen ere, lehentasunezkoak edo erakundeen eraginpekoak izan daitezkeen arazoetan. Hartutako ikuspegia, bestalde, Arartekoarena izango da, hau da, pertsona horien eskubideen defentsa: kasu honetan, gizarte ondasunak eta baliabideak gainerako hiritarren baldintza berberetan eskuratzeko aukeretan zehazten dira (gizarteratzea).

Ikerketaren barruan, hiru Lurralde Historikoak sartuko dira; gainera kontuan hartu nahi dira egoera berezi guztiak, eta informazio iturritzat, berriz, inplikaturiko sektore guztiak erabili nahi dira: minusbaliotasuna duten pertsonak eurak, administrazioak, profesionalak nahiz gizarte eragileak, elkarteak...

Ikerketa lana adjudikatzeko prozesua 2000. urtearen azkenetan hasi zen. Behin betiko txostena datorren urteko lehenengo erdian eman nahi diogu Eusko Jaurlaritzari.

# III. ATALA

# ARARTEKOAREN JARDUERA KOPURUTAN

# 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

299 kasutan Administrazioak irregulartasunen bat egin duela jo da, hau da, erakundean azterturiko banakako nahiz taldeko kexa guztien % 30,92an (horien tramitazioa 2000. urtean amaitu da).

Aditzera eman behar da 229 erreklamaziotan kexen hiru laurden baino gehiagotan (horiek ikertu ondoren, Administrazioaren jokabidea erreklamazioa egin duen pertsonarekiko bidezkoa ez dela izan ikusi da) kasuan kasuko administrazioak kexa eragin duen jarduera konpontzea lortu duela, gomendioa egin behar izanik gabe. Horrela, gai askok konponbide egokia izan dute erakundearen esku-hartzearen faseetan, esate baterako, informazio eskabideak edo nahasitako alderdien datuen nahiz argudioen azterketak; horiek gomendioa egiteko berariazko ebazpenaren aurrekoak izan dira eta, beraz, ebazpen hori ez da beharrezkoa izan. Irregulartasunen bat egin duen administrazioari gomendiorik egin behar izan zaionean, erantzuna aldekoa izan da eta kasu guztien % 62an gomendioa onartu egin da. Arartekoaren esku-hartzearen eraginkortasun maila, beste alde batetik, kexa eragin duen gaiari konponbidea aurkitzeko bi bideak kontuan hartuz (gomendio barik edo gomendioa onartuta), pozik egoteko modukoa izan da; izan ere, irregulartasunen bat izan duten kasuen ia % 90ean administrazioek konpondu egin dute erreklamazioa eragin duen jarduera.

***Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun maila***

| | % | % |
|---|---|---|
| **Konpondutako irregulartasuna** ................. | | 89,7 |
| Gomendiorik gabe ..................................... | 76,6 | |
| Gomendioa onartuta ................................. | 12,7 | |
| **Konpondu gabeko irregulartasuna (gomendioa ukatuta)** .............................. | | 7,69 |
| **Beste batzuk** ............................................. | 3,01 | |

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

2000. urtean 1.231 kexa aurkeztu dira. Aurreko urtean izandako kexekin konparazio bat eginez (modu homogeneoan), eta orduan kexa berdin-berdinen talde batek 62 espediente pertsonal eratzen zituela kontuan hartuz, % 0,73ko gorakada egon dela ikusten da. Taldeek 168 erreklamazio aurkeztu dituzte: auzo elkarteak, errebindikazio plataformak, sindikatuak, ekologi taldeak, etab. Gainera, bakoitzak 3.000 pertsonaren

babesa duten 2 kexa daude (sinaturik daude); halaber, beste hamabi kexatik bakoitzak beste 100 sinaduraren babesa dauka.

Ararteko erakundearen jarduerak (Eusko Legebiltzarreko Txostenaren kapitulu honetan zifretan laburbilduta dago) balorazio oso positiboa izan du, erakunde horretan erreklamazioren bat aurkeztu duten pertsonei dagokienez. Bosgarren urtez jarraian egin den inkestaren emaitzek, behintzat, horixe ematen dute aditzera; euren kexa tramitaturik ikusi duten pertsonei galdeketa bat bidali zaie, nahi izanez gero eta izenik ipini barik bete ahal izateko. Jasotako erantzunek aditzera eman dutenez, erreklamaziogileen % 77,66aren balorazioa ona edo oso ona izan da, euren kexak izan duen erantzunari dagokionez; % 20,80aren balorazioa, ostera, txarra edo oso txarra izan da. Inkesta honi erantzun dioten erreklamaziogileen % 85,28ak (inkestaren emaitzak aurrerago aztertuko dira zehatzago) aditzera eman du Administrazioarekin arazoak dituzten pertsonei Arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekeela (% 61,42ak kasu guztietan egingo luke hori, eta % 23,86ak kasu batzuetan); % 11,68ak, aldiz, ez luke halakorik inoiz ere aholkatuko.

**- Jasotako kexak**

2000. urtean 1.231 kexa jaso dira guztira. Aditzera eman behar da aurreko urte batzuetan tramitaturiko espediente pertsonalen guztizko kopuruan kexa berdin-berdinen multzo bat sartzen zela.

***Jasotako kexa kopuruaren bilakaera (1989-2000)***

| Urteak | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 585 | 1159 | 766 | 781 | 827 | 747 | 1.164 | 1.674 | 1.991 | 2.660[1] | 1.283[2] | 1.231 |

[1] 1.143 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo eratzen dute

[2] 62 kexek kexa berdin-berdinen multzo 1 eratzen dute

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

**- Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legeko 21. artikuluak aditzera ematen ditu hiritarren kexak *ez* onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2000. urtean zenbaturikoen guztizkotik, lehenengo eta behin, dena delakoarengatik onartu ez diren kexak bereiztu behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegietan planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zegoen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo gelditzeagatik.

Nolanahi ere, 2000. urtean erreklamazioei ahalik eta estaldura juridiko handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauei hiritarrak aurkezturiko kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko, *in dubio pro actione* maximan oinarrituz. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du hiritarrari gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

| *Onartu gabeko kexak eta egoerak* | |
|---|---|
| Norbanakoen arteko arazoa | 41 |
| Eskumen eremutik kanpo | 39 |
| Irregulartasun nabaria | 30 |
| Epai bidean | 20 |
| Aurrez administrazioari aurkeztu gabeak | 10 |
| Legezko epeen zain egon beharra | 9 |
| Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna | 8 |
| Urtebetetik gora igaro | 5 |
| Formako akatsa | 4 |
| Guztira | 166 |

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

**- Herriaren Defendatzaileari eta beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak**

Ararteko erakundeak berak zuzenean tramitatzen *ez* dituen kexen artean, ondokoak sartzen dira: jorraturiko arloa dela bide, euren tramitaziorako Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkionak, Estatuko Administrazioko jarduerak izatearen ondorioz (beraz, *ez* daude erakunde honen kontrolaren eremupean). Kexa horiei, gainera, beste erkidego batzuetako parlamentariei bidalitakoak gehitu behar zaizkie.

2000. urtean, Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexa kopuruak % 25eko beherakada izan du, 1999. urteari dagokionez.

| | |
|---|---|
| Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak | 101 |
| Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak | 7 |

**- Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak**

Estatistikei dagokienez, bereiz zenbatzen dira Ararteko erakundean bertan onartuak izan arren Euskadiko Herri Administrazio jakin baten jardueraren aurka bideratu *ez* diren erreklamazioak.

Beste modu batera esateko, halako kexetan zenbait kudeaketa egin behar izan dira, hiritarrak planteaturiko arazoa konpontzeko; eta, jakina, horietan era askotako gaiak eta arazoak jorratzen dira. Horri dagokionez, izen honetako eremuari dagokion kapituluan, aztertu diren gaien zirriborroa egiten da.

| | |
|---|---|
| Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak | 24 |

**- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko modua**

Lehenengo hurbiltze batean, badirudi administrazio jakinaren jarduerek eragindako edo arlo jakinean kokaturiko kexa kopuru handia egotea estu lotuta dagoela hiritarrek administrazio horren funtzionamenduarekiko duten iritzi txarrarekin, akatsak nahiz botere gehiegikeriak edo legea betetzen ez duten jarduerak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, erakunde honen iritziz, beharrezkoa da aurreko lerrokadan kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura handiak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, *a priori* administrazio jakinaren jarduerak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsuena) erreklamaziogilea erakundea honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari loturiko arrazoiak). Halaber, kexa kopuruaren datu hotza baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egin beharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabidea irregularra izan denean.

Estatistika atal honetako zifren balorazioa egiteko orduan, komenigarria da faktore geografikoa kontuan hartzea; faktore horrek, aurrerago ikusiko dugunez, eragin erabakigarria dauka, erreklamaziogilearen egoitza erakunde honen egoitzatik edo arrera zuzeneko bulegoetatik (1996ko erdialdean hasi ziren erabiltzen) hurbil ala urrun egotearen arabera..

## 2. ARLOEN ARABERAKO ESTATISTIKA

Kexak eurei loturiko gaikako arloen arabera ikertzean ikusten denez, 2000. urtean aldaketa batzuk egon dira, aldaketa horiek oso handiak izan ez arren, arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez.

Aurreko urteari dagokionez, erreklamazio kopuruak gorakada nabaria izan du Funtzio Publikoaren eta Osasunaren arloetan, eta 42 eta 25 kexa gehiago egon da, hurrenez hurren.

Aldiz, Ogasunaren eta Hirigintzaren nahiz Etxebizitzaren arloan, kexa kopuruak beherakada txikiagoa izan du: 1999an baino 24 eta 18 erreklamazio gutxiago jaso da, hurrenez hurren.

Beherakada hori egon arren, oraindik ere Ogasuna da kexarik gehien duen arloa, erreklamazio guztien % 13,18 jasotzen baitu. Funtzio Publikoak, bestalde, kexa guztien ia % 13 jasotzen du, eta horren atzean Herri Lan eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Etxebizitza eta Osasuna datoz.

***Zuzen tramitaturiko kexen banaketa, jarduera eremuka***

| | Jasotako kexak | % |
|---|---|---|
| Ogasuna | 123 | 13,18 |
| Funtzio Publikoa | 121 | 12,97 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 110 | 11,79 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 92 | 9,86 |
| Osasuna | 86 | 9,22 |
| Ingurumena | 83 | 8,90 |
| Herrizaingoa | 81 | 8,68 |
| Hezkuntza | 74 | 7,93 |
| Gizarte Ongizatea | 71 | 7,61 |
| Justizia | 49 | 5,25 |
| Kultura eta Elebitasuna | 20 | 2,14 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 19 | 2,04 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 4 | 0,43 |
| Guztira | 933 | 100 |

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

Nolanahi ere, aditzera eman behar da kexek arloen arabera duten banaketa, azken urteotan, nahiko homogeneoa dela, eta arlo jakin bat ez dela nabarmen nagusitzen besteei dagokienez.

**- Kexen sailkapena azpiarloen arabera**

2000. urtean gaika jasotako kexen banaketa aztertuz gero, hurrengo koadroan azpiarlo bakoitzak gaikako arlo bakoitzean (Ararteko erakundeak horietan sistematizatzen du bere lana) egon diren aldaketetan duen eragina ikusten da.

***Jarduera azpiarloen arabera jasotako kexen banaketa***

| | | |
|---|---|---|
| **Ogasuna** | | **123** |
| Udal zergak | 36 | |
| Foru zergak, PFEZ | 32 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 21 | |
| Udal tasak | 11 | |
| Foru aldundiek tokiko zergak kudeatzea | 8 | |
| Udal prezio publikoak | 7 | |
| Foru zergak, BEZ | 3 | |
| Foru zergak, GPZ | 1 | |
| Beste alderdi batzuk | 1 | |
| Prezio publikoak, EAE | 1 | |
| Foru prezio publikoak | 1 | |
| Kontratazio, ondare eta erantzukizun administratiboaren araubidea | 1 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Funtzio publikoa** | | **121** |
| Funtzio publiko orokorra | 43 | |
| Irakaskuntzako funtzio publikoa | 35 | |
| Osasuneko funtzio publikoa | 27 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 11 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 3 | |
| Beste alderdi batzuk | 2 | |
| **Herri Lanak eta Zerbitzuak** | | **110** |
| Tokiko zerbitzu publikoak | 31 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araub... | 21 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 14 | |
| Garraioak | 14 | |
| Obren burutzapena | 8 | |
| Derrigorrezko desjabetzapena | 6 | |
| Baserriko bideak | 5 | |
| Obra proiektuak | 5 | |
| Beste herri zerbitzu batzuk | 4 | |
| Eskuragarritasuna | 2 | |
| **Hirigintza eta etxebizitza** | | **92** |
| Etxebizitza | 40 | |
| Hirigintza diziplina eta aurria | 19 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 10 | |
| Hirigintza antolamendua | 10 | |
| Hirigintza kudeaketa | 4 | |
| Eskuragarritasuna | 3 | |
| Beste alderdi batzuk | 3 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araubidea.. | 3 | |
| **Osasuna** | | **86** |
| Erabiltzaileen eskubideak | 40 | |
| Osasun laguntza | 21 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 10 | |
| Osasun publikoa | 6 | |
| Beste alderdi batzuk | 3 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araubidea.. | 3 | |
| Buruko osasuna | 3 | |
| Ingurumena | 83 | |
| Egoitzazko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 63 | |
| Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 11 | |
| Hondakinak eta isurketak | 3 | |

| | | |
|---|---|---|
| Naturgune babestuak. Landaredia-fauna babestea | 2 | |
| Ingurumenak jasandako beste kalte batzuk | 2 | |
| Lurzoru urbanizaezinean sailkaturiko jarduerak | 1 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 1 | |
| **Herrizaingo Saila.** | | **81** |
| Trafikoa | 57 | |
| Herritarren segurtasuna | 13 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 5 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 3 | |
| Jolasak eta ikuskizunak | 2 | |
| Hauteskunde araubidea | 1 | |
| Hezkuntza | 74 | |
| Unibertsitateko irakaskuntza | 21 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 10 | |
| Haur hezkuntza | 9 | |
| Ikastetxeak | 8 | |
| Beste alderdi batzuk | 8 | |
| Eskubideak eta betebeharrak | 5 | |
| Helduen hezkuntza | 4 | |
| Hezkuntza berezia | 4 | |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 3 | |
| Arte irakaskuntzak | 1 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araubidea. | 1 | |
| **Gizarte Ongizatea** | | **71** |
| Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak | 31 | |
| Haurrei eta gazteei laguntzea | 11 | |
| Beste alderdi batzuk | 7 | |
| Nagusien laguntza | 6 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 6 | |
| Minusbaliatuei emandako laguntza | 5 | |
| Emakumeei emandako laguntza | 2 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araubidea. | 2 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 | |
| **Justizia** | | **49** |
| Espetxeetako jarduerak | 19 | |
| Justizi administrazioaren ibilera | 18 | |
| Abokatu eta prokuradore elkargoak | 9 | |
| Doako laguntza juridikoa | 2 | |
| Beste alderdi batzuk | 1 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Kultura eta Elebitasuna** | | **20** |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 5 | |
| Kontrat., ondare eta erantz. administratiboaren araubidea. | 5 | |
| Elebitasuna | 4 | |
| Kultur jarduerak | 2 | |
| Kirola | 1 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 | |
| Beste alderdi batzuk | 1 | |
| Kultur ondarea | 1 | |
| **Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa** | | **19** |
| Industria | 6 | |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 4 | |
| Kontsumoa | 3 | |
| Merkataritza | 2 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 2 | |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedurak. | 1 | |
| Turismoa | 1 | |
| **Lana eta Gizarte Segurantza** | | **4** |
| Administrazioaren ibilera eta adm. prozedura. | 2 | |
| Beste alderdi batzuk | 1 | |
| Lana | 1 | |

## 3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ESTATISTIKA

Administrazio bakoitzari buruzko kexa kopuruari kasu eginez gero, argi ikusten da 2000. urtean ere toki Administrazioak eragiten duela erreklamaziorik gehien (% 40,74); gero, Eusko Jaurlaritzako Administrazioa dator (% 39,61), eta horrek % 3ko gorakada izan du.

Foru Administrazioak, egindako kudeaketaren ondorioz, iaz baino kexa kopuru txikitxoagoa eduki du.

Era berean, Herriaren Defendatzaileak eskuordetuta, Estatuaren Administrazioaren aurkako kexa batzuk ere ikertu dira.

Hurrengo koadroan, adierazitako guztizko kopurua ez dator bat tramitaturiko kexa kopuruarekin (lehen adierazitako kopurua), kopuru hori baino handiagoa baita. Horren arrazoiak bi dira: batetik, kexa batzuek administrazio batean baino gehiagotan dute eragina; bestetik, kexa batzuek gai bat baino gehiago planteatzen dute erreklamazio bakarrean, eta, horren ondorioz, ebazpen desberdinak behar izan dira, administrazio bati edo gehiagori zuzenduak, eta horiek ere zenbatu egin dira.

**_Ukituriko administrazioek eurek zuzenean tramitaturiko Kexen banaketa_**

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Toki Administrazioa | 398 | 40,74 |
| Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusia (Eusko Jaurlaritza) | 387 | 39,61 |
| Foru Administrazioa | 151 | 15,45 |
| Estatuko Administrazioa | 16 | 1,64 |
| Erakunde publikoak | 12 | 1,23 |
| Justizia | 9 | 0,92 |
| Eusko Legebiltzarra (Kontu Publikoen Euskadiko Auzitegia) | 4 | 0,41 |
| Guztira | 977 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

A) **Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkezturiko kexak**

**- Arloen araberako banaketa**

Jakina zenez, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko arloetan (Funtzio Publikoa, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingo Saila eta Hirigintza eta Etxebizitza) kexa kopuru handiena egon da. Aipagarria da Funtzio Publikoan egindako erreklamazioen gorakada (iaz baino 43 kexa gehiago), eta hori azaltzeko, Eusko Jaurlaritzako Lan Eskaintza Publikoaren hasiera aipa daiteke.

Jasotako erreklamazio guztiek arloka zuten banaketan gertaturikoaren alderantziz, Ogasun arloak beste arloek baino garrantzi erlatibo txikiagoa dauka, Eusko Jaurlaritzaren jardueren edo ez-egiteen aurka planteaturiko kexei dagokienez. Hori azaltzeko, beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak ogasunaren arloan izan duen jarduera kopuru txikia aipa daiteke (aldundien eta udaletxeen jarduera kopuruarekin konparatuz gero). Horren antzeko gauza bat gertatzen da Gizarte Ongizateko erreklamazioekin ere.

***Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkeztu diren kexen arlokako banaketa***

| | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Funtzio Publikoa | 103 | 26,61 |
| Osasuna | 81 | 20,93 |
| Hezkuntza | 71 | 18,35 |
| Herrizaingoa | 45 | 11,63 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 36 | 9,30 |
| Gizarte Ongizatea | 17 | 4,39 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 11 | 2,84 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 11 | 2,84 |
| Ingurumena | 4 | 1,03 |
| Ogasuna | 3 | 0,78 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 3 | 0,78 |
| Kultura eta Elebitasuna | 2 | 0,52 |
| Guztira | 387 | 100 |

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

**- Sailen araberako banaketa**

2000. urtean gorakada nabaria egon da ondoko sailen jardueren aurka aurkeztu den kexa kopuruan: Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa, Osasuna eta Ogasuna eta Herri Administrazioa. Hezkuntza Saila lehenengo tokian dago, erreklamazioei dagokienez; hala ere, aurrerago ikusiko dugunez, Administrazioaren jarduera irregularra horien portzentaia txikian egon da. Izan ere, irregulartasun kopuru handiagoa ikusi da Osasun Sailaren eta Herrizaingo Sailaren jardueretan.

***Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren aurka (Eusko Jaurlaritza) aurkeztu diren kexen sailkako banaketa***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 117 | 30,23 |
| Osasuna | 114 | 29,46 |
| Herrizaingoa | 46 | 11,89 |
| Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena | 34 | 8,79 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 25 | 6,46 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 17 | 4,39 |
| Garraioak eta Herri Lanak | 17 | 4,39 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 11 | 2,84 |
| Nekazaritza eta Arrantza | 3 | 0,78 |
| Lehendakaritza | 2 | 0,52 |
| Kultura | 1 | 0,26 |
| GUZTIRA | 387 | 100 |

(Ikus 8. diagrama eranskinean)

B) **Foru administrazioen aurka aurkezturiko kexak**

**- Lurralde banaketa**

Jakina zenez, 2000. urtean kexa gehien jaso duen foru administrazioa (aurreko urteetan bezala) Bizkaiko Foru Aldundia izan da (Gipuzkoakoak eta Arabakoak baino askoz ere kexa gehiago). Hala eta guztiz ere, beherakada handia egon da, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueren aurka jasotako kexa kopuruan; Arabako Aldundiaren aurkako kexa kopuruak, aldiz, gora egin du.

***Foru administrazioen aurka aurkezturiko kexen lurralde banaketa***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia | 80 | 52,98 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 36 | 23,84 |
| Arabako Foru Aldundia | 35 | 23,18 |
| Guztira | 151 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

**- Arloen araberako banaketa**

Aurreko ekitaldietan bezala, lurralde historikoetako foru administrazioen aurka aurkezturiko kexa kopuru gehien eragin duena Ogasun arloa izan da; erreklamazioen % 39 izan ditu (59 erreklamazio guztira).

Bigarren tokian Gizarte Ongizatearen arloa dago (46 kexa), foru erakundeen jarduera ikertzeko tramitaturiko espedienteei dagokienez. 46 erreklamazio horietatik, 29 Bizkaiko Foru Aldundiari egindakoak dira, eta bertan, Osasun eta Gizarte Ongizateak izandako erreklamazio kopuruak (beti oso handia) 15 erreklamazioko beherakada izan du, aurreko urteari dagokionez.

***Foru aldundien aurka aurkezturiko kexen arlokako banaketa***

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Ogasuna | 11 | 34 | 14 | 59 | 39,07 |
| Gizarte Ongizatea | 10 | 29 | 7 | 46 | 30,46 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 7 | 9 | 20 | 13,25 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 4 | 2 | 7 | 4,64 |
| Funtzio Publikoa | 3 | 3 | - | 6 | 3,97 |
| Herrizaingoa | - | 3 | - | 3 | 1,99 |
| Kultura eta Elebitasuna | 3 | - | - | 3 | 1,99 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | - | - | 2 | 2 | 1,32 |
| Ingurumena | 1 | - | 1 | 2 | 1,32 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | - | - | 1 | 1 | 0,66 |
| Osasuna | 1 | - | - | 1 | 0,66 |
| Hezkuntza | 1 | - | - | 1 | 0,66 |
| Guztira | 35 | 80 | 36 | 151 | 100 |

(Ikus 9. diagrama eranskinean)

C) **Toki Administrazioaren aurka aurkezturiko kexak**

**- Lurralde banaketa**

Oro har, erreklamazio gehien jaso dituen lurraldea Bizkaia da, baina 1999an baino erreklamazio gutxiago egon da. Bizkaiaren ostean Gipuzkoa dago, iaz baino 15 kexa gehiagorekin; azkenik, Araba dator (biztanle kopuru txikiena duen lurraldea), eta bertan egon da erreklamaziorik gutxien, 8 erreklamazioko gorakadarekin.

Toki Administrazioaren aurkako kexa gehien jaso duten udalerriak Bilbo (75 erreklamazio), Vitoria-Gasteiz (48 erreklamazio) eta Donostia-San Sebastian (32 erreklamazio) dira.

Hiru lurralde historikoen hiriburuak ez ezik, Barakaldok, Abando eta Zierbenak, Basaurik eta Getxok (Bizkaian) eta Oreretak, Irunek eta Pasaiak ere (Gipuzkoan) kexa kopuru nahiko handia izan dute.

**Toki administrazioen aurka aurkezturiko kexen banaketa**

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bizkaiko udalak | 200 | 50,25 |
| Gipuzkoako udalak | 110 | 27,64 |
| Arabako udalak | 63 | 15,83 |
| Bizkaiko mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak | 13 | 3,27 |
| Arabako administrazio batzak | 9 | 2,26 |
| Gipuzkoako mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak | 3 | 0,75 |
| Guztira | 398 | 100 |

Administrazioaren jarduerak irregulartasunen bat egon dela pentsatzen da.

**Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzen aurka aurkezturiko kexak**

| Arabako udalak | Kop. |
|---|---|
| Vitoria/Gasteiz | 48 |
| Aramaio | 4 |
| Laudio | 2 |
| Arraua-Ubarrundia | 1 |
| Artziniega | 1 |
| Asparrena | 1 |
| Barrundia | 1 |
| Kripan | 1 |
| Biasteri | 1 |
| Lapuebla de Labarca | 1 |
| Legutio | 1 |
| Salvatierra/Agurain | 1 |
| Guztira | 63 |

| Arabako administrazio batzak | Kop. |
|---|---|
| Nanclares de la Oca | 2 |
| Astegieta | 1 |
| Bujanda | 1 |
| Delica | 1 |
| Echavarri-Urtupiña | 1 |
| Escanzana | 1 |
| Labraza | 1 |
| Villodas | 1 |
| Guztira | 9 |

| Bizkaiko udalak | Kop. |
|---|---|
| Bilbo | 75 |
| Barakaldo | 22 |
| Abanto y Ciérvana/ Abanto Zierbena | 9 |
| Basauri | 9 |
| Getxo | 9 |
| Portugalete | 6 |
| Santurtzi | 5 |
| Sestao | 5 |
| Ermua | 4 |
| Etxebarria | 4 |
| Plentzia | 4 |
| Durango | 3 |
| Mungia | 3 |
| Alonsotegi | 2 |
| Balmaseda | 2 |
| Karrantza | 2 |
| Galdakao | 2 |
| Gernika-Lumo | 2 |
| Lekeitio | 2 |
| Loiu | 2 |
| Ondarroa | 2 |
| Valle de Trápaga/ Trapagaran | 2 |
| Zierbena | 2 |
| San Esteban– Etxebarriko elizatea | 1 |
| Arrigorriaga | 1 |
| Bakio | 1 |
| Bermeo | 1 |
| Berriz | 1 |
| Busturia | 1 |
| Derio | 1 |
| Ea | 1 |
| Erandio | 1 |
| Leioa | 1 |
| Lemoa | 1 |
| Lemoiz | 1 |
| Lezama | 1 |
| Mendexa | 1 |
| Murueta | 1 |
| Urtuella | 1 |
| Sondika | 1 |
| Sopelana | 1 |
| Sopuerta | 1 |
| Ubidea | 1 |
| Zalla | 1 |
| Zeberio | 1 |
| Guztira | 200 |

| Gipuzkoako udalak | Kop. |
|---|---|
| Donostia/ San Sebastián | 32 |
| Irun | 14 |
| Orereta. | 6 |
| Pasaia | 5 |
| Andoain | 4 |
| Arrasate | 4 |
| Eibar. | 4 |
| Hernani | 4 |
| Mutriku | 4 |
| Beasain | 3 |
| Hondarribia | 3 |
| Orio | 3 |
| Zumaia | 3 |
| Ibarra | 2 |
| Lasarte-Oria | 2 |
| Mendaro | 2 |
| Tolosa | 2 |
| Urnieta | 2 |
| Astigarraga | 1 |
| Ataun | 1 |
| Azkoitia | 1 |
| Deba | 1 |
| Getaria | 1 |
| Lazkao | 1 |
| Oiartzun | 1 |
| Soraluze/ Placencia de las Armas | 1 |
| Billabona | 1 |
| Zaldibia | 1 |
| Zarautz | 1 |
| Guztira | 110 |

**- Arloen araberako banaketa**

Aurreko urteetan bezala, toki administrazioen jarduerek eragindako kexak modu nahiko homogeneoan banatzen dira arlo guztien artean, hau da, udaletxeek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean. Horixe gertatzen da Herri Lanak eta Zerbitzuak, Ingurumena, Hirigintza eta Etxebizitza eta Ogasuna sailetan.

**Udalen aurka aurkezturiko kexek arloka duten banaketa**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guzt. | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Herri Lanak eta Zerbitzuak ....... | 20 | 47 | 15 | 82 | 21,47 |
| Ingurumena ........................... | 7 | 43 | 29 | 79 | 20,68 |
| Hirigintza eta Etxebizitza ......... | 9 | 23 | 27 | 59 | 15,45 |
| Ogasuna ................................ | 14 | 25 | 17 | 56 | 14,66 |
| Herrizaingoa .......................... | 6 | 20 | 12 | 38 | 9,95 |
| Gizarte Ongizatea .................... | 4 | 17 | 3 | 24 | 6,28 |
| Funtzio Publikoa ..................... | 4 | 8 | 3 | 15 | 3,93 |
| Kultura eta Elebitasuna............ | 2 | 10 | 1 | 13 | 3,40 |
| Osasuna ................................ | 1 | 4 | 1 | 6 | 1,57 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza etaTurismoa ......... | 2 | 3 | 1 | 6 | 1,57 |
| Hezkuntza ............................. | 3 | - | 1 | 4 | 1,05 |
| Guztira ................................. | 72 | 200 | 110 | 382 | 100 |

(Ikus 10. diagrama eranskinean)

***Toki Administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkezturiko kexak***

| | Guzt. |
|---|---|
| Bilbo-Bizkaiko ur partzuergoa.................. .......................... | 7 |
| Busturialdeko ur partzuergoa.................... ......................... | 2 |
| Enkarterrietako mankomunitatea.............. ......................... | 2 |
| Mebisa – Bilboko Metroa......................... ......................... | 2 |
| Deba Barreneko mankomunitatea............. ......................... | 1 |
| Txingudiko zerbitzuak, SA....................... ......................... | 1 |
| Ur Zerbitzuak......................................... ...................... | 1 |
| Guztira................................................... ..................... | 16 |

D) **Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazioen aurka aurkezturiko kexak**

Toki nahiz foru administrazioen edo Eusko Jaurlaritzako administrazioen aurka aurkeztu diren kexak *ez ezik* (lehen aztertu ditugu), erakunde honetan erreklamazio gutxi batzuk beste administrazio batzuen aurkakoak izan dira, eta horien jarduera Ararteko erakundearen ikerketa eremuaren barruan gelditzen da: erakunde nahiz organismo

publikoen aurkakoak, zuzenbide publikoko erakunde korporatiboen aurkakoak (elkargo-erakundeak), etab. Era berean, atal honetan Estatuko Administrazioaren aurkako kexak jaso dira; izan ere, Herriaren Defendatzaileak eskumena eskuordetuta, halako kexak Arartekoak ikertu ditu.

***Beste administrazio batzuen aurka aurkeztu diren kexak***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Estatuko Administrazioa....... .......................... | 16 | 39,02 |
| Erakunde publikoak.............. ......................... | 12 | 29,27 |
| Justizia................................. ....................... | 9 | 21,95 |
| Eusko Legebiltzarra (Kontu Publikoen Euskadiko Auzitegia) ............. | 4 | 9,76 |
| Guztira................................. ....................... | 41 | 100 |

E) **Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Administrazioko administrazio zerbitzuen aurkako kexak**

Ararteko erakundea arautzen duen 3/85 Legeko 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizi Administrazioaren ibileraren aurkako kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Hori dela eta, kexa multzo hori bereiztu egin behar da, Euskadiko herri administrazioen aurka jasotako erreklamazioak zenbatzeko orduan, banandutako boterearen ibileraren aurkako salaketak baitira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak honako honi bidaltzen dio kexa: Fiskaltzari, Euskal Herriko Justizi Auzitegiko Lehendakariari edo, bestela, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari. Horrela, halako eskabideak baliozkoak izango dira erakunde honi egiten diren kudeaketen berri emateko eta kudeaketok ikertzeko.

2000. urtean kexako 13 espediente tramitatu dira; horien helburua, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Administrazioko administrazio zerbitzuen ibilera edo espetxe arloko jarduerak izan dira.

| | |
|---|---|
| Euskal Autonomia Erkidegoko Justizi Administrazioko administrazio zerbitzuen aurkako kexak .................................................. | 13 |

# 4. LURRALDE MAILAKO ESTATISTIKA (KEXEN LURRALDE BANAKETA)

2000. urtean ere, kexa kopuru handiena (645 guztira) aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleak izan dira. Gipuzkoan, 295 kexa egon dira. Kasu biotan beherakada txikia egon da, aurkezturiko kexa kopuruari dagokionez. Aldiz, Araban iaz baino 19 kexa gehiago egon da, eta guztira 256 izan dira.

## - Kexek lurraldeka duten banaketa

| ***Kexek euren jatorriaren arabera duten lurralde banaketaren bilakaera*** | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1989** | **1990** | **1991** | **1992** | **1993** | **1994** | **1995** | **1996** | **1997** | **1998** | **1999** | **2000** |
| Bizkaia | 288 | 284 | 293 | 332 | 376 | 349 | 528 | 746 | 915 | 1.471 (764)[1] | 649 | 645 |
| Gipuzkoa | 188 | 195 | 244 | 241 | 250 | 234 | 281 | 448 | 663 | 905 (471)[2] | 372 (311)[3] | 295 |
| Araba | 97 | 125 | 158 | 201 | 182 | 160 | 328 | 446 | 371 | 244 | 237 | 256 |

[1] Gai bakarrari buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.
[2] Gai bakarrari buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.
[3] Gai bakarrari buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

## - Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanle bakoitzeko

Kexen jatorriaren azterketa konparatzailea egiteko (lurralde historiko bakoitzaren araberako azterketa), lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua lurralde horretako guztizko biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik (10.000 biztanle bakoitzeko) jaso diren kexei buruzko datuak jasota daude.

| ***Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanle bakoitzeko*** | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1989** | **1990** | **1991** | **1992** | **1993** | **1994** | **1995** | **1996** | **1997** | **1998** | **1999** | **2000** |
| Álava | 4,3 | 4,5 | 5,8 | 7,4 | 6,7 | 5,9 | 11,59 | 15,92 | 13,24 | 8,37 | 8,37 | 8,97 |
| Bizkaia | 3,3 | 2,7 | 3,6 | 3,5 | 3,7 | 3,5 | 4,54 | 6,55 | 8,03 | 12,95 (6,73[1]) | 5,74 | 5,77 |
| Gipuzkoa | 3,0 | 2,9 | 2,5 | 2,8 | 3,3 | 3,0 | 4,11 | 6,66 | 9,77 | 13,30 (6,93[2]) | 5,56 (4,64)[3] | 4,42 |

[1] Gai bakarrari buruzko 708 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.
[2] Gai bakarrari buruzko 435 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.
[3] Gai bakarrari buruzko 62 kexa kexa bakartzat hartzearen ondoriozko zifra.

(Ikus 12. diagrama eranskinean)

## - Kexek lurraldeen arabera duten banaketa

Logika beteta, orain ere hiru hiriburuen nagusitasuna ikusten da, 2000. urtean kexaren bat aurkeztu duten hiritarren jatorriari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, hiritarren jokabidea ez da berdina lurralde guztietan. Araban, esate baterako, erreklamazioen % 84,37 Vitoria-Gasteizeko hiritarrek egin dituzte; Gipuzkoan kopurua hori % 62,37koa da, eta Bizkaian, azkenik, % 55,81ekoa (erreklamaziorik gehienak hiriburutik kanpo bizi diren hiritarrek egindakoak dira).

***Kexen banaketa, hiriburuan edo lurraldeko beste udalerri batzuetan eginda egotearen arabera***

| **Araba** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Vitoria/Gasteiz | 216 | 84,38 |
| Beste udalerri batzuk | 40 | 15,62 |
| Guztira | 256 | 100 |

| **Bizkaia** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Bilbo | 285 | 44,19 |
| Beste udalerri batzuk | 360 | 55,81 |
| Guztira | 645 | 100 |

| **Gipuzkoa** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Donostia/San Sebastián | 111 | 37,63 |
| Beste udalerri batzuk | 184 | 62,37 |
| Guztira | 295 | 100 |

**- Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik iritsitako kexak**

Gehienetan gertatzen den bezala, kexa kopuru txiki bat Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik iritsi da. 2000. urtean 35 kexa izan dira.

| **Beste autonomia erkidego batzuetatik iritsitako kexak** | **Kop.** |
|---|---|
| Madrileko AE | 7 |
| Andaluziako AE | 5 |
| Gaztela-Leongo AE | 5 |
| Kantabriako AE | 3 |
| Valentziako AE | 3 |
| Galiziako AE | 2 |
| Nafarroako FE | 2 |
| Aragoiko AE | 1 |
| Balearretako AE | 1 |
| Kanarietako AE | 1 |
| Murtziako eskualdea | 1 |
| Guztira | 31 |

| Beste estatu batzuetatik iritsitakoak | Kop. |
|---|---|
| Frantzia | 2 |
| Alemania | 1 |
| Argentina | 1 |
| Guztira | 4 |

## 5. PROZEDURA MAILAKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA)

Ekitaldi honetan 967 erreklamazioren tramitazioa amaitu da. Horietatik gehienak 2000. urtean aurkeztu dira; baina 385 aurreko urteetan planteaturiko kexak ziren, eta horien tramitazioa ezin izan da egin kasuan kasuko urtean.

Harturiko ebazpenek agerian jarri dutenez, 2000. urtean ikertu eta azterturiko erreklamazioetatik 299tan irregulartasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jardueran. Horrenbestez, erreklamaziogileen % 30,92ren kexak zentzuzkoak ziren.

| | Guztira | Administrazioaren irregulartasuna | % | Irregulartasunik ez | % | Beste batzuk | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2000. urtean amaitutako kexak | 967 | 299 | 30,92 | 537 | 55,53 | 131 | 13,55 |

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

**- 2000. urtean amaitu eta hasiera urteen arabera banaturiko espedienteak**

2000. urtean guztiz tramitatu diren 582 kexarekin batera, ekitaldi honetan aurreko urteetan planteaturiko erreklamazioei loturiko 385 espediente tramitatu dira. Bloke horren zatirik handiena, bestalde, 1999ko bigarren seihilekoan aurkezturiko kexei buruzkoa da.

| Hasiera urtea | K. |
|---|---|
| 1993 | 2 |
| 1995 | 9 |
| 1996 | 13 |
| 1997 | 22 |
| 1998 | 93 |
| 1999 | 246 |
| 2000 | 582 |
| 2000. urtean amaituriko espediente guztiak | 967 |

**- 2000. urtean aurkezturiko kexak: amaiturikoak eta tramitean daudenak**

Euskadiko administrazio publikoetariko baten aurka aurkezturiko kexei dagokienez (horien ikerketa 2000. urtean hasi da), horien % 58aren tramitazioa urte horrexetan

amaitu da; % 42aren tramitazioa, berriz, amaitu barik zegoen urte amaieran. Jakina, zifra horren barruan orain arte irekitako kexa espediente guztiak sartu dira.

**_Kexa espedienteen egoera, jarduera arloen arabera_**

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Ogasuna | 45 | 80 | 24 | 49 | 7 |
| Funtzio Publikoa | 33 | 91 | 10 | 66 | 15 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 67 | 54 | 14 | 34 | 6 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 45 | 52 | 13 | 36 | 3 |
| Osasuna | 20 | 68 | 16 | 46 | 6 |
| Gizarte Ongizatea | 44 | 43 | 6 | 29 | 8 |
| Herrizaingoa | 44 | 42 | 19 | 17 | 6 |
| Ingurumena | 41 | 44 | 13 | 28 | 3 |
| Hezkuntza | 17 | 59 | 12 | 42 | 5 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 12 | 12 | - | 9 | 3 |
| Kultura eta Elebitasuna | 6 | 13 | 4 | 8 | 1 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | - | 4 | - | 4 | - |
| Guztira | 374 | 562 | 131 | 368 | 63 |

**- Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera**

2000. urtean urte horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkezturiko kexetako 247ri buruzko ebazpena eman da. Zifra hori erreklamazio guztien % 68,23 da. Ebazpen horien % 19,43an Administrazioaren jarduera okerra ikusi eta, beraz, hiritarrek azaldutako arrazoien baliozkotasuna onartu da.

### Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa, jarduera eremuen arabera

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Funtzio Publikoa | 24 | 79 | 6 | 60 | 13 |
| Osasuna | 16 | 65 | 15 | 44 | 6 |
| Hezkuntza | 17 | 54 | 10 | 40 | 4 |
| Herrizaingoa | 21 | 24 | 10 | 11 | 3 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 15 | 21 | 4 | 17 | - |
| Gizarte Ongizatea | 12 | 5 | 1 | 3 | 1 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 7 | - | 6 | 1 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 3 | 8 | - | 7 | 1 |
| Ingurumena | 1 | 3 | - | 3 | - |
| Ogasuna | 2 | 1 | - | 1 | - |
| Lana eta Gizarte Segurantza | - | 3 | - | 3 | - |
| Kultura eta Elebitasuna | - | 2 | 2 | - | - |
| Guztira | 115 | 272 | 48 | 195 | 29 |

### Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkezturiko kexen egoera, berori osatzen duten sailen arabera

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Arrantza | 1 | 2 | - | 1 | 1 |
| Kultura | - | 1 | 1 | - | - |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 31 | 86 | 9 | 68 | 9 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 4 | 21 | 3 | 15 | 3 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 3 | 8 | - | 7 | 1 |
| Herrizaingoa | 19 | 27 | 12 | 12 | 3 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 11 | 6 | - | 6 | - |
| Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena | 13 | 21 | 4 | 17 | - |
| Lehendakaritza | - | 2 | - | 1 | 1 |
| Osasuna | 23 | 91 | 19 | 62 | 10 |
| Garraioak eta Herri Lanak | 10 | 7 | - | 6 | 1 |
| Guztira | 115 | 272 | 48 | 195 | 29 |

**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

2000. urtean foru aldundien jardueraren aurkako 72 erreklamazioren tramitazioa amaitu da; horiek ekitaldi horretan bertan aurkeztu ziren, eta guztizkoaren % 50 dira.

Ebazpen horietan onartu egin dira, kasu guztien % 26,39an, foru Administrazioaren jardueran egon diren irregulartasunak.

***Foru aldundien aurkako kexen egoera, lurralde historikoen arabera***

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaia | 40 | 40 | 10 | 24 | 6 |
| Gipuzkoa | 15 | 21 | 5 | 15 | 1 |
| Araba | 17 | 18 | 4 | 12 | 2 |
| Guztira | 72 | 79 | 19 | 51 | 9 |

***Foru aldundien aurkako kexen egoera, jarduera arloen arabera***

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 5 | 2 | - | 1 | 1 |
| Gizarte Ongizatea | 22 | 24 | 1 | 19 | 4 |
| Kultura eta Elebitasuna | 1 | 2 | - | 1 | 1 |
| Hezkuntza | - | 1 | - | 1 | - |
| Funtzio Publikoa | 3 | 3 | 1 | 2 | - |
| Ogasuna | 23 | 36 | 11 | 22 | 3 |
| Herrizaingoa | 3 | - | - | - | - |
| Ingurumena | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 12 | 8 | 5 | 3 | - |
| Osasuna | 1 | - | - | - | - |
| Lana eta Gizarte Segurantza | - | 1 | - | 1 | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 1 | 1 | 1 | - | - |
| Guztira | 72 | 79 | 19 | 51 | 9 |

**- Toki administrazioen aurkako kexen egoera**

Gure erkidegoko toki administrazioei dagokienez, 2000. urtean aurkezturiko erreklamazioen erdien baino gehiagoren tramitazioa amaitu da; guztira 185 dira eta hori % 50,41 da.

Ebazpen horietan Administrazioaren jarduera okerra ikusi da kasu guztien % 34,05ean.

## *Arabako udaletxeen aurkako kexen egoera*

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Aramaio | 1 | 3 | 3 | - | - |
| Arrazua-Ubarrundia | 1 | - | - | - | - |
| Artziniega | - | 1 | - | 1 | - |
| Asparrena | - | 1 | 1 | - | - |
| Barrundia | - | 1 | 1 | - | - |
| Kripan | 1 | - | - | - | - |
| Biasteri | 1 | - | - | - | - |
| Lapuebla de Labarca | 1 | - | - | - | - |
| Legutio | 1 | - | - | - | - |
| Laudio | 1 | 1 | 1 | - | - |
| Salvatierra/Agurain | 1 | - | - | - | - |
| Vitoria/Gasteiz | 23 | 25 | 8 | 13 | 4 |
| Guztira | 31 | 32 | 14 | 14 | 4 |

## *Arabako administrazio batzen aurkako kexen egoera*

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Astegieta | 1 | - | - | - | - |
| Bujanda | - | 1 | - | 1 | - |
| Delica | - | 1 | - | - | 1 |
| Echavarri-Urtupiña | 1 | - | - | - | - |
| Escanzana | 1 | - | - | - | - |
| Labraza | - | 1 | - | 1 | - |
| Nanclares de la Oca | 1 | 1 | 1 | - | - |
| Villodas | 1 | - | - | - | - |
| Guztira | 5 | 4 | 1 | 2 | 1 |

**Bizkaiko udaletxeen aurkako kexen egoera**

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Abanto y Ciérvana/ Abanto Zierbena | 9 | - | - | - | - |
| Alonsotegi | 2 | - | - | - | - |
| San Esteban- Etxebarriko elizatea | - | 1 | - | 1 | - |
| Arrigorriaga | - | 1 | - | 1 | - |
| Bakio | - | 1 | - | 1 | - |
| Balmaseda | - | 2 | - | 1 | 1 |
| Barakaldo | 11 | 11 | 3 | 5 | 3 |
| Basauri | 5 | 4 | 2 | 2 | - |
| Bermeo | - | 1 | - | 1 | - |
| Berriz | - | 1 | - | 1 | - |
| Bilbo | 33 | 42 | 15 | 26 | 1 |
| Busturia | 1 | - | - | - | - |
| Karrantza | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Derio | 1 | - | - | - | - |
| Durango | 2 | 1 | - | 1 | - |
| Ea | 1 | - | - | - | - |
| Erandio | 1 | - | - | - | - |
| Ermua | 3 | 1 | 1 | - | - |
| Etxebarria | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 |
| Galdakao | - | 2 | 1 | 1 | - |
| Gernika-Lumo | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Getxo | 4 | 5 | 4 | 1 | - |
| Leioa | - | 1 | - | 1 | - |
| Lekeitio | 2 | - | - | - | - |
| Lemoa | 1 | - | - | - | - |
| Lemoiz | 1 | - | - | - | - |
| Lezama | 1 | - | - | - | - |
| Loiu | - | 2 | - | 2 | - |
| Mendexa | - | 1 | - | 1 | - |
| Mungia | - | 3 | 1 | 2 | - |
| Murueta | - | 1 | - | 1 | - |
| Ondarroa | 2 | - | - | - | - |
| Urtuella | - | 1 | - | 1 | - |
| Plentzia | 2 | 2 | - | 2 | - |
| Portugalete | 1 | 5 | 2 | 3 | - |
| Santurtzi | 4 | 1 | - | 1 | - |
| Sestao | 3 | 2 | - | - | 2 |
| Sondika | 1 | - | - | - | - |
| Sopelana | - | 1 | 1 | - | - |
| Sopuerta | 1 | - | - | - | - |
| Ubidea | - | 1 | - | 1 | - |

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Valle de Trápaga-Trapagaran | - | 2 | 2 | - | - |
| Zalla | 1 | - | - | - | - |
| Zeberio | - | 1 | - | - | 1 |
| Zierbena | 2 | - | - | - | - |
| Guztira | 98 | 102 | 33 | 59 | 10 |

## *Gipuzkoako udaletxeen aurka aurkezturiko kexen egoera*

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Andoain | 2 | 2 | - | 2 | - |
| Arrasate | 2 | 2 | 1 | 1 | - |
| Astigarraga | - | 1 | - | - | 1 |
| Ataun | - | 1 | - | 1 | - |
| Azkoitia | - | 1 | 1 | - | - |
| Beasain | 1 | 2 | - | 2 | - |
| Billabona | - | 1 | - | 1 | - |
| Deba | 1 | - | - | - | - |
| Donostia/San Sebastián | 14 | 18 | 2 | 13 | 3 |
| Eibar | 3 | 1 | - | - | 1 |
| Orereta | 3 | 11 | 3 | 6 | 2 |
| Getaria | - | 1 | 1 | - | - |
| Hernani | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 |
| Hondarribia | 2 | 1 | - | 1 | - |
| Ibarra | 2 | - | - | - | - |
| Irun | 2 | 4 | 1 | 2 | 1 |
| Lasarte-Oria | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Lazkao | 1 | - | - | - | - |
| Mendaro | 2 | - | - | - | - |
| Mutriku | 2 | 2 | 1 | 1 | - |
| Oiartzun | 1 | - | - | - | - |
| Orio | 3 | - | - | - | - |
| Pasaia | 1 | 4 | 2 | 2 | - |
| Soraluze/Placencia de las Armas | 1 | - | - | - | - |
| Tolosa | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Urnieta | 1 | 1 | 1 | - | - |
| Zaldibia | 1 | - | - | - | - |
| Zarautz | - | 1 | - | 1 | - |
| Zumaia | 1 | 2 | 1 | 1 | - |
| Guztira | 49 | 61 | 15 | 37 | 9 |

***Udaletxeen aurkako kexen egoera, jarduera arloen arabera***

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa . | 4 | 2 | - | 1 | 1 |
| Gizarte Ongizatea ............ | 10 | 14 | 4 | 7 | - |
| Kultura eta Elebitasuna...... | 4 | 9 | 2 | 7 | - |
| Hezkuntza ...................... | - | 4 | 2 | 1 | 1 |
| Funtzio Publikoa .............. | 6 | 9 | 3 | 4 | 2 |
| Ogasuna ......................... | 20 | 36 | 12 | 20 | 2 |
| Herrizaingoa ................... | 20 | 18 | 9 | 6 | 1 |
| Ingurumena .................... | 39 | 40 | 13 | 24 | 2 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 47 | 35 | 9 | 22 | 3 |
| Osasuna ......................... | 3 | 3 | 1 | 2 | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza ... | 29 | 30 | 8 | 19 | 3 |
| Guztira ........................... | 182 | 200 | 63 | 113 | 24 |

***Toki Administrazioko beste erakunde batzuen aurka aurkezturiko kexen egoera, kasuan kasuko erakunde publikoaren arabera***

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Bilbo-Bizkaiko Ur Partzuergoa ............... | - | 7 | 1 | 5 | 1 |
| Busturialdeko Ur Partzuergoa ............... | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Enkarterrietako Mankomunitatea ............. | 2 | - | - | - | - |
| Deba Barreneko Mankomunitatea ............. | - | 1 | - | 1 | - |
| Mebisa-Bilboko Metroa ..... | 1 | 1 | - | 1 | - |
| Txingudiko Zerbitzuak, SA. | 1 | - | - | - | - |
| Ur Zerbitzuak .................. | - | 1 | - | 1 | - |
| Guztira ........................... | 5 | 11 | 1 | 9 | 1 |

***Toki Administrazioko beste erakunde batzuen aurka aurkezturiko kexen egoera, jarduera arloen arabera***

| | Tramitean | Amaituta | Administrazioaren Irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Kultura eta Elebitasuna...... | 1 | - | - | - | - |
| Ogasuna.......................... | - | 7 | 1 | 6 | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 4 | - | 3 | 1 |
| Guztira ............................ | 5 | 11 | 1 | 9 | 1 |

## 6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMAZIOA EGITEKO MODUA)

**- Erreklamaziogileen ezaugarriak**

2000. urtean aurkezturiko kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du taldeko erreklamazioek gero eta garrantzi handiagoa dutela, guztizkoaren % 13,65era iristen baitira. Banakako kexei dagokienez, emakumeek aurkezturiko kexak % 38,97tik % 36,56ra murriztu dira. Gizonek, beste alde batetik, kexa guztien % 49,79 formulatu dituzte.

Hala ere, kexak aurkeztu dituzten gizonen eta emakumeen kopuruak ez du guztiz argitzen kexa formulatzeko orduan jeneroaren arabera egon den jokabidea. Hori dela eta, komenigarria da erreklamazioei buruzko datuak arloen arabera aztertzea (azaleko azterketa izan arren). Halako azterketa bat emakumeen arazo zehatzei buruzko atalean egin dugu, txosten honetan.

***Jasotako kexen banaketa, erreklamaziogileen ezaugarrien arabera***

| Erreklamaziogileen ezaugarriak | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonak ........................................................ | 613 | 49,80 |
| Emakumeak .................................................. | 450 | 36,55 |
| Taldeak......................................................... | 168 | 13,65 |
| Guztira ........................................................ | 1.231 | 100 |

(Ikus 13. diagrama eranskinean)

**- Kexa idazteko erabili den hizkuntza**

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, 2000. urtean euskaraz edo elebidunez idatzitako kexen kopurua guztizkoaren % 4,07 izan da.

Erakundean erabilitako irizpidea, beste alde batetik, erreklamazioa pertsona bakoitzak aukeraturiko hizkuntzan erredaktatzea da, beti ere gure autonomia erkidegoan hizkuntza normalizazioari dagokionez indarrean dauden legeak beteta.

| Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera | | |
|---|---|---|
| **Hizkuntza** | **Kopurua** | **%** |
| Gaztelania | 1.181 | 95,94 |
| Euskara | 39 | 3,17 |
| Elebiduna | 11 | 0,89 |
| Guztira | 1.231 | 100 |

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

**- Kexak aurkezteko modua**

Azkenik, kexak aurkezteko moduari dagokionez, azken urteotako aldaketa finkatu egin da, arrera zuzeneko bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan jartzearen ondoriozko aldaketa. Aurreko urteetako txostenetan esandakoaren arabera, erreklamazioak egiteko biderik ohikoenak dagoeneko ez dira gutunak, 1996. urtera arte bezala. Horrela, 2000. urtean erreklamazioen % 30,71k baino ez dute erabili euren kexa formulatzeko. Askoz ere gehiago izan dira euren kexa aurkezteko arrera zuzeneko bulegora bertara joan diren hiritarrak: erreklamaziogileen % 58,08k nahiago izan zuten euren kexa erakundeko bulegoetan bertan egitea. Faxez jasotako kexak % 5,12 izan dira, eta Internetez iritsitakoak, berriz, % 6,09 izan dira (75 guztira), eta kontuan hartu behar da Ararteko erakundearen web orria aurten dagoela lehenengoz sarean. Orri horretan, erakundeari, jarduerei, txostenei eta sartzeko moduari buruzko informazio ugari eskaintzeaz gain, kexa aurkezteko formatua nahi duten pertsona guztien eskura jartzen da; hori, eskatzen diren datuak eman ondoren, zuzen-zuzen bidal daiteke Interneteko leku horretatik.

| Kexen banaketa, horiek aurkezteko moduaren arabera | | |
|---|---|---|
| **Jasotzeko modua** | **Kopurua** | **%** |
| Bulegoetan bertan | 715 | 58,08 |
| Postaz | 378 | 30,71 |
| Internetez | 75 | 6,09 |
| Faxez | 63 | 5,12 |
| Guztira | 1.231 | 100 |

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

## 7. HARRERA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITALDIAK ETA TELEFONOAREN BIDEZKO KONTSULTAK)

1996ko uztailean eta irailean, hurrenez hurren, Donostiako eta Bilboko harrera zuzeneko bulegoak ireki ondoren (Gasteizen lehendik irekita zegoen), 1997an, 1998an,

1999an eta 2000n erakundeak arreta zuzenerako jarduerak eduki ditu hiru lurralde historikoetako hiriburuetan. Bulego berriak irekitzearen helburua, beste alde batetik, Ararteko erakundea hiritarrei hurbiltzea izan da; horrela, Euskadiko herri administrazioren batekin edota horien menpeko zerbitzuren batekin arazoak dituzten hiritarrek eskura edukiko dute euren arretarako sortu den zerbitzu bat.

Harrera zuzeneko bulego horien ibileran izandako esperientziak erakutsi duenez, bertan hartzen diren bisitaldiak ez ezik, telefonoaren bidezko kontsulta asko ere egiten da, eta horiei ere erakundeko langileek berehala egiten die kasu. Hori dela eta, bisita horiekin batera, gure ustez komenigarria da telefonoaren bidezko kontsultak ere aintzat hartzea; izan ere, seguru dakigu horiek informazio iturri garrantzitsuak direla, pertsonek administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideei buruz.

2000. urtean guztira 3.002 kontsulta egin dira.

***Harrera zuzenko bulegoetan egin den kontsulta kopurua***

| Herria | Kontsulta kop. | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 1.269 | 42,27 |
| Donostia/San Sebastián | 982 | 32,71 |
| Vitoria/Gasteiz | 751 | 25,02 |
| Guztira | 3.002 | 100 |

2000. urtean 2.157 bisita egon dira. Bisita horietatik % 46,96 Bilboko bulegoan egin ziren, % 26,57 Donostiakoan, eta % 26,47 Gasteizekoan.

***Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisita kopurua***

| Biztanleria | Bisita kop. | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 1.013 | 46,96 |
| Donostia/San Sebastián | 573 | 26,57 |
| Vitoria/Gasteiz | 571 | 26,47 |
| Guztira | 2.157 | 100 |

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

**- Harrera zuzeneko bulegoetara joaten diren pertsonen ezaugarriak**

2000. urtean, Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan harrera zuzenerako dituen bulegoetara etorri diren gizonak emakumeak baino gehiago izan dira. Gizonezkoen bisita kopuru handiago hori oraindik ere nabariagoa da Bilbon, baina Gasteizen ere gizonak emakumeak baino ugariagoak izan dira. Donostian, aldiz, emakumeak gizonak baino ugariagoak izan dira. Oro har, gizonen portzentaia % 49,47koa da eta emakumeena % 38,99koa. Bikoteek eta taldeek egindako bisiten portzentaia % 6,16koa eta % 5,38koa da, hurrenez hurren.

***Harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisiten ezaugarriak***

| | Bilbo | Donostia/ San Sebastián | Vitoria/ Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 356 | 258 | 227 | 841 | 38,99 |
| Gizonak | 530 | 254 | 283 | 1.067 | 49,47 |
| Bikoteak | 63 | 38 | 32 | 133 | 6,16 |
| Taldeak | 64 | 23 | 29 | 116 | 5,38 |
| | 1.013 | 573 | 571 | 2.157 | 100 |

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

**- Harrera zuzeneko bulegoetara datozen pertsonen adina**

Arartekoak harrera zuzenerako dituen bulegoetara iritsitako pertsonen adina aztertuz gero, bisiten erdiak 36-55 urte bitarteko pertsonek egiten dituztela ikusiko dugu.

Adin talde desberdinen barruko pertsonek egindako bisiten portzentaiek aldaketa handiak izan dituzte, aurreko urtekoei dagokienez. Aipagarria da 25 urtetik beherako pertsonen bisita kopuru txikia eta 65 urtetik gorako pertsonen bisita kopuru handia.

***Harrera zuzeneko bulegoetara iritsitako bisiten banaketa, adin taldeen arabera***

| Adina | Bilbo | Donostia/ San Sebastián | Vitoria/ Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| 25era arte | 31 | 29 | 25 | 85 | 3,94 |
| 26-35 | 137 | 82 | 136 | 355 | 16,46 |
| 36-45 | 301 | 129 | 134 | 564 | 26,15 |
| 46-55 | 226 | 130 | 160 | 516 | 23,92 |
| 56-65 | 163 | 79 | 44 | 286 | 13,26 |
| 66 edo gehiago | 155 | 124 | 72 | 351 | 16,27 |
| Guztira | 1.013 | 573 | 571 | 2.157 | 100 |

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

**- Kexak eragin dituzten harrera zuzeneko bulegoetara egindako bisitak**

Jasotako bisita guztietatik 663 kexa sortu ziren, eta hori guztizkoaren % 30,77 da.

***Kexak eragin dituzten bisitak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 327 | 49,32 |
| Donostia/San Sebastián | 177 | 26,70 |
| Vitoria/Gasteiz | 159 | 23,98 |
| Guztira | 663 | 100 |

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduera eremutik kanpoko gaiei loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat tramitatu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekartzea behar zuten, edo aurretiazko kudeaketak egitea, administrazio organo eskudunetan; eta, azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak edo kexa egiteko funtsik gabekoak izan dira, edo bisita kexa espediente baten tramitazioari lotuta egon da, edo hiritarrak bere gai zehatzean jarraitu beharreko tramiteei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

Arreta zuzeneko bulegoetan kontsulta bat egiten duten pertsonek (bertara etorrita edo telefonoz) planteaturiko gaiak berrikusita, sarri askotan planteatzen diren gai batzuk daudela ikusten da. Hona hemen gaiok:

- Zaratak tabernetan, lantegietan...
- Prostituzio lokalen eraginezko eragozpenak.
- Babes ofizialeko etxebizitzetan dauden gabeziak.
- Babes ofizialeko etxeak lortzeko zailtasuna. Ukaturiko eskabideak.
- Eraikuntza akatsak, babes ofizialeko etxebizitzetan.
- Minusbaliatuek Etxebiden etxebizitza bat lortzeko dituzten arazoak.
- Higiezinen katastro-balioarekin dauden arazoak.
- Maizterrek hiriko alokairuei buruz planteaturiko arazoak.
- Buruko gaitza duten pertsonen familiakoen arazoak.
- Etxerako laguntza emateko atzerapena Barakaldon (urtebeteko itxarote-zerrenda).
- Aldundiak babesturiko adin txikikoak.
- Haurtzaroari loturiko gaiak (zaintza kentzea, bisitaldiak...).
- Kide askoko familiei deskontuak ez aplikatzea.
- 8 urte itxaroten ume bat adopzioan hartzeko.
- Hirugarren adinekoen egoitza publikoetan lekurik ez egotea.
- Minusbaliatu psikikoei emandako dirulaguntzak.
- Ibilgailuen zirkulaziorako zerga minusbaliatuentzat.
- Aparkaleku gutxi egotea, minusbaliatu fisikoentzat.
- Gizarte prestazioak: AES, IMI,...
- Minusbalioen balorazioekiko desadostasuna.
- Osasuna: zerbitzu askotan itxarote-zerrendak, osasun laguntzako estaldura, prestazio ortoprotesikoak (batez ere, gurpildun aulkiak), historia klinikoen eskuragarritasuna, ondare erantzukizuna.
- PFEZi buruzko kontsultak.
- Saneamendu tasak, zerbitzu horren onuraduna izan barik.
- Familia monoparentalek kirol instalazioen famili txartela lortzeko ezintasuna.
- Udaletxeekiko zorren ondoriozko kontu-bahikuntzak, baita pentsioak baino kobratzen ez dituzten pertsonei ere.
- Trafikoa: isunak, derrigorrezko asegurua...
- Bizikleten eta patineteen zirkulazioa, Gasteizeko espaloietan eta oinezkoentzako pasealekuetan.
- Jokoari buruzko arauketaren aplikazioa, zibertekei.
- Datuen babesa: herri administrazioek beste erakunde batzuei datuak ematearen ondoriozko salaketa.
- Gizarte Segurantzarekiko zorra.

- INEM: langabetu-txartela horretarako dagoen egunean ez zigilatzearen ondoriozko zigorra.
- Hilerrien tasak.
- Behin-betiko destinotik lekualdaturiko irakasleak.
- Ikasketa tituluen homologazioa.
- Hezkuntza bereziko laguntzaileetarako eskabidea.
- UPV hortz-klinikarekiko arazoak.
- Funtzio publikoa: deialdiak, zerrendak, ordezpenak.
- Ama izateko baimena, umea adopzioan hartzekotan.
- Epaiekin ados ez dauden pertsonak, edo justiziaren moteltasunaz kexu direnak.
- Abokatu Elkargoaren erantzunik eza.
- Arabako administrazio batzen funtzionamenduari egindako kritika.
- Ertzaintzaren bidegabeko tratua.
- Era askotako arazoak dituzten atzerritarrak.
- Herriaren Defendatzaileak bidalitako erantzunarekiko desadostasuna.
- Obren edo gabezien ondoriozko istripuak, etxeetan, eskaileretan...

## A) **HARRERA ZUZENEKO GASTEIZEKO BULEGOA**

Urtean zehar azterturiko kontsultak 751 izan dira, eta horietatik 180 telefonoz egin dituzte.

Urte honetan 571 bisita jaso dira, eta horrek hileroko 47,58ko batezbestekoa adierazten du. Horietatik, ia % 90 banakako bisitak izan dira eta gainerako bisitak bikoteenak edo taldeenak izan dira.

Bulegoan 159 kexa jaso dira. Horiek eragin dituzten arrazoiak kontuan hartuz, erreklamazio gehien eragin dituzten arazoak Funtzio Publikoari loturikoak izan dira; horien ostean Sanitatekoak, Hirigintzakoak eta Etxebizitzakoak, Ogasunekoak eta Hezkuntzakoak datoz.

***Gasteizeko bulegora egindako bisiten ezaugarriak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonak | 283 | 49,6 |
| Emakumeak | 227 | 39,7 |
| Bikoteak | 32 | 5,6 |
| Taldeak | 29 | 5,1 |
| Guztira | 571 | 100 |

### - Gasteizeko bulegora iritsitako pertsonen adina

Adinari dagokionez, erakundera banan-banan gutxien etorri den adin taldea gazteena izan da (25 urtetik beherakoak), baita 56-65 urte bitarteko pertsonen taldea ere; talde bi horien artean guztizkoaren % 12 dira. Bisiten hiru laurdenak 26 eta 55 urte bitarteko pertsonek betetzen dituzte.

**_Gasteizeko bulegora iritsitako bisiten banaketa, adin taldeen arabera_**

| Adina | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 25ra arte | 25 | 4,4 |
| 26-35 | 136 | 23,9 |
| 36-45 | 134 | 23,5 |
| 46-55 | 159 | 27,9 |
| 56-65 | 44 | 7,7 |
| 66 edo gehiago | 72 | 12,6 |
| Guztira | 571 | 100 |

**- Bisiten jatorri geografikoa**

Bisiten jatorri geografikoari dagokionez, % 85,99 Gasteizetik iritsitakoak dira, eta % 9,63, berriz, Arabako beste udalerri batzuetatik iritsitakoak.

**_Gasteizeko bulegora iritsitako bisiten banaketa, jatorri geografikoaren arabera_**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Araba-hiriburua | 491 | 85,99 |
| Araba-beste udalerriak | 55 | 9,63 |
| Gipuzkoa | 12 | 2,10 |
| Bizkaia | 8 | 1,40 |
| Beste batzuk | 5 | 0,88 |
| Guztira | 571 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## B) HARRERA ZUZENEKO DONOSTIAKO BULEGOA

Arreta zueneko bulego honetan 982 kontsulta jaso dira. Horietatik, 409 telefonoz egindakoak izan dira.

Bisitei dagokienez, bulego horrek 2000. urtean 573 bisita izan ditu guztira, eta horietan, gizonen eta emakumeen portzentaia ia berdina da. Bisiten hileko batezbestekoa 52koa izan da. Horietatik guztietatik, 177 kexa sortu dira; kexa horietatik gehienak Hirigintza eta Etxebizitza arloko administrazioen aurkakoak dira, eta neurri txikiagoan, Ogasun eta Gizarte Ongizate arloko administrazioen aurkakoak.

**Donostiako bulegora iritsitako bisiten ezaugarriak**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonak | 254 | 44,33 |
| Emakumeak | 258 | 45,03 |
| Bikoteak | 38 | 6,63 |
| Taldeak | 23 | 4,01 |
| Guztira | 573 | 100 |

**- Donostiako bulegora iritsitako pertsonen adina**

Adinari dagokionez, hiru adin tarte daude: 36 eta 45 urte bitartekoa, 46 eta 55 urte bitartekoa, eta 65 urtetik gorakoa; horiek bisiten bi herenak baino gehiago betetzen dituzte. Adin tarte horietako bakoitzak 120-130 bisitari kopurua eramaten du harrera zuzeneko bulegora. 25 urtetik beherako pertsonen bisitak, aldiz, ez dira 30era iristen.

**Donostiako bulegora iritsitako bisiten banaketa, adin taldeen arabera**

| Adina | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 25ra arte | 29 | 5,06 |
| 26-35 | 82 | 14,31 |
| 36-45 | 129 | 22,51 |
| 46-55 | 130 | 22,69 |
| 56-65 | 79 | 13,79 |
| 66 edo gehiago | 124 | 21,64 |
| Guztira | 573 | 100 |

**- Bisiten jatorri geografikoa**

Arreta zuzeneko Donostiako bulegora etorri diren pertsonetatik, % 99 Gipuzkoakoak dira. Horietatik, ia bi herenak hiriburuan bizi dira.

**Donostiako bulegora etorri diren bisiten banaketa, jatorri geografikoaren arabera**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gipuzkoa-hiriburua | 364 | 63,53 |
| Gipuzkoa-beste udalerriak | 204 | 35,60 |
| Bizkaia | 4 | 0,70 |
| Beste batzuk | 1 | 0,17 |
| Guztira | 573 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## C) HARRERA ZUZENEKO BILBOKO BULEGOA

Jasotako kontsultak 1.269 izan dira, eta horietatik 256 telefonoz egindakoak dira.

Bulego honetan, 2000. urtean 1.013 bisita jaso dira, eta horrek 92 bisitako batezbestekoa egiten du hilero. Bisita guztietatik 327 kexa formal egin dira, eta horiek, batez ere, ondoko arlo hauetan egindako jardueren aurkakoak izan dira: Hirigintza eta Etxebizitza, Gizarte Ongizatea, Herri Lanak eta Zerbitzuak, Hezkuntza, Ingurumena eta Ogasuna.

***Bilboko bulegora etorri diren bisiten ezaugarriak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonak | 530 | 52,32 |
| Emakumeak | 356 | 35,14 |
| Taldeak | 63 | 6,22 |
| Bikoteak | 64 | 6,32 |
| Guztira | 1.013 | 100 |

### - Bilboko bulegora etorritako pertsonen adina

Bulego honetara etorri diren pertsonen adinari dagokionez, 36 eta 45 urte bitarteko adin taldea nagusitu egiten zaie gainerako adin taldeei, eta talde horren portzentaia % 30ekoa izan da.

***Bilboko bulegora etorri diren bisiten banaketa, adin taldeen arabera***

| Adina | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 25ra arte | 31 | 3,06 |
| 26-35 | 137 | 13,53 |
| 36-45 | 301 | 29,71 |
| 46-55 | 226 | 22,31 |
| 56-65 | 163 | 16,09 |
| 66 edo gehiago | 155 | 15,30 |
| Guztira | 1.013 | 100 |

### - Bisiten jatorri geografikoa

Bulegora iritsitako pertsonen % 60,2 Bilbokoak dira, eta % 38,5, berriz, Bizkaiko gainerako udalerrietakoak.

***Bilboko bulegora etorritako pertsonen banaketa, jatorri geografikoaren arabera***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Bizkaia-hiriburua | 609 | 60,12 |
| Bizkaia-beste udalerriak | 390 | 38,50 |
| Araba | 6 | 0,59 |
| Gipuzkoa | 1 | 0,10 |
| Beste batzuk | 7 | 0,69 |
| Guztira | 1.013 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## 8. OFIZIOZ EGINDAKO JARDUERAK

Hiritarren kexei kasu egiteaz gain, erakunde honek (bere ekimenez) zenbait gai ikertu ditu: batzuetan Euskadiko herri administrazioen jarduera irrregularrak egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Horri guztia, beste alde batetik, ofizioz egindako jardueren barruan sartu dugu; Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak, bestalde, Arartekoari eman zion eskumen hori; eskumenak, gainera, bere kabuz esku hartzeko aukera ematen dio, Administrazioaren irregulartasunen edo akatsen ondorioz kalteturiko hiritarren erreklamazioei itxaron barik.

2000. urtean halako 46 kexa tramitatu dira. Aipagarriak dira, euren kopurua kontuan hartuz, Gizarte Ongizate eta Funtzio Publikoa arloei loturikoak.

***Ofizioz egindako jardueren banaketa, arloen arabera***

| | Ofizioz egindako espedienteak | % |
|---|---|---|
| Gizarte Ongizatea | 13 | 28,26 |
| Funtzio Publikoa | 10 | 21,74 |
| Ogasuna | 6 | 13,05 |
| Herrizaingoa | 5 | 10,87 |
| Hezkuntza | 4 | 8,70 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 3 | 6,52 |
| Ingurumena | 2 | 4,35 |
| Kudeaketak | 1 | 2,17 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 1 | 2,17 |
| Justizia | 1 | 2,17 |
| Guztira | 46 | 100 |

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

Ofizioz egindako ikerketek eragindako herri administrazioei dagokienez, jarduera gehien eragin dutenak toki administrazioak izan dira, hain zuzen ere, jarduera guztien % 41,30. Jardueren % 30,43k eragina izan dute Eusko Jaurlaritzaren Administrazioan, eta % 28,26k foru administrazioetan.

***Ofizioz egindako jardueren banaketa, eragindako administrazioen arabera***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Toki Administrazioa ........................................ | 19 | 41,30 |
| Eusko Jaurlaritza ............................................ | 14 | 30,43 |
| Foru Administrazioa ........................................ | 13 | 28,27 |
| Guztira .......................................................... | 46 | 100 |

(Ikus 22. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEAK JASOTAKO BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

1996an Arartekoak, partehartze printzipioan oinarrituz, hiritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, horien iritzia jakiteko, baita erakundean konfiantza izan eta erreklamazioren bat aurkeztu dutenek Arartekoaren esku-hartzeari buruz egiten duten balorazioa jakiteko ere. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak jakin nahi izan zituen (hiritarraren ikuspegitik), horiek konpontzen saiatzeko.

Horretarako, 1996ko urtarrilaren 1etik, kexa baten tramitazioa amaitzen denetik erreklamaziogileari galdeketa bat bidaltzen zaio; bertan, nahi izanez gero eta izenik ipini barik, galdera batzuei erantzuteko aukera ematen zaio. Hori eginez, erakundera jotzen duten pertsonen ezaugarriak ezagutu nahi izan dira, jaso duten zerbitzuari buruz egiten duten balorazioa jakiteko. Lehenengo urte horretan jasotako erantzuna oso ona izan zen, bai erantzundako galdeketa kopuruari dagokionez, bai erreklamaziogileek erakundean jasotako zerbitzuari buruz egindako balorazioari dagokionez.

Beste lau urte igaro ondoren, erreklamaziogileek bidali zaizkien galdeketei jarri dieten arretak berretsi egiten du hasitako esperientziaren emaitza ona. 2000. urtean, erantzunaren balio kuantitatiboa oso garrantzitsua izan da, eta estatistikaren aldetik baliozkoa izan da. Galdeketen % 46 (219 galdeketa) itzuli egin dira, galderei erantzun ondoren; horrek ondorio fidagarriak ateratzeko aukera ematen digu, lortu nahi izan ditugun helburuen harira.

Aurten, erantzunen edukia ere oso positiboa izan da, eta aldeko erantzunen portzentaia oso altua izan da: jasotako inkesten % 77,66k emandako balorazioaren arabera, esku-hartzea oso ona edo nahiko ona da. Datu horiek agerian jartzen dute Ararteko erakundeak emandako zerbitzuaren baliozkotasuna; gainera, erakunde horretan lan egiten dutenei adorea ematen diete, erabiltzaileek gogoko duten lanean gogor ekiteko, egunean-egunean gero eta hobekuntza handiagoak egiteko.

Inkestako emaitzak laburbiltzeko, kexaren bat jarri duten hiritarrek berriro ere kalifikazio ona jartzen diete erabilitako zerbitzuei; izan ere, euren ustez, erreklamazioaren tramitazioa amaitu ondoren, "*Artekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da*" (% 83,75), "*kexa aurkeztu dutenetik prozesua amaitu bitarteko epea laburra edo oso laburra izan da*" (% 57,87), eta gainera, "*erabat edo nahiko ados daude Arartekoak euren kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin*" (% 58,88). Esku-hartzearen balorazio orokorra egiteari dagokionez (hau da, erakutsitako interesa, eskuragarritasuna, egindako kudeaketak...), erreklamaziogileek balorazio oso ona egin dute, eta diotenez, "*kasu guztietan (% 61,42) edo kasu batzuetan (% 23,86), Administrazioarekiko arazoren bat duen pertsona bati Arartekoarengana jotzeko aholkatuko liokete*". Inkestari "*kexaren jatorrizko arazoa konpondu barik dago oraindik, edo nahiko ondo konpondu da*" erantzun diotenek ere (galdeketa erantzun dutenen % 54,80) "*kasu guztietan edo kasu batzuetan Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lukete*" (% 74,07) eta "*balorazio oso ona edo nahiko ona egiten dute Arartekoaren esku-hartzeari buruz*" (% 61,12).

Inkestaren zifrak albo batera utzita (ondoren transkribaturik daude, eta berez ere oso ondo adierazten dute gaiaren nondik norakoa, eta ez dute azalpen handirik behar), hiritar batzuek galdeketaren atal bat betez helarazitako iritziak eta hobekuntza-iradokizunak aipa daitezke, batzuek izaera anekdotiko hutsa baino ez duten arren. Kritiken artean, 4 pertsonak diote Ararteko erakundea ez dagoela hiritarraren zerbitzuan, Administrazioaren beraren zerbitzuak baizik; bi pertsonak uste dute ez duela ezertarako balio, eta alferreko gastua dela; beste 3 pertsonaren iritziz, Arartekoak kasu gehiegi egiten dio Administrazioak ematen dion informazioari; pertsona batek erreklamaziogilearekiko komunikazio hobea eskatzen du, batez ere kexaren tramitazioa luzatzen denean. Iradokizunen artean, 5 pertsonak aditzera eman dute Arartekoak eskumen gehiago behar duela, bere aholkuak lotesleak izateko; 4 pertsonaren ustez, Arartekoak Administrazioan presio handiagoa egiteko gaitasuna eduki behar du; 3 pertsonak aditzera eman dute informazio gehiago egon beharko litzatekeela, erakunde hori egoteari buruz; beste baten iritziz, Arartekoak bere ikerketa bideak behar ditu, emaitza hobeak lortzeko.

- **Inkestaren emaitzak** (Ikus 23-28. diagramak eranskinean)

**1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

1. Oso ona ............................................ 42,13
2. Ona .................................................. 41,62
3. Txarra ................................................ 7,11
4. Oso txarra .......................................... 7,11
5. Erantzunik ez ...................................... 2,03

**2. Zelan baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako epea?**

1. Oso luzea .......................................... 13,20
2. Luzea ................................................ 23,86
3. Laburra ............................................. 46,19
4. Oso laburra ........................................ 11,68
5. Erantzunik ez ........................................ 5,08

**3. Zein neurritan zaude ados Arartekoak zure kexari dagokionez emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

1. Erabat ados ........................................ 29,95
2. Nahiko ados ....................................... 28,93
3. Ez nago ados ...................................... 13,20
4. Erabateko desadostasuna ....................... 21,32
5. Erantzunik ez ........................................ 6,60

**4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:**

1. Oso ondo konpondu da ......................... 17,26
2. Nahiko ondo konpondu da .................... 21,32
3. Ez da konpondu ................................... 50,76
4. Nahiko txarto konpondu da .................... 4,06
5. Erantzunik ez ........................................ 6,60

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)**

1. Oso ona .............................................. 46,70
2. Nahiko ona ......................................... 30,96
3. Nahiko txarra ....................................... 9,14
4. Oso txarra .......................................... 10,66
5. Erantzunik ez ........................................ 2,54

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora jotzeko aholkatuko zenioke?**

1. Bai, kasu guztietan ............................... 61,42
2. Bai, kasu batzuetan .............................. 23,86
3. Ez, inoiz ere ez .................................... 11,68
4. Erantzunik ez ........................................ 3,05

Inkestatuen jokabidea, bakoitzaren kexa eragin zuen arazoa konponduta egotearen edo konpondu barik egotearen arabera, desberdina izateko arriskua egon zitekeen. Baina ez da horrelakorik gertatu: galdeketa batzuetan erreklamaziogileek euren arazoa ez dela konpondu diote, eta horrek agerian jartzen du euren erantzuna ez dela emaitzaren araberakoa izan.

- **Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz erreklamaziogileek (euren arazoa "*ez da konpondu*" edo "*nahiko txarto konpondu da*" diotenek) egiten duten balorazioa.**

(Ikus 29. eta 30. diagramak eranskinean)

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**

1. Oso egokia .......................................... 25,93
2. Nahiko egokia ...................................... 35,19
3. Ez oso egokia ...................................... 16,67
4. Oso desegokia ...................................... 19,44
5. Erantzunik *ez* ........................................ 2,78

**6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?**

1. Bai, beti .............................................. 45,37
2. Bai, kasu batzuetan ............................... 28,70
3. Ez, inoiz *ere ez* ..................................... 21,30
4. Erantzunik *ez* ........................................ 4,63

# IV. ATALA

# ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA

## 1. SARRERA ETA OHARRAK

Antolamendu juridikoak Arartekoari eratxiki dizkion erantzukizunak betetzeko herri administrazioen laguntza behar da, eta horien jarduerak euren jarduera eremuaren menpe jartzen dira. Administrazio lankidetza hau egituratzeko, beharrezkoa da kexa-espedienteak sortu dituzten gai guztiei buruz eskatu den informazio guztia Arartekoaren esku jartzea; izan ere, erakunde horrek epai-elementu guztiak eduki behar ditu, erabaki egokia hartu ahal izateko. administrazioaren betebeharra, beste alde batetik, ez da eskaturiko informazio guztia bidaltzea soilik: ezarritako epeetan bidali beharko du informazio hori, ikerketa eta kontrol lanak eraginkorrak izateko, horiexek baitira Arartekoaren jardueraren oinarrizko elementuak.

Beharrizan horiei erantzunez, Euskadiko legegileak, otsailaren 27ko 3/1985 Legea onestean (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen legea), ezarri du lankidetza hori nahitaez bete beharreko eginkizuna dela, eta epe zehatzean gauzatu behar dela. Horrela, arautegi horretako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, *"9.1 artikuluan aipaturiko erakundeetako organoek, lehentasunez eta lehenbailehen, eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten eta argitasun guztiak aurkeztu beharko dituzte"*. Manu horren bitartez, lankidetzarako betebehar hori ezartzen zaie kontrolatzeko moduko jarduerak dituzten erakundeei eta organismoei; egin-eginean ere, horien lankidetzarik gabe, lehen ere esan dugunez, zaila izango da bidezko erabakia hartzea aurkezturiko kexei edo ofizioz hasitakoei buruz. Beste alde batetik, lankidetza betebeharra betetzeko dagoen denborari dagokionez arau horretako 26. artikuluak ezartzen duenez, *"Txostenak eskatzeko, espedienteak bidaltzeko edo beste edozein datu bidaltzeko eskatzen denean, Arartekoak epe bat ezarriko du eskaturikoa ebaluatzeko"*.

Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batek bere eginkizunak bete ahal izateko duen garrantzia kontuan hartuz, administrazioak lankidetza betebehar hori betetzen ez duenean eskatzen diren erantzukizunak ez dira Legebiltzarraren eremura edo hiritarraren eremura mugatzen. Horrela, lankidetza eza hori Estatuko erakundeen eta botere banaketaren aurkako delitutzat jasota dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta, halakorik eginez gero, lana edo kargu publikoa etenda gelditzeko zigorra ezarri ahal izango da, sei hilabetetik bi urtera bitarteko epean, honako hau oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei dagokienez: *"...Herriaren Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo Autonomia Erkidegoetan horien baliokideak diren organoen ikerketa, horiek eskaturiko txostenak ukatu edo beranduegi bidaliz gero, edo espedienteak lortzeko oztopoak jarriz gero, edo ikerketa hori burutzeko behar den administrazio dokumentazioa lortzeko trabak jarriz gero"*. Horrenbestez, mota diseinatzen denean, kontuan hartzen dira aipaturiko bi aldagai horiek; aldagaiok, bestalde, lankidetza

betebehar horren izaera gauzatzen dute: lankidetza zorrotz beteko dela eta epe jakinean bideratuko dela.

Arartekoaren iritziz, lankidetza betebehar horren eremuaren barruan (ezaugarri batzuekin eta informazio eskabideetan eskatzen denarekiko ikuspegi desberdinarekin), herri administrazioek eurei bidaltzen zaizkien legezkotasun gomendioei eman behar dieten beharrezko erantzuna sartzen da.

Kapitulu honetan, administrazioek eta erakundeek antolamendu juridikoak ezarritako lankidetza betebeharrari dagokionez izan duten jokabidea islatzen da, bideratzen zaizkien informazio eskabideei dagokienez, baita legezkotasuna betetzeko gomendioei lotuta ikusi duten erantzun ezari dagokionez ere. Ondoren agertu diren datuetan, beraz, Arartekoak garaturiko kudeaketak agertzen dira; inplikaturiko erakundeei eta organismoei gogoratu eta eskatu egiten die lankidetza betebeharra betetzeko, erakunde bermatzaile honi dagokionez, erantzunik ez dagoenean edo erantzun hori atzeratuta ematen denean, bai egin zaien informazio eskabideari eta bai ikusi diren isilbideei dagokienez (legezkotasuna betetzeko gomendioen aldetik).

Aurreko txostenetan aditzera eman dugunez, nabarmendu behar da jarduera hau egitean Arartekoak ez duela modu automatikoan jarduten. Organismo eta Erakunde publikoak ezagutzearen ondorioz, erantzukizuna eta zuhurtasuna gogoratzeko jarduera horren oinarrizko printzipio bihurtzen dira; izan ere, lan hori egiteko orduan, kontuan hartu behar izaten dira administrazio zereginean aldagai batzuk (jario burokratikotik kanpoko aldagaiak). Horri dagokionez, gure uztez komenigarria da gora-behera jakin batzuk haztatzea; egin-eginean ere, gora-beherok eragina izan dezakete ikertu beharreko gaiak aztertzeko moduan, erantzunen bizkortasun handiagoa edo txikiagoa sortuz. Horri dagokionez, ondokoak aipa daitezke: informazio eskabidea eragin duen arazoaren izaera materiala, formulazio jasotzen duen egitura burokratiko nahiz administratiboaren konplexutasuna, aztertu behar diren prozedurek izan dezaketen pilaketa, kontrolpean jartzen diren erakundeak eratzean egon daitezkeen denbora-aldagaiak (hauteskunde garaien ondorioz), erantzuleen eta funtzionarioen errotazioa edota ordezpena, etab.

Halaber, kexa-espedienteetariko batzuetan, informazio eskabideei kasu egiteko orduan egoten den atzerapena legegintzaldi osoa baino luzeagoa izaten da. Hori dela eta, gure ustez bidezkoa izan da txosten honetako kexa-espedienteetan egin diren errekerimenduen zerrenda zehatza sartzea (2000. urtean tramitatu diren espedienteak), nahiz eta horien tramitea urte hori baino lehenago hasi. Horren helburua, beste alde batetik, ikuspegi orokorragoa eskaintzea da, Arartekoaren iritzipean jarritako jarduerak burutzen dituzten erakundeen lankidetza-indizeei buruz. Ondoren ageri diren datuen irakurketak, bestalde, aukera ematen du baloraziozko ondorio objetiboa lortzeko, lankidetza betebeharra betetzeari buruz, aurretiaz islaturiko eremuetan.

Batzuetan, lankidetza betebeharra ez betetzeak aipatzeko moduko ezaugarriak izaten ditu. Izan ere, gai batzuetan Arartekoak, errekerimendu batzuei kasurik ez egitearen eraginez, kasuan kasuko administrazioetako titularrei gogoratu egin behar izan die Zigor Kodeko 502.2 artikuluan tipifikaturiko delitua egiteko arriskua dutela, baita gai hori zigor ordena jurisdikzionalean sartzeko aukera dagoela ere. 2000. ekitaldian zehar, ondoko agintari hauei egin zaie jakinarazpen hori: Bilboko alkatea (147/1997 espedientea) Oreetako alkatea (318/2000 espedientea) eta Abandoko alkatea (463/2000 espedientea). Lehenengo bi kasuotan, eskaturiko informazioa eman zitzaigun. Hala eta guztiz ere, hirugarren kasuan egindako errekerimendua (jakinarazpena egin arren) erantzunik gabe geratu da.

Aurreko guztia komentatu ondoren, gauza batzuk argitu nahi ditugu, ondoren sartu ditugun zerrendatan jasotako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

* Lehenengo zerrendan organismo eta erakunde guztietan tramitaturiko espediente guztiak jaso dira; horien jarduerak kontrolatu egin dira eta, espedienteen tramitaziorako, gutxienez informazio eskabide bat planteatu behar izan da (batzuetan, errekerimendu bat edo batzuk). Bertan, gomendioak betetzeari buruz egindako informazio eskabideak eta errekerimenduak sartu dira. Zutabe bakoitzean ageri den informazioa hauxe da:

(1) 2000. urtean informazio eskabideren bat egin duen espediente kopurua.
(2) 2000. urtean informazio eskabidea izan duen espediente kopurua, baldin eta horien tramitazioan errekerimenduren bat egin bada.
(3) 2000. urtean informazio eskabideren bat egin duen espediente kopuru osoari buruzko errekerimendua duten espedienteen portzentaia.
(4) 2000. urtean errekerimenduak izan dituen espediente kopurua; horiek, berriz, aurreko urteetan egindako informazio eskabideei egokitu beharko zaizkie.
(5) Espediente bakoitzeko 2000. urtean egindako errekerimendu kopuruaren banakatzea.
(6) 2000. urtean egindako guztizko errekerimendu kopurua.

* Bigarren tokian sartu den zerrendan, zehatz islaturik daude (banan-banan) erakundeei errekerimenduak bidaltzea eskatu duten espediente guztien tramitazioa; horien egintzak bestalde gure kontrolpean jarri dira, bai ohiko informazioei eta bai gomendioak betetzeari dagokionez.

* Izartxo hau duten espedienteak, beste alde batetik, aurreko urteetan hasitako kexei buruzkoak dira; horiek, berriz, errekerimenduak behar izan dituzte 2000. urtean, urte horretan euren tramitazioekin jarraitu baita.

Azken zutabean dagoen datua emateko (informazio emanda edo emateko egoteari dagokionez), 2000ko abenduaren 31 jarri da epemugatzat.

Azkenik komenigarria da jakitera ematera behin baino gehiagotan erreferentziarekin ageri diren espedienteak informazio bat baino gehiago behar izan dituztenak direla. Planteaturiko eskabide bakoitzerako behar izan diren errekerimenduak jasoarazteko erreferentziatu dira horrela.

# 2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2000. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA

## A) Eusko Jaurlaritza

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | | |
| Saila | 2000n eskatutako espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | 1 | 2 | 3 | +4 | 2000ko errekerimenduak guztira |
| Nekazaritza eta Arrantza | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kultura | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| EITB | - | - | - | 1 | - | 1 | - | - | 2 |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 55 | 14 | 25,45 | 2 | 15 | 1 | - | - | 17 |
| UPV/EHU | 18 | 13 | 72,22 | | 7 | 4 | - | 2 | 23 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 8 | 3 | 37,50 | 1 | 2 | 1 | 1 | - | 7 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 5 | 2 | 40 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Herrizaingo Saila | 35 | 5 | 14,29 | 1 | 6 | - | - | - | 6 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 6 | - | - | 1 | - | 1 | - | - | 2 |
| Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena | 20 | 9 | 45 | 1 | 7 | 3 | - | - | 13 |
| VISESA | 5 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lehendakaritza | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Osasuna | 13 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| SVS/ Osakidetza | 46 | 9 | 19,57 | 3 | 10 | 2 | - | - | 14 |
| Garraioak eta Herri Lanak | 9 | 3 | 33,33 | - | 2 | 1 | - | - | 4 |
| Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos | 7 | | | - | - | - | - | - | - |

## B) Foru Aldundiak

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arabako Foru Aldundia | 2000n eskabidea izan duten espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | 1 | 2000ko errekerimenduak guztira |
| Foru eta Toki Administrazioa eta Industri Garapena | 1 | - | - | - | - | - |
| Nekazaritza eta Ingurumena | 2 | - | - | - | - | - |
| Gizarte Ongizatea | 4 | - | - | - | - | - |
| Kultura | 1 | - | - | - | - | - |
| Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak | 2 | - | - | - | - | - |
| Gazteria eta Kirola | 1 | - | - | - | - | - |
| Herri Lanak eta Hirigintza | 2 | - | - | - | - | - |
| Lehendakaritza | 5 | 1 | 20 | - | 1 | 1 |

| Bizkaiko Foru Aldundia | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) Errekerimenduen kopurua desglosatuta 1 | (5) 2 | (5) 3 | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Ekintza | 10 | 1 | 10 | 1 | 2 | - | - | 2 |
| Nekazaritza | 2 | - | - | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Ogasuna eta Finantzak | 24 | - | - | 3 | 2 | 1 | - | 4 |
| Ingurumena eta Lurralde Ekintza | - | - | - | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Herri Lanak eta Garraioak | 5 | 3 | 60 | 2 | 3 | 1 | 1 | 8 |
| Lehendakaritza | 1 | - | - | - | - | - | - | - |

| Gipuzkoako Foru Aldundia | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) 1 | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Ingurumena | 3 | 2 | 66,67 | - | 2 | 2 |
| Ekonomia eta Turismoa | 1 | 1 | 100 | - | 1 | 1 |
| Ogasuna eta Finantzak | 5 | 1 | 20 | 2 | 3 | 3 |
| Lehendakaritza | 1 | 1 | 100 | - | 1 | 1 |
| Gizarte Zerbitzuak | 4 | - | - | 1 | 1 | 1 |
| Garraioak eta Errepideak | 9 | 4 | 44,44 | - | 4 | 4 |

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

| Arabako Udalak | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Amurrio | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Arrazua-Ubarrundia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Artziniega | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Asparrena | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ayala/Aiara | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Barrundia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kripan | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| La Guardia/ Biasteri | 3 | 2 | 66,67 | 2 | 3 | - | - | 1 | 7 |
| Lanciego / Lantziego | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lapuebla de Labarca | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - |
| Legutio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Leza | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Laudio | 3 | 1 | 33,33 | 1 | 2 | - | - | - | 2 |
| Salvatierra / Agurain | 1 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Vitoria / Gasteiz | 43 | 5 | 11,63 | 4 | 8 | 1 | - | - | 10 |

| Arabako Administrazio Batzak | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 | 3 | |
| Astegieta | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Delica | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Escanzana | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |
| Labraza | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |
| Nanclares de la Oca | 2 | 2 | 100 | - | 1 | - | 1 | 4 |
| Salinillas de Buradón | - | - | - | 1 | - | 1 | - | 2 |
| Villodas | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |

## - Bizkaia Lurralde Historikoa

| Bizkaiko Udalak | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) Errekerimenduen kopurua desglosatuta 1 | 2 | 3 | 4 | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abanto y Ciérvana/Abanto Zierbena | 5 | 4 | 80 | - | 1 | 1 | 1 | 1 | 10 |
| Alonsotegi | 2 | 2 | 100 | 1 | 2 | - | - | 1 | 6 |
| Arrankudiaga | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | 3 |
| Arrigorriaga | - | - | - | 1 | - | - | 1 | - | 3 |
| Balmaseda | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Barakaldo | 16 | 3 | 18,75 | 1 | 3 | 1 | - | - | 5 |
| Basauri | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Bermeo | 2 | 1 | 50 | 2 | 2 | - | 1 | - | 5 |
| Berriz | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bilbo | 59 | 11 | 18,64 | 8 | 15 | 3 | 1 | - | 24 |
| Busturia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Karrantza | 3 | 2 | 66,67 | 1 | 2 | 1 | - | - | 4 |
| Derio | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | 3 |
| Durango | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Ea | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Erandio | 8 | 7 | 87,50 | - | - | 7 | - | - | 14 |
| Ermua | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Etxebarria | 3 | 2 | 66,67 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Galdakao | 3 | 1 | 33,33 | 3 | 2 | 1 | 1 | - | 7 |
| Gernika-Lumo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Getxo | 14 | 8 | 57,14 | 2 | 8 | - | 2 | - | 14 |
| Gorliz | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Leioa | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lekeitio | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lemoa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lemoiz | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lezama | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Loiu | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Mendexa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Mungia | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Murueta | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondarroa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Urtuella | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Plentzia | 3 | 2 | 66,67 | 2 | 2 | 1 | - | 1 | 8 |
| Portugalete | 6 | 3 | 50 | 3 | 2 | 3 | 1 | - | 11 |
| Santurtzi | 7 | 3 | 42,86 | 5 | 5 | 2 | 1 | - | 12 |
| Sestao | 9 | 3 | 33,33 | - | 1 | - | 2 | - | 7 |
| Sopelana | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Valle de Trápaga/Trapagaran | 3 | 1 | 33,33 | 1 | 2 | - | - | - | 2 |
| Zamudio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zeanuri | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zeberio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zierbena | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |

## - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

| Gipuzkoako Udalak | (1) 2000n eskabidea izan duten espedienteak | (2) Errekerimendua duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako errekerimenduak | (5) Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | | | (6) 2000ko errekerimenduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 | 3 | 4 | +4 | |
| Andoain | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arrasate / Mondragón | 4 | - | - | 1 | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Astigarraga | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Azkoitia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Beasain | 2 | 1 | 50 | 2 | 1 | 2 | - | - | - | 5 |
| Beizama | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Deba | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Donostia / San Sebastián | 35 | 16 | 45,71 | 8 | 8 | 11 | 3 | 2 | - | 47 |
| Eibar | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Elgoibar | 2 | 1 | 50 | 1 | - | 2 | - | - | - | 4 |
| Orereta | 7 | 5 | 71,43 | - | 3 | 1 | - | 1 | - | 9 |
| Getaria | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Hernani | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Hondarribia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Ibarra | 2 | 2 | 100 | - | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Ikaztegieta | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Irun | 6 | 1 | 16,67 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Lasarte-Oria | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lazkao | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Mendaro | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Mutriku | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Oiartzun | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Oñati | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ordizia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Orio | 3 | 3 | 100 | - | 1 | - | 2 | - | - | 7 |
| Pasaia | 5 | 1 | 20 | 2 | 2 | 1 | - | - | - | 4 |
| Soraluze / Placencia de las Armas | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Tolosa | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Urnieta | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Zaldibia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zarautz | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zegama | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | - |
| Zumaia | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |

## D) Eusko Legebiltzarra

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2000n eskabidea izan duten espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | | 2000ko errekerimenduak guztira |
| | | | | | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Eusko Legebiltzarra | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontuen Euskadiko Auzitegia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |

## E) Beste erakunde publiko batzuk

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2000n eskabidea izan duten espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatuta | | | 2000ko errekerimenduak guztira |
| | | | | | 1 | 2 | 3 | |
| Bizkaiko Abokatuen Elkargoa | 5 | 1 | 20 | 4 | 4 | - | 1 | 7 |
| Abokatuen Euskal Kontseilua | 2 | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste elkargo batzuk | 2 | - | - | - | - | - | - | - |
| Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa | 5 | - | - | - | - | - | - | - |
| Mebisa – Bilboko Metroa | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | 1 | - | 3 |
| Estatuko Erakundeak eta Administrazioak | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Txingudiko Zerbitzuak S.A. | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ur Zerbitzuak | 1 | - | - | - | - | - | - | - |

# 3. ARARTEKOAK 2000. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA

## A) Eusko Jaurlaritza

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Kultura | | | | | |
| EITB | 425/1999/21* | Herri titulartasuneko komunikabideak lortzeko bidea | 2 | 2000/10/04 | JG |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 880/1999/20* | Kuoten kobrantza hitzarturiko ikastetxean | 1 | 2000/01/18 | J |
| | 1225/1999/20* | Eskolako instalazioak | 1 | 2000/01/21 | J |
| | 1225/1999/20 | Eskolako instalazioak | 1 | 2000/03/15 | J |
| | 109/2000/20 | Deialdiaren ebazpena: Motibazioa | 1 | 2000/03/15 | J |
| | 109/2000/20 | Deialdiaren ebazpena: Motibazioa | 1 | 2000/12/20 | JG |
| | 279/2000/20 | Matrikulazioa: Lekuen eskaintza | 1 | 2000/06/13 | J |
| | 412/2000/25 | Ikasleen espedientea eta diziplina lortzeko araubidea | 1 | 2000/05/24 | J |
| | 418/2000/20 | Gimnasioaren kokalekua lehen hezkuntzako ikastetxerako | 1 | 2000/09/27 | J |
| | 557/2000/20 | Eszedentzia seme-alabak zaintzeko | 1 | 2000/07/17 | J |
| | 779/2000/18 | Pertsona gorren eskolaratzea: Irakasle bereziak | 1 | 2000/11/09 | J |
| | 811/2000/20 | IRALE programaren ebaluazioa | 1 | 2000/11/15 | J |
| | 817/2000/20 | Akatsak zuzentzeko tramitea | 1 | 2000/10/16 | J |
| | 825/2000/20 | Opor egunen zehazpena | 1 | 2000/10/16 | J |
| | 861/2000/25 | Eskolako garraioa: Hori ezartzeko irizpideak | 1 | 2001/01/18 | JG |
| | 908/2000/20 | Errekurtsoari erantzunik eza | 1 | 2000/11/08 | J |
| | 972/2000/20 | Deialdia: Akatsak zuzentzeko tramitea | 1 | 2000/11/30 | J |
| | 1036/2000/18 | B eredua ikasteko laguntza | 1 | 2001/01/10 | JG |
| Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea | 706/2000/18 | UPV/EHUko estomatologia saileko hortzetako klinikak emandako laguntzaren aurka | 2 | 2000/11/09 | J |
| | 143/2000/20 | Erantzunik ez | 1 | 2000/03/21 | J |
| | 293/2000/20 | Ikasketa plana. Kredituen amortizazioa | 1 | 2000/05/04 | J |
| | 293/2000/20 | Ikasketa plana. Kredituen amortizazioa | 1 | 2000/09/20 | J |
| | 390/2000/20 | Irakasleria elkartua. Irakaskuntzaren esleipena | 4 | 2000/11/06 | J |
| | 404/2000/25 | Ikasgaiak baliozkotzea eta gelditzen diren deialdiak | 1 | 2000/05/24 | J |
| | 694/2000/25 | Ikasgaiak baliozkotzea eta ikasketen egokitzapena | 1 | 2000/09/12 | J |
| | 790/2000/17 | Eskuragarritasun arazoak, UPV/EHUko Irakasle Eskolan | 1 | 2000/10/17 | J |
| | 798/2000/20 | Zehapen prozedura. Jakinarazpena | 1 | 2000/09/20 | J |
| | 810/2000/20 | Egokitzapen pedagogikorako ikasturtea. Hizkuntza bakarreko eskaintza | 1<br>1 | 2000/09/20 | J |
| | 881/1998/20 | UPV/EHU- Osakidetza hitzarmena | 2 | 2000/09/20 | JG |
| | 130/2000/20 | Zehapen prozedura. Kautelazko neurriak | 2 | 2000/05/17 | J |
| | 969/2000/25 | Atzerrian egindako ikasketen baliozkotzea | 4 | 2000712712 | JG |
| | 453/2000/20 | Irakaskuntza. Klase praktikoak eskatzea | 2 | 2000/12/14 | JG |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 1068/1999/22* | EITBren seinalerik hartu ez | 2 | 2000/03/22 | J |
| | 98/2000/20 | Lan baldintzak. Lanaren araberako desberdintasunak | 3 | 2000706/14 | J |
| | 380/2000/18 | Funtzionario minusbaliatuak lanpostua etxetik hurbil eskatu | 1 | 2000/09/25 | J |
| | 911/2000/20 | Barne sustapena. Aurreko lanpostuan gelditzea | 1 | 2000/11/08 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 154/2000/19 | Administrazioak ustezko diskriminazioaren aurrean ezer ez egitea | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 607/2000/17 | Transformadoreak sortutako zaratak eta dardarak | 2 | 2000/09/22 | J |
| Herrizaingo Saila | 689/1999/18* | Langile publikoak euskara ikastaroak lortzea | 1 | 2000/02/10 | J |
| | 404/1998/19 | Ertzaintzako funtzionarioek identifikatzea eta arakatzea | 1 | 2000/07/19 | JG |
| | 1974/1998/21 | Atxiloketak kontrolatzeko proposamena, bideoko grabazioen bidez | 1 | 2000/10/25 | J |
| | 2120/1998/19 | Ertzaintzako funtzionarioen jarduketa | 1 | 2000/07/19 | JG |
| | 1206/1999/21 | Poliziaren jarduketa okerra | 1 | 2000/10/25 | JG |
| | 98/2000/20 | Lan baldintzak. Lanaren araberako desberdintasunak | 1 | 2000/12/12 | J |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 647/1999/21* | Euskadiko espetxeetan amen batasunik ez egotea | 2 | 2000/10/25 | J |
| Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena | 1212/1999/23* | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2000/01/25 | J |
| | 2117/1998/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2000/05/10 | J |
| | 1199/1999/23 | Sustapen publikoko garajeak | 1 | 2000/02/11 | JG |
| | 207/2000/17 | BOE | 1 | 2000/09/21 | J |
| | 258/2000/17 | BOEen gehiegizko prezioa | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 655/2000/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2001/01/04 | JG |
| | 655/2000/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2000/08/29 | J |
| | 707/2000/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2000/08/29 | J |
| | 712/2000/23 | Hirigintza hitzarmena | 2 | 2000/10/09 | J |
| | 826/2000/23 | Etxebizitza baimena babes zorreko aldean | 1 | 2000/09/18 | J |
| | 1076/2000/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Osasuna | | | | | |
| SVS/ Osakidetza | 934/1999/18* | Pertsona minusbaliatuak. Familiakoen laguntza | 1 | 2000/02/10 | J |
| | 1137/1999/18* | Itxaron-zerrenda | 1 | 2000/02/10 | J |
| | 1177/1999/20* | Lanpostuaren adskripzioa epaiaren betearazpenean | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 514/1999/20 | Behin-behineko kontratazioa. Zerrendak egitea | 1 | 2000/06/21 | J |
| | 1272/1999/18 | Hepatitisaren aurrekariak: ugalkortasunaren programan parte hartzea | 1 | 2000/03/08 | J |
| | 44/2000/20 | Behin-behineko estaldura. Merezimenduen balorazioa | 1 | 2000/02/23 | J |
| | 140/2000/20 | Barne sustapena. Merezimenduen balorazioa | 1 | 2000/03/21 | J |
| | 338/2000/18 | Historia klinikoa lortzeko eskubidea | 1 | 2000/06/02 | J |
| | 420/2000/20 | OPE eta lehiaketaren aurretiazko deialdia | 2 | 2000/09/19 | J |
| | 580/2000/20 | Ordainsari osagarria. Berdintasun printzipioak | 1 | 2000/10/16 | J |
| | 632/2000/18 | Gaixoa zaintzeko zerbitzua: Helburua betetzea | 2 | 2000/11/14 | J |
| | 808/2000/20 | Zehapen prozedura. Zehapenaren aplikazioa | 1 | 2000/09/26 | J |
| Garraioak eta Herri Lanak | 478/1999/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2001/01/11 | JG |
| | 726/2000/19 | Pantalanak adjudikatzea kirol ontzietarako, Elantxobeko portuan | 1 | 2000/10/23 | J |
| | 146/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2000/05/10 | J |

## B) **Foru Aldundiak**

### - Arabako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza | 353/2000/20 | Eskola eskaintza: 0-3 urte | 1 | 2000/06/14 | J |

### - Bizkaiko Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Ekintza | 1231/1999/18* | Ezgaitasunaren ondoriozko ukapena: Erroldatzea | 1 | 2000/02/10 | J |
| | 1031/2000/18 | Buruko paralisia dutenentzako laguntza | 1 | 2001/01/11 | JG |
| Nekazaritza | 1207/1999/20* | OPE eta lehiaketaren aurreko deialdia | 1 | 2000/01/26 | J |
| Ogasuna eta Finantzak | 638/1999/19* | Premiamendu bidean egindako bahitura | 2 | 2000/07/19 | J |
| | 1076/1999/22* | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 1192/1999/22* | Etxebizitzaren balorazio katastrokoaren berrikuspenarekiko desadostasuna | 1 | 2000/01/26 | J |
| Ingurumena Eta Lurralde Ekintza | 510/1999/15* | Minusbaliatuak hondartzetara joateko modua | 1 | 2000/11/15 | J |
| Herri Lanak eta Garraioak | 33/1999/15* | Foru errepide baten arriskua, espaloirik ez edukitzearren | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 517/1999/22* | Eskuragarritasun arazoak Astraburua- La Ola linean | 3 | 2000/05/29 | JG |
| | 11/2000/22 | Bizkaibuseko lineak bateratzearekiko desadostasuna | 2 | 2000/11/16 | JG |
| | 219/2000/15 | Eustorma | 1 | 2000/04/14 | J |
| | 1119/2000/25 | Jabetza pribatuan eragina duen herri lana | 1 | 2001/01/18 | JG |

### - Gipuzkoako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Ingurumena | 37/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2000/05/10 | J |
| | 328/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2000/04/19 | J |
| Ekonomia eta Turismoa | 2/2000/20 | Lan programak. Laguntzen deialdia | 1 | 2000/04/11 | J |
| Ogasuna eta Finantzak | 1007/1999/22* | PFEZren arloan emandako ebazpenaren aurka | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 1136/1999/22* | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 1239/1999/22 | Matrikulazio zergaren salbuespena | 1 | 2000/03/22 | J |
| Lehendakaritza | 470/2000/15 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/06/06 | J |
| Gizarte Zerbitzuak | 134/1999/01* | Kontributiboa ez den pentsioa jasotzeko eskubidea etetea | 1 | 2000/02/17 | J |
| Garraioak eta Errepideak | 442/2000/23 | Errepideen mantentze-lana | 1 | 2000/06/02 | J |
| | 588/2000/22 | Prozedura betearazlea | 1 | 2000/11/16 | JG |
| | 994/2000/18 | Erabilera bereziko garraioa | 1 | 2000/11/27 | J |
| | 1062/2000/23 | Sarbiderako obrak | 1 | 2001/01/04 | JG |

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Amurrio | 1184/1999/18* | Udal dirulaguntzak | 1 | 2000/02/10 | J |
| Biasteri | 472/1999/19* | Ibilgailua bide publikotik kentzea | 1 | 2000/04/19 | JG |
| | 993/1999/19* | Tresnak bide publikotik kentzea | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 333/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 4 | 2000/09/21 | J |
| | 865/2000/17 | Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2001/01/08 | JG |
| Lapuebla de Labarca | 1059/2000/23 | Akueduktuaren zorra | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Leza | 2582/1998/22* | Eszenatokia instalatzeko baimena herriko jaietan | 1 | 2000/01/26 | JG |
| Laudio | 1052/1999/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/01/27 | J |
| | 939/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2000/11/20 | J |
| Agurain | 900/1999/22* | Sarrera okerrak itzultzea | 1 | 2000/01/26 | J |
| Vitoria/ Gasteiz | 1183/1998/18* | Euskara erabiltzeko eskubidea. Udaleko polizia-etxea | 1 | 2000/11/10 | J |
| | 676/1999/19* | Trafikok jarritako isuna, ibilgailua bertan behera uztearren | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 782/1999/19* | Salaketa aurkezteko arazoak | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 1085/1999/21* | Polizi jardueran egondako ustezko diskriminazioa | 1 | 2000/02/01 | J |
| | 762/1999/19 | Trafiko zehapena | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 1281/1999/20 | Oporrak eta egutegiko urtearen igarotzea | 1 | 2000/02/14 | J |
| | 206/2000/23 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 713/2000/15 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/11/07 | JG |
| | 742/2000/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/08/29 | J |
| | 742/2000/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/11/07 | J |

### Administrazio batzak

| Arabako administrazio batzak | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Escanzana | 1101/2000/23 | Herri zerbitzuak | 1 | 20001/01/04 | JG |
| Labraza | 504/2000/15 | Galtzadaren mantenimendua | 1 | 2000/08/03 | J |
| Nanclares de la Oca | 668/2000/23 | Galtzadaren mantenimendua | 2 | 2000/09/28 | J |
| | 668/2000/23 | Galtzadaren mantenimendua | 1 | 2000/11/15 | J |
| | 669/2000/23 | Galtzadaren mantenimendua | 1 | 2000/08/29 | J |
| Salinillas de Buradón | 521/1999/15* | Auzokoek udal lursaila okupatzea | 2 | 2000/11/15 | JG |
| Villodas | 737/2000/22 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/09/13 | J |

## - Bizkaia Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Abanto y Ciérvana / Abanto Zierbena | 415/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 4 | 2001/01/04 | JG |
| | 463/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/11/28 | JG |
| | 743/2000/23 | Laguntza eskabidea bideetarako | 2 | 2001/01/04 | JG |
| | 1187/2000/17 | Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Alonsotegi | 358/1999/17* | Legeztatu gabeko jarduera | 4 | 2000/09/22 | JG |
| | 267/2000/20 | Lanpostua. Lanpostuaren izaera | 1 | 2000/12/12 | JG |
| | 897/2000/18 | Jubilatuen etxearen garbiketa | 1 | 2001/01/09 | JG |
| Arrankudiaga | 403/1999/15 | Hirigintza diziplina | 3 | 2000/11/14 | J |
| Arrigorriaga | 1077/1999/22* | Jarduera gogaikarriak | 3 | 2000/11/16 | JG |
| Balmaseda | 680/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/09/22 | J |
| Barakaldo | 65/1999/17* | Zaratek eragindako eragozpenak supermerkatuan | 1 | 2000/01/27 | J |
| | 51/2000/15 | Tentsio handiko linea ezabatzea | 2 | 2000/06/06 | J |
| | 419/2000/17 | Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/06/07 | J |
| | 1032/2000/23 | Hirigintzako desjabetzapena | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Basauri | 388/2000/15 | Sarbideak | 1 | 2000/06/06 | J |
| Bermeo | 81/1999/22* | Sailkaturiko hiri jarduerak | 1 | 2000/03/22 | J |
| | 913/1999/15* | Auzoko batek bidea trabatu bide publiko batean | 3 | 2000/11/15 | JG |
| | 81/1999/22 | Sailkaturiko hiri jarduerak | 1 | 2000/08/30 | JG |
| Bilbo | 147/1997/17* | Sailkaturiko hiri jarduerak | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 1398/1998/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 2347/1998/16* | OHZ salbutzeko eskabidea | 1 | 2000/10/18 | JG |
| | 2459/1998/22* | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/03/22 | JG |
| | 606/1999/19* | Zaborrak uzteko ordutegia ez betetzearen ondoriozko zehapena | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 973/1999/17* | Minusbaliatuentzako aparkalekuak | 1 | 2000/01/27 | J |
| | 1118/1999/22* | Udaleko prezio publikoen ahalezko preskripzioa | 2 | 2000/11/26 | J |
| | 1145/1999/22* | Sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/03/22 | JG |
| | 336/1999/22 | Aire egokituko instalazio batek sortutako eragozpenak | 2 | 2000/11/16 | J |
| | 939/1999/15 | Kale bat oinezkoentzako kale bihurtu ondoren lonja batera sarbidea bermatzeko eskabidea | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 1192/1999/22 | Etxebizitzaren balorazio katastralaren berrikuspenarekiko desadostasuna | 1 | 2000/11/16 | JG |
| | 1261/1999/19 | Panteoien titulartasuna hilerrietan | 1 | 2000/04/19 | J |
| | 15/2000/22 | Doako garraioaren txartela berritzea | 1 | 2000/11/16 | J |
| | 79/2000/25 | OTAren txartelaren zenbatekoa itzultzea | 1 | 2000/04/05 | J |
| | 115/2000/25 | Enpresa baten jarduerak auzo batean sortutako eragozpenak | 3 | 2000/06/16 | J |
| | 233/2000/19 | Trafiko zehapena | 1 | 2000/06/12 | J |
| | 497/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/06/21 | J |
| | 497/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/10/17 | J |
| | 896/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2000/11/15 | J |
| Karrantza | 945/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2000/11/15 | J |
| | 69/1998/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/15 | J |
| | 69/1998/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2001/01/08 | JG |
| Derio | 930/2000/23 | Ondare ondasunen erabilera | 1 | 04/01/2001 | JG |
| | 160/2000/20 | Lanpostua. Edukia eta funtzioak | 2 | 2000/05/17 | J |
| | 160/2000/20 | Lanpostua. Edukia eta funtzioak | 1 | 2000/09/19 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Durango | 958/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/01/08 | JG |
| Erandio | 1406/1996/17 | Industri lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 1028/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 1059/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 1145/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 1147/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 1304/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| | 2637/1998/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/07/20 | J |
| Ermua | 434/2000/15 | Udal plangintza | 1 | 2000/08/03 | J |
| Etxebarria | 227/2000/22 | Hondakin uren azaleratzea | 1 | 2000/11/16 | J |
| | 414/2000/23 | Trafikoaren antolamendua | 1 | 2000/10/09 | J |
| Galdakao | 2434/1998/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 41/1999/15* | Hirigintza diziplina | 2 | 2000/08/03 | J |
| | 722/1999/22* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 2434/1998/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2001/01/08 | JG |
| Getxo | 768/1999/15* | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/02/16 | J |
| | 966/1999/22* | Estolderia sarean akatsak egotearen ondoriozko uholdeak | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 2017/1998/15 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 2499/1998/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/05/08 | J |
| | 966/1999/22 | Estolderia sarean akatsak egotearen ondoriozko uholdeak | 1 | 2000/05/18 | J |
| | 1161/1999/22 | Seinaleztatu gabeko oinezkoentzako pasabidea | 1 | 2000/03/22 | J |
| | 113/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/07/20 | J |
| | 168/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/07/20 | J |
| | 502/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/07/20 | J |
| | 883/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2001/01/08 | JG |
| Gorliz | 926/1999/17* | Ibilgailuen zaindegi bateko zaratek eragindako eragozpenak | 1 | 2000/01/27 | J |
| Lezama | 1041/2000/23 | Galtzadaren mantenimendua | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Loiu | 10/200/23 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/02/21 | J |
| Mungia | 369/2000/23 | Hirigintza kudeaketa | 1 | 2000/06/02 | J |
| Plentzia | 2042/1998/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/02/18 | J |
| | 1070/1999/23* | Udal jardueraren ondoriozko erreklamazioa | 1 | 2000/01/25 | J |
| | 271/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 4 | 2000/10/09 | J |
| | 548/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/07/20 | J |
| | 548/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/10/17 | JG |
| Portugalete | 1081/1999/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/15 | J |
| | 1200/1999/22* | Jarduera gogaikarriak | 2 | 2000/03/22 | J |
| | 1225/1999/20* | Eskola instalazioak | 1 | 2000/01/21 | J |
| | 1200/1999/22 | Jarduera gogaikarriak | 1 | 2000/11/16 | JG |
| | 1225/1999/20 | Eskola instalazioak | 2 | 2000/10/16 | J |
| | 427/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/10/17 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Santurtzi | 655/1999/22* | Garbiketa publikoko sistemek eragindako zaratak | 3 | 2000/11/16 | JG |
| | 720/1999/19* | Motozikleten abiadura handiko zirkulazioa | 2 | 2000/07/19 | JG |
| | 868/1999/19* | Ibilgailuen aparkatze irregularra | 2 | 2000/06/13 | J |
| | 925/1999/17* | Taberna bateko zaratek eragindako eragozpenak | 1 | 2000/01/27 | J |
| | 1221/1999/22* | Jarduera gogaikarriak | 1 | 2000/01/26 | J |
| | 1221/1999/22 | Jarduera gogaikarriak | 1 | 2000/05/02 | J |
| | 1244/1999/18 | Dirulaguntza. Egoitzan sartzea | 1 | 2000/03/03 | J |
| | 1117/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2001/01/08 | JG |
| Sestao | 447/1997/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/09/22 | JG |
| | 231/1998/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/07/20 | JG |
| | 1273/1999/22 | Pasabidearen prezio publikoa ordaintzearen zatiketa | 1 | 2000/03/22 | J |
| Valle de Trápaga / Trapagaran | 355/1999/22* | ICIOren zerga oinarria | 1 | 2000/03/22 | J |
| | 323/2000/23 | Administrazio lizentziak | 1 | 2000/04/19 | JG |
| Zierbena | 230/2000/22 | Minusbaliatuentzako aparkalekuak | 1 | 15/01/2001 | JG |

## - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Arrasate / Mondragón | 1213/1999/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/15 | J |
| Azkoitia | 411/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/07/20 | J |
| Beasain | 2150/1998/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/01/27 | JG |
| | 1125/1999/17* | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/15 | J |
| | 28/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/05/08 | J |
| Beizama | 478/1999/23 | Lurraldearen mantenimendua | 1 | 2000/10/09 | JG |
| Donostia / San Sebastián | 1972/1997/19* | OTAren ordenantza aplikatzea | 2 | 2000/05/02 | JG |
| | 352/1999/23* | Biztanleen udal errolda | 2 | 2000/03/16 | JG |
| | 439/1999/22* | Jarduera gogaikarriak | 1 | 2000/01/27 | JG |
| | 470/1999/22* | Jarduera gogaikarriak | 1 | 2000/01/27 | JG |
| | 788/1999/15* | Hirigintza diziplina | 4 | 2000/11/15 | JG |
| | 987/1999/15* | Administrazio isil bidea | 2 | 2000/08/03 | J |
| | 988/1999/23* | Hirigintza diziplina | 2 | 2000/03/16 | JG |
| | 1036/1999/22* | TMIZ kobratzea baja hartu duen automobilari | 1 | 2000/01/27 | J |
| | 2578/1998/15 | Dirulaguntza eskabidea | 1 | 2000/11/14 | JG |
| | 71/1999/23 | Ondare erantzukizunaren eskabidea | 2 | 2000/06/16 | J |
| | 453/1999/15 | Espaloirik ez Ulian | 2 | 2000/11/15 | J |
| | 931/1999/23 | Sustapen publikoko etxebizitzak | 1 | 2000/03/15 | J |
| | 1117/1999/23 | Ondare erantzukizunaren eskabidea | 4 | 2000/11/15 | JG |
| | 1132/1999/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/04/13 | J |
| | 1217/1999/15 | Hirigintza kudeaketa | 1 | 2000/06/06 | J |
| | 1218/1999/23 | Administrazio isilbidea | 3 | 2000/06/16 | J |
| | 100/2000/15 | Hirigintza diziplina | 2 | 2000/11/15 | J |
| | 127/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/05/08 | J |
| | 571/2000/15 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/11/15 | J |
| | 612/2000/23 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/10/06 | J |
| | 612/2000/23 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/12/12 | J |
| | 729/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 2 | 2001/01/08 | JG |
| | 745/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 3 | 2001/01/04 | JG |
| | 746/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 3 | 2001/01/04 | JG |
| | 975/2000/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Elgoibar | 396/1999/22* | Sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/22 | J |
| | 396/1999/22 | Sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/11/15 | JG |
| Orereta | 91/2000/17 | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/05/08 | J |
| | 128/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/03/15 | J |
| | 128/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/10/17 | J |
| | 318/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 4 | 2000/10/09 | J |
| | 385/2000/19 | Minusbaliatu baten ibilgailua kentzea | 1 | 2001/01/02 | JG |
| | 1006/2000/23 | Hirigintza lizentzia | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Hernani | 2153/1998/22 | Zirkulazio zergaren kobrantza, transferituriko ibilgailuaren ondorioz | 1 | 2000/11/16 | JG |
| | 54/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/03/15 | J |
| Hondarribia | 1078/2000/23 | Hiriko bideen mantenimendua | 1 | 2001/01/04 | JG |
| Ibarra | 585/2000/15 | Hirigintza diziplina | 1 | 2000/11/06 | J |
| | 744/2000/23 | Trafikoaren antolamendua | 1 | 2001/01/04 | JG |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Irun | 842/2000/23 | Hirigintza lizentziak | 1 | 2000/10/09 | J |
| Mendaro | 793/2000/23 | Konpentsazio batzaren isilbidea | 1 | 2000/10/09 | J |
| Orio | 31/2000/22 | Pasabidearen likidazioa | 1 | 2000/11/16 | JG |
| | 94/2000/17 | Hiriko lurzoruen sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/09/22 | JG |
| Pasaia | 105/2000/17 | Hiriko lurzoruen sailkaturiko jarduerak | 3 | 2000/09/21 | JG |
| | 1091/1997/17* | Hiriko lurzoruen sailkaturiko jarduerak | 2 | 2000/03/15 | JG |
| | 871/1999/16* | Ur kontsumoaren ondorioz bidalitako ziurtagiriekiko desadostasuna | 1 | 2000/05/16 | JG |
| | 461/2000/17 | Hiriko lurzoruan sailkaturiko jarduerak | 1 | 2000/07/20 | J |
| Tolosa | 723/2000/22 | Uraren ziurtagiria | 1 | 2000/10/05 | J |
| Urnieta | 181/2000/20 | Udal etxebizitzaren alokairua. Ordaintzeko eskakizuna | 1 | 2000/03/21 | J |
| Zegama | 2318/1998/19* | Telebista errepikagailuaren instalazioa | 1 | 2000/01/14 | J |
| Zumaia | 440/2000/22 | Uraren ziurtagiria | 1 | 2000/11/16 | J |

## D) **Beste erakunde publiko batzuk**

| Erakundeak | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaiko Abokatuen Elkargoa | 431/1999/21* | Abokatuen ordainsariaren aurka egitea | 3 | 2000/05/05 | JG |
| | 781/1999/21* | Abokatuen Elkargoaren erantzunik eza | 1 | 2000/04/04 | JG |
| | 810/1999/21* | Abokatuen Elkargoaren erantzunik eza | 1 | 2000/04/11 | JG |
| | 1069/1999/21* | Salaketa baten erantzunik eza | 1 | 2000/04/11 | JG |
| | 397/2000/21 | Diziplina espediente baten ebazpenean egindako atzerapena | 1 | 2000/09/19 | J |
| Mebisa-Bilboko Metroa | 167/1999/22* | Administrazio isilbidea | 1 | 2000/01/26 | JG |
| | 608/2000/23 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2000/10/09 | J |

# V. ATALA

## ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Arartekoak, kexako espedienteak tramitatzen dituenean (ofizioz edo interesatuek eskatuta hasten diren espedienteak), bere iritzipean jarritako administrazio jarduera ez dela zuzena pentsa dezake, bai hiritarren eskubideak urratu direlako, bai antolamendu juridikoan ezarritakoa bete ez delako edo bai kontrolpeko administrazio jarduera hobetu egin daitekeelako, ikuspegi bermatzaile edo eraginkorrago batetik, herri zerbitzu baten helburuak betetzeari dagokionez.

Halako kasuetan, Arartekoak (irregulartasuna egiaztatu ondoren) gomendio bat ematen dio Administrazioari, eta egindako jarduera aldatzeko eskatzen dio. Hala eta guztiz ere, aditzera eman behar da beti ez dela halako gomendiorik behar izaten. Sarri askotan, Arartekoaren idazkia jaso (jardueraren bati buruzko txostena eskatzen duen idazkia) eta bere jarduera legearen araberakoa izan dela egiaztatu ondoren, Administrazioak bere jarduna ez dela zuzena izan onar dezake berehala; halakoetan, hiritarrak berriro eskuratuko du galduriko eskubidea. Arazoak konpontzeko modu honek ez du Arartekoaren berariazko adierazpenik behar (gomendio baten bidez); horrela, irregulartasunen bat eduki duten 251 administrazio jarduera gomendiorik eman barik konpondu dira.

Gomendioak betetzeari dagokionez, aipagarria da 2000ko ekitaldian emandako 50 gomendioetatik, eta 1999ko abenduaren 31n amaitu barik zeuden 50etatik, 39 onartu egin direla, 22 ez direla onartu, 27 oraindik ebazteko daudela, 1 berrikusi egin dela (Administrazioak egindako oharren eraginez), 8 eten egin direla (gaia jurisdikzio egoitzan dagoelako) eta 3 eten egin direla (beste arrazoi batzuengatik).

Ikuspegi kuantitatibotik begiratuta, gomendioen zifra onargarria daukagu, joan den ekitaldikoaren antzekoa (%62); horrenbestez, esan daiteke, halako ebazpenen bidez amaituriko espedienteei dagokienez, ondo konpondutako gaien zifra nahiko handia izan dela. Ondorioak ateratzeko orduan, ezin dugu ahaztu Arartekoaren gomendioak ez direla lotesleak eta, beraz, erakunde honek egindako presioak (gure esku-hartzea eskatu duten hiritarren egoera juridikoak konpontzeko) betetze-maila onargarriak izan dituela, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aldetik. Aurrekoaren kalterik gabe, erakunde honen helburua onarturiko gomendio kopurua handitzea da, eta lan horretan ahalik eta ahalegin handienak egingo dira.

Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak “gomendioak egin edo lege betebeharrak gogoratu ahal izango dizkie erakunde eskudunei, funtzionarioei edo gorako mailakoei, legez kontrako edo bidegabeko egintzak zuzentzeko edota Administrazioaren zerbitzuak hobetzeko”. Orain arteko txosten arruntetan adierazi dugunez, manu hau arau horretako 1. artikuluan aipaturiko helburuekin lotzean (oinarrizko eskubideak defendatzea nahiz sustatzea eta hiritarrak herri administrazioen akatsen ondorioz jasaten dituzten botere gehiegikerietatik babestea), kasuan kasuko herri administrazioak onartzen ez den gomendio bakoitzak erakunde honen eginkizun bermatzailea oztopatzen du, eta, gainera,

legezkotasuna edota hiritarren eskubideak urratzen dira, horien legezko eskubideak gauzatzeari traba eginda.

Orain, aurreko txostenetan egindako gogoeta batzuk egin behar ditugu, herri administrazioen legezko betebeharrak betetzeko gomendioei eta aholkuei buruzkoak, horiek azterketa juridikoen ondoriozkoak baitira. Herri administrazioek arrazoi juridiko zorrotzetan oinarritu behar dute gomendioak ez onartzea; izan ere, bestela, erakundeen arteko harremanen arauak ez ezagutzeaz gain, jarduera horiek arbitrarioak izango lirateke, eta ez lituzkete errespetatuko administrazioaren jardunbidearen oinarrizko printzipioak.

Horri dagokionez, ezin dugu ahaztu Espainiako konstituzioaren 103.1 artikuluan hauxe esaten dela: “Herri Administrazioak zerbitzu objektiboa eman behar die interes orokorrei, eta eraginkortasun, hierarkia, zentralizazio eza, pilaketa eza eta koordinazio printzipioen arabera jardun behar du, Legeak eta zuzenbideak ezarritakoaren arabera”. Diseinu hori azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3.1 artikuluan adierazita dago (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen idazkeran. Arartekoaren eginkizunak, horrenbestez, lotura zuzena dauka administrazioek euren jarduera arautzen duten printzipio horiek bete behar izaterekin, hain zuzen ere, antolamendu juridikoa bete beharra adierazten duen printzipioarekin.

Aurreko gogoeta horiek azpimarratu egiten dute erakunde honek herri administrazioei zuzendutako ebazpenak behar bezala arrazoitu behar izateari ematen dion garrantzia, batez ere, erabakiren bat edo esku-hartze irizpideak aldatzeko eskatzen denean. Gaitasun hertsagarririk ez edukitzearen eraginez, ahalegin dialektiko handiagoak egiten ditugu, azterketa sakonagoak egiten ditugu, desadostasun juridikoak kontrastatzen ditugu eta gure arrazoibideak azpimarratzen ditugu, gure gomendioak eta oharrak betetzeko orduan zentzurik gabeko zalantzak ikusten ditugunean. Hau da, esku-hartze aukera guztiak agortzeko ahalegina egiten dugu, egiaztatu diren egoera irregularrak konpontzeko eta legez aurkakoak edo bidegabeak diren praktikak aldatzeko.

Arartekoak administrazio jardueraren bat aldatzeko gomendatzen duenean, Administrazioa batzuetan ez dago ados Arartekoak emandako gomendioaren interpretazioarekin, eta, halakoetan, azaldu egiten ditu desadostasun horren zergatiak. Halako kasuetan administrazioaren desadostasun juridikoa egoten da, erakunde honek onartzen ez duen desadostasuna; Arartekoak berriro ere bere gomendioa eman eta, urtero txostenean, Administrazioak onartu ez izana jasoarazten du, ez-onartze hori desadostasun juridiko baten ondorioa dela agerrarazita.

Gomendioek edo oharrek erantzunik jasotzen ez dutenean sortzen den egoera bestelakoa da; hau da, batzuetan kasuan kasuko administrazioak ez du informaziorik ematen ebazpena betetzeko har daitezkeen erabakiei buruz, eta horren edukia ez onartzeko dituen arrazoiak ere ez ditu azaltzen. Horri dagokionez, aipagarria da, horretarako eskabideak egin zaizkien arren, ondoko erakundeok ez dutela erantzunik eman: Basauriko nahiz Pasaiako udalak eta Osmako Administrazio Batzordea (215/1999/22, 2496/1998/17 eta 1667/1998/15 kexa-espedienteetan emandako gomendioei dagokienez, hurrenez hurren). Jarduera horren eraginez, gomendioak ez onartutzat kalifikatu dira.

Gomendioa izan duten espedienteak amaitzeko onargarria ez den beste modu bat, gure ustez, hori ez onartzea da, baina kasuan kasuko administrazioak ezezko erantzun hori oinarritzeko arrazoirik azaldu barik.

Gure iritziz, halako jarduera moduek (erantzunik eza edo arrazoitu gabeko ezetza) hautsi egiten dute Eusko Legebiltzarreko ordezkari baten eginkizunen onarpena; organo horrek herriaren subiranotasuna ordezkatzen du. Gainera, errespetu falta nabaria da, Zuzenbide Estatuak arazoak konpontzeko eskaintzen dizkien mekanismoak erabiliz erakunde bermatzaile honetara etorri diren hiritarrekiko; izan ere, bertora etortzen dira euren eskubideak onartuak izateko eta antolamendu juridikoa betetzeko.

Orokorra izan arren nahitaez aipatu beharreko elementu bat dago, hain zuzen ere, administrazio batzuek izaten duten jarrera; egin-eginean ere, jasotako gomendioen edukia onartzeko asmoa dutela esan ondoren, ez dituzte beharrezko erabakiak hartu, gure gomendioan jasotako gaia konpondu ahal izateko, horretarako eskabidea egin zaien arren. Hau da, gomendioa teorian onartu arren, praktikan ez dute onartu. Jarrera horixe ikusi da Eusko Jaurlaritzako Barne Sailean eta Donostiako Udalan, honako kexa espediente hauetan emandako gomendioen ondoriozko jarduerei dagokienez: 404/1998/19 nahiz 2628/1998/19 eta 1972/1997/19, hurrenez hurren. Izan ere, horiek onartutzat agertzen diren 1999ko txosten arruntean.

Ondoren, 2000. urtean emandako gomendioen egoera aipatuko dugu, baita 1999ko abenduaren 31n oraindik ebatzi barik zeuden gomendioena ere. Aipamen hau, bestalde, bost kategoriatan bildutako gomendioen azaleko deskribapenarekin gauzatzen da: 1) administrazioak onartu dituenak; 2) administrazioak onartu ez dituenak; 3) 2000ko abenduaren 31n Administrazioaren behin betiko erantzunik jaso ez dutenak; 4) Administrazioak emandako arrazoiak kontuan izatearen ondorioz berrikusi egin direnak; 5) gaia jurisprudentziako egoitzara eramatearen eraginez eten egin direnak; eta 6) beste arrazoiren baten ondorioz etendakoak.

# 1. ONARTURIKO GOMENDIOAK

## A) EUSKO LEGEBILTZARRA

### - Herri Kontuen Euskal Epaitegia

*** 872/2000/20 espedientea (41/2000 gomendioa).** Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, bertako lanpostuen zerrendaren barruko postuen oraingo egitura berrikusi ahal izateko, baita uztailaren 28 33/00 Ebazpenaren bidez abokatu, informatika laguntzaile eta gidari postuak hornitzeko ere (abuztuaren 11ko 154. zenbakidun EHAA), lanpostu horretarako eskatzen den urtebeteko edo biko esperientziaren baldintza ezabatzeko edo ondore barik uzteko, abokatu eta informatika laguntzaile edo gidari lanposturako izatearen arabera.

*** 872/2000/20 espedientea (42/2000 gomendioa).** Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, uztailaren 28ko 33/00 Ebazpenaren bidez argitaraturiko oinarri bereziak berrikusteko, besteak beste abokatu lanpostua hornitzeko (abuztuaren 11ko 154. zenbakidun EHAA), lehiaketaren fasean eskainitako lanpostuari loturik emandako zerbitzuak baloratzeko, zerbitzu horiek edozein administrazio edo herri erakundetan eman badira ere.

*** 872/2000/20 espedientea (43/2000 gomendioa).** Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, uztailaren 28ko 33/00 Ebazpenaren bidez argitaraturiko oinarri bereziak berrikusteko, besteak beste informatika laguntzaile lanpostua hornitzeko (abuztuaren 11ko 154. zenbakidun EHAA), lehiaketaren fasean eskainitako lanpostuari loturik emandako zerbitzuak baloratzeko, zerbitzu horiek edozein administrazio edo herri erakundetan eman badira ere.

*** 872/2000/20 espedientea (44/2000 gomendioa).** Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, uztailaren 28ko 33/00 Ebazpenaren bidez argitaraturiko oinarri bereziak berrikusteko, besteak beste gidari lanpostua hornitzeko (abuztuaren 11ko 154. zenbakidun EHAA), lehiaketaren fasean eskainitako lanpostuari loturik emandako zerbitzuak baloratzeko, zerbitzu horiek edozein administrazio edo herri erakundetan eman badira ere.

## B) EUSKO JAURLARITZA

### - Kultura Saila

#### EITB

*** 66/1996/21OF espedientea (113/1998 gomendioa).** EITBri gomendio hauxe egin zitzaion: gizarte eta politika talde nagusiak, baita halako garrantzi handirik ez dutenak ere, komunikazioko baliabide publikoak erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko, maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 21. artikuluan ezarritakoa aplikatuz (Euskal Irrati Telebistaren Erakunde Publikoa sortzeari buruzko artikulua), bertako

Administrazio Batzordeak ondoko neurriok sustatzeko behar diren erabaki guztiak hartzea: a) 1998an euren aukera eta planteamendu ideologikoak azaltzeko EITBren programazioa eskuratu duten gizarte taldeei buruzko azterketa sakona egitea, horretarako izan duten modua, saioak eta denbora aztertuz, euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko legea bete den ala ez ikusteko; b) Antena eskubideak etorkizunean izango duen garapenari buruzko plan zehatza egitea, hori gauzatzeko bide guztiak zehaztuz (aldian behingo emisioko saioak, iragarkien zabalkundea, taldeetako ordezkariak iritzi-saioetan, eztabaidetan eta albistegietan parte hartzea) eta irizpide objektiboak ezarriz, bai taldeen ordezkaritza nahiz garrantzia zehazteko, bai saio eskuragarriak euren artean banatzeko; eta c) gizarte taldeek albistegietan garatzen duten jarduerari buruzko informaziorako denbora aldian behin kontrolatzea, baita informazio, kultur edo eztabaida saioetan gonbidaturiko edo elkarrizketaturiko pertsonen zerrenda kontrolatzea ere, eta, sortzen badira, aukera ideologikoak zabaltzeko sorturiko programetan agertzen direnak ere bai (halako programarik sortuz gero). Informazio hori legez ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko zaio Erakunde hori kontrolatzen duen Eusko Jaurlaritzako batzordeari. Gaia hobeto aztertzeko, Kultura eta Elebitasun arloko kexen laburpenak ikusiko ditugu.

**- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

*** 785/1999/25 espedientea (87/1999 gomendioa).** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari, Beasaingo (Gipuzkoa) “Murumendi” ikastetxe publikoko eraikinetan esku hartzeko egutegia egiteko eskatu zitzaion, aurkituriko akatsak konpontzeko eta bertako instalazioak 1.004/1991 Errege Dekretura nahiz gainerako arautegi aplikagarrietara egokitzeko. Hain zuzen ere, presa handikoa da jantokiko zerbitzua osasun baldintzak betetzeko moduan egotea.

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

*** 336/2000/20 espedientea (23/2000 gomendioa).** Euskal Herriko Unibertsitateari, beharrezko neurriak jartzeko gomendioa egin zitzaion, ondoko masterrerako aurkezturiko titulatu ertainen eskabideak ez onartzeari buruz harturiko erabakia berrikusi ahal izateko: Goi Mailako Teknikaria Enpresa Prebentzioko Zerbitzuetarako (Prebentzioko Medikuntza eta Legezko Medikuntza); horrela, ezarritako aukeraketa irizpideak aplikatu ondoren, merezimendurik handienak dituen hautagaia aukeratu eta onartu ahal izateko.

**- Herrizaingo Saila**

*** 924/1998/21 (103/1999 gomendioa).** Arartekoak Herrizaingo Sailari berretsi egin zion Ertzaintza agenteei agindu zehatzak eman behar izatea, Instrukzio Epaitegiak faltatzat kalifikaturiko gertaeren ondoriozko atxiloketarik ez egiteko. Nolanahi ere, atxiloketaren bat dagoenean, zorrotz bete beharko da 520.1 LECr agindua; horren bidez, askatasun gabetze horrek ezin izango du iraun gertaerak argitzeko informazioa lortzeko behar den denbora baino gehiago. Argiketa egiten duen agenteak, horretarako, atxiloturiko pertsonari lagunduko dion abokatuari deitu beharko dio hasiera-hasieratik, abokatu horrek ofizioz edo pertsona horrek izendaturik jarduten duen kontuan hartu

barik. Polizi elkargoaren beraren ibilerari egozteko moduko atzerapenek ez dute inondik inora ere justifikatuko atxiloturiko pertsonari askatasuna beranduago ematea.

*** 1974/1998/21 espedientea (81/1999 gomendioa).** Herrizaingo Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: atxiloturiko pertsonen eskubideak urratzen dituen polizi jokabiderik ez egotea bermatzeko prebentzio neurriak ezartzeko, kontrol sistema bat aztertu eta ezarri beharko lukeela; horretarako, ziegetako korridoreetan dauden kamerek egindako grabazioetan oinarrituko dira, horiek martxan egongo baitira atxilotuak bertan egon arte. Grabazio horiek gutxienezko eraginkortasun baldintzak beteko dituzte, eta baldintzok honako hauek dira: 1) grabazioak agindu eta berrikusten duten pertsonen arteko independentzia; 2) grabatu beharreko atxiloketen hautapen konfidentziala, agenteek horren berririk ez dutela bermatuz; 3) egindako grabazioak behar besteko denboran gordetzea; eta 4) kontrol sistemaren garapenari buruzko oinarrizko datuak erregistratzea.

*** 32/1999/21OF espedientea (102/1999 gomendioa).** Herrizaingo Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: botere publiko guztiek pertsona guztien arteko berdintasuna eragozten duten oztopo guztiak gainditzeko duten betebeharra betez, Ertzaintzak beharrezko neurriak hartuko ditu emakumeek Hondarribiako Alardean parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, gizonezko auzotarren aukera berdintasunean parte hartu ere. Horretarako, eskubide horren errebindikazioak etorkizunean ere biztanleriaren gehiengoaren haserrea eragiten badu eta, beraz, poliziaren esku-hartzea beharrezkoa izanez gero, Ertzaintzak aipaturiko eskubidearen erabilera bateratu egin beharko du pertsonen segurtasunaren babesarekin. Agenteen jardueraren irizpidea aurretiaz ezartzeko asmorik gabe, bistan da irizpide hori ez dela jarrera baten edo bestearen jarraitzaile kopuruaren araberakoa izango, planteamendu guztien legezkotasunaren araberakoa baizik. Halaber, ez da ahaztu behar ordena publikoa eskubideak erabiltzeko baldintzak ahalbidetzeko baliabidea dela; beraz, eskubideok ezin dira ezabatu, ordena publikoa mantentzeko aitzakiarekin. Aldiz, neurri egokiak, neurritsuak eta eraginkorrak hartu beharko dira (pertsonen segurtasunaren babesa ahaztu barik), Hondarribiako edo halako arazoa duen beste edozein herritako jai giroko adierazpen nagusian berdintasunezko partaidetza bermatzeko.

**- Nekazaritza eta Arrantza Saila**

**"Getariako Txakolina" Jatorri Izendapena Arautzen duen Batzordea**

*** 621/1999/19 espedientea (4/2000 gomendioa).** "Getariako Txakolina" Jatorri Izendapena Arautzen duen Batzordeari gomendio hauxe egin zitzaion: kasuan kasuko administrazio prozedura tramitatu ondoren, soto bat erregistro egokian sartzeko baimena ukatu zuen erabakia gaitzesteko, bertan erabilitako arrazoietariko batzuek ez baitute lekurik antolamendu juridikoaren xedapenetan. Era berean, Batzorde Arautzailearen Osoko Bilkurak beste erabaki bat eman beharko du, bideraturiko eskabideari buruz; bertan, kontuan hartuko da soto bat erregistro egokian inskribatzeko baldintzak "Getariako Txakolina" Jatorri Izendapenari buruzko Arautegiko 17.1, 18.1 eta 19. artikuluetan ezarritakoak direla (Nekazaritzako Sailburuak 1989ko irailaren 21ean emandako Aginduaren bidez onetsita; urriaren 25eko 201 EHAA); erabaki hori, gainera, arrazoitua izan behar da, eta zuzenbideko gertaerak eta oinarriak aipatu behar dira.

Azkenik, erabaki hori azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinarazi beharko da (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea), jartzeko moduko administrazio errekurtso guztiak adieraziz.

**- Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Saila**

*** 474/1999/23 espedientea (95/1999 gomendioa).** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari, Gipuzkoako lurralde ordezkariak emandako ebazpenak ezeztatzeko gomendatu zitzaion; ebazpen horien bitartez, birgaikuntzarako emandako dirulaguntzak ezeztatu ziren; izan ere, espedientean adierazitakoaren arabera, obrak etetearen ondorioz (ezeztapenaren arrazoia) behar bezala justifikatu da, eta, horrenbestez, lanen amaieran egon den atzerapena ez da laguntzen onuradunei leporatzeko modukoa. Gero, obren amaiera egiaztatu barik igarotako denbora kontuan hartuz, laguntzak itzultzeko beste espediente bat emateko eskatu zitzaion; bertan, sail horrek emandako laguntzen zenbatekoa itzultzeko eska dezake, gauzatu gabeko aurrekontuari dagokion zatian.

*** 842/1999/23 espedientea (83/1999 gomendioa).** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: babes ofizialeko etxebizitzen eskualdaketetan erosteko lehentasun eskubidea erabiltzean, bere ebazpenen berri emateko, etxebizitzaren eskualdaketa erabaki zutenei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeko 59. artikuluan adierazitako tramiteen arabera. Horrela, interesatua etxean aurkitzen ez denean, jakinarazpena Udalko ediktu oholean eta Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita egingo da; izan ere, legezkotasunaren ikuspegitik, Antolaketaren Arautegiko eta Notaritzaren Araubideko 202. eta ondorengo artikuluak betetzea ez da nahikoa.

## C) FORU ADMINISTRAZIOA

**- Arabako Foru Aldundia**

*** 467/1999/20 espedientea (86/1999 gomendioa).** Kultura eta Euskara Sailari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, kexaren sustatzaileak jasotako zenbatekoak itzultzeko; zenbateko horiek 1998an emandako dirulaguntzen testuingurukoak dira, eta euren helburua eszena arteen eta musikaren modalitateetan ikerketak eta hobekuntzak egitea da. Halaber, Foru Aginduaren ordezko ebazpena emateko gomendatu zitzaion; bertan, arrazoiak erabiliz, interesatuak aurkezturiko erreklamazio idazkian egindako alegazio guztiak aztertuko ziren.

*** 664/2000/19 espedientea (26/2000 gomendioa).** Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, premiamendu espediente bat ondorerik gabe uzteko gomendioa eman zitzaion; espediente hori jarritako zehapen bat derrigorrezko betearazpenaren bidetik kobratzeari buruzkoa da; zehapena, berriz, trafikoko arauak urratzearen ondoriozkoa da; izan ere, urtebeteko epea igaro zen, zehapen erabakiaren administrazio irmotasunaren eta premiamenduko probidentziaren jakinarazpenaren artean.

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

*** 566/1999/15 espedientea (96/1999 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, zehapen espedientea hasteko gomendioa eman zitzaion, ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan jasotako aurreikuspenak urratzearen ondorioz; arau hori abenduaren 20ko 101/1994 Foru Dekretuak garatu zuen. Egin-eginean ere, ez zen errespetatu eukalitu landaketa baten eta larre baten arteko distantzia egokia. Halaber, zehapen espediente horretako inputatuari diru-zehapena kentzeko gomendioa ere eman zitzaion; izan ere, horren jardueraren jatorria Foru Sailak berak zehazturiko parametroetan dago, parametro horiek foru arau horietan jasotako aurreikuspenen aurkakoak baitira.

*** 638/1999/19 espedientea (27/2000 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari, premiamendu prozedura batean buruturiko jarduerak ondorerik gabe uzteko gomendioa eman zitzaion; premiamendu horretan ez zen probidentzia egokia eman edo jakinarazi; gainera, zehapen ekonomikoa iraungita zegoen (lurreko garraioak arautzen dituen arautegia urratzearen ondorioz ezarritako zehapena). Sail honek Arartekoari bidalitako erantzunetan ikusten denez, ez zuen gomendioa onartzeko asmorik; beraz, zenbatekoak itzultzeko eskatu zuen, Herrilan eta Garraio Foru Saileko diputatuak erabakitakoaren arabera.

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

*** 242/1999/18 espedientea (9/2000 gomendioa).** Gipuzkoako Foru Aldundiko IZFE S.A. enpresari (Informatika Zerbitzuen Foru Sozietatea) beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, gatazkarik egonez gero erretzaileen eremuetatik kanpo erretzaileak ez diren pertsonen osasun eskubidea nagusiarazteko, erretzaileek erretzeko duten eskubideari dagokionez, kontuan hartuz ekainaren 25eko 18/1998 Legeko 23.3 e) artikuluaren ezarritakoa erakunde horri aplikatu ahal zaiola.

## D) TOKI ADMINISTRAZIOA

### a) *Arabako udalak*

**Gasteizko Udala**

*** 278/1998/23 espedientea (105/1999 gomendioa).** Vitoria/Gasteizeko Udalari bi ibilgailu kentzearen eraginezko tasen ondorioz ordaindutako zenbatekoa itzultzeko gomendioa eman zitzaion, hori jabearen entzunaldirik gabe eta antolamendu juridikoan ezarritako epea igaro gabe egin baitzen.

*** 4/1999/20OF espedientea (80/1999 gomendioa).** Vitoria/Gasteizeko Udalari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, matrikula eskabideak kudeatzeko gerora eman daitezkeen arauetan (haur eskoletan) tratamendu baztertzailea eta berezia ezabatzeko, euren gurasoak edo tutoreak Hezkuntzako udal saileko langileak direnean egiten dituzten eskabideei dagokienez.

*** 848/2000/19 espedientea (45/2000 gomendioa).** Vitoria/Gasteizeko Udalari kexako erreklamaziogileek duten eskubidea onartzeko gomendioa eskatu zitzaion,

ibilgailua kentzearen ondoriozko tasan ordaindutako zenbatekotik sor daitezkeen interesei dagokienez, itzulketa egin zenetik, udal agintariek zerga horren likidazioa lekuz kanpokoa izan zela onartu ondoren. Zenbateko horri interesak gehitu beharko zaizkio, hau da, zenbateko nagusia itzuli zuenetik guztizko itzulketa egin zenera arteko interesak.

**Barrundiako Udala**

*** 242/2000/15 espedientea (18/2000 gomendioa).** Barrundiako Udalari itxierako horma jartzeko edo sustatzaileari kalte-ordaina (eraitsitako hormaren balioaren araberako kalte-ordaina) ordaintzeko gomendioa eman zitzaion, Udalak jabearen baimenik gabe eraitsi baitzuen.

*b)* ***Bizkaiko udalak***

**Bilboko Udala**

*** 1885/1997/15 espedientea (44/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: kasuaren ezaugarriak kontuan hartuz, jabe elkarte bati ezarritako zehapena kentzeko. Jabetza Horizontalari buruzko Legearen 10-2. artikuluan ezarritakoaren arabera (8/1999 Legeak sarturiko idazkera berria) eta Eraikuntzak Kontserbatzeko Betebeharrari eta Aurri Egoerari buruzko Udal Ordenantzako 13-3. artikuluan ezarritakoaren arabera (zehapenaren zenbatekoa obren aurrekontuaren %1-5 bitartean murriztea ezartzen duen ordenantza), Bilbo Udalari zehapen murrizketa hori aplikatzeko eskatu zitzaion, eta obren aurrekontuaren %1 finkatu zen. Halaber, isunaren zati bat barkatzeko ere eskatu zitzaion, obren betearazketa subsidiariorako kuotak ordaindu zituzten jabeei zegokienez, kontserbazioko lege eskubidea betetzea egiaztatu baitzuten. Era berean, kuota horiek euren gogoz (betearazpen biderik erabili gabe) eta epe laburrean ordaintzen zituzten jabeei ere barkatzeko eskatu zitzaion Udalari.

*** 2096/1998/23 eta 2484/1998/23 espedienteak (68/1999 eta 69/1999 gomendioak).** Bilboko Udalari berariazko ebazpena emateko gomendioa eman zitzaion, ondare erantzukizunaren ondoriozko erreklamazioei erantzuteko; kasuan kasuko erabakietan, alegaturiko kalteek herri zerbitzuaren ibilerarekiko kausalitate loturarik duten ala ez baloratu beharko da, Konstituzioko 106.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, Derrigorrezko Desjabetzapenari buruzko Legearen 123. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko 13/95 Legearen 98.3 artikuluan ezarritakoa aztertuta, zehaztu egin beharko du zein organok duen erantzukizuna, kalte-ordainaren zenbatekoa eta, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia betez, Udalaren beraren erantzukizuna, kaltetuak ordaina jasoko duela bermatzeko. Azkenik, ondare erantzukizuneko ondorengo espedienteetan (Administrazioko kontratisten edo emakidagileen esku-hartzeen ondoriozko kalteen eraginez tramita daitezkeenak) kontuan hartu beharko dira gomendio hauek euskarritzen dituzten oharrak.

*** 377/1999/19 espedientea (31/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari trafikoko arauak urratzearen ondoriozko ebazpena ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion, zehapen hori ezartzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzako eta Parke Mugikorreko arduradunek baitute; izan ere, zehapena hiriartekotzat kalifikatzeko moduko

bide batean egin da, edo hiriko bideen ezaugarri berezirik gabeko zeharbidetzat kalifikaturiko alde batean.

*** 443/1999/19 espedientea (54/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari Hiriko Garbiketarako Udal Ordenantzan ezarritakoa urratzearen ondoriozko zehapena ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion, zaborrak biltzeko ordutegiari dagokionez; izan ere, hori leporatzeko elementu bakarra poltsa batean horren edukia eta zehapen espedientea jaso duen pertsona lotzen dituzten agiriak aurkitu izana da. Era berean, ezarritako isuna kobratzeko jarraituriko premiamendu prozedura ondore barik uzteko gomendioa eman zitzaion, zehapenak preskribiturik baitzeuden.

*** 793/1999/15 espedientea (76/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: lur jakinaren jabetzat, berori berehala garbitzeko eta segurtasun, osasungarritasun eta apaindura egoera onean edukitzeko, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legeko 19. artikuluan ezarritakoaren arabera..

### Arteako Udala

*** 874/1999/23 espedientea (77/1999 gomendioa).** Arteako Udalari hirigintza diziplinako espedientea hasteko gomendioa eman zitzaion, emandako obra lizentziaren ez-betetzerik egon bazen erabakitzeko (baimenean ezarrita ez zeuden lan batzuk egin baitziren); halaber, espediente horren tramitazioan eraikinaren jabeari eta beste auzoko bati entzunaldia emateko gomendioa ere eman zitzaion, biak baitira interesatuak.

### Bermeoko Udala

*** 707/1997/15 espedientea (58/1998 gomendioa)**. Bermeoko Udalari Hirigintza Ordenantzaren 4.2.3.6. a) artikulua indargabetzeko gomendioa eman zitzaion, Bermeoko Arau Subsidiarioetako alde batzuk aldatzeko espedientea tramitatuz; izan ere, xedapen horrek ez dauka loturarik edota adostasunik Bermeoko lurzoru urbanizaezinean dauden eraikinen errealitatearekin; hori, berriz, aipaturiko hirigintza arautegiaren oinarria izan behar da. gainera, aukeraturiko hirigintza tresna (Hirigintza Ordenantzaren atal orokorra) ez da egokia. Halako erabaki baterako, beharrezkoa izan beharko da agiri xehatua eta zehatza egitea, adibidez, Lurzoruari buruzko 1976ko legeko Testu Bateginaren 25. artikuluan ezarritako katalogoak.

### Galdakaoko Udala

*** 731/1999/23 espedientea (64/1999 gomendioa).** Galdakaoko Udalari Alkatetzako ebazpen bat ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; ebazpen horren bidez, ondare erantzukizuneko erreklamazio bat ez zen onartuko; izan ere, Udal horrek hiriko bideen mantenamenduaren zerbitzu publikoaren ibileraren ondoriozko kalteen erantzukizuna dauka, eta galtzadaren edo espaloiaren trazatuan egon daitekeen edozein aldaketa jakinaraztearen erantzukizuna ere bai. Gero, beste ebazpen bat eman beharko da, administrazio espediente egokia hasi ondoren, erreklamaziogileari sorturiko kalteen ondoriozko ondare erantzukizuna onartuz.

**Portugaleteko Udala**

*** 337/1999/19 espedientea (6/2000 gomendioa).** Portugaleko Udalari ibilgailua ibilgetzearen ondorioz horren jabeak ordaindutako tasaren zenbatekoa itzultzeko gomendioa eman zitzaion; izan ere, antolamendu juridikoaren xedapenek ez dute halako kautelazko neurririk babesten, udaltzainen aldetik.

*** 331/2000/23 espedientea (17/2000 gomendioa).** Portugaleteko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: administrazio espedientea hasi baino lehen, berariazko ebazpena emateko, ondare erantzukizunaren ondoriozko administrazio erreklamazio bati dagokionez.

**Sopelako Udala**

*** 751/2000/17 espedientea (34/2000 gomendioa).** Sopelako Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: otsailaren 27ko 3/98 Legeko 55. eta ondorengo artikuluetan (Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra) sailkaturiko jarduera baten ibilera baimentzeko administrazio prozeduraren arabera, txokoaren jarduera amaitzeko dekretua emateko, harik eta irekitzeko manuzko lizentzia lortu arte.

c) ***Gipuzkoako udalak***

**Donostiako Udala**

*** 377/2000/21 espedientea (24/2000 gomendioa).** Donostiako Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: atxiloketen kasuan, goitik beherako biluzte eta guztizko gorputz-miaketak ezin direla ohikoak eta sistematikoak izan; neurri hori, berriz, atxiloturiko pertsonaren ezaugarri bereziak, egotzitako delituaren ezaugarriak edo atxiloketaren dinamika kontuan hartuz beharrezkoa denean baino ez da aplikatuko, zentzuzkotasun eta neurritasun irizpideen arabera. Nolanahi ere, neurri hori hartzen duenak erabaki hori idatziz jaso beharko du, horren zergatiak azalduz, neurriaren egokitasunari buruzko kontrola egin ahal izateko.

**Itsasondoko Udala**

*** 953/1999/17 espedientea (14/2000 gomendioa).** Itsasondoko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: etxebizitzaren behealdeko lantegi jarduera ezkutuan egiten zela egiaztatu ondoren, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 65. artikuluan ezarritakoaren arabera jarduteko (Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra). Bertan adierazitakoaren arabera, "*Bidezko zehapenen kalterik gabe, jardueraren bat bidezko lizentziarik gabe dabilela sumatuz gero, alkateak ondoko jarduerak egingo ditu: a) Jarduera legeztatzeko modukoa bada, titularrari bere egoera erregularizatzeko eskatuko dio; horretarako, epe egokia emango dio eta hori, behar bezala justifikaturiko kasuetan izan ezik, ez da sei hilabetetik gorakoa izango; gainera, jarduera itxi egin ahal izango du, egoerak horretara behartuz gero, interesatuaren entzunaldiaren ostean; b) Jarduera legeztatzeko modukoa ez bada (indarreko arautegi sektoriala edo kasuan kasuko udal ordenantzak ez betetzearen eraginez) itxi egin beharko da, interesatuaren entzunaldiaren ostean*".

**Pasaiako Udala**

*** 475/1999/22 espedientea (58/1999 gomendioa).** Pasaiako Udalari ostalaritzako lokal baten titularrari hauxe eskatzeko gomendioa eman zitzaion: bi hilabeteko gehieneko epe luzaezinaren barruan garaturiko jardueraren egokitzapen proiektua aurkeztea, hain zuzen ere, jarduera ekinaren 11ko 171/1985 Dekretuko 1. kapituluko 1. atalean ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitzen dela frogatzen duen proiektua aurkezteko (dekretu horren bidez, arau tekniko orokorrak onesten dira, egoitzako hiri lurzoruko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko moduko arauak); halaber, jakitera eman beharko dio, halakorik egin ezean, zehapen espedientea hasi eta tramitatuko dela, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 109.d) artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik (Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra).

*** 475/1999/22 espedientea (59/1999 gomendioa).** Pasaiako Udalari ostalaritzako lokal batean instalaturiko musika ekipoa kentzeko gomendioa eman zitzaion, elementu hori ez baitzegoen titularrari emandako baimenaren barruan. Neurri hori, berriz, horren instalazioa erregularizatu arte eta udaleko zerbitzu teknikoek lokalean instalatu beharreko neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatu arte mantenduko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak horretarako eman beharreko kalifikazio txostenaren eta hartu beharreko neurri zuzentzaileen arabera.

**Ordiziako Udala**

*** 1198/1999/17 espedientea (12/2000 gomendioa).** Ordiziako Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: ostalaritzako lokalen ibilerari dagokionez, zaratek auzokoei eragiten dizkieten ondorio kaltegarriak handitzeko moduko egoerarik ez baimentzeko; hiritarren osasunaren babesa eta ingurumen egokiaren kontserbazioa, izan ere, Konstituzioaren 43. eta 45. artikuluetan jasotako eskubideak dira.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

**- Euskal Herriko Unibertsitatea**

*** 194/1999/20 espedientea (85/1999 gomendioa).** Euskal Herriko Unibertsitateari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, Bilboko Injinerutza Teknikoan eta Telekomunikazioetan 1. nahiz 4. deialdietan jarraituriko ebaluazio prozedura egokitzeko, Ikasleen Ebaluazioari eta Irakaskuntza Plangintzari buruzko indarreko Arautegira; hori Gobernu Batzordeak onetsi zuen 1993ko uztailaren 20ko bilkuran, eta 1997ko martxoaren 13ko bilkuran aldatu zuen.

**- Osasun Saila**

*** 1238/1999/18 espedientea (5/2000 gomendioa).** Osasun Sailari ezezpen erabaki bat berrikusteko gomendioa eman zitzaion, Palentziako Ospitale Nagusitik Gipuzkoako Ospitalera egindako osasun garraioa ordaintzeari buruz, garraio horren ezaugarriak kontuan hartuz.

**- Osakidetza**

*** 396/2000/18 espedientea (15/2000 gomendioa).** Osakidetzari langile publiko bati ezarritako diziplina zehapen bat eteteko gomendioa eman zitzaion, harik eta egintzak administrazio irmotasuna izan arte.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

*** 344/2000/20 espedientea (16/2000 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, funtzionario bati ezarritako kaleratze zehapena berrikusi ahal izateko; halaber, diziplina espedientea hastea eragin zuten gertaerak berriro kalifikatzeko ere eskatu zitzaion; akats larritzat kalifikatu beharko lirateke; bestela, IFASek egindako behin-behineko kalifikazioari eutsiz gero, oso larritzat kalifikatu eta modu proportzionatuagoan zehatu beharko dira, halako zehapen handirik ezarri gabe.

**- Gipuzkoako Foru Aldundia**

*** 2368/1998/15 espedientea (82/1999 gomendioa).** Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide sailari ura kanporatzeko instalazioa CN-634ra egokitzeko gomendioa eman zitzaion, 1. eta 2. kilometro puntuen artean egokitu ere, lokal jakinaren parean, urak Errotalde kalera ez isurtzeko eta kale horretako lonjetan uholderik ez egoteko.

## C) TOKI ADMINISTRAZIOA

### a) *Bizkaiko udalak*

**Bilboko Udala**

*** 66/1998/23 espedientea (61/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari alkateordeak emandako ebazpena ezezteko gomendioa eman zitzaion (Obra eta Zerbitzu Saileko ordezkaria); ebazpen horren bidez, ondare erantzukizunari buruzko erreklamazio bat ez zen aintzat hartu; erreklamazio hori, berriz, ibilgailu batek Deustuko zubiko galtzadaren egoera txarraren ondorioz jasandako kalteei buruzkoa da; izan ere, instrukzio organoak ez zituen oinarrizko probak egin, erreklamaziogileak alegaturiko gertaeren egiatasuna egiaztatzeko. Halaber, espedientea ebazpen proposamenaren aurreko fasera eramateko gomendioa ere eman zitzaion, eta aipaturiko proba guztiak egiteko ere bai. Gero, beste ebazpen bat eman eta, bertan, alegaturiko gertaeren egiatasuna frogatuz gero, Bilboko Udalaren ondare erantzukizuna onartuko da; beraz, erreklamaziogileari jasandako kalteen ordaina emango zaio.

*** 525/1999/23 espedientea (63/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari alkateordeak emandako ebazpena ezezteko gomendioa eman zitzaion (Obra eta Zerbitzu Saileko ordezkaria); ebazpen horren bidez, erantzukizunaren ondoriozko erreklamazioa ezeztea erabaki zen; izan ere, Udal honek hiriko bideen mantenamenduaren zerbitzu publikoaren ibilerak eragindako kalteen erantzukizuna zuen, baita udalerriko bideak eta errepideak egoera onean mantentzeko erantzukizuna ere. Halaber, beste ebazpen bat emateko esan zitzaion, administrazio espediente egokia hasi ondoren; bertan, udalak erreklamaziogileari sorturiko kalteen ondare erantzukizuna onartzeko eskatzen zen, neurri eta zenbateko egokian.

*** 606/1999/19 espedientea (20/2000 gomendioa).** Bilboko Udalari urratze baten ondoriozko ezarritako zehapena ezezteko gomendioa eman zitzaion: Hiriko Garbiketari buruzko Udal Ordenantzetako xedapenak urratu ziren (zaborrak uzteko ordutegia arautzen zuten ordenantzak); izan ere, hori leporatzeko elementu bakarra poltsa batean horren edukia eta zehapen espedientea jaso duen pertsona lotzen dituzten agiriak aurkitu izana da. Era berean, ezarritako isuna kobratzeko jarraituriko premiamendu prozedura ondore barik uzteko gomendioa eman zitzaion, zehapenak preskribiturik baitzeuden.

*** 817/1999/22 espedientea (104/1999 gomendioa).** Bilboko Udalari instalazio lizentzia bat ofizioz ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; instalazio hori jolas-kafetegi-jatetxe areto baten jarduerari buruzkoa zen. Izan ere, lizentzia hori ematean ez zen bete jardueren arteko gutxieneko distantziei buruzko baldintza, Ostalaritzako Lokalak Arautzen dituen Ordenantzaren 8.1.a) artikuluak eskatzen duena. Arau horretan ezarritakoaren arabera, Ordenantzaren menpeko edozein lokalen gutxieneko distantzia 20 metrokoa izango da, modu linealean neurtuta, I. eta II. taldeko lokalen artean.

*** 406/2000/19 espedientea (29/2000 gomendioa).** Bilboko Udalari interesatuak ibilgailua berreskuratzeko ordaindutako tasen zenbatekoa itzultzeko gomendioa eman zitzaion (ibilgailua bide publikotik eraman zuten); era berean, horri

zirkulazio seinale bertikalean adierazitakoa ez betetzeagatik ezarritako zehazpena ezeztatzeko gomendioa ere eman zitzaion; seinale horretan adierazitakoaren arabera, debekaturik zegoen ibilgailuak San Mames futbol-zelaiaren ondoko kale batean aparkatzea; izan ere, seinalearen informazio panelean ezarritakoaren arabera, debeku hori partidu egunetarako baino ez zen, eta ez zen adierazten partidu hori zein egunetan izango zen.

*** 406/2000/18 espedientea (30/2000 gomendioa).** 29/2000 gomendioaren osagarritzat, Bilboko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: partidu egunetan zirkulazioa, geldialdia eta aparkatzea debekatzen duten seinale guztien informazio panelean (San Mames inguruetan daudenetan) kasuan kasuko partiduaren eguna ere adierazteko.

### Bilboko Udal Etxebizitzak

*** 965/1999/23 espedientea (2/2000 gomendioa).** Bilboko Udal Etxebizitzak izenekoei 1996ko irailaren 2an egindako erErrenta baten jarduera bidegabetzat hartzeko gomendioa eman zitzaion; izan ere, ez zen kontuan hartu Hiriko ErErrentamenduei buruzko 27/1994 Legeko bigarren xedapen iragankorreko hamaikagarren paragrafoko zazpigarren arauan jasotako kasua zela. Halaber, Bilboko Udal Etxebizitzak izenekoei erErrenta gaurkotzearen ondorioz bidegabeki jasotako zenbatekoak kexaren sustatzaileari itzultzeko eskatu zitzaion.

### Alonsotegiko Udala

*** 1074/1999/20 espedientea (89/1999 gomendioa).** Alonsotegiko Udalari beharrezko aginduak emateko gomendioa eman zitzaion, administrazio laguntzaile bat aldi baterako kontratatzeko deialdia geldiarazteko; era berean, udalerriko hautagaien erroldatzeari buruzko baldintza berrikusteko ere eskatu zitzaion, bai deialdi honetan eta bai udalbatzak gerora egin ditzakeen deialdietan.

### Basauriko Udala

*** 215/1999/22 espedientea (1/2000 gomendioa).** Basauriko Udalari gastronomi, kultur eta jolas elkarte bati jarduera hori legezta dezan eskatzeko gomendioa eman zitzaion, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 65. artikuluan ezarritakoaren arabera legeztatu ere.

### Sestaoko Udala

*** 401/1999/22 espedientea (84/1999 gomendioa).** Sestaoko Udalari hauxe eskatu zitzaion: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 7.2.d) artikulua egokitzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko 7/89 Foru Arauak (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko Araua) zerga horren egitate ezargarriaren irispenari buruz ezarritakora. Halaber, kexaren sustatzaileari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kontzeptutan bidalitako likidazioak ofizioz ezeztatzeko ere eskatuko zitzaion (750 kg-tik beherako atoiaren titularra baita).

### b) ***Gipuzkoako udalak***

#### **Donostiako udala**

*** 2239/1998/19 espedientea (5/1999 gomendioa).** Donostiako Udalari erroldan azken bost urtez behingo berritzerako orrialdeak bete ez zituen hiritar bat inskribatzeko gomendioa eman zitzaion, erroldatze agentearen jardueran irregulartasun batzuk ikusi baitziren. Ikusitako irregulartasun horiei dagokienez, Arartekoaren iritziz, erroldatze agenteak ez zuen behar bezalako prestasunarekin jardun, erroldan inskribatzeko orriak emateko eta jasotzaileek orriok jaso zituztela bermatzeko; halaber, orriok behar bezala bete ondoren jaso eta Udalra itzuli zirela ere ez zuen segurtatu.

*** 2308/1998/23 espedientea (20/1999 gomendioa).** Donostiako Udalari berariazko ebazpena emateko eskatu zitzaion, interesatuak aurkezturiko jarduera baterako lizentzia ezeztatzeko adierazpen eskabide bati buruz, kontuan hartuz herri administrazioei horri buruz ezartzen zaien betebeharra, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea). Eskabidea ebazteko orduan ondokoa kontuan hartzeko eskatu zitzaion: jarduerarako lizentzia emateko unean, Donostiako Lokal Publikoa eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen udal Ordenantza indarrean zegoela (1994ko apirilaren 12koa). Azkenik, Donostiako Udalak, ebazpena emateko orduan, aintzat hartu beharko luke kalteak ordaintzeko duen erantzukizuna onartzeko aukera, 30/1992 Legearen 102.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*** 173/1999/01 espedientea (56/1999 gomendioa).** Donostiako Udalari AESeko laguntzaren erabilera justifikatzeko agiriak onartzeko gomendioa eman zitzaion; laguntza hori 1998ko hirugarren seihilekoan jaso eta kexaren sustatzaileek aurkeztu zuten; beraz, aurten pertsona horiei AESrako laguntza ukatzeko erabakia berrikusteko eskatu zitzaion, ukatze hori agiriok ez aurkeztean oinarritzen baitzen.

#### **Irungo Udala**

*** 753/2000/20 espedientea (35/2000 gomendioa).** Irungo Udalari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, lehiaketa oposaketako auzitegi kalifikatzaileak iragarritako bigarren deialdi bidegabea berrikusteko eta ondore barik uzteko; lehiaketa hori artxiboko laguntzailerako lanpostua hornitzeko da, oposaketa fasearen hirugarren ekitaldia berriro egiteko (test psikoteknikoak). Horrela, lehenengo deialdira joan eta hautapen prozesuan jarraitzen zuten hautagaiak bakarrik izango zuten aukera.

#### **Lasarte-Oriako Udala**

*** 33/1998/23 espedientea (8/1999 gomendioa).** Lasarte-Oriako Udalari trafiko arauak urratzearen ondoriozko zehapena ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion, tramitaturiko espedienteak ez baitzuen zehapen espediente hau ebazteko ezarritako oinarrizko tramitea bete: ebazpen proposamena eta espedientea jakinaraztea, bakoitzak bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko (otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 13.2 artikulua, Trafikoaren, Motorreko Ibilgailuen eta Bide Segurtasunaren

Arloko Zehapen Prozeduraren Araubidea onesten duena). Era berean, zehaturiko aparkatzeko debekua ez zegoen seinaleztaturik, urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuaren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera (Zirkulazioko Arautegi Orokorra onesten duen dekretua).

### Pasaiako Udala

*** 2496/1998/17 espedientea (24/1999 gomendioa).** Pasaiako Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: kautelazko neurritzat, alkatetza dekretuaren bidez gimnasio bat berehala ixteko erabakia hartzeko, harik eta horren titularrak instalazioaren ibilera ona bermatzen duten lizentzia egokiak lortu arte, jurisprudentziak horri buruz behin eta berriro adierazitakoaren arabera.

## D) BESTE TOKI ERAKUNDE BATZUK

### Osmako Administrazio Batzordea

*** 1667/1998/15 espedientea (13/1999 gomendioa).** Osmako Administrazio Batzordeari gomendio hauxe eman zitzaion: biztanle gune horretako bide garbiketari buruzko legearen arabera arduraduna denez, bertako kaleen garbiketaren eta kontserbazioaren ardura zaintzeko, horiek gutxieneko osasun baldintzak bete ditzaten. Horretarako, bere eskumena erabiliz, administrazio batzorde horrek abeltzaintzako ustiapenak dituzten bertako titularrei eskabide bat egingo die, abereak kaleetatik igaro ondoren gorotzak ken ditzaten, edo beste edozein neurri har dezaten, kaleetako gutxieneko osasungarritasuna eta garbiketa bermatzeko.

## 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### - Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila

*** 109/2000/20 espedientea (13/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa sailari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, gradu-osterako espezializazio beka eskatzaile batek sailkapen batzordearen balorazio irizpideak zehatz jakiteko duen eskubideari erantzuna emateko, baita irizpideok aplikatuz aukeraturiko bekadunek lorturiko puntuazioa jakiteko ere.

*** 126/2000/18 espedientea (7/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: ikasle batzuen eskolaratze baldintzetan eragina izan dezaketen kasuetan, kontsulta egokiak eginez, gobernu organoek (ukituriko sektoreek horietan parte hartzen dute) eskainitako partehartze aukerak agortzeko.

*** 557/2000/20 espedientea (40/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Heziketa Sailari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, bitarteko funtzionario ez egonkorrei familiak zaintzeko eszedentzia egoeraz gozatzeko aukera emateko.

#### - Herrizaingo Saila

*** 1797/1998/19 espedientea (27/1999 gomendioa).** Herrizaingo Sailari Bizkaiko Trafikoko Lurralde Arduradunari ezarritako zehapena ofizioz ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion, Berangoko udalerriko bide batean egindako urratze baten ondorioz ezarritakoa; izan ere, ez zuen hori egiteko eskumenik, errespetatu egin baitzen eskumen aldaketa egiteko prozedura egokia (Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko legearen Testu Artikulatuko 68.2 artikuluan aipaturikoa).

*** 597/2000/19 espedientea (47/2000 gomendioa).** Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.1 artikuluan ezarritakoaren babesean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran), trafikoaren arloan zehapen araubidea aplikatuz ezarritako zehapena ezeztatzeko; izan ere, prozeduraren hasieran salaketa egin eta bi hilabetera jakinarazi zen eta eta, gainera, Arartekoaren iritziz, espedientea iraungita zegoen.

#### - Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila

*** 937/1999/23 espedientea (3/2000 gomendioa).** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari aurreko prozedura egokia hasteko gomendioa eman zitzaion, neurketa akatsak zeuden ala ez ikusteko, minusbaliotasuna duten pertsonentzako garaje plazetan, San Luis-Barakaldo poligonoko babes ofizialeko 252 etxebizitzen sustapenean. Eginbideak egin ondoren, 1994ko maiatzaren 18ko Aginduak onetsitako diseinu ordenantzak urratzen direla ikusiz gero, Sailak plazen dimentsioak urraturiko

ordenantzara egokitzeko betebeharra ezarri beharko dio enpresa sustatzaileari, eta bidezko zehapen guztiak ere aplikatu ahal izango ditu.

*** 826/2000/23 espedientea (39/2000 gomendioa).** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen bat berrikusteko gomendioa eman zitzaion; ebazpen horren bidez, baimena eman zen 9 etxebizitza eta garajeko proiektua egiteko Lekeitioko UARc12-B aldean; izan ere, baimen horrek eraikuntza erabilera ezartzen du, babes zorreko aldean, Kostaldeei buruzko 22/1988 Legearen 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren aurka.

**- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila**

*** 98/1999/23 espedientea (32/2000 gomendioa).** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari kalte-ordain espediente baten tramitazioa hasteko gomendioa eman zitzaion, sail horrek 1998an kontratatu则iko zabalkunde kanpaina baten sustatzaileei sorturiko kalteengatik. Instrukzioa egin ondoren, interesatuari zabalkunde kanpaina hori egiteko ezarritako zenbateko guztiak ordaindu beharko zaizkio, bai egindakoak eta bai kontratistei leporatzeko modukoak ez diren arrazoien ondorioz egin gabeak.

## B) **FORU ADMINISTRAZIOA**

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

**9/1998/16OF espedientea (109/1998 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala hiritarren esku modu eraginkorrean jartzeko, hori argitaratzen denean; horrela, bertan jasotako arauak euron ondorioak zabaldu baino lehen jakingo dira, indarreko antolamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.

*** 2441/1998/15 espedientea (30/1999 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailari zazpi errepideren hiri tarteak mugatzeko espedientea hasteko gomendioa eman zitzaion; errepideok Bilboko hirigunea zeharkatu eta eskumen mailako mugaketa arazoak azaltzen dituzte, eta horrek eragina dauka bide horien hiru zerbitzuen kontserbazioan, eta hori bilbotarren kalterako da. Espedientearen tramitazioa, berriz, Bizkaiko Errepideei buruzko 2/1993 Foru Arauko 57. artikuluan ezarritakoari egokitu beharko zaio, eta Bilboko Udalari entzunaldi tramitea egokituko zaio.

## C) **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### *a)* ***Arabako udalak***

**Gasteizeko Udala**

*** 1736/1998 espedientea (101/1999 gomendioa).** Gasteizeko Udalari alkatetza horretako dekretuak tramite egokien bidez ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; dekretu horren bidez, kexaren sustatzaileari bederatzi zehapen ezarri zitzaizkion, trafiko arauak urratzeagatik.

*** 31/1999/19OF espedientea (10/2000 gomendioa).** Gasteizeko Udalari hiriko bide publikoetan Erabilerak, Trafikoa eta Zirkulazioa arautzen dituen udal Ordenantzaren manuak aldatzeko gomendioa eman zitzaion, baldin eta bizikletak oinezkoen eremuetan ibiltzea ahalbidetzen badute, Trafikoari, Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuan ezarritakoa (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta Zirkulazioari buruzko Arautegi Orokorra (urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onetsia) urratuz.

*** 40/2000/23 espedientea (50/2000 gomendioa).** Gasteizeko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: San Anton eguneko zozketaren iragarkietan animaliarik ez erabiltzeko eta herri ikuskizunetan nahiz adierazpenetan ere ez erabiltzeko (baldin eta horretarako baimenik ez badago), urriaren 29ko 6/1993 Legeko 4.6 eta 5.d artikuluetan (Animaliak Babesteari buruzko Legea) eta udal honetako Udal Ordenantzaren 9. artikuluan (Animaliak Eduki eta Babesteari buruzkoa) ezarritakoa errespetatzeko.

*** 314/2000/23 espedientea (37/2000 gomendioa).** Gasteizeko Udalari alkatetzako dekretu bat ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; dekretu horren bidez, Administrazioaren ondare erantzukizunaren ondorioz aurkezturiko erreklamazioari gaitzirizteko erabakia hartu zen; izan ere, korporazio horrek erreklamaziogileari sorturiko kalteekiko erantzukizuna dauka; kalteok, berriz, hiriko bideen mantenamenduaren zerbitzu publikoaren erabilera txarraren ondoriozkoak dira, baita taparik eta seinalerik gabeko udal kutxeta zuen kalearen bialitate baldintzak zaintzeko eta mantentzeko erantzukizuna ez betetzearen ondoriozkoak ere. Halaber, beste ebazpen bat emateko gomendioa ere eman zitzaion, erreklamaziogileari eragindako kalteen ondoriozko ondare erantzukizuna onartuz, kasuan kasuko espedientearen instrukzioan ezarritako proportzioan eta zenbatekoan.

**Iruña Okako Udala**

*** 1123/1997/22 espedientea (28/2000 gomendioa).** Iruña de Ocako Udalari kexaren sustatzaileari utzitako zenbatekoa itzultzeko gomendioa eman zitzaion; zenbateko hori, utzi ere, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zerga ordaintzeko utzi zuen; izan ere, zerga horren zortzapena egiteko unean bizi zen lekua kontuan hartuz, zenbateko hori beste udalerri batean ordaindu behar zen.

*b)* ***Bizkaiko udalak***

**Bilboko Udala**

*** 577/2000/16 espedientea (38/2000 gomendioa).** Bilboko Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: udaleko kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoak arautuko dituzten ordenantzetan, kide bakarreko familiekiko diskriminazio guztiak ezabatzeko (egoera horren sorrera edozein izen arren), seme-alabekin bizi diren gurasoen familiei dagokienez. Hain zuzen ere, kide bakarreko familiak direnean, banakako kuotaren ordainketa bateragarria izango da euren kargura dauden seme-alaben onuraduntzat sartzearekin, baldin eta plan orokorrean ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

*** 598/2000/21 espedientea (33/2000 gomendioa).** Bilboko Udalari udaltzainei dagokienez egiaztaturiko gauza batzuk aldatzeko eskatu zitzaion, atxilotuen eskubideak errespetatu ahal izateko; neurriok ondokoak dira: a) Atxilotua goitik behera biluztean oinarrituriko neurriak horren intimitaterako eskubidea urratzen du; neurri hori, beraz, egokia, beharrezkoa eta neurritsua denean baino ez da aplikaturiko, Konstituzio Auzitegiak ezarritako irizpideen arabera. Baldintza horiek kasu guztietan bete beharko dira, gertaerak eta atxiloturiko pertsonen ezaugarriak aztertuz. Halaber, neurri hartzea eragin duten arrazoiak zehatz eta idatziz azaldu beharko dira, ez baita nahikoa izango arrazoi orokorrak ematea, eginbide hori jasotzen duten akta guztietan. b) Atxiloketaren bat dagoenean, zorrotz bete beharko da 520.1 LECr agindua; horren bidez, askatasun gabetze horrek ezin izango du iraun gertaerak argitzeko informazioa lortzeko behar den denbora baino gehiago. Argiketa egiten duen agenteak, horretarako, atxiloturiko pertsonari lagunduko dion abokatuari deitu beharko dio hasiera-hasieratik, abokatu horrek ofizioz edo pertsona horrek izendaturik jarduten duen kontuan hartu barik. Abokatuari emandako abisua zenbait ordutan atzera daiteke, atxilotuari leporaturiko gertaerei zuzen-zuzen lotutako ikerketak egin behar direnean. Polizi elkargoaren beraren ibilerari egozteko moduko atzerapenek ez dute inondik inora ere justifikatuko atxiloturiko pertsonari askatasuna beranduago ematea. c) Polizi egoitzako atxiloketa hamabi ordutik gorakoa denean, atxilotuari egunero gutxienez otordu oso eta bero bat emango zaio, ogitartekoetan oinarrituriko elikadura ez baita egokia izango. Horrenbestez, korporazio horrek beharrezko neurriak hartu beharko ditu, atxilotuen arreta egokia bermatzeko (dietetikari dagokionez); halaber, erlijio sinesmenak edo osasunaren ondorioz ezarritako dietak errespetatzeko ahalegina egin beharko da.

### Abanto-Zierbenako Udala

*** 205/1998/22 espedientea (11/2000 gomendioa).** Abanto-Zierbenako Udalari likidazio bat ofizioz ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; likidazio hori eraikuntzei, instalazioei eta obrei buruzkoa zen. Izan ere, bertako zerga-oinarrian lizentziarik gabe egin zirela jartzen zuen, oraingo titularra lokalaren erErrentari bihurtu baino lehen. Gero, toki erakunde horrek beste likidazio bat bidali beharko dio interesatuari, berak egindako lanen benetako kostuan oinarrituz.

### Alonsotegiko Udala

*** 2431/1998/23 espedientea (39/1999 gomendioa).** Alonsotegiko Udalari txabola bat eraisteko agindua ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; izan ere, horren eraikuntzan ez zen errespetatu hirigintzako legezkotasuna babesteko ezarritako prozedura. Era berean, Udalak ondare erantzukizuneko espedientea hasi beharko luke ofizioz, eraispenak eta betearazketa subsidiarioak eragindako kalteak ordaintzeko, baita kaltetuak justifikaturiko kalte guztiak ordaintzeko ere.

### Galdakaoko Udala

*** 722/1999/22 espedientea (22/2000 gomendioa).** Galdakaoko Udalari taberna jarduera bat legeztatzeko espedienteko tramiteak berehala betetzeko gomendio eman zitzaion (ez ziren aipatu), Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorraren

58. artikuluak horiek betetzea ezartzen baitu. Toki erakunde horren jendaurreko informazioan jarri beharko zuen jarduera legeztatzeko eskabidea; horretarako, iragarkia jarri beharko du Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, eta auzokoek ere jardueraren kokalekua jakinarazi beharko dute, bidezko alegazio eta erreklamazio guztiak egiteko aukera izan dezaten. Era berean, oinarrizko tramite hori bete ondoren, Galdakaoko Udalak Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko txostena eskatu beharko du, jarduera ezartzeari buruz, eta horri buruzko udal txosten arrazoitua aurkeztu beharko du. Azkenik, jardueraren legezkotasuna bete ondoren proiektuak aldaketaren bat izanez gero, horrek berriro ere Bizkaiko Foru aldundiko Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailaren azterketa beharko du, bertako zerbitzuek beharrezko neurri zuzentzaile guztiak ezarri ahal izateko.

**Plentziako Udala**

*** 271/2000/23 espedientea (48/2000 gomendioa).** Plentziako Udalari berariazko ebazpena emateko gomendioa eman zitzaion, ondare erantzukizunaren ondoriozko erreklamazio bati buruzko ebazpena, azaroaren 30eko 30/1992 Legeko 42. eta 43. artikuluetan jasotako betebeharra dela bide. Lehenengo eta behin, kasuan kasuko administrazio espedientea bideratu beharko da, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Halaber, ondare erantzukizunari lotuta egiten dituen hurrengo erreklamazioetan, Plentziako Udalak azaroaren 30eko 30/1992 Legean eta herri administrazioek ondare erantzukizunaren arloan dituzten prozeduren Arautegian jasotakoa bete beharko du.

c) ***Gipuzkoako Udalak***

**Donostiako Udala**

*** 1960/1998/19 espedientea (33/1999 gomendioa).** Donostiako Udalari kexaren sustatzaileari ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu zitzaion; zenbateko horiek, berriz, TAOk eragindako aldean aparkatzeagatik (horretarako agiririk gabe) egindako salaketa ezeztatzeko eman zituen; izan ere, minusbaliatua izatean (beste udalerri batean bizi izanda ere), automobila leku eta egoera horretan uzteko eskubidea zuen. Halaber, arauturiko aparkatzeko udal zerbitzua arautzen duen Ordenantzan ezarritakoa ere aldatu egin beharko du, udalerrian nahiz bertatik kanpo bizi diren minusbaliatuen egoera berdintzeko. Azkenik, ordenantza aldatu arte, Udalak aginduak eman beharko dizkie udaltzainei, ezarri nahi den egoera une hori iritsi arte onartzeko.

*** 2423/1998/23 espedientea (99/1999 gomendioa).** Donostiako Udalari berariazko ebazpena emateko gomendioa eman zitzaion, ondare erantzukizuneko erreklamazio bati buruz, azaroaren 30eko 30/1992 Legeko 42. eta 43. artikuluetan herri administrazioei ezartzen zaien betebeharra dela bide (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea).

*** 701/2000/23 espedientea (31/2000 gomendioa).** Donostiako Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: Etxebizitzako Udal Patronatuak, etxebizitzak adjudikatzeko prozesuetan, eskatzaileek espedienteak tramitatzean aurkezturiko agiri eta alegazio guztiak kontuan hartzeko, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 79.1 artikuluan

ezarritakoa aplikatuz (Herri Administrazioen araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea, lege honetako 35, *e*) artikuluari dagokionez).

**Arrasateko Udala**

*** 3/2000/23 espedientea (8/2000 gomendioa).** Arrasteko Udalari alkatetza dekretu bat baliogabetzeko eskatu zitzaion; dekretu horren bidez, Iberdrola S.A. enpresari obra lizentzia eman zitzaion, tentsio handiko linea bat instalatzeko (30 KW) Arrasateko azpiestaziotik (Muxola) Fagor Ederlan eraldaketa zentroraino. Gomendio horren zergatia: lizentzia emakida tramitatzean, udalbatzak ez zuen espedientea bidali Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidrauliko eta Hirigintza Sailera, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera. Tramite hori betebeharrekoa zen, tentsio handiko aireko lineen instalazioek (lurzoru urbanizaezinean) erabilera publikoaren aurretiazko adierazpena behar baitute, foru aginduaren bidez.

**Beasaingo Udala**

***1125/1999/17 espedientea (36/2000 gomendioa).** Beasaingo Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: alkatetza Dekretuaren bidez, kautelazko neurritzat, taberna-jatetxe baten berehalako itxiera erabakitzeko, interesatuaren entzunaldiaren ostean, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 65 a) artikuluan ezarritakoaren arabera (Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra).

**Oiartzungo Udala**

*** 292/2000/22 espedientea (19/2000 gomendioa).** Oiartzungo Udalari ibilgailuak zaintzeko jarduera baten titularrari jarduera hori legezta zezan eskatzeko gomendioa eman zitzaion. Horretarako, titularrak IV. eranskineko ataletan dauden agiri tekniko aplikagarriak aurkeztu beharko ditu, eta martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan adierazitako tramitazioarekin jarraitu beharko du; dekretu horren bidez, jarduera-lizentziarik behar ez duten jardueren zerrenda ezartzen da (Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko 27ko 3/1998 Lege Orokorra).

# 4. BERRIKUSI DIREN GOMENDIOAK

## A) TOKI ADMINISTRAZIOA

### a) *Arabako udalak*

#### Aguraingo Udala

*** 670/1999/23 espedientea (100/1999 gomendioa).** Aguraingo Udalri Aguraingo kirol instalazioen ustiapenaren kontratuaren ebazpena ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; hori kontratistak ez betetzearen ondorioz erabaki zen (ez zuen kanon egokia ordaindu); izan ere, Arartekoak egindako azterketan, udal korporazio horren ez-betetzea egiaztatu zen (berori baita jarduera garatzeko lokalaren titularra), lokalaren higiene-osasun baldintzak mantentzeari buruz, egoera horrek ez baitu ahalbidetu kontratuaren helburua ondo betetzea. Gero, administrazio kontratua ebatzi beharko litzateke, alde bien adostasunez, administrazio espediente egokia bideratu ondoren, kontratuko alderdi bakoitzaren ez-betetzearen eragina eta irispena zehaztuz.

# 5. GAIA EPAITEGIETARA ERAMAN DELAKO ETEN DIREN GOMENDIOAK

## A) EUSKO JAURLARITZA

### - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

*** 378/2000/20 espedientea (21/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion, Irungo Txingudi ikastolan 2000-2001 ikasturteko ikasleak onartzeko erabili den prozesua aztertzeko; horrela, ikasleak onartzeko legezko irizpideak aplikatzen direla bermatuko da, horien artean, familiaren egoitzaren hurbiltasuna.

*** 817/2000/20 espedientea (46/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, 2000ko martxoaren 21eko Aginduak (28ko EHAA) deituriko lekualdatze lehiaketan parte hartzeko irakasle funtzionario baten egoera juridikoa berriro jarri ahal izateko; agindu hori Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailburuak eman zuen, eta 2000ko uztailaren 27an emandako Aginduaren bidez ebatzi zen (abuztuaren 31ko EHAA), bai interesatuak berak hasitako administrazio justiziaren bidetik (lekualdatze lehiaketaren behin betiko ebazpenaren aurka jarritako administrazio errekurtsoa), bai hezkuntza Administrazioak berak ofizioz berrikustearen bidetik. Interesatuak ezin izan zituen kasuan kasuko administrazio organoari bideraturiko eskabideko akatsak zuzendu eta horrexegatik egin zen gomendioa.

*** 972/2000/20 espedientea (49/2000 gomendioa).** Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, 2000ko martxoaren 21eko Aginduak (28ko EHAA) deituriko lekualdatze lehiaketan parte hartzeko irakasle funtzionario baten egoera juridikoa berriro jarri ahal izateko; agindu hori Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailburuak eman zuen, eta 2000ko uztailaren 27an emandako Aginduaren bidez ebatzi zen (abuztuaren 31ko EHAA), bai interesatuak berak hasitako administrazio justiziaren bidetik (lekualdatze lehiaketaren behin betiko ebazpenaren aurka jarritako administrazio errekurtsoa), bai hezkuntza Administrazioak berak ofizioz berrikustearen bidetik.

## B) TOKI ADMINISTRAZIOA

### a) *Arabako udalak*

#### Gasteizko Udala

*** 650/2000/20 espedientea (25/2000 gomendioa).** Gasteizeko Udalari beharrezko neurriak hartzeko gomendioa eman zitzaion, honako kexa hau egin zuen pertsonaren asmoa onartu ahal izateko: beharrezko lizentziak ematea, dokumentazio ikasketei egokitzeko ikastaroan zituen azterketetara joan ahal izateko (oraingo

ARCEPAFEko 58. Artikuluan ezarritako 12 egunak agorturikoan), hortik sortzen diren ondoreekin.

### *b) Gipuzkoako udalak*

#### Beasaingo Udala

*** 2150/1998/17 espedientea (4/1999 gomendioa).** Beasaingo Udalari gomendio hauxe eman zitzaion: udal zerbitzu teknikoek haragia txikizka saltzen dihardueen lokal batek sorturiko zaraten neurketa egiteko, baita lokalaren ikuskapen teknikoa egiteko ere, jarduera hori irekitze-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileetara (1987ko apirilaren 13koa) eta Eusko Jaurlaritzak ekainaren 11n emandako 171/85 Dekretuan ezarritakora egokitzen den ala ez ikusteko. Halaber, ikuskapenean akatsak ikusten badira, instalazioen titularrak gehienez sei hilabeteko epean konpondu beharko ditu (behar bezala justifikaturiko kasuetan izan ezik), Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorreko 64.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### Segurako Udala

*** 2519/1998/15 espedientea (48/1999 gomendioa).** Segurako Udalari beharrezko jarduera guztiak egiteko gomendioa eman zitzaion, baserri baten hegaleko erretena kentzeko; izan ere, udaleko bide publikotik igarotzen denez, murriztu egiten du jendeak bertatik igarotzeko duen gaitasuna, bai altuerari eta bai zabalerari dagokionez.

*** 2519/1998/15 espedientea (49/1999 gomendioa).** Segurako Udalari baserri baten ortua eta bidea mugatzen dituen karela kentzeko agindu zezan gomendatu zitzaion. Izan ere, karelaren zati hori ez zegoen lizentzia eman baino lehen, eta, beraz, konponketa barik itxiera zenez, errespetatu egin behar zuen metro bateko distantzia, azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauko 61-2 artikuluak eskaturikoa (Gipuzkoako Errepideei eta Bideei buruzkoa).

*** 2519/1998/15 espedientea (50/1999 gomendioa).** Segurako Udalari zamako proba egiteko gomendioa eman zitzaion, baserri baten ondoko zubiaren iraunkortasuna ikusteko.Saiakuntzaren emaitzaren arabera, udalbatzak zubiaren iraunkortasuna jakingo du eta, beraz, baimendu edo debekatu egingo du 13,5-26 tona bitarteko ibilgailu astunen igarotzea, zubiaren iraunkortasunarekin bateragarriak izan ala ez izatearen arabera.

## 6. BESTE ARRAZOIREN BATENGATIK ETENDAKO GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

**- Herrizaingo Saila**

*** 151/1999/19 espedientea (43/1999 gomendioa).** Herrizaingo Sailari ezarritako zehapen bat ezeztatzeko gomendioa eman zitzaion; zehapen hori, berriz, erantzukizun zibileko derrigorrezko asegururik gabe zirkulatzearen ondorioz ezarri zen; gidariak (agene salatariak eskatuta) luzaturiko ziurtagiri bakarra eman zuen, eta hori indarrean zegoen salaketa egiteko unean.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

**- Bizkaiko Foru Aldundia**

*** 1465/1998/19 espedientea (53/1998 gomendioa).** Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailari gomendio hauxe eman zitzaion: bidezko tramiteak ezarri ondoren, lehiaketa adjudikatzen zuen foru agindu bat ezeztatzeko eta jarduera ebazpen proposamenera arte atzeratzeko; horiek egiteko, kontuan hartu beharreko irizpide bakarrak baldintza teknikoen pleguan ezarritako adjudikazio irizpideak dira.

### C) BESTE TOKI ERAKUNDE BATZUK

**Orbisoko Administrazio Batzordea**

*** 2551/1998/22 espedientea (94/1999 gomendioa).** Orbisoko Administrazio Batzordeari ur-hartune bat beste leku batera eraman zezan sustatzeko gomendioa eman zitzaion (Arabako Foru Aldundiak inbertsio horren finantziaziorako sustatzen dituen laguntza planetan sartzeko eskatuz); bestela, beste neurri batzuk hartu beharko lituzke, plagizida zisternak garbitzeko eta zamatzeko lanak oraingo txabolan ez egiteko (behar izanez gero, beste administrazio batzuen laguntza egongo da).

# VI. ATALA

## GOMENDIO OROKORRAK

## 1. HEZKUNTZA ITUNEI DARIZKIEN BETEBEHARRAK HOBETO KONTROLATZEKO BEHARRIZANA

Konstituzio Auzitegiak zehaztu duen bezala, hezkuntzarako eskubideak bere barnean prestakuntza dimentsioa hartzen du, betiere askatasunerako eskubidearen oinarrizko edukiaz gain. Hori dela eta, botere publikoek eskubide horren eragingarritasuna bermatzeko ahaleginak egin behar dituzte hezkuntzaren oinarrizko mailetan, Konstituzioaren 27.4. artikuluak aintzatesten dituen betebehar eta dohaintasun baldintzen arabera.

Prestakuntzaren aldetiko helburu hau garatzeko asmoz, botere publikoek aplika ditzakete, konstituzio manu horren 5. idatz-zatian (27. artikulua) aipatzen diren planifikazio lanabesez gain, legeek zehaztu edo ezarritako beharkizunak betetzen dituzten hezkuntza zentroak finantzatzera bideratutako diru-laguntza publikoak. Ildo honi jarraituz, honako hau ikus dezakegu: Auzitegi Konstituzionalaren uztailaren 10eko 86/1985 epaia.

Legegile konstituzionalak, hezkuntzarako eskubidea aintzatestean, zentro pribatuen partaidetza bilatu du, nahitaezko mailetan hezkuntzaren doakotasuna eta unibertsaltasuna ziurtatu eta, ahal den neurrian, botere publikoek sortutako hezkuntza zentroez bestelakorik aukeratzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

Hezkuntza itunak dira, hain zuzen ere, derrigorrezko heziketa doakotasun erregimenean eman nahi duten zentro pribatuek dituzten tresna juridikoak, betiere hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak xedatzen duenaren arabera.

Jakina denez, itun sistemaren bitartez hezkuntza administrazioek konpromisoa hartzen dute doakotasun baldintzetan ematen den heziketa bermatzeko fondo publikoak eman daitezen. Helburu honi jarraituz, irakasleen soldatei dagozkien zenbatekoak (enpresak gizarte segurantzari eman beharreko kotizazioak barne) eta bestelako gastuak (administrazioaren zein zerbitzuen langileenak) oso-osorik finantzatzea ezartzen da, bai eta benetako inbertsioak mantentzeko eta zaintzeko gastu arruntak ere.

Elkarrekikotasunari jarraituz, itundutako zentro pribatuetako titularrek itunaren xedea diren heziketa gaiak dohainik emateko betebeharra hartzen dute. Horretara, eskolako jarduera osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola zerbitzuak borondatezkoak izango dira eta ez dute irabazasmorik izan beharko.

Zehatzago, estatu mailako arautegia (urriaren 20ko 1964/1995 Errege Dekretua) izanik ere, eskolako jarduera osagarritzat jotzen dira zentroek dohainik ematen dituztenak, betiere ikasleek eskola barruan nahitaez egon behar duten ordutegiaren barruan; horrela, eskolako jardueraren osagarria izango dira eta bertan talde, ikasturte, ziklo, etapa edo maila bereko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute. Eskolako jarduera osagarrien kontura ikasleei zerbait kobratu ahal izateko, hezkuntza administrazio eskudunak beharrezko baimena eman behar izango du.

Beste alde batetik, eskolaz kanpoko jardueratzat hartzen dira zentroko ikasleei goizeko ekitalditik arratsaldeko ekitaldira bitartean, bai eta ordutegi horren aurretik edo ostean ere, zuzentzen zaizkienak. Jarduera hauek ezin dute euren barruan hartu ikasturte bakoitzeko heziketa programazioan sartzen den edukirik eta ezin dira ebaluazioaren oinarritzat hartu ikasleen hezkuntza ondorioetarako. Zentroko eskola kontseiluak onetsi behar ditu beharrezko kuotak, bai eta horrela jakinarazi ere hezkuntza administrazioari.

Azkenik, zentroetako zerbitzu osagarritzat hartzen dira ondoko hauek guztiak: jantokia, eskolara joateko garraioa, medikuen edo psikopedagogiako bulegoa edo antzeko izaerako beste edozein. Hezkuntza administrazioek ezarri behar izaten dute zerbitzu horietako kuotak onesteko prozedura. Bai azken kuota horiek bai eskolaz kanpoko jarduerei dagozkienek lagun dezakete instalazioei eusten edota horiek hobetzen.

Itun sistemaren funtzionamendu egokia ziurtatu eta bermatu nahi duen amaiera edo azken ohar modura, LODEk ohartarazten du doakotasun printzipioaren kontra jotzen duten eskolak ematea ez-betetzetzat hartu behar dela; horrela, horrek ituna deuseztatzea ekar lezake, errepikatzen bada.

Hezkuntza itunen sistemei buruzko laburpen honen bitartez, azpimarratu gura izan dugu, behinik behin legezko osaketari dagokionez, elkarrekiko betebeharren sistema orekatu edo konpentsatu modura aurkezten dela eta horren benetako kontrola edo fiskalizazioa ez dela korapilatsuegia.

Edozein kasutan ere, aitortu beharra dago erakunde honek tramitaturiko kexa batzuen errealitatea noiz edo noiz ez datorrela bat oraintsu egin dugun deskripzio tekniko honekin. Egia esan, itundutako zentroetan eskolaturiko ikasleen gurasoek, behin baino gehiagotan, eskatu dute Arartekok esku hartzea, betiere hainbat kantitate kobratu direlako eta horiek bat ez datozelako hezkuntza zentro hauen jarduerak jorratu beharreko doakotasun araubidearekin. Salaketa horietan euren beldurra iradokitzen zuten, kuota horiek ez ordaintzeak eraginen bat izan lezakeelako hezkuntza jardueran, bai eta euren seme-alaben errendimendua ebaluatzeko moduan ere.

Gai honi dagokionez, hau da, itunaren doakotasun araubidearekin bat ez datozen kantitate hauek kobratzeko erantzukizuna ikastetxeak berak hartzen duenean, errazagoa da hezkuntza administrazioak kontrolerako ekintzaren bat planteatzea. Ekintza hori, jakina denez, itunaren baldintzak berriro ezartzera bideratuta dago. Horrela bada, itundutako hainbat ikastetxek ezarritako betebehar ekonomikoak ez badagozkie onetsitako zerbitzu osagarriei edo eskolaz kanpoko jarduerei edo, nahiz eta behar bezala egokitu, eskakizunek jotzen badute ekarkin ekonomiko horiek izan behar duten izaera boluntarioaren edo irabazasmorik gabekoaren kontra, zeharo arrazoizkoa da hezkuntza agintaritzek zuzenean esku hartzea, betiere itunaren doakotasun araubidea berrezarri eta bermatzeko asmoz.

Esku-hartze hauen adibide gisa, erakunde honek tramitaturiko 701/96 kexa espedientea aipatuko dugu; horri buruzko gorabeherak Legebiltzarrera bidalitako 1997ko urteroko txostenaren hezkuntza arloko laburpenean jasotzen dira (149. orrialdea). Horretan, Donostiako ikastetxe pribatu itundu batean OHOko ikasketak egiten ziharduen ikasle baten aitak planteatu zuen kexa. Bertan salatzen zuen Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak izandako jarrera, betiere zentroaren izaera itundukoari ez zegozkion hainbat diru kopuru kobratzeagatik –funtzionamendu kuoten kontzeptu modura– jarritako erreklamazio bati erantzun ez zitzaiolako. Kexaren dokumentazioaren barruan ikastetxeko zuzendaritzaren idazki baten kopia ageri zen eta bertan aitortzen zen kontzeptu hori

(funtzionamendu kuotak) zela-eta eskatutako kantitateak ez zegozkiela, ez kasu guztietan behinik behin, eskolaz kanpoko jardueratzat har zitezkeen jarduera motei. Era berean, asko dira judizioko pronuntziamenduak gai honen inguruan; besteak beste: Auzitegi Nagusiaren 1999-01-28ko epaia.

Aitzitik, beste batzuetan, ikastetxeekin nortasun loturarik ez duten erakundeen jarduerek nabarmen zailtzen dute itundutako ikastetxeei exiji dakiekeen doakotasun araubidea kontrolatzea; era berean, horrek guztiak aldarazten du gurasoek hezkuntza itunari darion doakotasunari buruz duten pertzepzioa ere.

Azken errealitate honen adibide modura, Bizkaiko zentro itundu batean gertatu berri den kasu bat aipatuko dugu; izan ere, bertan ikasleen guraso elkarteak (IGE) kuota zehatz baten ordainketa exijitzen du *"ekarpen osagarri"* modura. Kexa bultzatu duen pertsonak Ararteko erakundean salatu du kuota horien ordainketa behin eta berriz exijitu izana (nahiz eta hasieratik ez ordaintzeko borondatea azaldu), bai eta, bere iritziz, zirkunstantzia honek alabaren hezkuntza errendimendua ebaluatzeko izan duen eragina ere.

Kexa jarri eta gero izandako lehendabiziko balorazioan, erakunde honek herritar honi jakinarazi behar izan zion ikasleen guraso elkarteek, nortasun juridikoa duten elkarte modura, ahalmendu dutela egokitzat jotzen dituzten ekarpenak kobratzeko. Jakina, ekarpen horiek, eskola-jarduerari dagozkionean, borondatezkoak izan behar dute, hezkuntza zerbitzuetako itun araubidean eraginik izan ez dezaten. Halaber, ekarpen horien helburua IGEen irabazasmorik gabeko jardueretarako izango dela zehaztu beharra dago.

Hona ailegatuta, azpimarratzekoa da IGEetan parte hartzea, betiere, borondatezkoa dela. Horren bitartez, agerian jarri gura dugu indarreko legezko antolamenduak ez duela zeharka finantzatzeko biderik babesten eta horrelakorik gerta litekeela, baldin eta, heziketaren doakotasuna aitortu ostean, IGEetan derrigorrean parte hartzeko modua ahalbideratuko balitz, nahitaezkoak diren kuotak ezartzeko asmoz.

Edozelan ere, salaturiko kasuan zera gertatu zen (hasierako balorazio hori gorabehera): kexa egileak emandako beste zehaztapen batzuek (interesatuak ordaindu gabe zituen kantitateak eskatzean, zuzendaritzako langileek parte hartzen zutela iradokitzen zutenak) Arartekoa behartu zuten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari espediente informatiboa abian jar zezala eskatzera. Horren ondorioz, azkenean, batzorde bakegile bat sortu da, zeinek beharrezko neurriak hartu beharko baititu itunaren gainean ikastetxe horretan sortu den arazoa konpontzeko.

Espediente informatibo hori dela-eta egindako txostenean, zenbait ondorio jaso dira, aintzat hartu beharrekoak guztiak ere, itunen sisteman izan dezaketen eragina kontuan izanik. Ondorio horiek kezka sortu digute, izan ere, baliteke jokaera batzuk eta ikastetxeen finantzaketa ulertzeko modu batzuk doakotasun araubidearekin bat ez etortzea.

Txosten honetan baieztatzen da ikasleen guraso elkartea dela *"ekarpen osagarri"* baten kontzeptuaren bitartez zentroak ikasturtean duen defizita konpentsatzen duena, nahiz eta defizita sortu den ikastetxearen hezkuntza proiektua dela-eta sortutako gastuen ondorioz (ideiak, izaera…) eta administrazioak hezkuntza itunen arabera ematen dion modulu asignazioaren ondorioz. Halaber, aitortzen da itundutako zentroen kopuru handi batek eta, neurri gutxiago batean, zentro publikoek IGEen bidea erabiltzen dutela euren hezkuntza proiektuak edota jarduera zehatzak bi aldiz finantzatzeko.

Egia da errealitate hau berez eta bestelako ñabardurarik gabe ezin dela irregulartzat hartu. Arestian aipatu dugun bezala, ez dago oztoporik IGEek, nortasun juridikoa duten elkarte modura, ekarpenen ordainketa eska dezaten, baldin eta horiek borondatezkoak badira (horrela, ez diote eragingo itunaren araubideari) eta ekarpenok elkartearen irabazasmorik gabeko jardueretarako erabiltzen direla egiaztatzen bada.

Orobat, azpimarratu nahi dugu badakigula ondorio hauek guztiak modu errazean eta arinean erabil daitezkeela gaur egun itundutako moduluen urritasunari buruz aldarrikapen kutsuko eztabaida pizteko, itundutako zentroen zein hezkuntza eremuko arloen aldetik (ikasleen guraso elkarteak eta abar...). Edonola ere, ez dugu horrelako eztabaidarik pizteko asmorik, eta ez daukagu eztabaida premiazkoa dela adierazten duen daturik.

Egia esan, erakunde honek ezin du arrazoitutako adierazpenik egin itundutako indarreko moduluek kalitatezko gutxieneko estandarren arabera hezkuntza itunduaren zerbitzuak dakartzan kostuak ordaintzeko nahikoak diren ala ez. Gainera, gure iritziz, eztabaida honek kutsu politiko argia dauka, eta, horrenbestez, erakunde honek esku hartzeko duen eremutik kanpo dago.

Hori dela eta, hauxe da hezkuntza-administrazioak azaldutako ondorioen azterketari Arartekoak eman nahi dion ikuspegia: agerian jarri nahi du ondorio horiek garbi erakusten dutela itun sistemen berezko parametroetatik -hasieran laburtu ditugunetatik- urruntze hori.

Ildo honi jarraituz, itundutako zentroek fondo publikoen urritasuna argudia dezakete eta zirkunstantzia hori erabili bertan eskolatutako ikasleen kuoten ordainketa justifikatzeko aitzakia modura.

Beste alde batetik, hezkuntzako administrazioak egoera honen kontra jokatu edo jardun ezean, pentsa liteke kuoten ordainketa bidezko jarduera dela.

Laburbilduz, ikusi ahal izango dugu hezkuntza komunitateko hainbat arlok eta, batzuetan, administrazioak berak ez dutela behar besteko indarrez jarduten, nahiz eta ikastetxeen finantzazioa benetan legeek ezarritako doakotasun araubidearekin guztiz bat ez datorrela adieraz lezaketen datu batzuk jakin. Horren aurka egin nahi dugu, hain zuzen ere, uste baitugu erakunde honen betebeharra dela geure buruari emandako legezko markotik urruntzen den bide hau salatzea.

Errealitate hori nolakoa den jakinda, eta gorago aipatu kexaren ondorioz -oraindik erabakitzeke dago nola tratatu- tramitatu den espediente informatiboari ostera ere oratuz, honako hau gertatzen da: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatu du itundutako zentro pribatuen finantzazioa zein eskolaz kanpoko jarduera osagarriak eta zerbitzukoak zehatzago erregularizatzeko arautegiak taxutzea; hori guztia, gaur egungo beharrizanen arabera gaurkotzeko asmoz.

Areago, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2000ko urriaren 17ko Aginduak (Euskal Herriko azaroaren 22ko 224. Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaraturikoa) EAEko administrazioarekin hezkuntza itunak gauzatzeko agiria jendaurrean ezartzeaz gain, ondoko hau zehazten duen hamabosgarren klausula bat ezartzen du:

> *"Indarreko arautegiari zuzentzeko eta ikuskatzeko ematen zaizkion betebeharrak konplituz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren agindu bitartez arautuko dira ondoko hauek guztiak: zentroak bere izaera itunduari buruz egin beharreko publizitatea, ikasleei kobratu beharreko kuoten*

*inguruko indarreko arautegia betetzen denentz ikuskatzea eta itundutakoaren arabera fondo publikoen helburua".*

Erakunde honen aburuz, ostera, itunen sistemari darion doakotasun araubidea guztiz bermatu nahi bada, ez da nahikoa arautegi bat garatzea, nahiz eta zehatza izan. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntzako hainbat arlok eta, bereziki, hezkuntzako agintariek edo arduradunek ausarkiago jardutea.

Berriro ere adierazi nahi dugu arautegia garatzeak, ezbairik gabe, lagun dezakeela itundutako zentroek, euren autonomia erabiltzean, erabaki ditzaketen ekimen osagarriak bideratzeko tarteak argitzen eta horrek ez duela ekarri behar itunen erregimena gutxiestea edo ez betetzea.

Guztiarekin ere, agerian jarri gura dugu arautegiaren garapenak eraginkortasuna gal lezakeela, baldin eta, aldi berean, hezkuntzako arduradunen zein eskolako eremuan presentzia duten gainerako arloen benetako konpromisorik ez badago (ikasleen guraso elkarteak, irakasleak, ikasleak...), ahalik eta azkarren erantzuteko, betiere itunean sartzen ez diren zerbitzu eta gainerako jarduerek izan beharreko izaera osagarri eta borondatezkoa aldatzen denean.

Laburbilduz eta orain arte azaldutako ideien ondorio gisa, itunen araubideari darizkion betebeharrak betetzeari dagokionez, azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela hezkuntza arlo guztien benetako eta egiazko konpromisoa, eta, batik bat, hezkuntza administrazioarena.

Horrela bada, hezkuntza administrazioak adierazten duenaren arabera, itundutako zentroen kopuru handi batek zein hainbat ikastetxe publikok IGEak erabiltzen dituzte zeharka finantzatzeko eta emandako fondo publikoen bitartez ezin estal ditzaketen heziketa proiektu bereziei darizkien gastuak ordaintzeko; beraz, errealitate hori ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu ikastetxeetan aurrera eramaten diren jarduerak eta zerbitzu osagarriak benetan fiskalizatzeko ahaleginak sendotzea, betiere jarduera eta zerbitzu hauek ez dutela itunen doakotasun araubidea gutxietsiko bermatzeko asmoz.

Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatu duen arautegitik harantzago joanda, Arartekoren iritziz, funtsezkoa da iragarpen-lan egokia egitea, baita itunpeko ikastetxeak benetan ikuskatu eta kontrolatzea ere.

## 2. ZERGA ADMINISTRAZIOAK INTERESAK ORDAINTZEA, ZERGADUNEI EGIN BEHARREKO ITZULKETETAN

Eusko Legebiltzarrean urtero-urtero aurkezten diren txosten arruntetan ikusten den legez, Ararteko erakundearen jardueran behin eta berriz ageri den gaietariko bat da herritarren eskubide eta betebeharren arteko oreka aldarrikatzea, betiere zerga administrazioekin dituzten harremanei dagokienez.

Duela hamar bat urte tresna bera erabiliz auto-likidazioen sistema orokortua zegoela adierazi genuen eta horrek zergadunari dakarkion arriskua, prozeduren konplexutasunaren ikuspuntutik eta zuzenbidearen arlo hau arautzen duten arauen aldetik. Gutxi balitz bezala, zerga zientziaren inguruko ezagupen faltaz gainera, problematika honi gehitu behar zaio administrazioak isiltasun administratiboaren teknika erabiltzeko duen joera; horrela bada, zergadunari auzitegietara jotzeko aukera besterik ez zaie geratzen, horrek dakarren kostua eta dirua kontuan harturik; hori guztia kontuan hartuta, bada, zergaduna babes barik geratzen da, neurri batean.

Hausnarketa hauek sortu ziren gaur egun hain ezaguna den irailaren 26ko 1.163/1990 Errege Dekretua (zor ez diren zerga izaerako sarreren itzulketaren inguruan) onetsi zenean; izan ere, dekretu hori zergadunen hainbat eskubide aintzatesteko gertaera gogoangarria izan zen, eta horretan nabarmen lagundu zuten Estatuko Herri Defendatzaileak egin zituen txostenek, betiere gai honen inguruan tramitaturiko makina bat kexatan oinarrituz.

Ondoren, 1.163/1990 Errege Dekretuarekin batera hasitako zerga justiziaren printzipiora birbideratzeko oreka eta berdintasun ideia horiei erantzuna emateko asmoz, **Zergadunen Eskubideei eta Bermeei buruzko otsailaren 26ko 1/1998 Legea** onetsi zen.

Lege honen aldekoek **"Zergadunaren Estatutua"** iritzi zioten, zergadunek zerga administrazioarekiko harremanetan zituzten eskubideak eta bermeak izendatzeko; doktrinak, hala ere, izena kritikatu zuen eta alde batera utzi behar izan zen; izan ere, ulertzen zuen zergadunaren izaerak ez duela ekarri behar administrazioari lotzeko aparteko harremanik, herritarraren izaera orokorraz aparte.

Edozein kasutan ere, Zergadunen Eskubideei eta Bermeei buruzko Legeak berrikuntza garrantzitsuak ekarri zituen, itzulketa zein ordainketei zegokienez, esate baterako zerga administrazioak zordun modura ordaintzen dituen interesak parekatzea, itzulketa epeak murriztea eta berandutze salaketa baztertzea berandutza interesak kobratzeko baldintza modura.

Horrenbestez, zerga administrazioak (herritarren zorduna denean) interesak ordaintzearen inguruko alderdia hau jorratuko dugu izaera orokorreko gomendio honen edukian.

## 1- APLIKAZIO ARAUTEGIA

1/1998 Legeak ondokoa ezartzen du:

*"10. artikulua. Zor ez diren sarrerak itzultzea.*
*Zergadunek eta euren jaraunsleek edo kausadunek eskubidea dute zerga zorrak ordaintzeko asmoz diruzaintzan egin eta zor ez diren sarrerak itzul dakizkiekeen;*

*horrela bada, horiei **berandutza interesa** aplikatuko zaie; izan ere, hori horrela ezarrita dago Zerga Orokorrari buruzko abenduaren 28ko 230/1963 Legearen 58.2.c) artikuluan.*

*11. artikulua. Bere arioz egindako itzulketak.*
*Zerga administrazioak bere arioz itzuliko ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegi zehatzean ezarritakoaren arabera bidezkoak diren zenbatekoak. Zerga bakoitza erregulatzen duten arauetan ezarritako epea edo, edozein kasutan ere, sei hilabete igarotzen badira, zerga administrazioari egotz dakiokeen karia dela eta, itzulketa egiteko ordainketa agindu barik, zergadunak eskubidea izango du Zerga Orokorrari buruzko abenduaren 28ko 230/1963 Legearen 58.2.c) artikuluan ezarritako **berandutza interesa** ordaindua izan dakion, betiere **horretarako eskabiderik egin gabe**. Ondorio horietarako, interes hori sortuko da zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egiteko duen epea amaitzen denetik itzulketa egiteko ordainketa agintzen den egunera arte."*

Zergadunen Eskubideei eta Bermeei buruzko Legea indarrean sartu zen arte, Zerga Orokorrari buruzko Legearen 155. artikuluan zor ez diren sarrerak ordaintzeko ezarritako itzulketak ezartzen zuen zor ez ziren sarrerei **diruaren legezko interesa** aplikatzea; ordainketarako ezarritako epea beteta ordaindutako zerga zorren kasuan, ordea, Herri Ogasunak **berandutza interesa** aplikatzen zien; horren zenbatekoa, beraz, Zerga Orokorrari buruzko Legearen 58.2.c) artikuluak ezarritakoaren arabera, ondoko hauxe da: interesa sortu den epean barrena indarrean egon den diruaren legezko interesa, betiere %25ean gehiturik, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak bestelakorik ezarri ezik.

Aldarazpen honen ostean, lurralde komunean ondokoak dira zor ez diren sarreren itzulketa eramentzen dutenak: aipatutako legezko arauez gain, zor ez diren zerga izaerako sarreren itzulketa egiteko prozedura arautzen duen irailaren 21eko 1.163/1990 Errege Dekretua.

Lurralde historikoen eremuan, arestian aipatutako doktrinaren sektore handi batekin bat etorriz, 1/1998 Legean jasotako eskubideak erregulatzeko arau zehatz baten onespena saihestu zen; horrela, lege horretan ezarritako eskubideak txertatu ziren zerga orokorrei buruzko foru arauen manuak eta gainerako zergak arautzen dituztenak aldaraziz.

Interesen ordainketari dagokionez, hori guztia arautzen da Arabako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauaren 145. artikuluan, Bizkaiko Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauaren 150. artikuluan eta Gipuzkoako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauaren 149. artikuluan, bai eta zor ez diren sarrerak itzultzeko beharrezko foru dekretuetan ere.

Arabako Zerga Orokorrari buruzko Arauaren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera:

> *"Subjektu pasiboek edo arduradunek eta horien jaraunsleek edo kausadunek eskubidea dute zerga zorrak ordaintzeko asmoz Foru Ogasunean egin eta zor ez diren sarrerak itzul dakizkiekeen; horrela bada, horiei **berandutza interesa** aplikatuko zaie."*

Bizkaiko Zerga Orokorrari buruzko Arauaren 150. artikuluan ezarritakoaren arabera:

*"Subjektu pasiboek edo arduradunek eta horien jaraunsleek edo kausadunek eskubidea dute zerga zorrak ordaintzeko asmoz Foru Ogasunean egin eta zor ez diren sarrerak itzul dakizkiekeen; horrela bada, **foru arau honen 58.2.b) artikuluan ezarritako interesa aplikatuko zaie".***

*(58. artikuluaren idazketa berria kontuan hartuta, honi egindako erreferentzia 58.2.c). artikuluari egin zaiola ulertu behar izango da).*

Gipuzkoako Zerga Orokorrari buruzko Arauaren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera:

*"Subjektu pasiboek edo arduradunek eta horien jaraunsleek edo kausadunek eskubidea dute zerga zorrak ordaintzeko asmoz Foru Ogasunean egin eta zor ez diren sarrerak itzul dakizkiekeen; horrela bada, foru arau honen 58.2.b) artikuluak aipatzen duen **berandutza interesa** aplikatuko zaie"."*

**Toki tributuen eremuan**, toki ogasunei buruzko foru arauekin bat etorriz, zor ez diren sarreren itzulketa lotu beharko zaio Lurraldeko Zerga Orokorrari buruzko Arauaren artikuluetan eta zor ez diren sarrerei buruzko dekretuetan ezarritakoari; horrela bada, itzulketa erakunde horietako organo eskudunek burutu beharko dute.

## 2- BERANDUTZA INTERESAREN IZAERA

Zor ez diren sarrerak itzultzeko foru dekretuen 2. artikuluak ezartzen du izaera honetako sarrera baten ondorioz itzuli beharreko zenbatekoaz gainera,

*"Itzuli beharreko kantitatearen zatia ere izango da:*
*b) Zor ez diren sarreren kantitateari aplikatu behar zaien interesa, betiere kantitatea Foru Ogasunean sartu zen egunetik edo subjektu pasiboak itzulketarako eskubidea egikaritu ahal izan zuenetik ordainketa proposamenera arte igarotako denbora tartearen arabera."*

Aplikatu beharreko interes tasa berandutzakoa izango da, hau da, Lurraldeko Zerga Orokorrari buruzko Arau bakoitzaren artikulu horietan araututakoa.

Zergadunen Eskubideei eta Bermeei buruzko Legeak aintzatesten dituen interesen helburua da zergadunaren ondare egoera berrezartzea; izan ere, pertsona horrek ez du gozatzeko aukerarik izan Herri Ogasunean sartu behar izan ez ziren diru kantitateez, baina Herri Ogasuna horietaz baliatu ahal izan da modu desegokian. Hala, manu horrek aldarazpen garrantzitsua txertatzen du zor ez den sarrera itzulia izateko eskubidea duen titularrari ordaindutako interes horien inguruan. Gaur egunera arte, zergadunari ordaintzen zaion interesa ondokoa zen: zor ez zen sarrera egindako egunean indarrean zegoen legezko interesa, betiere ordainketa proposamena egiten zen egunera arte inola aldatu barik. Oraingoan sartzen den aldarazpenaren arabera, zergadunari ordaintzen zaion interes tasa ez da izango diruaren legezko interesarena eta aurrerantzean Zergei buruzko Lege Orokorraren 58.2 c) artikuluan ezarritako berandutza interesa izango da.

Horretara, berandutza interesaren zenbatekoa izango da sortzen deneko epean barrena indarrean dagoen diruaren legezko interesa, baina %25ean gehiturik, baldin eta foru arauz besterik ezartzen ez bada [Arabako ZFAaren 56.2.c) artikulua, Bizkaiko ZFAaren 58.2.c) artikulua eta Gipuzkoako ZFAaren 58.2.b) artikulua]. Estatuaren Aurrekontu Orokorrek ezartzen dute diruaren legezko interes tasa; berandutza interesaren tasa, ostera, Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren foru arauek ezartzen dute urtero-urtero.

1993tik aurrera, indarrean egon diren interes tasak ondokoak izan dira:

**INTERES TASAK:**

| URTEA | LEGEZKOA | BERANDUTZA |
|---|---|---|
| 1999 | % 4,25 | % 5,5 |
| 1998 | % 5,5 | % 7,5 |
| 1997 | % 7,5 | % 9,5 |
| 1996 | % 9 | % 11 |
| 1995 | % 9 | % 11 |
| 1994 | % 9 | % 11 |
| 1993 | % 10 | % 12 |

Alde batetik, honek guztiak dakar zerga administrazioak eska zitzakeen zorren ondorioz (horietan berandutza interesa eskatzen da) aplikatzekoak ziren interes tasen diskriminazioa deuseztatzea, zerga administrazioak ordaindutako interes tasari zegokionez, betiere berori zenean zergadunei kantitate bat ordaindu behar ziena, legezko interesa ordaintzeko. Beste alde batetik, oraingoan interesaren kalkulua berandutzakoa denez gero, sortu deneko epean barrena indarrean dagoena izango da, hau da, urte bakoitzean indarrean dagoen interes tasa.

Berrikitan Nazio Entzutegiak, 2000ko apirilaren 6 eta 11ko epaietan, ondokoa baieztatu du: "***Konstituzioaren 3.1.1. artikuluak administrazioa ezartzen du zergadunen gainetiko egoera batean, betiere zerga betebeharrak betetzeko beharrezko neurriak hartu ahal izan ditzan; hala ere, Konstituzio Auzitegiaren 69/1996 23/1997 eta 141/1997 epaietan islaturiko jurisprudentzia konstituzionalaren arabera ondokoa ere hartu behar da kontuan: 'kalte-ordaina emateko zeregina betetzen duten berandutza interesak gure Zuzenbide Estatuaren printzipio zuzentzailea den justiziaren benetako exijentzia izanik, guztiz baztertu behar da herritarra txarrago tratatzeko aukera, betiere herri administrazioekin harremanetan dagoenean eta horien hartzekoduna denean, judizio bidez aintzatetsitako kreditu eskubidea oso-osorik konpentsatzea ez lortzeagatik. Ildo horri jarraituz, behin harreman juridikoak hobetu eta gero (horren izaera publikoa edo pribatua zein jatorria edo iturria, bai eta borondatearen edo legearen autonomia ere, edozein izan arren, edo areago, zerga edo zigor ahalgo baten egikaritza baten azken isla izan arren), ogasuna dagoeneko horren subjektua izango da, aktiboa edo pasiboa, baina jarrera nagusi edo pribilegiotsu barik...'".***

Irizpidea aldatzean, legegileak aitortu du zergadunari sortarazten zaion kaltea, zeinari ez bidezko moduan hainbat kantitate kendu baitzitzaizkion, Herri Ogasunak duenaren

bera dela, betiere zerga zordunak dirua garaiz sartzen ez duenean; hori guztia aurrerapauso garrantzitsua izan da zerga administrazioaren eta zergadunen arteko jarrera juridikoak orakatzeko eta, zalantzarik gabe, laguntzen du zergadunek zerga betebeharrak euren borondatez bete ditzaten.

Guztiarekin ere, manu honek ez du argitzen zein den interesa kalkulatzeko hartu beharreko azken epea (*dies ad quem*). Zor ez diren sarrerak itzultzeko foru dekretuen 2. artikuluaren arabera, ordainketa proposamenaren data hartzen da; edozein kasutan ere, akatsa guztiz konpondu behar dela aintzat hartuta, data izan behar da zergadunari itzulketa egiteko egunekoa eta hori beti ez dator bat proposamen datarekin.

## 3- INTERESAK ORDAINTZEA BIDEZKOA DENEKO KASUAK

Euskal administrazioak zor nagusiaren gaineko interesak ordaintzera beharturik dauden itzulketa kasuak hiru multzo nagusitan bana daitezke. Alde batetik, zor ez diren eta zentzu hertsian zerga izaera duten sarreren itzulketa legoke; beste alde batetik, tributuen arautegi zehatzean ezarritako eta administrazioaren arioz egin beharreko itzulketa; eta, azkenik, zergapekoak ez baina zuzenbide publikokoak diren sarreren itzulketa legoke. Beraz, azter dezagun zehatz-mehatz talde hauetarik bakoitza:

### 3.1. Zor ez diren eta zentzu hertsian zerga izaera duten sarreren itzulketa

Zor ez diren sarrerei buruzko foru dekretuaren 7. artikuluak zenbatzen ditu zor ez diren sarreratzat jotzen diren kasuak. Manu horren arabera, Foru Ogasunean zor ez den sarrera baten itzulketarako eskubidea aintzatetsiko da foru dekretu horretan eta, bereziki, ondorengo kasu hauetan araututako prozeduraren arabera:

> *"a. Zorrak edo zerga betebeharrak ordaintzean, bikoiztasunik egon bada.*
> *b. Ordaindutako kopurua administrazioak likidatutako edo zerga betebeharrak berak autolikidatutako zorren edo zerga betebeharren zenbatekoa baino handiagoa izan bada.*
> *c. Administrazioak likidatutako edo zerga betebeharrak berak autolikidatutako zerga zorrak sartu badira, behin horien ordainketa eskatzeko egintza preskribitu eta gero.*
> *d. Administrazioak beharrezko likidazioa egiteko duen eskubidea preskribitu eta gero, zorrak ordaindu badira horien autolikidazioa eginez.*
> *e. Administrazioak likidazio batean edo zerga kudeaketako beste egintza batean egindako akats material edo aritmetikoren bat bere arioz edo interesatuak eskatua artezten badu eta arteztu beharreko gaiak zor ez den sarrera bat eragin badu, zor ez diren sarrerei buruzko arautegian ezarritako xedapenak aplikatu behar izango dira; edonola ere, egintza burutu zuen organo berari dagokio prozedurari ekitea eta bidezko ebazpena hartzea, betiere itzulketarako eskubidea aintzatetsiz, hala badagokio."*

Ez daukate zor ez direnen izaera interesatuak zuzenbidearen araberakotzat jotzen ez duen likidazio edo autolikidazio baten bitartez egindako sarrerek. Nolanahi ere, jatorriz zor ez diren sarrera horiek zor izango dira, likidazioa edo autolikidazioa zerga arauek ezarritako prozeduren bitartez aztertua izan denean eta ezereztatua zatiz edo oso-osorik. Esan nahi baita, zerga ordaintzera behartuek Foru Ogasunean egindako sarreren itzulketa eskatu ahal izango dute, baldin eta zerga kudeaketarako bidean egindako egintzak berraztertzea eskatzen bada zuzenbide osoko deuseztapen arrazoian, legeen zein foru arauen urraketan edota xedapen berezietan zein ondoko artikuluetan ezarritako kasuren batean oinarrituz: Arabako ZFAren 143, 144 eta 164. artikuluetan; Bizkaiko ZFAren 148, 149 eta 168. artikuluetan; eta Gipuzkoako ZFAren 147, 148 eta 168. artikuluetan.

Itzulketara eskubidea soil-soilik sortzen da, behin beharrezko egintza berrikusi eta gero. Horretara, itzulketa prozeduraren betearazpen faseari ekin behar zaio, likidazioa ezeztatzen duen ebazpen administratibo edo judizialean jadanik adierazi baita itzulketarako eskubidea. Kasu hauetan, ebazpen administratiboak edo judizialak euren baldintzen arabera beteko dira; horretarako, nahiko izango dira judizioko ebazpenaren edo epaiaren lekukotza edo beharrezko erabaki edo ebazpen administratiboa edo horien kopia erkatua, administrazioaren organo eskudunek itzulketa egin dezaten, behin erabaki edo ebazpena irmoa dela (edo, horrela ez bada, burutu behar dela) eta sarrera egin zela egiaztatu ondoren. Era berean, egiaztatu behar izango da sarrera ez dela itzuli eta ez dela itzulketarako eskubidea preskribitu. Hori horrela izango da, baldin eta azken zirkunstantzia horiek erabaki edo ebazpenean bertan egiaztaturik ageri ez badira.

## 3.2. Itzulketak administrazioaren arioz

Zergarik garrantzitsuenak (**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren Zerga**) administrazioaren arioz itzultzeko kasuetan bidezkoak diren interesei dagokienez, Zergadunen Bermeei eta Eskubideei buruzko Legeak hiru berrikuntza nagusi ekarri zituen 1997ko abenduaren 31ra arte indarrean egon zen arautegian ezarritakoaren aldean:

**- Itzulketa epea 6 hilabetekoa.**

Epe hori igaro eta itzulketaren ordainketa agindu ez bada zerga administrazioari egotz dakiokeen karia dela eta, zergadunak eskubidea du beharrezko interesa ordain dakion, betiere interesak sortzen hasten diren epea hilabetean murriztuz, lehenago zazpi hilabetekoa baitzen. Interesa, bada, sortuko da zerga administrazioak behin-behineko likidazioa egiteko duen sei hilabeteko epea amaitzen denetik hasita beharrezko itzulketa ordaintzea agintzen den egunera arte.

**- Berandutza interesa ordaintzea.**

Administrazioak ordaindu beharreko interes tasa Tributuei buruzko Lege Orokorraren 58.2.c) artikuluan ezarritako berandutza interesa da eta ez diruaren legezko interes tasa, 18/1991, 43/1995 eta 37/1992, lurralde komunean, hurrenez hurren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Balio

Erantsiaren Zerga arautzen zituztenak, 1997ko abenduaren 31ra arte izan zuten indarreko idazketaren arabera.

**- Ez da beharrezkoa interesen ordainketa eskatzea.**

1997ko abenduaren 31ra arte indarrean egon ziren arauetan ezarrikoaz bestaldera, oraingoan ezartzen da zergadunak ez duela interesen ordainketa eskatu behar horiek berez sor daitezen; izan ere, lehengo legeriaren arabera, interesak soil-soilik sortzen ziren interesen ordainketa beren beregi eskatzen bazen, betiere itzulketa egiteko zazpi hilabeteko epea igarotzen bazen berori gauzatu barik.

### 3.3. Zor ez diren sarreren gaineko foru dekretua aplikatzeko beste kasu batzuk: zergapekoak ez baina zuzenbide publikokoak diren sarreren itzulketa

Zor ez diren sarreren gaineko Foru Dekretuaren xedapenak ordeztaile modura aplikatzen dira zergapekoak ez baina zuzenbide publikokoak diren sarrerak itzultzeko orduan. Batez ere, azken urteetan toki administrazioak finantzatzeko sisteman garrantzi handia hartu duten **herri prezioen kasuan** eta **diru zehapenen kasuan**. Hori dela eta, toki administrazioek egin beharreko izaera honetako itzulketek izan beharko dute eurei dagozkien berandutza interesak.

## 4- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Aipatutako arauen multzoak taxutzen duen eskemak ez du uzten zalantzarako tarterik, betiere administrazioak bere arioz ordaindu behar dituen berandutza interesei dagokienez, zergapekoak bai baina zuzenbide publikokoak diren sarreren kasuan nahiz tributuen arautegi zehatzean ezarritako itzulketen kasuan. Hori guztia horrela izanik ere, egia da, gaur egun oraindik ere, interesatuak ordainketa hori beren beregi eskatu behar izaten duela behin baino gehiagotan.

Are larriagoa da interesatua zorraren zati nagusia berreskuratzearekin pozik egotea, behin tributuen errekurtsoen egitura korapilatsua agortu, isiltasun administratiboaren praktika hedatuagoa saihestu eta ebazpen administratibo batzuen funts urria edo hutsa gainditu eta gero.

Adibide modura eman dezakegu EAEko udal garrantzitsu batek emandako argudioa, herritar batek ibilgailua kentzeagatiko tasa itzultzeko egindako eskabideari erantzuteko; izan ere, bertan ondorio modura adierazten da likidazioa egiteko jarduera ez zela zuzenbidearen araberakoa izan.

Kexa espedientea tramitatu behar zela-eta egindako eta Arartekori 2000ko abenduan igorritako udal txostenean ondorengoa zehazten zen: *"zor ez zen tasa modura sartutako kantitateari dagozkion interesak itzultzeko betebeharra ez da antolamendu juridikoan ageri..."*; eta modu honetara amaitzen zen: *"erreklamazio egileak ez du garbi zehazten zein den zor ez diren kantitateei aplikatu beharreko interes tasa, ezin da kopuru zehatza ezarri, betiere 30/92 Legearen 139. artikuluan eta*

*hurrengoetan, 4/1999 Legeak ematen duen idazketaren arabera, ezarritakoarekin bat etorriz...”.*

Auzitegi Gorenak 1998ko uztailaren 8ko auto batean ondokoa gogorarazten du: *“Zergaduna zerga betebeharrak soilik ordaindu behar izango ditu horiek zuzenbidearen araberakoak direnean; aitzitik, zerga administrazioaren ez legezko egintzak direla eta, ez du ez legezko zerga betebeharrik jasan behar, ez eta horiei darien inolako kalterik ere; horixe da aldarrikatu beharreko funtsezko ideia eta horrela aldarrikatzen da 1.163/1990 Errege Dekretuan, zergadunak antolamendu juridikoa betetzen duenean, nahiz eta egindako likidazioarekin bat etorri ez, beharrezko kantitatea sartuz edo beharrezko etendura administrazio bidean lortuz, behin arauzko bermeak bete ostean; alabaina, eta hau garrantzi handikoa da, ideia bera aldarrikatu beharra dago, zergadunak zerga likidazioarekiko desadostasuna guztiz azaltzen duenean, administrazioaren egintzen legezkotasunaren printzipioa baztertuz, diru sarrera ukatuz eta, beraz, derrigorrezko betearazpenean sartuz; izan ere, kasu honetan betebeharra zuzenbidearen kontrakoa zela frogatzen bada, administrazio publikoak premiamendu errekarguaren kalte-ordaina ordaindu beharko dio, bai eta betearazpen prozeduraren kostuena, premiamendu prozedura horretan ordaindutako interesena ere…”.*

Azaldutako guztia dela eta, EAEko zerga administrazioei ondoko hau guzti gogorarazi behar zaie:

- Zergadunen Bermeei eta Eskubideei buruzko 1/1998 Legea eta lurralde historikoetan zergei buruzko foru arau orokorretan sartutako aldarazpenak onetsi eta gero, administrazioak ordaindu beharreko interes tasa izango da berori sortzen den epean indarrean dagoen berandutza interesa, bai zor ez diren sarreren itzulketei dagokienez bai administrazioaren arioz egiten diren itzulketei dagokienez.
- Interesa kalkulatzeko azken epetzat hartu behar den unea zergadunari benetako itzulketa egiten zaionekoa da eta ez ordainketa proposamenekoa.
- Administrazioak berandutza interesa aplikatu behar izango du eta ez da beharrezkoa izango zergadunak horren ordainketa beren beregi eskatzea.

# 3. ASTEBURUKO ATXILOKETAK ETA ESPETXEKO ZIGORRAK BETETZEKO ERA ALTERNATIBOAK: EAE-REN ERANTZUKIZUNAK

## 1. Sarrera

Sarritan baieztatzen da gizarte batek duen garapen maila bere espetxeen kalitatearen arabera neur daitekeela. Gure ikuspegitik, hasi berria den XXI. gizaldi honetan, arestian egin den baieztapen horrek beste bat beharko luke osagarri gisa: zigorrak ezartzen dituen sistema baten giza eskubideek lortzen duten maila hertsiki lotuta dago sistema horretan askatasuna kentzeko zigorren mailen bide alternatiboekin.

Bada, ildo horretatik, Arartekoak uste du Konstituzioaren 25.2. artikuluan ezartzen den agindua erabat betetzeko -horren arabera zigorren xedea presoak gizarteratzea da- azken neurria espetxeratzea litzatekeela, hots, arau-hausterik larrienak zehatzeko neurria baino ez litzateke izango, hau da, neurri arinagoak aplikatuz aurrearreta-emaitzarik lortu ezin denean erabili beharrekoa.

Erakunde honek 1996an argitaratu zuen *Euskadiko espetxeen egoerari buruzko Txostenean* argi islatu zuen beharrezkoa zela herri iritziari espetxearen alternatibak diren neurriei buruzko informazioa ematea, eta baita horien aplikazioa sustatzea eta indartzea ere. Izan ere, hasierako aholkuan esaten zen komeni zela E.A.E.k espetxeen esparruko eskumenak osatzen dituzten betebeharrak hartzea, eta, gero, beste aholku orokorragoa egin zen, ondokoa alegia.

*"2. Zigor Kode berrian ezarri diren zehapen alternatiboak betearazteko bidea emango duten beharrezko azpiegiturak sortzea."*

Halaber, Arartekoak Eusko Legebiltzarrerako gertutu zuen 1999ko txosten arruntean bide horretatik doan aholkua egin zuen, hau da, *Euskal Administrazioek erkidegoaren onurarako diren lanak egiteko hitzarmenak harpidetzeko eta sustatzeko beharrizana*. Arazo bera aztertu zen Arartekoen Koordinaziorako XV. Jardunaldietan, 2000ko ekainaren 29 eta 30ean Vitoria/Gasteizen egin zirenetan. Gune horretan Arartekoak AA.EE.k zigor alternatiboen aplikazioan eta erregimen irekia betearazterakoan dituzten erantzukizunei buruzko komunikazioa aurkeztu zuen. Aldi berean azpimarratu zuen euskal gobernuak espetxez kanpoko unitateak abian jartzeko aukerak zituela eta horietan zilegi litzatekeela espetxe-zigorra erregimen irekian betetzea. Beraz, orduan ere erakunde honek berriz aldarrikatu zituen erkidegoaren onurarako lanen zigorrak birgizarteratzeko indarra zuela (TBC-EOL). Txosten horren testua II. eranskinean irakur daiteke.

Arestian adierazi den ikuspegi bera du aholku orokor honek eta zigorrak ezartzeko egun indarrean dagoen sistemaren azterketarekin jarraitu nahi du eta, berariaz, sistema honek espetxea ez diren beste zigor batzuk aplikatzeko ematen dituen aukeren bidea jorratu. Azken finean, helburua delituak egin dituztelako zigortu diren pertsona horiek berriz gizarteratzen laguntzeko biderik egokiena askatasunaren galera hori ekiditea, moztea edo, gutxienez, arintzea dela, eta horretarako bide alternatiboak erabili behar direla.

## 2. Asteburuko atxiloketen zigorra

Asteburuko atxiloketa (AA) zehapen berria da, 1995eko Zigor Kodean (ZK) aurkeztu dena. Zigor hau, oraindik ere zuzenbide erkatuan bitxia eta oso gutxitan erabilia dena, ez da, zorrotz hartuta, askatasuna kentzearen benetako alternatiba, baina esan behar da ohiko espetxe zigorrarekiko nolabaiteko aldaketa eragiten duela betetzeko erari dagokionez: ez da jarraian egiten, motzak diren espetxeratzeen bitartez baizik.

### a) Legezko araupetzea

Z.K.ren 37. artikuluan ezarri denaren arabera, zigortzeko era horretan atxiloketa kopuru jakin bat ezartzen da -bat eta hogeita lau artekoa-, eta horietan zehar zigorra jaso duen pertsonak hogeita hamasei ordu egingo ditu atxilotuta etxetik hurbilen duen espetxean. Oro har, zigorra asteburuetan beteko du (ostiraletik igandera), baina betearazteko beste egun batzuk eta hauta daitezke.

Egia esan egineran oso gutxi dira AA zigorra jasotzen duten legez aurkako egintzak. Hoben batzutan ezartzen da -esaterako, etxeko tratu txarrak- eta beste zenbait delitutan (edari alkoholdunen eraginpean gidatzea, motoredun ibilgailua legez aurka erabiltzea, edo axolagabekeriaren emaitzako zauriren batzuk), eta adierazi den zehapen hori ezartzeko legezko manuak Auzitegietan gutxien ezartzen direnen artean daude, baina horrek ez du esan nahi horrelako gertaerak gutxitan egiten direnik (besteak beste, ingurumenaren edo herri ogasunaren aurkako delitu batzuk, aizunkeriaren batzuk, justizia eragoztea edo besteren batzuk, adibidez, sexu jazarpenak edo ezkontideak banantzen direnean emaitzako pentsioak ez ordaintzea). Praktikan honek guztiak esan nahi du zigorrak ez direla asko eta, kasu askotan, zigorra era baldintzatuan eteteko eskatzen diren inguruabarrak gertatzen direla, eta, ondorioz, AAk ez direla, azkenean, betetzen.

Beste alde batetik, legeak bideak ematen ditu AA zehapena isunengatik edo erkidegoaren onurarako lanagatik ordezteko, eta, kontrara, zilegi da isunak egon direnean erantzukizun subsidiario pertsonal mailan atxiloketak ezartzea. Halaber, kasu jakin batzuetan, zilegi da AAak ezartzea urte batera arteko espetxe zigorren kasuan eta, aparteko kasu batzuetan, baita bi urteko iraupena duten espetxe zigorren kasuan ere. Horrela gertatuz gero, atxiloketen kopurua 104 edo 208ra igo daiteke, eta horrela zigorraren betearazpena izugarri luzatzen da eta -gure ustez- erabat galtzen dira askatasuna eteteko zigor honek dituen abantailak.

Ildo horretatik, AA zigorrari, horien kontrako jarrerak izan arren, alderdi positiboak aintzatesten zaizkio: baieztatu egiten da, esaterako, espetxean ixteak eragiten dituen kalteetatik asko ekiditen direla (gizartearekiko loturaren galera, estigmatizioa, etab.), eta zigorra jaso duen pertsona horrek harreman familiar, laboral eta sozialekin jarraitzeko aukera izaten duela, eta, hasieran behintzat, ez duela bereizketarik eragiten.

Ustez dituen abantaila horiei kontrajarrita -gure iritziz errealak baino teorikoagoak direnak-, hamaika dira AAk betearazterakoan sortzen diren arazo handiak. Arestian esan den bezala, legeak zigorra atxilotuaren egoitzatik hurbilen dagoen espetxean betetzea aurreikusi du. Kasu askotan horrek, berez, distantzia handia dela esan nahi du, eta makina bat arazo lekualdaketak egiterakoan, batez ere atxiloketa igandearen azken

orduetan bukatzen bada. Baina eragozpenik handienen arrazoiak espetxeek AAk era egokian betearazteko dituzten baldintzak dira.

Seguruenik akats horiek ongitzearen ondoreetarako Z.K.ren 37. artikuluak ondokoa ezarri du: *baldin eta inguruabarrak hori aholkatzen badute*, pertsona zigortua bizi den epai-barrutian espetxerik ez badago, AA *horretarako aukerarik badago behintzat, atxilotuentzako udal gordailutegietan bete daiteke*.

b) **Egoera EAEn**

Ez da gauza erraza aztergai dugun zigor honek Euskadin duen aplikazioari buruzko daturik biltzea. Dena dela, adierazgarriak izan daitezke Donostiako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzaren 1999ko Memorian azaltzen diren iruzkin hauek (153 o.):

> "*Martuteneko espetxean ez dago inolako instalaziorik zigor mota hau modu eraginkorrean eta baldintza egokietan era doi eta isolatuan betetzeko, eta ez dute kapazitate nahikorik, eta, ondorioz, praktikan ez da batere eraginkorra. Horregatik Jurisdikzioko Organoek horien aplikazioa eta betearazpena muga ditzakete maila errealean ezinezkoa delako baldintza egokietan betetzea.*
> *Memoria hau egiterakoan adierazi behar da 1999 urtean zehar guztira 31 pertsona izan direla Asteburuko Atxiloketa zigorra bete dutenak, eta 199 daude betetzearen zain*".

Beste alde batetik, Vitoria/Gasteizko Auzitegi Probintzialeko Fiskaltzak ondoko datu hauek eman ditu Langraitz herriko espetxeari buruz: 1999an zehar 266 espediente tramitatu ziren (%77 gizonezkoenak eta %22 emakumezkoenak), eta horietatik - 2000ko otsailaren hasierara arte- guztira 94 bete ziren (%29,65). Espetxeko zuzendaritzak AAk eragiten duen *gehiegizko burokraziaren* arazoa azpimarratu zuen.

Erakunde honek ahaleginak egin ditu 2000 urtean EAEko hiru espetxeetan burutu diren AAi buruzko datuak biltzeko baina datuok zuzkitu dituen zentro bakarra arestian aipatu den Langraitzkoa baino ez da izan; datuok hauek dira:

> "*Espetxean Asteburuko Atxiloketa zigorrak betetzeko askatasun egoeratik sartu diren pertsonak, 2000 urtean zehar, 28 gizonezko eta 8 emakumezko izan dira. Zigorrak gizonezko eta emakumezkoen sarrera sailetan bete dira. Sai horietan ziega indibidualak daude (konketa eta komuna), dutxa erkideak eta patio orokorra*".

Beraz, AAk betearazteko portzentaia baxu horrek esan nahi du espetxe zigor laburrak ordezteko alternatiba eraginkor mailan porrot egin duela. Areago, 1995eko ZKak ezabatu nahi zuen sei hiletik beherako espetxe zigorrak aurrera egin du, zeharka, beste bi bidetatik. Alde batetik legeak ondorio oso gogorrak aurreikusten dituelako bidezkotu gabeko bi ausentzia egiten dituenarentzat: zigorra etenik gabe betetzea erabaki daiteke, eta horrek askatasunaren galeraren iraupena luzatzen du, atxiloketa honen 36 orduak espetxean bi egun bihurtzen direlako (48 o.) eta, hori guztia, zigorra hausteak eragin dezakeen zehapena gorabehera.

Beste alde batetik, eta nahiz eta hau ez azaldu legean berariaz, kasu batzuetan AA etenik gabe gertatzen da, beste kondena batzuk dituztelako espetxean dauden pertsonak

izateagatik edo atxilotuak uste duelako zigorra betetzeko era hau arinagoa dela. Ildo horretatik Langraitzko Espetxeak ondoko datu hauek eman dizkigu:

> "*Espetxean Asteburuko Atxiloketa zigorra etenik gabe betetzeko askatasun egoeratik sartu diren pertsonak, 2000 urtean zehar 6 gizonezko eta 7 emakumezko izan dira. Zigorra betetzeko era hori hautatzearen arrazoia burutzapen plana egiterakoan edo ezarri zaien zigorra hausterakoan presoen berariazko asmoa da*".

Hau gorabehera, kontuan hartu behar da legeak ezarri duen betearazpen erregimenaren zurruntasunari (isolamendua ziegan, komunikaziorik eza,...), beste inguruabar bat batu behar zaiola, hots, AA zigorra bete behar dutenek jarraikako bide hori hautatzen dutenean, ez direla espetxeko tratamendu graduetan sailkatzen eta, gainerako presoekin gertatzen ez den bezala, ezin dutela haizugorik gozatu edo erregimen irekirik izan.

AA zigorra betetzeko espetxean sartzeak sortarazten dituen eragozpenak ikusirik -eta, zergatik ez, kontraesanak-, erakunde honek ahaleginak egin ditu pertsona atxilotuak atxiloketa aldi horiek udal gordailutegietan egiteko bidea ematen duen legezko aukera horren aplikazioaren gradua ezagutzeko. Gai honi dagokionez gogorarazi behar da aurreko urteko beste txosten batzutan atxilotzeko zentro horiek beraien helburuak betetzerakoan zituzten gabeziak eta mentsak azpimarratu genituela; bada. mentsa horiek areagotu egiten dira AAk betearazteko aukerak ematerakoan, eta esan behar ezinezko bihurtzen dutela erregimen hau. Espainiako Herriaren Defendatzaileak, *Espetxeen eta Atxilotuen Udal Gordailutegien Egoera (1988-1996)* Txostenean, ondorio bera izan zuen Euskadin bisitatu zituen ziegei buruz.

Bestalde, ZK berria indarrean jartzeak udaletan erantzukizun hori eragin eta denbora gutxira, Arartekoak EUDEL erakundeak Eusko Jaurlaritzan egin zituen kudeaketa batzuen berri izan zuen; kudeaketa horiek, udal gordailutegietan betearaztea ezinezkoa zen kasuetan AAk Ertzaintzaren ziegetan egiteko aukera aztertzeko ziren. Erakunde honek ez du oraindik ezagutzen zein izan zen kudeaketa horien emaitza; gai honi dagokionez egon daitekeen ustezko akordioari buruzko informazioa eskatu dugu eta ondore horretarako hala Herrizaingo Sailarengana nola Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarengana jo dugu, baina ez dugu gai horri buruzko erantzunik jaso. Beste alde batetik, EUDELek 97-02-18ko idazki baten kopia igorri digu; idazki horren bidez orduan Justizia Sailburua zenak maila bera zuen Herrizaingokoari galdera egiten zion ea zilegi zen AAk betetzeko Ertzaintzaren ziegak erabiltzea. Baina arestian adierazi dugun EUDELek ez du Herrizaingo Sailak eman zion erantzuna ezagutzen.

Erakunde honek, aldi berean, berariaz jo du Eusko Jaurlaritzako bi sail horiengana azken bi urte hauetan udalen gordailutegietan edo Ertzaintzaren ziegetan betearazi diren AAn kopuruari buruzko datuak jasotzearen ondoreetarako. Azken aukera horri dagokionez, Herrizaingo Sailak erantzun digu esanez 1999 eta 2000 urteetan ez dela kasu bat ere egon. Justizia Sailak ez digu erantzun, eta, ondorioz, gai horri buruzko daturik ez duela suposatu behar dugu .

Labur bilduta, ematen du ez dela AArik egiten udalen gordailutegietan edo Ertzaintzaren ziegetan.

Dena den, argi dago egungo atxiloketa zentroek ez dituztela askatasun kenketak betetzeko beharrezko baldintzak betetzen, nahiz eta horren iraupena 36 ordukoa izan. Azpiegiturarik ez dago (patioa, ziegetako altzariak, etab.), baina egon daude beste

beharrizan batzuk ere, esaterako laguntza sanitarioari buruzkoa, eta, batez ere, atxilotuei jaramon egiteko eta horiek zaintzeko gaitasuna duen pertsonala faltatzea.

Ildo horretatik, Udal Administrazioaren Nazio Batzordearen barruan atxilotuen udal gordailuei buruz lan egiteko eratu den taldeak, Herriaren Defendatzailearen aholkuak abiaburutzat hartuta, ondorio batzuk azpimarratu zituen. Zerbitzugintza hori finantzatzeko behar den zenbatekoa kalkulatu ez ezik (ikusi Barne Ministerioaren 2000-03-06ko Agindua), eta lokal horiek egokitzeko beharrezkoak diren inbertsioen gastuak estaltzeko Udalei dirulaguntzak emateaz gain, atxilotuen zaintzaren arduradunak diren Udaltzaingoko funtzionarioentzako prestakuntza iraunkorra gertutzea komeni zela ezarri zen, eta baita AAn betearazpena legezko berme guztiak betez egiteko beharrezkoa den laguntza teknikoa eta juridikoa ematea ere.

Azken finean, gure ikuspegitik, Espetxeetako Administrazioak AAk betetzeko zentro egokiak sortzeko egin behar dituen inbertsioak aparte utzita -Espetxeei buruzko Araudian gizarteratzeko zentroak izenarekin azaltzen direnak-, ematen du argi dagoela gobernu autonomoak ere erantzukizunak dituela arlo honetan, eta ezin dituela gehiago geroratu.

## 3. Askatasuna kentzeko zigorra ez diren beste alternatiba batzuk

Zehatzegi jokatu gabe -kasu honetan gure helburua ez delako zigor mailako azterlan juridikoa egitea, euskal administrazio publikoak pertsona zigortuen gizarteratzean jarduteko dituen aukeretara hurbiltzea baizik-, jarraian askatasuna kentzea ekiditen edo murrizten duten eta legeak aurreikusten dituen beste neurri batzuk aztertuko ditugu.

### a) Zigorra erregimen irekian betetzea, edo espetxez kanpo betetzea

Gauza nabarmena da espetxeko zigorrak erregimen irekian betetzeak, nahiz eta askatasunaren galeraren alternatiba ez izan, espetxeko zurruntasunaren murrizketa handia eragiten duela eta, ondorioz, itxita egoteak berez eragiten dituen kalteak arintzen dituela. Arestian ere aipatu ditugun Arartekoen Koordinaziorako XV. Jardunaldietan Arartekoak aurkeztu zuen adierazpen horretan erdi-askatasunezko erregimenaren aukerak aztertu ziren, eta baita euskal administrazio publikoak arlo honetan esku-hartzeko dituen aukerak ere. Txosten horren testua (berariazko interesa duen irakurleak II. eranskinera jo dezake). Dena dela, aholku orokor hau egiteko tratamenduko hirugarren graduan sailkatuta dauden presoei buruzko datuak biltzeko ahalegina egin dugu -hots, erregimen irekira iristeko aukerak dituztenak-, eta baita euskal gobernuak gai jakin honetan izan dituen ekimenei buruzkoak ere.

Lehen galderari dagokionez, Langraitzko Zentroaren informazioa baino ez dugu jaso. 2000-11-01ean zentro horretan 48 ziren erregimen irekian zeuden presoak; horietatik 22 erregimen ireki murriztuan zeuden eta 26 egunero ateratzen ziren espetxetik lanera, ikastera, etab. Emakume presoei dagokienez -esan behar da ez dutela sail bereizturik eta, ondorioz, moduluak bigarren graduko sailkapena duten presoekin konpartitzen dituztela- arestian adierazi den data horretan 5 ziren erregimen ireki arruntean zeudenak, eta 4 murriztuan.

Beste alde batetik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarengana jo genuen besteak beste ondoko datu hauek eskatuz: "*Erregimen irekian espetxeko zigorrak betetzeko zentroen zerrenda eta deskripzioa -'Menpeko unitateak», Espetxeei buruzko Araudiaren 165. artikuluaren arabera (EA)-, gaur egun Euskadiko Autonomia Erkidegoan egon daitezkeen elkarte edo erakunde publiko edo pribatuek kudeatzen dituztenak* ". Sail horrek eman duen erantzun bakarra ondoko baieztapena izan da: "*Ametzagaña, Martuteneko Espetxearen Menpeko Unitatearen bidez hainbeste erregimen ireki eta betetze alternatibo bermatu da* ".

Preso gazteentzat (gizonezkoak) den Ametzagañako Zentroaren esperientziak iruzkin positiboak jaso zituen arestian ere aipatu den Euskadiko Espetxeen Egoerari (1996) buruzko Txostenean, nahiz eta zentro horretan sartzeko ezarri ziren beharkizun zorrotzak nabarmen jaisten zuen presoen kopurua (1995eko abenduan 11 gazte zeuden, plazak 18 izan arren).

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak zuzkitu digun informazioan oinarrituta esan daiteke 1996ko EA indarrean jarri ondoren oraindik ere espetxeetakoak ez diren beste erakunderen batek ez duela abian jarri zigorrak erregimen irekian betetzeko beste unitaterik.

Askatasuna kentzeko zigorra betearazteko beste aukera bat EAren 182. artikuluak arautu duena da; artikulu horrek bidea ematen du hirugarren graduko sailkapena duten presoak espetxez kanpo eskaintzen diren drogamenpekotasunetatik ihes egiteko tratamendu zehatzetara hel daitezen. Langraitzko Espetxeak eman duen informazioaren arabera, data horretan (2000-11-01), 7 kasutan aplikatzen zen adierazi den manu hori (6 gizonezko eta emakumezko 1). Gai honi buruzko beste datu batzuk kontsulta daitezke *Euskadiko Espetxeen Egoerari buruzko Txostenaren* bidezko atalean sartzen diren tauletatik azkenean (I. kapitulua, 1.1.1) drogamenpekotasunetan esku-hartzeko egitarauak aztertzen direnean *erkidegoaren bitartekoetara egiten diren deribazioei* buruzko informazioa ematen duelako.

Halaber, erakunde honek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari zigorra ohitura galtzeko zentroetan betetzeari buruzko informazioa eskatu zion, baina ez dugu gai horri buruzko berariazko erantzunik jaso. Jaso dugun gauza bakarra sail horrek 1999 eta 2000ean espetxeak ez diren bide alternatiboen proiektuetan eman dituen dirulaguntzei buruz egin zaion beste galdera batetik atera dugu; adierazi duenean laguntzak emateko deialdien bidez *"zigorra era alternatiboan betetzeko presoak jasotzen dituzten erakundeetarako bitarteko ekonomikoak bideratzen direla, hala drogamen-pekotasunetatik birgaitzeko zentro moduan nola senda ezinak diren gaixotasunak dituzten presoei jaramon egiteko zentroak"*.

Informazio horien emaitza izan daiteke Eusko Jaurlaritzaren sail horrek ez duela zigorra espetxez kanpoko zentroetan betetzearen esparruan ematen dituen dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde eta elkarteen bidez ematen diren zerbitzuen erregistro sistematizatu eta eguneraturik. Nabarmena da espetxeen arloko eskumenei dagozkien funtzioak ez onesteak «mugako» arazo hauen kudeaketa konplikatzen duela, eta, halaber, argi dago informazioan antzeman diren mentsa horiek herri fondoekin finantzatzen diren zerbitzugintzen plangintza eta kontrolaren nolabaiteko falta frogatzen dutela, eta baita Justizia Sailaren eta espetxeetako erakundeen arteko koordinazio arazo argiak ere.

Ildo horretatik, ezin da ahaztu, maila formalean baino ez bada ere, indarrean jarraitzen duela 1994an Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak sinatu zuten

lankidetzarako hitzarmen markoak; hitzarmen horretan erregimen irekiaren arloko jarduera koordinatuaren esparruak sartzen dira.

b) **Askatasuna kentzeko zigorrak etetea**

Azken hamar urte hauetan Euskadiko Birgizarteratzeko Institutua (IRSE-EBI) izan da hiru euskal hiriburuetan eta Barakaldon dauden justizia auzitegietako Atxilotuaren Laguntza eta Gizarte Orientazio Zerbitzuak (SAOS-ALGOZ) kudeatu dituena. Zerbitzu hauek -Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak finantzatuta - gainikusten dituzte "betetze alternatiboak", legezko oinarririk eduki ez arren oso adierazgarria den denominazio erabat hedatua erabiliz.

Bizkaiko ALGOZak, Neurri Alternatiboen Egitarauaren 1998ko Memorian, neurri horiek honela zehaztu zituen: "oinarri soziopedagogikoa duen zigor mota, ezaugarritzat zaintza eta laguntzaren konbinazioa dituena». Neurri horien bitartez erantzun norbanakotua eman nahi da eta, prozesatuaren inguruabar pertsonalak eta sozialak kontuan hartuta, pertsona hori berriz gizarteratzea erraztu. Kasu batzuetan ALGOZen proposamenak aurrearretazko espetxeen ordezkotzat planteatzen dira, baina, kasurik gehienetan, hala zigorraren betearazpena era baldintzatuan etenda nola egotzi ezinak diren edota egozgarritasuna murriztuta duten legez aurkako gertaeren egileentzako segurtasun neurrien bidez.

ALGOZetako profesionalek organo judizialen, zigor jurisdikzioari lotuta dauden pertsonen eta erkidegoaren gizarte baliabideen arteko zubi lana egiten dute, benetan beharrezkoa dena. Ia kasu guztietan esku-hartzearen arrazoirik behinena toxikomania izaten da, edo/eta buruko osasuna, nahiz eta, salbuespen moduan, delituak egiteko jokaera sortarazten duten beste faktore mota batzuengatiko espetxearen neurri alternatiboak proposatu.

Gizarte txostenak eta espetxean sartzea ekiditeko proposamenak ez ezik, ALGOZek neurri jakin batzuen kontrola eta jarraipena egiten dute, horien izaeraren arabera. Adibidez, baldin eta neurria drogamenpekotasunaren ohitura galarazteko zentro baten sartzea bada, hori betetzen dela gainikustearen erantzukizuna zuzenean har dezake zentroaren erakunde kudeatzaileak edo ALGOZak. Beste kasu batzuetan beharrezko jokaerak, presoaren ohituren aldarazpenak,... egiten direla kontrolatu behar da, eta, normalean, zerbitzu horren langileak izaten dira horien arduradunak.

Aztertu diren zerbitzu horiek zenbatestearen ondoreetarako erakunde honek Bilbo, Donostia/San Sebastián eta Vitoria/Gasteizko bulegoetara jo du datuen eske eta zehatz-mehatz eskaini dizkigute, nahiz eta berez beterik dagoen IRSE-EBIko langileen lan-agenda beteegian oraindik ere lan gehiago eragin Ez da bidezkoa orain erkatzeko analisia egitea, hala irizpideak nola antolakuntza eta organo judizialekin koordinatzeko motak desberdinak direlako hiru lurralde historikoetan, baina interesgarria da datu batzuk ematea:

Bilboko ALGOZak 2000 urtean 44 kasu aztertu ditu eta horien zerrenda igorri digu. Donostiako zerbitzuak, urte berean, 91 neurri alternatibo aplikatzeko proposamen formulatu ditu eta 53 kausa judizialen jarraipena egin du. Bestalde, Vitoria/Gasteizko AlGOZak esan digu azken urtean 140 neurri betearazi dituela.

Jarduera horien mota eta banaketa antzekoa da hiru lurraldeetan. Egileari egozteko edo zati baten egozteko kasuren batean izan ezik, hau da, horrelakoan zigorraren ordez segurtasun neurri bat aplikatzen delako, gainerako kasuetan zigorra era baldintzatuan

etenda dutenak dira. Halaber, zigorra jaso duten ia pertsona guztiek drogamenpekotasun arazoak dituzte eta, sarritan, buruko osasuneko beste arazo batzuei lotuta. Adibide moduan, Arabari dagokion zerrenda laburtzen dugu:

a) Zigorraren eten baldintzatua, drogamenpekotasun kasuetan (ZKren 87. artikulua): 114 kasu, horietatik 2 alkoholzaletasunekoak.
b) Eten baldintzatuaren beste kasu batzuk (ZKren 80-83. artikuluak): 17 kasu; horietatik 10 derrigorrez ALGOZen aurkeztera behartzen dutenak, zertarako- eta *jardueren berri emateko eta horiek bidezkotzeko* (ZKren 83.3. artikulua).
c) Pertsonei egotzi ezin dakizkiekeen segurtasun neurriak edo egozgarritasuna murriztuta duten pertsonak: 6 kasu.
d) Bestelakoak: 3 kasu, horietatik bi indultuak.

Adierazi den bezala, jardueren kopuruetan dauden aldeak ez dira adierazgarriegiak, ALGOZen funtzioak eta epai organoekin dituzten harremanen arintasunak bereziak direlako lurralde bakoitzean eta, horien barruan ere, aldagarri askori lotuta daudelako eta horien artean funtsezkoak dira epailearen iritzi pertsonalak: zerbitzuaren ezagutza, horri buruz egiten duen balorazioa, alternatibei buruz berak uste duena, eta abar. Beste alde batetik, egon daude neurri zehatzak ezartzen dituzten epaitegiak, adibidez, pertsona salatuaren defentsak eskatuta, eta ez dute inguruabar hori ALGOZen eskuetan jartzen edo, jakina, ez dute horien lankidetzarik eskatzen.

Erakunde bermatzaile honen ikuspegitik IRSE-EBIetako langileek egiten duten lan hau oso positiboa da eta zerbitzuok eragin handia izan dute espetxea ez diren zigorren aplikazioan eta, azken finean, hobeto zaintzen dituzte berriz gizarteratzerakoan norbanakoak dituen beharrizanak. Dena dela, nabarmen hobe daitezke profesional horiek dituzten lan-baldintzak.

Alde batetik, epai organoen independentziarekiko begirune osoz, kasu batzuetan horien eta zigortuaren inguruabar pertsonalei erantzun egokiak emateko oso erabilgarriak izan daitekeen ikuspegi sozioasistentziala zuzkitzeko sortu diren zerbitzu osagarrien arteko komunikazio eta koordinazio falta igartzen da. Gure aburuz zuzenbidea aplikatzen dutenek (epaileek, abokatuek, etab.) ALGOZek egiten dutenari buruzko informazio osoa izan behar dute , eta oso ondo jakin behar dute nola eskuratu zerbitzu hori eta, ondorioz, zerbitzu horrek erkidegoaren bitartekoen arloan duen ezagutza erabili. Badirudi argi dagoela ALGOZen hedakuntza eta sustapen lan hori Justizia Sailak baino ezin duela egin eta hori egiteko bidea zerbitzu horiei agintzen zaizkien lanen garapenean gehiago murgiltzea dela.

Beste alde batetik, esan behar ez dela erraza zerbitzu horien eraginkortasuna edo egon dauden beharrizanekiko duten egokitzapena neurtzea, arestian ere ohartarazi den bezala, informazioa ez dagoelako zuzen sistematizaturik. Hiru lurraldeetako ALGOZek era lokabean egiten dute lan eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari urteko memoriak aurkezten dizkioten arren, ez dugu frogatu sail horrek izan diren emaitzen ebaluazio orokorrik egiten duenik, edo, gutxienez, argitaratzen duenik. Halaber, aise frogatu da ALGOZek ez dituztela proposamen guztiak egiten eta ez dutela erabakitzen diren «betearazpen alternatibo» guztietan esku-hartzen, batzutan neurri horien jarraipenaren arduraduna hori egiten den zentroaren erakunde kudeatzailea bera delako.

Aztergai dugun esparru honetan euskal administrazioa sustatzen ari den zerbitzuen gainikusketa izugarri erraztuko litzateke baldin eta sail horrek koordinazio, beharrizanen azterlan, ebaluazio eta antzeko lan sakonagoak egingo balitu. Ordea, antzeman diren

ez-betetze horiek eragotzi egiten dute ALGOZen ezagutza eta horien lanak merezi duen balorazio publikoa.

Zerbitzuaren antolakuntzari dagokionez, gaur egun, justiziako administrazioko beste zerbitzu osagarri batzuetan gertatzen ez den bezala -adibidez, euskara itzultzaileetan-, aztergai dugun zerbitzua ez du zuzenean Eusko Jaurlaritzak ematen, eta -arestian esan den bezala- elkarte pribatu batekin harpidetzen den hitzarmenaren bidez gauzatzen da, eta horri ematen zaio dirulaguntza. Hobea den ereduari buruzko eztabaidan sartu gabe badirudi argi dagoela EAEko Administrazioak agindu zaizkion lanak egitea bermatuko duten baldintza batzuk ziurtatu behar dituela. Ildo horretatik, derrigorrezkoa da ALGOZak osatzen dituztenen profil profesionala ezartzea, eta horiei prestakuntza zehatza eskatzea baina, aldi berean, horiei konpentsazio egokiak eskaintzea, bai maila ekonomikoan eta baita prestakuntza iraunkorraren arloan ere, edo, -gure ustez erabat nahitaezkoa den beharkizuna- egin duten lanean erakundeen laguntza jasotzea.

Beste aldetik, esan daiteke luza daitekeen urteko hitzarmenaren formula ez dela egokiena , besteak beste, ALGOZko profesionalen lan-egonkortasunik eza areagotzen duelako eta horrek, seguruenik , eragin txarrak dituelako zerbitzuaren kalitatean.

Argi dago esparru honetan hamaika direla zerbitzuen eskariari aurre egiteko dauden formulak eta *a priori* ezin dela horietatik bat ere bazter utzi. Horrela, adibidez, Catalunyako Generalitateak zigor-zehapenekin lotuta dauden zerbitzu guztien zerbitzugintza zuzenean ematea erabaki du. Izan ere, Justizia Sailak Zigor Betearazpenerako Idazkaritza du eta horren menpean daude, Espetxe eta Birgaikuntza Zerbitzuetarako Zuzendaritza Nagusia eta baita Zigor Neurri Alternatiboen eta Gazteen Justiziako Zuzendaritza eta Gizarteratzeko eta Lanera Iristeko Zuzendariordetza Nagusia ere.

Catalunyako ereduaren ustezko abantailei buruzko hausnarketa egitea komeni izatea edo ez izatea gorabehera, ematen du argi dagoela ez dela gaiari eusteko bide zuzen bakarra. Dena dela, ezin da ukatu, nola edo hala, nahitaezkoa dela ALGOZek ematen duten zerbitzuaren kalitatea bermatzea.

## 4. **Ondorioak**

Adierazi diren hausnarketak eta iradokizunak laburtzeko, ondoko ondorioak eman daitezke:

1. EAEn arazoak daude ezartzen diren AA erregimeneko zigor guztiak betearazteko. Halaber, egiten diren atxiloketak espetxeetan baino ez dira gertatzen, baina euskal espetxeetan ez da, inon, horretarako leku egokirik sortu. Espetxeetako Erakundeek izan dezaketen erantzukizuna gorabehera, badirudi argi dagoela Euskadin eskumenak dituzten administrazioek ahalik eta arinen hasi behar dutela legeak horrelako zigorrak betetzeko bideratzen dituen atxilotuentzako udal gordailutegiak egokitzen edo, horien ezean, Ertzaintzaren ziegak prestatzen, horrela AAk legeak ezartzen dituen berme guztiekin ahalbideratzeko.

2. Espetxe zigorrak erregimen irekian betetzeari dagokionez, erakunde honek berriz azpimarratzen du beharrezkoa dela zigortuen gizarteratzea erraztuko duten espetxez kanpoko unitateak sortzea. Aukerak hamaika dira (menpeko unitateak, gazteentzako zentroak, amen zentroak, etab.) baina, une honetan behintzat, jorratu gabe jarraitzen

dute. Drogamenpekotasunen tratamenduaren arloetan lanean jarduten duten zentroei buruz uste dugu horien lana sustatu ez ezik, koordinaziorako mekanismoak hobetu behar direla unean uneko ezagutza eta egiten ari diren betearazpenen gainikusketa erraztearen ondoreetarako.

3. "Betearazpen alternatiboari" buruz, nahitaez azpimarratu behar da espetxeko zigorra betearazterakoan gertatzen ez den bezala, erabakia hartzea eta gauzatzea ez dela espetxeetako administrazioaren ardura, eta neurria hartzen duen epailearen erabaki hutsari lotuta baino ez dagoela; horrek ALGOZen lankidetza izan dezake ala ez.

Bada, bitarteko horren erabilera sustatzeko nahitaezkoa da ematen duen zerbitzua laguntzea eta hedaraztea, ALGOZen eta epai organoen arteko informazio eta komunikazio bideak areagotuz, eta baita zerbitzu horren eta espetxeetako gizarte zerbitzuen artekoak ere. Uste dugu nabarmena dela Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak arlo honetan izan behar duen protagonismoa. Aldi berean, beharrezkoa da zerbitzu honen kalitatea era egokienean bermatzeko kudeaketa ereduari buruzko hausnarketari ekitea.

## 4. UDAL ZERBITZUEK TXOKO ETA GASTRONOMI ELKARTEETAKO FUNTZIONAMENDUA JAGOTEKO ETA KONTROLATZEKO BETE BEHARREKO ZEREGINAK

Eusko Legebiltzarrean urtero-urtero aurkezten diren txostenetan ikusten den legez, Ararteko erakundearen jardueran behin eta berriz ageri den gaietariko bat da egoitzazko hiri lurrean instalaturiko jarduera irregularren funtzionamenduak sortarazten duen problematika.

Erakunde honek urterik urte ohartarazi die euskal administrazio publikoei zeintzuk diren ostalaritzako establezimendu hauen ondoan bizi diren pertsonen osasunari eta bizi kalitateari eragiten zaizkien kalteak, betiere lokal hauen funtzionamendua egokitzen ez zaienean lizentziek eta indarreko legeriak ezarritako neurri zuzentzaileei.

Ararteko behin baino gehiagotan azpimarratu du ostalaritzako establezimenduak udal lizentziei lotutako jarduerak direla, eta, ondorioz, udalaren esku-hartzea ez dela amaitutzat eman behar jarduera abian jartzean; horrela, udal agintaritzak modu iraunkorrean jagon eta ikuskatu behar ditu lokal hauek. Horrek ahalbideratzen du jarduera lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeko azterketa etengabea egitea eta, aldi berean, herritarrak babestea jarduera hauen funtzionamendu desegokiaren kariaz ingurugiroari egin dakizkiokeen kalte zein erasoetatik.

Azken batean, indarreko legeriarekin bat etorriz, jardueren funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola udalek eman beharreko beste zerbitzu bat da, guztiz garrantzizkoa ukitutako herritarren kasuan.

Ildo honi jarraituz, udalek jagon behar dute baimendutako jardueren funtzionamendua, uneoro, instalazio lizentzian ezarritako murrizketa eta neurri zuzentzaileei lot dakien, betiere baimendutako instalazioaren parametro eta mugetara bideratuz. Horren ondorioz, gerta liteke portaerak edota jarrerak artezteko zigor neurriak hartu behar izatea pertsonen deskantsua errespetatzen ez denean edo herritarren kalitatezko ingurugiroari kalte egiten zaionean; horrelakoetan, indarreko antolamendu juridikoak bide horiek ezartzen ditu herritarren interes orokorra babesteko.

Edozein kasutan ere, egiaztatu ahal izan dugu udal agintaritzek, batzuetan, ez dutela jardueraren gaineko jarraipenik egiten, establezimenduak instalazio lizentziarik ez duelako, nahiz eta jarduera urte askotatik abian egon. Hauxe da, esate baterako, hainbat txoko eta gastronomi elkartetako kasua; izan ere, euren jarduerari ekin zioten konstituzioa indarrean sartu baino lehenago, lokalak gizarte helburuak burutzeko asmoz erabiltzea ahalbideratzen zieten gobernatzaile zibilek ematen zizkieten baimenei esker.

Elkarte hauek jatetxeen moduko jarduerak betetzen dituzte, nahiz eta instalazioak sarritan behar bezain egokituta edo akustikoki isolatuta egon ez. Hori dela eta, lokalaren gainean bizi diren pertsonek elkarrizketen zarata entzuten dute, bai eta establezimenduaren barruan sortzen diren zaratotsak. Gainera, sukalderik dagonez gero, kea irteteko tresna behar-beharrezkoa izaten da. Horrela, kea eraikinaren estalpera bideratzeko banakako hodirik ez dagonez gero, ke erauzgailuak instalatzen dira eta horiek trabak sortarazten dizkiete eraikinaren lehenengo solairuetan bizi diren auzokideei, bai zaratak bai usain txarrak direla eta. Era berean, establezimendu hauek ixteko orduak betetzeko kontrolik ez dagonez, kalteak larriagotu ohi dira.

Ararteko erakundera jotzen dutenean, ukitutako pertsonak alegatu ohi dute urteetan barrena eskatu dutela udal zerbitzuen esku-hartzea. Hala ere, toki erakundeek, sarritan,

auzia jurisdikzio zibilaren bitartez bideratzen dute; izan ere, euren iritziz, txokoak eta gastronomi elkarteak ez dira kalifikazio zehatz bati lotzen zaizkion jarduerak.

Iritzi hau ez dator bat gure legeriak jasotzen dituen ezarpenekin.

Izan ere, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko abenduaren 30eko 2.414/1961 Arautegiak zehazten zuen zeintzuk ziren gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsutzat hartuko ziren jarduerak eta, horren ondorioz, zeintzuk jarriko ziren administrazioaren esku-hartzearen menpe. Honen inguruan, 1. artikuluak zehazten zituen zeintzuk ziren jarduera bat kalifikatzeko irizpideak. Manu horrek, bada, ondoko hauxe ezartzen zuen 1961ean: *«arautegi honek, nazioko lurralde osoan bete behar denak, helburutzat dauka* ***instalazio, establezimendu, jarduera, industria eta biltegiek,*** *publikoak zein pribatuak izan, hau da, «****jarduera»*** ***izendapena aplikatzen zaien guztiek trabak sor ditzatela saihestea****, baita ere ingurugiroaren osasun eta higienearen ohiko baldintzak aldaraz ditzatela, ondasun publikoari edo pribatuari kalterik egin diezaiotela edo pertsona zein ondasunei arrisku larririk ekar diezaietela».*

Era berean, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegiaren 2. artikuluak ondokoa ezartzen zuen: *«arautegi honen menpean izango dira, bakoitzari dagokion neurrian eta ondorio hauetarako, gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen diren jarduera guztiak, betiere hurrengo artikuluetan ageri diren definizioekin bat etorriz eta izaera mugatzailea ez duen nomenklatore erantsian azaltzen direnentz kontuan hartu barik".*

Halaber, deserosotasunak eta trabak sortarazten zituzten guneak identifikatzean, arau honek ondokoa ezartzen zuen: *"gogaikarritzat hartu behar izango dira* ***zaratak,*** *bibrazioak edo* ***keak, gasak, usainak****, lainoak, airean geratzen diren hautsak edo erretzen dituzten sustantziak direla-eta deserosotasuna ekartzen duten jarduerak".*

Ondorioz, instalazioari eta jarduera mota hauen ezarpenari araubide zehatza aplikatzen zaie euren funtzionamenduak eragin kaltegarriak ekarri edo trabak zein deserosotasunak sortaraz litzakeelako. Modu horretara, jardueraren ohiko funtzionamendua neurri zorrotzagoei lotzeak interes orokorra babesteko bidea besterik ez da; kasu honetan, hori guztia identifikatzen da establezimendu mota hauen inguruan bizi diren pertsonek kalitatezko ingurugiroaz gozatzeko duten eskubidearekin.

Ingurugiroaz gozatzeko eskubide hau gure testu konstituzionalaren 45. artikuluak babesten du eta babes hori eman beharreko eskumena da, betiere Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bestalde, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, hau da, egoitzazko hiri lurrean instalatzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onesten dituenak, aitortzen du arauaren aplikazioaren eremuaren barruan txokoak eta kultura zein aisialdiko elkarteak ageri direla taberna eta jatetxeen epigrafearen azpian.

Horrelako kasuetan, hainbat toki erakundek adierazten dute lokalak jendeari orokorrean zuzendu behar zaizkiola, eta, txokoek, ostera, euren bazkideetara mugatzen den sarbidea baino ez dutela ematen.

Gure iritzi apalean, oso gai desberdinak dira herritarrek biltzeko eta elkartzeko duten eskubidea eta eskubide horiek egikaritzen diren lekuek bete beharreko baldintza teknikoak.

Gai honen inguruan, gauza jakina da autonomia erkidego osoan txokoek eta elkarteek duten sarbidea murriztua dela. Hala eta guztiz ere, gauza jakina da txokoetara lokala kudeatzen duen kideak ez eze beraien lagunak eta senitartekoak ere joaten direla.

Arestian aipatu dugun bezala, 171/1985 Dekretuak txokoak ez eze kultura zein aisialdiko elkarteak ere aipatzen ditu beren beregi, eta elkarteari buruzko kontzeptuaren barnean pertsona mugatuen taldearen nozioa dago, bai eta elkartutako pertsonen partaidetza murriztua ere. Edozein kasutan ere, hori guztia ez da oztopo izan dekretuaren egileek txokoak eta kultura zein aisialdiko elkarteak ostalaritza, astialdi eta aisialdiko jardueren funtzionamenduaren murrizketa zein mugen barruan sartzeko, bai eta taberna eta jatetxeei aplikatzen zaien araubidearen barruan ere. Horren arrazoia ondokoxea da: erabilera hauek egoitzazko hiri lurrean dituzten instalazioen ohiko funtzionamenduak trabak eta deserosotasunak sortaraz diezazkiekeelako inguruan bizi diren pertsonei, egiaztaturik dagoen bezala.

Gure legegileak txokotzat hartutako jarduerak arautegitik ez baztertzeko izan zuen borondatea (horien funtzionamendu bereziaren jakinaren gainean dagoelako) berriro ere agertu da jendaurreko ikuskizun eta aisialdiko jarduerei buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen testu berrian; izan ere, lokal eta instalazioen inguruko III. atalean lokal, instalazio, jendaurreko ikuskizun eta aisialdiko jarduerei buruz dagoen katalogoaren barruan ostalaritzako establezimenduak aipatzen ditu, bai eta horien eremuaren barnean txokoak eta gastronomi elkarteak sartu ere.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan jendaurreko ikuskizun, astialdiko jarduera eta jarduera hauekin zerikusia duten beste alderdi batzuen ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuak, 2. taldearen barruan arautzen ditu instalazio hauek guztiak.

Azkenik, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren bitartez, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, Osasun eta Lurralde Antolamendu Sailak zein Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak (Euskal Herriko Agintaritzaren 1999-3-26ko Aldizkari Ofizialean) zehaztu zuten zeintzuk diren EAEko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezartzen duen jarduera lizentziatik salbuetsitako jarduerak, betiere ingurugiroan ia eraginik ez dutela eta. Zerrenda horretan ez dira ageri ez txokoak ez eta gastronomi elkarteak ere.

Berme erregimena ez murrizteko helburua argi azaltzen da ondorengoa adierazten duen 165/1999 Dekretuaren arrazoien azalpenean: *"IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz, jarduera horien sustatzaileek udalei aurkeztu beharko dizkiete aplikatu beharreko sistema zuzentzaileen ezarpena kontuan hartzen duten agiriak, betiere jarduera bakoitzaren izaera aintzat harturik"*. Alabaina, helburu hori bermatutako geratzen da testuaren 5. artikuluaren bitartez: *"gerta daiteke dekretu honetan ezarritako jarduaeretariko batek bere funtzionamenduan gainditzea berari I, II eta III. eranskinetan berariaz ezarritako mugetariko edozein; orduan, bada, zirkunstantzia horrek ekarriko du EAEko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 56. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako jarduera lizentziaren araubidea aplikatzea"*.

Ez da neurri bakar batekin neurtzen, baldin eta etxe bateko lehenengo solairuan edo salbuetsitako eraikinetan dauden kultura edo elkartze zentroen funtzionamendua

(dantza, kantu zein musikako jarduerarik burutzen ez dutenean ere) zaratotsen eta aireztatze sistemen inguruko arautegiari lotzen bazaio, 165/1999 Dekretuaren eranskinaren 4.1. eta 3.6. artikuluetan ezarritakoak agintzen duen bezala, betiere horiek guztiak jarduera sailkatuen araubidearen bitartez bideratzeko asmoz, dekretuak ezartzen dituen mugak gainditzen dituztenean, eta, bitartean, txokoek eta gastronomi elkarteek administrazioaren esku-hartzetik kanpo geratzea, nahiz eta gure legeriak horiek guztiak hartu kalifikatu beharreko jardueratzat.

Beste gai batera pasatuz, azpimarratu beharra dago Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salari darion jurisprudentziak ez duela inola ere baimentzen jardueraren funtzionamenduaren tolerantziagatik zein udal agintaritzak berori ezagutzen duela-eta eman daitekeen udal lizentzia.

Honen inguruan oso argigarria da Auzitegi Gorenaren 1998ko abenduaren 16ko epaiak ematen dituen argudioak (1998\10108):

> *"...ez denbora igaro izana, ez tasak edo tributuak ordaindu izana ez eta udalaren tolerantzia ere –1986ko uztailaren 18ko, 1987ko maiatzaren 5eko 1995eko uztailaren 4ko eta 1998ko urriaren 20ko epaiak- ezin dute ekarri lizentzia emateko isilpeko egintzarik egotea edo berori aintzatestea, eta, era berean, erantsi beharra dago –1985eko abenduaren 20ko eta 1989ko urtarrilaren 20ko epaiak- lizentziarik gabeko jarduera ezkutuko jardueratzat edota iraupen luzeko edo laburreko egoera irregulartzat hartu behar dela; horrela, denborak ez du inola ere zilegitzen, eta, beraz, udal agintaritzak horren itxiera erabaki dezake edozein unetan; izan ere, lizentziaren bitartez administrazioari dagozkion helburuek justifikatzen dute jarduera hasi aurretiko fasean zein horren ondorengo edozein unetan horren kontrolean esku hartu ahal izatea. Berori ezaguna izanagatik, ez dago, beraz, eskuratutako eskubideen gainean berba egiterik, ez eta udal tolerantziaren edo jarduera burutzeko behin-behinekotasunaren gainean ere, hasieratik burutu den jarduera legeztatzeko asmoz; modu horretara, soil-soilik hitz egin liteke muga zehatz eta jakin batzuen arabera eskuratutako lizentzia egonik".*

Lizentziarik gabe jarduera aurrera eraman dela egiaztatu eta gero, toki erakundeek jardun beharko lukete EAEko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikuluak eta baterakoek ezartzen dutenaren arabera.

Horrela bada, alkateak modu honetara jardun beharko du eta hori ez da oztopo izango beharrezko baimenik gabe jarduteagatik jarri beharreko isunak ezartzeko:

> "a) Jarduera legeztatu ahal izango balitz, horren titularrari eskatuko zaio egoera erregularizatzeko eta horretarako sei hilabetetik gorakoa izango ez den epea emango da, behar bezala arrazoitutako kasu berezietan izan ezik; era berean, jarduera itxi ahal izango da, zirkunstantziek horrela aholkatzen badute, betiere interesatuarekin entzunaldiko tramitea egon eta gero.
> b) Indarreko arlokako arautegia edo udal ordenantzak bete ez direla eta, jarduera ezin bada legeztatu, itxi behar izango da, betiere interesatuarekin entzunaldiko tramitea egon eta gero."

## Ondorioak

• Txokoak eta gastronomi elkarteak jarduera sailkatuen araubideari lotu behar zaizkio.
• Instalazioak gaur egun legeztaturik ez badaude, toki erakundeek txoko zein gastronomi elkarteetako titularrei eskatu beharko diete sei hilabeteko epean ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren 1. kapituluaren 1. atalean ezarritako neurri zuzentzaileen araberako berritze proiektua aurkez dezaten; izan ere, dekretu horren bitartez jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei egoitzazko hiri lurzoruan aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onesten dira.

# 5. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ZUZENEAN ARDURATU BEHAR DUTE ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUARI DARIZKION KALTEEZ, BETIERE ASEGURU ETXEEKIN SINATURIKO ASEGURU KONTRATU PRIBATUAK ALDE BATERA UTZIRIK

## 1. Sarrera

Aurreko txostenetan erakunde honek oso kontuan hartu izan du ondare erantzukizunaren institutuaren garrantzia, horixe baita antolamendu juridikoak administrazioaren eskubideen aurrean herritarrei eskaintzen dien bermea.

Botere publikoek, betiere Konstituzioaren 106.2 artikuluaren aginduari eta Herri Administrazioetako Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean dagoen garapenari jarraituz, beren gain hartu behar dituzte zerbitzu publikoetako ohiko edo ez ohiko funtzionamenduak administratuei eragin diezazkiekeen ondare kalteen erantzukizuna.

Arartekok, bere eskumenak egikaritzean, botere publikoen jardueretan hainbat disfuntzio sumatu ditu, betiere aurreko eskubidea eraginkortasunez aintzat hartzeko momentuan.

Zeregin horri jarraitzeko asmoz, gomendio honek erantzukizunaren gaineko erreklamazioak tramitatu eta erabakitzeko arazoa -administrazioaren jardunenean nahiko orokorra dena - aztertzen du; izan ere, orain arte erabili den tramite bakarra herritarren eskabidea udalak aurretik erantzukizun zibileko poliza kontratatu dueneko aseguru etxe batera bidaltzea baino ez da izan.

## 2. Aseguru poliza pribatuen kontratazioari darizkion disfuntzioak

Kexa espediente kopuru handi batean egiaztatu ahal izan dugu erantzukizunaren gaineko tramitazio bakarra ondokoan datzala: erreklamazio egilearen idazkia igortzea administrazioak jarduera administratiboari darizkion kalteak asegurατu ditueneko merkataritza konpainia batera igortzea.

Horrela bada, aseguru pribatuei buruzko kontratua arautzen duen legeriari bat etorriz, aseguru etxeak eskabidearen gainean erabakitzen du bermerik gabeko tramiterik bideratzeke, betiere beraren irizpideari eta kontrataturiko polizan ezarritako baldintzei jarraituz. Horretarako, aseguraturiko arriskuan oinarritzen diren eremu pribatuko parametroak erabiltzen ditu, berbarako aseguru kontratutik kanpo dauden edo bertan ezartzen ez diren frankiziei edo arriskuei darizkienak. Edozein kasutan ere, horiek esku hartzeko moduan ez dago inolako administrazio prozedurarik eta oinarria Kode Zibilaren 1902. artikuluak ezartzen duen akiliatar kutsuko erantzukizun zibilean dago.

Hala pasatzen da kasu askotan, batik bat toki administrazioek esku hartzen duten kasuetan; izan ere, horrelakoetan baliabide faltagatik edo administrazioaren jarduera ezagatik baztertzen da administrazio publikoetako ondare erantzukizunari buruzko

araubide juridikoa, bai eta, hala badagokio, administrazio prozedurak exijituriko zehaztapenak ere.

Anomalia hauek, batez ere, islatzen dira aseguru etxeak zerbitzu publikoetako funtzionamenduan errurik edo arduragabekeriarik sumatzen ez duenean eta kaltea ohiko funtzionamendu batek eragiten duenean edo administrazioaren esku-hartzeari darizkion egoerak kontratutik kanpo utzi direnean edo konponketa osoa ezarrita ez dagoenean, kalte-ordaina frankiziaren bati lortzen zaiolako.

Hori dela eta, azterlan honetan bi alderdi azpimarratuko ditugu: batetik, administrazioaren ondare erantzukizunaren araubide juridikoaren desberdintasuna zuzenbide pribatuaren menpeko erantzukizunaren aldean; bestetik, administrazio publikoak legean ezarritako zehaztapenak eta tramiteak dituen prozedura baten menpean egoteak herritarrei ematen dien bermea.

## • Arrisku estaliaren eta ondare erantzukizunaren arteko izaera desberdina

Gerta daiteke zerbitzu publikoen funtzionamenduak herritar baten ondareari kalte egitea; orduan, kaltearen konponketa eraendu behar izango du zerbitzu eman behar duen administrazioaren erantzukizun objektiboaren printzipioak. Esan nahi baita, partikularrei ondasun eta eskubideetan eragindako kalteei osotasunez erantzuten die, betiere kaltearen eta zerbitzu publikoetako ohiko edo ez ohiko funtzionamenduaren arteko arrazoizko lotura dagoenean.

Erakunde honek eutsi dio konstituzioaren 106. artikuluak jasotzen duen botere publikoen betebeharraren eta aseguru polizaren kontratuaren arteko desberdintasunari; azken hori, administrazioek kontratu ohi dute aseguruen konpainia pribatuekin, betiere erantzukizun zibilari darion arriskua estaltzeko asmoz.

Honen inguruan, bada, zehaztu beharra dago, aseguru pribatuen kontratuak eraentzen dituen arautegiaren arabera, erantzukizun zibila estaltzen duten kontratuak baino ezin direla sinatu eta ez dagoela legezko inolako ezarpenik estaldurak erantzukizun administratiboa bere barnean har dezan. Bateraezintasun hori Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak jarri du agerian 1996ko ekainaren 26ko ebazpen bitartez. Horren oinarria bilatu behar dugu Aseguruen Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen eta 30/1992 Legeari darion erantzukizun objektiboaren arteko kontraesanean. Edozein kasutan ere, ezintasun horrek balio du erantzukizun zibilak eta ondare erantzukizunak konpainientzat duten kontzepzio eta estaldura desberdinak agerian jartzeko.

Horregatik, konpainiaren irizpideak soil-soilik balio du ezartzeko ea administrazioaren ardurapeko kalte baten arriskua konpainiak bere gain har dezakeen ala ez, betiere bi aldeak lotzen dituen kontratu juridiko eta pribatuaren arabera. Edozelan ere, zirkunstantzia horrek sekula ez du libratzen antolamendu juridikoak administrazioei ezartzen dien erantzukizun objektibotik.

Gai hau Gaztela-Mantxaren Justizi Auzitegi Nagusiak aztertu du 1999ko uztailaren 7ko epaian; izan ere, administrazio ebazpen baten kontra administrazioarekiko auzibide errekurtsoa jarri zen eta horrek herritar bati administrazioak kopuruaren zati baten kalte-ordaina eman behar ziola ezartzen zuen, baita ere gainerako kalte-ordainaren zuzeneko erantzukizuna aseguru etxearena zela; horrela bada, epai horrek ondokoa ezartzen zuen:

*"...ahaztu egiten da administrazioaren ondare erantzukizuna, legezko ezarpenarengatik, objektiboa eta zuzena dela (administratuek eskubidea izango dute herri administrazioek kalte-ordainak eman diezaieten), betiere alde batera utzita erantzukizun hori leuntzeko edo apaltzeko konpainiaren eta toki erakundearen arteko harremanak; izan ere, horiek ezin dute inolako garrantzi juridikorik izan erantzukizun hori zehazteko momentuan."*

Ondorioz, administrazioak erantzukizun hori hartu behar du bere gain, aseguru etxearen estaldura izan edo izan ez arren. Era berean, kalte-ordainak konponketa osoko printzipioari jarraitu behar dio, eta, zenbatekoari dagokionez, ez du gehieneko mugarik izan behar, aseguru konpainiek eskaintzen dituzten frankizien araubideari darionaz bestaldera.

## • Prozeduraren bermea ondare erantzukizuna egikaritzean

Gure antolamenduan administrazio prozedura eratu da herritarrentzako berme modura. Horren bitartez, administrazioak bere jarduera egokitu behar du legerian ezarritako bidearen arabera.

Ondare erantzukizuna zehazteko ezarritako prozedurari dagokionez, administrazioak 30/1992 Legearen 142 eta 143. artikuluei jarraitu behar die, bai eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritako garapenari ere; izan ere, horren bitartez onetsi da ondare erantzukizunaren inguruko gaietan administrazio publikoen prozedurei buruzko arautegia.

Legez ezarritako prozedura zaurtzea garrantzi handikoa da, horrek ekar baitezake ondare erantzukizuneko ebazpenak deuseztatzea edo deuseztatu ahal izatea.

Arestian adierazi dugun bezala, administrazioak aseguru kontratu pribatua sinatzeak ez du askatzen instrukzioko tramiteei jarraitzeko betebeharretik, tramiteok beharrezkoak baitira baliozko irizpidea ezarri ahal izateko erabakia hartzeko momentuan. Horrela bada, ezin da baimendu erreklamazioaren instrukzioa aseguru konpainiari eskuordetzea, ez soilik aseguru etxeak kontuan hartzen duen ondare erantzukizuneko araubide juridiko desberdinak ematen dituen arrazoiak direla eta, ezpada horrek ekar lezakeen erazko irregulartasuna dela eta.

Ildo honi jarraituz, administrazioak berak (bere menpeko zerbitzuen txostenaren eta interesatuek aurkeztutako alegazio zein proben arabera) zehaztu behar izango du zeintzuk diren erreklamazio egilearen benetako kaltearen eta zerbitzu publikoaren arteko kausalitate harremanak. Horretarako, arautegiaren 7. artikuluak ondoko hau ezartzen du: "*Ebazpena emateko datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkoak diren instrukzio egintzak prozedura tramitatzen duen organoak burutu beharko ditu, betiere Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen VI. tituluaren III. kapituluarekin bat etorriz*". Horrela bada, organo eskudunak egokitzat jotzen dituen beste txosten eskatu ahal izango ditu erabakia hartzeko asmoz; edozein kasutan ere, txostena ezinbestean (arautegiaren 10.1. artikulua) eskatu behar izango zaio kalte-ordain bitartez ordain litekeen kaltea eragin duen funtzionamenduaren zerbitzuari.

Halaber, prozedurari amaiera eman behar izango zaio erabaki konbentzional baten bitartez edo, hala badagokio, 13.2. artikuluan ezarritako baldintzen arabera ebatzi

behar izango da: "*Ebazpenak ezinbestean ezarriko du ea zerbitzu publikoaren eta egindako katearen arteko kausalitate harremanik dagoen ala ez, eta, hala badagokio, zein den egindako kaltearen balorazioa eta kalte-ordainaren zenbatekoa, betiere hori kalkulatzeko erabilitako irizpideak zehaztuz. Edozein kastuan ere, ebazpena lotu behar izango zaio Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 89. artikuluan ezarritakoari.*"

Arau orokorren arabera beren beregi ebazteko beharrizana herritarrentzako bermetzat har daiteke, ebazpenaren arrazoia zein den jakiteko; gainera, horrek administrazioaren erabakiaren berrikuspena ahalbideratzen du.

Horrenbestez, kontuan hartu behar dugu ondare erantzukizuna aseguru konpainiaren irizpidearen arabera huts-hutsean gaitziriztea edo oniriztea ez litzatekeela bat etorriko antolamendu juridikoaren arauekin, gorago aipatutako guztia dela eta.

## 3. **Gomendioak**

Administrazioek zuzeneko erantzuna eman behar diete zerbitzu publikoetako ohiko edo ez ohiko funtzionamenduaren ondorioz partikularrei eragindako kalteei.

Administrazioek euren erantzukizun zibilari darion arriskua enpresa pribatuekin aseguratzeak ez du inola ere aldarazten ondare erantzukizunaren araubide juridikoa, konstituzioan eta 30/1992 Legean jasotzen den bezala.

Aseguru etxeen irizpidea erabili ohi da erantzukizun zibila zehazteko arau zibilekin eta sinatutako kontratuarekin bat etorriz, baina ezin da erabili administrazioa erantzukizun objektibotik askatzeko.

Aurkezten zaizkien erreklamazioei dagokienez, administrazioek euren erantzukizuna zehaztu behar dute administrazio espediente baten bitartez. Horretarako, beharrezko instrukzio egintzak burutu behar dituzte erantzuteko eta beren beregi ebatzi ahal izateko.

Ildo honi jarraituz, beraz, ebazpena ez da sekula oinarritu behar administrazioak kontrataturiko aseguru konpainiaren txostenean; horrela, beharrezko instrukzio elementu guzti-guztiak hartu beharko ditu kontuan horren existentzia zehaztu ahal izateko.

## 6. SASOIKAKO BEHARGINEN ALOJAMENDUETAKO BALDINTZAK ARAUTZEA

1996tik Arartekok Legebiltzarrari urtero-urtero igortzen dizkion txostenetan islatu du zeintzuk diren Araban mahatsa eta patatak batzen dituzten sasoikakoen eta euren familien egoeraren gaineko kezka eta proposamenak (1996tik 1999ra arteko txostenen 1. kapitulua). Horrela bada, gehienbat lau izan dira jorratu izan diren gaiak:

- kontratazio sistemak;
- alojamendurako baldintzak;
- seme-alaben eskolaratzea;
- gizarte integrazioa eta bazterketa.

Hona hemen bildutako gomendio orokorra lau gai horietariko bati baino ez dagokio: sasoikako beharginei alojamendua emateko instalazioen baldintzak, alegia.

Ez da Arartekok gai honi zuzenean heltzen dion lehenengo aldia. Horrela, 1997ko txostenean sasoikakoen eta euren familien alojamendu baldintzak arautzeko beharrizanari buruzko gomendio orokorra sartu zuen eta azken urteko txostenean ere (1999) lehentasunezko trataera eman zitzaion.

Edozein modutan ere, proposamenak gorabehera, ez da lortu egoerak ageriko hobekuntzarik izatea eta alojamenduen gaiak konpondu gabeko gaia da, hau da, zalantzen, arazoen eta kezken aldiro-aldiroko iturria.

2000. urtean barrena, Arabako sasoikako langileen arazoari aurreko egiteko hainbat erakundek sortutako mahaiaren batzarretatik batean (otsailaren 22ko bilera) planteatu zen egokia izango zela Arartekok pertsona hauen eta euren familien alojamenduari buruzko gaia, oraindik ere konpondu gabekoa, berriro ere aztertzea eta mahaikideek erreferentzia gisara erabiltzeko agiri edo proposamenen bat egitea.

Eskari horri erantzunez, Ararteko erakundeak hainbat lan bilera izan zituen gai honen inguruko eskumena duten administrazioetako zenbait arduradunekin (horietariko batzuk erakundeen arteko mahaian ez dauden Eusko Jaurlaritzako sailekin) eta, ondoren, arautzeko proposamenak jasotzen zituen txosten bat taxutu zuen; txosten hau Arabako Ongizateko Foru Diputatuari igorri zion, bera hartu behar baita mahai horren arduradun edo bultzatzailetzat, eta bestelako erakundeetara ere bidali zuen.

Hona hemen bildutako gomendio orokorrak mamiz jasotzen ditu txosten horren edukia eta 2000ko maiatzean aurkezturiko proposamenak; alta, horiei, txosten hau idazteko momentuan, ez die oraindik ere erantzun zehatzik eman erakunde eskudunetariko bakar batek ere.

Aurten arte gai honen inguruan Ararteko erakundeak izandako esku-hartzearen bitartez arazoa deskribatu eta aztertu nahi izan da, bai eta proposatu ere, zeintzuk diren egoera hori hobetzeko erakundeek abian jarri beharreko jarduerak, betiere legeriak emandako zereginen arabera eta beste erakunde batzuei dagozkien zehaztapenetan sartu barik. Edozein modutan ere, egindako txostenean zein gomendio honetan aurrerapauso bat gehiago egin eta egoera desblokeatzeko erabilgarritzat jotzen diren hainbat adibide eta proposamen ematen dira.

Gomendioa hiru zatitan egituratzen da:

1. Lehenengoa, deskribatzailea; bertan aztertutako errealitatea ez ezik bete beharreko premiak ere islatzen dira (neurri batean aurreko urteetan egindako azterlanen laburpena izan liteke).
2. Beste toki batzuetako hainbat ekimen eta proiekturen berri ematen den bigarren zatia (horiek guztiak erreferentzi modura erabil litezke).
3. Gaiari eskumenaren ikuspuntuaren aldetik oratzen zaion hirugarren zatia; era berean, egoera erregulatzeko lanabes juridikoak ere proposatzen dira (gomendioa eta proposamenak).

## 1. Sasoikako beharginen eta euren familien kokaleku eta alojamenduak Araban. Aintzat hartu beharreko egoerak

Sasoikakoen problematika aztertzean izan ohi den arazoetariko bat da euren errealitatearen gaineko datu orokor eta fidagarririk ez egotea. Badira hainbat gairen inguruko datu partzialak (eskolaturiko adin txikikoen inguruan, informazio bulegoetara jotzen duten edo Agurain zein Biasteriko aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonen inguruan, Gizarte Segurantzako alta hartu duten langileen inguruan...), baina horien bitartez oso nekeza da arloaren arazoei buruzko ikuspuntu orokorra -kuantitatiboa eta kualitatiboa- ateratzea.

Alojamendu eta kokalekuei buruzko datu zehatzei dagokienez, arazoa oso antzekoa da. Kasu jakin batzuetan, bai udal ekimenez bai Gizarte Ongizate Foru Institutuak sustatutako egitasmoen ekimenez, gai honen inguruko hainbat datu jaso eta ezagutu ahal izan dira. Horrela bada, azken kanpainetara mugatuz, esate baterako, erabiltzeko moduko zenbait datu iturri ditugu, nahiz eta lokal edo alojamenduen errolda fidagarririk existitzen ez den. Ziurtasun eta argitasun handiagoa eman nahian, hona hemen bilduko ditugu 1999ko kanpainari dagozkion datuak (horren inguruan memoria guztiak erabili ahal izan dira). 2000. urteko datuei dagokienez, hainbat sartu dira, betiere gomendio hau idazteko momentuan (2000ko abendua) horiek eskuratzeko modua zegoen ala ez kontuan hartuta. Horrenbestez, 1999ko kanpainei buruzko datu iturrietara joz, ondoko hauek guztiak aipatuko ditugu:

- Patata batzeko eremuari dagokionez, “Cáritas” erakundeak 1999an sasoiko eta nekazariekin egindako lanaren inguruan taxuturiko memoriak datu interesgarriak ematen ditu; datu horiek guztiak Arabako Lautada, Arana Haran eta Arabako Mendialdeko 36 herritan egindako 112 inkestari esker eskuratu ahal izan ziren.
- Arabako Errioxako eremuaren kasuan, oinarrizko gizarte zerbitzuen esku-hartzeak eta azken urteotan barrena Eltziegon gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko egitasmo batek ekarri dute, esate baterako, adin txikiko ugari eskolaratzea edo elikadura, osasun, higiene edo aisialdiko erabilerarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzea ez ezik herri horretara bertaratzen diren sasoikoen eta euren familien egoerari buruzko datu orokorrak biltzea ere. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak diruz lagundutako egitasmo honen garapenarekin arduratzen den Hezilan heziketa taldeak urtero-urtero egindako txostenetan oso datu interesgarriak jasotzen dira etorkizunean hainbat esku-hartze bideratu ahal izateko: familien jatorria, familiaren osaketa, mahats bilketara

etortzen emandako urte kopurua, eskolaratze erregistroak... Egitasmo hauek beste udalerri batzuetara (Lantziego eta Kanpezu 2000. urtean) zabaltzearen ondorioz errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

- Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzak sustaturiko *Arabako Errioxan egindako sasoiko lanari buruzko azterlanak* eremu horretako alojamenduetako eskuragarritasun, okupazio, tipologia eta edukierari zein baldintzei buruzko ikuspuntu zabala ematen du, bai eta gai honen inguruan nekazariek eurek sentitutako zailtasunak ere. Aipatu beharra dago datu horiek guztiak inkesta bitartez jaso ahal izan direla eremu horretako ustiategietako jabeei egindako elkarrizketetan.

Mahatsa biltzeko 1999ko kanpainan, gainera, aipatzen dihardugun gaiari zuzenean eragiten dion zirkunstantzia berria izan zen: aurreko urteetan Eltziegon kanpatzeko egokitu ohi zen gunea kendu izana. Jakina denez, azken bi urteetan aplikatu den erabaki honek familia askoren kokaleku baldintzei eragin die zuzenean; izan ere, aurreko urteetan bertara jotzen eta kanpatzen ohituak egon dira. Ararteko erakundeko langileek *in situ* egiaztatu ahal izan zuten zeintzuk izan ziren makina bat familiari, batez ere ailegatu eta lehendabiziko momentuetan, planteatu zitzaizkion arazoak eta zalantzak.

Kanpatzeko gunea kentzeko erabakia hartu da, beste arrazoi batzuen artean, alde kontratugileek kontrataturiko pertsonei alojamendua emateko erantzukizuna hartzeko irizpideari jarraituz. Erakunde hau ere bat dator irizpide horrekin eta horrelaxe adierazi du uneoro. Arazoa, hala ere, sortzen da kontratugileek erantzukizun hau beren gain hartzen ez dutenean edo pertsonen duintasuna errespetatzen ez duten baldintzak edo eska daitezkeen gutxienekoak betetzen ez dituztenean. Bestalde, aipatu beharra dago gutxieneko horiek ez daudela ezarrita, horiek erregulatzeko arautegia edo zehazteko erabakia falta delako.

Erakunde honen aurreko txostenetan lau egoera mota bereizi dira pertsona hauei alojamendua emateko baldintzei dagokienez:

a) Erakundeek bultzaturiko aterpetxeetan -eskuarki egun bat edo bitan barrena- hartutako pertsonei dagokiena;
b) horretarako beren beregi ezarritako gune edo akanpalekuetan kanpatzen duten familiei dagokiena;
c) nekazariek edo enpresa kontratugileek egokitutako lokaletan alojamendua hartzen duten pertsona zein familiei dagokiena;
d) baldintza hoberik ezin topa dezaketelako, gaua ahal duten lekuan eta moduan igarotzen duten famili zein pertsonei dagokiena.

Badira bestelako desberdintasun esanguratsuak eta garrantzi handikoak. Horietariko bat da inguru horretara familiarik gabe lan egitera doazenen eta familia guztia eurekin batera eroaten dutenen artekoa. Jakina denez, beharrizanak oso desberdinak dira kasu batean eta bestean.

Hona bilduko ditugu 1999ko kanpainari batez ere dagozkion hainbat datu, betiere gorago aipatutako lau egoera horietariko bakoitzari buruz. Batzuetan memorietatik ateratako informazioak dira; beste batzuetan Arartekoren langileek 1999ko irailaren 29an eta urriaren 6an kokaleku eta lokaletara egindako bisitetatik ateratako datuak

dira. Era berean, men egingo diogu 2000ko urriaren 17 eta 18an egindako bisiten ondorioz aztertu ahal izan dugun egoerari.

a) **Aterpetxeak**

Behin beharrezko obrak amaitu eta gero, 1998an abian jarri zen Aguraingo aterpetxe iraunkorra, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta 31 pertsonarentzako lekua duena. Biasteriko aldi baterako aterpetxeari gagozkiola, aurreko urtean legez, udal igerilekuko lokalak prestatu dira, plaza kopuru zehatz bat kontuan hartuta (48 pertsona) eta funtzionamendurako antzeko irizpideak erabili dira (gehienez ere gau biko egonaldiak, mantenua...).

Bi zerbitzu hauek hartzen dituzten eskariak eta ematen duten zerbitzua nahiko desberdinak dira: Aguraingo zerbitzuaren kasuan, eskaria txikiagoa da (93 gizonezko lau astetan barrena eta 99an gainezka egiteko ezelako problemarik izateke), eta Biasterikoaren kasuan askoz handiagoa (192 gizonezko eta 13 emakumezko, hamaika egunetan barrena 99an). Azken kasu honi dagokionez, aterpetxeak gainezka egin zuen funtzionamenduaren lehendabiziko egunetan eta, ondorioz, pertsonei harrera egiteko lekua behin-behinean handitu behar izan zen 16 plaza gehiago eskainiz. Azken urtean egoera hori intentsitate handiagoarekin gertatu da; horrela, irekita egon den hamar egunetan barrena okupazioa %100ekoa izan da, eta, azkenik, aldez aurretik ixtea erabaki da kudeaketa arazoak egon direlako.

Argi dago aterpetxeen formulak badituena hainbat muga eta kontraesan. Era berean, elementu positiboak ere ageri dira: erakunde desberdinen arteko lankidetza, eremu horretako oinarrizko laguntza zerbitzuen eta boluntarioen inplikazioa, kolektiborik ahulenei -berbarako atzerriko etorkinei- eskainitako arreta (1999an Agurainen hartutako 93etarik 84 eta Biasterin hartutakoen %80 izan dira atzerriko etorkinak), alojamenduaz gainerako bestelako zerbitzuak eskaintzea (arropa, janaria, garbiketa, botika kutxa, informazioa...)..

Alta, zerbitzu horietako memoria teknikoetan ageri diren datu eta balorazioekin bat, azken urte honetara arte adieraz zitekeen aterpetxeen bideak, bere mugak izan arren (bi eguneko gehieneko egonaldia, ordutegiak mugatuak izatea, hainbat egunetan gainezka egitea, gizarte agenteen aldetik inplikazio maila desberdina...) zerbitzu baliagarria ematen ziola oso ahula den pertsona kolektibo bati, hots, mahatsa edo patata biltzera bere kasa edo familiartekoak ez diren taldeetan doan kolektiboari, gehienbat atzerriko jatorria duten pertsonek osatua (bereziki Magrebekoak). Azken urtean Biasteriko aterpetxean sorturiko arazoek ekarri beharko dute inguru honetan eskaintzen den zerbitzuaren balorazioa eta egoera berraztertzea. Berraztertze horretan, besteak beste, kontuan hartu beharko lirateke Biasteriko aterpetxearen behin-behineko egoera eta baldintza materialak eta segurtasunezkoak, bai eta inguru horretara bertaratzen den pertsona kopuru gero eta handiagoa ere, nahiz eta alojamendurako premiak konponduta izan ez.

Zerbitzu hauetako funtzionamenduan badira sasoikakoen beharginei zuzendutako beste toki batzuetako aterpetxeen aldean bereizgarriak diren bi ezaugarri: behin-behineko harrera eskaintzen dute (kontratuak izan ez diren bitartean, ez kontratuaren epearen barruan) eta administrazioa da kostu guztiak ordaintzen dituena (AFA eta ez nekazariak). Bi ezaugarriok elkarrekin dute zerikusia eta berraztertu beharko lirateke, baldin eta aterpetxeak alojamendu iraunkorrerako formulatzat hartzen badira; izan ere, gai hori

behin baino gehiagotan planteatu da irtenbide egoki modura eta gainera beste leku batzuetan badago honen inguruko esperientzia handia.

b) **Kanpatze guneak**

Aipatu denez, azken bi urteetan Eltziegoko ohiko kanpatze gunea kendu da. Eremu hau, gehienbat, estatutako beste leku batzuetatik zein Portugaletik etorritako ijito etniako familiek erabiltzen zuten.

Patata batzeko eremuan, gutxienik, Albainako kanpamenduari eutsi zaio aurreko urteetako antzeko baldintzetan: bi komun, elektrizitate sorgailu bat, edateko ur txorrota eta hainbat zaborrontzi. 1999an udalak komunerako lagatako ur patin bat ezarri zen, nahiz eta azken kanpainan horrelakorik egon ez den. Alta, "etxebizitzak", kasurik gehienetan, aldi baterako txabolatzat har daitezke (hamabost bat gutxi gorabehera), osagai eta material eskasez eginda daude eta ez dituzte segurtasun zein osasun arloko gutxieneko baldintzak betetzen. Orobat, esan beharra dago autobus zahar bat eta hainbat furgoneta alojamendu gisa erabiliak direla. Eremu horretako kanpatze guneei dagokienez, ez dugu zuzeneko daturik, ez baitugu bisitatu.

Eltziegoko kanpatze gunea benetako alternatiba barik kentzearen ondorioz, inguru horretan kanpatze gune berriak sortu dira, txikiagoak eta, kasuen arabera, eskasia baldintza gehiago edo gutxiago dituztenak. Horrela bada, 1999ko urriaren 6an hainbat kokaleku bisitatu ahal izan genituen:

- kanpatzeko lehengo gunearen aurrean, nekazari kontratugileak karabanak eta furgonetak aparkatzeko lagatako eremu batean (5 familia);
- Eltziegon ere mahastietara abiatzeko eta harrera leku bihurtzeko zabaldutako bide batean (6 familia);
- Baños de Ebroko baskularen ondoan (9 familia);
- nekazarien lonja edo pabilioiaren baten alboko guneetan (Biasterin, Samaniegon, Bañosen, Lapueblan, Eltziego...);
- eraikitze materialak pilatzeko hainbat eremutan (Villabuenan...).

Kanpaldi hauek azken urte honetan ere izan dira eta berriak ere sortu dira; horietariko batzuk nahiko handiak izan dira, berbarako Elvillarren bisitaturiko bat (urriaren 18an, 12 familia handi baino gutxiago ez zituena).

Oro har kanpatze eremuak nahiko familia handiek edota euren artean senideturikoek hartzen dituzte (batzuetan 40 kide baino gehiagokoak). Taldeka abiatzen dira furgoneta eta kamioietan eta, eskuarki, argi eta ur hartuneren bat eskaini ohi zaie, baina ez kasu guztietan. Gainerako zerbitzuak (komunak, dutxa, sukaldea, ur beroa, lo egiteko lekuak...) euren kontura dira. Eltziegon kanpatutako pertsonek udal igerilekuko dutxa eta bainugelak erabili ahal izan dituzte.

Erakunde honetako langileekin berba egin ahal izan duten ia guztiek uste dute euren egoera txarrera egin duela aurreko urteetakoaren aldean (zerbitzu ezagatik, herriko erdiguneko urruntasunagatik, gunetara sartzeko zailtasunagatik). Baten batek adierazi du egoera nahiko antzekoa dela: *"lehen bezain txarra"*. Era berean, bada batzuetan aintzat hartzen ez den egoera aditzera eman zuenik: nekazari kontratugileek alojamendua eskaini zieten, baina gurago zuten, euren kamioiak eta erdi-atoiak erabilita, taldeko bizimodua egin.

Azken ohar honek ageri-agerian jartzen du behar bezalako alojamendua emateko zer-nolako zailtasunak ekartzen dituen horrelako lekuetara, lan egingo dutenez gain, kide guztiak biltzen dituzten familiak bertaratzea. Esperientziak erakusten digu errealitate honi (familian bertaratzearena) urterik urte eusten zaiola, eta, litekeena dela horrela izaten jarraitzea kultura eta merkatu arrazoiak direla eta. Hori ikusita, ez du ematen irtenbiderik egokiena ezikusiarena egitea denik, horiek guztiak existituko ez balira bezala.

c) **Alojamenduak, nekazariek edo enpresa kontratugileek eskainitako lokaletan**

Arartekoren 1997ko urteroko txostenean egoera modu honetara laburbiltzen zen: *“Nekazarien zein enpresa kontratugileen jabetzako lokaletan harrera egiten zaien pertsona eta familiei dagokienez, oso egoera desberdinak ikusi ahal izan dira: eredugarritzat jo diren lokalak (gaitasun handiko enpresa batzuek prestaturikoak) (...), gutxieneko bizi baldintzak betetzen ez dituzten guneak (sarritan familia arteko hainbat ustiategitan lanabesak gordetzeko erabiltzen diren lekuak), bai eta hainbat udalerritako nekazariek alojamendurako lokalak beren beregi konpondu eta berriztatzeko ekimen batzuk ere”*. Horrela bada, 1999an bereziki egindako kanpoko bisitaldietan ikusitakoak bide ematen du oinarri-oinarrian arestian esandakoari eutsi ahal izateko.

Urte horretako irailaren 29tik urriaren 6ra bitartean bisitatu ahal izan ziren langileei eta euren familiei alojamendua emateko hainbat udalerritan erabiltzen diren lokalak, esate baterako Arabako lautadakoak, Arabako mendialdekoak eta Arabako Errioxakoak. Alojamendu horien baldintzak apuntatu ziren horretarako berariaz egindako ohar fitxa batean.

Ikusitako oinarritzat hartuta, lokal horietako tipologiarik ohikoena honako deskripzioarekin etor daiteke bat:

- Bizitzeko prestatutako lekuari dagokionez, pabilioia independenteak edota nekazarien etxebizitzari atxikitako guneak izaten dira, sarritan lanabesak edo salgaiak bildu eta gordetzeko erabili eta data horietan sasoikakoen familiei harrera egiteko garbitu edo atontzen direnak.
- Baldintza zein zerbitzuei dagokienez, ohikoena izaten da ura eta argia izatea eta sukaldea zein komuna pabilioian bertan egotea edo leku hurbil batean. Espazioa banatu ohi da ezkontideen edo familien arabera, lurrean jarritako koltxoiek ematen duten tartea besterik ez dagoela; kasurik onenean mahai edo manpararen bat ere egon daiteke.

Lokal horietan hartutako pertsonen kopurua oso aldakorra da kasuen arabera. Egindako bisitetan era guztietako egoerak ikusi eta aztertu ahal izan dira: 14 familia eta 43 pertsona lonja horietako batean, bai eta 10 pertsonako familia bakarrak okupatutako lokalak ere.

Gai hau behar bezala baloratu ahal izateko, komeni da honakoak, bederen, gogoan izatea: egoerak oso aldakorrak izaten direla ( bai beharrizanei zein emandako irtenbideei dagokienez), alojamenduak emateko baldintza ekonomikoak zeintzuk diren ezagutzeko zailtasunak egoten direla, eta arazo handiak izaten direla enpresak edo nekazariek

eskainitako objektu zein zerbitzuen eta kontratatuek eurek ekarritako ekipamenduaren artean bereizi ahal izateko.

*Arabako Errioxan sasoikakoen lanari buruzko txostenean*, 2000ko apirilekoa eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzak sustatutakoa, normalean izaten diren makina bat egoerari buruzko datu esanguratsuak jasotzen dira, ikuspuntu zehatz bat ere sartuz: kontratua egiten duten nekazariena, hain zuzen ere. 298 nekazariri egindako lagin batetik hartu diren datuek errealitatera gehiago hurbiltzea ahalbideratzen dute, betiere lagin horren baliozkotasuna eta fidagarritasuna erabatekoa ez dela jakin arren. Horrela, aztertutako laginari dagokionez, ondokoa jakin ahal izan dugu, adibidez:

- Zenbatek ematen duten alojamendua (guztien %64) eta zenbatek ematen ez duten (herena baino gehiago).
- Zein alojamendu mota eskaintzen duten: etxea (%33), lonja (%35), biltegia edo pabilioia (%19)...
- Gutxieneko zein baldintza betetzen dituzten alojamendu hauek: edateko, argia, bainugela eta sukaldea (%40); gainera, ur beroa eta oheak (%30)...
- Inguru horretan zenbat plaza egongo diren gutxi gorabehera (193 inkesta positiboetan 1.688 plaza zenbatu dira eta plaza kopurua 4.000-4.500 ingurukoa izango dela pentsatzen da).
- Zeintzuk diren nekazariak sasoikako langileei alojamendua emateko dituen zailtasunak: leku egokirik ez izatea (%27); lokala berritzeko premia, mahats bilketak oso egun gutxi irauten duela eta kostua handia dela kontuan hartuta (%10); elkarbizitza arazoak eta portaeraren gaineko zalantzak (%16)...

Kasu honetan gogoan izan behar da iritzi hauek guztiak nekazariek beraiek eman dituztela eta ezin izan direla kontrastatu beste iturri batzuekin edo errealitatearen zuzeneko azterketarekin.

Aztertutako errealitateak, gutxienik, irtenbide hauek zailtzen dituzten bi elementu objektibo nabarmentzeko aukera ematen digute:

- hainbat ustiategiren tamaina, ezaugarriak eta gaitasun ekonomikoa, hau da, beharrezko baldintzak bete beharreko alojamendua jartzeko baliabide gutxi dituztenak;
- instalazio hauek urtero alojamendu modura erabiltzeko denbora tarte laburra (biltzeko kanpainak nahiko laburrak izaten dira).

Jakina denez, Arabako Errioxako ardo enpresa handi baten gaitasun ekonomikoak ez du zerikusirik patata lantzeko hektarea batzuk erabiltzen dituen nekazari arrunt baten baliabideekin. Ikusi ahal izango dugunez, alojamenduaren gaineko irtenbiderik duinenak enpresa gogorrei dagozkie edo bereziki sentsibilizaturiko nekazariei edo egokitzen den azpiegitura dutenei. Hainbat kasutan, azpiegiturak egokitzeko beharrezko obrei ekiterakoan, erakundeen laguntza ekonomikoak izan dituzte.

### d) Alojamendurik gabeko pertsonak eta zerbitzurik gabeko kanpatze guneetan dauden familiak

Kanpatze guneen inguruan deskribatu eta ikusitako egoeretariko batzuk ezin hobeto sar daitezke atal honetan. Horri erantsi beharko litzaioke Biasterin zenbaitetan

jazotzen den egoera, hau da, aterpetxeak ohe guztiak beteta dituen egun, edo hobeto esanda, gauetan gertatzen dena (arkupetan edo autobus geltokian lo egiten duten pertsonak…).

Egoera mota hauek maizago izaten dira kontraturik ez dagoen kasuetan: beharginak inork kontratatu ez dituenean edo kontratu batetik bestera zain egoten diren bitartean. Alabaina, sarritan geratu ere egitean da, langileek kontratua izan arren, kontratugileek alojamendurako erantzukizuna beren gain ez hartzea.

* * *

Deskribatutako egoera gogoan izanik, erakunde honek aurreko aldietan ere azpimarratu gura izan ditu zenbait alderdi. Horrela eta adibide gisa, honako alderdiak nabarmendu ditu: zerbitzuak hobetu ahal izateko, erakunde desberdinen eta gizarte agenteen arteko lankidetzaren beharrizana; are arazo handiagoak sor ditzakeen egoeraren hauskortasuna; harrera egiteko sareek data zehatz hauetan gainezka egiteko duten erraztasuna; ukitutako udalerrietan udal agintaritzen inplikazio maila eta irizpide desberdinak…

Onartu beharra dago eta halaxe esan behar da alderdi hauetariko batzuen gaineko erabakiak hartu direla, bai eta baliabideak jarri eta hobekuntzak lortu ere: informazioa emateko bulegoak irekitzea, sentsibilizazio kanpainetan laguntzea, profesionalen kopurua handitzea, esperientzia berriei oratu eta hasiera ematea… Guztiarekin ere, aurten ukitu nahi dugun kokaleku eta alojamenduen gai zehatz honetan ez da urrats esanguratsurik igarri.

Erakunde honen iritziz, badira bi gai deskribatutako egoeren oinarrian daudenak eta benetako zailtasun bihurtzen direnak, kokaleku eta alojamenduei buruz planteatutako arazoei aurre egin eta irtenbidea eman ahal izateko:

- Kontratugileen betebeharrak (eta horien artean, alojamenduari dagozkionak) zehazten dituen eta lokal horiek bete beharreko gutxieneko baldintzak erregulatzen dituen arautegi edo erabakirik ez egotea;
- banakako baliabideak erabilita, beharrizan batzuk betetzeko zailtasun objektiboak eta nekazarien arteko lankidetza edo erantzun erkidea aurrera eroateko ekimenik ez egotea.

Lurralde honetan oraindik ere ez dago gai hauek argitu eta zehatz litzakeen nekazaritzako hitzarmenik. Oraindik ere ez dago lokalen edo laguntza zein ikuskapen baliabideen inguruan gutxieneko baldintzarik ezarriko duen arautegi zehatzik. Eta elkarren arteko arazoei irtenbidea emateko lankidetza ekimenei dagokienez, jakin dugunaren arabera, nabarmen daitekeen gauza bakarra honaxekoa izan da: UAGAk azaldutako interesa, GOAG nekazaritza konfederazioaren migrazio arloak, Kataluniaren kasuan (hainbat instalaziotara egindako bisitaldia barne), gai honen inguruan aurrera eraman dituen esperientziak ezagutu eta zabaltzeko edo Lezako Udalaren ekimena etorkizunean erabilera komuneko lokala izateko.

Horrela bada, azken urteetako errealitatea gogoan izan eta batik bat zenbait nekazarik alojamendua emateko dituzten gabeziak nahiz beste batzuek familia oso-osoei harrera egiteko dituzten zailtasun objektiboak aintzat hartuta, deigarria da nekazari batzuen arteko lankidetzarako ekimenik ez egotea, horrela arazo komunei irtenbidea

emateko momentuan. Baliteke, gainera, ekipamendu berririk gabe hainbat egoera konpondu ahal izatea, gaur egun diren, baina zeregin hauetarako aprobetxatu ez diren baliabideak erabilita. Esan nahi baita, baliabide egokiak izan litezke Bernedoko “Arabako Mendialdeko Gazte Alojamendua” edo Lagrango Udalak San Bartolomeko ermitaren aldamenean egin berri duen eraikina zein bertako kanpatze gunea...

Bestalde, Arabako Errioxan gero eta ohikoagoa da pertsona horiek kontratatzea mahatsa bildu zein nekazaritzako bestelako lanak egiteko. Horrek ekarri du egonaldiak luzatzea eta, horregatik, arte garrantzizkoagoa izatea alojamendu baldintza egokiak arautu, kontrolatu eta bermatzeko beharrizana.

Hori guztia dela eta, erakunde honek funtsean berresten ditu alojamenduari buruzko gaia arautzeko beharrizanaren alde 1997an erabilitako argudio berberak; horrek legebiltzarrari izaera orokorreko gomendioa egitera bultzatu zuen *”sasoikako beharginei eta euren familiei zuzendutako alojamenduek bete beharreko gutxieneko baldintzak (materialak, higienikoak eta funtzionalak) arautzeko; izan ere, arautegi hori irizpide gisara erabil daiteke diru-laguntza publikoak esleitzeko, alojamenduak baimendu eta ikuskatzeko, eta, azkenik, alojamenduotako baldintza duinak bermatzeko.”*

Hurrengo atalek ildo horri jarraitu nahi diote, hau da, proposamenak zehaztu eta irtenbide batzuk eskainiko dira.

## 2. Egoera beste autonomia erkidegoetan erregularizatzeko hainbat ekimen

Egoera eta irtenbiderako proposamenak ikuspuntu juridiko eta eskumeneko batetik aztertu baino lehenago (hori gomendio honen 3. atalean egingo da), interesgarria izan liteke, oso modu laburrean bada ere, beste erkidego batzuetan abian jarritako ekimenak; izan ere, horretara, planteaturiko problemak konpontzeko bideak jorra litezke. Jakina denez, ekimen horietariko bakoitzak erantzuten dio ezaugarri zehatzak dituen problematika bati eta gerta liteke hartzen diren irtenbideak baliagarriak edo nahikoak ez izatea bestelako testuinguruetan. Beraz, kontua ez da gure egoerari besterik gabe aplika dakiokeen irtenbide eredurik eskaintzea, ezpada beste testuinguru batzuetan baliagarriak izan diren alternatibak planteatzea, horiek, azken batean, argi izpiren bat eman diezaguketelakoan.

Nahiko hurbil dauden eta sasoikako langile kopuru esanguratsua duten guneetara mugatuz, ondorengo ekimenak eta ezaugarriak zehatz ditzakegu alojamenduen erregulazioari dagokionez:

1) Andaluzia:

- Andaluziako Juntak diruz lagundu eta udalek errentatutako alojamendu-aterpetxeen sarea sortuz joan dira, bai gutxienez hainbat kanpainetarako bai hainbat gunetan (adibidez: olibaren kanpaina).
- El Egidon sortutako arazoen ondorioz, badirudi enpresa buruek langileen esku uzteko moduko alojamenduen gaiari oratu gura diotela.
- Familiaren beharrizanak betetzeko neurriei dagokienez, haurtzaindegi sarea antolatuta dago (barruko migrazioak).

- Gogora ekarri beharra dago, kasu askotan, ez dela sasoian sasoiko lan bat, ezpada urte osoko edo zati handi bateko beharra. Edozein kasutan ere, iraupen handiko kanpainak dira.

2) Katalunia:

COAGk zenbait urtetan barrena aurrera eroan duen esperientzia, funtsean, ezagutzen dugu; UAGAk ere horrekiko interesa azaldu du. Esperientzia horretarako ezaugarri azpimarragarri batzuk honako hauexek dira:

- Etorburuko kontratazioa, alojamenduen zein etxe partikularren sarea eta nekazariari zuzendutako zerbitzuen kudeaketa osoa nahasten ditu (nekazariak COAGri egiten dion ordainketaren bitartez).
- Udal batzuek alojamendu komunitarioak eraikitzea erabaki dute.
- Nekazaritzako hitzarmena dago eta alojamenduek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarrita daude.
- Familiarteko egoerak ez dira oso arruntak eta ez dira alojamenduen kasuan aurreikusten.

3) Errioxa:

- Duela urte batzuetatik hona nekazaritzako hitzarmena dute; horrek alde kontratugilearen betebeharra ezartzen ditu, betiere kontratutakoen alojamendu baldintzei dagokienez.
- Edozein modutan ere, Bañaresko kanpamenduko egoeraren modukoek kolokan jartzen dute gai horri buruzko hitzarmena betetzen den ala ez.

4) Nafarroa:

- Sasoikako langileen alojamendurako plana dago nekazaritza produktuak biltzeko kanpainak izaten direnean; egitasmo hori Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Sailak aurkeztu zion Parlamentuari, Parlamentuaren 1999ko urriaren 27ko bilkurak onetsitako mozio bati erantzuteko asmoz.
- Kontsultatutako erakundeek "behin-behinekotzat" jotzen dute plan hori.
- Etxe partikularren sarea (erabiltzen ez direnak) sortzea du helburu; horiek alokatuko litzaizkioke enplegu emaileei, sasoikako langileei alojamendua eman ahal izateko.
- Etxean sistema honetan sartuko direla bultzatzeko, PFEZaren %20ko kenketa proposatzen du, helburu honetarako lokalak erosi edo berritzeko inbertsioa egiten dutenen kasuan.

5) Aragoi:

- Aragoiko Gobernuak hainbat dekretu argitaratu ditu (horietariko azkena 2000ko martxoaren 10ean) "nekazaritza eta abeltzaintzako sasoikako beharginen alojamendurako zuzendutako eraikinak egokitzen laguntzeko".
- Dekretuaren barruan bi elementu nabarmendu behar dira:
  * ematen diren diru-laguntzen maila (eraikinak egokitzerakoan egindako inbertsioaren %50eraino);

* lokalek bizigarritasunaren aldetik bete beharreko gutxieneko baldintzak zehatz-mehatz adieraztea (dekretuaren eranskina).

6) Extremadura:

- Cáceresko nekazaritzako hitzarmenak beren beregi ezartzen du *"nekazariak langileari eskuratu beharko diola beraren familiarentzat zein harentzat bizigarritasun baldintza duinak dituen etxebizitza bat"*.
- Nekazaritzako Sasoikakoen Bulegoak 2000ko azaroan Jerte haraneko gerizaren sasoikakoen alojamenduei buruz emandako datuak askotarikoak direla esan behar da:
  * %50eri udalek gizarte erakundeen lankidetzarekin batera martxan jarritako aterpetxetan eta beste motatako zentroetan eman zaie alojamendua.
  * %30eri bizigarritasun baldintza oso desberdinak dituzten etxeetan, garajeetan edo biltegietan eman zaie alojamendu.
  * %19ri kanpaldietan eman zaie alojamendu, gehienbat Extremadurako Juntak abian jarritako kanpamenduan.

7) Kanpatze guneei dagokienez, kanpinen gaineko arautegia alde batera utzita (Eusko Jaurlaritzaren 41/1981 Dekretua), badira udal ekimenen batzuk, esate baterako Arrasate Udalarena (ez zaio lotzen sasoikakoen lanari, ezpada familia nomada batzuen asentamenduari). Beste herrialde batzuetako hainbat udalerritan abian dagoenaren ildotik doa; izan ere, auto-karabanan bidaiak egiten dituztenei kanpatze gunea uzteko modua da:

- gutxieneko zerbitzuak dituen gune bat ezartzen da (argi hartunea, ura, estolda, zola...);
- horren erabilera arautzea (pertsonen kopurua, egonaldiaren gehieneko denbora tartea...).

## 3. Sasoikako beharginen alojamendurako zuzendutako instalazioen baldintzak arautzea. Eskumenen eta proposamenen azterketa

Azken zati honetan, gorago aipatutako gai bat aztertzea komeni da: Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde egitura politikoaren barruan nork exijitu eta arautu behar dituen nekazaritza arloko sasoikako beharginentzako instalazioen oinarrizko bizigarritasun baldintzak. Esan nahi baita, erakunde komun eta lurralde historikoen arteko harremanei dagokienez, zehaztu behar da zein den nekazaritza arloarekin eta lurralde bakoitzean bizitzeko eta kokalekua ematera zuzendutako lekuen baldintzekin zerikusia duten gaiak arautzeaz arduratzen den organoa.

Egin zitekeen arren, ez diogu gai honi lan ikuspuntutik helduko; izan ere, lan baldintzak ezartzea estatuko legegileari dagokio (oinarrizko legeria) edo, hala denean, negoziazio kolektiboaren gaia da (nekazaritzako hitzarmenak...). Beste alde batetik, adierazi behar da alojamenduen gaiari besterik ez diogula oratuko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak jasotzen duenaren arabera, autonomia erkidegoak nekazaritza (10.9.) edo etxebizitzaren (10.31.) gaineko eskumenak ditu. Horiek bide ematen dute nekazaritzako langileen aldi baterako alojamendurako zuzendutako egoitzek aurkeztu beharreko bizigarritasunaren gutxieneko baldintzak arautuak izan daitezen. Lurralde Historikoei buruzko 27/1983 Legeak ez die foru aldundiei eskumen berezirik ematen; hori dela eta, ondoriozta dezakegu gai honen gainean arautzea autonomia erkidegoko erakunde komunen zeregina dela, Eusko Jaurlaritzarena, hain zuzen, betiere arau bidezko xedapen baten bitartez.

Eskumenen banaketa hau dela eta, Eusko Jaurlaritzari eska lekioke gainerako administrazioetarako (foru aldundiak eta udalak) eta nekazaritza arlorako baliagarriak diren gutxieneko irizpideak ezartzeko, betiere sasoikako langileek alojamendu duinerako duten eskubidea babestu nahian.

Beste arlo batzuetan, esate baterako turistikoan edo gazte politikakoan, badira aldi baterako egoitza erabilera mota hauen gutxieneko zerbitzuei buruzko hainbat parametro ezartzeko erabiltzen diren arauzko lanabes batzuk.

Besteak beste, honako hauexek daude: Euskal Autonomia Erkidegoko Kanpinen Antolamenduari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 Dekretua, Ume edo Gazte Taldeen Alojamendu edo Egonaldietarako zuzendutako Aterpetxe zein Instalazioen Antolamenduari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretua, Landa Inguruneko Alojamendu Egoitzak arautzeko maiatzaren 28ko 128/1996 Dekretua.

Nekazaritzako langileek aldi baterako egonaldiak egitera zuzendutako instalazioen problematikari heltzean, aipatu beharreko beste gai bat lurralde eta hirigintza antolamenduari dagokio.

Eragina duten lurralde eta arlokako plangintzen barruan ezarri behar izango litzateke aldi baterako ekoizpenaren eta bilketaren inguruko zereginei lotutako aldi baterako egoitza erabilera kolektiboa, batez ere Arabako Lurralde Historikoaren barruko ardogintzaren eta patataren arloetan.

Ildo honi jarraituz, idazten ari diren **Jarduera Ekonomikoen Lurralde eta Arlo Plangintzak, bai eta Nekazaritzako Lurzoruari buruzkoak ere,** agertuko dute zein izango den erabilera mota honek ardogintzako jarduera produktiboekin izango duen beharrezko lotura, betiere sasoikako beharginen beharrezko eta aldi baterako ekarpena.

Beste alde batetik, komenigarria izango litzateke **Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialean** (eskualde honetan Euskadiko ardogintzaren ia arlo osoa dago) eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partzialean (patataren ekoizpena bertan dago gehienbat) langileen alojamendurako aldi baterako egoitza erabilera arautzea, nagusiki bilketa zereginaren existentziari lotuz.

Nekazaritzako ustiategiak dituzten udalek aldi baterako egoitza erabilera kolektiboa jaso behar izango lukete oinarrizko antolamendurako lanabesetan, hau da, euren arau subsidiarioetan.

Horrek udalerriei ahalbideratuko lieke haziz doan edo gutxienez iraungo duen gizarte errealitate bat kontrolatzea; era berean, hirigintza politikako elementuak sar litezke udal lizentzia eta sasoikakoen egoitzara zuzendutako instalazioen existentzia zein mantentzea lotuz; horretarako, bada, Eusko Jaurlaritzako etorkizuneko dekretuak ezarriko dituen gutxieneko baldintzak hartu behar izango dira kontuan.

Eskumenen banaketa diseinu hau erreferentziatzat hartzen baldin badugu, ardogintzako eta patata ekoizpenetako sasoikako beharginen alojamenduaren problematikari oratu beharko litzaioke ondoko **tresna juridikoak** erabiliz:

1- **Eusko Jaurlaritzaren Dekretua, Nekazaritza Sailak proposaturikoa;** horrek ezarri beharko luke ardogintzako eta patatako ustiategiek (gutxienez sortu berriek eta gaur egungoak handitzeko proiektuek) sasoikakoei alojamendua emateko instalazioak izateko exijentzia, betiere ustiategi bakoitzak ekoizteko dituen beharrizan eta gaitasunaren neurriko proportzioan.
   Dekretu honetan ere instalazio hauek bete beharreko gutxieneko baldintzak eta beharkizunak jaso behar izango lirateke:
   - argi naturala eta aireztatze egokia;
   - surik hartzen ez duen koltxoia den ohea edo litera eta armairu bat;
   - dutxa, konketa eta komeneko zerbitzu higienikoak, hamar pertsonako;
   - sukalde eta harraska alikatatua eta janaria prestatzeko gutxieneko ekipamendua;
   - jantokirako gunea.
2- **Arabako Foru Aldundiko Foru Dekretua,** sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko deialdiaren gainekoa; horretarako, gorago aipatutako arautegi autonomikoak zehazten dituen gutxieneko beharkizunak bete beharko lirateke.
   Dekretu honetan ezarri behar izango litzateke arlo honetan inbertitzeko edozein laguntza, diru laguntza edo zerga onurarako baldintza izango dela Eusko Jaurlaritzaren dekretuak sasoikakoen instalazioei buruz ezarritako zehaztapenak betetzea.
3- **Lurraldea antolatzeko agiri estrategikoetan** jaso beharko litzateke erabilera hori ezartzeko premia; izan ere, behar-beharrezko elementua da patata ustiategietarako zein ardogintzarako. Hala, ondokoak aipatu nahi ditugu beren beregi: Jarduera Ekonomikoen Arlokako **Lurralde Plana** (Nekazaritzako Lurzoruen Arlokako Lurralde Plana), Arabako Errioxako Lurralde Plan Partziala eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partziala.
4- **Ukitutako udalerri guztietako arau subsidiarioen berrikuspenean** sartu beharko litzateke nekazaritzako ustiategietara lotutako etxebizitza kolektiboaren erabilera.
   Era berean, udaleko hirigintza plangintzari buruzko arau subsidiarioetan instalazio horiek bete beharreko beharkizunak eta parametroak sartu beharko lirateke; horretara, horiek bete ezean, udalak esku har lezake hirigintzako diziplinako tresnak erabiliz.

## 7. EUSKAL ERABILTZAILEEK OSASUN GARRAIORAKO DUTEN ESKUBIDEAREN APLIKAZIOA, BESTE ERKIDEGO BATEAN DAUDENEAN

Jakina denez, osasunerako eskubidea prestazio eskubidea da eta osasun laguntzara jotzea unean uneko beharrizan eta zirkunstantzien araberakoa izaten da eta horiek zehazten dira finantzazio aukeretan oinarrituz. Baliabideak mugatuak direnez gero, administrazioa prestazioen erregulazioa eta kontrola handituz joan da, eta esan daiteke horrek balio izan duela osasun prestazioak erregulatzen dituzten arauen markoari lotzen ez zitzaizkion hainbat jarduera bideratu ahal izateko.

Erabiltzailearen eta osasun sistema publikoaren arteko harremanak osasun baliabideen kostearen kontrol garbiaren testuinguru honetan egonik (legegintza eta administrazio kontrola), garrantzi handikoa da zein den zuzenbide positiboak osasun prestazioak antolatzeko duen modua jakitea. Horretarako, osasun prestazioak, bai medikuak direnak bai horren osagarriak, lortzeko egoera zehatz bakoitza aztertu behar izango da ez osasunerako eskubide orokor baten arabera, ezpada arauak osasun laguntzarako eskubidearen edukia finkatu duen moduaren kontrastearen arabera.

Ildo honi jarraituz, hainbat teknika edo prozedura terapeutiko ukatu direla-eta, hainbat prestazio ortoprotesikaren finantzaziorako baldintzak direla-eta edo hainbat prestaziotarako estaldura eza dela-eta, osasun sistema publikoari hainbat prestazioren inguruan plantea dakiokeen edozein erreklamazio aztertu behar izango da legegileak islatu duen orden kolektibo edo sozialaren ikuspuntutik, nahiz eta planteatu duenaren ikuspuntutik erreklamazioa zilegia izan.

Aurrekoaren arabera, horren antolamendua erregulatzen duen arauak prestazioren bat jasotzen ez badu, ulertu behar izango dugu juridikoki arrazoituta egongo dela osasun sistema publikoak erabiltzaileari eman beharreko osasun prestazioen barruan ez sartzea.

Osasun laguntzarako eskubidea mugatzen duen adierazpen horrek segurtasun juridikoaren printzipioa sendotzen du aplikazioan, prestazioen katalogo bat dagoelako; horrela, nazioko osasun sistemaren osasun prestazioen antolamenduari buruzko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak segurtasun handiagoa ekarri dio osasun laguntzarako eskubidearen benetako edukiari; izan ere, dagoeneko baztertu da egitatezko bidearen bitartez finkatzeko joera.

Edozein kasutan ere, ez da egoera guzti-guztiei mekanikoki aplika dakiekeen arau bat; izan ere, batzuetan nekeza izaten da zehaztea erabiltzaile batek eskatzen duen laguntza jakin bat katalogoak ezarritakoen barruan sartzen den ala ez. Horrela bada, hainbat esku-hartze, prestazio modura sartuta ez egonagatik, prestaziotzat har daitezkeela ulertu behar izaten da osasun prestazio oso batekin dituzten zuzeneko harremanak direla eta, betiere Gizarte Segurantzaren 1974ko Lege Orokorraren 98. artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Hala, gerta daiteke katalogoan prestazio modura sartuta ez dagoen hortzetako protesia zenbait kasutan prestaziotzat hartu behar izatea, beharrezko osasun prestaziotzat jotzen delako.

Osasun prestazioei buruzko Errege Dekretuaren aplikazioan dauden arazo hauek ekidinezinak dira, eta, horiek konpontzeko, aldarazpen edo egokitzapen berriak egingo balira, horiek, aldi berean, egokitzapen berriak ekarriko lituzkete. Zuzenbidea aplikatzeko moduari berez darizkion arazoak dira, eta gura izan barik ere, handinahia izango litzateke gerta litezkeen egoera guztiak aldez aurretik finkatzea.

Hori bai, zuzenbidea aplikatzeko zailtasun hori onartuta, lerro hauen helburuak beste arlo bati jarraitzen dio; izan ere, ez da hain zalantzazkoa edo zehaztugabea; izan ere, katalogoak beren beregi aintzatetsitako prestazioak dira, bai prestazioari berari dagokionez, bai berori eskuratzeko betekizunei eta baldintzei dagokienez ere.

Izan ere, gaia osasun garraiorako eskubidea zehaztean datza; hona hemen bildutako balorazioa erabiltzaileek aurkeztutako hainbat kexaren ondorioa da, zeren horiei, hainbat zirkunstantzia direla eta, prestazio hau ukatu baitzitzaien. Arartekoren iritziz, osasun garraioa ordaintzeko ukoa justifikatu nahian administrazioak emandako azalpena ezin da itzalpetu osasun prestazioak erregulatzen dituen arautegiaren ezarpenean; beraz, zuzendu beharreko jarduera da.

Lehenago ere aipatu dugu, baliabideen mugaketa dela kausa, prestazioen kontrola handitu dela. Arrazoi horiek hona hemen aipatu ditugun ukoen oinarrian egon badaitezke ere, ez dugu ahaztu behar administrazioak, bere jarduera legezkotasun printzipioari lotzeko duen betebeharrarengatik, erabaki horiek hartu behar dituela arauan ageri diren irizpideetan oinarrituz. Esan nahi baita, irizpideak justifikatuta ez ezik arauz babestuta ere egon behar du.

EAEko osasun administrazioak ulertu du pertsona bati autonomia erkidegotik kanpo laguntza eman behar izan zaienean (betiere euskal osasun zerbitzuak aldez aurretik horrela egitea erabaki barik) pertsona horrek osasun garraiorako eskubidea duela une horretako probintziako aldi baterako egoitzaraino eta ez ohiko egoitzaraino. Administrazioak justifikazio modura adierazitakoaren arabera, beste autonomia erkidegoetan erabiltzen den irizpidea da.

Horren arabera, gerta daiteke eta hala gertatzen da, euskal osasun zerbitzuko erabiltzaile bati laguntza eman behar izatea gure autonomia erkidegotik kanpora; orduan, erabiltzaile honek alta hartu eta garraio arrunta erabiltzeko moduan ez dagoenez gero, bere egoitzaraino abiatu da anbulantziaz; horrela, ikusi beharko du Osasun Sailak ez duela bere gain hartzen lekualdaketaren kostua.

Erabaki hori ondokoan oinarritzen da: osasun garraiorako eskubideak laguntza eman zaion probintziako aldi baterako egoitzarainoko lekualdaketa soil-soilik hartzen duelako iritzian.

Administrazioak bere jarduerak legezkotasun printzipioaren arabera bideratzeko duen betebeharrak (beraz, irizpide horrek arauzko babesa izatekoa ere) bultzatzen gaitu interpretazio administratibo hori kontrajartzera urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuaren 1. eranskinaren 4. atalaren 2. puntuak prestazio horren inguruan arautzen duenari. Horrelaxe dio:

> *"Osasun garraioaren prestazioak gaixoen edo istripua izandakoen garraio berezia hartzen du bere gain, ondorengo zirkunstantzietarik edozeinetan:*
> *a) Interesatuaren osasunari edo biziari arriskua edo kalte konponezina dakarkion larrialdi egoera bat badago eta horrela agintzen edo zehazten badu beharrezko sendagileak.*
> *b) Interesatuaren ezintasun fisikoa badago edo, sendagilearen iritziz,* ***garraio arrunta erabiltzen edo osasun zentro batera zein beraren egoitzara lekualdatzen uzten ez dioten arrazoiak daudenean****, betiere beharrezko osasun laguntza eman eta gero.*
> *Osasun garraioaren prestazioa emateko beharrizanaren inguruko ebaluazioa laguntza eman duen sendagileari dagokio; hala, horren zehaztapenak arrazoi*

*medikoetan oinarrituko dira, betiere lekualdaketa garraiorako ohiko bideetatik ahalbideratzeko".*

Egon litekeen kasuistikatik ondoko egoera hauek atera ditugu: a) Gerta daiteke erabiltzaile bati beste autonomia erkidego batean laguntza eman behar izatea; hala ere, ospitaleko egonaldia luzea izango dela aurreikusten denez, bere erreferentziako ospitalera joatea erabakitzen du, bertan beharrezko laguntza eman eta etxetik ahalik eta hurbilen egoteko. Euskal Autonomia Erkidegoko ospitalean alta eman eta lekualdaketa egiteko garraio arrunta ezin denean erabili, ez dago zalantza izpirik ere osasun garraioa ere behar izango zuela lehenengoz laguntza eman zioten ospitalean geratuagatik ere. b) Gerta daiteke pertsona bati aldi baterako zegoen tokiko ospitalean laguntza eman behar izatea; orduan, alta hartu ostean, EAEko ohiko egoitzara lekualdatzen dute, betiere laguntza eman zion sendagileak lekualdaketa egiteko anbulantziaren beharrizana agertuz.

A) Planteaturiko bi egoera hauetatik lehendabizikoan, Osasun Sailak anbulantziaren gastuaren ordainketari uko egingo dio, lekualdaketa borondatezkoa izan zela eta bolada baterako zegoen tokiko ospitalea hori egiteko prestaturik zegoela ulertzen delako.

Erabiltzailearen eskabideari uko egitean, administrazioak bi zirkunstantzia garrantzitsu baztertzen ditu: ohiko egoitzatik urrun dagoen ospitale batean egoteagatik erabiltzaileari berari eta beraren familiari sortuko zitzaizkion trabak, eta bestea, are garrantzitsuagoa ikuspuntu juridiko batetik ikusita, bere autonomia erkidegotik kanpora laguntza eman zitzaion ospitalean geratu izan balitz -Osasun Sailak iradokitzen zuen modura-, anbulantziaz lekualdatu behar izango zuten, azkenean gertatu zen modura.

Hala ere, jakina denez, ez zen hori arrazoirik behinena eta, lehenengoz Osasun Sailak erabiltzailearen eskabideari uko egin bazion ere lekualdaketa ez zela medikuntza aldetik beharrezkoa izan argudiatuz, horren ostean osasun administrazioak ondorengo hau adierazi zion Arartekori *"... lekualdatutako pertsonei osasun prestazioak emateko autonomia erkidego desberdinek dituzten jarduera irizpideen arabera, ospitaleko altaren ostean anbulantziaz egoitzaraino egiten den lekualdaketak berekin ekarri behar du gaixoa eraman behar izatea <u>alta eman zaion ospitaletik aldi baterako dagoen probintziako egoitzaraino</u>, eta ez jatorrizko autonomia erkidegoan dagoen egoitzaraino*"

Hau da, beraren autonomia erkidegoko ospitale baterako lekualdaketa eskatu izan ez balu ere, administrazioak ez zuen ordainduko anbulantziaz ondoren egindako lekualdaketa.

B) Planteaturiko bigarren egoeran, gaixoari aldi baterako zegoen erkidegoko ospitaleak alta eman zion; horrela bada, gastua ordaintzeko eskabidearen gaitzirizpenak zuzenean planteatu zuen ez zuela ohiko helbide edo egoitzaraino joateko osasun garraiorako eskubiderik.

Eskubidea bi kasuetan mugatu eta gero, azpimarratu beharra dago horrek ez zuela ekarri zatiz ere onartzea, hau da, osasun administrazioak aldi baterako egoitzatzat hartzen zuen lekuraino anbulantziaz eramateari zegokion kantitatea ordaintzea, betiere erabakian ageri zen moduan. Horrenbestez, erabiltzailearen eskabideari uko egin zioten ondorio guztietarako.

Arartekok egindako jarduerei dagokienez, osasun administrazioak sekula ez du kolokan jarri gorago aipatutako 1995/63 Errege Dekretuaren 1. eranskinaren 4. ataleko 2. puntuak adierazten dituen alderdietarik bat ere ez, esate baterako garraio arrunta

erabiltzeko ezintasunari dagokiona (sendagileak baloratu beharrekoa) edo laguntzaren arrazoian larrialdi egoerarik egotea edo ez.

Osasun garraiorako eskubidea izateko 63/1995 Errege Dekretuak ezartzen dituen betekizunetarik batzuk kontzeptu juridiko zehaztugabeen arloan sar daitezke; hori dela eta, zehaztapenak egiteko bidezko eztabaiden eremua litzateke (esate baterako, ea garraio arrunta erabiltzeko ezintasunik egon zen ala ez.

Egoitza, hala ere, ez da kontzeptu juridiko zehaztugabea. Arauak osasun garraiorako eskubidea mugatzen du egoitzari men eginez, eta hori hain kontzeptu erabilia izanik, ohiko egotetxeari lotua, administrazioak nekez arrazoitu ahal izango du egoitza mugatzeko irizpidea manuan islatzen dela; izan ere, horrela esaten du: "*...ezintasun fisikoa badago edo (...) garraio arrunta erabiltzen edo osasun zentro batera zein beraren egoitzara lekualdatzen uzten ez dioten arrazoiak daudenean...*".

Prestazioa baldintza hauen arabera aintzatetsita, jarduera irizpide desberdinik badago, zirkular edo antzeko tresnaren batean jasoa, kontuan hartu behar da zein den prestazioaren baldintzak ezartzen dituen arauaren lerruna; izan ere, horrek baldintzatzen du maila bereko arau batean itzalpeturik ez dagoen irizpide bat aplikatzea, ezik beharrezkoa da gogora ekartzea zirkular batek prozedura edo antolakuntza baten barneko alderdiak arautu ditzakeela, baina ezin ditu erabiltzaileen eskubideak murriztu.

Edozein kasutan ere, ondorio dialektiko hutsetarako, eman dezagun, egoitzaren ohiko kontzeptuari dagokionez, batzuetan badirela hainbat arrazoi osasun prestazioetarako egoitza ohiko egotetxea ez den beste bat dela pentsatu ahal izateko.

Arauaren testuak men egiten dio osasun zentrotik egoitzaraino egiten den lekualdaketari. Handik abiatuz, administrazioak kontzeptu horren inguruan egiten duen interpretazioa (hainbat kasutan aldi baterako egoitzara mugatuz) ez dator bat manuaren letratik ondorioztatzen denarekin.

Hala ere, administrazioak jarduteko duen moduari jartzen diogun traba ez dagokio manuaren hitzez hitzeko alderdiari; horrela, baztertu egiten dugu batzuetan badirela aldi baterako benetako egoitza dagoenean berori aintzat hartzeko hainbat arrazoi, betiere ohiko egoitzaren aldean. Zirkunstantzia horietan, beharbada, ez da manuaren aplikazio hori baztertu behar; izan ere, kasu horri dagokionez, aldi baterako egoitza horretan batera biltzen dira ohiko egotetxetzat hartzen dugun egoitzaren hainbat eta hainbat ezaugarri, esate baterako familiartekoen edo lagunen hurbiltasuna, egonaldia hain astuna ez izatea eta abar.

Alabaina, zehaztu beharra dago aplikazio hori ez dela administrazioak egiten duena; izan ere, erabakia ez da oinarritzen aldi baterako benetako egoitzaren existentzian, ezpada aldi baterako egoitzaren exijentziaren goitik beherako aplikazioan; horrela, pentsatu beharra dago ohiko egoitzatik kanpoko edozein tokitan dagoen pertsona batek, laguntza bertan eman badiote, beste leku horretan aldi baterako egoitza edo egotetxea duela.

Jakina, hona hemen planteaturiko trabek ez dute ekarri ohiko egoitzaren desberdina den egotetxearen inguruko interpretaziorik. Ararteko erakundearen trabak jarri dira administrazioak uste izan duelako, ondorio guztietarako, badagoela aldi baterako benetako egoitza; horrela bada, arauak erabilitako kontzeptua murriztu eta, ondorioz, araua bera ordeztu egin du.

Arartekoren iritziz, osasun garraiorako eskubidearen baldintzak ondokoak dira: laguntzarako larritasuna eta garraio arrunta erabiltzeko ezintasuna; gainera, bi

zirkunstantzia hauek laguntza ematen duen sendagileak ebaluatu behar izango ditu. Hortik abiatuta eta zirkunstantzia horiek egiaztatuta, osasun administrazioak murriztu nahi badu erabiltzaileak osasun zentro batetik egoitzaraino lekualdatua izateko duen eskubidea, justifikatu behar izango du zergatik ukatzen dion egoitzaren izaera lekualdaketaren ondorioz iritsi egin deneko tokiari. Edo, gaur egun nahi duten bezala, erabiltzaileak, laguntza eman zaion probintzian, aldi baterako egoitza duela eta bertan ohiko egoitzaren antzeko zirkunstantziak batera biltzen direla aurreikusten bada, horretara bideratutako ahaleginak egin beharko ditu, baina ez pentsatu aldi baterako benetako egoitza existitzen denik, betiere horrek ekar ditzakeen zailtasunetan oinarriturik.

Manuaren aplikazioan horrelako eragiketarik aurrera eraman ezean, osasun garraiorako eskubidea urratuko litzateke; izan ere, prestazio osagarria izan arren, horrek ez du baliorik galdu behar administrazioaren jarduera eramendu behar duten arauen aldean; arauon barruan, jarduera legezkotasun printzipioari lotzekoa dago. Eta honi dagokionez, prestazio osagarri honen baldintzak urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuarenak badira, horren aintzatespena bideratu behar izango da horiei lotuz, betiere araua aldarazten ez den bitartean.

Aztertu dugun gai hau justizi epaitegietan planteatua izan da eta epaiak lekualdaketa ohiko egoitza edo helbideraino egitearen aldekoak izan dira; edonola ere, auzitegien izaera kontuan hartuta, doktrina horrek ez dakar jurisprudentziarik, hori Auzitegi Gorenari besterik ez baitario. Beste alde batetik, gai beraren inguruko epaia ematen badute ere, epaiak emateko arrazoiek ez digute uzten eztabaidaturiko gaitzat hartzen. Gainera, aipatu behar dugu maila bereko epaiak aurkitu ditugula (auzitegi nagusiak) eta horiek administrazioaren aldeko epaia eman dutela, osasun garraioa aldi baterako egoitzatzat jotzen den horretara mugatua izan delako.

Jakina denez, doktrina orokorraz hitz egitea ahalbideratzen duen jurisprudentziarik balego, orain arte egin dugun balorazioak beste bide bati jarraituko lioke edo ziur aski ez litzateke beharrezkoa izango. Nolanahi ere, ohar hauek eginda, aipatuko ditugu erabiltzaileak aldi baterako zeuden probintziako ospitaletik egoitzaraino (ohiko egotetxetzat hartuta) egindako lekualdaketari buruzko bi epai.

Lehenengoari dagokionez (Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kontrakoa), Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiak 345/1998 epaian (1998/6841) aintzat hartzen du Medina del Campoko eskualdeko ospitaletik Iruñeko Virgen del Carmen ospitaleraino egindako lekualdaketa, behin gaixoak egoitza duen osasun zentrora garraio arruntean lekualdatzeko zeukan ezintasun fisikoa egiaztatu eta gero. Lekualdatzeko premiari dagokionez, eskaera aintzat hartzeko modukoa dela uste du, prestazioaren iraupen luzea gogoan izanik. Administrazioak alegatu zuen lekualdaketa gaixoaren eta familiaren interesarengatik baino ez zela egin; auzitegiak ez zuen argudio hori onartu.

Asturiasko Justizi Auzitegi Nagusiak 1578/1998 epaian (1998/6118) aintzat hartzen du erabiltzaileak Salamancatik Gixoneko egoitzarainoko lekualdaketa (bertan oporretan zegoen, osasun laguntza eman behar izan zitzaionean) egiteko duen eskubidea. Epaiak ematen duen arrazoi juridiko bakarrean adierazten du (nahiz eta lehenengoz ezarri lekualdaketa arrazoi pertsonal eta familiartekoengatik egin zela) espedientean egiaztatzen zela sendagileak lekualdaketarako sinaturiko agindua, betiere lekualdaketaren premia zehaztuz.

Orain arte adierazi bezala, egin dugun balorazioa abiapuntutzat hartzen ditu osasun garraiorako gaur egun urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak arautzen dituen

baldintzak; horrela bada, ildo honi jarraituz, Ararteko erakundeak uste du osasun administrazioari bere jarduera aldatzea eskatzeko arrazoiak juridikoak direla. Hari honetatik, gomendatu behar dugu, anbulantziaz egindako lekualdaketen gastuak ordaintzeko eskaeretan ageri direnean aipatutako arauaren I. eranskinaren 4. ataleko 2. puntuaren baldintzak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ordainketa hori kasu guztietan aitzatestea, nahiz eta laguntza jatorrizkoa ez den autonomia erkidegoko osasun zentro batean eman zaien.

Gomendio hau egiterakoan, oso kontuan hartu da osasun prestazioen eraginkortasuna ez dagokiela huts-hutsean tresna juridikoei, baizik eta zerbitzuen funtzionamenduari, bereziki. Horrela, balorazio honek balio erantsia izan dezake; izan ere, batzuetan erabiltzaileak jokatzen du laguntza eman zaion zentroko beharginen jarraibideei men eginez; beraz, erabiltzailearen fede txar egiaztatuaren kasuan izan ezik, kontuan hartu behar da, erabiltzaileak sendagileen jarraibideen arabera jokatzen badu eta zehaztapen horiek okerrak izan badira eskubideei dagokienez, ez diotela interesatuari soil-soilik eragin behar informazio txarrean edo sistema publikoan laguntza eman ziotenen jarduera oker batean oinarrituriko jarduera baten ondorioek.

Osasun sistema publikoaren erabiltzaileak balia ditzakeen osasun zerbitzuen berri izateko eskubidea dauka, bai eta horiek usatzeko betekizunen berri izatekoa ere (Osasun Legearen 10.2. artikulua) eta, aitzitik, ezin zaio eskatu osasun prestazioak lortzeko eta erabiltzeko baldintzen jakinaren gainean egotea. Hori dela eta, sendagile batek erabiltzaile baten lekualdaketa prestatzen badu anbulantziaz, harritzekoa da nola jar daitekeen kolokan sendagileak interesatuarentzat hartutako erabaki hori, alde batera utziz eta baztertuz.

## 8. KONSTITUZIO EGINBEHARRA BETETZEA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ORDUAN, FAMILIA BABESTEKO NEURRIAK HARTZEA

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko udaletan, etxebizitza garesti dago, jakinekoa denez. Horixe da, hain zuzen ere, euskal gazte eta familiek etxebizitza eskuratzeko duten kezka nagusia. Izan ere, etxebizitzen inguruko sustapen publikoak egiten direnean, euskal gazte eta familiek aukera ezin hobea ikusten dute, baldintza egokietan, etxebizitza duina eskuratzeko.

Halako etxebizitzen adjudikazioak egiten direnean, adjudikazio horietan parte hartzeko baldintzak izan ohi dira, bestak beste, jarraikoak: etxebizitzarik ez izatea; errentaren inguruan, gutxieneko eta gehieneko mailak betetzea; eta, sarritan, eraikina zein udaletan egin eta udal horretan bizilekua izatea.

Gaur egun, legeria zehatza dago indarrean, babes ofizialeko etxebizitzen arloan. Legeria horrek, adjudikazio-prozesuen kudeaketa errazteko, honako eskakizun hau ezarri du: eskatzaileek euren sarrerak egiaztatu behar dituzte, urtebete jakin bati begira bakarrik. Urtebete hori, eskuarki, zergaldi zehatzari dagokio. Arean bere, adjudikazio-prozedurari hasiera emateko, Agindua argitaratzen da. Bada, agindu hori argitaratu aurretixeko zergaldian, sarrerak egiaztatu behar dira, betiere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko epea mugaeguneratu eta gero.

Herritar batzuk ez daude horrekin ados. Izan ere, herritar horiek adjudikazio-prozesuetatik kanpo geratzen dira, goian aipatutako urtebete zehatz horretan ezin dituztelako gutxieneko eta nahitaezko sarrerak egiaztatu; urte horretan, ez dituzte halako sarrerak izan eta, horiek egiaztatu ezik, ezin dute parterik hartu, halako etxebizitzak adjudikatzeko prozesuan.

Urtebete jakin batean, gerta daiteke gutxieneko sarrerarik ez izatea. Halako kasuak hamaikatxo izan daitezke, eta guztiak ere era askotakoak izan daitezke, eta praktikan badira gainera. Dena den, une honetan, arreta berezia jarri nahi dugu erakunde honi helarazi zaizkion kasu jakin batzuetan. Gaur arte, herri administrazioek ez dute kasu horientzat konponbide eragingarririk aurkitu. Egia esateko, konponbide bakarra izan da hurrengo zozketari itxarotea; zozketa horretan, beste urtebete batean lortutako sarrerak egiaztatu ahal izango dira eta, urtebete horretan, beharbada, gutxieneko eta nahitaezko sarrerak izan daitezke.

Horixe da, hain zuzen ere, hainbat lagunen egoera. Lagun horiek enplegu egonkorra dute, langile finkoak edo funtzionarioak direlako. Etxebizitzen adjudikazioari buruzko aginduak gutxieneko sarrera batzuk eskatzen dizkie lagun horiei, adjudikazio-prozesuetan parte hartu ahal izateko. Alabaina, eskatutako urtebete zehatz horretan, lagunok ezin izan dituzte gutxieneko sarrerak egiaztatu, ez dituztelako halakoak izan. Egin-eginean ere, urtebete horretan, konstituzio-eginbeharra bete dute, soldadutza edo ordezko gizarte-prestazioa egin dutelako; edo, bestela, arrazoi pertsonalen ondorioz, euren eguneko lansaioa txikitu edo ezedentzia eskatu dute.

Kasu horietarako, ez dago irizpide zuzentzaile edo konpentsatzailerik, eta halako lagunak ez daude irizpideen gabezia horrekin ados. Euren kasuan, argi dago denboraldi jakin batean bakarrik ez dituztela izan eskatutako sarrerak; baina, eskabideak aurkezteko unean, lagun horiek badute behar besteko errentarik, etxebizitzaren ordainketei aurre

egiteko. Izan ere, eskabideak aurkezteko unean, lagun horiek euren lanpostuetara itzuli dira, soldadutza egin eta gero, ezedentzia bukatu eta gero, edota lansaioaren txikitzea amaitu eta gero.

Jakina denez, segurtasun juridikoaren printzipioa eta berdintasun-printzipioa bermatu behar dira une oro. Horren ondorioz, konstituzio-eginbeharra betetzeak ezin dio inoiz ezkutuko zigorrik eragin eginbehar hori bete duenari. Hori dela eta, Arartekoak, 1997. urtean, Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari iradokizuna egin zion. Iradokizunaren arabera, Sailak bide egokiak ezarri behar zituen, konstituzio-eginbeharra ez betetzearen ondorioz, bereizkeriarik gerta ez zedin.

Laburbilduta, prozesuko parte-hartzaile batzuek, soldadutza edo ordezko gizarte-prestazioa egiteagatik, ezin izan dituzte sarrerak egiaztatu. Arazo horri aurre egiteko, Arartekoaren iritziz, Sailak hainbat modutara joka dezake. Esate baterako, eskatzailearen egoera ekonomikoa kontuan hartzen duenean, Sailak beste erreferentzia bat har dezake. Orain, etxebizitza adjudikatzeko prozedura zein urtetan egin eta horren aurretixeko urtebetea hartzen da erreferentzia gisa. Egoki izan daiteke, urtebete bat bakarrik kontuan hartu beharrean, aurretixeko bi urtebeteak kontuan hartzea. Jokatzeko beste modu bat izan daiteke, berbarako, lan-kontratua frogabide gisa onartzea, parte-hartzaileen eskuratze-gaitasuna egiaztatzeko; izan ere, lan-kontratuaren bitartez froga daiteke sarrerarik eza behin-behinekoa besterik ez dela izan. Ezin da ahantzi ez dela sarrerarik izan, denboraldi horretan parte-hartzaileak soldadutza edo ordezko gizarte-prestazioa bete duelako; horien bete ostean, ordea, eskatutako errenta jasotzeari ekin zaio.

Horren inguruan, Arartekoak jarraikoa azpimarratu nahi du: herritar horiek konstituzio-eginbeharra bete izan ez balute, sustatutako etxebizitzen adjudikazio-prozesuetan parte hartzeko aukera izango zuketen.

Arartekoak nabarmendu nahi du, halaber, sarreren baremoak zein eginkizun betetzen duen. Etxebizitzak adjudikatzen direnean, sarreren baremoak, batetik, erraztu egiten du hainbat biztanlek etxebizitza eskuratzea, eurentzat merkatuan halako etxebizitza eskuratzea ezinezkoa izan daitekeelako. Sarreren baremoak, bestetik, eskuratze-gaitasuna egiaztatzeko balio du; sarrera jakin batzuk egiaztatuz gero, ziurra izango da ordainketei eta etxebizitza eskuratzearen ondoriozko gastuei aurre egiteko aukera.

Arartekoaren aburuz, berebat, abantaila handia du lagun horien egiazko gaitasun ekonomikoa kontuan hartzeak. Hori eginez gero, lagunok sustapenetan parte hartuko dute, euren egiazko aukera ekonomikoen arabera; horrela, azkenean zozketan adjudikaziodun gertatzen badira, lagun horiek etxebizitza eskuratuko dute.

Ondorio horietarako, Arartekoak gomendioa luzatu dio Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari. Gomendio horren arabera, Sailak irizpide zuzentzaileak sartu behar ditu gerogarreneko deialdietan. Irizpide horien bitartez, herritarren arteko bereizkeriak saihestu daitezke, frogabideak baldin badaude, eskatzaileen benetako gaitasun ekonomikoa egiaztatzeko; frogabide horiekin, eskatzaileok egiazta dezakete euren errenta-mailak ez dituela gainditzen deialdiaren oinarrietan ezarritako mugak. Irizpide zuzentzaile horiek barneratzeko, aurretiaz indarreko arautegia aldatu behar da; horrela, goian aipatutako kasuak (konstituzio-eginbeharra betetzea, ezedentziak, lansaio-txikipenak…) arautegi horretan beren beregi sartu ahal izango dira. Kasu horietan, bestelako inguruabarrak izan behar dira gogoan; lan-egonkortasuna, behintzat, aintzakotzat hartu beharko litzateke, sinatutako kontratua aurkeztearen bitartez.

Arartekoak adierazi duen bezala, badira egoera berezi batzuk, konstituzio-eginbeharra betetzearekin pareka daitezkeenak. Egoera horietan, emakume edo gizonezkoek kontratu finkoa dute plantilan, eta lanpostuan aldi baterako ezedentzia eskatu dute edo, osterantzean, lansaioa txikitzeko eskaria egin dute, seme-alabak edo senideak zaintzeko, edo bestelako arrazoi pertsonalak asetzeko. Kasu horietan, etxebizitza eskuratzeko politikak ez du bat egiten jaiotza-tasa sustatzeko eta familia babesteko politikekin. Politika horien guztien artean, desadostasunak gertatzen dira eta, desadostasunen ondorioz, neurri jakin batzuei uko egin behar zaie, etxebizitzen adjudikaziorako prozesuan parte hartu ahal izateko.

Gure legeriak konponbide bat eskaintzen du, nolabait, erreklamazio horiek bideratzeko. Arean bere, organo jakin batzuen ardura da eskabideak onartu eta kalifikatzea. Organo horiek hainbat ahalmen dituzte, eta horietatik bat da, hain zuzen ere, nahitaezkotzat jotzen diren frogabide guztiak eskatzea, eskatzaileen egiazko sarrerak egiaztatzeko. Zernahi gisaz, gomendio honetan Arartekoak azpimarratu nahi izan duen moduan, ukitutako administrazioek –Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, eta autonomia erkidego honetako udalek– ez dute frogabide gisa lan-kontratua onartzen, eskatzaileen benetako gaitasun ekonomikoa egiaztatzeko.

Egia esateko, kasu horiei guztiei konponbide egokia emateko, nahitaezkoa da indarreko legeria aldatzea. Horri kalterik egin gabe, Arartekoak uste du, bien bitartean, Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, bai eta babes ofizialeko etxebizitzen sustapenean eskumenak dituzten udalek ere, honako erabaki hau hartu behar dutela: babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko prozesuetan, eskatzaileen eskabideak onartu behar dira, baldin eta eskatzaileok enplegu egonkorra badute eta hori egiaztatu nahi badute, euren lan-kontratua aurkeztuz. Horretan, ez da kontuan izan behar eskatzaile horiek aldi baterako ezintasunen bat izatea, deialdian ezarritako gutxieneko sarrerak egiaztatzeko. Eskatzaileoi eskatu zaie ekitaldi jakin bateko errenta-maila egiaztatzeko; eta, ekitaldi horretan, konstituzio-eginbeharra bete dute, ezedentzian egon dira edota, familia zaintzeko, lansaioaren txikipena eskatu dute.

# VII. ATALA

## ONDORIOAK.
## ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak, bere 32.2 artikuluan dio *«Legebiltzarrean aurkezten den urteko txostenean eskubideen babesak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan duen egoearen balorazioa egin beharko da»*.

Balorazio hau, jakina, bere jarduera betetzean egoera horren gainean jasotako ezagutza zuzenean oinarriturik egiten du Arartekoak, eta bere jarduera eremuak hartzen dituen euskal herri administrazioen aldetik, hau da, Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorraren, lurralde historikoen eta udal administrazioen aldetik euskal herritarren eskubideen errespetu maila norainokoa den erakutsi nahi du.

Horrek esan nahi du ez direla kontutan hartuko, 2000. urtean zehar zalantzarik gabe gertatu arren, Arartekoak bere eginbeharrak betetzean ezagutu ez dituen eskubide urraketak, ez eta, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izanik, Arartekoaren kontrolaren eremutik kanpo daudenak, edota, agerikoak izan arren, partikularrek edo talde antolatuek egindako giza eskubideen urraketa larriak ere.

Kapitulua Konstituzioaren testuaren lehen goiburuan sartzen diren eskubideen azterketan oinarrituta egituratzen da, Arartekoaren ekintza araupetzen duen Legeak 1.1 artikuluan eskubide horien defentsa esleitzen baitio.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honen II. Kapituluaren alorren gaineko aitzinsolas bakoitzean zehatz-mehatz aztertzen dira administrazio jardueraren eremu desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura.

Lehen hurbilketa gisa, esan dezakegu Arartekoaren eta Estatuaren parlamentuko gainerako mandatarien txostenetan etengabe aipatzen dela oso gutxi direla Espainiako Konstituzioan I. Goiburuaren bigarren kapituluaren lehen atalean agertzen diren eskubideren baten balizko urraketen gaineko kexak, alegia oinarrizko eskubideak eta herri askatasunak deritzenen urraketen gainekoak. 2000. urtean ere horrela gertatu da.

Esandakoaren haritik, gizarte eskubideak deritzenek, bai eta Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikuluaren balizko urraketek ere, -artikulu honek herri administrazioei ezartzen die eraginkortasunez eta legearen eta zuzenbidearen menpekotasun osoz jarduteko beharra, interes orokorrei modu objektiboz erantzuteko- eragin dituzte aurkeztutako kexarik gehienak.

Urte hauetan zehar, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan eta I. Goiburuaren bigarren kapituluaren lehen atalean (oinarrizko eskubideak eta herri askatasunak) sartuta dauden eskubideen eta askatasunen litezkeen urraketen gaineko kexei dagokienez, esango dugu, zorionez, kopuruz garrantzi txikia dutela, Arartekoaren aurrean jarritako kexak gutxi izaten baitira. Halakotzat jo ohi ditugu eskubide hauen muinari eragiten dioten kexak.

Jakina, horrek ez du esan halako urraketarik gertatzen ez denik, eta kapitulu honetan erakunde honek ezagutu dituenak azaltzen saiatuko gara.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua.**
  *“Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean, eta ezin da jaiotzaren, arrazaren, sexuaren, erlijioaren, iritziaren edo bestelako izaera eta pertsona edo gizarte mailako inguru abarren arabera inongo bazterkeriarik gailendu.»*

Eskubideei eta askatasunei dagozkien kexarik gehienak berdintasunaren oinarriaren litezkeen urratzeei lotuta daude.

Erakunde honen funtsezko kezketako bat izan da Konstituzioaren testuan tasatutako arrazoietako edozeinengatik baztertzailea den herri agintaritzaren ezein jarduera eragoztea.

Zehaztu egin behar da, ezen, sarritan, berdintasunaren oinarriaren urraketa beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, beraz, hauetaz egiten den analisian kasu batzuetan oinarri hau aipatzen da.

Gure gizartean emakumeen eta gizonezkoen arteko izatezko berdintasunak lortutako errealitatea baino gehiago lortzeko helburua izaten jarraitzen duela begi bistakoa den arren, gutxi dira generoaren ondoriozko bereizkeria kasuak aurkezten dituzten kexak. Erakunde honen jarduera emakumeen interesen ikuspegitik aztertzen den atalean azaltzen den bezala, horren arrazoietako bat izan daiteke berdintasunaren eskubidearen urraketarik larrienak eremu pribatuan gertatzen direla (lan, familia eta abarreko harremanak). Dena dela, Arartekoaren aurrean aurkezten diren kasu askotan, gure kulturan nagusi den gizarteko rolen banaketa desberdinaren eraginez emakumeek jasaten dituzten ondorio kaltegarriak antzeman daitezke.

Atzerritar batzuek erakunde honetara jo dute beren jatorriarengatik izandako bereizkeriak salatzeko. Kasu batzuetan, tratu desberdinaren gaineko egozpena polizia indarrei edo espetxeetako administrazioari zegokien, baina arrazoi berdinean oinarritutako jarduera judizialen aurkako kexak ere izan dira.

Funtzionarioei, adin txikikoak seme-alabatzat hartu zein adin txikikoen ardura bere gain hartzen zuten kasuetan, tratamendu desberdina ematen zitzaien amatasun/aitatasun biologikoen baimenen kasuen aldean.

Langileen familiako eta laneko bizitza bateratzea sustatzerako azaroaren 1eko 39/1999 Legeak amatasun biologikoaren kasuak eta sei urte arteko haurrak seme-alabatzat hartu edo haien ardura hartzen deneko kasuak guraso baimenen ondoreetarako parekatzen dituen arren, parekatze hori ez da oraindik irakaskuntzako langile funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen markora zabaldu.

Horregatik, autonomia kolektiboaren oinarria errespetatuta ere, hezkuntza administrazioari eskatu zaio pertsona guztien izatezko berdintasunean sakontzeko bidea eskain dezaketen baldintzak sustatu ditzala, kasu bietan baimenak emateko izan den tratamenduaren ildotik

Halaber, bitarteko funtzionarioei seme-alabak edota senideak zaintzeko eszedentzia ematea ukatu zaieneko kasuei dagokienez, erakunde honek uste du halakoetan, Konstituzio Epaitegiak 240/99 eta 203/2000 Ebazpenetan finkatutako doktrinaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urratzen dela, konstituzioko mailako eskubide bat ukatzen baita (Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 39.1 artikuluak), aldi baterako izaeran eta zerbitzuaren prestazio premiazko eta beharrezkoan soilik oinarrituta.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA HERRI ASKATASUNAK

### 2.1. BIZITZARAKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua**
  *"Denek dute bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta ezin izango zaie, inola eta ezerengatik ere, tortura eta tratu gizalegez kanpoko edo iraingarririk eman. Heriotza zigorra deuseztatu egiten da, gerrate garaietarako militarren zigor legeek xeda lezaketena salbuetsita."*

Eskubideen berme den erakundeak herri botereek bizitza eta osotasun fisikorako eskubidearen errespetu estu eta zorrotza izan dezaten zaindu behar du.

Lehen esan dudan bezala, erakunde honek ezin du esku hartu talde antolatuek, zehaztuz, ETAk eta haren ingurukoek, egiten dituzten giza eskubideen urratze larrien gaian..

Agindu etikoarengatik, ordea, egoera horren biktimei elkartasuna adierazi behar die, baita herritar askoren eskubideak murrizten dituzten ekintza horien aurkako gaitzespenik sendoena adierazi ere.

Horregatik, Ararteko erakundearen idatzi guztietan, lema gisa, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluaren testua erantsi da: *"Pertsona orok du bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea"*, *ETArik EZ* adierazpenarekin batera..

Oroigarri hori eskubiderik oinarrizkoenak behin eta berriro urratzen direlako egoeraz ohartarazteko asmoz jarri da.

Bermerako erakunde honek agerian jarri behar du, halaber, emakumeen aurkako bortizkeria egun ere pertsonen bizitza eta osotasun fisikorako eskubidearen urratzerik larrienetakoa dela. Arartekoak, kasu honetan ere, sexu erasoen kasuetan zuzenean esku hartzeko eskumenik izan ohi ez duen arren, sarritan jasotzen dira arazo honen inguruko kontsulta eskariak. Bestalde, generoko bortizkeriaren gaineko hausnarketa foro desberdinetan parte hartu dugu, horixe baita – gure ustez- emakumeek jasaten duten bazterkeriaren azken adierazpena, eta horregatik emakumeen autonomia pertsonala eta, azken finean, pertsona guztien izatezko berdintasuna sustatzen duten neurriak soilik izango dira alor honetan benetan aurrera egitea ekarriko dutenak.

2000. urtean zehar pertsona atzerritarren atxiloketan poliziek emandako tratu txarren inguruko zenbait kexa jaso ditugu.

Zehaztuz, Ertzainek ahoan droga eraman dezaketelako susmoa hartzen zaien pertsonei, droga irents ez dezaten, porraz zamatik heltzen jarraitzen duela salatzen da, eta guk hala egiteari erabat neurriz kanpokoa irizten diogu.

Bestalde, Herrizaingo Sailak ondo hartu eta erantzun dio polizia etxeetako ziegen gunean bideo grabaketaren bidezko kontrol sistema jartzeko gure gomendioari. Ertzaintzako arduradunek jakinarazi digutenaren arabera, sistema hori aurki hasiko da funtzionatzen. Gomendio hau NBEko kontalari bereziak torturari lotutako gaietarako esandakoaren ildotik aurkeztu zen, eta atxiloketetan unean-unean tratu txarrik izan dadin oztopa dezaketen "denbora eta espazio itsuak", edo kontrolatzen oso zailak direnak izan daitezen eragoztera bideratzen da.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua**
  *"1. Pertsona orok du askatasun eta segurtasunerako eskubidea. Ezin dakioke inori askatasunik kendu, artikulu honetan ezarritakoa bete gabe, eta legean aurreikusitako kasuetan eta moduan ez bada.*
  *2. Bada-ezpadako atxiloketa ezin izango da egitateak argitzeko ikerketak egiteko estu-estuan behar den denbora baino gehiago luzatu, eta edonola ere, gehienez hirurogeita hamabi orduko epean, atxilotua agintaritza judizialaren eskuetan jarri edo askatuko da.*
  *3. Atxilotutako pertsona orori berehala eta ulertzeko moduan jakinarazi behar zaizkio bere eskubideak eta zergatik atxilotu duten, eta ezin izango dute aitorpenik egitera behartu. Atxilotuari abokatuaren sorospena bermatuko zaio zaio polizia eta epaitegietako egoitzetan, legeak ezartzen dituen terminoetan.*
  *4. Legeak "habeas corpus" prozedura araupetuko du legez kanpo atxilotutako pertsona oro berehala epaileen esku jartzeko. Era berean, legeak behin-behineko espetxeratzearen gehieneko iraupena ezarriko du."*

Ararteko erakundearen aurrean atxiloketa irregularreko zenbait balizko kasu aurkeztu dira. Berriro ere gertatu da lehen unetik epaitegiak hutsegitetzat jotzen dituen maila txikiko egitateengatiko atxiloketen arazoa, batez ere atzerriko etorkinei dagokienez. Gainera, oraindik ere gorputz miatzeak egiten dira, hala egin beharrik edo halako neurri gogorrak hartzerik justifikatu gabe.

Atxiloketak, zenbait kasutan, justifikaziorik gabe luzatzen dira, LECr delakoaren 520.1 artikulua bete gabe, argi eta garbi, bertan ezartzen baita askatasuna kentzea ez dela egitateak argitzeko ikerketak egiteko estu-estuan behar den denbora baino gehiago luzatuko.

Azpimarratu behar da, halaber, Bizkaiko herri bateko udaltzainek adin txikiko bat modu irregularrean atxilotu zutela.

## 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua**
  *"Ohore, pertsona eta familiako intimitate eta norberaren irudiaren eskubidea bermatzen da"*

Hezkuntzaren eremuan, eskolatzear zegoen neskato baten aitak zalantzan jarri zuen itunpeko ikastegiek pertsona mailako datuak erabili ahal izatea (307/2000 kexaren laburpena).

Hezkuntza Administrazioa nahikoa lege gaitasun dauka bere eskumenak zuzentasunez gauzatzeko behar dituen erroldako datuak eskatzeko. Denok jabetzen gara, herritarren datuen ondoriozko eskariari erantzuteko hezkuntza eskaintza programatu ahal izateko, lankidetza nahitaezkoa dela (adin eta bizitokien arabera litezkeen ikasleen kopurua). Halaber, datu horiek erabakigarriak izan daitezke EAEn bizi diren eta nahitaez eskolatzeko adina duten haurren izatezko eskolatzearen kontrol eraginkorra egiteko.

Oso bestelakoa da, ordea, esleitutako administrazio eskumenak zuzen gauzatzeko pertsona mailako datuak erabiltzea nahitaezko edo beharrezko ez denean ere hala egitea. Izan ere, kasu horietan pertsona eta familiako intimitatea administrazioaren jardunaren gainetik egongo dira, administrazioaren jarduna pertsona mailako datuez kanpo eta datu horiek erabili gabe antolatu beharko baita. Hala da, erakunde honen iritziz, ikastegiek egiten dituzten zerbitzu sustapenetan, bestela esanda, matrikulatzeko ekinaldien sustapenean, ekinaldi horiek pertsona mailako datuen beharrik gabe oso ondo buru baitaitezke, esaterako, eskaintzen diren hezkuntza zerbitzuen publizitate generiko eta inpertsonala eginez.

Osasunaren eremuan, enpresari bat kexatu egin zen osasun ikuskaritzako zerbitzuek ez ziotelako bere enpresako langile baten gaixotasunaren zergatiak jakiteko bere eskariari erantzun.

Kasu honetan osasun administrazioaren jokabidea zuzentzat jo zen, gaixotasunaren zergatiaren berri emateak gaixotasunaren gaineko datuen intimitaterako eskubidea urratuko baitzukeen.

Zenbait kasutan, polizien atxiloketetan, gorputz miatzeak egiten dira atxilotuari tratu iraingarria emanez, justifikaziorik gabe biluzarazten baitute.

## 2.4. KOMUNIKABIDEETARA IRISTEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 20.3 artikulua**
  *"Legeak araupetuko du Estatuaren zein edozein herri erakunderen menpeko gizarte komunikabideen antolakuntza eta parlamentuaren kontrola, eta komunikabide horietara gizarte eta politika talde esanguratsuak iristeko aukera izan dezaten bermatuko du, Espainiako gizartearen aniztasuna eta hizkuntza desberdinak errespetatuz."*

1998an, Arartekoak EITBk garrantzi txikiagoko gizarte taldeek ere herri jabetzako komunikabideetara iritsi ahal izateko eskubidea artikulatzeko beharraren gaineko gomendioa egin zuen. Herri erakunde horretan, lehen unean gure proposamenak generikoki onartzen zituela adierazi baitzuen, antena eskubidea izatez gauza daitezen bermatzera bideratzen diren neurri zehatzak hartu ditu, baita ondoren gizarte taldeek eskubide hori nola gauzatu duten kontrolatzera ere. Ararteko erakundeak ondo irizten dio EITBren erabakiari, uste baitu herri komunikabideetara iristeko eskubidea adierazpen eta informazio askatasuneko berme ukaezina dela.

## 2.5. BERDINTASUN PRINTZIPIOA FUNTZIO PUBLIKORAKO IRISMENEAN

- **Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua**
  *"Era berean, legeak adierazten dituzten betekizunen arabera herri funtzio eta karguetara berdintasun baldintzetan iristeko eskubidea dute."*

Herri administrazioek herri funtziorako irismenean berdintasun oinarria errespetatzen duten ala ez etengabeko kezka izan da Ararteko erakundearentzat, erakunde

hau herri enpleguetarako irismenan berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate oinarriak bete daitezen zaintzen ahalegindu baita.

Ekitaldi honetan, ukitutako pertsonen kopuru handiaren ondorioz zalantzarik gabeko garrantzia izan duelako aipagarrienetako jarduera EAEko Administraziorako herri enplegurako eskaintzaren ingurukoa izan da. (123/2000 kexaren laburpena). Erakunde honek gai honetan topo egiten zuten interesak neurtu behar izan ditu: batetik, irismeneko ez ohiko sistema ezarrita sartzeko aukerak nolabait finkatu nahi dituzten bitarteko langileen interesak, eta bestetik, lehen herri enplegua lortu nahi zuten herritar guztien interesak.

Aipatzeko modukoa Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren hautapen frogetarako deialdia zela-eta egin behar izan den esku hartzea (872/2000 kexaren laburpena). Deitutako lanpostu guztiei eta bakoitzari eutsi ahal izateko aurretiaz nahitaez administrazioko eskarmentua izatea eskatzea, baita aurretiazko eskarmentu hori lehiaketaren fasean desberdin baloratzea ere –eskarmentua egiaztatuta zegoeneko administrazio zein herri erakundearen araberakoa- E.K.ren 23.2 artikuluak finkatzen duen berdintasun oinarriaren urratze garbia zekarren.

Azkenik, nolabait bitxia izan da Irungo Udalaren aurrean izandako jarduera (753/2000 kexaren laburpena), udaletxe horrek iragarritako hautapen prozesu bat zela-eta. Erakunde hau epaimahai kalifikatzailearen erabakia aldarazten ahalegindu zen, arrakastarik gabe, zeren modu irregularrean eta motiborik gabe froga psikotekniko batzuk berriro egitea erabaki baitzuen, horrekin hautagaietako baten sartzeko itxaropenen alde eginez.

## 2.6. TUTORETZA JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. USTEZKO ERRUGABETASUNAREN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua**

  *“1. Pertsona guztiek dute epaile eta epaitegien izatezko tutoretza lortzeko eskubidea, beren eskubide eta legezko interesen ariketan, inoiz ere defentsarik gabeko egoerarik izan gabe.”*

  *“2. Halaber, guztiek dute legeak aurrez ezartzen duen epaile arrunta, abokatuaren defentsa eta sorospena izateko, beren aurka jarritako salaketaren berri jakiteko, atzerapenik gabeko eta berme guztiak dituen herri prozedura izateko, beren defentsarako egokiak diren froga bideak erabiltzeko, beren aurkako aitorpenik ez egiteko, beren burua erruduntzat ez jotzeko eta ustezko errugabetasuna onar dakien eskubidea.*

  *Legeak araupetuko ditu, ahaidetasun zein isilpeko profesionalaren arrazoiengatik, pertsona bat ustez delitu diren egitateen gainean adierazpenik egitera behartuta ez dagoeneko kasuak.”*

Aurten ere prozedura judizialen ebazpenen luzamendu eta atzerapenen gaineko kexak jaso dira. Justizia Epaitegi Goreneko Gobernu Aretora helarazi diren kasu batean ere ez da, ordea, justizia administrazioaren funtzionamendu irregularrik antzeman. Horrek esan nahi du, herritarren ustearen aurka, botere judizialak normaltzat jotzen dituela auziak izapidetzeko erabiltzen diren epeak.

Zergen ikuspegitik, azpimarratu behar dira aldian aldiko zergen ediktuen jakinarazpenak sorrarazten dituen arazoak.

Hartara, Ondasun Higiezinen gaineko Zergak, Ekonomia Jardueren gaineko Zergak eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarekin gertatzen den bezala, arazo ugari sortzen jarraitzen dute, aldian-aldian kobratzen diren zerga diren aldetik.

## 2.7. ASKATASUNIK GABEKO PERTSONEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua**
  *"Askatasuna kentzen duten zigorrak eta segurtasun neurriak berriro hezi eta gizartean txertatzera bideratuko dira, eta ezin izango dira behartutako lanak izan. Espetxe zigorra egotzi eta zigor hori betetzen ari denak Kapitulu honetako funtsezko eskubideak izango ditu, zigor epaiaren edukiak, zigorraren izaerak eta espetxeetako legeak berariaz mugatzen ez badizkio. Edonola ere, lan ordaindua eta horren ondoriozko Gizarte Segurantzako onurak edukitzeko eskubidea izango du, baita kulturarako eta bere nortasunaren garapen integralerako irismena ere."*

Askatasuna kentzen duten zigorren bergizarteratzeko helburua ezartzen duen Konstituzioko agindua bete ahal izateko oztoporik garrantzitsuenetako bat EAEn dauden hiru espetxeen egiturazko hutsuneetan dago. Aurreko urteetan esan dugun bezala, oraindik ere ez dago zigorrak erregimen itxian betetzeko departamenturik; ez eta amentzako Unitaterik ere; espetxeetako bizitzeko baldintzak, oro har, eta bereziki emakumeen departamentuetakoak oso eskasak dira. Beste ondorio txar batzuez gain, esandako gabezia horiek Euskadin bizi ohi diren pertsonek zigorra ere Euskadin bete ahal izan dezaten eragozten dute. Sarritan, espetxeratuak oso kartzela urrutietara eramaten dituzte, eta horrek askatasuna kentzearen ondorioak gogortzen ditu, bai zigortuarentzat bai familiarentzat.

Agertu behar da, halaber, espetxearen zigorren alternatiboak ez direla ia aplikatzen. Baieztatu ahal dugu, arau orokor gisa, ez direna behar diren bitartekoak artikulatu asteburuko arrastatzeak zein erkidegoaren onerako lanen zigorra zuzen bete ahal izateko. Horregatik guztiarengatik, berriro esan behar dugu komeni dela espetxe alorreko eskumena osatzen duten eginkizunak EAEra eskualdatzea. Edonola ere, autonomia Administrazioak baditu gai honetan jarduteko ahalbideak, oraingo espetxe arauditik eta esparru horretan lankidetzarako dagoen akordio-markotik datozkionak, eta atzerapenik gabe garatu beharko lituzkeenak. Honen gaineko gomendio orokorrean askatasuna kentzearen ordezko bideak sendotzeko jada abia zitezkeen ekimen desberdinak aipatzen dira: zigorrak erregimen irekian betetzeko menpeko unitateak sortzea, droga menpekotasunak tratatzeko espetxez kanpoko zentroak, zigorra erkidegoaren onerako lanen bidez betetzeko tokiak, eta abar.

## 2.8. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua**
  *"1. Denek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza askatasuna onartzen da.*
  *2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna bizikidetasun oinarri demokratikoen eta funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan gara dadin izango da.*

*3. Herri botereek gurasoek seme-alabak beren sinesmenen araberako erlijio eta moral prestakuntza jaso dezaten duten eskubidea bermatzen dute..*
*4. Oinarrizko irakaskuntza nahitaezkoa eta doakoa da.*
*5. Herri botereek irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez denok hezkuntzarako dugun eskubidea bermatzen dute, ukitutako sektore guztien izatezko partaidetzaz eta ikastegiak sortuz.*
*6. Pertsona fisiko eta juridikoei, Konstituzioaren oinarrien errespetuaren barruan, ikastegiak sortzeko askatasuna ezagutzen zaie,*
*7. Irakasleek, gurasoek eta, kasuan-kasuan, ikasleek ere esku hartuko dute Administrazioak herri fondoez sostengatzen dituen ikastegi guztien kontrolean eta kudeatzean, legeak ezartzen dituen terminoetan.*
*8. Herri botereek hezkuntza sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
*9. Herri botereek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten ikastegiei lagunduko diete.*
*10. Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezartzen dituen terminoetan."*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubide gisa eratzen da eta, beraz, egokiago zatekeen gizarte eskubideen artean aztertu izana. Konstituzioaren testuan duen tokia eta hautatu den metodoa kontuan izanik, ordea, atal honetan aztertuko dugu.

Ekitaldi honetan aipamen berezia merezi du EAEko hezkuntza sisteman hain hedatuta dagoen hitzarmenen erregimenak.

Indarreko araupetzeak dioenaren arabera, hitzarmenen erregimena ikastegi pribatuetan hezkuntza doan eman dezaten bideratzen duen baliabide juridikoa da, eta horrela, nahitaezko eta doako mailetan, hezkuntzarako eskubidea asetzen da, baita herri botereek sortutakoen bestelako ikastegi bat, inolako bereizkeriarik gabe, hautatzeko aukera ere eskainiz eta, aldi berean, ikasle, guraso eta irakasleek ikastegi horien kontrolean eta kudeatzean parte har dezaten ere bermatuz.

2000. urtean zehar izapidetu diren kexen errealitatearen eraginez, erakunde honek komenigarri iritzi dio hezkuntza hitzarmenen ondoriozko betebeharren gainean kontrol handiagoa izatea azpimarratzeari. Ildo horretan, egoki ikusi dugu hitzarmen sistemaren berezko doan izateko erregimenaren gainean behar den sentikortasunari sustatzera bideratzen den gomendio orokorra egiteari.

Era berean, hitzarmenetik datozen beste betebehar batzuek ere, hala nola, ikastegi horietako gobernu organoetan hezkuntzako sektore desberdinak egon eta parte hartzea, ikusi eta bete ditzan bideratzen den beste jarduera bat ere egin dugu.

Haur hezkuntzaren irakaskuntzaren lehen zatiak hartzen ditu ikasleak onartzeko orduan sortzen diren arazorik gehienak, kontuan izanik halako ikasgelak pixkanaka hedatu eta zabaltzen ari direla. Gai honen gainean, aipatu behar da ikastegi jakin batzuetan eskolatzeko eskari gehiegi jasotzen direneko udalerri jakin batzuetan guneka banatu beharra ikusten dela, eta komeni dela, halaber, ikastegi jakin batzuetan egiten diren hezkuntza proiektu zehatzak ikasleak onartzeko prozesuen oinarri izan behar duten irizpideak bereiztea.

Bestalde, 0 urtetik 3 urterako lehen ziklo horretan esku hartzen duten administrazioen aldetik eskaintza koordinaturik eza edo gabezia dela-eta, zenbait

herritarrek zalantzan jartzen dute eskola dagoeneko udalerriko erroldan izena emanda egotearen baldintza nahitaez eskatzea.

Zorionez, gero eta gehiago dira hezkuntza behar bereziak izanik nahitaezkoak diren mailen ondorengoetaraino eskolatze normalean irauten duten ikasleak. Errealitate horrek, ordea, behar berriak sortzen ditu: hezkuntzako goi mailako etapa horietako eskakizunei eskaintzen zaizkien sostenguak egokitzea, besteak beste.

Puntualagoa izanik ere, aipatuko dugu Arabako haur autisten gurasoen elkarteak ("Arazoak") eskatuta burutu genuen esku hartzea, ahal zen heinean haien seme-alaben eskolatzearen ondorioz antzemandako arazoak zehaztu eta berriro bideratzera begira.

Sostenguen beharra Euskadin nahitaezko adina bete baino beranduago eskolatzen diren zenbait ikasleren kasuetan ere sortu da.

Zerbitzu osagarriei dagokienez, erakunde honek agerian jarri behar izan du garraioaren zeharreko kudeatzeak ez diola Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari zerbitzu osagarri horren prestazio normalean duen erantzukizuna saihesteko aukerarik ematen, bereziki ikasleak zaindari lanak egingo dituzten pertsonek lagunduta joan beharrari dagokionean.

Azkenik, unibertsitateko irakaskuntza mailan, Bilboko Industria eta Telekomunikazioen Ingeniarien Goi Eskola Teknikoan ebaluatzeko erabiltzen den prozeduraren gainean; Enpresako Aurrezaintzako Zerbitzuetarako Goi Mailako Teknikari Masterrean onartzearen gainean; eta ikasgaiak balioetsi, bekak eta beste laguntza batzuk ukatu eta abarren gaineko ohiko arazoetan esku hartu dugu.

## 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 3.1. ZERGA SISTEMA JUSTUA. BERDINTASUN, PROGRESIBITATE ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK

- **Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua**
  *"1. Herritar guztiek parte hartuko dute herri gastuei eusteko zereginean, beren ahalmen ekonomikoaren arabera, inoiz ere konfiskazio helmenik izango ez duen berdintasunaren eta mailen araberako zerga sistema justuaren bitartez.*
  *2. Herri gastuak herri baliabideen esleipenen banaketa zuzena egingo du, eta programazioak eta betearazteak eraginkortasun eta ekonomia irizpideei erantzungo diete.*
  *3. Herri izaerako pertsona edo ondare izaerako prestazioak legean oinarrituta soilik ezarri ahal izango dira*

Berdintasunaren ikuspegitik, atal honetan PFGZren aitorpena aurkeztu beharra zehazten duten mugen gainean jaso ditugun kexak aipatu behar ditugu, injustizia materialeko zenbait kasu eragin baitituzte. Esaterako, seme-alabengatiko kenkariak sartu ezin izan dituzten familia batasunen kasuak daude, non seme-alabetako batek edo gehiagok ordaintzaile bat baino gehiagoren beren errentak jasotzen baitzituzten, etekin

horien batuketa orokorrean finkatutako gutxieneko diru sarreren mugara urrutitik ere iritsi ez arren.

Beren beregiko bere garrantziarengatik, guraso bakarreko familiei udal mailako herri prezioen kobrantzan tratamendu desberdina eman zaielako izapidetu diren kexa espediente biak aipatuko ditugu.

Aurten ere Higiezinen Ondasunen gaineko Zergaren (HOZ) ondoreetarako ezaugarri berdinetako higiezinek jasotzen duten balorazio desberdinari dagozkion zenbait kexa jaso ditugu.

Gomendio orokorrean alorrean, horren gainean izapidetu diren kexa espedienteak direla-eta, zerga administrazioei gogorarazi behar izan zaie zergadunei behar ez ziren diru kopuruak ordainarazi ondoren, legez nahitaezkoa dutela diru hori itzultzerakoan dagozkien berandutzako korrituak ofizioz aplikatzea. Era berean, salbuespena da oraindik ere zerga administrazioek ofizioz herri izaerako zorren iraungitzearen araua aplikatzea.

## 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua**

"1. Jabetza pribaturako eta oinordetzarako eskubidea ezagutzen da.

*2. Eskubide hauen gizarte mailako funtzioak mugatuko die edukia, legeetan oinarrituz.*

*3.Inori ez diote bere ondasun eta eskubiderik ukatuko, herri erabilgarritasun edo gizarte intereseko arrazoi justifikaturik ezean, eta dagokion kalte ordainaren bidez eta legeek xedatutakoaren arabera."*

Jabetza pribaturako eskubidearen edukia Konstituzioaren bidez eskubide horri esleitzen zaion gizarte funtzioak mugatzen du, eta funtzio horren adierazpideetako bat udalerrien hiri antolamendua da. Lurzoru baten jabeek lur horretan eraiki edo lur hori erabiltzeko udalerriko hiri antolamenduetan ezarrita daudelako jasaten dituzten mugak, hiri eta herrien zentzuzko garapena dakarren gizarteko interes orokorraz justifikatzen dira. Horregatik, erakunde honek ez dauka Arartekoarengana hiri probetxamenduaren mugak zein herri botereek haien lurrei ezartzen dien erabilpena zalantzan jartzeko jotzen duten herritarren interes partikularren defentsarako eskumenik.

Bestalde, nahitaezko desjabetzearen irudiak Arartekoaren esku hartzea eragin du zenbaitetan, Administrazioak eskubide hori kentzearen egokitasuna edo egiten duen balorazioa zalantzan jartzen duten desjabetuek eskatuta. Gai biak herrirako erabilgarriaren adierazpenerako eta desjabetzen diren ondasunak hartu beharra eta bidezko prezioa zehazteko prozeduren bideei jarraitu beharrean oinarritzen dira. Alderi bien balorazioaren gaineko ezadostasunak Desjabetzeko Probintziako Epaimahaiaren bidea irekitzen du, edo bestela, prezioaren balorazioaren jurisdikzioaren kontrola.

# 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK)

## 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioaren 39.1 eta 4 artikuluak**
  *"1. Herri botereek familiaren gizarte, ekonomia eta legezko babesa ziurtatzen dute."*
  *"4. Haurren beren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko hitzarmenetan aurreikusten den babesa edukiko dute."*

2000. urtean ere zenbait ikastegi, batez ere Deustuko Unibertsitatea, indarreko legedian familia ugariei ezagutzen zaizkien onurak aplikatzera ukatzen delako zenbait kexa jaso dugu. Gaurko egunean, ezin daiteke esan sakoneko arazoa konponduta dagoenik, erakunde honek Eusko Legebiltzarrari familia ugarientzako berariazko araua egin dezan behin baino gehiagotan eskatu dion arren, gai horren gaineko argibideak eman eta jokabide horiek zehatzeko eskumena zehaztu ahal izateko.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Gaietarako Sailburuordetzak sustatutako Familien Sostengurako Erakundeen Arteko Plana egiteko lan taldea (teknikoak) eratu berri da, non familia ugarien arazoak aztertuko baitira.

Erakunde hau arduratu egin da familiakorik eta dokumentaziorik gabeko adin txikiko atzerritarren egoerarengatik. Oraindik gutxi diren arren, aipatu behar da badela adin txikiko multzo bat, inolako familia eta erakunde babesik gabea, bizimodua kalean ateratzen ahalegintzen dena.

Administrazioek erantzunen bat eman behar dieneko beste adin txikiko batzuk jokabide arazo larriak dituzten nerabeak dira.

Azpimarratu behar da, berriro ere, EAEn adin txikikoentzako legea behar dela, besteak beste, hiru euskal lurralde historikoetan gutxieneko ekinbide erkideak izan daitezen bermatzeko erreferentzia izan dadin.

Legeak urratzen dituzten adin txikikoetaz arduratzen diren zerbitzuen funtzionamendua arautzen duen araudirik ez dagoela planteatzearen ildo beretik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak esan du Eusko Jaurlaritzak gai hori araupetzeko dekretua emateko asmoa duela, kontuan hartuz 5/2000 Lege berria eta lege horren arautegiaren garapena.

## 4.2. OSASUN ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua**
  *"1. Osasunaren babeserako eskubidea ezagutzen da.*
  *2. Herri botereen eskumena da herri osasuna antolatu eta zaintzea, prebentzioko neurrien eta behar diren prestazio eta zerbitzuen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztiok horren gainean ditugun eskubideak eta betebeharrak.*

*3. Herri botereek osasun hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dituzte. Era berean, aisialdia egoki erabiltzea erraztuko dute."*

Osasun eskubidea, hein handian, osasun prestazioei eusten diegunean gauzatzen da. Prestazio horien ezagutza eta zehaztapenari dagokienean, esan dezakegu onartzeko moduko araudi maila daukagula.

Legez ezagututako prestazioen litezkeen adierazpide bakoitzaren edukia xehetasunez definitzea ia ezinezko bihurtzen duen osasun artatzearen bitxitasuna dela-eta, informazioak funtsezko elementua izaten jarraitzen du. Agian horregatik, bai Osasun Lege Orokorrak bai estatu mailako osasun sistemaren prestazio sanitarioen antolamenduaren gaineko 63/1995 Errege Dekretuak eta lehenago 175/1989 Dekretuak, Osakidetzako erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak onestean, beren beregi aipatzen dute eskueran ditugun zerbitzuen eta zerbitzu horiez baliatzeko betekizunen berri eman diezaguten dugun eskubidea.

Prestazio eskubideak gauzatzeko orduan informazioak duen bitarteko izaerak are funts handiagokoa duen eginkizuna dauka, agian, osasunerako eskubideaz ari garenean. Horregatik, osasun eskubidea gauzatzearen eta osasuna artatzeko dispositiboen funtzionamendu onaren artean dagoen lotura zuzenarengatik, hain zuzen, gogoan izan behar da dispositibo horien eginkizuna herritarrei eskueran dituzten bitartekoak zein diren ondo jakinarazteko orduan (prestazioen izatezko edukia eta horiei eusteko eta horiek erabiltzeko bideak).

Ararteko erakundearen aurrean aurkeztu diren kexa asko eta asko herritarrarengan izan den aldaketaren adierazpena izan daitezke, osasun sistemarekiko duen harremana eskubide eta betebeharrak dituen pertsona gisa ulertzen baitu. Ikuspegi horretatik, prestazioei eusteko bideaz eta edukiaz informazio handiagoa eskatzen du, eta gure ustez informazio horren eskaria ez da beti ondo asetzen, zeren informazio egokirik egon izan balitz, zenbait kexa osasun sistemaren barruan konponduko baitziratekeen.

Hori garrantzitsua da erabiltzaileei estu-estuan osasun sistematzat har daitekeenaren gaineko informazioa ematean ez ezik, tradizioz kudeatzea beste herri administrazio batzuei esleitu izan zaizkien artatzeko beste sistema batzuen gaineko informazioa eman nahi zaienean ere.

Alderdi hau, ziurrenik erabiltzailearentzat dituen beharrak beste administrazio batzuekin koordinatuta kudeatzearen bitartez erantzun beharrak sor ditzakeen oztopoengatik, ez zitzaion oharkabean joan 63/1995 Dekretuari, zeinek ezartzen baitu gaixoari bere osasunaren onerako dituen, osasun, artatze, laguntza eta ongizaterako beste zerbitzuen gaineko informazioa eman behar zaiola.

TEstuinguru honetan, gogora ekarri behar dugu hemen ere, ongizate eta osasun arloen aitzinsolasetan esan dugun bezala, gizarte eta osasun arazoak dituzten adineko pertsonen arazoak kudeatzeko osasun administrazioak eta foru aldundiek sinatu dituzten akordioen garapenak horretarako izan behar duen garrantzia.

Azpimarratu behar da, gizarte eta osasun eremua izenekoa garatzeko beharraren beste adierazle bat buru gaixotasunak dituzten pertsonentzako ospitalez kanpoko eta erkidego barruko artatzea da, zeren buru nahaste kronikoa duten pertsonak gainerako herritarrak baino baldintza okerragoetan baitaude.

Osasunaren ikuspegitik, pertsona hauek ez dakite informaziorako, baiespen informaturako edo alternatiba terapeutikoetarako eskubiderik dutenik ere.

## 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua**
  *“1. Denok dugu pertsonaren garapenerako ingurumen egokiaz gozatzeko eskubidea, baita ingurumena zaintzeko betebeharra ere.*
  *2. Herri botereek naturako baliabide guztien zentzuzko erabilpena egitea zainduko dute,bizitza kalitatea babestu eta areagotzeko eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko, guztion nahitaezko elkartasunean sostengatuz.*
  *3. Arestiko atalean xedatutakoa urratzen dutenentzat, legeak finkatzen dituen terminoetan, zigor penalak ezarriko dira, edo bestela, administratiboak, eta egindako kaltea konpontzeko betebeharra ere bai».*

Aurten ere, sarrien gertatzen den ingurumeneko eragina herritarrek jasaten dituzten trabak dira, batez ere bizitzeko hiri lurretan dauden eta udal baimenen araubidearen menpe dauden sailkatutako jardueren ondoriozko zarata, obra eta keak sortzen dizkietenak. Ez dira hotelen jarduerak soilik, industria jarduerak, gimnasioak, ibilgailuak konpontzeko tailerrak, edo ibilgailuen gordetegiak ere izaten dira, kasu askotan zarata eta atmosfera kutsadurako kasu larriak ere sortzen dituztenak.

Auzokideen zenbait elkarte ziklo konbinatuko zentral termikoa jar diezaieten aurka agertu dira Bizkaiko Abanto udalerrian, edo hiri hondakin solidoen bilketa neumatikoko planta bat jar diezaieten Gasteizen.

Jarduera legeztatu gabe daukaten zenbait enpresek sortzen duten atmosfera eta zarata kutsadurak udalek jarduera horiek legeztatu eta ingurumenean duten eragina arintzeko neurri zuzentzaileak bete daitezen begiratzeko konpromisoa har dezaten eskatzen du.

Ekitaldi honetan zehar, erakunde honek Barakaldoko udalerriaren barruan Galindo ibaiaren ibarrean dagoen eremu heze bat, udaleko hiri antolamenduko eta lurraldearen antolamenduko bitartekoetan babesten ez zela zioen kexa bat aztertu du, arau horietan ez baita eremu heze horretarako babes berezirik jasotzen. Halako ezer aurrikusten ez zela ikusita, ukitutako administrazio horiengana jo dugu eremu hezeak ingurumen eta ekologia baliokotzat jotzeko zer irizpideri jarraitzen zaion jakiteko, eta Galindo ibaiaren ibarra ere, ingurumen balio hori izatekotan, babes eremutzat ere har dadin aukera azter dezaten.

## 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua**
  *“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko eskubidea. Herri botereek eskubide hori gauzatzeko behar diren baldintzak sustatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, lurraren erabilpena denon interesaren arabera araupetuz, espekulazioa eragozteko.*
  *Herritarrek parte hartu dute herri erakundeen hirigintza ekintzak sortzen dituen gainbalioetan”.*

Erakunde honek herritarrek etxebizitza duina izateko duten eskubidearen gaineko arazoetan esku hartzea eskatzen duten gaiak batez ere babes ofizialeko etxebizitzak eta gizarte etxebizitzak esleitzeko prozesuetan sartzeko irizpideei lotutakoak izaten dira.

Era berean, babes ofizialeko etxeen eraikuntzaren ondoriozko akats eta bizioak, eta etxe horien araubide juridikoa bera planteatzen dira, bereziki deskalifikatu aurretik libre saltzeko aukera.

Gai honetan positiboki azpimarratu behar dugu, lehenago etxebizitza eta hirigintza alorrean esan dugun bezala, babes ofizialeko etxebizitzen erregimena eta etxebizitza eta lur gaietako finantzaketa neurriak araupetzen dituen abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuak araudia bateratu izana. Dekretu honetan eta dekretua garatzeko aginduetan jasotzen diren zehaztapenen artean, erakunde honek lehenagoko txostenetan Eusko Legebiltzarrari egindako zenbait iradokizun sartu dira.

Hartara, herri politika horien onuradun izateko kontuan hartuko diren diru sarrerei dagokienean, ikusten dugu egun errentaren zergan erreferentziako zerga oinarriaren eta lortutako hobari fiskalen batuketa hartzen dela kontuan. Kalkulu honek zerga oinarrian %15eko hobaria ematen zitzaienez, lehenago gutxieneko diru sarreren baldintza betetzeko kalte egiten zitzaien ezintasunen bat duten pertsonei bidea errazten die. Erakunde honek etxebizitzak esleituko zireneko denboratik ahalik ete gertueneko diru sarreren epea kontuan har zedin egin zuen iradokizunari dagokionez, etxe horiei eusteko erregimen berriak aurreikusten du, Eusko Jaurlaritzatik sustatu edo ituntzen diren etxebizitzen kasuan, esleipenaren prozedura hasteko aginduaren aurreko errenta aitorpena zenbatzea, behin-behineko sailkapenaren dataren ordez. Neurri honek on egiten die gazteenei, egoera ekonomikoa aldakorragoa izaten baitute. Azkenik, etxebizitzen beharraren inguru abarren gaineko 2000ko abenduaren 26ko aginduak, hor barruan sartzen ditu, gurasoek seme-alabei dohaintzan eman dietelako etxearen jabetza kidetasunean lortzen duten babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileak, alegia, jabetzaren %50 edo gutxiago eskuratzen dutenak. Kasu hori lehenago oinordetzetan soilik aurreikusten zen, eta ez oinordeko zuzen zein nahitaezkoei jabeak bizirik zelarik emandako dohaintzetan.

Oinarri nagusi honetan eragina duten aztertutako beste kasu bat, lurra kudeatzeko bitartekoak, zatiketa berriak edo konpentsazioak egiteko proiektuak dira, zeinetan hiri antolamendutik kanpokotzat jota daudenez ohikotzat jotzen diren etxebizitzak eraistea aurreikusten baita. Indarreko lur legediaren arabera, ez dago garbi jabeak eraikitzea aurreikusita dagoen etxeren batean sartzeko eskubidearen ezagutza. Hala ere, Arartekoa udaleko hirigintza ekintzak hirigintzako planen kudeatzea eta herritarren etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea bateragarriak izan daitezen bilatzen ahalegintzearen aldekoa da.

## 4.5. FISIKOKI, SENTIMENEZ ETA PSIKIKOKI URRITUAK DIRENEN ESKUBIDEAK (URRITASUN FISIKO, SENTIMENEZKO ETA PSIKIKOAK DITUZTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK)

- **Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua**
  *"Herri botereek urritasun fisiko, zentzumenezko eta psikikoak dituzten pertsonen aurreikuspen, tratamendu, bergaitu eta gizartean txertatzeko politika egingo dute, behar duten arreta berezia eman eta, batez ere, goiburu honetan herritar guztiei ematen zaizkien eskubideez ere goza dezaten babestuz."*

Erakunde honek behin eta berriro esan du hiriaren antolamenduan oztoporik ez izatea sustatzeko, herri botereek hiri ingurune, herri eremu, eraikin, garraiabide, eta komunikazio sistemak pertsona guztien eskura eta baldintzarik egokienetan egon daitezen bermatzeko behar diren neurriak hartu behar dituztela.

Halaber, behin eta berriro esan da herri eraikinetan, batez ere adineko pertsonentzako gizarteko funtsezko zerbitzuak ematen dituztenetan (egoitzak, eguneko egoitzak…) barruan oztoporik ez izateko behar diren neurriak hartu behar direla.

Babestutako etxebizitzak eskatzaileen urritasun zehatzetara egokitu eta etxebizitzak zaharberritzeko laguntzei eustearen inguruan ere jardun du erakunde honek urritasunak dituzten pertsonen eskubideen defentsari dagokionean.

Azpimarratu ere azpimarratzekoa da apirilaren 11ko 68/2000 dekretuaren onespena, 20/1997 Legeari aplikaziorako edukia emateko eta urritasunak dituzten pertsonen taldearen aldarrikapen nagusietako bat lortzeko aukera eskaini baitu, gizartearen multzorako esan nahi duen guztiaz, zeren arauaren unibertsal izaera nabarmenak pertsona guztiak, bereziki zerbaitengatik mugaren bat dutenak ingurune fisikora eta komunikaziora hel daitezen bermatu nahi baitu.

Bestalde, aipatzeko modukoa ere bada Arabako haur autisten eta haur horien eskolatzean antzeman diren arazoen gainean egindakoa. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bereak ere eskatu dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari, 2000ko ekainaren 13an, Araban autismoa duten haurren taldearen hezkuntza behar bereziak zorrotz aztertu eta sostengu sistemak behar horiei erantzuteko egoki ditzan.

## 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua**
  *"Herri botereek bermatuko diete, pentsio egokien eta aldian-aldian eguneratuen bitartez, nahikotasun ekonomikoa herritarrei hirugarren adinean. Halaber, familiako bete beharrei begiratu gabe, ongizatea sustatuko diete osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko berariazko beren arazoak artatzeko gizarte zerbitzuen sistemaren bitartez."*

Adinez nagusiak artatzeko gizarte zerbitzuen eskaintza -hala egoitzetakoa nola egoitzetatik kanpokoa- gutxiegi da oraindik ere eta, gainera, oso modu desberdinean banatuta dago, dagokion administrazioa zein den arabera.

Hala ere, aintzat hartzeko modukoak dira herri botereek hirugarren adinekoen beharrak asetzeko egiten dituzten ahaleginak, oro har.

Egokia da erakundeen arteko mahaian gizarte zerbitzuen 5/1996 Legea garatzeko sinatu diren akordioek izango duten garrantzia azpimarratzea (lehena, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eudelen artean), batez ere administrazio bakoitzaren jardunaren esparrua argitzeko balioko baitute.

Garrantzitsua da, halaber, urriaren 17ko 202/2000ko Dekretuaren argitalpena ere aipatzea, menpekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko egoitzen gainekoa, zenbait egoitzak zerbitzuaren kalitatea bermatzeko bere gain hartu behar dituzten betekizunak araupetzen dituena.

## 5. LABURBILKETA

Kapitulu honek eskubideek Euskadiko Autonomia Erkidegoan duten babesaren egoeraren halabeharrezko balorazioa jasotzen du, zein Konstituzioaren bidez ezagutzen diren eskubideak aztertuz egituratzen baita, baina, ondorioen kapitulua izanik, ez ditu Ararteko erakundearen jardunean sortzen diren gai guztiak agortu nahi.

Horregatik, balorazio osoagoak, gainera, beste kapituluen jarraipena eginaraziko digu, berezi-bereziki II kapituluarena, zeren alorraren aitzinsolasetan gai alor bakoitzeko benetako balorazioak egiten baitira, kasu guztietan kapitulu honetan bildu ez direnak.

Kexen laburpenak 2000. urtean zehar izan diren balizko zehatzik garrantzitsuenak egiaztatzeko aukera ematen digu.

I kapituluak, bere aldetik, 2000. urtean egindako gai bakarraren gaineko txostenen bitartez, zenbait eskubide aztertzeko aukera ematen digu, baita lehen aurkeztutakoen jarraipena egiteko ere.

Edonola ere, amaitzeko, kapitulu honetan eta txostenaren gainekoan dagoen diagnostikoak herri botereei herritarren eskubideen defentsarako neurri zehatzetan sakontzen lagun diezaien nahiko genuke.

# ERANSKINAK

# I. ERANSKINA

# GURE ERAKUNDEEK BAKEAREN KULTURARI EGINDAKO EKARPENA (Herri Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)

## 1. SARRERA

Jakina denez, Nazio Batuetako biltzar orokorrak 1997ko azaroaren 20an onetsitako 1998ko otsailaren 15eko 52/13 Ebazpenaren bitartez, NBEko idazkari nagusiari zein UNESCOko zuzendari nagusiari eskatu zien bakearen kultura bultzatzeko egitasmoa, hau da, bortizkeria eta gatazka armatuak prebenitzeko ikuspuntu modura erabil daitekeen kultura bultzatuko duen egitasmoa.

Halaber, NBEko biltzar orokor horretan onetsi zen 2000. urtea Bakearen Kulturari buruzko Nazioarteko Urte izendatzea.

Ekonomi eta Gizarte Batzordearen geroagoko E/1998/52 agirian batean (UNESCOk aurkeztutakoa) zehazten da Bakearen Kulturari buruzko Nazioarteko Urtearen helburu nagusiak gorago aipatutako jarduera egitasmokoekin bat datozela; horrela bada, helburuak ondokoak dira: kultur dibertsitaterako errespetua sendotzea eta tolerantzia, elkartasuna, lankidetza, elkarrizketa eta adiskidetasuna sustatzea, betiere nazio zein nazioarteko jardueretan oinarrituz.

Era berean, ondoko hau adierazten da: *"2000. urtea data sinbolikoa da, milurte bat amaitu eta beste bat hasten delako. Jendeak une historikotzat har dezake, muturreko aldaketak eragiteko asmoz mobilizatuz. Jendeak ekimen bateratuan parte hartzeko aukera ezin hobea da, gerra, bortizkeria eta gizarte bidegabekeria sarritan ekarri dizkiguten iraganeko balio, jarrera eta portaeretatik bakearen kultura ezaugarritzat izango duen etorkizuna ekar ditzaketen balio, jarrera eta portaeretara igarotzeko"*.

Hain sinbolikoa den 2000. urte honetako herri defendatzaileen bilera batean bakearen kulturari buruzko hausnarketa bideratu beharra zegoen.

Herritarrek administrazioarekin dituzten arazoak pertsuasio, elkarrizketa eta bitartekaritzaren bidez, hau da, hitzaren eta arrazoiaren indarra tresna bakartzat harturik konpontzeko erakundeak direnez gero, egunerokotasunean eta hurbiltasunean bakearen kultura bultzatzen gabiltza, hots, oinarria jartzen gabiltza hasi berri den garaian aplikatu beharreko balioak bultzatu nahian.

Ponentzia honen bitartez, lehenengo eta behin, bakearen kulturari buruzko kontzeptura hurreratzen saiatuko naiz NBEk edo, zehatzago esanda, UNESCOk emandako esanahitik abiatuz; horietan oinarrituz, bada, zuokin batera hausnartu nahi nuke nola eraman daitezkeen bakearen inguruko balio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatera, hau da, bortizkeriaren kultura arriskutsuaren ezaugarriak dituen horretara.

## 2. BAKEAREN KULTURA

Bakearen kulturari buruzko ideia Gizakion Gogoan dagoen Bakeari buruzko Nazioarteko Jardunaldietan, hau da, 1989ko uztailean Yamusukron egindakoetan, sortu zen lehenengoz. Horrela, jardunaldiotan UNESCOri eskatu zitzaion *"bakeari buruzko kontzepzio hobea sortzen laguntzeko, bakearen kultura baten garapenaren bitartez; kultura hori, beraz, ondoko balio unibertsaletan oinarritu beharko litzateke: bizia, askatasuna, justiziaz, elkartasuna, tolerantzia, giza eskubideak eta gizonezko zein emakumezkoen berdintasuna errespetatzeko balioetan, hain zuzen ere*".

Bakearen kultura oinarritzen den funtsezko printzipioetariko bat pertsonak desberdinak izan eta euren erkidegoetan baketan zein segurtasunez bizitzeko eskubidea da. Eta helburu nagusietariko bat da kulturen dibertsitatea elkar aberasteko eta elkarrekin jarduteko abiapuntua ematen duen mundu bat lortzea.

UNESCOK, Bakearen Kulturari buruzko programan, berori definitzen du elkarren arteko balio, jarrera, portaera eta bizimoduen egitura hazkor baten gisa, bortizkeria ezan eta funtsezko eskubide zein askatasunen errespetuan oinarriturikoa, hau da, ulermen, tolerantzia, elkartasun, lankidetza, informazioaren banaketa aske eta emakumezkoen partaidetza osoan oinarritutakoa.

Federico Mayor Zaragoza gogorarazten du bakearen kulturaz berba egiten denean arreta lehenengo terminoan, **bakean**, jarri ohi dela, eta, ezin dugula inola ere alde batera utzi bigarren terminoa, **kulturaren ideia**, alegia.

Hala, beraren esanetan gaia ondokoan datza: *“bakea eraiki behar da, berori sustraitzeko eta fruitu emateko beharrezko neurriak jarriz, eta ez soilik gatazkei eta bortizkeriari eutsiz, baizik eta gaitz hau errotik erauzteko bideraturiko ekimenak bultzatuz, hala nola, ezjakintasun, pobrezia eta fanatismo erlijioso, sozial edo ideologikoaren kontra jardunez, bai eta legezkotasun eta gizakien eskubideenganako mesprezuaren kontra ere”.*

Beraz, argi eta garbi dago bake hau ez dela bakarrik gerrarik ez egotea. Bakea ez da nazioarteko gaur egungo ordenari eustea, guztiz bidegabea den eta bortizkeria instituzionalaren edo estrukturalaren bitartez deritzonaren bitartez adierazten den horri oratzea.

Biztanleen %20 hartzen duten herrialde aberatsek munduko aberastasunen %86 baliatzen duten mundu batean, munduko 358 gizon-andre aberatsenen fortunak 2.300 milioi pertsona pobreren sarrerak gainditzen dituen mundu batean ezin da egiazko bake iraunkorrik egon, herrialde aberats eta pobreen arteko aldea zein oparotasunean bizi direnen eta pobrezia gorrian bizirauten diren pertsonen artekoa hain ikaragarriak diren bitartean.

Gure eremuan ere gizarte bidegabekeria handiko egoerak ditugu, boteretsuenek ahulenenei, gutxiengoei edo desberdinei ezarritako nagusikerian oinarrituriko harremanak, hain zuzen ere.

Azken batean, helburua da bakearen inguruko balioak mendeetan barrena barneraturiko eta giza harremanetan **bortizkeriaren kultura** osatzen duten oinarriei kontrajartzea, betiere gatazkei aurre hartu ahal izateko.

Vicenç Fisas irakasleak ezin hobeto sistematizatu du bortizkeriaren kultura horren oinarri nagusietariko batzuen gaur egungo adierazpena:

- patriarkatua eta maskulinotasunaren mistika;
- nagusitasuna eta boterea biltzea;
- gatazkak modu baketsuen bitartez konpontzeko gaitasunik eza;
- gizartearen desegituratzea eta lehiakortasuna sortarazten dituen ekonomizismoa;
- estatuek beren gain hartzen duten bortizkeriaren monopolioa eta militarismoa;
- potentzia handien interesak;
- beste pertsona batzuk hiltzea ahalbideratzen dituzten interpretazio erlijiosoak;
- ideologia baztertzaileak;
- etnozentrismoa eta kultur ezjakintasuna;
- gizatasun eza (beste gizakiak “objektutzat” hartzea);
- bidegabekeria eta aukera zein partaidetza falta betikotzen dituzten egiturei eustea.

“Kontrabalio” hauei kontrajarri beharko zaizkio bakearen kulturako berezko balioak.

Alta, berriro ere hartuko dut Mayor Zaragozaren aipu bat ondokoa adierazteko: *“bakeak, garapenak eta demokraziak triangelu interaktiboa osatzen dute eta horien erpinek elkar sendotzen dute. Demokraziarik gabe ez dago garapen iraunkorrik. Pobreziak eta geldialdi ekonomikoak demokraziaren legezkotasuna urratu eta arazoak modu baketsu batez konpontzea zailtzen dute. Gerra edozein gizarte pobretzeko eta asmo diktatorialen menpe uzteko biderik eraginkorrena da”.* Eta ondokoa eransten du: *“heziketa triangelu honen ardatz dinamikoa da”.*

## 3. BAKEAREN KULTURARI BURUZKO ADIERAZPENA ETA JARDUERA EGITASMOA

Bakearen kulturaren izaera unibertsala eta diziplina anitzekoa hobeto ulertu ahal izateko, ez dago gauza egokiagorik Nazio Batuetako Biltzar orokorrak Bakearen Kulturari buruzko Adierazpen eta Jarduera Egitasmoaren gaineko 1999ko urriaren 6ko 53/243 Ebazpenera jotzea baino.

Bakearen Kulturari buruzko Adierazpenean biltzar orokorrak ekartzen du gogora Nazio Batuetako Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Erakundea osatzean ondokoa adierazi zela: *"gerrak gizakion gogoan jaiotzen direnez gero, gizakion gogoan bertan eraiki behar dira bakearen gotorlekuak".*

Gainera, ondokoa onartzen du: *"bakea ez da, besterik gabe, gatazkarik ez egotea; izan ere, bakeak behar izaten du elkarrizketa bultzatzeko eta gatazkak elkarrekiko ulermenean eta lankidetzan konpontzeko prozedura positiboa, dinamikoa eta parte-hartzailea".*

Gerra hotzaren amaierak bakearen kultura sendotzeko aukerak handitu ditu.

Horretarako, beharrezkoa da *"bereizkeria eta intolerantzia molde guztiak desagerraraztea".*

Adierazpenaren 1. artikuluan zehatz-mehatz definitzen da bakearen kultura *"balio, jarrera, tradizio, portaera eta bizimoduen multzo bat"* dela adieraziz. Multzo horren oinarriak ondokoak dira:

*a) Bizitzarako begirunea, bortizkeriaren amaiera, bortizkeria ezaren sustapena eta praktika bultzatzea heziketa, elkarrizketa eta elkarlanaren bitartez.*
*b) Estatuen subiranotasun, lurralde osotasun eta independentzia politikoaren printzipioak eta estatuen barneko jurisdikzioko gaietan ez sartzea, betiere Nazio Batuetako Gutunarekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorriz.*
*c) Giza eskubide guztiei eta oinarrizko askatasunei begirunea izatea eta horiek guztiak sustatzea.*
*d) Gatazkak modu baketsu batez konpontzeko konpromisoa.*
*e) Ingurumena garatu eta babesteko oraingo eta etorkizuneko belaunaldien beharrizanak asetzeko ahaleginak.*
*f) Garapenerako eskubideari begirunea izatea eta berori bultzatzea.*
*g) Gizonezko eta emakumezkoen aukera eta eskubideen berdintasunari begirunea izatea eta berori sustatzea.*
*h) Pertsona guztiek adierazpen, iritzi eta informaziorako duten eskubideari begirunea izatea eta berori sustatzea.*
*i) Askatasun, justizia, demokrazia, tolerantzia, elkartasun, lankidetza, kultur dibertsitate, ulermen eta elkarrizketa printzipioei atxikitzea gizartearen maila guztietan ez eze nazioen artean ere.*

*Hori guztia, beraz, bideratuko da bakea lagunduko duen nazio barruko zein nazioarteko ingurune batek bultzatuta."*

Bakearen kultura lortzeko, funtsezko baliabidea izango da maila guztietan eman beharreko **heziketa**, betiere giza eskubideen arloko heziketan arreta berezia jarriz.

Bakearen kultura sustatzeko agenteei dagokienez, adierazpenean ageri da bakearen kultura sustatu eta sendotzeko eginkizun handia bete behar duten gobernuen zereginaz gainera, oso garrantzitsua dela gizarte zibilaren zeregina, hots, hedabide, guraso, irakasle, politiko, kazetari, osasun zein gizarte langile eta gobernuz kanpoko erakundeena.

Bestalde, **Bakearen Kulturaren gaineko Jarduera Egitasmoak** arrastoak ematen dizkigu bakearen kultura eraikitzeko neurriak zeintzuk diren jakiteko:

- heziketa;
- gizarte eta ekonomiaren garapen euskarria;
- giza eskubide guztiei izan beharreko begirunea sustatzea;
- gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna bermatzea;
- parte-hartze demokratikoa;
- tolerantziaren zein elkartasunaren ulermena sustatzea;
- Parte-hartze komunikatiboa eta informazioaren zein ezagupenen zirkulazio askea bultzatzea;
- nazioarteko bakea eta segurtasuna sustatzea.

* * *

Bakearen kulturaren gaineko jarduera egitasmoa eta horren kontzeptua dimentsio globalean (nazioarte mailan) orokortasunez aipatuta, hurbileko gure errealitateari aplikatu nahi nioke, hau da, gaur egungo euskal gizarteari, betiere bertan bortizkeriaren gizartea nola sortu den azaltzeko; izan ere, horrek ondorioak izaten ditu zuen erantzukizunaren menpeko lurralde eremuetan. Horrela, ikusiko dugu nola bihur genezakeen hemen bortizkeriaren kultura hori bakearen kultura; bide batez, aurreneurriak proposatuko ditugu bortizkeriaren garapena oztopatzeko eta bakean bizitzen bultzatzeko.

Herritarren eskubideak defendatzeko ikuspuntutik abiaturik, giltzarritzat jotzen diren hainbat gai aipatuko ditut. Horretara:

- Bakearen kultura gurea bezalako gizarte urratu batean garatzeko beharrizana eta presa justifikatzen ahaleginduko naiz.

- Bakearen eraikuntzan gizarte agente guztiek bete beharreko zeregin aktiboa azpimarratuko dut.
- Belaunaldi berrien garrantzia ez eze horiei balioen gaineko heziketa emateak bake iraunkorra bermatzeko duen garrantzia ere nabarmenduko dut.
- Eta amaitzeko, azaltzen saiatuko naiz nola lagun dezakegun guk, defendatzaileok, bakearen kultura gure gizartean garatzen.

## 4. GIZARTE HAUSTURA ETA GAINBEHERA ETIKOA

Onartzea gogorra eta tristea izanda ere, egia da: Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala egin eta 50 urte baino gehiago eta Espainian konstituzio demokratikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoan autonomia estatutua onartu eta 20 urte baino gehiago igarota, gaur egun oraindik ere badira bizitzarako oinarrizko eskubidea errespetatzen ez duten gizarte taldeak eta pertsona guztiek duintasunerako duten eskubidea kontuan hartzen ez dutenak. Oraindik ere ez dugu lortu gure elkarbizitzan bizitzaren balio absolutua errotzea.

Gaur egungo Europan eta XXI. mendearen atarian egon arren, euskal gizartean bortizkeria politikoaren fenomeno anakronikoa topatzen dugu. Ez dugu egoki egituraturiko gizarte multzoa eratzen elkarbizitza baketsuak ezinezko dirudielako; izan ere, gure gizartean oraindik ere armak, estortsioa, mehatxuak eta heriotza erabiltzen dira politikaren arloko aukerak inposatzeko asmoz. Herritarrek oraindik ere kalera irten behar dute bizitzeko eskubidea absolutu modura eta baldintzarik gabe aldarrikatzeko, bai eta mobilizazio horien bitartez gogorarazi ere ez dagoela arrazoirik, idealik, aberririk edo iraultzarik pertsonak batek bestea hiltzea justifikatzen duenik.

Giza eskubideak defendatzeko funtsezko konpromisoa duen erakunde baten ikuspuntutik, jarduera terrorista guztiz kezkagarria da, baita ere gizarte haustura, gainbehera etikoa, guztiok kontuan hartzen ez ditugun gutxieneko baliorik ez egotea, “bestea” etsaitzat hartzea, askatasunik eza… Horiek guztiak, azken batean, bortizkeriak irauteko arrazoiak eta ondorioak.

Gure gizartean oraindik ere intolerantziako adierazpen bortitzak ditugu eta horiek askotan baztertze mailarik gorenera iristen dira: aurkariaren hilketa. Ez dago gauza intoleranteagorik desberdin pentsatzen duena hiltzea baino. Eta hori gertatzen da gehienek bakean bizitzeko egindako apustua gorabehera. Hala ere, adierazpen bortitzok hainbat gizarte talderen txaloak edo inhibizioa izaten dituzte.

Azken hogeita hiru urteotan, 899 pertsonak galdu dute bizia Espainian izandako terrorismoaren ondorioz. ETAk 700 pertsona baino gehiago hil ditu eta beste talde batzuek 200 inguru, esaterako GALek. Tarte honetan, halaber, 57 herritar izan dira bahituak. Eta zenbatezinak dira mehatxuak, presioak, estortsioak eta sabotajeak jasan behar izan dituzten pertsonak.

ETAren hilketak zabalduz joan dira talde desberdinetako pertsonen aurka (guardia zibilak, poliziak, militarrak, fiskalak, kazetariak, ertzainak, abokatuak, katedratikoak, espetxeetako funtzionarioak, kargu politikoak…), betiere bere kanpaina zehatzen arabera eta gizarte osoa kolektiborik kolektibo izutzeko eta bere borondatea ezartzeko asmoz.

Gainera, azken urteotan kalean nahita eragindako istiluek eta sabotajeek hedatu dute oinezko, auzokide, lekuko edo ikus-entzule guztiak uzkurtzeko helburua.

Gaur egun herritarrek gero eta gehiago sentitzen dute ETAk zuzenean eraso egiten diela euren eskubide zein askatasunei. Halaber, ikusten du terrorismoaren iraupena funtsezko lorpen demokratikoen aurka ari dela eta erantzuteko prest agertzen da lorpenok defendatzeko asmoz. Alabaina, batzuetan etsipena nagusitzen da eta amore emateko jarrera zabaltzen da. Nire iritziz, horixe da atentaturik txarrena, pertsonaren duintasunari zuzenean eragiten diolako. Pentsamendu askea menperatzea lortzen du mehatxu eta jazarpenaren eragin lausotuaren bitartez. Hori berori izaten da totalitarismoek hazteko aprobetxatzen duten inguruabarra.

Horrexegatik izaten da hain kezkagarria gure gizartean antzematen den gizarte haustura eta gainbehera etikoa.

Gure gizartean beste herritar batzuen hilketak edo bahiketak gauzatu, justifikatu edo babesteko arrazoiak topatu dituztenek ez dute giza eskubideen balio unibertsala berenganatu. Eskubideok euren aldekoentzat aldarrikatzen dira, baina gainerakoei uko egiten zaizkie. Pertsonen gainetik dauden idealak, arrazoiak, aberriak… imajinatzen dituzte eta horietan oinarrituz zilegi izango litzateke pertsonon eskubideak sakrifikatzea.

Gure euskal gizarte honetan estatuen aparatuetatik terrorismoari arma berberen bitartez aurre egitea justifikatu dutenek ere ez dute giza eskubideen balio unibertsala berenganatu. Ustezko eragingarritasun arrazoiren batean oinarrituz, baliabide zital eta maltzurrak erabili ziren, esate baterako bahiketa, tortura eta hilketa.

Bortizkeria politikoaren erabilpen sistematikoaren eta barneraturiko sufrimenduaren ondorioetarik larriena gizarte haustura da, hau da, legitimaziorako elkarren aurkako sistema etiko biren erreferentziagatik komunitatean sortu den banaketa; izan ere, haustura edo banaketa hori bakea eraikitzeko funtsezko oztopotzat hartu beharra dago.

Planteamenduen aniztasuna edo proiektu politiko desberdinen arteko desadostasunak gizarte anitz eta modernoen berezko ezaugarriak dira. Edozein kasutan ere, desberdintasun hauek gutxitan sortzen dute euskal gizartean dagoen moduko gizarte haustura; gainera, haustura horrek bizitza politikoari ez ezik familiari, lagunarteari edo lan zein gizarte harremanei eragiten die.

Gizarte haustura hau ez dute sortu kultura, gizarte edo politika arloko desberdintasunek, baizik eta batzuentzat identifikazio eta talde kohesiorako elementurik garrantzitsuena bihurtu den bortizkeriaren erreferentziak. Gure gizartean bi etika mota ditugu: bata, bortizkeria ezerena eta, bestea, bortizkeriarena; bi kultura: bata, demokratikoa eta, bestea, totalitarioa; bi pentsamolde: bata, zibilizatua eta, bestea, militarizatua.

Pentsa ezazue bortizkeriaren erreferentzia bere osotasunean existitu izan ez balitz edo behintzat 70ko hamarkadan desagertu izan balitz (Triple A, Batallón Vasco Español, GAL, Komando Autonomoak, ETA politiko-militarra, ETA militarra). Hipotesi honi jarraituz, proiektuen arteko norgehiagoka, independentismoarena barne, modu zibilizatu batez gauzatuko litzateke. Katalunian bezala. Quebec-en bezala, beharbada. Elkarbizitza demokratiko normalizatu baten barruan egongo ginateke, guztiok onartzen ditugun arauei jarraitzen diena. Baina horretarako, lehenengo eta behin gogoetak eta jarrerak desmilitarizatzea behar-beharrezkoa da.

Herrien historian barrena intolerantziaren inguruko adierazpena agertu izan dira eta horiek hainbat itxura hartu dituzte tarte eta lekuen testuinguruaren arabera. Horrela, arrazoiak desberdintasun erlijiosoak edo politikoak edo iritzi desberdinak izan dira, edo ekonomia, arraza, etnia edo hizkuntz arloko diferentzien atzean ezkutatu dira. Era berean, intolerantzia agertzeko moduak ere aldatzen dira: modu zabar batez, aurkaria sutara edo hiltzera eramaten denean edo forma zoliago batez, bazterketa maltzurrak bultzatzen direnean. Dena dela, intolerantzia adierazpenak agertzeko arrazoiak eta formak aldatzen badira ere, intolerantziaren sakoneko arrazoia beti izaten da berbera: bestea kontuan ez hartzea behar den moduan, “desberdina” “areriotzat” hartzea.

Beharbada, intolerantziaren itxurarik zorrotzena fanatismoa izango da. Fanatismoa portaeraren patologia bat besterik ez da, hau da, norberaren portaerarena eta gizarte portaerarena. Horren ondorioak autoritarismoa eta intrantsigentzia izan ohi dira eta horiek gorespen beliko eta erasoa eragiten dute:

- Biktima zikindua izaten da, aurkaria satanizatua, desberdina eskumikatua edota traidoretzat edo, besterik gabe, ez abertzaletzat hartua.
- Historia on eta txarraren arteko gerra zelai baten antzera interpretatzen da.
- Salbatzaile mesianikoaren zeregina hartzen da, borroka horretan parte har dezan “gutarren” (onak) edo “gainerakoen” artean (txarrak, etsaiak) hautatuz.

Horretara, gure gizarte zibilizatua oinarritzen deneko balio hierarkia goitik behera aldarazten duen perbertsio morala sortzen da; horrek hizkuntza aldatzen du ezezaguna egiteraino; etsaien irudiak sortzen ditu; hiltzaileak eta biktimak nahasten ditu; moral bikoitzaz jokatzen da gertakizunei desberdin irizten zaienean protagonista nor den kontuan hartuta; bizitza batzuk besteak baino baliozkoagotzat hartzen dira, biktimenak betiere erdeinatuz.

Nolatan ez da gizarte hau hautsita egongo, baldin eta batzuek gerra zelai modura etengabe erabiltzen badute? Nolatan ez da kutsatuta egongo, baldin eta bortizkeriaren perbertsio narratiboa hainbeste urtetan barrena erabili bada?

Fanatismoaren ezaugarriak argi eta garbi ageri dira terrorismoa gauzatzen dutenen artean. Baina, halaber, azaltzen dira neurri batean edo bestean hori laguntzen dutenen artean. Bestearenganako herra, gorroto etnikoa edo kulturala, irredentismoa, hilketak txalotzen dituen sadismoa… horiek guztiek oso zail egiten dute gizarte haustura gainditu ahal izatea. Areago, gaur egun haustura hori beste gizarte talde batzuetara hedatzeko arrisku handia dago.

Azken hogei urteotan bi bide kontrajarri sendotu dira. Horietariko bat, gehiengoak onartzen duena, askatasun demokratikoarena da, autonomia bitartez gauzatzen den autogobernuarena, hizkuntza bezalako nortasun ezaugarriak berreskuratzearen aldekoa. Besteak, gutxiengoak aldarrikatzen duenak, errealitate hori ukatzen du eta gehiengoari exijitzen dio gutxiengoaren eskarietara makur dadin.

Euskal herritar gehienentzat trantsizioa eta erreforma. Bakean, odolik gabe, asaldurarik gabe. Gerra irabazi eta galdu zutenen arteko adiskidetzea. Euskal herritar besterik sentitzen ez direnen eta espainiar ere sentitzen direnen arteko adiskidetzea. Euskal herritar, gaztelar, andaluziar, katalan, extremaduratar, galiziar eta aragoitarren arteko adiskidetzea, hots, hamazazpi adiskidetze nazional eta erregionalak, betiere hauteskunde bitartez onetsitako konstituzioan eta estatutuan ezarritako eredu autonomikoari esker.

Euskal herritar gutxienentzat haustura gauzatzeko gogo bizia. Odol eta bortizkeriarekin. Inorekin adiskidetu gabe. Hogei urte inorekin adiskidetu gabe. Kartzelan euskal preso politikorik bat ere utzi ez zuen 1977ko amnistia eta guzti. Gure itun ekonomikoa, hezkuntza eta osasuna, ETB eta Ertzaintza… edukita ere.

Hausturaren sakontasuna handia izanagatik ere, itxaropen datu modura ikusten dut beraien auzokoekin hogei urte adiskidetzen eman dutenen artean badaudela pertsona batzuk, ez guztiak, berriro adiskidetzeko prest daudenak. Ez daude xantaiaren aurrean etsitzeko prest. Baina ez diote inori eskatzen errenditzeko. Soilik armak utz ditzatela. Hitzaz fida daitezela. Eta hautestontziez ere bai.

Hogei urte inorekin adiskidetu gabe eman dutenen artean ere igartzen dut badirela esku luzatuen premia ikusten hasi diren pertsonak. Beste batzuk ez. Azken horiek aurrera egiten dute ihes. Asalduraren irudiari eutsi beharko diote konpondu gabeko arazo bat dagoela eman dezan. Eta horrela euren asmoak indarrez inposatuak izan daitezen.

Imajinatu gura dut bi bideetarik batetik ibili diren pertsona bateratzaileak topatu egingo direla. Eskuak bi norabideetara luzaturik.

Baina neure buruari itauntzen diot: nolatan gaindituko dute hain jarrera intoleranteen eta gainerakoen bizitza eskubidearen, ideien eta borondateen artean dagoen distantzia? Nola onartuko dute hemen guztiok sartzen garela? Gizarte harremanak jarrera toleranteez zipriztintzeko asmoz, kalean, lantokian, eskolan edota etxean egiten dugun guztiak lagunduko du adiskidetzeko kimuak erne daitezkeen zelaia zabaltzen.

Gizarte portaera intoleranteek ekartzen dituzten ondorioak hain negatiboak izanik, ez dira harritzekoak nazioarteko erakundeek azken urteotan pertsonen eta herrien arteko tolerantzia aktiboaren alde zein bakearen kulturaren alde egin ohi dituzten deiak eta apustuak. Izan ere, intolerantzia beti izan ohi da bortizkeria sortzeko abiapuntua.

## 5. BAKEA ERAIKITZEA: GUZTION ZEREGINA

Guztiok dugu zeregin ezin garrantzizkoagoa. Izan ere, terrorismoa gainditu beharra dago, eta, gainera, hainbat balio finkatu (bizitzaren balioa, desberdintasunaren balioa, adiskidetzearen balioa…), bakearen kultura horietan oinarritu eta euskal herritar guztientzako elkarbizitza eredu bat eratzeko. Makina bat urtetan bortizkeria erreferentzia izan duen gure gizartearen etika eta politika onera ekartzea ezinbestekoa da; izan ere, bortizkeriak den-dena kutsatu du: ideiak, hitzak, isiluneak, jarrerak, printzipioak, proiektuak, balioak, ikurrak, hartu-emanak…

Ezin izango da epe laburrean "alde hemendik" lelotik "guztiok sartzen gara hemen" lelora. Urratsez urrats jo behar izango dugu aurrera, etenik gabe, askatasun eremuak berreskuratuz, topaguneak sortuz, zauriak zainduz eta bortizkeriak altxaturiko gizarte harresiak lurrera botaz. Horretarako, baditugu euskal gizartean giza eskubideen defentsaren alde eta bakea eraikitzearen alde lanean ari diren sektore ugari. Horiek itxaropenaren zantzuak dira.

Agian, daturik itxaropentsuena gizarteak bizi duen bilakaeran topa daiteke. Ermua bakearen aldeko lanean inflexio puntua izan zen, matxinada zibila. Herritarrek, batera, beldurra gainditu eta kalea hartu zuten, horrela faxismoaren aurkako eta bizitza zein askatasunaren aldeko ibilaldia gauzatuz. Horrek gaur egun ere darrai.

"ETA, hil itzazu" oihu egiten dutenen gainetik euskal herritar gehienen ahotsa nabarmen altxatzen da, bizitzaren, askatasunaren eta adiskidetzearen alde. Ahots horrek balio gehigarria du terrorismoaren biktimak izan diren pertsonengandik ateratzen denean; izan ere, horiek euren eta familiaren larruan sentitu behar izan dituzte arrazoi ezaren eraginak eta, mendekatzeko sentimenduak gaindituta, egian, justizian eta askatasunean oinarrituriko bakea bilatu nahi dute.

Bortizkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak -denbora luzean ahaztutakoak- garrantzi handiko erreferentzia morala dira. Justizia egiteko abagune historikoa ematen digute, betiere ahotsa, arreta eta barkamena emanez gero. Edozer eginda ere, hildakoak ez dira gure artera itzuliko eta biktimen sufrimendua ere ez da itzaliko. Baina gure ekintza eta jarreren bitartez euskal gizartea adiskidetzeko bidearen malkarra zelai genezake. Horien partaidetza behar-beharrezkoa da herri honen berreraikuntza moralerako eta etorkizuneko bakerako. Bai eta bihar-etziko biktimak saihesteko ere. Oroimenari eusteko eta belaunaldi berriak tolerantzia, elkarbizitza eta askatasunaren balioetan hezteko. Biktimak eta biktima-sortzaileak sekula ere ez nahasteko, zeren eta, Primo Levik gogorarazten digun bezala, errakuntza hori ondokoa baita: *"gaixotasun morala, itxurakeria estetikoa edo konplizitate zantzu zitala; eta, batik bat, egia ukatzen dutenei egiten zaien zerbitzu ezin hobea"*.

Etorkizuna eraiki eta bakearen kultura garatzeko zeregin honetan guztiok bete behar ditugu hainbat zeregin. Bakea puzzle baten antzera eraikitzen da. Eta bakoitzak bere zatia jarri behar du leku egokian. Ez da zatirik falta behar, ez eta soberan egon ere. Inor ere ez dago soberan.

### Zer egin behar da hemen bakearen kultura eraikitzeko?

Gure aurreneko gatazka politikoa da gure artean terrorismoaren bitartez helburu politikoak lortu nahi dituzten pertsonak egotea, hau da, desberdin pentsatzen dutenak eraso eta xantaiaren bitartez… edo hilketaren

bidez errenditu nahi dituzten pertsonak. Badira bestelako gatazkak ere. Elkarbizitzakoak dira: nortasun eta proiektu desberdinak dituzten euskal herritarren artekoak. Bortizkeriara garamatzana zera da: gatazkak modu positiboan bideratzeko ezintasuna. Elkarbizitzaren inguruko gatazkak konpongaitzak izan ohi dira. Baina konpon daitezke. Hori dela eta, bakeari buruzko hausnarketei Sénecaren ondoko esaldi hau jarri ohi diet izenburu modura: *"gauza bakarrak eman diezaguke bakea: elkarri barkatzeko kontratua"*. Hortik ondorioztatzen da irtenbide politikoez gain -horiek politikariei baitagozkie- beste maila batekoak ere landu behar direla, hala nola balio etikoak, elkarbizitzaren inguruko jarrerak, portaera zibilizatuak...

Jakina denez, ETAk erabaki behar du bere amaiera. Ez su-eten bat, desegitea baizik. Hiltzeari utzi behar diote eta betiko utzi behar diote. Hori gertatzen denean, bakearen kulturak aurrera egitea oztopatzen duen trabarik handiena desagertua izango da. Bitartean, lan egin beharra dago ETAren aldeko gizarte sektoreak jarrera hori bertan behera utz dezan eta ETAri jarduera bertan behera uztea eska diezaion.

Alabaina, bakearen kultura eraikitzeak izuaren agenteen eremua gainditzen du nabarmenki. Horrexegatik egin behar da lan gizartearen eremuan, beti ere ondoko gizarte agenteak erabiliz:

- Gurasoak seme-alabekin, historiaren desitxuraketa saihestuz eta eurek printzipio demokratikoak berenganatuz.
- Irakasleak; horretarako, balio demokratikoak eta bakearen kultura landu eta ikasleen partaidetzarako tresnak erabili beharko dituzte, elkarrizketa, lankidetza eta akordioak biltzea zertan dautzan irakatsi ahal izateko.
- Agente ekonomikoak eta sozialak, betiere gure ekoizpenaren egitura sortuz eta eraldatuz, aberastasuna eta lana sortuz eta gero eta modu bidezkoagoan banatuz.
- Gizarte mugimenduak, gizartean irmotasun etikoa, tolerantzia eta elkarrizketa sortaraziz. Euskadiko gizarte mugimenduek herritarrei bakea eta askatasuna lortzeko adierazpideak eskaintzeaz gainera (hauteskundeetako emaitzek ez dituzte baldintzatzen eta gainera barne aniztasun handia dute) politika arloan talde finkoetan dauden pertsonak zeharka batzeko tresnak izan daitezke. Modu horretara, Euskadi anitza eta tolerantea lortzeko esperientzia abian jarri ahal izango dute.
- Fededun komunitateak, hiltzea bekatua dela gogoraraziz -Nigerian, Estatu Batuetan, Bosnian, Txetxenian eta Euskadin- eta barkamena zein adiskidetzea bultzatuz.
- Herritarrak oro har, betiere protagonista aktiboaren zeregina beren gain hartuz eta irtenbidearen zatia direla sinetsiz. Euskal herritarrei dagokie bakearekin duten konpromisoa egunean-egunean azaltzea, gizarte mobilizazioetan parte hartuz; elkarbizitzaren kontra jotzen duten portaera totalitarioen aurrean moteltzeko tentaldiak gaindituz; eta irmotasun demokratikoan oinarrituz, elkarren kontra ari diren pertsonak hurbilaraziz.

Guztion partaidetza nahitaezkoa da bakea eraikitzeko. Batzuena prozesuaren erreferente eta motor modura eta beste batzuena konpromisoa hartu nahi duten subjektu modura. Edozein kasutan ere, zeregin eta funtzio osagarriak baino ez dira eta bien izendatzaile komuna balio demokratikoetan datza. Nork bere erantzukizuna hartzen badu, falta den zatia ipintzen jardungo dugu. Zati guztiak behar-beharrezkoak dira. Eta horrela, puzzle erraldoi batean bezala, Euskadin bakea eraikitzen hasiko gara.

Zati multzo honetatik, bakearen kultura eraikitzeko ekarpenetatik, bi nabarmendu nahi ditut: bata, etorkizunera begira oso garrantzitsua delako, belaunaldi gazteei baitagokie; bestea, gure zatia delako, hau da, defendatzaile modura dagokigun zatia.

## 6. **BALIOETAN HEZTEA**

*"Gerrak gizakien gogoetan sortzen direnez gero, gizakien gogoetan eraiki behar dira bakearen gotorlekuak."* Berriro ere gogora ekarri nahi izan dut UNESCOren sorrerako testu hau, Nazio Batuek II. Mundu Gerra amaitu ostean onetsitakoa. Testua gerrak asmatuak direlako sinesmenean oinarritzen da, hau da, kulturak eta gure zibilizazioaren emaitzak direlako ustean; beraz, bortizkeriaren kultura ereiten den modu berean, bakearen kultura erein eta zabal daiteke. Ortegak esaten zuenez, "gerra" egin ahal bada, "bakea" ere eraiki daiteke. Sevillako adierazpenak ere behin eta berriz aipatzen zuen gerra asmakizun soziala dela, eta, hortaz, senda daitekeen gaixotasuna.

Asko dira gatazketan balioek zeregin erabakigarria dutela baieztatzen dutenak. Kolektiboen izaera eratu ohi da kolektibook euren buruei ematen dizkieten balioen arabera; izan ere, horrek kohesio etiko jakin bat eskaintzen die. Horrela bada, bortizkeria erabiltzen den gatazketan aurkaria kondenatzen edo hiltzera animatzen duten planteamendu etikoak azaldu ohi dira. Etikak beti erabiltzen dira praktiken laguntzaile modura. Horregatik, hain garrantzitsuak izaten dira gutxieneko adostasun etikoak; izan ere, bake iraunkorra

soilik izango da posible gizarte batean, horren balioak bakearen kultura oinarritzen direnean eta ez bortizkeriarenean.

Eta balioak hedatzeko oinarrizko zutabeetarik bat heziketa da. Ildo honi jarraituz, heziketa bakearen aldeko tresnatzat har daiteke. Bakearen kultura eraikitze aldera zuzendutako edozein ahalegin lehentasunez bideratu beharko da balioak barneratzeko beharrizanean eta heziketa hartu behar izango da etorkizunari begira prebentzioko inbertsio modura.

Gogoan izan behar dira belaunaldi bakoitza gizarteratzen den testuinguru historiko desberdinak. Gaur egungo gazteek ez dute gerra zibila ezagutu, ez eta horren ondorioak ere; ez dute parte hartu diktaduraren aurkako borrokan ez eta demokraziaren aldekoan ere; horrela, faktoreak dira euren balorazioetan zuzeneko eragina dutenak. Gainera, posible izan daiteke gaur egun bortizkeriaren kulturak kale terrorismoa erabiltzea belaunez belaun igarotzeko bide gisa. Horrek guztiak kezkatu behar gaitu eta, era berean, gure erantzun aktiboa bideratu. Bakearen kulturari eusten dioten balioen arabera hezi beharrean gaude.

Belaunaldi bakoitzak ikasi behar du zer den demokrazia. Askatasunean eta bortizkeriarik gabe bizi izateko estiloa eratzen duten balioak ez dizkigute multzo genetikoan ematen. Ikasi behar dira, hau da, esperimentatu eta entsaiatu behar dira, asmatuz eta erratuz. Umeek edo gazteek gizarteratzeko erabiltzen duten eremuetan askatasuna behar da askatasuna sentitu ahal izateko; beharrezko dituzte hautatu eta identifikatzeko balio eta erreferentziak. Familian, ikastetxean, lagunartean, multimediaren ingurunean askatasun giroa eta balio positiboak sumatu eta hurbil sentitu behar dituzte, euren kasa elkarbizitza adiskidetsu eta abegikorraren proba gauzatu ahal izateko.

Hezitzaileen zeregina izango da arlo horietan falta ez izatea ez jolasean aritzeko zelairik ez eta jokoa arautzeko mugarik ere. Zelaia (hertsaduran ez dago jokorik) bezain garrantzitsuak dira arauak (araurik gabe ez dira lantzen errealitateak ezartzen dituen erronkak).

Nire ustez, azken urteotan kezkagarriak iruditzen zaizkidan bi inhibizio mota hedatu dira:

Lehenengoa. Ziur aski gure haurtzaroan jasan behar izan dugun ahalegin moralizagarri gehiegizkoari eman zaion erreakzio gisa, orain ikasgelak leku neutro eta aseptiko bihurtzeko tentazioa sumatzen da. Irakasleak ez omen du doktrinatu behar. Hala ere, gauza bat da doktrinatzea eta bestea balioak lantzea. Eta horretan ere guraso batzuek amore eman dute.

Bigarrena. Euskadin azken hamarkadetan bizitzeko eskubidea edo askatasunerako eskubidea bezalako oinarrizko giza eskubideak erlatibizatzeko joera zitala egon da. Euskal gizartean eskubide horien unibertsaltasunari buruzko oinarrizko adostasunik egon ez denez gero, balioen arabera hezteko eremuan, hots, hezkuntza sisteman eta ikastetxeetako klaustroetan garrantzitsutzat har daitekeen inhibizioa izan da. Aita-amen artean zein irakasleen artean ere hain oinarrizkoa den bizitzeko eskubidearen inguruko jarrera desberdinak izan direnez gero, askotan beste aldera begiratzea erabaki da, aurkakotasun hori eszenifikatzeko beldurra dela eta.

Behar-beharrezkoa da hezkuntza komunitateetan elkarbizitzaren inguruko oinarrizko adostasunak berreskuratzea, hots, giza elkarbizitza identifikatzeko ezinbestekoak diren gutxieneko akordioak. Beharrezkoa da, era berean, errespetutsua eta estimulagarria izan behar duen esku hartzearen inguruko adostasuna berreskuratzea, balioen inguruko lanak heziketaren erdiko zeregina bete dezan. Beharrezkoa da hezkuntza erakundeak egunero elkarrekin bakean bizitzen ikasteko eta tolerantzia gauzatzeko leku idealak izatea.

1994an Ginebran egindako Hezkuntzaren Nazioarteko Konferentzian bakearen kultura heziketaren bitartez sendotzeko hainbat proposamen aurkeztu ziren. Proposamen horiek oso zehatzak izan ziren eta gure testuinguruan aplika litezke:

- Hezkuntza sisteman gatazkak konpondu eta horietan bitartekaritza lana egiteko prestakuntza eta praktika, betiere langileen eta ikasleen artean. Era berean, komunitateak gizartearen beste esparruetan parte hartzera bultzatzea.
- Bakeari, bortizkeria ezari, demokraziari zein berdintasunezko garapenari buruzko gizarte mugimenduen inguruko informazioa (nazionalak zein nazioartekoak) curriculumean sartzea.
- Curriculumak etengabe berrikusi eta berritzea etnia, arraza eta kultura desberdinen ikuspegia bermatzeko, betiere horien berdintasuna eta guztien ondasunak aberasteko egiten duten aparteko ekarpena nabarmenduz.
- Historiaren heziketa etengabe berrikusi eta berritzea, gizarte aldakuntza ez-bortitzari historiaren alderdi militarrei besteko garrantzia emateko, betiere emakumezkoek historian izan duten zeregina arretaz aztertuz.

Bakearen kulturaren balioen nagusitasun etikoak baino ez du bermatuko belaunaldi gazteenek bakearen kultura barneratzea. Eta heziketa bortizkeriaren kulturan oinarrituriko balioak eta portaerak aldarazteko tresna

da; horrela, heziketak lagunduko du gizarteak bortizkeriaren kontrako defentsak eta erresistentziak eratzen. Ez dugu jakin gertakizunei aurre hartzen; beharbada horrelakoak etorkizunean berriro gertatzea saihestu ahal izango dugu.

## 7. DEFENDATZAILEEK BAKEAREN KULTURARI EGINDAKO EKARPENA

Ponentziaren amaierarako honako gai hau utzi dut: Nola lagun dezakegu guk gure erkidegoetan bakearen kultura eraikitzen eskubideen defentsaren alde egiten dugun lanaren bitartez?

Uneoro gogora ekarri nahi izan dut bakearen eraikuntza guztien zeregina dela. Ataza hori pertsona guztiei dagokie. Baina pertsona guztiei *ez ezik* erakunde guztiei ere bai. Erakunde bakoitzak bakearen kultura egin behar du bere lan esparrutik eta bere tresnak erabiliz. Gure kasuan, lau lanabes aipatuko ditut: konbentzitzeko magistratura erabiltzea, giza eskubideen kulturaren oinarrizko printzipioak zabaltzea, administrazioak eskubide horien alde egiten duen lana ikuskatzea eta zuzenbidea bultzatzea.

### A) Konbentzitzeko magistratura

Gure erakundeak (Defensor del Pueblo, Defensor del Pueblo Andaluz, Síndic de Greuges de Catalunya, Valedor do Pobo, Diputado del Común de Canarias, Ararteko, Justicia de Aragón, Síndico de Agravios de la Comunidad Valenciana, Procurador del Común de Castilla y León) oinarritzen dira justizian, berdintasunean, eskubideen unibertsaltasunean eta akordioak modu baketsu batez lortzeko ahaleginetan. Botererik gabeko agintaritzaren moduko bat gara eta horretara herritarren eta herri erakundeetako administratzaileen konfiantza geureganatu behar dugu, hitza, arrazoiak eta pertseberantzia gure arma bakarrak direla.

Gure ekintzek eta prozedurek argudioak emateko eta arrazoitzeko gaitasuna frogatzen dute. Entzun, hausnartu, konbentzitu, atxikimendua lortu, bitartekaritza gauzatu eta adiskidetzeko ariketatzat har daitezke. Horixe da gure handitasuna eta gure ahulezia. Garrantzizkoak dira helburuak eta emaitzak ez ezik bitartekoak, prozesua eta estiloa ere. Gure tresnak beraiek dira, bakearen tresnak. Egunero burutzen dugun lanak bakearen kultura eraikitzen dihardu.

### B) Printzipio demokratikoak zabaltzea

Giza eskubideen kultura hedatzeko zereginari jarraituz, gogora ekarri behar ditugu, beharrezkoa den leku guztietan, aurrepolitikoak diren printzipioak, baina jarduera politikoa bilbatu behar dutenak. Esate baterako:

- Errealitatearen printzipioa: errealitate zehatzetik, egungo herritarren errealitatetik, abiatu beharra dago eta ez da nahastu behar amets, kimera edo kondairekin.
- Aniztasuna onartzea. Lehenengoz, errealitatearen datu gisa. Bigarrenez, jarrera demokratiko modura, desberdinek duintasun bera eta eskubide berberak dituztela onartuz. Hirugarrenez, kultura aberasteko balio gisa.
- Gatazkak konpontzeko formula magikorik ez dagoen printzipioa. Errealitate zuzenak ere hala nola *elkarrizketa, negoziazioa, subiranotasuna, autodeterminazioa* fetitxe bihurtzen dira derrigortzeko aipatzen badira, bortxaz eta bortxa sortzen duen bortizkeria alde batera utzi gabe. Testuinguru honetan, beraz, aldarrikapen demokratikoak izateari uzten diote eta demokrata sineskorrentzako amarru bihurtzen dira.
- Bortizkeriatik onura politikoak ateratzen ez ahalegintzeko printzipioa. Gorrotagarri eta higuingarria da. Ez da batzuen bortizkeria aprobetxatu behar, ez eta besteen nekea ere.
- Bortizkeria eta gai politikoak zeharo bereizteko premia. Bortizkeria geldiaraztea horretan dihardutenen borondatearen araberakoa izango da. Gai politikoak erabakitzen dituzte hautestontzietatik ordezkaritza jaso dutenek, baina bortizkeria alboratuz eta horren presiorik gabe. Armen ordez hautestontziak.
- Alderdien arteko konfiantzari eustea edo, beharrezkoa denean, berregitea, gutxienez bakea eraikitzeko behar besteko konfiantza; halaber, gizartean printzipio demokratikoen aldeko konpromiso aktiboa zabaltzeko ekintza positiboak bultzatzea. Gainera, politikaren esparruan, elkarrizketa politikorako guneen garrantzia azpimarratzea; elkarrizketa horietan, bada, hauteskundeetan ordezkaritza lortu duten guztiek parte hartu beharko lukete. Guztiek modu honetara esku hartzea lortzen ez den artean, politika porrotean egongo da. Era berean, foro politikoetan hizpide bakarra eduki politikoak ez diren artean, betiere bortizkeria alde batera utziz, ez da gailenduko gizabidea.

## C) Administrazioa ikuskatzea

Herritarren funtsezko eskubideen alde jarduteko, legeak administrazioa ikuskatzeko ematen digun zereginari dagokionez, ikuskatutako administrazioen eskumenen eremuari eragiten ahalegindu beharra dago. Horrela bada, ondorengo beharrizanak gogorarazteko abagunea izango da:

- Sistema demokratikoaren eta erakundeen gizarte legezkotasuna egunean-egunean berresteko beharrizana, zuzen eta eraginkortasunez jokatuz. Azaleratzen ari diren totalitarismoek euren oinarria topatu dute alderdi politikoen deskredituan, betiere krisialdi ekonomikoek eta langabeziak lagunduta.
- Erakundeak eredua izatea legezkotasuna eta giza eskubideen babesa errespetatzean; era berean, erakundeek adiskidetzeko prozesu irmoen buru izateko ekimenak hartzea.
- Tortura eta tratu txarrak desagerrarazi eta eskubide guztiak beteko direla lortzea, atxilotuenak eta presoenak barne. Euskadin bortizkeriari laguntzeko berrelikadurak zerikusi handia izan zuen poliziaren jardueraren akatsekin, bai gehiegikeriak bai hutsune handiak izan zirelako. Gehiegikeriak: errepresio indiskriminatuek eta ez legezkoek gorrotoa sortarazten dute, bai eta erasoa jasan behar izan dutenenganako elkartasun zirkuluak (familiartekoak, lagunak, lankideak, herriak) zein euren asmoekiko lotura ere. Hutsuneak: inhibizioak eta eraginkortasunik ezak zigorgabetasun pertzepzioa sortzen dute eta horrek balizko erasotzaileari indarra eman eta arriskua oso txikia izanik laguntzen dio xantaia burutzeko eta izua zabaltzeko guneak eskuratzen. Horrenbestez, poliziak esku hartzeko neurria hartzea bakea eraikitzeko zutabe nagusietarik bat da.
- Zigortzeko boterea neurrian erabiltzea. Zigorren gizatasun eta proportzionaltasunaren printzipioa konstituzioan ageri da eta bertan pertsonen oinarrizko eskubideen artean jasotzen da askatasuna kentzen duten zigorren helburua gizarteratzea dela. Funtsezko edukiari jarraituz, gizarteratzeko orientabidea zehazten da *"zigortuen desustraitzea saihesteko"*. Ideia hori Europako Espetxeei buruzko Arauetan eta Espetxeetako Araubide berrian garatu da; bi arautegiek azpimarratzen dute espetxeratua "ez dagoela gizartetik kanpora; hori dela eta, kartzelaratzearen eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murriztu eta, era berean, zigortuaren gizarte loturak bultzatu behar dira (Europako Kontseiluko 65.b R(87) 3. araua eta Espetxeei buruzko Araubidearen 3.3. artikulua).

Bermea emateko ikuspuntu batetik, aipatutako legezko aginduak errespetatzeak badakar espetxeko tratamendua espetxeratuaren bilakaeraren arabera aplikatzea, betiere komunikazioen eta irteera baimenen bitartez zein erregimen irekia edo baldintzapeko askatasuna lortuz. Beraz, ildo honi jarraituz zigorrak egoitzatik hurbileneko espetxean betetzea arau orokorra izan beharko litzateke; izan ere, urrunketak zigorra handitzea dakar eta hori ez da bidezkoa (salbu eta hori justifikatzen duten banakako arrazoi probatu eta nabarmenik badago) eta gainera, zigortuaren familiartekoei zehapena ezartzen die.

## D) Eskubideak sustatzea: "bakerako eskubidea" giza eskubide modura eratzea

Giza eskubideak izaera historikoko kontzeptu gisa eratu eta elkarbizitza arazoei edota giza beharrizanei eman beharreko erantzun historiko modura sortzen dira. Hari honi jarraituz, Podgoreckik zehazten du *"giza eskubideak gizarte sistema jakin batean gertatzen diren gizarte prozesuen zuzeneko emaitzak dira edo gizarte sistemen arteko elkarreraginen ondorioz sortzen dira eta irizpide komun modura izaten dute gizakiaren duintasuna defendatzea"*.

Eskubideen historikotasun hori argi islatzen da horiek historian barrena duten bilakaeran eta aldakuntzan. Horrela bada, une honetan gizarte egoera berrien ondorioz, eskubide berriak ere sortzen ari direla ikusten dugu. Funtsean elkartasunean oinarrituriko hirugarren belaunaldiko eskubideak sortzeak ez dakar inola ere XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendeko hasierako konstituzionaltasun liberalean sorutako eskubideak eta askatasunak behin betiko finkatzea, ez eta gerra arteko konstituzionaltasunean eratutako eskubide sozial eta ekonomikoak finkatzea ere.

Hirugarren belaunaldiko eskubideei dagokienez, nabarmendu behar dugu "bakerako eskubidea" benetako giza eskubide modura eratzeko beharrizana.

1997an UNESCOk Oslon eta Las Palmasen hainbat bilera egin eta horietan gizakiak bakerako duen eskubideari buruzko adierazpen proiektua prestatu zen; egitasmoa urte horretako azaroan onetsia izan zen erakunde horren Konferentzia Nagusian.

Adierazpen horren artikuluetan bakea giza eskubidetzat hartzen da eta gizaki orok bakerako eskubidea duela baieztatzen da; izan ere, eskubide hori gizakiaren duintasunari dagokio. Gainera, ondokoa adierazten da: *"bakerako giza eskubidea bermatu, errespetatu eta praktikan jarri behar da inolako bereizkeriarik gabe"*.

Bakerako giza eskubidearen kontrapuntu modura, bakea hartzen da gizaki, estatu eta herri guztien beharrizantzat. Estatuek gizarte justizia sustatu eta bizkortzeko betebeharra dute; izan ere, desberdintasunek, bazterketak eta pobreziak bakea urra dezakete nazio barruan zein nazioartean.

Gizakiak bakerako duen eskubidea abian jartzeko bidea bakearen kultura bera da; izan ere, bakearen kulturak, betiere testu horren arabera, *"aukera ematen du gizateriaren elkartasunean eta moralean oinarrituriko balio etiko zein ideal demokratikoen multzoa errespetatzeko eta egunero praktikan jartzeko"*.

Giza eskubideak bermatzeko erakundeak zareten aldetik, adierazpen honekiko konpromiso aktiboa eskatzen dizuet, bai eta laguntza osoa ere, bakerako eskubidea giza eskubidetzat hartua izan dadin.

* * *

Bortizkeriak eta intolerantziak euren sustraiak zabaldu dituzten erkidego honetako ararteko modura, uste dut bakearen kulturari egin dakiokeen ekarpenik handiena egunero eta etengabe burutu beharreko lanean datzala, betiere eskubideak defendatzean eta dagozkigun erantzukizunak hartzean:

- giza eskubideak bultzatzea eta horiek urratzen badira salatzea;
- beti biktimen alde eta alboan egotea;
- adiskidetzea eta elkar aditzea bilatzea, aldeen arteko bitartekaritza lana egitea, arazoak elkarrizketaren bitartez konpontzea;
- administrazioaren jarduera positiboak bultzatzea.

Ziur nago zuetariko bakoitzak bere erkidegoari buruzko gogoeta egiten jardungo duela, bakoitzak dituen bortizkeri zantzuen inguruko gogoeta, bai eta bakean bizitzeko dituen ezaugarrietan ere.

Egunero zereginaren bitartez bakearen agente bihurtu behar dugu. Mayor Zaragozak zehazten duen modura *"hitzek kultura sortarazten dute, baina portaerak dira irauten dutenak"*.

# II. ERANSKINA

# AUTONOMIA ERKIDEGOEN ESKUMENAK ETA ERANTZUKIZUNAK ZIGOR ALTERNATIBOAK APLIKATU ETA ERREGIMEN IREKIA BETETZEKO ORDUAN (Herri Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)

## I. SARRERA

Giza eskubideen kultura zabaltzeko eta kolektiborik ahul eta behartsuenganako gizarte elkartasuna sustatzeko asmoz erakunde honek egin beharreko lana betez, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri die askatasunik ez duten pertsonei.

Interes honen emaitza eta Eusko Jaurlaritzak zein Justizia Ministerioak (94-04-18) espetxeetako gaiaren gainean sinaturiko lankidetza hitzarmenaren garapena ikuskatzearen ondorioa izan ziren Ararteko erakundeak *Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxeen Egoera*ri buruz 1996an argitaraturiko aparteko txostena. Horretan hitzarmena garatzeko aholku zehatzen aurretik ageri ziren hainbat gomendio orokor; gomendio horietarik lehenengo hirurak *Autonomia Erkidegorako espetxe sistema baten artikulazio juridikoa eta soziala*. Horrela bada, gomendio horiek, zoritxarrez, gaur egun ere indarrean daudenez gero, horien izenburua aipatzea komeni da:

1 Euskal Autonomia Erkidegoaren espetxe gaiari buruzko eskumena betetzen duten funtzioen transferentzia eskatzea.
2 Zigor Kode berrian presondegiko alternatiba modura ezarritako zehapenak egikaritzeko beharrezko azpiegiturak sortzea.
3 Espetxeko zigorren eta beraren alternatiben gaur egungo sistemari buruzko informazioa eta gizarte eztabaida sustatzea.

Orain arte ez dira transferitu espetxeko legeria betearazteko funtzioak. Edozein kasutan ere, horrek ez du esan nahi toki eta autonomi administrazioek erantzukizunik ez dutenik gizarteratzeko zailtasun larriak eta zehatzak dituen kolektiboari dagokionez; izan ere, kolektibo hori kontuan ez hartzeak bazterketa arazo handiak sortarazten dizkio espetxeraturiko pertsonei ez ezik euren familiei ere, askatasuna kentzen duen zigorrari darizkion kalteak biderkatuz.

Delitu egin dituzten herritarrak gizarteratzera EAEk zuzentzen dituen jarduera aukerek ikuspegi bikoitza izan dezakete: kartzelaldiaren eragin kaltegarriak murrizteko ahaleginak egin daitezke presondegiko bizi baldintzak hobetuz eta, batez ere, zigorra erregimen irekian betetzea bultzatuz. Baina helburu bera lor daiteke espetxearen alternatiba diren zigorrak aplikatzeko garapenaren bitartez; izan ere, modu horretara askatasuna kentzea lor liteke neurri batean.

Komunikazio honetan bi ikuspuntuak aztertzen ahaleginduko gara; hala ere, komunikazioa bi gai zehatzen inguruan bilbatuko da: Espetxe Arautegian ezarritako erregimen bereziak eta komunitatearen aldeko lanen zigorraren aplikazioa. Beraz, ez dira aztertuko Autonomia Erkidegoentzat interesgarriak izan daitezkeen eta zigorra betetzearekin zerikusia duten beste gai batzuk, esate baterako espetxe osteko gizarte laguntza, gobernuz kanpoko erakundeek gizarteratzeko ematen duten laguntza edo asteburuko atzipenak betearazteko moduak.

## II. Espetxeko zigorra erregimen irekian betetzea

Konstituzioaren 25.2. artikuluan ezarritako agindu konstituzionalari jarraitzeko asmoz (izan ere, horren arabera *"askatasuna kentzen duten zigorrak (...) gizarteratzera eta heziketa ematera zuzenduko dira"*), Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak (LOGP) espetxeko zigorra betetzeko hiru erregimen mota ezartzen ditu eta hiru horiei beste horrenbeste espetxe mota ezartzen dizkie: erregimen itxikoa, arruntekoa eta irekikoa.

Agerian dagoenez, gizarteratzearen helburua errespetatzeko, gutxienez zigortuen gizarte desustraitzea saihesteko (Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorraren 12. artikulua), ezinbestekoa da autonomia erkidego bakoitzean zigorrak betearazteko espetxeko erregimen guzti-guztiak egotea. Horrela ez balitz, espetxeratutako pertsonek ezin izango lukete zigorrak bete euren egoitzatik hurbilen dagoen zentroan. Eta Arartekok Eusko Legebiltzarrera bidalitako urteko txostenetan behin eta berriz salatu duenez, horixe da EAEn gertatzen dena. Esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetarik bakar batean ere ez dago erregimen itxia betetzeko modulurik; horrela bada, tratamenduko lehenengo mailako sailkapenaren ondorioz, lurralde horretatik oso urruti dauden presondegietara jo behar izaten da ezinbestean (eskuarki Cadizeko Puerto de Santa Maríako espetxera edo Asturiasko Villabonakora).

Ararteko erakundearen iritziz, Espetxeko Erregimenari buruzko Legearen 3.3. artikuluan ezarritako printzipioak (horren arabera, *"espetxeratua eskubideen subjektua da eta ez dago gizartetik kanpo"* eta *"horren ondorioz, espetxeko bizimoduak erreferentziatzat hartu behar du askatasunean egiten den bizimodua, betiere espetxeratzearen eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murriztuz eta gizarte loturak bultzatuz"*) badakar kondenaturiko pertsonak bere egoitzatik hurbileko zentro batean zigorra betetzeko benetako aukerak izatea, salbu eta beste destino bat ezartzen duten eta behar bezala justifikatu behar diren norbanakoaren arrazoirik ez badago.

Edozein modutan ere, desustraitzea saihesteko premiak badakar zigorra tratamenduko edozein mailatan betetzeko espetxe mota zehatzak egotea; hala ere, egia da erregimen irekirako erabiltzen diren azpiegiturak direla zigorturiko pertsonak birgizarteratzeko zubirik nagusi eta eraginkorrenak.

### 1. Erregimen irekia

Ildo honi jarraituz, Espetxeei buruzko Legearen berrikuntzarik nagusienetako bat izan zen erregimen irekia askatasuna kentzen duen *zigorra betetzeko modalitate arruntz*at hartzea; gainera, modalitate hau aplika daiteke espetxeratutakoak baldintza egokiak betetzen dituenean, bai zigorra betetzen hasten denetik bai tratamenduko bigarren gradutik aurrera ere. Ez dago zalantza izpirik ere askatasun erdiko erregimenak kartzelaldiaren intentsitatea txikitzen duela esatean; beraz, horren eragin kaltegarriak murrizten ditu, delitu egin duen pertsonak gizarteratzeko dituen aukerei lagunduz. Areago esan behar da, legegilearen borondatearen arabera (espetxe gaietako berrikuntzari buruz 1979an Senatuaren Batzordeak emandako irizpenean ageri dena) *"askatasuna kentzen duten zigorrak ezarriz gero, horiek, normalean, erregimen irekian bete beharko dira; horrela, erregimen itxia gordetzen zaizkien aparteko kasuei itxaropen nahiko eman beharko zaizkie, betiere luzea izango ez den epean egoerarik onuragarrienera pasa daitezen"*.

Ezin da ahaztu espetxeko arautegia indarrean egon den hogei urteko epean legegilearen asmoek huts egin dutela; izan ere, bestelakorik itxaroten bazen ere, kondena erregimen arruntean eta itxian betetzen duten pertsonen kopurua ez da modu nabarmenean murriztu (zigortuen %87).

Edonola ere, Espetxeei buruzko 1996ko Arautegi berriak erregimen irekia sustatzeko helburua hartzen du, hiru establezimendu motak arautzearen bitartez. Horietarik, zentro balioanitzen Sekzio Irekiak erregimen irekiko lehengo sailei eustea dakar, betiere hirugarren graduan dauden espetxeratuei zuzendutako presondegiaren zati modura. Espetxean bertan egoteak hainbat desabantaila dakartza, baina sekzio hauen existentziak ahalbideratzen du gradu horretan dauden pertsonek eskuratutako konfiantzaren araberako bizi erregimena ezartzea. (81.1. artikulua). Nabarmendu beharra dago euskal presondegietan sekzio ireki bakarra dagoela (Langraitz) eta gizonezkoei baino ez zaie zuzentzen; horrela bada, emakumezkoek (dagoeneko baztertuago daudenak Basaurin eurentzako sailik ez dagoelako) askatasun erdiaz gozatzeko zailtasun gehiago izaten dituzte Langraitz eta Martuteneko zentroetan.

Sekzio irekiez gainera, Espetxeko Erregimenari buruzko 80. artikuluak ezartzen ditu erregimen irekiko bi establezimendu mota egotea; horietan, aurrera eramaten dira "zigorra betetzeko modu bereziak":

**A. Gizarteratzeko zentroak.** Askatasuna kentzen duten zigorrak erregimen irekian eta AFSko zigorrak betetzera zuzendutako espetxeak dira; hala ere, horietan egiten da zigor legerian ezartzen diren baina askatasuna kentzen ez duten zigorren jarraipena. Zentro hauen helburu zehatza ondokoan datza: *"zentro hauetan sartutako pertsonek gizarteratzeko dituzten ahalmenak bultzatzea, betiere gizarte ingurunera*

*itzultzen laguntzera zuzendutako tratamendu programak eta jarduerak garatuz* “ (Espetxe Erreginenari buruzko Legearen 163.2. artikulua).

Jarduera zuzentzen duten printzipioei dagokienez, ondokoa nabarmendu beharra dago: *“espetxeratuak birgizarteratzen eta laguntzen jarduten duten organismo eta erakunde publikoen arteko koordinazioaren printzipioa, betiere kanpoko gizarte baliabideen erabileran arreta berezia jarriz, batez ere osasun, heziketa, prestakuntza eta lanaren arloan”*.

Egia da printzipio hauek eta zentro mota horietako funtzionamendu arau zehatz hauek arau bidez garatzeko daudela, eta, gainera, EAEko lurraldean behinik behin, ez dela horrelako establezimendurik sortu. Guztiarekin ere, gure iritziz, hori ez da oztopo helbururik behinena indarrean egon dadin; izan ere, xede hori zigorrei birgizarteratzeko orientabidea ematean besterik ez datza.

**B. Menpeko unitateak.** Espetxe erregimenak ezarritako berrikuntzarik handiena da; horrela bada, menpeko unitateak espetxeetatik kanporako egoitzazko instalazioak dira, normalean komunitatearen inguruneko etxe arruntetan kokatutakoak eta, nahiz eta espetxe administrazioaren menpekoak izan, *“zigortuek prestakuntza, lan eta tratamenduaren inguruan jasotzen dituzten zerbitzuak eta prestazioak espetxeekin zerikusirik ez duten elkarteak edo erakundeak kudeatzen dituzte zuzenean”* (165.2. art).

Espetxe Erregimenari buruzko Legearen 166.1. artikuluak ezartzen duenaren arabera, menpeko unitate berriak sor daitezke espetxe administrazioen eta zigortuak gizarteratzera zuzendutako beste erakundeen arteko akordio edo lankidetza hitzarmenak sinatzearen ondorioz. Aurrerago azalduko den bezala, uste dugu xedapen honek ahalbideratzen duela eta neurri batean eskatzen duela administrazio publikoen inplikazioa; izan ere, horiei dagokie kolektibo ahul eta behartsuenak babestea.

**Zigorra betetzeko beste modu batzuk.** Tratamenduko hirugarren graduan sailkatutako zigortuei zuzentzen ez bazaizkie ere, ez eta zigorrak erregimen irekian egiteko aukerei ere, espetxe erregimenean presondegiko zigorra betetzeko beste berrikuntza batzuk azaltzen dira, hala nola establezimendu mistoak (bertan gizonezko eta emakumezkoak batera bizi izan daitezke), gazteentzako sailak (bertan gizarte ingurunearekin harremanetan jartzea ahalbideratuko da *“baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz eta sailaren bizitzan komunitatearen erakundeen partaidetza bultzatuz”* -173. art-), amentzako unitateak, hau da, hiru urtetik beherako seme-alabekin bizi diren zigortuei zuzendutakoak. Azkenik, espetxeetako unitate psikiatrikoez gainera, espetxe erregimenak arautzen du zigorra nola bete daitekeen espetxeez kanpoko unitateetan.

Hirugarren graduko zigortuak joan daitezkeen erakunde publiko edo pribatuak izan daitezke, drogamenpekotasuna uzteko tratamendua zehatza behar dutenean. Prozedura hori abian jarri ahal izateko, espetxe administrazioak beharrezko hitzarmenak egin behar ditu beste erakunde publiko batzuekin edo segurtasun neurriak betearazten laguntzen duten bestelako erakundeekin.

Laburbilduz, zigorrak erregimen irekian (eta gazteen kolektiboaren kasuan, erregimen arruntean) betetzeko espetxe arautegiak eskaintzen dituen aukera sortak administrazio publikoen arteko lankidetzarako posibilitate handiak ematen ditu zigortuen gizarteratze lanari begira.

## 2. Autonomia Erkidegoen esku-hartzea presondegiko zigorrak betetzean

Argi eta garbi dago askatasuna kentzen duten zigorrak gizarteratzera zuzentzeko agindu konstituzionalak helburutzat duela justizi eta espetxe administrazioa. Hala ere, pertsonaren eskubideen barruan azaltzen den agindu hori botere publiko guztiei dagokie. Delitu baten erantzuletzat hartua izan den pertsonak zigorra bete behar du, baina ezin da gizartetik kanporatua izan. Aitzitik, kartzela jasan behar duen pertsonaren bazterketarako faktore baten gisa azaldu denez, espetxeratuek gizarte laguntza handia behar duen kolektibotzat hartu beharra dago. Beste era batera esanda, gizarteak pertsona horiek berreskuratzeko eta komunitatearen bizimoduan parte hartzen laguntzeko ahaleginak egin behar izango ditu.

Azken batean, EAEko Autonomia Estatutuaren 9.2 CE eta 9.1.d). artikuluetan ezarritakoari jarraituz, norbanakoen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzea da; horrek, kasu honetan, administrazio publikoei eskatzen die laguntzeko jarduera bat, espetxeratu ohiari gizarteratzeko oztopoak gainditzen ahalbideratzeko. Hari honi jarraituz, Europako espetxe arauek presondegietako erregimen irekia bultzatzearen aldeko hautua egiten dute argi eta garbi.

Ildo beretik, Justizi Sailari legelari talde batek egindako azterlanak (Eusko Jaurlaritzak 1992an *Espetxeetako erregimen irekia* izenburupean argitaraturikoa) proposatzen zuen erregimen irekiko espetxe zerbitzu bat antolatzeko eredua; ezaugarriak gaur egungo espetxe erregimenak gizarteratzeko zentroei ematen dizkienen antzekoak dira.

Proposamen hori, dena dela, ez da oraindik ere gauzatu, nahiz eta Justizia Sailburuak jarduera ildo modura aurkeztu zuen, horrek espetxe arloko transferentziak egoerarik onenean hartzen ahalbidera zezan.

Hala eta guztiz ere, 1994an Eusko Jaurlaritza eta Justizi Ministerioaren arteko hitzarmena sinatu zen bi administrazioen arteko lankidetza bermatzeko, betiere *"EBk eta indarreko legeek askatasuna kentzeko ezartzen dituzten xedeak lortzeko, hau da, espetxeetan dauden pertsonak berriro ere heztea eta gizarteratzea"*.

Erakundeen arteko lankidetza zazpi jarduera arlotara zabaltzen da eta horien artean erregimen irekiari dagokiona aurkitzen dugu. Hitzarmenak eremu horretan jarduteko ildoak orokortasunez deskribatzen dituen arren, Ararteko erakundeak (presondegietako egoerari buruz egindako azterlanean) ateratako ondorioa izan zen ez zutela batere garapenik izan. Hori dela eta, horren inguruko hainbat gomendio eman zituen. Horien izenburuak gogora ekartzea merezi du:

53 Zentroetako sekzio irekietako baldintzak nabarmen hobetzea eta, bereziki, Langraizko sekzioa.
54 Tratamendurako bestelako programak martxan jartzea ahalbideratzen duten baliabideak izatea, betiere norbanakoen egoera desberdinei erantzuna emateko asmoz.
55 Hirugarren graduan dauden pertsonek lanean hasteko baldintzak sustatzea eta "lantzat" hartzen dena beste kasu batzuetara zabaltzea.
56 Elkarte, kolektibo eta erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta horien partaidetza aktiboa eta sistematikoa ahalbideratzeko plataformak ezartzea.
57 Ametzagañako Unitatearen gaur egungo baldintzak berraztertzea, aprobetxamendu hobea lortzeko asmoz.

Egia da, gomendio hauek 1996ko hasieran egin zirenetik hona, zirkunstantzia faktikoak eta arautegikoak aldatu egin direla. Nolanahi ere, edukiaren mamia indarrean dagoela uste dugu; hortaz, euskal administrazioek euren esku dauden ahaleginak egin beharko dituzte gomendiook bete ahal izateko. Halaber, ezin dira alde batera utzi espetxe erregimen berriak erakunde publikoei zein pribatuei ematen dizkien aukera berriak, betiere presondegiko zigorra erregimen irekian betetzeko unitateak abian jarri eta kudeatzeko orduan.

## III. PRESONDEGIAREN ALTERNATIBAK: KOMUNITATEAREN ONURARAKO LANAK

Erakunde honek euskal kartzelei buruz egindako txostenean azaldu genuenean zigorren gaur egungo sistemari buruzko eztabaida soziala beharrezkoa zela, iritzi publikoari nabarmendu nahi izan genion zeintzuk diren presondegiko zigorrak dakartzan kalte larriak, bai eta zeintzuk diren ere giza zein gizarte kostu txikiagoa eta prebentzioaren eraginkortasunean antzeko gradua dakartzaten zigor alternatiboak. Europako Parlamentuak kartzeletako egoerari eta ordezko zigorrei buruz 1998ko abenduaren 17an emandako ebazpen batean (A4-0369/98) bat egiten zuen planteamendu horrekin; izan ere, zigor sistemak gizarteratzeko bilatzen dituen jomugak ezagutarazteko garrantzia nabarmentzen zuen, betiere biztanleen elkartasun erantzuna lortu ahal izateko (31. atala).

Aipatutako ebazpen horretan (30. atala), askatasuna kentzeko zigorraren aldean ordezko zigorren aplikazioa sustatzen da, bereziki *"Batasuneko hainbat herrialdetan eraginkortasuna frogatu dutenen aplikazioa, hala nola interes orokorreko lanak"*. Espetxeko zigorra murrizteko asmoari jarraituz, Arartekok zigor neurri honen zabalkundeari lotuko zaio; gure antolamendu juridiko berrian zigor honi komunitatearen onurarako lanen izena ematen zaio (KOL).

### 1. Komunitatearen onurarako lanen zigorra

1995eko Zigor Kode berrian (ZK) gehien itxaron eta eskatzen zen berrikuntzetariko bat izan zen presondegiko ohiko zigorraren zigor alternatiboak izatea. Horrela bada, legegilearen erantzunak itxaropen guztiak bete ez bazituen ere, zigor sistemak hainbat zehapen hartu ditu larritasun gutxiko delituei erantzun egokiagoa emateko. Izan ere, delitu horiek (gehien egiten direnak) aurreko zigor legerian zehatzen ziren presondegiko zigor laburren bitartez; horiek oso kritikatuak izan ziren, espetxeratzeak dakartzan eragin negatibo guztiak sortzeaz gainera (desustraitzea, estigmatizazioa, gaiztakeriarako kutsadura, etab.) ez zutelako zigortuaren etorkizuneko jarreran modu positiboan eragiten.

Hori dela eta, 1995eko Zigor Kodeak sei hilabetetik beherako presondegiko zigorrak kendu ditu. Egia da, hala ere, legelariak zigorraren iraupena luzatzeko prozedura eztabaidagarriaren eta zorrotzaren alde egin duela (esaterako ebasketa delitua zigortzen zen hilabetetik 6 hilabetera bitarteko presondegiko zigorrarekin eta orain, ordea, 6tik 18 hilabete arteko zigorrarekin), baina beste kasu batzuetan zigor horiek beste batzuen bitartez ordezkatu dira, batez ere asteburuko atzipenen bitartez.

Zigor honek ere askatasuna kentzen du; edozein modutan ere, betetzeko modu ez jarraiak (bi egun asteko) kartzelaldiaren eraginik kaltegarrienak saihestu nahi ditu; izan ere, ez die hainbeste eragiten zigorra jarri zaion pertsonaren gizarte eta lan harremanei. Zigor Kodearen 37.2. artikuluaren arabera, asteburuko atzipenak atxilotuentzako udal biltegietan bete daitezke; horrela bada, zigor hau gauzatzeak erantzukizun berriak sortzen dizkie toki administrazioei.

Urteroko aurreko txostenetan, Arartekok nabarmendu nahi izan ditu helburuak betetzeko atxiloketa zentro horiek dituzten gabeziak eta akatsak; gabezia horien ondorioz, sarritan, ezin izaten da asteburuko atzipena burutu. Herri defendatzaileak *Situación penitenciaria y Depósitos Municipales de Detenidos (1988-1996)* izeneko txostenean antzeko ondoriora heltzen zen Euskal Autonomia Erkidegoan bisitaturiko ziegei zegokienez.

Horrela bada, EAEko epaitegiek ezarritako asteburuko atzipenak espetxeetan burutu behar izaten dira eta bertan ezin dira eskaini legeak ezarritako baldintzak; izan ere, zentro horiek gainezkoa egoteaz gain, ez dute baliabide egokirik, ez eta gela aproposik ere.

Asteburuko atzipenak egiteko arazoari garrantzirik batera kendu gabe, ZK berrian sartutako zigorrik berriena -eta ziur aski gizarteratzeko aukera gehien ematen duena- praktikan jartzeak dakartzan zailtasunei lotuko gatzaizkie. Zigor berri hori, bada, komunitatearen onurarako lanen zigorra dugu (KOL).

Zigortzeko neurri hau (Europako hainbat herrialdetan arrakasta handiz burutu dena azken hogei urteotan) eskubideak kentzeko zigorra da eta Zigor Kodearen 49. artikuluaren arabera ezin izango da ezarri zigortua ados ez badago; horrela, zehapen horren ondorioz, zigortua erabilera publikoko hainbat jardueratan laguntzera behartuta dago ezer kobratu gabe. Komunitatearen onurarako lanaren burutzapena arautzen duen 690/96 Errege Dekretuak ondokoa argitu eta zehazten du: *"jarduera horiek gizarte interesa eta heziketako balioa izan beharko dituzte, zigortuak kalteturiko komunitateari ekarpena egin diezaion, interes ekonomikoak lortzeko asmorik gabe"*.

Legezko arautegiaren arabera, aipatutako zigorraren ezaugarri nagusiak modu honetara laburbildu daitezke:

a) Lanaldi bakoitzak gehienez ere zortzi orduko iraupena izango du eta gutxienez lau ordukoa. Dena dela, lanaldi hori zatitzea baimendu ahal izango da zigorra betetzeko malgutasun printzipioaren arabera; izan ere, neurri hau zigortuaren ohiko jarduerekin bateratzera zuzenduta dago.

b) Espetxe administrazioak KOLak erraztuko ditu eta horretarako beste administrazioekin beharrezko hitzarmenak ezarri ahal izango ditu, bai eta gizarte erabilerako jarduerak garatzen dituzten erakunde publiko zein pribatuekin ere.

c) Edozein kasutan ere, KOLaren zigorrak, bai edukia bai betetzeko moduari dagokionez, zigortuaren duintasuna errespetatuko du. Horrela, zerbitzuen prestazioa ez da ordainduko, baina garraio gastuak eta janarikoak konpentsatuko dira eta zigortuak espetxe legeriak gizarte segurantzaren inguruan ezarritako babesa izango du.

KOLaren gainean zabaldutako abantailak gorabehera (batez ere askatasuna kentzen duen zigorrarekin konparatzean) zigor lege berriak ez du berori ezartzeko apustu argirik egin. Izan ere, delituek ez dakarte zehapen hau zigor ondorio modura; beraz, zigor hau soilik ezar daiteke legeak zehaztutako beste zigor baten ordez. Zigor Kodearen 88.2. artikuluak ezartzen duenaren arabera, asteburuko atzipenak ordeztu ahal izango dituzte komunitatearen onurarako lanez; horrela bada, ordezteko araua izango da bi lanaldi asteburuko atzipen bakoitzeko. KOLaren bitartez ere bete ahal izango da isunaren zigorra ez betetzearen ondorioz sortzen den erantzukizun subsidiarioa. Hau da, ez ordaindutako isunen bi kuotako, aipatutako lanak betetzeko lanaldi bat egin daiteke (Zigor Kodearen 53. artikulua).

99ko uztailaren 7ko bilkuran onetsitako txostenean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ondoko hau nabarmentzen zuen: *"isunaz edo asteburuko atzipenez zigortutako delituak ez dira ez asko ez eta ohikoenak ere (pentsatu behar da jabetzaren kontrako delituak, esate baterako ebasketa edo indarrezko lapurreta presondegiaz zigortzen dira)"*; beraz, KOLaren zigorra aplikatzeko aukera oso urriak zirelako ondoriora ailegatzen zen. Horrela bada, kontseilua bat dator herri defendatzaileak egindako salaketarekin, betiere autonomia erkidego gehienetan aztertutako zigorra praktikan jartzeko beharrezko azpiegitura eta baliabide faltaren inguruan.

Aplikatzeko zailtasun horiei organo honek gehitzen die Zigor Kode berriaren zigor neurrien zorroztasunari egindako kritika; izan ere ZKak larritasun txikiko delituak askatasuna kentzeko zehapenekin zigortzeaz gainera, zehapen alternatiboetarako iraupen handia ezarri du. Horrela bada, erkatutako zuzenbideari jarraituz, KOLetarako gehienez ere 240 ordu ezarri arren, legelariak 384 ordu kopurua onartzen du. Desberdintasuna, hala ere, ondokoa da: beste herrialde batzuetan gehienezko kopuru hori larritasun ertaineko edo handiko delituetan baino ez da aplikatzen; hemen, aldiz, zigor hori larritasun txikiko delituei egokitu ohi zaie.

Amaitzeko, hortaz, esan beharra dago legeak ez duela uzten zigor eredu berria oso modu zabalean erabiltzen; guztiarekin ere, zigor alternatibo hauen ezarpenetik aterako den esperientziak zehaztuko du horien

etorkizuneko garapena. Ildo honi jarraituz, gizarte erantzuna erabakigarria izango da eta bereziki aipatutako zigorra betetzeko zereginak, zerbitzuak edo lanpostu zehatzak eskain ditzaketen administrazio edo erakundeen konpromisoa.

## 2. KOL zigorraren aplikazioaren gaurko egoera

Komunitatean ezarritako zigor eta neurriei buruzko europar arauek, Europako Kontseiluak R (92) 16 zenbakidun Gomendioan onetsiek, ezinbestekotzat jotzen dute gizarte erakundeek eta instituzioek zigor alternatiboak, eta bereziki KOLak, abian ipintzean parte hartzea. Alabaina, gure inguruko egoera bestelakoa da.

Lortutako informazioetan oinarrituta, bai Administraziotik –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila–, bai epaileen eskuetatik, Arartekok honakoa ondorioztatu du: EAEn askatasun-gabetze zigorren ordez ez da ipintzen ari komunitatearen onurarako lanen zigorra. Basauriko Udalaren esku-hartzearen bidez burututako kasu bakar bat salbu, euskal gizarteak ez du komunitateari zerbitzu bat emateko aukerarik kartzelan ez sartzeko. Datu hori gizarte zerbitzuek Euskal Herrian, orokorrean, izandako prestazio mailarekin aurrez aurre dago.

Salatutako gabeziaren parean, agerian utzi behar da Justizia Sailak urteak daramatzala komunitatearen onurarako zerbitzuen neurriaren burutzapena kudeatzen, hala ezarri baitzuten adingabekoen epaitegiek urratzaile nerabeentzat. Neurri hori delitua egiten duten 16 urtetik gorako pertsonentzat ZKak ezartzen duen zigorra bezalakoa da funtsean.

Lege-urratzaile adingabekoekin esku-hartzea Arartekoren txostenean komunitatearen onurarako zerbitzuen neurriaren aplikazioari buruzko 1996 eta 1997ko datuak ematen ziren. Beste batzuen artean, honakoa bereizi zen: neurriaren edukian lortutako dibertsitate maila eskasa izan arren, hori aplikatzen zen maiztasuna kontuan hartzekoa zen (neurri guztien %16tik hurbil), egitasmoan parte hartu zuten 20 entitate publiko eta pribatu baino gehiago kontatu baitziren. Eta joera gorakoa da nonbait: 1999ko urtarrilaren 1etik urriaren 15a arte EAEan komunitatearentzako zerbitzuak emateko 55 epai-neurri ezarri ziren, horien arteko 18 neskei eta gainerakoak mutilei. 33 erakundek eskaini dituzte beren baliabideak (12 publikok eta 21 pribatuk) eta horien artean hezkuntza zentroak, jolastegiak, gizarte zerbitzuak, irabazi asmorik gabeko gizarte mailako erakundeak, bibliotekak, aisialdi zentroak, etab. daude.

KOLak burutzean administrazioaren esku-hartze mailan ikusitako desberdintasunak, lege-urratzaile adingabeko eta helduei dagokionez, honako honetan oinarri daitezke: zigor arloan EAEk duen eskumena osatzen duten funtzioen transferentzia eman ez izana. Arartekok sarritan adierazi du komenigarria dela Eusko Jaurlaritzak funtzio horiek bere gain hartzea, beraz ez dira hemen aipatu behar horrekin lotutako arrazoiak (Kartzelen egoera Euskal Herrian txostena ikus daiteke). Baina hori alde batera utzita, asmoa ez da euskal administrazioek zigorren burutzapen arloan egin dezakeen edozein parte-hartze aldez aurretik transferentziak ematearen menpe egotea. Horrela jardutean EAEan bizi direnei askatasun-gabetze zigorren ordez zigor arinago bat betetzeko aukera kentzen ari zaie.

Estatu espainiarrean egoera oso bestelakoa ez bada ere, egindako bidea luzeagoa izan da. Bereiztekoa da, besteak beste, Lan eta Kartzela Prestazioen Erakunde Autonomiadunak –Barne Ministerioaren menpe dagoenak– eta Udalerri eta Probintzien Espainiar Federazioak sinatutako lankidetza hitzarmena. Bide horretatik 228 udal biltzea lortu da, eta horiek 1.768 postu eskaini dituzte KOL zigorrak betetzeko. Beste 57 postu bi autonomia erkidegotako gobernuekin zuzenean hitzartu dira, eta 3 gehiago elkarte pribatu batekin.

Katalunia da, ezaguna denez, zigor eta kartzela arloan burutzapenak kudeatzen dituen autonomia erkidego bakarra, eta bertan askatasun-gabetze zigorrak ez betetzeko neurri alternatiboen egitasmo berezi bat dago. KOLak betetzeari dagokionez, 1997an 77 burutzapen eskaera hartu dira, eta 1998an 184. Zigorrak betetzen diren postuak, batetik, toki administrazioen menpekoak dira –Associació Catalana de Municipis i Comarques eta Federació de Municipis de Catalunya direlakoekin sinatu dira akordioak–, eta bestetik irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen menpekoak. Horietako batzuekin lankidetza hitzarmen egonkorrak daude neurri alternatiboen egitasmo desberdinak garatzeko; alabaina, kasu zehatz baterako egokiak diren entitateekin ere egiten dira hitzarmenak, pertsonaren eta/edo egindako lege-haustearen izaeraren arabera.

Kataluniako Generalitateko Kartzela Zigor Alternatiboen eta Gazteentzako Justiziaren Zuzendaritza Orokorrak gizarte entitate horien esku-hartzeak duen garrantzia azpimarratu du, eta zehaztu du zigorra betetzean parte hartzeak ez duela esan nahi zigorra kontrolatzen duenik, baizik eta espazioa, egitekoa eta zigortutako pertsona emandako lanean hastea erraztu baino ez duela egin. Ildo horretan, ezinbestekoa da entitate horiek burutzapenaren erantzukizuna duen erakundearen laguntza orokorra izatea, baita laguntza zehatzagoa ere, esku-hartzearen profesionalak aire zabalean zaintzea alegia.

## 3. KOL zigorra aplikatzea errazten duten neurriak artikulatzeko premia

Europar Kontseiluaren R (92) 16 zenbakidun Gomendioak, kartzela baldintzei eta ordezko zigorrei buruzkoak, kapitulu batean zigor horien burutzapenean komunitatearen parte-hartze beharrezkoa araupetzen du, eta helburu horrekin honakoa ezartzen du: "komunitatean aplikatutako zigor eta neurrien izaera eta edukiari buruzko argibide egokiak zabaldu behar dira (...), horrela gizarteak (...) eta horiek burutzean eragindako erakunde eta zerbitzu publiko eta pribatuek horien funtsa ulertuko dute eta delitu-jokabideei aurre egiteko erantzun egoki moduan hartuko dituzte" (44. araua). Arartekoren ustetan, gure herrian orain arte ez da ondo burutu iritzi publikoari eman beharreko informazio lana: gizarteak ez ditu sumatzen askatasun-gabetzerik ez duten zigorrak betetzeak dituen abantailak eta, horrexegatik, eskudun administrazioei ez die horren ezarpena eskatzen.

Alabaina, eta arau europarren adierazpidea hartuta, "inoiz ez da gehiegi azpimarratuko komunitatean aplikatutako zigor eta neurriek (...) benetako erabilgarritasuna dutela, bai urratzailearentzat bai komunitatearentzat" (Hitzaurrea).

Izan ere, prebentzio indibidualaren ikuspuntutik –hau da, zigortutako pertsonarengan duen eraginaren ikuspuntutik–, KOL zigorrak kartzela zigorrak baino birgizarteratze ahalmen askoz handiagoa agertu du, urratzaileak gizartearekiko dituen erantzukizunak onartzea errazten baitu. Gizartean integratuta jarraitzean, delitua egin duen pertsonak bere ekintzen ondorioak ulertzeko eta horiek eta egindako kalteen eragina baloratzeko aukera gehiago ditu.

Bestalde, zigortutakoak bere ahaleginak gizartearentzat erabilgarria den jarduera batean ipintzean, komunitateari eragindako kaltea sinbolikoki konpontzeaz gain, urratzailearen beraren autoestiman eragin mesedegarria du eta gizarte bizitzan integratzea errazten du.

Era berean, zigorrik gogorrenek etorkizuneko delituak prebenitzeko eraginkorragoak direlako iritziaren aldean (iritzi hori ezin izan da esperientzian egiaztatu), frogatzen da askatasuna kentzen ez duten neurriek *"gizarteari babes handiago eman diezaioketela epe luzera"* (arau europarrak, sarrera). Hari honi jarraituz, KOLaren zehapenak erantzukizunaren printzipioa indartzen du; izan ere, kolektiboaren eta beraren arauen aurrean urratzailearen beraren erantzukizunak badakar gizartearen erantzukizuna dagoela onartzea; horrela, gizartea behartuta dago birgizarteratzeko benetako aukerak ematera. Erakunde publikoen eta KOLeko zigorra betetzeko gizarte jarduerak burutzen dituzten organismoen arteko lankidetzari esker lortzen da komunitateak bere barruan sortutako gatazkak konpontzeko inplikazio aktiboa izatea. Aldi berean, toki erakundeen partaidetza artikulatzen da, zigortutako pertsonak birgizarteratzeko; izan ere, xede hori konstituzioaren 25.2. artikuluan ezarrita dago eta horrela jasotzen da Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legearen 25.k) artikuluan.

Azterturiko zigorraren beste abantaila bat da delinkuentziari eta horren egileei buruzko estereotipoen eragin txarra ahultzea eta, hortaz, zigorraren beharrizanari buruzko sentimendu sozialak arrazionalizatzea.

KOLaren zigorra, jakina, gainerako zigor erantzun guztiak bezala, ez da panazea unibertsala. Hala ere, ageri-agerian egon arren ez dituela sortzen askatasuna kentzen duten zigorren moduko eragin negatiboak eta martxan jartzea errazagoa dela, metodo hau ere kritikatua izan da. KOLak betetzeak dakartzan antolakuntza arazoez gainera, zigortuek lanpostuak betetzeko arriskuaz hitz egin da, batez ere langabeziaren arazoa nabarmenagoa izaten denean. Zigor neurria hau ezarri den herrialdeetan sindikatuek eta langileen erakundeek horren kontra jo ez badute ere, beharrezkoa da KOLaren plazek lanposturik ez betetzea; azken batean, konplitu beharreko zereginek boluntario lanen antzekoak izan beharko lukete.

Beste eragozpen bat, teorikoagoa, baina eskubideak bermatzeko erakunde honen ikuspuntutik kezkagarria dena, zigor kontrola zabaltzeko arriskuari dagokio. Penagarria izango litzateke KOLaren zigorra presondegira ez joateko benetako alternatiba izatetik (espetxeratuen kopurua murriztuz) askatasunaren alternatiba izatera igarotzea, hau da, zigorren esku-hartzea handiagoa izatea askatasuna kendu behar ez luketen jarrerei dagokienez.

Edozein kasutan ere, argi eta garbi dago KOLaren zigorraren potentzialtasunak baldintza jakin batzuetan baino ezin direla garatu, hala nola beharrezko azpiegiturak sortuz eta beharrezko baliabideak, langileen zein materialen aldetik, jarriz. Alderantziz gertatuko balitz, zigor neurri honek porrot egingo luke eta, ondorioz, presondegia ezinbestekoa delako ideia indartuko litzateke, delitu arinen kasuan ere.

KOLaren zigorra aplikatzea ahalbideratu duten baldintzak artikulatzeko lehenengo erantzukizuna espetxe administrazioari badagokio ere, gainerako botere publikoek presondegiaren neurri alternatibo hau zabaldu eta sustatzeko lanean lagundu behar dute. Hori dela eta, Arartekok EAEko administrazio publikoei gomendatzen die gizartea sentsibilizatzeko lanean, ahal duten neurrian, lagundu eta zigorra betetzeko behar besteko plaza eskain ditzaten. Era berean, gomendagarria da administrazio horiek gizarte eremuan diharduten erakunde eta organismo pribatuak bultzatu eta laguntzea, betiere KOLak betetzeko lanean inplikatu eta laguntza eman dezaten.

# III. ERANSKINA

## ADMINISTRAZIOEN ONDARE ERANTZUKIZUNAREN EGINTZA EGIKARITZEKO ZENBAIT ARAZO (Herri Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)

Ondare erantzukizunaren institutua lege-araubideak herritarrei eskaintzen dien bermeetako bat da, herri zerbitzuen jardunbide ohikoak edo ezohikoak eragindako zeinahi ondare kalte medeatzeko.

Honako komunikazio honek helburu du administrazioaren aurreko erantzukizuna egikaritzeko gaitz edo disfuntzio batzuk aztertzea. Gaitz horiek guztiak Ararteko erakundeak atzeman ditu, eta agerrarazi nahi ditu zein arazori aurre egin behar dioten herritarrek egoera hauetan.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu zer-nolako arazoa dakarren herri zerbitzu baten jardunbidearen zioz eragindako kalteak konpondu behar izateak, zerbitzu hori zeharka egiten denean, hots, administrazioaren enpresa edo emakidadun batek egiten duenean.

Beste alde batetik, administrazioak erabili ohi duen bide bat agerian utzi dugu, esan nahi baita, erantzukizun erreklamazioak tramitatu eta ebaztea udalak erantzukizun zibileko poliza kontratatuturik dueneko aseguru-etxeari bidalita, aseguru-etxeak, erabiltzen dituen irizpideak erabiltzen dituela, kaltedunari erantzun diezaion eragindako kaltearen ordaina bere gain hartuko duen ala ez.

## 1. ENPRESA PRIBATUEI KONTRATATURIKO EDO ADMINISTRAZIOAREN EMAKIDADUNEK EGINDAKO HERRI ZERBITZUEN JARDUNBIDEAREN ZIOZ ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA

### 1.1. Arazoaren azalpena

Administrazioaren erantzukizun objektiboaren printzipioak, erantzukizun zibilaren araubideak ez bezala, ezaugarri du kaltearen eragileari errua eskatu ez edo arduragabekeriarik ez leporatzea.

Erantzukizuna handiagoa da herri zerbitzuak emateak denon interesaren alde egiten duelako, hau da herri zerbitzuek ez diete inolako nekerik sorrarazi behar herritarrei.

Alabaina, administrazio organoek ez dituzte beti herri zerbitzuak zuzenean ematen. Herri zerbitzuen kudeaketa zeharka ere egin daiteke administrazioaren emakidadunen bitartez edo zerbitzu zehatzak gauzatzeko kontratatu diren enpresen bitartez. Administrazioari ahalbidetzen zaion beste kudeaketa era horrek ez dio, ordea, erantzukizun mailarik apaltzen administrazioari, administrazioak berak bere gain hartu behar duen erantzukizunaren aldean.

Hala ere, herri zerbitzua ematen enpresa batek esku hartzen duenean, gertatu ohi da administrazioak zuzenean ez erantzutea erreklamazioari, eta ez du dagokion administrazio espedientea bideratzen. Balizko horietan, administrazioak kontratatuRiko enpresari helarazi ohi dio herritarrak egindako erreklamazioa, edota erreklamazio-egileari ohartarazten dio bertara joateko zuzenean, delako enpresa horrek eragindako kaltea aztertu eta bere gain har dezan.

Erreklamazioa behar bezala aurkezten bada, enpresak Kode Zibilaren 1902 artikuluak arautzen duen erruaren erantzukizuna hartuko du bere gain, eta erreklamazio-egileari eskatuko dio enpresak

arduragabekeriaz jardun duela froga dezan. Beste aukera, ohikoena, alegaturiko gertaeraren gaineko erantzukizunik duela ukatzea da, enpresaren probetxurako, eta kaltedunari eskaintzen dio jurisdikzio bidea, adostasunik izan ezean.

Aurrekoak direla eta, bi auzi garatu ditugu jarraian: lehenengoa, kontratari publikoen erantzukizunaren lege-araubidea zein den, eta, bigarrena, erantzukizuna egikaritzeko zein prozedura den bidezkoa.

## 1.2. Emakidadunek eta kontratari publikoek eragindako kalteen ziozko ondare erantzukizunaren lege-araubidea

Administrazioaren kontratariek edo emakidadunek eragindako gertakizunen ziozko erantzukizuna administrazioaren ondare erantzukizunaren institutuaren esparruaren baitan jorratu beharreko balizkoa da, Konstituzioak berak jasotzen duena.

Konstituzioaren testuak orokorrean jasotzen du, Espainiako Konstituzioaren 106.2 artikuluan, herri zerbitzuen jardunbideak sorrarazitako kalteengatiko ordaina jasotzeko eskubidea dutela herritarrek, zerbitzu horien prestazio era zeinahi dela. Halaber, azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Lege Araubide eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzkoak, zerbitzuen jardunbideak sorrarazitako kalteen gaineko erantzukizuna ezartzen du, zerbitzu horiek nork ematen dituen alde batera utzita.

Beraz, ondoriozta dezakegu eskubide hori ezin dela murriztu edo apaldu herri zerbitzuak emateko eraren ondorioz. Hala, bestela ulertuko balitz, bidezkotu gabeko trataera bereizia suertatuko litzateke, eta, hortaz, Konstituzioaren 14 artikuluak jasotzen duen berdintasun printzipioa urratu lezake, administrazioak betiere bermatu behar baitute herritarrentzako eskubideen eragingarritasuna, herri zerbitzuak zuzenean emanda nahiz zeharka emanda ere.

Beste auzi bat dugu aztertzea legeak nola uztartzen dituen herri zerbitzuaren titular den administrazioaren eta gauzatzeko ardura duen enpresaren arteko lege-loturak. Esan gabe doa lege esparru horrek ezin ekar dezakeela herritarren eskubideen maila apalagorik.

Derrigorrezko Desjabetzapenari buruzko 1956ko Legearen 121.2 artikuluak eta geroagoko azaroaren 13ko 13/1995 Legearen, Herri Administrazioen Kontratuei buruzkoaren, 98 artikuluak ere ezartzen dute emakidadunaren erantzukizun printzipioa, haren ardurapeko herri zerbitzua edo kudeatu beharreko herri lana gauzatu bitartean eragindako kalteen zioz.

Printzipio horrek *ex lege* adierazitako bi salbuespen ditu, eta horien arabera, administrazioari eskatu ahal izango zaio bi balizkotan: kaltea zerbitzuaren titular den administrazioak emandako agindu edo manu batetik eratortzen denean, eta kaltea administrazioak berak taxuturiko egitasmoak duen akats baten ondoriozkoa denean.

Balizko horiekin batera, badira beste gertaera batzuk erantzukizuna administrazioak bere gain hartu beharrekoak, gertaera horietan objektiboki egotz daitezkeen kalteak kontuan hartzen baitira. Multzo horretakoak dira herri zerbitzuaren jardunbide ohikoak eragiten dituen edo herri zerbitzuari datxezkion kalteak, enpresa pribatuari ezin lepora dakizkiokeenak, edo kontratuko betebehar eta betekizunak betetzen diren jagoteko administrazioaren beharra alde batera uzteagatik sortzen diren kalteak.

## 1.3. Herri zerbitzuak eragindako kalteen ziozko erantzukizuna eskatzeko egintza

Balizko askotan, medeatzeko eskubidea ez da sekula gauzatzen, jarraitu beharreko prozedura ez baita argia, erreklamazio-egileak erantzukizuna egikaritu ahal izateko duen egoera kontuan harturik.

30/1992 Legearen 142 artikuluak administrazio prozedura arrunta ezartzen du. Prozedura horren arabera, erreklamazioa administrazio organoari egin behar zaio, eta horrek, dagokion tramitazioa egin ondoren, bidezko den ala ez ebatziko du. Jakina denez, administrazio erabakiak administrazioarekiko auzibideari emango dio bide. Martxoaren 26ko 428/1993 Errege Dekretuak, administrazioen ondare erantzukizunaren prozedura zehazten duenak, prozedura horren aldiak arautzen ditu.

Erreklamatzeko moduak, nahiz eta arazorik sortu ez egindako kaltea administrazioari leporatzen zaionean, nahastea eragin du doktrinan, baita jurisprudentzian ere, biderik egokiena zein den ulertzeko orduan.

Horrela, martxoaren 26ko 428/1993 Errege Dekretuaren 1.3 artikuluak jasotzen du, kontratuak gauzatzen direnean, gainerakoei eragindako kalteen ziozko prozedura herri administrazioei ez besteri bideratuko zaiela, kaltea zuzeneko agindu batek edo taxuturiko egitasmoaren akats batek sorrarazi baldin badu. Bestelako balizkoetan, legeak dio Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeak ezartzen dituen arauak aplikatuko direla, eta, edozelan ere, kontratariari entzun behar zaiola.

Artikulu ilun horrek behar bezala ulertzeko ezin konta ahala zalantza agertzen ditu. Bada, ezin da ulertu nola jakin daitekeen, erreklamazioa egin lehen, kaltea administrazioaren edo enpresa pribatuaren egintzatik sortu ote den, edota, kaltea enpresari leporagarria izanik ere, ez du argitzen zein berariazko prozedurari jarraitu behar zaion.

Praktikan, arazo horiek guztiek ahalbidetu dute administrazio batzuk ahaleginak egitea erantzukizunaz libratzeko. Horretarako, alegatu ohi dute zerbitzua emateko enpresa batek esku-hartzeak ezinezko bihurtzen duela erantzukizunik izan ote den ebazteko espedientea tramitatzea.

Nolanahi ere den, ondare erantzukizunaren araubidearekin bateragarri den ulerkuntzarik egingo bada, gai hori ukitzen duten gainerako arauekin bat etorriz egin behar da, xedapen horrek duen lege-maila kontuan hartuta.

Ildo horretan, kontratari publikoek eragindako kalteen zioz, administrazio egintza bideratu ahal izateko, arloko legeriara jo beharko dugu, ezarritako erreklamazio prozedura argitzearren.

13/1995 Legearen III. tituluak kontratariaren eta administrazioaren arteko kontratazioari buruzko jarduerak arautzen ditu. Hala, administrazio kontratuak gauzatzeari dagokionez, 98 artikuluak jasotzen du kontratariak gainerakoen kalte-ordainak hartu behar dituela bere gain, kalteak eta galerak sorraraziz gero. Lehen esan dugun bezala, printzipio orokor honek bi salbuespen ditu: kalteak administrazioaren zuzeneko agindu batetik edo hark taxuturiko egitasmoak duen akats batetik eratortzen direneko balizkoak. Bi balizko horietan, medeaketa kontratatzen duen organoari dagokio.

Bi balizko horietako zeinek ukitzen gaituen argitzeko, kontratuei buruzko legeriak aurretiazko errekerimendu bat ezarri du, eta 98 artikuluaren hirugarren atalean ageri da. Artikulu horren arabera, “*gainerakoek kontratazio organoa errekeritu **ahal** izango dute aldez aurretik, organo horrek (...) kalteen erantzukizuna kontratugileetako zeini dagokion azal dezan*”.

Errekerimendu hori herritarren baliabidea edo aukera da, administrazioak horren gaineko ebazpena eman dezan behartzeko, eta, doktrinari jarraiki, ebazpen horrek herritarraren erreklamazioaren aurretiko tramitatze-egintzaren izaera du, erantzulea nor den behin zehaztu eta gero.

Hori dela eta, organo kontratugileak ebazpena emandakoan, 98.4 artikuluak dio kalteak pairatu dituzten gainerakoek administrazio erreklamazioari ekingo diotela, eta gertaera bakoitzeko berariazko prozedura azaltzen du. Horri loturik, honako hau dio: “*edonola ere, gainerakoen erreklamazioa balizko bakoitzari aplika dakiokeen legeriak arautzen duen prozeduraren arabera egingo da*”.

Kasu horretan, kaltea administrazioari egozterik baldin badago, zuzeneko agindua dela edo egitasmoak duen akatsa dela, kontratariaren egitekoa jagoteko betebeharra alde batera utzi, edo herri zerbitzuaren egozte objektibotik eratorritako kaltea bada, bideratu beharreko prozedura ondare erantzukizunaren araudian jasota dago, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan.

Hala ere, gainerako erreklamazioei dagokienez, kaltea kontratariari egozten zaionez gero, administrazioak prozedurari jarraitu behar dio -DDLren 123 artikuluak jasotzen dituen emakidaturiko zerbitzuek eragindako kalteak direnean. Artikulu horrek ondokoa ezartzen du:

“*Emakidaturiko zerbitzuak direnean, erreklamazioa emakida eman zuen administrazioari helaraziko zaio, (...) eta horrek ebatziko du nork ordaindu behar duen, 121 artikuluaren 2 paragrafoak dioenarekin bat etorriz. Ebazpen horrek administrazioarekiko auzibideari emango dio bide, eta norbanakoak nahiz emakidadunak erabili ahal izango dute, hala badagokio*”.

Beste balizkoan, herri lanen kontratariak direnean, Estatuaren Kontratazio Araudi Orokorra onartzen duen azaroaren 25eko 3.410/1975 Dekretuaren 134 artikuluak antzeko prozedura ezartzen du:

*“Edozelan ere, gainerakoen erreklamazioak urtebeteko epean aurkeztuko dira kontratazio organoaren aurrean, eta horrek emandako erabakiaren bidez ebatziko du, kontratariari entzun ondoren, erreklamazioa bidezkoa den, zenbateko eta erantzulea nor den. Erabaki horren aurka, administrazioarekiko auzibide errekurtsoa jarri ahal izango da.”*

Aurreko guztia dela eta, ondorioztatu behar dugu, erreklamazioa administrazioaren aurrean aurkezturik, administrazioak beren beregi tramitatu behar duela, kontratariari entzun ondoren, herritarrak aurkezturiko erreklamazioa, eta kalte eta herri zerbitzuaren arteko kausalitate-loturarik ote dagoen ebatzi, bai eta kaltea nori egotzi behar zaion eta kaltearen zenbatekoa ere.

Halaber, erantzukizuna kontratariari dagokiola ebazten badu, administrazioak beharrezko eraginbide guztiak bermatu behar ditu kalteen ordainketa egin dadin.

Enpresak erantzungo ez balu, kontratua egin duen administrazioak, kontrataturiko herri zerbitzuaren titularra den aldetik, kontratariaren haustea dela kausa esku hartu behar du, eta ordain dezala eskatu behar dio edo sorospidetasunez erantzun beharko du, edo, azkenik, administrazio kontratua amaiarazi beharko du.

Lehen esan dugun moduan, sorrarazitako kalteengatiko ordaina kontratariak ez ordaintzea - 13/1995 Legearen 98, 143, 162 artikuluak- arrazoi nahikoa da kontratua amaiarazteko -lege horren 112. g) artikulua-.

Gai honetaz arduratu den doktrina zientifikoaren alderdi zabal batek jaso du administrazioak bitartekari jardun edo aurkezturiko erreklamazioa ebazteko beharra, besteak beste, L. Martín Rebollo, E. García de Enterría eta M. Belandiez Rojok.

Era berean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia etengabeak eta oparoak adierazi du, 1989ko maiatzaren 9ko Epaia (RJ 1989\4487) eman zenetik aurrera, administrazioak zuzeneko erantzukizuna duela, kontratariaren aurreko atzerabideari kalterik egin gabe. Ildo horretan, Auzitegi Gorenaren 1998ko martxoaren 31ko Epaia (RJ 1998\2904) eta 1998ko urriaren 20ko Epaia (RJ 1998\8842) hona. Orain dela gutxiko epai horiek beren beregi adierazten dute gertaera horietan *"Administrazioak ez duela emakidadunak eragindako kalteei jaramonik ez egitea, kalte horiengatiko zuzeneko erantzulea baita"*.

## 2. ASEGURU KONPAINIAK ETA ADMINISTRAZIOAREN ONDARE ERANTZUKIZUNA

### 2.1. Arazoaren azalpena

Hasieran adierazi dugun legez, erakunde honek beste arazo bat atzeman du ondare erantzukizunaren ziozko erreklamazioen tramitazioa dela eta. Bada, aseguru-sozietateek esku-hartzea administrazioen erantzukizun zibila estaltzeko.

Balizko kopuru handi batean, egiaztatu dugu erantzukizunaren erreklamazio tramitatzen dela erreklamazio-egilearen idazkia administrazioaren jarduerak eragindako kalteak asegurratu dituen konpainiari bidalita. Aseguru-etxeak bere irizpideen arabera eta kontrataturiko polizaren arabera (frankiziak, aurreikusi ez eta kontuan hartzen ez diren gertakizunak) ebatziko du eskaera.

Horrela, aseguru-etxearen txostenean oinarriturik, udalak erreklamazioa ebazten du askotan, eta alde batera uzten ditu administrazio prozedurak eskatu egiten dituen eginkizunak.

Arazoa sortu ohi da aseguru-etxeak ez dionean errurik edo arduragabekeriarik antzematen administrazioaren jarduerari, kaltea eragin duen gertakizuna kontratatu ez denean, edo konponketa erabatekoa ez denean, kontratuko mugapenen baten mendekoa baita.

2.2. Aseguraturiko arriskuaren eta ondare erantzukizunaren izaera ezberdinak

Herritarrek herri zerbitzuen jardunbideak eragindako kaltea pairatzen badute ondarean, zerbitzu hori emateko ardura duen administrazioaren erantzukizun objektiboaren printzipioak artezten du kaltearen konponketa; esan nahi da, administrazioa norbanakoek ondare eta eskubideetan pairaturiko kalteen guztizko erantzulea dela, betiere kaltearen eta herri zerbitzuen jardunbide ohiko edo ezohikoaren arteko kausa-loturarik baldin badago.

Arartekok bereizi ditu herri botereen betebeharra, EBren 106 artikuluak jasotzen duena, eta aseguru-polizaren kontratua, hain zuzen ere, erantzukizun zibila estaltzearren, administrazioek aseguru-konpainia pribatuekin kontratatzen dutena.

Aseguruen araudiari jarraiki, erantzukizun zibila estaltzen duten aseguru-kontratu pribatuak besterik ezin dira izenpetu; ez da, beraz, kontratuan harpideturiko erantzukizuna administrazio erantzukizunera iritsi daitekeela arautzen duen inolako lege xedapenik. Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak bateraezintasun hori nabarmendu zuen 1996ko ekainaren 26ko Erabakian. Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen arabera, bateraezintasun horren funtsa 30/1992 Legeak ezartzen duen erantzukizuna ezin bere gain hartzean datza. Nolanahi ere, erantzukizun zibilak eta ondare erantzukizunak dituzten izaera eta estaldura ezberdinak agerian uzten ditu.

Hori dela eta, zehaztu behar dugu aseguru-konpainiaren irizpidea soilik baliagarria dela administrazioaren ardurapeko balizko kalte baten arriskua konpainiak bere gain har dezakeen ala ez, alde biak lotesten dituen kontratu juridiko-pribatuaren arabera. Inguruabar horrek ezin du libratu, inola ere, lege araubideak administrazioei ezartzen dien erantzukizun objektibotik.

Horren ondorioz, administrazioak hartu behar du bere gain erantzukizun hori, aseguru-etxearen estaldurarik duen ala ez duen kontuan hartzeke. Halaber, kalte-ordainak erabateko konponketa izan behar du, eta ez du zenbatekoaren gaineko mugarik izan.

Beste alde batetik, prozedurari dagokionez, administrazioak martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak arautukoari men egin behar dio, eta sekula ez bazter utzi erreklamazioa aseguru-etxeari bidalita.

Administrazioak berak, propio dituen zerbitzuen txostenaren arabera, eta interesdunek aurkezturiko alegazio eta frogetan oinarriturik, herri zerbitzuaren jardunbidearen eta erreklamazio-egilearen benetako kaltearen artean kausa-loturarik ote dagoen ebatzi behar du.

Hargatik, ondare erantzukizuna onetsi edo gaitzestea aseguru-konpainiaren irizpideetan oinarriturik, lege araubidez kanpokoa da.

## 3. ONDORIOAK

* Administrazioaren erantzukizuna Zuzenbideko Estatuaren giltzarrietako bat dugu, administratuen eskubideak bermatu behar dituelako herri zerbitzuen esku-hartzearen aurrean.

Litekeena da datozen urteotan eskubide hori gero eta gehiagotan erabiltzea, herritarrek gero eta argiago baitituzte administratu gisa dituzten eskubideak, edo, beharbada, herri zerbitzu horiek emateko kalitate eta segurtasun handiagoa eskatuko dutelako.

Aurrekoa dela eta, herri botereek aparteko begirunea agertu beharko dute erreklamazioak bideratu eta tramitatzeko prozedura bermeetan, eta guztiz errespetatu beharko dituzte gai horretan ezarritako arauak, eta ezin izango dute, inola ere, prozedura bazter utzi haiei dagokien erantzukizunetik salbuestearren.

Halaber, administrazioak jabetu behar du berak eragiten dituen kalteei erantzuteko betebeharra bere gain hartu eta horretaz kargutuko dela, betebehar hori denon interesa ukitzen baitu; hortaz, administrazioaren jarduerak ez du bilatu behar herri botereen uste txarreko ondare interesa, araubidearen xedapenen aurkakoa da eta.

Hala ere, administrazioa ezin da norbanakoei jazoriko edozein gertakizunen aurreko aseguratzaile unibertsaltzat jo, gertakizun hori herri zerbitzu bat emateagatik jazotakoa dela zeharka egiazta badaiteke ere.

* Administrazioek ezin dute herri zerbitzuen zeharkako kudeaketa erabili herri zerbitzuen jardunbideak eragindako kalteen ziozko erantzukizun objektiboari uko egiteko.

Administrazioak, kontratatzen den zerbitzuaren titular den aldetik, erantzukizunaren gaineko administrazio espedientea tramitatuko dela bermatu behar du, eta arauzko prozedurari atxiki behar zaio. Halaber, erantzukizunik ote dagoen ebatziko du, baita kaltea nori egotz dakiokeen eta kalte-ordainaren zenbatekoa ere.

Halaber, administrazioak bere esku dituen eskumenak erabili behar ditu, emakidadun edo kontratariari dagokionez, balizko kalte-ordainari eutsiko zaiola bermatzeko, eta enpresa errekerituko du ordain dezan, edo, hala badagokio, sorospidetasunez erantzungo du norbanakoen aurrean.

* Aseguru-konpainien irizpidea baliagarria da erantzukizun zibila zehazteko, arau zibilen eta sinaturiko aseguru-kontratuaren arabera. Ez du balio, ordea, administrazioak duen erantzukizun objektiboa arintzeko.

Administrazioek administrazio espediente baten bitartez zehaztu behar dute haien erantzukizuna, sekula ez administrazioak kontrataturiko aseguru-konpainia baten txostenaren bitartez.

# IV. ERANSKINA

## EDIKTU JAKINARAZPENA ZIGOR ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOAREN BARRUAN ETA BABES JUDIZIAL ERAGINKORRA IZATEKO OINARRIZKO ESKUBIDEA, BETIERE 4/1999 LEGEAK ALDARAZITAKO 30/1992 LEGEAREN 59. ARTIKULUAREN ALDARAZPENARI DAGOKIONEZ (Herri Defendatzaileen Koordinazioko XV. Jardunaldiak)

Ararteko erakundeak ahalegin handiak egin ditu dialektika mailan, zigor ahalmena erabiltzeari begira emandako administrazio egintzei buruzko ediktu-jakinarazpenak aztertzeko. Behin eta berriro egiaztatu denez, herri administrazioek erabiltzen dituzten jardunbideek hauxe eragin dute: ediktu-jakinarazpena zigor zuzenbide administratiboaren esparruan errekurtsoak sortarazten dituen arazoa dela, eta, horrexegatik, gomendio orokorrak formulatzea behar ditu, zertarako eta erakunde honek egitura aldetiko irregulartasuntzat jotzen dituenak zuzentzeko. Gomendio orokor horiek 1992 eta 1994ko ekitaldietako urteko txostenetan bildu ziren.

Administrazio jardunbidean egin diren aldarazpenei kalterik egin gabe, herritarrek dituzten eskubideen errespetuen mailak hobe zitzaketen aldarazpenei hain zuzen, hauxe onartu behar da: urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak, Herri Administrazioetako eta Administrazio Jardunbide Erkidearen Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluaren edukietan eragin dituen aldaketak legearen helmena zalantzan jartzeko beharra dagoela planteatzen du, KE-ren 24.2 artikuluan aitortzen diren eskubideen erabilerari dagokionez. Aipatu dugun aldarazpena haren 2. atalean jasotako bigarren paragrafoan agertzen da:

> "*Jakinarazpena interesatuaren etxean egiten bada, eta berau ez badago etxean jakinarazpena emango den unean, etxean dagoen eta nortasuna egiaztatzen duen edozeinek jaso dezake jakinarazpena. Inor ez badago jakinarazpenaren kargu egiteko, hala jasoko da espedientean jakinarazpena egin nahi zen eguna eta ordua aipatuta.* ***Ahalegin bakarra egingo da beste ordu baten ondorengo hiru egunen barruan***."

Administrazio egintzen jakinarazpenak zigor zuzenbide administratiboaren esparru hertsian ekar ditzakeen kasu ugariek hauxe eragin dute: era horretako jakinarazpenei edukia emateko, alde bakarra aztertzera mugatu garela. Izan ere, alde hori hedatuagoa egingo dela uste dugunez, dudarik gabe eztabaida ugari sortaraziko du. Hori dela-eta, arau aurreikuspen jakin batzuetan jarriko dugu ardatza, aipatu den prozedura arauaren 59. artikuluak ediktu-jakinarazpena ahalbidetzen badu "*jakinarazpena egin nahi eta gauzatzen ez denean*".

30/1994 Legearen 59.4. artikuluak ahalmena ematen du jakinarazpena egiteko, interesatuaren azken helbidea Udaletxeko iragarki-oholtzan jarriko den iragarkiaren bidez, edo Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Probintziako Aldizkari Ofizialeko iragarki baten bitartez, jakinarazi beharreko egintza zein administrazioak egiten duenaren arabera eta jakinarazpena egin zuen erakundearen lurralde esparruaren arabera, besteak beste, baldin eta jakinarazpen egin nahi eta ezin bazaio interesatuari helarazi. Ukaezina da administrazio egintzak jakinarazteko ediktuak erabiltzea noiz den egokia jakin ahal izateko, arau honen bigarren atalak dakarrena hartu behar dela kontuan, lehenago transkribatu dena hain zuzen.

Herri administrazioaren idazkiak norbanakoari bi aldiz jakinarazteko ahalegina egitea ez da kontu berria, zeren eta posta zerbitzuen araudian jasotzen baitzen. Beraz, administrazio jardunbidearen arauen esparruko prozedura berri honek, gure ustez, jakinarazpen bidez gauzatu behar du kasu guztietan, edozein bide erabilita: postaz, administrazioaren jakinarazleen bidez, mezularitza enpresen bidez, e.a.

Zenbait kasutan egiaztatu ahal izan denez, herri administrazioek (zigor ahalmena erabiltzailearekin zerikusia duten jardunbideetan ere bai) oso-osorik hauxe aplikatzea ezarri dute 30/1992 Legearen 59. artikuluaren 2. eta 4. atalek: norbanakoari bigarren jakinarazpenak porrot eginez gero, egintza egokiaren jakinarazpena ediktu bidez egingo da tramite gehiago izan gabe. Gure ustez, hala jokatzeak urratu egin ditzake babes judizial eraginkorra eta jardunbidearen bermeak izateko eskubideak.

30/1992 Legearen 135. artikuluak zehazten du zigor jardunbideek honako eskubideak bermatuko dituztela ustezko arduradunari begira: egozten zaizkion egintzak jakinaraztea, egintzok eragin ditzaketen arau-hausteak eta, hala denean, ezar dakizkiokeen zigorrak jakinaraztea, baita instruktorea eta zigorra ezartzeko aginte aginpidedunak nortzuk diren eta ahalmen hori ematen duen araua zein den jakinarazteko ere; alegazioak egiteko eta antolamendu juridiko egokiek onartzen dituzten bestelako defentsa baliabideak erabiltzeko, baita arau horren 35. artikuluan, herritar gisa, aitortzen zaizkien eskubideak ere ezagutzeko.

Ildo horretan, bestalde, oso interesgarria da gogoratzea hemen Auzitegi Konstituzionalak, hasierako epaietan bertan, zigor zuzenbidea eragin duten printzipioak, ñabardurak ñabardura, zigor zuzenbide administratiboari aplikatu behar zaizkiola ulertu du, zeren eta biak daude Estatuaren zigor antolamenduaren barruan (1981ko ekainaren 8ko KAE). Hortaz, AE-ko 24.2. artikuluan ezarritako berme araubidea zorrozki zaindu behar da zigor jardunbide administratiboetan, antolamendu orokorra babesteko helburu duten jardunbideetan hain zuzen (KAE, 66/1984). Jurisprudentzia korronte honen edukia AK-k oraintsu emandako epai bat aipatuz laburbilduko dugu, urtarrilaren 3ko 3/1999 epaia hain zuzen. Hauxe dakar epai horrek:

> *"Auzitegi honek behin eta berriro aitortzen du bermeok (KA-ren 24.2. artikuluak dakartzan bermeak), printzipioz eta aldaketa egokiekin, zigor jardunbide administratiboari aplikatu behar zaizkiola, zeren eta jardunbide hori berau Estatuaren zigor antolamenduaren adierazpena baita* (...). *Horretarako, doktrina bat egin du Auzitegi honek pixkanaka-pixkanaka. Doktrina horrek KA-ren 24. artikuluaren edukitik datorren berme multzo batek zigor administrazioaren esparru administratiboan duen balioa hartzen du. Berme horietatik, KA-ren 24. artikuluan, 7/1998 epaian azaldu zen bezala, defentsa eskubidea komeni da azpimarratzea, defentsarik eza baztertzen duena* (...). *Ildo horretan, inplikatuak erabakia hartu baino lehen defentsarako aukera izateko eskatu dugu eta, beraz, Administrazioak jardunbide bat eraman dezala, non espedientea egin zaionak defentsarako egoki jotzen dituen froga egokiak ekartzeko eta proposatzeko aukera izango baitu* (...). *Hortaz, KA-ren 24.2. artikulua urratu egiten da, froga jakin bat ukatzea arrazoirik gabe alegia* (...)*, baita oinarrizko eskubideak urratuz lortzen diren frogak egiteko debekua ere* (...). *Era berean, akusazioak informazioa jasotzeko eskubideak ere aplikatu behar dira, baina egotzitako egintzak ez dira aldatuko inola ere* (...)*, eta errugabetzat hartua izateko eskubidea ere izango da* (...)*; eskubide horrek zigorra eragin duten egintzen frogen karga Administrazioaren bizkar izatea ekarriko du.*

Arau eta jurisprudentziaren markoaren aurrekari labur honek ondorio hau ateratzera bultzatzen gaitu: azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluaren 2. eta 4 atalak oso-osorik eta berehala aplikatzeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak ematen duenari dagokionez (hitzez hitz ulertua, hots, azaldutako ñabardurei erreparatu gabe) KA-ren 24. artikuluak aitortzen diren eskubideak urratu ditzake.

Egoera hauek ez dira salbuespenak. Gaurko bizimoduaren ondorioz, egunik zatirik handienean etxetik kanpora ematen du herritar askok eta, beraz, etxean ez da inor egoten herri administrazioek eman litzaketen jakinarazpenak jasotzeko. Hortik ondoriozta daitekeenez, herritar arduratsu bat ezin zigor daiteke erabaki baten jakinarazpen pertsonala bi aldiz egiten saiatu ondoren etxean inor egon ezik. Zigor jardunbidea dagoenaren berri ez badu, ezin izan du bere burua defendatu, egintza egokiaren ediktu-jakinarazpena egin baita. Iragarki egokia aldizkari ofizialean edo udal egokiaren iragarki-oholtzan noiz argitaratuko zain egoteko, argi dagoenez, ezin eska dakioke, legez, legezko eskubide eta interesen edozein titularri (KABE 63/1982 eta 117/1983).

Konstituzio jurisprudentziak ezarri du ezen, ediktura jo baino lehen, organo eskudunak, nola edo hala, hartzaileak jakinarazpen egokia jasoko duela ziurtatzen duten jakinarazpen mota guztiak erabiliko dituela, eta, beraz, defentsa eskubidea hobeto bermatuko direla (KABE 16/1987, 234/1988, 227/1994) eta, jakinarazpena egiteko posta zerbitzua komunikazioa bide gisa erabiltzen denean eta porrota gertatzen denean ere, ez dago jotzerik ediktura besterik gabe. Izan ere, sistema hori jakinarazpena jaso behar duenaren helbiderik ez dagoenean baino ezin erabil daiteke, edo bestela hartzailearen helbidearen berri ez dagoenean etxez aldatu delako, zeren eta ediktu bidezko jakinarazpena azken irtenbidetzat baino ez baita hartuko (KABE 38/1997, 140/1988, 9/1991, 41/1994, 51/1994 eta 227/1994). Hori dela-eta, posta zerbitzuek jakinarazpena itzultzen dutenean «ez dago» edo «ezezaguna» dela esanez, defentsarik eza ez izateko eskubideak urratuko du erakundeak, deiak egiteko arauen funtsezko ratioa bete ezik, hots, jakinarazpena egiatan jaso duela ziurtatu egin behar dela. Erakunde eskudunak ezin jo dezake ediktu-zitaziora zuzenean -interesatuak jakinarazpenaren

berri izateko aukera gutxi izaten du baliabide horren bidez-, hark dituen baliabide pertsonal guztiak agortu artean (KAE 227/1994). Oraintsu emandako epaian, azaroaren 28ko 219/1999 zk.koa, tesi horri eusten dio Konstituzio Auzitegiak hauxe baieztatzen duenean:

> "*Ediktu-dei motari dagokionez, hauxe baieztatu dugu: komunikaziorako azken bidea denez gero, hartzaileak jakinarazpen egokia berme gehiagoz jasoko duela bermatzen duten beste baliabide batzuk agortu egin behar direla, eta beste baliabide horiek erabiltzen saiatu izana era formalean frogatu behar da ere. Bestalde, hartzailea toki ezezagunean egoteari buruzko erabaki edo ebazpen judiziala hainbat egoeratan oinarritu behar da, eta egoera horien azterketak zitaziorako ohiko baliabide guztiak alferrikakoak izan direla frogatu behar du.*"

Konstituzioaren interpreteak emandako doktrina, jurisdikzio organoen jardueren ondorioz sortutako gaiei buru ari bada ere, administrazio jakinarazpenen arazoei aplikatu behar zaie, zigor ahalmenaren erabilerarekin lotutako egintzei dagokienez. Izan ere, babestu beharreko balio juridiko eraginkorraren defentsa eta babes eskubide bera da, eta eskubide hori urratu egin daiteke administrazio jardunbidearen ondorioz. Ildo horretan, berriz esan behar dugu KA-ren 24. artikuluan aipatzen diren bermeak zigor jardunbide administratiboari aplikatu behar zaizkiola, besteak beste, akusazioa jakinaren gainean egotea.

Defentsa eskubidea ez urratzeko konstituzio jurisprudentziak erakutsi duen kezka handia ikusita, interesatuaren helbidearen berri ez dagoenean ere, ondorio bakarra atera dezakegu jakinarazpen pertsonala bi aldiz egin eta porrota gertatzen denean eta etxean jakinarazpen jasotzeko inor ez dagoenean: zigor ahalmena erabiltzeko hartutako erabakiari buruzko ediktu-jakinarazpena egin baino lehen, jakinarazpen pertsonalaren baliabide guztiak agortu behar direla aurretik; behar diren beste aldiz saiatuko da administrazioa jakinarazpenak helarazteko, harik eta jakinarazpen pertsonalaren bideak eraginkortasunik ez duela ondorioztatu arte.

Egindako hausnarketa guztiak laburbilduz, hurrengo ondorio hau atera dugu: zigor zuzenbide administratiboaren esparruan, egintza baten jakinarazpen pertsonalak bi aldiz porrot egin ondoren -hartzailea etxean ez dagoelako edo/eta etxean inor ez dagoelako hura jasotzeko- ez litzateke posible izango berehala ediktuaren bidezko jakinarazpena erabiltzea; behar beste ahalegin egingo dira, harik eta jakinarazpen pertsonala ezin gauzatu daitekeela ondorioztatu artean. Hala jokatu ezik, ustezko arau-hauslearen eskubideak urra litezke.

# V. ERANSKINA

## ARARTEKO ERAKUNDEAK ATZERRITARREN ESKUBIDEAK BABESTU ETA SUSTATZEKO BETE BEHAR DUEN LANA (Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren V. Urteko Biltzarra)

Antolamendu juridikoak eginkizun garrantzitsua eratxikitzen dio Arartekoari. Eginkizun hori da, hain zuzen ere, herritarren oinarrizko eskubideak sustatu, babestu eta, behar denean, horiek berrezartzea. Zuzenbideari ikuspuntu materialetik helduta, Arartekoaren jarduna lurralde zehatz batera mugatuta dago, eta hori kontuan izan behar da eskubidedun subjektuak atzerritarrak direnean. Horrekin batera, gogoan izan behar da Arartekoaren kontrol-ekintzen eremuak barruan hartzen dituela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza), foru administrazioak (probintzietako gobernuak) eta toki administrazioak (udalak), baina Estatuaren Administrazioko organoen kontrola Herriaren Defendatzaileari dagokiola, eta organo horiek arautzen eta kudeatzen dute atzerritarren lege-erregimena.

Ardurak horrela banaturik egon arren, litekeena da Arartekoak, bere eskumenen eremuan, atzerritik datozen herritarren eskubideak babesten eta sustatzen jardutea. Izan ere, Arartekoaren kontrolaren pean dauden administrazioek badituzte arauak egiteko eta betearazteko eskumenak zenbait alorretan, eta gerta liteke eskumen horien zuzenbideko subjektuak atzerritarrak izatea. Hain zuzen ere, konstituzio-arauen multzoan, hau da, Espainiako Konstituzioak, Euskadiko Autonomia Estatutuak, horiek garatu eta betearazteko egin diren arauek eta Toki Araubideari buruzko arauek osatzen duten arau-multzo horretan ezarrita dagoenez, Arartekoak kontrolatzen dituen administrazioen eskumen-eremuak alor hauek hartzen ditu, besteak beste: polizia, etxebizitza, osasuna, gizarte laguntza, hezkuntza, adin txikikoak…

Arartekoa, bere kontrol-eginkizunetan ari dela, batzuetan oztopoak aurkitzen ditu, bere esku jartzen diren arazoen berezitasunen ondorioz. Oztopoak are larriagoak izaten dira zuzenbideko subjektuak atzerritarrak direnean, atzerritar gehienak arrazoi ekonomikoengatik euren herritik alde egindako etorkinak direlako, eta haietatik asko eta asko gure herrian arauz kanpoko egoeran aurkitzen direlako. Hori horrela izanda, egiaztaturik daukagunez, atzerritarrentzat ez da batere erraza zuzenbideko Estatuan herritarren eskubideak zaintzen eta botereak kontrolatzen dituzten berme-erakundeengana jotzea. Horregatik, gizon eta emakume atzerritarren bizi-ingurunean antzeman diren gabeziak zuzentzeko ekintza gehienak Ararteko erakundeak bere kabuz egin ditu, ofizioz, alegia. Hala ere, inoiz gertatu izan da kexaren bat edo beste tramitatzea etorkinek eurek eskaturik edo atzerritarren eskubideen aldeko erakundeen ekimenez.

Gure autonomi erkidegoan, beste askotan bezala, azken urteotan izugarri ugaritu dira atzerritarrekiko elkartasunaren adierazpenak eta atzerritarren alde diharduten elkarteak.

Ararteko erakundea beti ahalegindu da elkartasun-sare horien ahalmena handitzen, kontuan izanik horrelako elkarteek gizartean antenarena egiten dutela, hots, begien aurrean jartzen dizkigutela gizarteko bazterreko sektoreen arazo ezkutuak, guk geuk ikusten ez ditugunak.

Erakunde garen aldetik, horrelako talde guztien askatasuna eta bilakabidea errespetatu nahi izan ditugu, baina, aldi berean, lankidetzarako eta koordinaziorako sistemak sustatzen saiatu gara.

Atzerritik etorritako herritarren arazoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, eta ez bakarrik kopuruaren aldetik, gizartean duten eragina ere gero eta nabariagoa baita. Bistan denez, atzerritarrak babesik gabe aurkitzen dira hain zuzen ere atzerritarrak direlako, eta herri botereek zerbait egin behar dute, haien arazoei konponbidea emango bazaie.

Atzerritarren egoera Ararteko erakundean islatzen da; erakunde honek egokitzat jo du bere barruko egituran zeharkako arlo bat sortzea atzerritarren arazoekin zerikusia duten jarduera guztiak bateratu eta bultzatu ditzan. Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten zaizkion txostenek ere egoeraren berri jasotzen dute.

Honelako txosten baten norainokoa kontuan izanik, ordea, ezingo ditugu hemen jaso atzerritarrak ukitzen dituzten arazoetan egin ditugun esku-hartze guzti-guztiak. Hala, bada, eremu horretan azken urteotan egindako esku-hartzerik garrantzitsuenak baino ez ditugu ekarriko.

Aipa dezagun, hasteko, 1993. urtean txostena egin genuela, euren eskaerei noiz erantzungo zain zeuden atzerritarren egoera faktikoa eta juridikoa azaltzeko -garai hartan atzerritarrek asilo eta babesa eskatzen zuten-. Txosten horretan proposamen zehatzak egin genizkien hiru foru aldundiei -probintzietako administrazio-organoei- atzerritarren beharrizanak behin-behinean bete zitzaten, gizarte ongizatearen arloan dituzten eskumenak erabiliz. Txosten berean Arartekoak gomendio orokorra zuzendu zien Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiei, "*Atzerritarrak udalerrietan erroldatzea*" izenburupean, zeren sasoi horretan atzerritarrentzat ezinbesteko baldintza zen udal erroldan inskribaturik egotea zerbitzu publiko batzuk jaso ahal izateko, batez ere gizarte-laguntzako zerbitzuak.

Langile asko aldi baterako etortzen dira Euskal Herrira, eta hainbat eta hainbat atzerritik etortzen dira, nekazaritzako lanak egitera. Sasoikako langile horiek, batik bat mahats eta patata bilketara etorritakoek, bazterkeriazko egoera jasaten zutela ohartu ginen, eta 1996. urtean gai horri buruzko azterketa egin genuen. Errealitatera hurbildu eta gero, azterketa egin zenean akats larriak aurkitu ziren kontratazio sistemetan, langileen bizilekuetan eta umeen eskolatze kontuetan, eta langileak inguruko gizartetik bazter bizi zirela egiaztatu zen. Pertsona horien egoera hobetuko bazen, hiru alor lehenetsi behar zirela eta alor horietan urrats sendoak egin behar zirela uste izan zen: arauak garatu eta legeak zehatz-mehatz betearazteko urratsak, arazoarekin zerikusia duten herri erakundeen eta gizarteko eragileen arteko koordinazioa areagotzeko urratsak; eta atzerritar langileei euren esku dauden zerbitzuen eta euren eskubideen berri emateko urratsak.

1997. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako udako ikastaroetan, Arartekoak sustaturik, "*Arrazaren zioz baztertua ez izateko eskubidea*"ri buruzko jardunaldia egin zen, eta "*Etorkinak gizarteratzeko orduan sortzen diren arazo zehatzak*" gaiari buruzko mahai ingurua ere bai.

Gogoeta egin nahi zen, bai legeen eta Konstituzioaren ikuspegitik eta bai gizartearen ikuspegitik, ea zeintzuk arazo sortzen ote diren mendebaldeko gizarteetan, eta bereziki gure inguruan, etorkinen gizarteratzea dela-eta. Eta gainera, aztertu egin nahi ziren atzerritarren kontrako jarreren lehenengo agerpenak, hau da, pertsonen jatorria, arraza, erlijioa etab. direla-eta batzuek agertzen duten areriotasuna.

Jardunaldi hori egin zen urtea Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Urtea izan zen Europan. Jardunaldiaz geroztik, Arartekoak unibertsitariekin lankidetzan dihardu, giza eskubideen azterketan sakondu eta horien zabalkundea areagotzeko.

Arartekoak urte horretan Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion txostenean bi gomendio orokor sartu ziren, atzerritarren egoeraren inguruko arazoei konponbide zehatzak ematearren: batak "*Atzerritarrak udalerrietan erroldatzea*" izenburua zuen, eta bertan bildu ziren 1993ko txostenean gai berari buruz egindako gomendioaren ostean arauetan egin ziren aldaketak, eta bestean "*Sasoikako langileei eta haien familiei ostatu emateko baldintzak*" jorratzen ziren.

Bestalde, Bilbon bada auzo bat, San Frantzisko, bazterkeriazko egoera larri-larrian aurkitzen diren atzerritar askoren bizilekua dena. Batez ere, poliziarekin izaten dituzte arazorik larrienak. Auzo degradatu horretako arazoak ikertu ondoren, 1998ko txostenean azterlan luzea sartu zen, gorago aipatu dugun egoeraren iturriak argitzen saiatzen zena. Azterlanaren ondorio gisa, hamaika gomendio eman ziren. Horietako bi gomendio orokorrak ziren, poliziaren eremua argi eta garbi gainditzen zutenak, baina poliziaren jarduna baldintzatzen duten arazoak ukitzen zituzten; beste bederatziak, berriz, poliziaren jarduna zuten aztergai bakarra. Hona hemen gomendioak:

1. Erakundeek auzoaren egoera aintzat hartzea eta bertan esku hartzea, lehentasuna emanda.
2. Atzerritarren parte-hartzea eta gizarteratzea erraztuko duten topaguneak sortu edota sustatzea.
3. Adierazle argiak antolatzea, poliziaren ekintzen bidezkotasuna eta eraginkortasuna neurtu ahal izateko.
4. Auzoan esku hartuko duten langileak aukeratzeko irizpide egokiak erabiltzea.
5. Poliziako agenteei informazioa ematea auzoan lan egiten dutenean kontuan hartu beharko dituzten alderdi zehatzen gainean.
6. Auzoan ari diren gizarte-eragileen parte-hartzea eta euren arteko lankidetza sustatzea.
7. Poliziaren jarduna benetan kontrolatu ahal izateko mekanismoak indartzea.
8. Pertsonen eskubideak urratzen dituzten praktika guztiak poliziaren jardunetik baztertzea, eta, horretarako, gehiegikerien aurkako aurretiazko mekanismoak antolatzea. (Ildo horretan, azpimarratu egin zen pertsonaren itxurari edo kanpoko ezaugarriei bakarrik begiratuta pertsona

horren kontra ekitea bereizkeria dela eta jokabide hori baztertu egin behar dela, eta, bestetik, oso kontuan hartu behar dela atzerritarrak hizkuntza ulertzeko gauza diren ala ez).

9. Polizien arteko koordinazioa hobetzea.
10. Poliziaren ekintzetan bildutako datuen ustiapenean erabiltzen diren irizpideetariko batzuk aldatzea.
11. Kontu handia izatea poliziak aditzera ematen dituen datuekin, eta auzoaren edo etorkinen irudian zabalkunde horrek izango duen eraginarekin.

Urte berean, 1998. urtean, gomendio orokorren kapituluan, besteak beste, gomendio hau egin zen: *"Tratu txarrak pairatzen dituzten emakume etorkinei gizarte laguntza ematea"*.

1998. urtearen erdialdean, etorkinei laguntzen dien Bizkaiko elkarte batek erakunde honetara jo zuen, eta zenbait emakumezko etorkinen egoeraren berri eman zuen. Euren bikotekideen edo inguruko gizonen tratu txarrak pairatzen dituzte emakume etorkin batzuek, eta horiek babesik gabe daude. Batez ere, gure herrialdean egoitza izateko baimenik ez duten emakumeen egoera nabarmendu zuten.

Emakume horiek erasoak pairatzen dituztenean, sarritan babesik gabe egoten dira, ez dutelako ia laguntzarik, euren familiengandik urruti daudelako, harreman pertsonalik ez dutelako hemen, askotan adingabeko umeak dituztelako, eta maiz hemengo hizkuntzarik ez dakitelako: horrelakoetan beraiekin bizi den gizona da euren erreferentzia bakarra. Atzerriko emakumeek (batez ere diru gutxien eta kultura maila baxuena dutenek) batzuetan ez dute euren eskubideen berri ere. Horregatik, euren senarren menpe daude guztiz, eta askotan ez dira ausartzen senarrek ematen dieten tratu txarra salatzen.

Faktore gehiago daude. Esaterako, salaketa egiten badute, poliziak atzeman egin ditzake, eta hortaz, herrialdetik kanporatu.

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Adierazpenean, emakumeen aurkako bortxakeria desagerrarazteari buruzkoan, jasotako gomendioak eta Europako Batasunaren gidalerroak kontuan hartu zituen Arartekoak, eta administrazioari gomendatu zion senarren erasoen ondorioz etxetik alde egin behar izaten duten emakumezko etorkinei laguntzeko, horretarako beren beregi prestatutako pisuetan aterpe emanez eurei eta euren seme-alabei.

Giza eskubideen ikuspegitik, eskatu zen egoera berean zeuden gainerako herritarrei ere laguntza hori emateko, Euskal Autonomia Erkidegoan zuten egoitzazko administrazio egoera gorabehera.

Beste gomendio bat izan zen emakume horiek babesteko esku hartzen zuten gizarte zerbitzuetako langileek bapestekotasun printzipioa kontuan izatea, besteak beste. Gainera, gogorarazi zen atzerritarrei buruzko legerian aukera zegoela egoitza baimena emateko jatorriz atzerritarrak diren pertsonei, aparteko inguruabarrengatik, delitu baten biktima baziren.

Erakunde mailako aurreko jarduera horiekin batera, antolamendu juridikoari esker Arartekoak dituen eskumenen betearazpenaren isla direnak, adierazteko erari dagokionez hain «formalak» ez diren beste esku-hartze batzuk egon dira, baina, hori gorabehera, Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritarren taldearen arazoak konpontzeko bideak bilatzerakoan beti Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batek izan behar duen parte hartzea eta lankidetza bideratzeko direnak. Jarduera hauek burutzeko hedakuntza-jarduerak egin dira (hitzaldiak, mahai inguruak, hedabideak,...), inmigranteen arazoei lotuta dauden helburuak lantzen dituzten erakunde ez gubernamentalekin ohiko harremanak mantendu dira eta, halaber, beste egitura batzuetan eskuhartu da eta horiek sustatu dira, hots, gai jakin honetan nabarmenak diren mentsak aztertzeko eta horiei arreta eskaintzeko herri administrazioak eta gizarte mugimenduak biltzen dituzten horietakoak (osasuneko laguntza, eskolaratzea, gizarte integrazioa, laguntza juridikoa,...). Horrela, aipatu behar da Arartekoaren zerbitzuek inmigranteen gizarte integraziorako gunea sortzeko egin duten sustatze lana, herri administrazioen eta gizarte eragileen bilketa eta lankidetzarako formula delako, beti ere arestian aipatu ditugun helburu horiekin. Arartekoak jendaurrean eusten dio ataza honekin jarraitzeko konpromisoari, uste duelako gizartea kontzientziatzeko lana, arlo honetan erantzukizuna duten erakunde eta gizarte eragileen taldeak elkarri hurbiltzea eta batera jardutea inmigrazioaren fenomenoa normalizatzeko eta inmigranteak gizarteratzeko aukera emango duten bideak direla, inmigranteak pertsonak direlako baina, zenbait arrazoi direla medio eta horien artean, argi eta garbi, pobrezia, bizitza hobearen bila ari direlako, baina beraien eskubideak zainduko diren testuinguruan, eta hori Zuzenbide Estatuaren lana da.

Atzerritarrei buruzko erregimen juridikoa erregulatzen duten arauen aplikazioak, batzutan, inmigranteen bizitzan antzematen diren egoera gatazkatsuen atal handiaren abiaburu dira. Bada, ikuspegi horretatik, indarreko legeek atzerritarren arazo jakin batzuen arloan eskaintzen zuten erantzun ez-egokiari irtenbide duina emateko ahaleginean, Arartekoak bilera egin zuen, 1999ko azaroaren 11 eta 12an, Estatuko Herriaren Defendatzailearekin, Andaluziako Herriaren Defendatzailearekin, Catalunyako Síndic de Greuges-arekin, Galizako Valedor do Pobo-rekin, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges-arekin, Kanarietako Diputado del Común-arekin eta Gaztela-Leoneko Procurador del Común-ekin, Haurraren Eskubideen Aldarrikapenaren

X. urteurrena ospatzeko Nazio Batuen Konbentzioaren esparruan. Orduan indarrean zegoen atzerritarrei buruzko legeriaren aldarazpenaren parlamentuko tramitea egiteko nabarmenak ziren zailtasunak kontuan hartuta, autonomietako defendatzaileek adierazpena sinatu zuten; adierazpen horretan aldarrikatu zuten beraiek, erakunde bermatzaileen eta herritarren oinarrizko eskubideen babesleak diren organismoen titularrak diren ginoan,

> *"jakinarazi nahi diete, hala parlamentuko talde guztiei nola gizarte zibiletik inmigrazioari loturiko arlo guztietan jarduten duten pertsona eta erakundeei, erabat datozela bat atzerritarren egungo erregimen juridikoa aldarazteko bideak emango dituen akordiora heltzea beharrezkoa dela esaten duen ideiarekin, batez ere egungo legeria eguneratu gabe dagoen edota egokiak ez diren alderdi jakin batzuetan.*
> *Horregatik, Legegileari dagokion funtzioari erabateko begirunea eskainiz, adierazi nahi dute itxaropen osoa dutela Lege Organiko honen aldarazpena oraingo legegintzaldian bukatuko dela. Ildo horretatik, uste dute oraindik ere zilegi dela -eta, aldi berean, desiragarria litzateke- egun tramitazioan dagoen Lege Proiektuan sartu beharreko aldaketak beharrezkoa den adostasunean oinarrituta egitea, baina horrek ezin du eragotzi, azken finean, lege berri hori laster onestea.*
> *Espainiako gizartearen gehiengoak aise frogatu duen elkartasunerako asmoak behin betiko onetsiko den legezko testu horretan izan behar du bere isla.*
> *Horregatik, indar politiko eta gizarteko indar guztiei jakinarazten diegu beharrezkoa dela denok ahaleginak eta bi egitea askatasun, justizia eta elkartasuna eskaintzen duen lurralde honetara heldu nahi dutenen legezko igurikidunak asetzeko gauza izan gaitezen".*

Gorte Nagusiek urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa behin betiko onetsi zuten, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa. Legebiltzarrean adostasun handia egon zen, eta etorkinei laguntzen lan egiten zuten erakunde ez gubernamental gehienek ondo iritzi zioten.

Estatuko Gobernua Lege Organiko proiektu berria tramitatzen ari da arau hori eraldatzeko.

Aspaldion atzerritarren eskubideen alde diharduten kolektiboen kezkak jaso ditugu, legeriaren eraldaketa hori dela-eta: uste dute etorkin asko babesik gabe utz ditzakeela lege horrek.

Ararteko erakundean administrazioaren jarduera zehatzen gaineko kexak tramitatzen dira, eta batzutan, etorkina izatea elementu funtsezkoa da. Baina hiritar horiek gure erkidegoko gizartean guztiz integratu arte, erakunde honen helburua izan behar da marko egokiak artikulatzea ikusten diren bereizkeriak gainditzeko, eta gainerako hiritarren bizimaila berdinera heltzeko bide ematen dieten egiturak sustatu.

# VI. ERANSKINA

# **GRAFIKOAK**

**ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2000n BUKATUTAKO KEXETAN**




**1. DIAGRAMA**

**ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA**




**2. DIAGRAMA**

## ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2000)




[1] 1.143k berdin-berdinak diren bi kexa-multzo osatzen dituzte.
[2] 62k berdin-berdinak diren kexa-multzo bat osatzen dute.

**3. DIAGRAMA**

## 2000n JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




**4. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




**5. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




**6. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




1 Funtzio Publikoa
2 Osasuna
3 Hezkuntza
4 Herrizaingoa
5 Hirigintza eta Etxebizitza
6 Gizarte Ongizatea
7 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
8 Herri Lanak eta Zerbitzuak
9 Ingurumena
10 Ogasuna
11 Lana eta Gizarte Segurantza
12 Kultura eta Elebitasuna

**7. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




1 Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa
2 Osasuna
3 Herrizaingoa
4 Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumena
5 Ogasuna eta Herri Administrazioa
6 Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza
7 Garraioak eta Herri Lanak
8 Industria, Merkataritza eta Turismoa
9 Nekazaritza eta Arrantza
10 Lehendakaritza
11 Kultura

**8. DIAGRAMA**

## FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




| | |
|---|---|
| 1 Ogasuna | 7 Kultura eta Elebitasuna |
| 2 Gizarte Ongizatea | 8 Hirigintza eta Etxebizitza |
| 3 Herri Lanak eta Zerbitzuak | 9 Ingurumena |
| 4 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 10 Lana eta Gizarte Segurantza |
| 5 Funtzio Publikoa | 11 Osasuna |
| 6 Herrizaingoa | 12 Hezkuntza |

**9. DIAGRAMA**

## UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA







| | |
|---|---|
| 1 Herri Lanak eta Zerbitzuak | 7 Funtzio Publikoa |
| 2 Ingurumena | 8 Kultura eta Elebitasuna |
| 3 Hirigintza eta Etxebizitza | 9 Osasuna |
| 4 Ogasuna | 10 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa |
| 5 Herrizaingoa | |
| 6 Gizarte Ongizatea | 11 Hezkuntza |

**10. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2000)




| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BIZKAIA** | 288 | 284 | 293 | 332 | 376 | 349 | 528 | 746 | 915 | 764 | 649 | 645 |
| **GIPUZKOA** | 188 | 195 | 244 | 241 | 250 | 234 | 281 | 448 | 663 | 471 | 311 | 295 |
| **ARABA** | 97 | 125 | 158 | 201 | 182 | 160 | 328 | 446 | 371 | 244 | 237 | 256 |

**11. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2000)




**12. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXA-EGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




**13. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




**14. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




**15. DIAGRAMA**

## 2000n HARRERA ZUZENEKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




**16. DIAGRAMA**




**17. DIAGRAMA**

### BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA




**18. DIAGRAMA**

## KEXA BILAKATUTAKO BISITAK




**19. DIAGRAMA**

## HARRERA ZUZENEKO HIRU BULEGOETARA JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA




**20. DIAGRAMA**

## OFIZIOZKO JARDUERAK (2000)

### BANAKETA ALORREZ ALOR




**21. DIAGRAMA**

### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




**22. DIAGRAMA**

## KEXA-EGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 1. Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?




**2000**




**1999**

**23. DIAGRAMA**

### 2. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik biderapena bukatu arteko denbora?




**2000**




**1999**

**24. DIAGRAMA**

**KEXA-EGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)**

**3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?**




**2000**




**1999**

**25. DIAGRAMA**

**4. Zure ustez, kexa sorrarazi zuen arazoa:**




**2000**




**1999**

**26. DIAGRAMA**

## KEXA-EGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




**2000**




**1999**

**27. DIAGRAMA**

### 6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?




**2000**




**1999**

**28. DIAGRAMA**

## ARAZOA *“ez da konpondu”* edo *“nahiko gaizki konpondu da”* DIOTEN KEXA-EGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA

### 5. Oro har zer iruditu zaizu Ararkoaren lana? (Hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




**2000**




**1999**

**29. DIAGRAMA**

### 6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?




**2000**




**1999**

**30. DIAGRAMA**

# GAIEN AURKIBIDEA

## A

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 209**
- Administrazio isiltasuna, 213
- Erabakien zioak, 214

**Adin txikiko lege hausleak, 56, 98, 209**
- Atzerritarrak, 281
- Barneratze zentroak, 57
- Gizarte taldeak, 83
- Gizarteratzea, 62
- Hezitzaileak
  - Lan-baldintzak, 58
- Hezkuntza eskubidea, 59

**Adin txikikoak, 46, 98**
- Atzerritarrak, 46, 275, 281
- Derrigorrezko bigarren hezkuntza
  - Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125
- Gizarte eskubideak, 449
- Gizarte komunikabideak, 123
- Gizarte taldeak, 83, 275
- Harrera zentroak, 46, 275
- Haur hezkuntza
  - Hezkuntzaren programazio orokorra, 125
- Hezkuntza, 275
- Hezkuntzako beharrizan bereziak, 137
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
  - Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 370
- Ikasleen onarpena, 130, 131, 360, 377
- Ikuskizun tradizionalak, 123
- Legegintzaren beharra, 46, 275
- Lehen hezkuntza
  - Eskola garraioa, 125
  - Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125
  - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 125
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 196
- Norberaren datuak babestea, 209
  - Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 128, 442
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 209
- Osasun zerbitzuak, 275
- Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 449
- Polizia, 196
- Portaera arazoak, 53
- Sasoikako langileak, 34
- Tutoretza, 113, 275

**Adinekoak**
- Egoitzak, 38, 143, 274
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 114
- Egoitzez kanpoko laguntza, 42
- Gizarte eskubideak, 453

Gizarte eta osasun zerbitzuak
Kooperazio printzipioa, 274
Koordinazio printzipioa, 274
Kutsadura akustikoa, 274
Laguntzaileak, 119
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 453
Zarata, 274
**Administrazio isiltasuna**
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 213
Badaezpadako neurriak, 205
**Administrazio publikoaren kontratuak**
Ondare erantzukizuna, 371
Zerbitzu eta lan atipikoen kontratuak
Kontratuen adjudikazioa, 379
Zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratuak
Kontratuak suntsiaraztea, 376
**Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak**
Kooperazio printzipioa
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 113, 117, 243, 274
Koordinazio printzipioa
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 113, 117, 243, 274
**Agiriak aurkeztea**
Prozedura administratiboa, 368
**Alardea**
Berdintasun printzipioa, 189, 270, 358
Emakumeak, 189, 270, 358
**Aldizkari ofizialak**
Arauen publizitate printzipioa, 371
**Animalien babesa, 120**
Ikuskizun tradizionalak, 372
**Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**
Legezkotasun printzipioa, 184, 201
Udal tasak, 363
**Aparkaldiak**
Badaezpadako neurriak, 205
**Aparkalekuak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283
**Arauak betearaztea**
Funtzio publiko orokorra, 365
Osasun alorreko funtzio publikoa, 365
**Arauen hierarkiaren printzipioa**
Hirigintza antolamendua, 362
**Arauen publizitate printzipioa**
Aldizkari ofizialak, 371
**Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 254, 283
**Arkitektura-oztopoak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 118
Babes ofizialeko etxebizitzak, 370
**Asteburuko atxiloketak**
Zigorra betetzea, 396
**Atmosferaren kutsadura, 219**
Izurri-hilkariak, 379
Ostalaritza establezimenduak, 406
Papergintza, 225
**Atxiloketak, 442**
Adin txikikoak, 196
Atzerritarrak, 194, 199

Biluzteak, 198, 363, 442
Gorputz araketak, 194
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 194, 199, 373
Jakinarazpena, 216
Laguntza juridikoa izateko eskubidea, 194
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 194, 196, 216, 373, 442
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 198, 363, 373, 442
Polizia, 357
Tratu txarrak, 199
**Atzerriko espetxeak**
Espetxeratuak, 209
**Atzerritarrak, 487**
Adin txikiko lege hausleak, 281
Adin txikikoak, 46, 275, 281
Atxiloketak, 194
Berdintasun printzipioa, 440
Espetxeratuak, 209
Gizarte taldeak, 83
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 194, 441
Laguntza juridikoa izateko eskubidea, 194
Legeria, 281
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 194
Polizia, 69, 194, 199, 281
Tratu txarrak, 199
**Aurrearretazko espetxeratzea**
Espetxeratuak, 209
**Aurria**
Ondare erantzukizuna, 361
**Autismoa**
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 283
**Auzibideratzea**
Adin txikikoak, 209
Behin-behineko neurriak
Egitatezko bikoteak, 209
Bidegabeko atzerapenak, 209
Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 209, 217
Burutik gaixo daudenak, 209
Doako laguntza juridikoa, 209
Emakumeak, 209
Etxeko indarkeria, 209
Jakinarazpena
Atxiloketak, 216
Norberaren datuak babestea, 209


## B


**Babes bereziko taldeak**
Adin txikiko lege hausleak, 56, 98, 209
Atzerritarrak, 281
Barneratze zentroak, 57
Gizarte taldeak, 83
Gizarteratzea, 62
Hezitzaileak, 58
Hezkuntza eskubidea, 59
Adin txikikoak, 46, 98
Atxiloketak, 196
Atzerritarrak, 46, 275, 281
Eskola garraioa, 125
Gizarte eskubideak, 449

Gizarte komunikabideak, 123
Gizarte taldeak, 83, 275
Harrera zentroak, 46, 275
Hezkuntza, 275
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125, 137
Hezkuntzaren programazio orokorra, 125
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 125, 370
Ikasleen onarpena, 130, 131, 360, 377
Legegintzaren beharra, 46, 275
Norberaren datuak babestea, 128, 209, 442
Osasun zerbitzuak, 275
Portaera arazoak, 53
Sasoikako langileak, 34
Tutoretza, 113, 275
Adinekoak, 114
Egoitzak, 38, 143, 274
Egoitzez kanpoko laguntza, 42
Gizarte eskubideak, 453
Laguntza prestazioak, 119
Atzerritarrak, 487
Adin txikiko lege hausleak, 281
Adin txikikoak, 46, 275, 281
Atxiloketak, 194, 199
Berdintasun printzipioa, 440
Espetxeratuak, 209
Gizarte taldeak, 83
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 441
Polizia, 69, 281
Burutik gaixo daudenak
Erkidegoarentzako zerbitzuak, 72
Gizarte taldeak, 83
Nahitaez zentro psikiatrikoan barneratzea, 248
Drogaren menpekoak
Gizarte taldeak, 83
Osasun prestazioak, 243
Emakume espetxeratuak
Espetxeak, 270
Emakumeak
Alardea, 189, 270, 358
Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 209, 217
Berdintasun printzipioa, 267
Doako laguntza juridikoa, 209
Egoitzak, 143
Emakume alargunak, 272
Emakumezko espetxeratuak, 209
Etxeko indarkeria, 209, 270
Garraioa, 272
Gizarte komunikabideak, 272
Gizarte taldeak, 83
Guraso bakarreko familiak, 272
Gurasotasun baimenak, 139, 162
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 441
Kexak, 268
Laguntza prestazioak, 272
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 272
Laneratzea, 270
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 139, 156, 370

Osasun prestazioak, 272
Sexu-ikuspegia, 267
Espetxeratuak, 209
Atzerriko espetxeak, 209
Gizarte taldeak, 83
Osasun zerbitzuak, 209
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea
Sasoikako langileak, 33
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Aparkalekuak, 283
Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 254, 283
Arkitektura-oztopoak, 118
Autismoa, 283
Babes ofizialeko etxebizitzak, 370
Diabetea, 283
Funtzio publikoa, 283
Gizarte eskubideak, 184, 452
Gizarte taldeak, 83
Gizarteratzea, 81, 283
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 80, 283
Irisgarritasuna, 283
Laguntza pentsioak, 116
Lanerako aukerak, 115
Oztopoak garraioan, 231
PFEZ, 259
TAO, 201, 374
TMIZ, 184
Zergen alorreko politika, 283
Familia
Babes ofizialeko etxebizitzak, 434
Gizarte eskubideak, 449
Guraso bakarreko familiak
Emakumeak, 272
Prezio publikoak, 173, 372, 447
HIESa duten gaixoak
Gizarte taldeak, 83
Ijitoak
Gizarte taldeak, 83
Sasoikako langileak, 33
Adin txikikoak, 34
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 281, 415
Gizarte taldeak, 83
Hezkuntza eskubidea, 34
Terrorismoaren biktimak
Gizarte taldeak, 83
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 441
Txiroak
Gizarte larrialdietarako laguntzak, 117, 368
Laguntza prestazioak, 113
**Babes ofizialeko etxebizitzak, 254**
Adjudikatzeko irizpideak, 374
Arkitektura-oztopoak, 370
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 370
Eraikuntzako akatsak, 262
Eroslehentasun eskubidea, 359
Eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidea, 263
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 259

Familia, 434
OHZ, 183
PFEZ, 259
**Badaezpadako neurriak**
Administrazio isiltasuna, 205
Aparkaldiak, 205
Ibilgailuak erretiratzea, 360
**Baimenak**
Garajeak, 375
Gimnasioak, 369
Harrobiak, 108
Ostalaritza establezimenduak, 373
Pasabideak, 240
Sozietate gastronomikoak, 367
Txokoak, 363
**Bakearen kultura, 91, 94, 457**
**Bakerako eskubidea, 91, 94**
**Banantze eta dibortzioetarako prozedura**
Bidegabeko atzerapenak, 209, 217
Emakumeak, 209, 217
**Barneratze zentroak**
Adin txikiko lege hausleak, 57
**Baso-ustiategiak, 108**
Prozedura zehatzailea, 109
**Behin-behineko neurriak**
Egitatezko bikoteak, 209
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 209
**Bekak**
Kulturarako eskubidea
Sustapen jarduerak, 359
Unibertsitate hezkuntza, 370
**Berdintasun printzipioa, 440**
Adin txikikoak, 130, 131, 377
Alardea, 189, 270, 358
Atzerritarrak, 440
Emakumeak, 189, 267, 270, 358
Gizarte eta osasun zerbitzuak
Buru-paralisia, 117
Ikasleen onarpena, 130, 131, 360, 377
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 440
Osasun zerbitzuak
Buru-paralisia, 243
**Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**
Enplegu eskaintza publikoa, 139, 163
Funtzio publiko orokorra, 139, 148, 167, 356, 367, 368
Funtzio publikoa, 443
**Berriro gizarteratzeko eskubidea**
Espetxeak, 469
Espetxeratuak, 445
Zigorra betetzea, 95, 396
Erregimen irekia, 95
Zigorra non bete, 209
Erregimen irekia, 209
**BEZ**
Zergen alorreko prozedura zigortzailea, 180
**Bideak eta landabideak**
Udal zerbitzu publikoak, 229, 369

**Bidegabeko atzerapenak, 209**
Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 209, 217
Burutik gaixo daudenak, 209
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 209, 217
**Biktimak, 457**
**Biluzteak**
Atxiloketak, 198, 363, 442
**Bitartekaritza**
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 90
**Bitarteko funtzionarioak**
Enplegu eskaintza publikoa, 139, 163
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 156, 370
**Bizikletak**
Hiriko trafikoaren antolamendua, 203, 372
**Bizitzeko eskubidea**
Bakearen kultura, 457
**Buru-paralisia**
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 117
Osasun zerbitzuak, 243
**Burutik gaixo daudenak**
Bidegabeko atzerapenak, 209
Erkidegoarentzako zerbitzuak, 72
Gizarte taldeak, 83
Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea, 248
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 209

## D

**Defentsarako eskubidea**
Atxiloketak, 357
**Derrigorrezko bigarren hezkuntza**
Eskola garraioa, 125
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 125
**Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza**
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125
**Diabetea**
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 283
**Diziplinazko araubidea**
Funtzio publiko orokorra, 139
**Doako laguntza juridikoa**
Emakumeak, 209
Etxeko indarkeria, 209
**Drogamenpekotasunaren tratamendua**
Osasun prestazioak, 243
**Drogaren menpekoak**
Gizarte taldeak, 83

## E

**Ediktu-jakinarazpena**
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 483
**Egitatezko bikoteak**
Behin-behineko neurriak, 209
**Egoitzak**
Adinekoak, 38, 274
Laguntzak eta diru-laguntzak
Adinekoak, 114
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 143

**Egoitzez kanpoko laguntza**
Adinekoak, 42
**EIOZ**
Zerga oinarria, 373
**EJZ**
Zerga egitatea, 182
**Elkarteak, 83**
**Emakume alargunak**
Emakumeak, 272
**Emakume espetxeratuak**
Espetxeak, 270
**Emakumeak**
Alardea, 189, 270, 358
Auzibideratzea, 209
Banantze eta dibortzioetarako prozedura, 209, 217
Berdintasun printzipioa, 189, 267, 270, 358
Bitarteko funtzionarioak, 139, 156, 370
Doako laguntza juridikoa, 209
Egoitzak, 143
Emakume alargunak, 272
Emakumezko espetxeratuak, 209
Etxeko indarkeria, 209, 270
Garraioa, 272
Gizarte komunikabideak, 272
Gizarte taldeak, 83
Guraso bakarreko familiak, 272
Gurasotasun baimenak, 139, 162
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 441
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 139, 162
Kexak, 268
Laguntza prestazioak, 272
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 272
Laneratzea, 270
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 139, 156, 370
Osasun prestazioak, 272
Sexu-ikuspegia, 267
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 209, 217
**Enplegu eskaintza publikoa**
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 139, 163
Bitarteko funtzionarioak, 139, 163
**Erabakien zioak**
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 214
**Eraikuntzako akatsak**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 262
**Erkidegoarentzako zerbitzuak**
Burutik gaixo daudenak, 72
**Eroslehentasun eskubidea**
Jakinarazpena
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 359
**Eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidea**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 263
**Errekurtso administratiboak**
Jatorrizko izendazioa, 358
**Errepideak**
Foru zerbitzu publikoak, 365
Ondare erantzukizuna, 239
Udal zerbitzu publikoak, 371

**Errolda, 368**
Laguntza pentsioak, 116
**Errugabe joa izateko eskubidea**
Prozedura zigortzailea, 232, 362, 366
**Eskola garraioa**
Hezkuntza eskubidea, 445
**Eskola kirola, 120**
**Espetxeak, 25**
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 469
Emakume espetxeratuak, 270
Espetxeratuak, 209
Zigorra non bete
Erregimen irekia, 469
Zigor alternatiboak, 469
**Espetxearen ordezko zigorrak**
Espetxeratuak, 95
**Espetxeratuak, 25**
Ama-haurren modulua, 209
Atzerriko espetxeak, 209
Atzerritarrak, 209
Aurrearretazko espetxeratzea, 209
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 445
Espetxeak, 209
Gizarte taldeak, 83
Osasun zerbitzuak, 209
Zigorra betetzea
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 95, 396
Erregimen irekia, 95
Zigorra non bete
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 209
Erregimen irekia, 209
**Etengabeko prestakuntza**
Lana, 250, 252
**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 254, 374
Gizarte eskubideak, 451
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 451
Sasoikako langileak, 33, 281, 415
**Etxebizitzak birgaitzea**
Laguntzak eta diru-laguntzak, 261, 359
**Etxeko indarkeria**
Auzibideratzea, 209
Doako laguntza juridikoa, 209
Emakumeak, 209, 270
**Euskara eta administrazio publikoa**
Hizkuntz normalizazioa, 120, 121, 122
**Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 370, 374**
Aparkalekuak, 283
Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 254, 283
Arkitektura-oztopoak, 118
Autismoa
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 283
Babes ofizialeko etxebizitzak, 259
Diabetea
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 283
Funtzio publikoa, 283
Gizarte eskubideak, 452
Gizarte taldeak, 83

Gizarteratzea, 81, 283
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 80, 283
Irisgarritasuna, 283
Laguntza pentsioak, 116
Lanerako aukerak, 115
Oztopoak garraioan, 231
PFEZ, 259
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 452
TAO, 201, 374
TMIZ, 184
Zergen alorreko politika, 283

F

**Familia**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 434
Gizarte eskubideak, 449
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 449
**Familia ugaritsuak**
Legegintzaren beharra, 113
**Foru zerbitzu publikoak**
Errepideak, 365
Ondare erantzukizuna, 239
**Foru zergak**
BEZ, 180
OEGZ, 176
PFEZ, 173, 178
**Funtzio publiko orokorra**
Administrazioaren autoantolaketa, 143
Arauak betearaztea, 365
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 139, 148, 167, 356, 367, 368
Diziplinazko araubidea, 139
Egoitzak
Adinekoak, 143
Emakumeak, 143
Gizarte segurantza, 250
Karrera administratiboa, 139
Lan-baldintzak, 139, 377
Sarrera, 148, 367, 368
**Funtzio publikoa**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283
**Funtzionarioen identifikazioa**
Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 145

G

**Gai arriskutsuen garraioa**
Gasa, 111
**Gaixoei arreta egiteko zerbitzua**
Osasun zerbitzuak, 243
**Garajeak**
Baimenak, 375
Hiri jarduera sailkatuak, 375
**Garapenerako lankidetza**
Gizarte taldeak, 83
**Garraioa**
Emakumeak, 272
Prozedura zigortzailea, 191, 360
**Gimnasioak**
Baimenak, 369
Hiri jarduera sailkatuak, 369

**Giza eskubideak, 457**
Adin txikiko lege hausleak, 98
Adin txikikoak, 98
Atzerritarrak, 487
Bakerako eskubidea, 91, 94
Nazioarteko auzitegi penala, 99
Ombudsmana, 99
**Giza eskubideen aldeko hezkuntza, 90, 457**
**Gizarte eskubideak**
Adin txikiko lege hausleak, 56, 98
Adin txikikoak, 46, 98, 275
Adinekoak, 38, 42, 119, 274, 453
Atzerritarrak, 487
Burutik gaixo daudenak, 72
Emakumeak, 272
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 254, 374, 434, 451
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 81, 115, 116, 184, 201, 254, 259, 283, 374, 452
Familia, 434, 449
Familia ugaritsuak, 113
Guraso bakarreko familiak, 173, 372
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 221, 222, 225, 227, 363, 451
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 70
Osasunerako eskubidea, 428, 449
Sasoikako langileak, 33, 281
Txiroak, 113, 117, 368
**Gizarte eta osasun zerbitzuak**
Buru-paralisia, 117
Kooperazio printzipioa, 113, 117, 243
Koordinazio printzipioa, 113, 117, 243
**Gizarte komunikabideak**
Adin txikikoak, 123
Animalien babesa, 123
Emakumeak, 272
**Gizarte komunikabideetara iristeko eskubidea, 443**
Oinarrizko eskubideak, 356
**Gizarte larrialdietarako laguntzak**
Txiroak, 117, 368
**Gizarte segurantza**
Funtzio publiko orokorra, 250
**Gizarte taldeak, 83**
Adin txikiko lege hausleak, 83
Adin txikikoak, 83, 275
Atzerritarrak, 83
Burutik gaixo daudenak, 83
Drogaren menpekoak, 83
Emakumeak, 83
Espetxeratuak, 83
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 83
Garapenerako lankidetza, 83
HIESa duten gaixoak, 83
Ijitoak, 83
Sasoikako langileak, 83
Terrorismoaren biktimak, 83
**Gizarteratzea**
Adin txikiko lege hausleak, 62
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 81, 283

**Gorputz araketak**
Atxiloketak, 194
**Guraso bakarreko familiak**
Emakumeak, 272
Prezio publikoak, 173, 372, 447
**Gurasotasun baimenak**
Emakumeak, 139, 162
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 139, 162

## H

**Harrera zentroak**
Adin txikikoak, 46, 275
**Harrobiak**
Baimenak, 108
**Haur hezkuntza**
Hezkuntza eskubidea, 445
Hezkuntzaren programazio orokorra, 125
Ikasleen onarpena, 130, 131, 360, 377
Norberaren datuak babestea, 128, 442
**Herri defendatzaileen erakundeak, 99**
Iberoamerika, 99
Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 99
Kooperazio printzipioa, 94
Koordinazio printzipioa, 94
**Herri lanak**
Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 229
Ondare erantzukizuna, 229
**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**
Funtzionarioen identifikazioa, 145
Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea
Herri lanak, 229
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 370
Jabetza pribaturako eskubidea, 448
Baso-ustiategiak, 108, 109
Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak, 108
Lehia askerako eskubidea, 108
Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea, 248
Zergadunen eskubideak
Interesen itzulketa, 360, 388, 447
Itzulketa, 372
Zergen bidezkotasunaren printzipioa
OHZ, 447
Prezio publikoak, 173, 372, 447
Udal prezio publikoak, 185
**Herritarren segurtasuna**
Polizia, 187
**Hezitzaileak**
Lan-baldintzak, 58
**Hezkuntza**
Adin txikikoak, 275
Giza eskubideak, 90
Hezkuntzako beharrizan bereziak
Autismoa, 283
Diabetea, 283
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 80, 283
**Hezkuntza eskubidea**
Adin txikiko lege hausleak, 59

Adin txikikoak, 275
Eskola garraioa, 445
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 80
Haur hezkuntza, 445
Hezkuntza itunak, 125, 383, 445
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 445
Sasoikako langileak, 34
Unibertsitate hezkuntza, 445
**Hezkuntza itunak**
Hezkuntza eskubidea, 125, 383, 445
**Hezkuntzako beharrizan bereziak, 137**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 125
Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza, 125
Hezkuntza eskubidea, 445
Lehen hezkuntza, 125
**Hezkuntzaren programazio orokorra**
Haur hezkuntza, 125
**HIESa duten gaixoak**
Gizarte taldeak, 83
**Hilerriak**
Udal zerbitzu publikoak, 229
**Hiri hondakinak**
Udal zerbitzu publikoak, 229
**Hiri jarduera sailkatuak, 219, 406**
Baimenak, 406
Garajeak, 375
Gimnasioak, 369
Merkataritza-establezimenduak, 378, 379
Ostalaritza establezimenduak, 222, 364, 366, 373, 375, 406
Sozietate gastronomikoak, 367
Tailerrak, 221, 363
Txokoak, 363
**Hiri plangintza, 254**
Babes zortasuna
Itsas-lehorreko jabari publikoa, 257
**Hirigintza antolamendua**
Arauen hierarkiaren printzipioa, 362
Babes zorra
Itsas-lehorreko jabari publikoa, 371
Legezkotasun printzipioa, 362
**Hirigintza arauak betearaztea, 254**
Aurria, 361
Obrak egiteko baimenak, 257, 362, 375, 378
Ondare erantzukizuna, 373
Zortasunak, 378
**Hirigintza kudeaketa, 254**
Ordezko etxea jasotzeko eskubidea, 262
**Hiriko trafikoaren antolamendua**
Bizikletak, 203, 372
Ibilgailu astunak, 378
**Hizkuntz normalizazioa**
Euskara eta administrazio publikoa, 120, 121, 122
**Hondakin-urak**
Ibaien kutsadura, 227
**Hondakinak, 219**

## I

**Ibaien kutsadura**
Hondakin-urak, 227
**Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa**
Herri defendatzaileen erakundeak, 99
Ombudsmana, 99
**Ibilgailu astunak**
Hiriko trafikoaren antolamendua, 378
**Ibilgailuak erretiratzea**
Badaezpadako neurriak, 360
**Ibilgailuen azterketa teknikoa**
Prozedura zehatzailea, 108
**Ijitoak**
Gizarte taldeak, 83
**Ikasleen ebaluazioa**
Unibertsitate hezkuntza, 125, 365
**Ikasleen eskubideak eta betebeharrak**
Derrigorrezko bigarren hezkuntza, 125
Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 370
Lehen hezkuntza, 125
Norberaren datuak babestea, 128, 442
**Ikasleen onarpena, 134, 357, 360**
Berdintasun printzipioa, 130, 131, 377
**Ikastegiak**
Kontserbazioa eta mantenimendua, 125, 357
Unibertsitate tituluak, 138
**Ikuskizun tradizionalak**
Adin txikikoak, 123
Animalien babesa, 123, 372
**Industri jarduera sailkatuak, 219**
Papergintza, 225
**Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea**
Herri lanak, 229
**Ingurumen egokia izateko eskubidea, 219, 364, 366, 375**
Atmosferaren kutsadura, 225, 379, 406
Gizarte eskubideak, 451
Ibaien kutsadura, 227
Kutsadura akustikoa, 221, 222, 225, 274, 363, 364, 378, 406
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 451
**Integritate fisiko eta moralerako eskubidea**
Atxiloketak, 194, 199, 373
Atzerritarrak, 194, 199, 441
Polizia, 69, 281
Bakearen kultura, 457
Emakumeak, 209, 441
Terrorismoaren biktimak, 441
Tratu txarrak, 358
**Interesen itzulketa, 360, 388, 447**
**Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**
Bitarteko funtzionarioak
Emakumeak, 139, 156, 370
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 139, 156, 370
Emakumeak, 139, 162
Gurasotasun baimenak, 139, 162
Hornikuntza, 139, 151
Okerren zuzenketa, 139, 159, 377
Lekualdatze-lehiaketa, 377

**Irisgarritasuna**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283
**Izurri-hilkariak**
Atmosferaren kutsadura, 379

## J

**Jabetza pribaturako eskubidea, 448**
Baso-ustiategiak, 108, 109
**Jakinarazpena**
Atxiloketak, 216
OEGZ, 176
Prozedura administratiboa, 97
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 176
Zergen alorreko prozedura, 176
**Jatorrizko izendazioa**
Errekurtso administratiboak, 358
**Jolas aretoak**
Zibertekak, 187

## K

**Keak**
Ostalaritza establezimenduak, 406
Papergintza, 225
**Kexak**
Emakumeak, 268
**Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, 108, 110**
**Kooperazio printzipioa**
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 113, 117, 243
Adinekoak, 274
Herri defendatzaileen erakundeak, 94
Ombudsmana, 94
**Koordinazio printzipioa**
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 113, 243
Adinekoak, 274
Herri defendatzaileen erakundeak, 94
Ombudsmana, 94
Osasun zerbitzuak, 117
**Kulturarako eskubidea**
Sustapen jarduerak
Bekak, 359
Euskara, 120
**Kutsadura, 219**
**Kutsadura akustikoa, 219**
Adinekoak, 274
Merkataritza-establezimenduak, 378
Ostalaritza establezimenduak, 222, 364, 406
Papergintza, 225
Tailerrak, 221, 363

## L

**Laguntza juridikoa izateko eskubidea**
Atxiloketak, 194
Atzerritarrak, 194
**Laguntza pentsioak**
Errolda, 116
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 116
**Laguntza prestazioak**
Adinekoak, 119

Emakumeak, 272
Txiroak, 113
**Laguntzak eta diru-laguntzak**
Adinekoak
Egoitzak, 114
Etxebizitzak birgaitzea, 261, 359
Lanerako aukerak, 250
Terrorismoaren biktimak, 187
**Lan osasuna**
Norberaren datuak babestea, 247, 442
**Lan-baldintzak**
Funtzio publiko orokorra, 139, 377
Hezitzaileak, 58
**Lana**
Etengabeko prestakuntza, 250, 252
**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**
Berdintasun printzipioa, 440
Emakumeak, 272
**Lanerako aukerak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 115
Laguntzak eta diru-laguntzak, 250
**Laneratzea**
Emakumeak, 270
**Larrialdiak**
Osasun zerbitzuak, 247
**Legegintzaren beharra**
Adin txikikoak, 46, 275
Familia ugaritsuak, 113
**Legeria**
Atzerritarrak, 281
**Legezkotasun printzipioa**
Hirigintza antolamendua, 362
Prozedura zigortzailea, 360
TAO, 201
TMIZ, 184
Udal tasak, 363
**Lehen hezkuntza**
Eskola garraioa, 125
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 125, 137
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 125
**Lehia askerako eskubidea, 108**
**Lekualdatze-lehiaketa**
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 377
Osasun alorreko funtzio publikoa, 139

## N

**Nahitaez zentro psikiatrikoan barneratzea**
Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea, 248
**Nazioarteko auzitegi penala**
Giza eskubideak, 99
**Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak, 108**
**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**
Adin txikikoak, 196
Atxiloketak, 194, 196, 216, 357, 373, 442
Atxerritarrak, 194
Polizia, 69, 281
Aurrearretazko espetxeratzea, 209

**Norberaren datuak babestea**
Adin txikikoak, 209
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 247, 265, 442
**Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea**
Adin txikikoak, 128, 209, 442
Adinekoak, 143
Atxiloketak, 198, 363, 373, 442
Egoitzak, 143
Emakumeak, 143
Ikasleen eskubideak, 128
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 442
Lan osasuna, 247, 442
Prozedura administratiboa, 265
**Norberaren irudirako eskubidea, 120**

**O**

**Obesitate erigarria**
Osasun prestazioak, 243
**Obrak egiteko baimenak**
Hirigintza arauak betearaztea, 257, 362, 375, 378
**OEGZ**
Jakinarazpena, 176
**OHZ**
Hobariak
Babes ofizialeko etxebizitzak, 183
Ordainketa, 177
Udal zergak, 173
**Oinarrizko eskubideak**
Adin txikiko lege hausleak, 98
Adin txikikoak, 98
Atzerritarrak, 487
Berdintasun printzipioa, 440
Adin txikikoak, 130, 131, 377
Alardea, 189, 270, 358
Atzerritarrak, 440
Emakumeak, 189, 267, 270, 358
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 117
Haur hezkuntza
Ikasleen onarpena, 360
Ikasleen onarpena, 130, 131, 377
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 440
Osasun zerbitzuak, 243
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
Enplegu eskaintza publikoa, 139, 163
Funtzio publiko orokorra, 139, 148, 167, 356, 367, 368
Funtzio publikoa, 443
Berriro gizarteratzeko eskubidea
Espetxeak, 469
Espetxeratuak, 445
Zigorra betetzea, 95, 396
Bizitzeko eskubidea
Bakearen kultura, 457
Defentsarako eskubidea
Atxiloketak, 357
Errugabe joa izateko eskubidea
Prozedura zigortzailea, 232, 362, 366
Gizarte komunikabideetara iristeko eskubidea, 356, 443

Hezkuntza eskubidea
Adin txikiko lege hausleak, 59
Adin txikikoak, 275
Eskola garraioa, 445
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 80, 283
Haur hezkuntza, 445
Hezkuntza itunak, 125, 383, 445
Hezkuntzako beharrizan bereziak, 445
Sasoikako langileak, 34
Unibertsitate hezkuntza, 445
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
Atxiloketak, 194, 199, 373
Atzerritarrak, 69, 194, 199, 281, 441
Bakearen kultura, 457
Emakumeak, 209, 441
Terrorismoaren biktimak, 441
Tratu txarrak, 358
Laguntza juridikoa izateko eskubidea
Atxiloketak, 194
Atzerritarrak, 194
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
Adin txikikoak, 196
Atxiloketak, 194, 196, 216, 357, 373, 442
Atzerritarrak, 69, 194, 281
Aurrearretazko espetxeratzea, 209
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
Adin txikikoak, 128, 209, 442
Adinekoak, 143
Atxiloketak, 198, 363, 373, 442
Datu orokorren babesa, 247
Egoitzak, 143
Emakumeak, 143
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 128, 442
Lan osasuna, 247, 442
Norberaren datuak babestea, 128, 209, 265, 442
Prozedura administratiboa, 265
Norberaren irudirako eskubidea, 120
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 444
Behin-behineko neurriak, 209
Bidegabeko atzerapenak, 209, 217
Burutik gaixo daudenak, 209
Ediktu-jakinarazpena, 483
Emakumeak, 209, 217
Jakinarazpena, 97, 176, 359
**Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 70**
**Okerren zuzenketa**
Hornikuntza
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 139, 159, 377
**Ombudsmana, 99, 457**
Giza eskubideak, 99
Iberoamerika, 99
Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 99
Kooperazio printzipioa, 94
**Ondare erantzukizuna, 96, 361, 363, 477**
Administrazio publikoaren kontratuak, 371
Aurria, 361
Foru zerbitzu publikoak
Errepideak, 239

Herri lanak, 229
Hirigintza arauak betearaztea, 373
Prozedura administratiboa, 368
Udal zerbitzu publikoak, 236, 361, 362, 366, 372, 374
Zerbitzu publikoak, 229, 411
**Ondorengoak zaintzeko eszedentzia**
Bitarteko funtzionarioak, 139, 156, 370
Emakumeak, 156, 370
**Ordainsariak**
Osasun alorreko funtzio publikoa, 139
**Ordezkapenak**
Osasun alorreko funtzio publikoa, 139
**Ordezko etxea jasotzeko eskubidea, 262**
**Osasun alorreko funtzio publikoa**
Arauak betearaztea, 365
Lekualdatze-lehiaketa, 139
Ordainsariak, 139
Ordezkapenak, 139
**Osasun garraioa**
Osasun prestazioak, 246, 365, 428
**Osasun prestazioak**
Drogamenpekotasunaren tratamendua, 243
Emakumeak, 272
Obesitate erigarria, 243
Osasun garraioa, 246, 365, 428
Umeak izateko tratamendua, 243, 245
**Osasun publikoa**
Udal zerbitzu publikoak, 362
**Osasun zerbitzuak**
Adin txikikoak, 275
Buru-paralisia, 243
Espetxeratuak, 209
Gaixoei arreta egiteko zerbitzua, 243
Larrialdiak, 247
**Osasunerako eskubidea**
Adin txikikoak, 275
Espetxeratuak, 209
Gizarte eskubideak, 449
Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 449
**Ostalaritza establezimenduak**
Atmosferaren kutsadura, 406
Baimenak, 373
Hiri jarduera sailkatuak, 364, 366, 373, 375
Kutsadura akustikoa, 364, 406
Merkataritza-establezimenduak, 378
Ordutegiak, 187
**Oztopoak garraioan**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 231

## P

**Papergintza**
Atmosferaren kutsadura, 225
Kutsadura akustikoa, 225
**Pasabideak**
Baimenak, 240
Udal prezio publikoak, 185

**Pedagogi gaitasun ikastaroak, 136**
**PFEZ**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 259
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 259
Foru zergak, 173
Zerga oinarria, 178
**Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak**
Adin txikiko lege hausleak, 56, 57, 98
Barneratze zentroak, 57
Gizarteratzea, 62
Hezitzaileak, 58
Adin txikikoak, 46, 98, 275, 449
Atzerritarrak, 46
Harrera zentroak, 46, 275
Portaera arazoak, 53
Tutoretza, 275
Adinekoak, 453
Egoitzak, 38, 274
Egoitzez kanpoko laguntza, 42
Gizarte eta osasun zerbitzuak, 274
Laguntza prestazioak, 119
Atzerritarrak, 487
Burutik gaixo daudenak
Erkidegoarentzako zerbitzuak, 72
Emakumeak
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 272
Laneratzea, 270
Osasun prestazioak, 272
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 451
Babes ofizialeko etxebizitzak, 254, 374
Familia, 434
Sasoikako langileak, 33, 415
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 184, 201, 452
Aparkalekuak, 283
Arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, 254, 283
Babes ofizialeko etxebizitzak, 370
Funtzio publikoa, 283
Gizarteratzea, 81, 283
Irisgarritasuna, 283
Laguntza pentsioak, 116
Lanerako aukerak, 115
PFEZ, 259
TAO, 374
Zergen alorreko politika, 283
Familia, 434, 449
Guraso bakarreko familiak
Prezio publikoak, 173, 372
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 219, 364, 366, 375, 451
Atmosferaren kutsadura, 225, 379, 406
Bitartekaritza, 90
Ibaien kutsadura, 227
Kutsadura akustikoa, 221, 222, 225, 274, 363, 364, 378, 406
Kulturarako eskubidea
Sustapen jarduerak, 120
Bekak, 359
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 70

Osasunerako eskubidea, 449
Adin txikikoak, 275
Espetxeratuak, 209
Osasun garraioa, 428
Sasoikako langileak, 33, 281
Txiroak
Gizarte larrialdietarako laguntzak, 117, 368
Laguntza prestazioak, 113
**Polizia**
Adin txikikoak, 196
Atxiloketak, 194, 196, 198, 199, 216, 357, 363
Adin txikikoak, 196
Atzerritarrak, 194, 199
Atzerritarrak, 69, 194, 199, 281
Herritarren segurtasuna, 187
**Portaera arazoak**
Adin txikikoak, 53
**Prezio publikoak**
Guraso bakarreko familiak, 173, 372, 447
**Prozedura administratiboa, 371**
Administrazio isiltasuna
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 213
Badaezpadako neurriak, 205
Agiriak aurkeztea, 368
Badaezpadako neurriak
Aparkaldiak, 205
Ibilgailuak erretiratzea, 360
Baimenak
Garajeak, 375
Gimnasioak, 369
Harrobiak, 108
Hiri jarduera sailkatuak, 406
Ostalaritza establezimenduak, 373
Pasabideak, 240
Sozietate gastronomikoak, 367
Txokoak, 363
Ekintza administratiboa
Hiriko trafikoaren antolamendua, 378
Erabakien zioak
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 214
Errekurtso administratiboak
Jatorrizko izendazioa, 358
Herri lanak
Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, 229
Herritarren eskubideak eta betebeharrak
Funtzionarioen identifikazioa, 145
Hirigintza arauak betearaztea
Obrak egiteko baimenak, 257, 362, 375
Zortasunak, 378
Jakinarazpena, 97
Eroslehentasun eskubidea, 359
OEGZ, 176
Norberaren datuak babestea, 265
Obrak egiteko baimenak
Hirigintza arauak betearaztea, 378
Okerren zuzenketa
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 139, 159, 377

Ondare erantzukizuna, 361, 363, 368, 477
Aurria, 361
Foru zerbitzu publikoak, 239
Herri lanak, 229
Hirigintza arauak betearaztea, 373
Udal zerbitzu publikoak, 236, 361, 362, 366, 372, 374
Zerbitzu publikoak, 229, 411
Preskripzioa
TMIZ, 367
Prozedura zehatzailea
Baso-ustiategiak, 109
Ibilgailuen azterketa teknikoa, 108
Prozedura zigortzailea
Arauak betearaztea, 365
BEZ, 180
Diziplinazko araubidea, 139
Ediktu-jakinarazpena, 483
Eskumenak, 361
Garraioa, 191, 360
Legezkotasun printzipioa, 360
TAO, 374
Trafikoa, 187, 359, 366, 368, 370, 371, 379
Zarama, 232, 362, 366
Sustapen jarduerak
Bekak, 359
**Prozedura zehatzailea**
Baso-ustiategiak, 109
Ibilgailuen azterketa teknikoa, 108
**Prozedura zigortzailea**
Arauak betearaztea, 365
BEZ, 180
Diziplinazko araubidea, 139
Ediktu-jakinarazpena, 483
Errugabe joa izateko eskubidea, 232, 362, 366
Eskumenak
Trafikoa, 361
Garraioa, 191, 360
Legezkotasun printzipioa, 360
TAO, 374
Trafikoa, 187, 359, 366, 368, 370, 371, 379
Zarama, 232, 362, 366

## S

**Sasoikako langileak, 33**
Adin txikikoak, 34
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 33, 281, 415
Gizarte taldeak, 83
Hezkuntza eskubidea, 34
**Seinaleak jartzea**
Trafikoaren antolamendua, 367
**Sexu-ikuspegia**
Emakumeak, 267
**Sozietate gastronomikoak**
Baimenak, 367
Hiri jarduera sailkatuak, 367

**Sustapen jarduerak**
Bekak
Kulturarako eskubidea, 359
Euskara, 120

## T

**Tabakismoa, 243, 360**
**Tailerrak**
Kutsadura akustikoa, 221, 363
**TAO**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 201
Legezkotasun printzipioa, 201
Prozedura zigortzailea, 374
**Tarifak**
Ura eta saneamendua, 173
**Telebista**
Zerbitzu publikoak, 235
**Terrorismoaren biktimak**
Gizarte taldeak, 83
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 441
Laguntzak eta diru-laguntzak, 187
**TMIZ**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 184
Legezkotasun printzipioa, 184
Ordainketa, 181
Preskripzioa, 367
Tarifak, 182
Udal zergak, 173
Zerga-potentzia, 184
**Trafikoa**
Prozedura zigortzailea, 187, 359, 366, 368, 370, 371, 379
Eskumenak, 361
**Trafikoaren antolamendua, 187**
Seinaleak jartzea, 367
**Tratamendua onartu aurretik informazioa izatea**
Nahitaez zentro psikiatrikoan barneratzea, 248
**Tratu txarrak**
Atxiloketak, 199
Atzerritarrak, 199
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 358
**Tutoretza**
Adin txikikoak, 113, 275
**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 444**
Behin-behineko neurriak, 209
Bidegabeko atzerapenak, 209, 217
Burutik gaixo daudenak, 209
Ediktu-jakinarazpena, 483
Emakumeak, 209, 217
Jakinarazpena, 97, 176
Babes ofizialeko etxebizitzak, 359
**Txiroak**
Gizarte larrialdietarako laguntzak, 117, 368
Laguntza prestazioak, 113
**Txokoak**
Baimenak, 363
Hiri jarduera sailkatuak, 363

## U

**Udal etxebizitzak**
Errenta, 367
**Udal prezio publikoak**
Pasabideak, 185
Zergen bidezkotasunaren printzipioa, 185
**Udal tasak**
Legezkotasun printzipioa, 363
Udal zerbitzu publikoak, 363
Zerga egitatea, 185
**Udal zerbitzu publikoak, 362**
Bideak eta landabideak, 229, 369
Errepideak, 371
Hilerriak, 229
Hiri hondakinak, 229
Ondare erantzukizuna, 236, 361, 362, 366, 372, 374
Oztopoak garraioan
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 231
Udal tasak, 363
Ur hornidura, 241
**Udal zergak**
EIOZ, 373
EJZ, 182
OHZ, 173, 177, 183
TMIZ, 173, 181, 182, 184, 367
**Umeak izateko tratamendua**
Osasun prestazioak, 243, 245
**Unibertsitate hezkuntza**
Bekak, 370
Ebaluazioak, 125, 132, 365
Hezkuntza eskubidea, 445
Ikasleen ebaluazioa, 125, 365
Ikasleen onarpena, 134, 357
Pedagogi gaitasun ikastaroak, 136
**Unibertsitate tituluak, 138**
**Ur hornidura**
Udal zerbitzu publikoak, 241
**Ura eta saneamendua**
Tarifak, 173

## Z

**Zarama**
Prozedura zigortzailea, 232, 362, 366
**Zarata**
Adinekoak, 274
Merkataritza-establezimenduak, 378
Ostalaritza establezimenduak, 222, 364, 406
Papergintza, 225
Tailerrak, 221, 363
**Zerbitzu eta lan atipikoen kontratuak**
Kontratuen adjudikazioa, 379
**Zerbitzu publikoak**
Ondare erantzukizuna, 229, 411
Telebista, 235
**Zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratuak**
Kontratuak suntsiaraztea, 376

**Zergadunen eskubideak**
Interesen itzulketa, 360, 388, 447
Itzulketa, 372
**Zergen alorreko politika**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283
**Zergen alorreko prozedura, 173**
Jakinarazpena, 176
Preskripzioa
TMIZ, 367
Prozedura zigortzailea
BEZ, 180
**Zergen alorreko prozedura zigortzailea**
BEZ, 180
**Zergen bidezkotasunaren printzipioa**
OHZ, 447
Prezio publikoak
Guraso bakarreko familiak, 173, 372, 447
Udal prezio publikoak, 185
**Zibertekak**
Jolas aretoak, 187
**Zigorra betetzea**
Asteburuko atxiloketak, 396
Erregimen irekia
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 95
Espetxearen ordezko zigorrak, 95, 396
Espetxeratuak, 95, 396
**Zigorra non bete**
Erregimen irekia, 469
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 209
Espetxeratuak, 209
Neurri alternatiboak, 469
**Zortasunak**
Hirigintza arauak betearaztea, 378